URRIETA

1936-1945

Giza Eskubideen zapalketa eta errepresioa
Gerra Zibilean eta Lehen Frankismoan

Conculcación de los Derechos Humanos y represión durante la Guerra Civil y el Primer Franquismo

II. Liburukia
Volumen II

Iraitz Arizabaleta Gantxegi
(Bergara, 1990)

Historian Lizentziatua Euskal Herriko Unibertsitatean (2013) eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan, Lanbide Heziketan eta Hizkuntzen Irakaskuntzan irakasle gisa aritzeko gaitzen duen unibertsitate masterra duena. Aranzadi Zientzia Elkarteko ikerlaria.

Licenciado en Historia por la Universidad del País Vasco (2013) y con un máster universitario en habilitación docente para el ejercicio de las profesiones de profesor de Educación Secundaria Obligatoria, Bachillerato, Formación Profesional y Enseñanza de Idiomas. Investigador de la Sociedad de Ciencias Aranzadi.

Mendi eze, ikurrin eder,
aske nahi zaitut axian.
Amar gazteren lerdena
makila luzez bidian.

Mendi-bitxidor berdiok,
arin or duaz kantari:
“Dana emon biyar yako
maite den askatasunari”.

Gaztedi honen didarra
bai dala didar zolija!
Aberri baten samiñez
urduri dabil erija.

Askatasun-goxalderuntz
sugarra dira basuak.
Sugarra basuak eta
zidar argija itxasuak.

Or duan ozte-aldrea
aberri-miñez kantari!:
“Dana emon biar yako
maite den azkatasunari”.

Gazte horreik goruntz duaz
abesti ta ikurriñez.
Lañuan baña tiro hotsak:
bedartza dager odolez.

Ikaraz duaz usuak,
mendija dago ixillean.
Hamar gazteren lerdena
bixitza barik lurrean!

Eta illuntzeko bakian
norbaitek darrai kantari:
“Dana emon biar yako
maite dan azkatasunari”!

Estepan Urkiaga Basaraz “Lauaxeta”.

Militar kolpisten desfilea Lasarteko hipodromoan. / Desfile de militares golpistas en el hipódromo de Lasarte. (Kutxateka).

URNIETA

Matxinada eta diktadura frankistaren errepresioa pairatu zuten urnietarrei eta Euskal Herriaren askatasunaren eta Errepublikaren alde borrokatu zutenei eskaintzen zaie liburu hau.

A todas las personas de Urnieta que sufrieron la sublevación militar y la posterior represión franquista durante décadas de dictadura. A aquellas personas que lucharon por las libertades del Pueblo Vasco y por la República.

Sustatzailea
Promotor

Urnieta

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputatu Nagusia
Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusia
Dirección General de Convivencia y Derechos Humanos

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA
Bakegintza eta Bizikidetzarako
Idazkaritza Nagusia
Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza

PRESIDENCIA
Secretaría General para la Paz
y la Convivencia
Dirección de Víctimas y Derechos Humanos

URNIETA

1936-1945

Giza Eskubideen zapalketa eta errepresioa Gerra Zibilean eta Lehen Frankismoan

Conculcación de los Derechos Humanos y represión durante la Guerra Civil y el Primer Franquismo

Iraitz Arizabaleta Gantxegi

Urnieta 2020

aranzadi

zientzia elkartea

PROIEKTUAREN KOORDINAZIOA / COORDINADOR DEL PROYECTO
Javier Buces, Juantxo Agirre-Mauleon.

IKERLARI KOLABORATZAILEAK / PERSONAL INVESTIGADOR COLABORADOR
Karlos Almorza, Javier Buces, Iñaki Egaña, Francisco Etxeberria, Miren García, Marijose Hernández, Lourdes Herrasti, Rebeca Martínez, Leire Padilla, Olatz Retegi, Maider Urretabizkaia, Ione Zuloaga.

ESKERRAK / AGRADECIMIENTOS
Ikerketa honetarako testigantza eta dokumentazioarekin lagundu duten guztiei: Marijo Henriques Urnietako udal artxiboko arduraduna, Urnietako udal langileei, Urnietako udal talde politikoei, Sabino Arana Fundazioari eta Euskal Memoriari. / A todas las personas que han prestado sus testimonios, documentación y han colaborado en esta investigación; a Marijo Henriques, encargada del archivo municipal de Urnieta, al personal del Ayuntamiento de Urnieta, a los grupos políticos municipales de Urnieta, Fundación Sabino Arana y Euskal Memoria.

DIGITALIZAZIOA / DIGITALIZACIÓN
Ana Isabel Rodríguez, Aranzadiko Artxibo Orokorra.

EDUKIAREN ZUZENTZAILEA / REVISIÓN DE CONTENIDOS
Karlos Almorza.

AZALEKO ARGAZKIA / IMAGEN DE PORTADA
Bigarren liburukian, portadaren irudian: Andoaindar eta oriar milizianoak, Rosa Luxemburgo batailoiarekin Bizkaian (Euskal Memoria) / En el segundo tomo en imagen de portada: Milicianos de Andoain y Oria en el batallón Rosa Luxemburgo en Vizcaya (Euskal Memoria)

ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA. Zorroagagaina 11. Donostia-San Sebastián 20014. Tfnoa.: 943466142. www.aranzadi.eus

Egilea / Autor
Iraitz Arizabaleta Gantxegi, Aranzadi Zientzia Elkarteko Ikerlaria.

Itzulpena / Traducción
Asier Olazabal.

Maketazioa / Maquetación
TamTam S.L.

Inprimategia / Imprime
Leitzaran Grafikak, S.L.

ISBN 978-84-17713-26-3 (O.C.)
ISBN 978-84-17713-28-7 (I. liburukia)
ISBN 978-84-17713-29-4 (II. liburukia)

L.G. D 00903-2020

Aurkibide orokorra
Índice general

4. ERREPRESIOA URNIETAN ETA URNIETARREN AURKA / LA REPRESIÓN EN URNIETA Y CONTRA LOS URNIETARRAS 09

4.1. Udalbatza frankistaren eraketa: erregimen berria Urnietan / La formación de la corporación municipal franquista: el Nuevo Régimen en Urnieta 10

Gerra esfortzua / El esfuerzo de guerra 14

Gerraosteko ekonomia / La economía de la posguerra 17

Errazionamendua / Racionamiento 18

Estraperloa / El estraperlo 21

Erregimen Berriaren indar erakustaldiak, memoria ezabatu eta gizarte berria eraikitzea / Demostraciones de fuerza del Nuevo Régimen, borrar la memoria y construir una nueva sociedad 27

Euskarari erasoak / Ataques al euskara 29

Errusiar Txuriak Urnietan / Rusos Blancos en Urnieta 30

Erregimen Berriaren aurkako erresistentzia, lehen arrakalak / La resistencia contra el Nuevo Régimen, las primeras fisuras 32

4.2. Emakumeen aurkako errepresioa / La represión contra las mujeres 38

1936ko uztailaren 18, gerra eta eskubideen defentsarako borroka / 18 de julio de 1936, la guerra y la lucha para la defensa de los derechos 39

Gerraren galera eta “Espainia berriko” emakumea / La pérdida de la guerra y la mujer de la “Nueva España” 42

Emakumeen aurkako erasoak Urnietan / Agresiones contra mujeres en Urnieta 46

4.3. Epaiz kanpo exekutatutako urnietarrak / Urnietarras ejecutados extrajudicialmente 57

Epaiz kanpo exekutatuak Urnietako Lasarte edo Oria auzoetan, edota Urnietarekin erlazioa dutenak / Fusilados extrajudicialmente en los barrios de Lasarte u Oria de Urnieta, o que tengan relación con Urnieta 67

4.4. Langile publikoen kaleratzea, garbiketa-prozesua / Empleados públicos despedidos, proceso de depuración 70

Irakasleen garbiketa-prozesuak / Depuración de profesores 75

Aldundiko langileen garbiketa-prozesuak / Depuración de los trabajadores de la Diputación 80

4.5. Urnietako elizgizonen aurkako jazarpena / La persecución contra los clérigos de Urnieta 82

4.6. Errepresio ekonomikoa / Represión económica 84

4.7. Erantzukizun Politikoen Tribunalek epaituak / Juzgados por los Tribunales de Responsabilidad Política 99

4.8. Espetxe, Kontzentrazio esparru eta Langileen Batailoietan (LB) egon zirenak / Los que estuvieron en prisión, en campos de concentración o en Batallones de Trabajadores (BT) 106

Kontzentrazio esparruak eta Langileen Batailoiak / Campos de concentración y Batallones de Trabajadores 110

Gurs / Gurs 118

Alemaniako kontzentrazio esparruak / Campos de concentración de Alemania 131

4.9. Gerra Kontseiluak / Consejos de guerra 133

Gerra Kontseiluan epaituak eta Urnietarekin lotura zutenak / Juzgados en Consejo de Guerra y que tenían relación con Urnieta 199

5. LEKUKOTZAK / TESTIMONIOS 203

ITURRIAK ETA BIBLIOGRAFIA / FUENTES Y BIBLIOGRAFÍA 275

Ondarretako espetxea, ehunka euskaldunen kartzela izan zen. /
La cárcel de Ondarreta fue la cárcel de cientos de vascos.
(Euskal Memoria).

Errepresioa Urnietan eta urnietarren aurka

La represión en Urnieta y contra los urnietarras

4.



4.1. UDALBATZA FRANKISTAREN ERAKETA: ERREGIMEN BERRIA URNIETAN

Urnietan, kolpistak hasiera batean irailaren 6an sartu baziren ere, ez zuten herria guztiz beraien kontrolpean izan irailaren 11 arte, baina frontearen hurbiltasuna zela eta, oraindik gerra hotsak hurbil entzuten ziren eta militarrak ziren jaun eta jabe herrian. Baina behin Donostia altxatuen armadaren esku geratu eta Gipuzkoan barna erreketeen zutabeak etengabeko aurrerakadan zirela probestuz, beraien burua garailetzat zuten eskuindarrek Urnietan boterea hartu eta hau antolatzen hasi ziren. Helburua herritik ihes egitera behartua agertu zen Urnietako udalbatza demokratikoak utzitako hutsunea Mugimendu Nazionalarekiko kidekoak ziren pertsonez betetzea zen, udalbatzatik hasita, herriko administrazio eta erakunde ezberdinetara.

Urnietaren agintari berriak, herriko karlistak izan ziren, tradizionalistak eta eskuindarrak funtsean, errepublika garaian jada mugimendu horren buru izan zirenak. Hauek, Gipuzkoako Karlisten Gerra Batzordearen meneko zen Urnietako Karlisten Batzordea eratu zuten eta honek uztailaren 18tik aurrera hartutako erabaki guztiak bere egin zituen. Beraz, estatu-kolpea eta gero lehen aldiz, 1936ko irailaren 17an batu ziren, herriko udalbatza berria eratzeko helburuarekin, aurrerantzean Urnietako alkate, alkateorde eta zinegotziak izango zirenak erabakiz. Udalbatza berria, karlismo tradizionaletik zetozen pertsonek eratu zuten orduan, herriko mugimendu tradizionalistetatik zetozenak eta askok euskal abertzaletasunaren arlo eskuindarrarekin lotura nabarmenak zituztenak.

4.1. LA FORMACIÓN DE LA CORPORACIÓN MUNICIPAL FRANQUISTA: EL NUEVO RÉGIMEN EN URNIETA

Aunque los golpistas entraron en Urnieta en un principio el 6 de septiembre, no llegaron a tener todo el pueblo bajo su control hasta el 11 de septiembre, pero debido a la cercanía del frente, todavía se oían cerca los sonidos de la guerra y los militares eran los dueños en el pueblo. Pero una vez que Donostia quedó en manos del Ejército sublevado, y aprovechando que las columnas requetés avanzaban sin parar por Gipuzkoa, los derechistas, creyéndose vencedores, tomaron el poder en Urnieta y empezaron a organizarlo. El objetivo era llenar el vacío que había dejado la corporación municipal democrática que se había visto obligado a huir del pueblo, con personas afines al movimiento nacional. Empezaron con la corporación, y siguieron con las diferentes administraciones y organizaciones locales.

Las nuevas autoridades de Urnieta fueron los carlistas del pueblo; en el fondo, tradicionalistas y derechistas que durante la República ya eran los jefes de ese movimiento. Estos crearon la Comisión Carlista de Urnieta, que estaba bajo las órdenes de la Comisión de Guerra Carlista de Gipuzkoa, e hizo suyas todas las decisiones tomadas a partir del 18 de julio. Por lo tanto, por primera vez desde el golpe de Estado, se reunieron el 17 de septiembre de 1936, con el objetivo de formar la nueva corporación local, con los que en adelante serían los nuevos concejales, los teniente alcalde y alcalde de Urnieta. Entonces, la nueva corporación la formaron personas del carlismo tradicional, esto es, gente que venía del movimiento tradicionalista local, y de los cuales muchos tenían vínculos importantes con el ámbito derechista del nacionalismo vasco.



En cumplimiento de la circular publicada por V.E. en el Boletin Oficial fecha seis de los corrientes, adjunto relación en la forma que se halla constituido la Comisión Gestora, es como a continuación se expresa.

D. Bartolome Ugalde Arizmendi- ..... Alcalde... Tradicionalista
D. Manuel Isaguirre Alcorta..... 1º T. Alcalde. id
D. Florentino Ugalde Arizmendi..... 2º T. Alcalde. id
D. Luis Recondo Ordorgoiti..... Síndico id
D. Juan José Echeverria Ayerbe..... 1º Concejal id
D. Eugenio Aldanondo Aristimuño..... 2º id id
D. Jacinto Achaga Irastorza..... 3º id id
D. José Ubillos Olaraguirre..... 4º id id
D. José Irusta Ostolaza..... 5º id id

Urnieta a 12 de Noviembre del 1936.

El Alcalde

El Secretario Interino

Udalbatza kolpistaren osaketa dokumentua. (UUA). / **Documento de formación de la corporación municipal golpista.** (AMU).

1936KO IRAILEAN ERATUTAKO UDALBATZA FRANKISTA /
CORPORACIÓN MUNICIPAL FRANQUISTA FORMADA EN SEPTIEMBRE DE 1936

IZENA / NOMBRE	KARGUA / CARGO	FILIAZIOA / FILIACIÓN
UGALDE ARIZMENDI, BARTOLOME	Alkatea / Alcalde	Tradizionalista / Tradicionalista
IZAGUIRRE ALCORTA, MANUEL	Lehen alkateordea / Primer teniente alcalde	Tradizionalista / Tradicionalista
UGALDE ARIZMENDI, FLORENTINO	Bigarren alkateordea / Segundo teniente alcalde	Tradizionalista / Tradicionalista
RECONDO ORDOZGOITI, LUIS	Sindikoa / Síndico	Tradizionalista / Tradicionalista
ECHEVERRIA AYERBE, JUAN JOSE	Zinegotzia / Concejal	Tradizionalista / Tradicionalista
ALDANONDO ARIZTIMUÑO, EUGENIO[240]	Zinegotzia / Concejal	Tradizionalista / Tradicionalista
ACHAGA IRASTORZA, JACINTO	Zinegotzia / Concejal	Tradizionalista / Tradicionalista
UBILLOS OLAZAGUIRRE, JOSE	Zinegotzia / Concejal	Tradizionalista / Tradicionalista
IRAOLA OSTOLAZA, JOSE[241]	Zinegotzia / Concejal	Tradizionalista / Tradicionalista
ENGUITA, ELOY[242]	Idazkaria / Secretario	Tradizionalista / Tradicionalista

Franco eta diktaduraren aldeko aldarriak etengabeak izan ziren urte hauetan. (Euskal Memoria). **/ En estos años fueron incesantes las proclamas a favor de Franco y la dictadura.** (Euskal Memoria).

[240] 1939/07/31n kanporatua Gobernadore Zibilaren aginduz. / Expulsado por orden del Gobernador Civil el 31/07/1939.
[241] 1940/06/30ean kanporatua Gobernadore Zibilaren aginduz. / Expulsado por orden del Gobernador Civil el 30/06/1940.
[242] 1937/07/25ean Juan Bautista Ayerbe Irastorza idazkaria berrezarri. / El 25/07/1937 repusieron al secretario Juan Bautista Ayerbe Irastorza.

Udalbatza honen oinarria, 1934ko euskal udalbatzen dimisioaren ostean sortutako batzorde kudeatzailean aurkitzen dugu. Hau, urte horretako irailean Jose Maria Belaunzaran eta gainontzeko zinegotziek Estatutuaren aldeko borrokaren baitan dimititu eta gero, CEDAren gobernu eskuindarraren aginduz eratu zen Biurteko Beltzean sortu zen. Hain zuzen ere, 1936ko irailean antolatu zen erreketeen udal gobernua sortzean zinegotzi guzti hauek kolpisten eskutik berriro ere agintera itzuli ziren.

Udalbatza berriaren lehen erabaki guztiak, herriko lehen gobernu demokratikoak hartu zituen erabaki ugari atzera botatzea izan zen, abertzale eta ezkertiarrek eginiko lana ezabatu nahi baitzuten herritik, kosta ahala kosta. Horrela, udalbatzak egin zuen lehen bilkuran hiru erabaki hartu ziren eta jarraian azaltzen direnak ziren:

1. Sabino Arana kaleari izena aldatzea eta Idiazabal bezala izendatzea.
2. Jesusen Bihotz Sakratuaren tronuratzea kapitulu-gelan.
3. Gurutzeak ezartzea eskola nazional guztietan[243].

Hurrengo bilkuretan ildo bereko erabakiak hartuko ditu udalbatzak, izan "armada nazional loriatsuaren" aldeko harpidetza bat irekitzea eta herritarrak bertan parte hartzera sustatzea, edota ikur nazionalak ezartzeko behar adina ehun gorri eta horiak erostea. Horretaz gain, Juan Eguizabal Oriako auzo-alkate berria izendatu zuten eta Errepublika garaian udalak kontratatu zituen zerbitzu ezberdinen fakturak atzera botatzeari ekin zion[244]. Izan ere, errepublikanoekin lan egin zuten pertsonak kolaborazionistatzat jotzen zituzten eta 1936ko irailaren 17az aurretiko faktura guztiak era sistematiko batean atzera bota zituzten.

Horretaz gain, herriko batzorde karlistako kideak ezarri zituzten aguazil moduan, ordena publikoa mantendu eta zergak kobratzeko, Domingo Zabala eta Juan Inchauste erreketeak. Izan ere Lasarteko abiazio-zelaian hainbat obra egin ziren, kuartel militar bat bezala erabiltzeko eta gainera Urnieta soldaduek sortzen zuten gastu energetikoaren kargu egin behar zen[245]. Herriko baserriak, astero ezberdin batek, herriko errekete taldearen mantenurako egunean hiru litro esne eman behar zituzten. Gainera, udalbatza, armada kolpista aurrera eramaten ari zen gerra sostengatzeko zerga eta karga berriak diseinatzeari ekin zion, herritarrenganako presio ekonomikoa areagotuz, soldata jaitsierak egoera larriagotu zuelarik.

Udalbatzak orduan herriko sektore tradizional guztiekin bat egin zuen. Hauek, Mugimendu Nazionalaren defentsan batu ziren sektore guztiak ordezkatzen zituen. Gainera, Errepublikaren defentsaren aldekoen errepresioan nabarmenduko ziren, besteak beste, Bartolome Ugalde alkatea, Juan Ayerbe Irastorza parrokoa, honen anaia zen Juan Bautista Ayerbe Irastorza udal idazkaria (tradizionalista sutsua, erregimen berriaren sustatzaile porrokatua eta salaketa eta informe ugariren egilea), Luis Recondo Ordozgoiti (herriko

Hay que tener en cuenta, que en septiembre de 1934, la corporación que dirigía José María Belaunzaran durante la República, como muchas otras corporaciones de Euskal Herria, dimitió ante las decisiones tomadas contra el movimiento de creación del Estatuto Vasco. En consecuencia, el 15 de septiembre, el gobierno derechista del CEDA creó una comisión gestora en el pueblo, y precisamente, en septiembre de 1936, cuando se creó el gobierno municipal de los requetés, estaban todos los miembros de esa comisión creada durante el Bienio Negro.

Las primeras decisiones de la nueva corporación municipal estuvieron dirigidas a rechazar muchas decisiones que había tomado el anterior gobierno democrático local, pues querían, a toda costa, eliminar del pueblo el trabajo que habían hecho los abertzales y los izquierdistas. De ese modo, en la primera reunión que realizó la corporación se tomaron las siguientes tres decisiones:

1. Cambiar el nombre a la calle Sabino Arana por la de Idiazabal.
2. Entronizar el Sagrado Corazón de Jesús en la sala capitular.
3. Colocar cruces en todas las escuelas nacionales[243].

En las siguientes reuniones, la corporación seguirá tomando decisiones parecidas; por ejemplo, abrir una suscripción a favor del "Glorioso Ejército Nacional" y alentar a la gente del pueblo a que participara, o comprar suficientemente tela roja y amarilla para poner los símbolos nacionales. Además de eso, nombraron al nuevo alcalde pedáneo de Oria, Juan Eguizabal, y empezaron a rechazar facturas de los servicios que el ayuntamiento de la República había contratado[244]. Consideraban de colaboracionistas a las personas que trabajaron con los republicanos y, sistemáticamente, rechazaron todas las facturas anteriores al 17 de septiembre de 1936.

Además, para mantener el orden público y cobrar los impuestos, pusieron de alguacil a dos miembros de la comisión carlista local: los requetés Domingo Zabala y Juan Inchauste. En el campo de aviación de Lasarte se hicieron muchas obras, para poder utilizarlo como cuartel militar y, además, Urnieta se tenía que hacer cargo del gasto energético que suponían los soldados[245]. Los caseríos del pueblo, uno diferente cada semana, tenían que dar tres litros de leche al día para el mantenimiento del grupo de requetés del pueblo. Además, la corporación municipal empezó a diseñar nuevos impuestos y cargas para sustentar la guerra que estaba llevando a cabo el Ejército golpista, acrecentando la presión económica sobre los urnietarras. La bajada de los sueldos no hizo más que agravar la situación.

Entonces, la corporación se unió con todos los sectores tradicionales del pueblo. Estos, representaban todos los sectores que se habían unido en defensa del movimiento nacional. Además, en la represión contra los defensores de la República destacarían, sobre todo, el alcalde Bartolomé Ugalde, el párroco Juan Ayerbe Irastorza, su hermano el secretario municipal Juan Bautista Ayerbe Irastorza (fervoroso tradicionalista, empedernido alentador del Nuevo Régimen y autor de muchas denuncias e informes), Luis Recondo

[243] UUA, sig. PI32-1936. / AMU, sig. PI32-1936.
[244] UUA, sig. PL33-1936. / AMU, sig. PL33-1936.
[245] UUA, 1936ko udal-korrespondentzia. / AMU, correspondencia municipal de 1936.

tradizionalisten burua, FET-JONSekoa ostean) eta Saturnino Larburu (udal epailea eta ondoren FET-JONSeko burua 1939tik). Hauek Urnietako ikuspegitik, baina errepresioaren beste atal garrantzitsu bat Lasarteko Komandantzia Militarretik garatu zen, hau 1936ko urrian sortu zen eta 1937ko apiriletik Felix Montes Arroyo zuen buruzagitzan[246].

Ordozgoiti (jefe de los tradicionalistas locales; después de las FET-JONS) y Saturnino Larburu (juez municipal y a partir de 1939, jefe de las FET-JONS). Estos desde la perspectiva de Urnieta, pero otra parte importante de la represión se desarrolló desde la Comandancia Militar de Lasarte; esta se creó en octubre de 1936, y a partir de abril de 1937, fue dirigido por Félix Montes Arroyo[246].

Juan Ayerbe erretorea. (Erretratu Zaharrak). **/ El párroco Juan Ayerbe.** (Erretratu Zaharrak).

Saturnino Larburu Ubillos epailea eta FET-JONS burua (eskuineko gizona). (Erretratu Zaharrak). **/ El juez y jefe de las FET-JONS Saturnino Larburu Ubillos (el hombre de la derecha).** (Erretratu Zaharrak).

Florentino Ugalde Arizmendi zinegotzia (ezkerrean markatua dagoena) eta Bartolome Ugalde Arizmendi alkatea (eskuinean markatua dagoena). (Erretratu zaharrak). **/ El concejal Florentino Ugalde Arizmendi (marcado en la izquierda) y el alcalde Bartolomé Ugalde Arizmendi (marcado en la derecha).** (Erretratu zaharrak).

[246] UUA, 1937ko udal-korrespondentzia. / AMU, correspondencia municipal de 1937.

Agintari guzti hauek arduratu ziren hurrengo urteetan Errepublikaren alde lerratu ziren herritar guztien aurkako informeak idazteaz, errepresio ekonomikoa eta ondasunen konfiskazioa gauzatzeaz eta hau pairatu behar zuten pertsonak izendatzeaz. Arlo honetan, nabarmendu behar da aktore politiko hauek pisu nabarmena izan zutela gerra kontseiluetan eman ziren kondena ezberdinetan, beraein informeak herritarren aurkako salaketen oinarri izan baitziren. Gainera, gehienetan informe hauek berdinak izaten ziren, izan parrokoa edota alkatearenak, askotan aldatzen zen bakarra sinadura bakarrik izaten zelarik. Beraz, suposa genezake errepresioa gauzatzerakoan guztien artean adosten zituztela salaketak edota oinarri amankomun batetik abiatzen zirela. Herriko memorian, biziki txertatuta geratu zen Ayerbe Irastorza anaien jarrera, bietatik Juan Bautista udal idazkaria nabarmendu zen, zein tradizionalista sutsua zen. Errepublikaren garaian talka ugari izan zituen udalarekin eta errepublikanoen esku preso egon eta gero herrira itzultzean Errepublikaren alde defentsan jardun zuten guztien aurka ekin zuen etengabe.

Horretaz gain, erregimen berriaren ideal, politika eta morala era zurrun eta irmo baten inposatzen saiatuko ziren hurrengo urteetan. Izan ere, udalbatza egonkor mantendu zen urte luzez, aldaketa minimoekin, solik bi zinegotzi kargugabetu baitziren eta soilik Gobernadore Zibilak ezarritako irizpideen arabera udala berrantolatu eta behar ziren zinegotzi kopurua jaitsi zenean.

Funtsean, kontuan izan behar baitugu, erregimen honek izaera guztiz zentralista bat izan zuela, hau da, egitura bertikal baten baitan funtzionatzen zutela eta udal mailan hartzen ziren erabakien gehiengoa, Gipuzkoako Aldundian edota Gobernadore Zibilaren bulegoan idazten zirela. Azken finean, udalbatza hauen ordezkari soil bat izatera mugatzen baitzen. Gainera, gerrak iraun zuen bitartean, Lasarteko Komandantzia Militarra izan zen Urnietako bizitza gidatu eta zuzentzen zuena[247].

Gerra esfortzua

Erregimen berriaren izaera bereizgarria estatu egitura zurrun eta zentralista bat eratzea izan zen, non egitura guztiz bertikalen bitartez funtzionatzen zuten. Ondorioz, herriko agintariak beraien gorengoen aginduak egikaritzea zuten helburu bakar moduan, administrari soil batzuk izatera mugatuz. Egitura hauek, gerra urteetan agintari militarren esku egon ziren eta Urnietaren kasuan, Lasarten ezarri zen Komandantzia Militarra izan zen aginte militar nagusia, inguruko herrietako agintaritza zuena.

Komandantzia honen aginduz, 1936 urtearen amaieran udalak langile talde bat bidali behar izan zuen Lasarteko abiazio-zelaian lan egitera, gutxienez 34 langilek osatu zutena. Hauek, militarren agindupean kuartel militar honek era egokian funtzionatzeko beharrezkoak ziren lanak burutzen jardun zuten, abuztuan eraitsitako zubia konponduz edota eraikin berriak eta errepideak eginez. Hauetako batzuk indarrez eraman zituzten eta ez zuten egindako lanagatik ordainsaririk jaso.

Todas esas autoridades se encargarían durante los años siguientes de redactar informes contra todas las personas del pueblo que se habían alineado a favor de la República, de llevar a cabo confiscaciones de bienes y de asignar a las personas que tenían que sufrirlas. En ese ámbito, hay que destacar que esos actores políticos tuvieron un gran peso en las condenas que se dieron en los consejos de guerra, pues sus informes fueron la base para las denuncias contra la gente del pueblo. Además, la mayoría de las veces, estos informes eran iguales, fueran del párroco o del alcalde; muchas veces, lo único que cambiaba era solamente la firma. Por lo tanto, suponemos que a la hora de llevar a cabo la represión, las denuncias las acordaban entre todos o que tenían una base común. En la memoria local quedó totalmente incrustado la actitud de los hermanos Ayerbe Irastorza. De los dos destacó el secretario municipal Juan Bautista; este tradicionalista fervoroso tuvo muchos enfrentamientos con el ayuntamiento, durante la República, y tras estar preso en manos de los republicanos, al volver al pueblo, actuó incesantemente contra todos los que abogaron por la defensa de la República.

Además, durante los años siguientes intentarían imponer los ideales, la política y la moral del Nuevo Régimen de un modo severo y firme. La corporación municipal se mantuvo estable durante largos años, con cambios mínimos, pues solo se cesaron dos concejales, y solo se redujo el número de concejales cuando se reorganizó el ayuntamiento según los criterios impuestos por el gobernador civil.

En el fondo, tenemos que tener en cuenta que este régimen era de carácter totalmente centralista, que funcionaba en torno a una estructura vertical. La mayoría de las decisiones que se tomaban a nivel municipal se redactaban desde la Diputación de Gipuzkoa o de la oficina del Gobernador Civil; al fin y al cabo, la corporación municipal se limitaba a ser un mero representante de estos. Además, mientras duró la guerra, era la Comandancia Militar de Lasarte la que guiaba y dirigía la vida de Urnieta[247].

El esfuerzo de guerra

La característica distintiva del Nuevo Régimen era crear una estructura estatal rígida y centralista, que funcionaba mediante estructuras totalmente verticales. En consecuencia, el único objetivo de las autoridades locales era acatar las órdenes de sus superiores, por lo que pasaban a ser meros administradores. Estas estructuras estuvieron en manos de las autoridades militares durante los años de la guerra, y en el caso de Urnieta, la autoridad militar superior era la Comandancia Militar que se estableció en Lasarte, que tenía la autoridad de los pueblos de alrededor.

Por orden de esa comandancia, a finales de 1936, el ayuntamiento tuvo que mandar un grupo de trabajadores –formado por al menos 34 personas– a trabajar en el campo de aviación de Lasarte. Estos, bajo órdenes militares, estuvieron haciendo trabajos que eran imprescindibles para el adecuado funcionamiento de este cuartel militar; por ejemplo, arreglando el puente derruido en agosto o haciendo nuevos edificios y carreteras. Algunos de esos obreros fueron llevados a la fuerza y no recibieron ninguna remuneración por el trabajo realizado.

[247] Imaz, I. (2011). / Imaz, I. (2011).

Militarrek gainera Oriako Brunet enpresako etxeak konfiskatzeko agindua eman zioten udalari, izan ere hauek uzteko beharra zuten, bertan ospitale militar bat ezarri baitzuten, armada kolpistak Bizkaiko frontean borrokan jasaten zituen zaurituak artatzeko[248].

Además, los militares dieron la orden al ayuntamiento de confiscar las casas de la empresa Brunet de Oria, pues querían instalar un hospital militar para atender a los heridos en combate del Ejército golpista en el frente de Bizkaia[248].

DIRU EKARPENAK ETA MUGIMENDU NAZIONALAREN ALDEKO GASTU EKONOMIKOA UDALAREN ALDETIK /
APORTACIONES DE DINERO Y GASTO ECONÓMICO EN FAVOR DEL MOVIMIENTO NACIONAL POR PARTE DEL AYUNTAMIENTO DE URNIETA

KONTZEPTUA / CONCEPTO	KOPURUA (pezetetan) / CANTIDAD (en pesetas)
Harpidetza Nazionala / Suscripción nacional	1000
"España" korazatuarentzat harpidetza / Suscripción para el acorazado *España*	250
Lasarteko abiazio-zelaiaren energia elektrikoa (udalaren estimazioa) / Energía eléctrica del campo de aviación de Lasarte (estimación del ayuntamiento)	4000
Erreketeen hornidura eta ondasunen konfiskazioa / Abastecimiento de los requetés y confiscación de bienes	774
Lasarteko Komandantzia Militarraren gastuei aurre egiteko laguntza / Ayuda para hacer frente a los gastos de la Comandancia Militar de Lasarte	720
"Requeté" irratiaren gastuei aurre egiteko laguntza / Ayuda para hacer frente a los gastos de la radio "Requeté"	330

HARPIDETZAK / SUSCRIPCIONES

KONTZEPTUA / CONCEPTO	KOPURUA (pezetetan) / CANTIDAD (en pesetas)
"Nuestra Señora de la Cabeza"-rentzako monumentuarentzat / Para el monumento de Nuestra Señora de la Cabeza	219.30
"Askatutako" hirientzat / Para las ciudades "liberadas"	82 eta elikagaiak / 82 y alimentos
Soldaduentzako gabonsaria 1937 / Aguinaldo para los soldados 1937	1756.35
Soldaduentzako gabonsaria 1938 / Aguinaldo para los soldados 1938	4774.20

LASARTEKO ABIAZIO-ZELAIRA UDAL FRANKISTAK LANERA BIDALITAKO HERRITARRAK /
URNIETARRAS QUE EL AYUNTAMIENTO FRANQUISTA MANDÓ A TRABAJAR AL CAMPO DE AVIACIÓN DE LASARTE

ALBISU, JOSE MARIA	ELUSTONDO, MANUEL	MARTIARENA, AGUSTIN
ALMORZA, VICTOR	ERQUICIA, GABRIEL	MURGUIONDO OYARBIDE, JOSE
ALTUNA, SANTIAGO	GARAGORRI, CLAUDIO	OLACIREGUI, IGNACIO
ARIN, FELICIANO	GARMENDIA, MARTIN	PEÑAGARICANO, JOSE MARIA
ARIN, IGNACIO	GOICOECHEA, PEDRO	REZOLA, JUAN JOSE
AYESTARAN, JUAN BAUTISTA	GORROCHATEGUI, PEDRO	TOLEDOCHIQUI, PASCUAL
BERAZA, MIGUEL	ICETA, ANTONIO	URANGA, VICENTE
BERAZA, ROSARIO	IRULEGUI, IGNACIO	URREAGA, PEDRO
CAMIO, JOSE	JUANGORENA, ANTONIO	USARRALDE, SANTIAGO
CHAPARTEGUI, FRANCISCO	LASARTE, CLAUDIO	ZUGAZTI, JERONIMO
CHAPARTEGUI, JOSE ANTONIO	LASARTE, RAMON	
ELOSEGUI, AMBROSIO	LICEAGA, NICANOR	

Horretaz gain, udalak kuartel militar honek sortzen zituen energia zein beste hainbat gasturi aurre egin behar izan zion, eta kuartel horrek bakarrik udalari 4.720 pezetako gastua sortu zion gutxienez. Kontuan izanik gerraosteko zailtasun ekonomikoak, galera nabarmenak sortu zizkion udalari gastu hauek. Azkenik, gerra urteetan eginiko mobilizazio orokorraren ondorioz, ehunka gazte indarrez armada kolpistarekin

Además de eso, el ayuntamiento tuvo que hacer frente a los gastos energéticos y a otros gastos que generaba ese cuartel militar. Solamente el cuartel le supuso al ayuntamiento un gasto de al menos 4 720 pesetas. Teniendo en cuenta las dificultas económicas de la posguerra, estos gastos supusieron graves pérdidas para el ayuntamiento. Finalmente, por consecuencia de la movilización general de los años de gue-

[248] UUA, 1937ko udal-korrespondentzia. / AMU, correspondencia municipal de 1937.

borrokatzera deituak izan ziren, Bizkaia, Teruel edota Kataluniako fronteetan borrokatuz besteak beste. Udala soldadu hauentzat gabonsariak bildu eta ordaintzeaz arduratu behar izan zen, milaka pezetako gastuak sorraraziz.

rra, cientos de jóvenes fueron llamados a la fuerza a combatir con el Ejército golpista, por ejemplo, en los frentes de Bizkaia, Teruel o Cataluña. El ayuntamiento también tuvo que hacerse cargo de reunir y pagar los aguinaldos para esos soldados, produciendo gastos de miles de pesetas.



Lasarteko hipodromoan soldadu frankistak desfilatzen. (Kutxateka). / **Soldados franquistas desfilando en el hipódromo de Lasarte.** (Kutxateka).

Urnietarrak Espainiako Estatuko fronte ezberdinetan borrokatu zuten bezala, ez ziren soldadu gutxi izan Lasarteko hipodromoan ezarri zen kuartel militarretik pasa zirenak ere. Honek, udalari gastu ekonomikoa sortzeaz gain, hainbat arazo sortarazi zizkion. Horrela, batez ere Lasarte eta Oriako bizilagunen aldetik, hainbat kexa igorri ziren soldaduen jarreren harira. Auzoa zikintzen zutela, beraien janarien soberakinak lurrera botaz izan zen bat, baina larriagoak ere egon ziren. Ohikoak izan ziren gauetan soldaduek sortutako zarata eta istiluen inguruko kexak, batzuetan itxitako tabernak irekiarazten baitzituzten. Horietako batean, herritarrek, soldaduak gauez zarata eta istiluak sortzen zituztela eta emakumeekin berandu arte egoten zirela salatu zuten. Agintari militarrek mezu oldarkor batean auzoko emakumeei bota zien errua, ezanez emakume "txarrak" zirela eta beraien soldaduak kutsatu zituztela[249]. Agintari militarren jarrera oldarkorra zela eta, kexa ez zen berriro errepikatu, agian errepresioaren beldur.

Tal como los urnietarras combatieron en varios frentes del Estado español, no fueron pocos los soldados que pasaron por el cuartel militar establecido en el hipódromo de Lasarte. Este, además de producir gastos económicos, también le produjo varios problemas. Por ejemplo, los vecinos de Lasarte y de Oria enviaron muchas quejas por la actitud de esos soldados. En una se decía que ensuciaban el barrio echando las sobras de comida al suelo, pero también hubo asuntos más graves. Fueron habituales las quejas sobre los ruidos y altercados que producían los soldados por la noche, pues a veces hacían abrir de nuevo los bares cerrados. En una de ellas se decía que los soldados hacían ruido y que producían altercados por la noches, y que solían estar hasta tarde con mujeres. En un mensaje acometedor, las autoridades militares echaron la culpa a las mujeres, diciendo que eran mujeres "malas" y que habían contagiado a sus soldados[249]. Debido a la actitud desafiante de las autoridades militares, la queja no se volvió a repetir, seguramente por miedo a la represión.

[249] UUA, 1941ko udal-korrespondentzia. / AMU, correspondencia municipal de 1941.

Kolpisten aliatuen gorazarrea ohiko bilakatu zen urte hauetan. (Euskal Memoria). / **Durante estos años se convirtió en habitual el elogio a los aliados de los golpistas.** (Euskal Memoria).

Gerraosteko ekonomia

1936ko irailetik 1939ko apirila bitarte, Urnietako gizartea erabat militarizatua bizi izan zen, ehunka herritar frontean borrokatzera behartuak aurkitu ziren eta herriko agintaritza nagusietako bat Lasarteko Komandantzia Militarra izan zen. Honek bere isla izan zuen herriko ekonomian ere, gerra ekonomia ezarri baitzen herrian, non ekonomiaren arlo guztiak autoritate frankisten kontrolpean geratu ziren.

Herria utzi eta errefuxiatu eta gudari zein miliziano joan zirenek, berriro herrira itzultzean gauzak goitik behera aldatu zirela ikusi zuten. Itzuli ziren askok beraien etxean beste familia batzuk aurkitu zituzten eta beraien ondasunak orain beste batzuen eskuetan zeudela ikusi zuten. Langile familiek berriz, bizi ziren etxeetan beste maizter batzuk bizitzen aurkitu zituzten eta gainera beraien lanpostua galdu zutela. Beste askok zailtasunak izan zituzten herrira itzuli zirenean esaterako Barcaiztegui Garmendia sendiko amak, Ignacia Garmendiak, Orian zuten familiako harategia irekitzeko baimena ez zuen 1937ko maiatza arte lortu, 9 hilabetez itxita izatera behartu baitzuen udalbatzak[250].

Baina lanpostuen galera ez zen izan kolpe bakarra, izan ere, Errepublika garaian lortutako langileen eskubide eta aurrerapenak ezabatu ziren, lan erlazioak goitik behera eraldatuz langileen eskubide eta baldintzak asko okertuz. Izan ere 1940an argitaratu zen Sindikatuen Antolaketaren Oinarri Legeak lan baldintza zurrunak ezarri zituen, eta Estatu berriak Errepublikaren alde kokatu ziren alderdi politiko eta sindika-

La economía de la posguerra

Desde septiembre de 1936 hasta abril de 1939, la sociedad de Urnieta vivió totalmente militarizada: cientos de urnietarras fueron obligados a combatir en el frente y una de las autoridades principales del pueblo fue la Comandancia Militar de Lasarte. Esto tuvo su reflejo también en la economía, ya que en el pueblo se había establecido una economía de guerra, donde todos los ámbitos de ella quedaron bajo control de las autoridades franquistas.

Tanto los que abandonaron el pueblo y se refugiaron, como los gudaris y milicianos, cuando volvieron al pueblo, vieron que las cosas estaban cambiadas totalmente. Muchos de los que volvieron encontraron a otras familias en sus casas, y vieron que sus bienes estaban en manos de otros. Las familias de obreros encontraron a otros inquilinos en las casas en las que habían vivido y, además, habían perdido su puesto de trabajo. Otros muchos tuvieron dificultades cuando volvieron al pueblo; por ejemplo, Ignacia Garmendia, madre de la familia Barcaiztegui Garmendia, no consiguió el permiso para abrir la carnicería familiar que tenían en Oria hasta mayo de 1937, pues el ayuntamiento les obligó a tenerlo cerrado durante 9 meses[250].

Pero la pérdida de puestos de trabajo no fue el único golpe, porque también se eliminaron los derechos y avances que los trabajadores consiguieron durante la República, cambiando totalmente las relaciones laborales y empeorando los derechos y condiciones de los trabajadores. La Ley de Bases de la Organización Sindical dictada en 1940, además de establecer estrictas condiciones laborales, eliminó a todos los partidos políticos y sindicatos que se alinearon a favor de la República,

[250] UUA, sig. PL11-1937. / AMU, sig. PL11-1937.

tu guztiak ezabatzeaz gain, lan legedi berri bat ezarri zuen, non estatua bera arduratuko zen lan baldintzak finkatzeaz eta enpresa eta langilearen arteko zubi-lana egiteaz, betiere langilea otzantasun eta ugazabarekiko mendekotasunera bultzatuz.

Honek lan baldintza eta soldaten murrizte bat ekarri zuen, izan ere botere guztia enpresen esku geratu zen eta legedi hau baliatuz 48 orduko lanaldia ezarri zuten, 10 ordu edota gehiagoko txandak ere ohikoak bilakatuz. Horretaz gain, soldaten jaitsiera bat eman zen, herritarren erosteko ahalmenean eragin zuena.

1936tik 1939a bitarte luzatu zen Gerra Zibilak, eragin nabarmena izan zuen herriko ekonomian. Ekoizpen guztia militarizatua zegoen eta produktu eta industria guztien lehentasuna gerra esfortzura bideratua zegoen. Horrela, Brunet industria militarizatu egin zuten. Militar kolpistek bere gain hartu zuten eta gerra esfortzura bideratu zuten produkzio guztia. Zuzendaritzakoen laguntzarekin, zazpi eguneko lanaldia ezarri zuten, eta armada frankistarentzako koltxoiak egiten jardun zuten gerra amaitu zen arte[251].

Gainera, gerra 3 urtez luzatzeak eragin nabarmena izan zuen herrian, baina honen eragina gainera lehen unetik nabaritu zen. Horrela, 1937an udala kexu zen Euskal Herrian bizi zen gerra egoerak udalerria biziki kaltetu zuelako, izan ere, Lasarteko hipodromoan ezarritako kuartel militarrak sortzen zizkion gastuez gain, herrian ere gatazkak sortzen zituen, soldaduen jarrera zela eta Lasarteko auzo-alkatearen hainbat kexa sorrarazi baitzituen.

Ekonomia militarizatu honetan, bizitzaren arlo guztiak esku hartuta geratu ziren, industria ekoizpenetik hasita, norbanakoaren ekoizpen eta kontsumoraino. Horretarako, herri eta probintzietan Hornidura Batzordeak eratu ziren, eta hauek elikagai, hornidura eta kontsumo lehengai guztien gaineko kontrol zurruna eraman zuten.

Errazionamendua

Errazionamendua, autoritate frankistek 1939ko maiatzean ezarri bazuten ere, gerra hasi zenetik Hornidura Batzordeen bitartez edota tokian tokiko udalen eskuhartzearekin, elikagai guztien ekoizpenaren eta banaketaren gaineko kontrola erabatekoa zen. Horren adibide gisa, 1937an, Urnietako udalak herriko elikagai ekoizle eta saltzaile guztiei estrategikoak izan zitezkeen elikagai guztien inbentarioa egitea agindu zien, hilean bitan pasa behar zirelarik udaletxetik hau burutzera[252].

Udalak beraz, herriko nekazarien produkzioaren gaineko kontrol zurruna eraman zuen, norbanako bakoitzak produzitzen zuen azalera neurtuz eta horren arabera udalari eman behar zizkion kilo kopurua zehaztuz. Horretaz gain, uzta bakoitza noiz eta nola jaso zehazten zuen eta askotan uzta jasotze hori udalaren ordezkarien aurrean egitera behartuz[253]. Kontrolpean izan zituzten produktuen artean, garia, artoa, babarruna eta patata izan ziren udalak gehien kontrolatu zituenak, zigor ekonomiko eta errepresioarekin mehatxatuz irizpideak betetzen ez zituzten nekazariak. Abeltzaintzaren arloan berriz, herriko abere guztien errol-

y estableció una nueva legislación laboral donde el mismo Estado se encargaría de establecer las condiciones laborales y de hacer la labor de puente entre la empresa y el trabajador; eso sí, empujando siempre al trabajador a la mansedumbre y a la subordinación ante el amo.

Esto trajo la reducción de las condiciones laborales y los sueldos, ya que todo el poder quedó en manos de las empresas; además, aprovechando esta legislación impusieron jornadas laborales de 48 horas, siendo habituales los turnos de 10 horas o más. Además, se dio una reducción de los sueldos que afectó al poder adquisitivo de los ciudadanos.

La Guerra Civil, que se alargó desde 1936 hasta 1939, tuvo un impacto destacado en la economía local. Toda la producción estaba militarizada y la prioridad de todos los productos e industrias estaba dirigido al esfuerzo de guerra. De ese modo, la industria Brunet fue militarizada. Los militares golpistas lo tomaron en sus manos y toda la producción la dirigieron al esfuerzo de guerra. Con la ayuda de la directiva, establecieron la jornada laboral de siete días, en el que estuvieron haciendo colchones para el Ejército franquista hasta el final de la guerra[251].

De todos modos, alargar 3 años la guerra tuvo graves efectos para el pueblo, que además los tuvo que sufrir desde el primer momento. Así, en 1937, el ayuntamiento se quejaba de que la situación de guerra que se vivía en Euskal Herria perjudicó seriamente al ayuntamiento, porque además de los gastos que le producía el cuartel militar establecido en el hipódromo de Lasarte, también creaba conflictos en el pueblo, ya que debido a la actitud de los soldados, fueron bastantes las quejas enviadas por el alcalde pedáneo de Lasarte.

En esa economía militarizada, todos los ámbitos de la vida quedaron intervenidos, desde la producción industrial hasta la producción y consumo del individuo. Para ello, en los pueblos y provincias se formaron Comisiones de Abastecimiento que llevaron un control estricto sobre todos los alimentos, provisiones y materias primas de consumo.

Racionamiento

Aunque las autoridades franquistas implantaron el racionamiento en mayo de 1939, desde que empezó la guerra el control sobre la producción y el reparto de todos los alimentos era total, bien a través de la Comisión de Abastecimiento, bien a través de la intervención de los ayuntamientos. Un ejemplo de ello es que en 1937, el ayuntamiento de Urnieta ordenó a todos los productores y vendedores locales que hicieran un inventario de todos los alimentos que pudieran ser estratégicos y, para ello, tenían que pasar dos veces al mes por el ayuntamiento[252].

Por lo tanto, el ayuntamiento llevó un control rígido sobre la producción de los agricultores locales, midiendo la superficie que producía cada individuo y en base a eso, especificando cuantos kilos tenía que dar al ayuntamiento. Además, se especificaba cuando y como recoger cada cosecha, y, muchas veces, estaban obligados a realizar esa recogida ante los representantes municipales[253]. Entre los productos que tuvieron bajo control, fueron el trigo, el maíz, la alubia y la patata los que más controló el ayuntamiento, amenazando con

[251] Imaz, I. (2011). / Imaz, I. (2011).
[252] UUA, 1939ko udal-korrespondentzia. / AMU, correspondencia municipal de 1939.
[253] UUA, 1940ko udal-korrespondentzia. / AMU, correspondencia municipal de 1940.



Errazionamendu kartillak. (Euskal Memoria). / **Cartillas de racionamiento.** (Euskal Memoria).

da zehatz bat eraman zuen udalak eta hilean abere kopuru konkretu bat hiltzeko baimena ematen zuen bakarrik, errazionamenduaren kupoa betetzeko beharrezkoak zirenak. Gainera udalerriaren eremutik abereak ateratzea debekatu zuen, hauen gaineko kontrola zurrunduz, abeltzainek probintziatik ateratzen baitzituzten beste leku batzuetan saltzeko helburuarekin[254]. Horretaz gain, abere guztiak hiltegitik kanpo sakrifikatzea debekatu zuen, honek bi helburu nagusi zituelarik, animalien haragi kopuru zehatza jasotzea eta honen soberakinak (larrua batez ere) esku hartutako industrietara bideratzea.

Abereen gaineko kontrola bereziki zurruna izan zen, hilabetean hil zitezkeen animalien kopurua udalak ezartzen baitzuen, Gobernadore Zibilak ezartzen zituen irizpideen baitan eta horren arabera ondoren haragia herritaren artean banatzen zen. Hasiera batean, herritar bakoitzak kupo bat zuen eta hau harategian jaso zezakeen nahi zuenean, baina gerra egoera zela eta egoera gogortuz joan zen eta autoritateek haragia jateko debekuak ezarri zituzten, hau saltzeko egun zehatzak finkatuz eta pertsonako 150 gramo/asteko kopurua baino kantitate baxuagoak ezarriz. Egoera muturrera 1939ko udaberrian iritsi zen, non udalaren aginduz haragia soilik domeketan saldu zitekeen eta 70 gramo pertsonako bakarrik[255].

sanciones económicas y la represión a los agricultores que no cumplían los criterios. En cuanto a la ganadería, el ayuntamiento llevó un estricto censo de todos los animales domésticos locales, y solo daba permiso para matar un número concreto de animales al mes, los que eran necesarios para llenar el cupo del racionamiento. Además, tenían prohibido sacar los animales fuera del municipio, haciendo más riguroso el control sobre ellos, pues los ganaderos solían sacar los animales fuera de la provincia con la intención de venderlos[254]. Además, prohibió sacrificar cualquier animal fuera del matadero, con dos objetivos principales: uno, recoger la cantidad exacta de carne de animal y dos, dirigir las sobras (sobre todo la piel) a industrias intervenidas.

El control sobre los animales fue especialmente estricto, pues el número de animales que se podían sacrificar al mes lo establecía el ayuntamiento, siguiendo las directrices del Gobernador Civil, y en base a eso, luego se repartía la carne entre los vecinos. Al principio, cada ciudadano tenía un cupo y podía recogerlo en la carnicería, pero debido a la guerra, la situación se fue endureciendo y las autoridades impusieron prohibiciones para comer carne: establecieron días exactos para venderla, e impusieron cantidades inferiores a 150 gr/semana por persona. La situación llegó al límite en la primavera de 1939, cuando por orden del ayuntamiento la carne solo se podía vender los domingos y solo 70 gramos por persona[255].

[254] UUA, 1938ko udal-korrespondentzia. / AMU, correspondencia municipal de 1938.
[255] UUA, 1939ko udal-korrespondentzia. / AMU, correspondencia municipal de 1939.

Horniduraren gaineko kontrol hau eramateaz herriko FET-JONSeko militanteak arduratzen ziren eta honi esker Udalak, nekazarien produkzioaren atal handi bat jasotzen zuen eta ondoren Gobernu Zibilak ezarritako irizpideen arabera zati bat Gipuzkoako hornidura batzordeari ematen zion eta beste bat herriko komertzioetan banatzen zuen, herritar bakoitzari zegokion kupoaren arabera. Hala ere, honek arazoak sortzen zituen, batez ere Lasarte eta Orian.

Urnieta eta Lasarte eta Oriaren artean ezberdintasun nabariak aurki genitzakela argi dago. Hiribildua eta gainontzeko auzoak hein handi batean nekazaritzara begira zeuden guneak ziren eta Lasarte eta Oriako auzoak batez ere izaera industriala zuten. Horrela, 1940an Urnietako udalak bildutako dauten arabera, Urnietako kaskoan 646 pertsona bizi ziren, 1.087 pertsona baserri eta auzoetan eta 741 pertsona berriz gune industrialetan[256].

Datu hauek aztertuz gero, ikus dezakegu biztanleriaren %29.95a gune industrialetan bizi zela eta %26.11 berriz kaskoan. Baina, hala eta guztiz ere Urnieta nekazal izaerako herri bat zela kontsideratzen zuen estatuak eta honek bere eragina zuen errazionamenduan. Izan ere, izaera industriala zuten herriek janari kopuru altuago bat jasotzen zuten, elikagaiak produzitzeko zuten ezintasuna zela eta. Baina Lasarte eta Oria batez ere izaera industriala zuten guneak ziren, baina nekazaritza guneen errazionamendua jasotzen zuten, izugarrizko gabeziak sortzen zituena. Gainera, honek inguruko herrietako biztanleekin desoreka sortzen zuen, izan ere Hernani bezalako herriak izaera industriala zuten onartuta eta beraz Lasarteko batzuek errazionamendu altuagoa jasotzen zuten besteak baino. Horregatik, udalak behin baino gehiagotan eskatu zuen Urnietari izaera industriala onartzea, horrela errazionamendua handitzeko helburuarekin[257].

Del control sobre el abastecimiento se encargaban los militantes de las FET-JONS, y gracias a ello, el ayuntamiento recibía una gran parte de la producción de los agricultores. Después, según los criterios establecidos por el Gobierno Civil, este le daba una parte a la Comisión de Abastecimiento de Gipuzkoa y otra parte lo repartía en los comercios del pueblo, según el cupo que correspondía a cada vecino. De todos modos, esto creaba problemas, sobre todo en Lasarte y Oria.

Tal como hemos dicho anteriormente, las diferencias entre Urnieta y Lasarte y Oria eran evidentes. La villa y los demás barrios eran zonas dedicadas sobre todo a la agricultura, en cambio, los barrios de Lasarte y Oria eran de carácter industrial. De ese modo, según los datos recopilados por el ayuntamiento de Urnieta en 1940, en el casco de Urnieta vivían 646 personas, en los barrios y caseríos 1087 y en la zona industrial 741[256].

Analizando esos datos, vemos que el 29.95% de la población vivía en las zonas industriales y el 26.11% en el casco urbano. Pero de todos modos, el Estado consideraba a Urnieta como un pueblo de carácter rural y eso tenía sus repercusiones en el racionamiento. Ya que los pueblos de carácter industrial percibían más cantidad de comida, debido a la imposibilidad de producir alimentos. Lasarte y Oria sobre todo eran núcleos de carácter industrial, pero recibían el racionamiento correspondiente a zonas rurales, y eso creaba graves carencias. Además, eso creaba un desequilibrio con los habitantes de los pueblos vecinos, ya que los pueblos como Hernani tenían aceptado el carácter industrial y, por lo tanto, algunos de Lasarte recibían un racionamiento mayor que otros. Por ello, el ayuntamiento pidió más de una vez que se aceptara el carácter industrial de Urnieta, con el objetivo de acrecentar el racionamiento[257].



Sres. Brunet y Compañía...368 obreros
D. Francisco Arrutí.......32 "
" Francisco ....3 "

Cumplimentando lo interesado en su
comon. fecha 3 del actual, adjunto
devuelvo, debidamente visadas, las re-
laciones juradas de los industriales
de ésta que solicitan para sus obre-
ros mejora de racionamiento del pan,
y las cuales corresponden a los nom-
brados al margen.

Dios gue. a V.E. muchos años
Urnieta a 8 de Octubre,1941
El Alcalde,

Sr. Gobernador civil-Delegado de Abastecimientos de

Oriako industriek ogi errazioak hobetzea eskatu zuten, langileek nahiko elikadura ez zutelako. (UUA). / **Las industrias de Oria pidieron mejorar las raciones de pan, porque los trabajadores no tenían suficiente alimento.** (AMU).

[256] UUA, 1940ko udal-korrespondentzia. / AMU, correspondencia municipal de 1940.
[257] UUA, 1942ko udal-korrespondentzia. / AMU, correspondencia municipal de 1942.

Hau kontuan izanda, Lasarte eta Orian, non industriako langileak ziren nagusi, janaria eskasia nabaria izaten zen eta bertako auzo-alkateak hainbatetan kexatu ziren herrira iristen ziren hornidurak nahikoa ez zirelako edota finkatua zegoena baino gutxiago iristen zirelako. Horrela, ohikoak izaten ziren auzotar hauen kexak, adieraziz elikagai gabezia zutela etxeetan eta egoera jasanezina zela. Horrela, 1938an esaterako babarrunik gabe zeudela bi auzoak salatu zuten eta beste behin Oria hiru hilabetez azukre eta dilista gabe egon zen 1939 urtean. Kexa hauek behin baino gehiagotan luzatuko dira, esaterako 1940 urtean udalak Gobernadore Zibilari mezua bidali zion herrian arroza, garbantzuak, olioa eta azukrea falta zirela esanez[258]. Eskasia eta gabezia hauek urte luzez orokortu ziren eta Lasarte zein Oriako auzo alkateen kexa nabarmenak izan ziren hauek, baina elikagai faltari gainera azpiegitura, komunikazio sare (telefonorik ez izatea batez ere) eta gaitasun ekonomiko falta gehitu behar zaizkio.

Teniendo en cuenta esto, en Lasarte y Oria, donde eran mayoría los trabajadores industriales, la escasez de comida era notoria, y el alcalde pedáneo local se quejó varias veces porque los abastecimientos que llegaban al pueblo no eran suficientes o porque llegaba menos de lo establecido. Así, solían ser habituales las quejas de esos vecinos, expresando que carecían de alimentos en casa y que la situación era insostenible. Así, por ejemplo, en 1938, los dos barrios denunciaron que estaban sin alubias, y otra vez, en 1939, en Oria estuvieron sin azúcar y sin lentejas durante tres meses. Esas quejas se repitieron muchas veces; por ejemplo, en 1940, el ayuntamiento envió una misiva al Gobernador Civil quejándose de que en el pueblo faltaban arroz, garbanzos, aceite y azúcar[258]. Esa escasez y esa penuria se generalizaron durante largos años, siendo notorias las quejas de los alcaldes pedáneos de Lasarte y Oria, que se quejaban de la falta de infraestructuras, de comunicaciones, y de la capacidad económica.

Gero Gerra denboran ogirik ez ziguten ematen. Ni gogoratzen naiz, gure aitta zana gixajua, holako bollio txiki batzuk lortzen zituen eta zuriek ez beltzak. Hura goizian jaten zuen eta egun guztia ogirikpe. Gu etxean ez genuen ogirik egiten, Gainera hemen ez da izandu kostumbrerik etxean ogia iteko inon. Ez det behie ere haitu baserritan hemen. Orian nire gizonaren baserrian bai eh. Han 15 eguneko ogia egiten zuen ederraskua. Guk Artoa eukitzen gendun, baina erdik kendu iten zizkiguten ordia los "al de Abasto" (sic.) askotan taloak itegko ere ez ez gendun izaten. Ta gu izeba bat gendun oso ona, ta taluak egiteko irina bazun hara joaten ginen bila. Ta haie izaten ez bazuten ta gure etxea baldin bazegon haiek etortzen ziren gure etxera bila. Oso ondo eramaten ginen izebakin[259].

Durante la guerra no nos daban pan. Recuerdo que nuestro difunto padre, pobrecito, conseguía unos bollos pequeños de pan blanco y no negro. Eso lo comían a la mañana y todo el día sin pan. En nuestra casa no hacíamos pan, además aquí no ha habido costumbre de hacer pan en ninguna casa. Nunca he oído de que se hiciera en los caseríos de aquí. En Oria, en el caserío de mi marido sí, eh. Allí hacían pan para 15 días, muy bueno. Nosotros teníamos pan de maíz, pero los de abasto nos quitaban la mitad. Muchas veces no teníamos ni para hacer talos. Y nosotros teníamos una tía muy buena, y si tenía harina para hacer talos íbamos donde ella. Y si eran ellos los que no tenían y nosotros sí teníamos, ellos venían donde nosotros. Nos llevábamos muy bien con la tía[259].

1944an esaterako, patata produkzioak ez zituen minimoak bete eta Urnietako kaskoari zegokion kupoa ezin izan zen bete, 6 kilo pertsonako izan beharrean soilik 3 baitzeuden. Horretaz gain, udalak ezintasunak izan zituen gobernuak eskatzen zion gari kupoa betetzeko, izan ere gutxi erein zen eta eguraldiak sortutako kalteek produkzioa asko jaitsi zuten. Ildo honetatik, produkzio jaitsiera zela eta, herrian zeuden bi errotetatik bat, Errota-berri hain zuzen ixteko agindua eman zuen Servicio Nacional de Trigok, udalari aginduz errotaren jabe zen familiari zegokion kalte-ordainak ordaintzeko. Gabezia guzti hauek, elikadura eskasia ekartzeaz gain, osasun arazoak sortu zituen herrian, eta honek bizi baldintzen txartzea ekartzeaz gain, gaixotasunak eta egoera larriak sortzea eratorri zuen. Esaterako, familia askok udalari laguntza eskatu zioten, beraien beharrak asetzeko nahikoa janari edo baliabide ez zituztelako[260]. Errazionamendu sistema honek 1953 arte iraun zuen eta baita ere berari lotutako estraperloak ere.

Por ejemplo, en 1944, la producción de patata no llegó a los mínimos y el cupo correspondiente al casco de Urnieta no se pudo completar, quedando en 3 kilos por persona en vez de 6. Además, el ayuntamiento tuvo problemas para completar el cupo de trigo que le pedía el Gobierno, ya que se sembró poco y los perjuicios creados por el tiempo bajaron mucho la producción. En ese sentido, debido a la bajada de producción, el Servicio Nacional de Trigo dio la orden de cerrar uno de los dos molinos del pueblo, Errota-berri. Todas esas carencias, además de traer escasez de alimentos, crearon penuria y problemas de salud en el pueblo, y trajo consigo el empeoramiento de las condiciones de vida, enfermedades y situaciones adversas. Por ejemplo, muchas familias pidieron ayuda al ayuntamiento, porque no tenían suficiente comida o recursos para satisfacer sus necesidades[260]. Este sistema de racionamiento duró hasta 1953 y, también, el estraperlo unido a él.

Estraperloa

Gerrak iraun zuen bitartean eta Lehen Frankismoan, janari gabezia eta gosea orokorrak izan ziren bai Urnietan, baita gainontzeko herrietan ere. Erregimenak ezarritako errazionamendua ez zen gai herritarren gutxiengo beharrak

El estraperlo

Mientras duró la guerra y el Primer Franquismo, la escasez de comida y el hambre estuvieron generalizados, tanto en Urnieta, como en los demás pueblos. El racionamiento establecido por el régimen no era capaz de satisfacer las necesidades

[258] UUA, 1940ko udal-korrespondentzia. / AMU, correspondencia municipal de 1940.

[259] Juanita Arrieta Garmendiak Ahotsak.eus-i eskainitako elkarrizteka, URN-001 kodea. / Entrevista ofrecida por Juanita Arrieta Garmendia a *Ahotsak.eus,* código URN-001.

[260] UUA, 1944ko udal-korrespondentzia. / AMU, correspondencia municipal de 1944.

asetzeko eta, ondorioz, herritarren artean oinarrizko produktuak lortzeko bide alternatiboak sortu ziren: lapurreta txikiak, janari produkzioaren zati bat etxean gordetzea eta merkatu beltzera jo edo estraperloan jardutea.

Landa guneetan, ohikoena etxe eta lursailetan produzitzen zuten elikagaien zati bat gordetzean oinarritzen zen. Udalak baserrietako produkzioa kontrolatzen saiatzen zen, izan ere produkzio osoaren zati handiena udalari ematera behartuak zeuden hauek, baina etxe gehienetan ezkutalekuak eraiki ziren bertako elikagaiak ezkutatu eta familiarentzat gordetzeko.

Txerri hilketak gabez egiten ziren eta izaten ziren matarife bat. Nibel handikoak. Miguel handiak urtean 300-400 hiltzen zituen. Gerra ondoren ere txerriak hiltzen jarraitzen zuen. Udarako bero handienean ere bai. Berak kontatzen zuen, Miguel Fernandez zen hori, Arantzuri baserrikoa. Nik berari entzun izan diot Oianumeko sukaldean esaten nola udaran kristoren beroarekin txamarra panazko batekin azpian labana eta gantxoa zintzilikaturik zuela txerria hiltzeko. Hura isilpekoa zen? Nik uste dut, konbentzituta nago, han zegoela horrelako: "Badakigu zer egiten duzuen, baino lasai utziko zaituztegu". Horrelako zerbait zegoen. Nik uste dut fronteran askotan estraperlistak bazekitela zer gertatzen zen Guardia Zibilekin. Nik ezagutu ditut Oianumen Guardia Zibilak lotan karean, besteei beraien bidaiaren bueltan fitxajeak egiteko. Gaueko 22:00etan atea jotzen zuten Guardia Zibilak, ukuiluko orbelen tartean lo egin eta fitxaketak egiten zituzten. Hori legala zen? Ez, baino egiten zen. Garai haietan horrelako gauza asko zeuden. Baserrietan gosea ez dut uste, baina kalean bai. Baserriarekin loturarik ez zuen jendeak gorriak ikusi zituen. Baserrian jana edukita ere beharra baldin bazuten. Imajinatu besteak[261].

(Estraperloa) Etxerako behar zutena egiten zuten. Mundu guztiak egiten zuen. Horrelako baserri inguruetako herrietan hori egiten zen. Txerri hilketak ere egiten ziren, adibidez, gaueko 22:00tan. Baserrietan nik uste dut, beharrak bazirela baina goserik ez[262].

Estraperloaren modu ohikoena, garraiobide batean edota oinez herrian behar ziren produktuak beste nonbaitetik ekartzean oinarritzen zen. Hau, bitartekari bidez edota norberak egin zezakeen, eta ohikoa izaten zen Donostia edota beste herri batera lehengaiak saltzea zihoan jendeak itzuleran beste produktu batzuk ezkutuan ekartzea. Honi estraperloa deitzen zitzaion.

Orduan olioa razionamentuarekin etorri zen. Nire izebari ez zioten behar adina ematen eta gogoratzen naiz, Donostiako baserritar bati enkargatzen ziola estraperloan olioa. 20 duro balio zituen, asko balio zuen garai hartan[263].

Badakit estraperloa bazela. Estraperloa trenetik botatzen zuten. Senideekin ados jartzen ziren eta Tolosara joaten ziren, erosketak egin eta honaino etortzen ziren, Donostiara iristen baziren konfiskatu egiten zizkieten eta. Astigarragan edo leku jakin batean ados jartzen ziren: "Leihotik botako dizut". Eta bestea trena noiz pasako zain egoten zen eta fardela botatzen zioten[264].

mínimas de los ciudadanos y, por lo tanto, entre estos surgieron modos alternativos para conseguir los productos básicos: pequeños hurtos, guardar en casa una parte de la producción y dirigirse al mercado negro o al estraperlo.

En las zonas rurales, lo habitual era guardar una parte de los alimentos que se producían en casa y en los terrenos. El ayuntamiento se esforzaba en controlar la producción de los caseríos, ya que estos estaban obligados a dar al ayuntamiento la parte más grande de la producción total; pero en la mayoría de las casas se construyeron escondites para guardar los alimentos para la familia.

"Las matanzas de cerdo se hacían de noche y se hacían con un matarife. De gran nivel. Miguel Handia solía matar 300-400 al año. Después de la guerra seguía matando cerdos. Incluso en los días más calurosos de verano. Miguel Fernández del caserío Arantzubi lo contaba. Yo le he escuchado a él decir en la cocina de Oianume, como en verano con un calor insoportable iba con una zamarra de pana y debajo llevaba un cuchillo y un gancho colgados para matar un cerdo. ¿Aquello era secreto? Creo yo, estoy convencido, que allí había algo parecido a: "Sabemos lo que hacéis, pero os dejaremos tranquilos". Había algo parecido. Yo creo que en la frontera muchas veces los estraperlistas sabían lo que ocurría con los Guardias Civiles. Yo he conocido en Oianume Guardias Civiles durmiendo en el portal, para fichar a los que venían en el viaje de vuelta. A las 22:00 de la noche la Guardia Civil tocaba la puerta, dormían entre la hojarasca de la cuadra y fichaban. ¿Eso era legal? No, pero se hacía. En aquella época había muchas cosas de esas. En los caseríos creo que no hubo hambre, pero en la calle sí. La gente que no tenía relación con los caseríos las pasó canutas. Si teniendo comida en el caserío aun así tuvieron necesidades, imagínate los demás[261].

(El estraperlo) Hacían lo que necesitaban para casa. Lo hacía todo el mundo. En los pueblos de la zona rural se hacía eso. Las matanzas de cerdo, por ejemplo, se hacían a las 22:00 de la noche. Yo creo que en los caseríos había necesidades, pero no hambre[262].

El modo más habitual de estraperlo era traer productos que se necesitaban en el pueblo desde otro sitio, a pie o en un medio de transporte. Se podía hacer mediante intermediario o lo podía hacer uno mismo. Solía ser habitual que la gente que iba a vender materia prima a Donostia, o a otro pueblo, a la vuelta trajera otros productos a escondidas. A eso se le llamaba estraperlo.

Entonces llegó el aceite con racionamiento. A nuestra tía no le daban lo suficiente y recuerdo, que le encargaba a un baserritarra de Donostia aceite de estraperlo. Valía 20 duros, era mucho por aquel entonces[263].

Sé que había estraperlo. El estraperlo lo tiraban del tren. Se ponían con los familiares de acuerdo e iban a Tolosa, compraban y venían hasta aquí porque si llegaban a San Sebastián se lo requisaban. Se ponían de acuerdo en Astigarraga o en tal sitio: "Te echaré por la ventana". Y el otro esperaba a que pasara el tren y le tiraban el bulto[264].

[261] Mikel Izagirreren testigantza. / Testimonio de Mikel Izagirre.
[262] Mikel Izagirreren testigantza. / Testimonio de Mikel Izagirre.
[263] Conchi Zalduaren testigantza. / Testimonio de Kontxi Zaldua.
[264] Marcelino Usarragaren testigantza. / Testimonio de Marcelino Usarraga.

Gabezia eta eskasia orokortuko egoera honetan, non udala eta estatua ez ziren gai herritarren sustengua bermatzeko, herritar ugarik jo behar izan zuten merkatu beltzera. Askok eta askok, inguruetako herrietara egiten zituzten bidaiak baliatzen zituzten produktuak ekartzeko, beste batzuek, saltzen zituzten produktuak aizuntzen zituzten, esneari, ozpinari eta era honetako produktuei ura gehituz. Maria Arteagaren kasuan, egunero esnea saltzera joaten zen Donostiara eta egun batean itzuleran marmitetan ardoarekin harrapatu zuten[265].

Dendariek ere merkatu beltz honetatik ekartzen zituzten hainbat produktu. Horrela, patata eta, azukrea bezalako produktuak falta zirenean, saltzaileek hauek herrira ekarri eta finkatua zegoen prezioa baino garestiago saltzen zituzten produktu hauek. Jarduera hau, udalak eta Gobernu Zibilak jazarri izan zuen eta hainbat alditan isun ekonomikoak ezarri zituzten, adibidez Santiago Iguaran Beobideri 4.000 pezetako isun ekonomikoa eta bere denda ixtera behartu zuten, Nafarroako patatarekin estraperloan haritzeagatik[266]. Ildo beretik, Jose Mugica Arambururi estraperloan ibiltzeagatik 1.000 pezetako isuna ezarri zioten eta denda hiru hilabetez itxi zioten[267]. Zigorrik gogorrena, Jesus Otegui Zabalari ezarri zioten, izan ere Tasen Fiskaltzak 100 egunez bortxazko lanak egitera bidali zuen Langileen Batailoi batera, ezarri zion 1.000 pezetako isun bat ez ordaintzeagatik[268]. Ignacia Belaunzaran Muñoaren kasuan, tabako saltzailea zen Urnietan eta 100 pezetako isuna ezarri zioten, borrokalarien aldeko subsidioa ez ordaintzeagatik[269]. Hau, zerga berezi bat zen, lehen mailako beharrak ez ziren produktuei ezartzen zietena kolpistek, armada frankistako zaurituei eta soldaduen familiei laguntza emateko.

En esta situación de escasez y penuria, donde el ayuntamiento y el Estado no eran capaces de garantizar el sustento de los ciudadanos, muchos de ellos tuvieron que acudir al mercado negro. Muchos, aprovechaban los viajes que hacían a los pueblos de alrededor para traer productos; otros, adulteraban los productos que vendían, añadiendo agua a la leche, al vinagre y a productos similares. María Arteaga solía ir a vender leche todos los días a Donostia, y un día, a la vuelta, la pillaron con vino en las marmitas[265].

Los tenderos también traían varios productos de ese mercado negro. De ese modo, cuando faltaban productos como la patata o el azúcar, los vendedores los traían al pueblo y los vendían a un precio superior al establecido. Esa actividad fue perseguida por el ayuntamiento y por el Gobierno Civil, y varias veces impusieron sanciones económicas; por ejemplo, a Santiago Iguaran Beobide le impusieron una multa de 4 000 pesetas y le obligaron a cerrar la tienda, por hacer estraperlo con patata de Nafarroa[266]. A José Mugica Aramburu le impusieron una multa de 1 000 pesetas por hacer estraperlo y le cerraron la tienda durante tres meses[267]. El castigo más duro se lo impusieron a Jesús Otegui Zabala, ya que la fiscalía de tasas lo envió a un Batallón de Trabajadores a realizar trabajos forzados durante 100 días, por no pagar la multa de 1 000 pesetas que le habían impuesto[268]. Ignacia Belaunzaran Muñoa era estanquera en Urnieta, y le impusieron una multa de 100 pesetas por no pagar el subsidio pro-combatientes[269]. Este era un impuesto especial que imponían los golpistas a los productos que no eran de primera necesidad, para ayudar a los heridos del Ejército franquista y a las familias de los soldados.

- *Hemengo errota batzuk itxi egin zituela aittua dakat nik. Trankatx itxi al zuten?*
- *Itxi zuen, bai.*
- *Ze pasa zan ordun?*
- *Ze pasa... Ez dakit nik. Ta Beasaiñen ta hoitan han libre zan errota. Ta gu jun izandu gea, etxian errota ta, ta hartu artua ta zea, Beasaiñea; iriñan billa, trenian.*
- *Zuek ere bai?*
- *Bai, joan izandu gea gu're, bai.*
- *Ez al zegon martxan jartzeik hemengo makinaria?*
- *Bai, gero gabian aitzen giñen bai, tranpetan aitzen giñen.*
- *Baiño bijilantzia ere izango zan hemen inguruan.*
- *Bai. Gariya ez zan igotzia libre; garia igotzen gendun guk.*
- *A bai, e?*
- *Bai. Ta batian harrapatu ta multa bat pagatu gendun. Guarzibillak etorri ta harrapatu ta multa pagatu gendun[270].*

Esneketariek, produktua saltzera joatea baliatuz, estraperloko produktuekin itzultzen ziren askotan. (Urnietako emakumeak historian zehar). **/ Las lecheras, aprovechando que iban a vender el producto, volvían con productos de estraperlo muchas veces.** (Urnietako emakumeak historian zehar).

[265] UUA, 1938ko udal-korrespondentzia. / AMU, correspondencia municipal de 1938.
[266] UUA, 1941ko udal-korrespondentzia. / AMU, correspondencia municipal de 1941.
[267] UUA, 1941ko udal-korrespondentzia. / AMU, correspondencia municipal de 1941.
[268] AGMG, BDST, 2885 kaxa, 5853 espedientea. / AGMG, BDST, caja 2885, expediente 5853.
[269] UUA, 1937ko udal-korrespondentzia. / AMU, correspondencia municipal de 1937.
[270] Joxe Mari Yurramendi Larburuk Ahotsak.eus-i eskainitako elkarrizteka, URN-033 kodea. / Entrevista ofrecida por Joxe Mari Yurramendi Larburu a *Ahotsak.eus*, código URN-033.

orr.



Santiago Iguaranen aurkako isuna. (UUA). / **Multa contra Santiago Iguaran.** (AMU).

Baina elkartasun ekintzak ere egon ziren, horrela, Tasen Fiskaltzak Luisa Ibarrola Ibarrola oriarra salatu zuen, Hernanin esnea gainprezioarekin saltzeagatik. Baina, bere aurkako ikerketan, esnea erosten zioten hernaniarrek adierazi zuten gainprezio hori borondatez ordaintzen zutela, Luisaren familiaren sustengurako beharrezko diru sarrerak bermatzeko helburuarekin[271].

Udalak, horniduren arloan ez zuen baina zurruntasun handirik erakutsi, testigantzek islatzen duten moduan, baina ez zen gauza bera gertatzen Gipuzkoako agintarien aldetik, hauek zurrunago betetzen zuten legea eta estraperloan harrapatuz gero isun ekonomiko eta espetxe zigorrak ezarri ohi zituzten. Egoeraren gordinean, agintariek merkatu beltzean zebiltzanei heriotza zigorrarekin mehatxatzera iritsi ziren. Ildo honetatik doa 1941ean Gobernadore Zibilak Urnietako udalbatzari bidalitako mezua, bertan, hainbat alkatek horniduraren gaineko legeak hausten uzten ari zirela salatzen zuen, herritarren mesedea eta babesa bilatzeko nahiarekin. Honek, errazionamendu sarean kalteak egiten zituela argudiatuz, une horretatik aurrera, alkateak horniduren inguruan ematen ziren arau-hausteen arduradun nagusi bezala izendatuko zituela mehatxatu zuen eta hauek zurruntasunez zigortuko zituela[272].

Arlo honetan ere argi geratzen da herrian biltzen ziren izaera ezberdineko guneak ere. Lasarte eta Oriako auzoetan hornidura gabeziak larriagoak ziren, izan ere alde batetik nahiz eta gune industrialak izan, nekazal guneen hornidura jasotzen zuten. Beraz, estatuak kontsideratzen zuen nekazal produkzioa zutela etxeetan eta hau ez zen beti gauzatzen, ondorioz gizartean orokorra zen gabezia areagotzen zuen.

Pero también hubo actos de solidaridad. Por ejemplo, la fiscalía de tasas denunció a Luisa Ibarrola Ibarrola por vender leche a sobreprecio en Hernani. Pero en la investigación en su contra, los hernaniarras que le compraban la leche declararon que ese sobreprecio lo pagaban voluntariamente, con el objetivo de garantizar los ingresos que necesitaba la familia de Luisa[271].

El ayuntamiento, tal como reflejan los testimonios, no fue nada rígido en el ámbito del abastecimiento, pero no ocurría lo mismo con las autoridades de Gipuzkoa. Estos cumplían la ley con más rigidez, y si pillaban a alguien haciendo estraperlo le imponían sanciones económicas y penas de cárcel. En lo más crudo de la situación, las autoridades llegaron a amenazar con la pena de muerte a los que andaban en el mercado negro. Es de ese tono la misiva enviada por el Gobernador Civil a la corporación municipal de Urnieta en 1941. En ella, denunciaba que varios alcaldes estaban dejando que se infringieran las leyes sobre abastecimiento, con el deseo de buscar el favor y el apoyo de los vecinos. Diciendo que eso producía perjuicios a la red de abastecimiento, amenazó con que a partir de entonces los alcaldes serían los principales responsables de las infracciones que se cometieran en torno al abastecimiento, y que los castigaría con severidad[272].

En ese ámbito también se ven claramente las diferentes zonas del pueblo. En los barrios de Lasarte y Oria las carencias de abastecimiento eran más graves, ya que aunque eran una zona industrial, recibían el abastecimiento dirigido a las zonas rurales. Por lo tanto, el Estado consideraba que tenían una producción agrícola en las casas, pero como esto no se daba siempre, acrecentaba la escasez generalizada en la sociedad.

[271] UUA, 1941ko udal-korrespondentzia. / AMU, correspondencia municipal de 1941.
[272] UUA, 1941ko udal-korrespondentzia. / AMU, correspondencia municipal de 1941.

ESTRAPERLOAGATIK TASEN FISKALTZAK EDO BESTE ORGANISMOREN BATEK ISUNDUAK /
MULTADOS POR ESTRAPERLO POR LA FISCALÍA DE TASAS O POR ALGÚN OTRO ORGANISMO

IZENA / NOMBRE	ESTRAPERLOAGATIK EZARRITAKO ISUNA / MULTA IMPUESTO POR ESTRAPERLO
AGUIRRE IRURZUN, ANTONIA	
ALBIZU LASA, BARTOLOME	
ALDANONDO ARIZTIMUÑO, MARTIN	
ALDANONDO, VALENTIN	
ALMORZA, MERCEDES	
APAOLAZA URQUIOLA, JOSE MANUEL	
ARRUTI ECHEGOYEN, JUSTO	Gobernu Zibilak 25 pezetako isuna ikatza garestiegi kobratzeagatik / El Gobierno Civil, una multa de 25 pesetas por cobrar el carbón demasiado caro
ARTEAGA, MARIA	Donostiara esnea saltzera joandakoan itzuleran ardoa marmitan eramaten harrapatu. / Fue a vender leche a Donostia y a la vuelta la pillaron con vino en las marmitas
BENGOECHEA RETEGUI, FRANCISCO	
BEREGUI DE LA CRUZ, EULALIA	
BELAUNZARAN MUÑOA, IGNACIA	Tabako saltzailea. 100 pezetako isuna, borrokalarien aldeko subsidioa ez ordaintzeagatik / Estanquera. Multa de 100 pesetas, por no pagar el subsidio pro-combatientes
ECHEZARRETA LANDA, JOSE	
EGAÑA URRETA, DOMINGO	60 pezetakoa, patata estraperloagatik / De 60 pesetas, por hacer estraperlo con patata
GARBISU ARRAYAGO, SATURNINA	
GARMENDIA GARMENDIA, PIO	
GARMENDIA, FRANCISCO	
GAZTAÑAGA RODRIGUEZ, FRANCISCo	
GOYA RUIZ, MIGUEL	
IBARROLA IBARROLA, LUISA	Esnea gainprezioarekin saltzeagatik salatua / Denunciada por vender la leche a sobreprecio
IGUARAN, SANTIAGO	Patata estraperloagatik 4.000 pezetako isuna eta hiru hilabetez denda itxiarazi / Multa de 4 000 pesetas y cerrar la tienda durante tres meses, por hacer estraperlo con la patata
IRIBAR ALBERDI, CONCEPCION	
ITURBE, ANICETO	
MUGICA ARAMBURU, JOSE	1.000 pezetako isuna eta hiru hilabetez denda itxiarazi / Multa de 1 000 pesetas y cerrar la tienda durante tres meses
OCHOTORENA ARREGUI, RAFAEL	
ODRIOZOLA, CONCEPCION	
OLASAGARRI, VICTORIA	
OLLOQUIEGUI ZULAICA, RAMON	Gari estraperloagatik isuna / Multa por hacer estraperlo con el trigo
OTEGUI ZABALA, JESUS	100 egunez bortxazko lanak egitera kondenatu zuen / Fue condenado a realizar trabajos forzados durante 100 días
SANZ ESQUERRA, EMILIO	60 pezetakoa, patata estraperloagatik / De 60 pesetas, por hacer estraperlo con patata
SETIEN ADANO, MARIA DOLORES	
UBARRECHENA, IGNACIO	
UGALDE, FRANCISCA	
USARRALDE ODRIOZOLA, EUGENIO	1.000 pezetako isuna ezarri, maquila de maiz zuen arau hauste baten harira / Multa de 1 000 pesetas, a raíz de una infracción relacionada con la maquila del maíz
ZALDUA VERGARA, RAMON	

Gainera, nekazaritza ekoizpenik ez zutenez, ezin zituzten hauek ezkutatu eta beraz estraperlo edo merkatu beltzera jo behar izaten zuten, produktuak ohikoa baino askoz garestiago ordaindu behar izan zituztelarik. Ondorioz, honek beraien bizi kalitatearen galera ekarri zuen.

Horrela, 1941 urtean desnutrizio egoerak eman ziren familietan, muturreko egoeratara iritsiz. Familia batean,

Además, como no tenían producción agrícola, no tenían productos para esconder para sí mismos y, por lo tanto, tenían que recurrir al estraperlo o al mercado negro, teniendo que pagar los productos más caros de lo habitual. Todo ello traía consigo la pérdida de la calidad de vida.

Así, en 1941, se dieron situaciones de desnutrición en las familias, llegando a situaciones extremas. En una fami-

hainbat kide gaixotu egin ziren eta ez zuten nahikoa janari indarrak berreskuratzen laguntzeko eta udalari laguntza eskatzera behartuak agertu ziren. Pilar Echanizen sendiak berriz, haur jaioberri bat zuen etxean eta familia ez zen gai hau elikatzeko eta ondorioz alkateak haur honen bizirauperna bermatzeko litro erdi esne egunean emateko agindua eman behar izan zuen[273].

lia, por ejemplo, cayeron enfermos varios miembros y no tenían suficiente comida para recuperar las fuerzas, y se vieron obligados a pedir ayuda al ayuntamiento. La familia de Pilar Echaniz tenía un recién nacido en casa, y la familia no era capaz de alimentarlo; por lo tanto, el alcalde tuvo que dar la orden de dar medio litro de leche al día para garantizar la supervivencia de ese niño[273].

Gerra ondorena, hura sakrifiziyua. Gosea ta janik ez. arrautzak frijitzeko ere Oliorik ez. Ta ni amona zanari " ni harrautza prejitua nahi diat". "Bueno ba aproba egingo dit urarekin, aber prejiten dian harrautzak" esan zuen zuen amonak. Ordun ere Goiz-garia ereiten gendun eta gero hura kendu ta artoa egiten gendun ostean (beranduago egiten zan baina...) horrela bi kosetxa harrapaten gendun[274].

La posguerra, ¡vaya sacrificio! Teníamos hambre pero no comida. No teníamos ni aceite para freír los huevos. Y yo a la difunta abuela: "yo quiero huevo frito". "Bueno, pues probaré con agua, a ver si se fríen los huevos" dijo la abuela. Entonces también se sembraba trigo tempranero y después de aquello se hacía maíz (pero se hacía más tarde…) Así hacíamos dos cosechas[274].



Alemaniar naziak Lasarteko hipodromoan. (Euskal Memoria). / **Nazis alemanes en el hipódromo de Lasarte.** (Euskal Memoria).

[273] UUA, 1941ko udal-korrespondentzia. / AMU, correspondencia municipal de 1941.

[274] Bixente Lizaso Itxasok Ahotsak.eus-i eskainitako elkarrizteka, URN-029 kodea. / Entrevista ofrecida por Bixente Lizaso Itxaso a *Ahotsak.eus*, código URN-029.

Urte hauetan zehar janari murrizketak orokortuak izan ziren eta hauek herritarren osasunean kalteak eragiten hasi ziren, norbera eta familiaren biziraupena bermatzea etengabeko erronka bilakatuz. Honek bere eragina izan zuen ere herriko ekonomian, izan ere langileak gero eta ahulagoak sentitzen ziren eta honek enpresa ezberdinen produkzioa murriztea ekarri zuen. Gauzak horrela, 1941ean herriko industria nagusienek Brunet enpresa buru zutela herritarren ogi errazioak hobetzea eskatu zuten, hauek langileek beraien lana era egokian egiteko urriegiak zirela argudiatuz. Ildo beretik, lan astunetan lan egiten zuten enpresek ere ogi kopurua igotzea eskatu zuten, lan hauek energia gastu handia sortzen zutela argudiatuz eta langileek jasotzen zituzten errazioak nahikoa ez zirela esanez[275].

Durante esos años las restricciones de comida fueron generalizadas y empezaron a producir daños en la salud de los urnietarras, convirtiendo un continuo reto garantizar la supervivencia de cada uno y de la familia. Esto también tuvo su repercusión en la economía local, ya que los trabajadores se sentían cada vez más débiles y eso trajo la disminución de la producción en las empresas. Ante esta situación, en 1941, las principales industrias locales, con Brunet a la cabeza, pidieron que se mejoraran las raciones de pan de los vecinos, argumentando que eran demasiado escasas para que los trabajadores pudieran trabajar adecuadamente. En el mismo sentido, las empresas que trabajaban en trabajos pesados también pidieron aumentar la cantidad de pan, argumentando que esos trabajos suponían un gran gasto de energía y que las raciones que percibían los trabajadores no eran suficientes[275].

Carmen Polo Lasarteko hipodromoan. (Kutxateka). / **Carmen Polo en el hipódromo de Lasarte.** (Kutxateka).

Soldadu eta Margaritak Lasarteko hipodromoan. (Gure Gipuzkoa). / **Soldados y Margaritas en el hipódromo de Lasarte.** (Gure Gipuzkoa).

Erregimen Berriaren indar erakustaldiak, memoria ezabatu eta gizarte berria eraikitzea

Boterera iritsitakoan, kolpistek garbiketa ideologiko bat burutu nahi izan zuten, herritarrei gizarte tradizionala eta espainola ez zen beste guztiaren gainean informatzea eta ideia propioak garatzea saihestuz. Horretarako, 1938ko maiatzaren 30ean, Lasarteko Komandantzia Militarrak herriko liburutegiei beraien indize eta fitxategiak Depurazio Batzordeetan aurkezteko agindua helarazi zuen, honekin hau lortu nahi baitzuten, "A fin de que... desaparezcan de toda clase de obras y publicaciones de contenido o tendencias inmorales, disolventes o antipatrioticas". Hots, erregimenaren aurkako disonantzia edota iritzi oro bizitza publikotik desagerrarazi nahi zuten[276]. Horretaz gain, Errepublikaren aldekoen publikazio guztiak jazarri zituzten, izan klandestinoak edota publikoak. Gainera, irratiak kontrolatzea ere ohikoa izaten zen, herritarrek erregimenaren aurka edota Errepublikaren alde igortzen ziren emisioak entzun ez zitzaten. Horretarako, hainbat herritan irratiak zigilatu egiten ziren, soilik frekuentzia konkretu batzuk igorri zitzaten, kolpisten aldekoak zirenak noski.

Demostraciones de fuerza del Nuevo Régimen, borrar la memoria y construir una nueva sociedad

Cuando llegaron al poder, los golpistas quisieron hacer una limpieza ideológica, evitando que los ciudadanos se informaran sobre cualquier cosa que no fuera la sociedad tradicional y española, y que desarrollaran ideas propias. Para ello, el 30 de mayo de 1938, la Comandancia Militar de Lasarte ordenó a las bibliotecas locales que presentaran sus índices y ficheros a las Comisiones de Depuración, "A fin de que... desaparezcan de toda clase de obras y publicaciones de contenido o tendencias inmorales, disolventes o antipatrióticas". Esto es, querían hacer desaparecer de la vida pública toda disonancia u opinión contraria al régimen[276]. Además de eso, persiguieron todas las publicaciones de los afines a la República, fueran clandestinas o públicas; también solía ser habitual perseguir y controlar la radio, para que los ciudadanos no escucharan las emisiones que se emitían en contra del régimen o a favor de la República; para ello, se sellaron las radios en varios pueblos, para que solo pudieran emitir unas frecuencias concretas, las favorables a los golpistas, claro.

[275] UUA, 1941ko udal-korrespondentzia. / AMU, correspondencia municipal de 1941.
[276] UUA, 1938ko udal-korrespondentzia. / AMU, correspondencia municipal de 1938.

Tolosako Plaza Zaharrean erreketeak Herri Eskolako liburuak erretzen. (Euskal Memoria). / **Requetés quemando libros de la Escuela Municipal en la Plaza Zarra de Tolosa.** (Euskal Memoria).

Erlijio katolikoak eta honen gorazarreak indar handia hartu zuen. (Euskal Memoria). / **La religión católica y los elogios hacia ella tomaron mucha fuerza.** (Euskal Memoria).

Euskarari erasoak

Espainiar Estatuan ezarri nahi zuten erregimen berriaren egitura zentralista eta bertikalak ez zuen zeinu bereizgarririk ametitzen eta horregatik agintari berriek euskara beraien jo puntuan ezarri zuten eta Urnieta espainiartzea izan zuen helburu moduan. Jazarpen hau lehen unetik hasi zuten, euskara eta euskal ikurren aurka. 1936ko irailean soldaduak herrian sartu zirenetik bertatik, adibidez, Kontxi Zaldua Zabalaren amona eta izebaren tabernari izena ezabatu zioten, *Bar Ongietorri* deitzen zelako eta soilik Bar izena utzi zuten[277]. Ildo beretik, herria bisitatu zuten errekete talde batek Urbaneta baserrian ikur abertzale bat ikusi zutela salatu zuten alkateari bidalitako eskutitz batean eta hau kentzeko beharraz jakinarazi[278].

Autoritate publikoen aldetik ere euskararen aurkako jazarpena aurrera eraman zen. Horrela, Lasarteko Komandantzia Militarrak, Urnietan elizkizunetan euskara murrizteko agindua eman zuen, soilik eguneko lehen mezara mugatuz[279]. Hezkuntzan ere euskara guztiz baztertu zen, Errepublikan ezarri zen elebitasuna debekatuz. Honek, herriko haurren artean komeria latzak sortu zituen, izan ere euskara izaten zen batez ere beraien ama hizkuntza eta asko eskolara gaztelera ezagutu gabe iristen baitziren. Horretaz gain, Gobernadore Zibilak euskarazko izenak erabiltzeko debekua betearazteko beharra adierazi zion udalari[280].

Bestetik, euskaltzale eta euskal kulturaren sustatzaileen aurkako erasoak orokortu ziren, horrela, herriko bost emakume Andoainera eraman zituzten eta bertan ilea moztu eta errizino-olioa edanarazi zieten, ondoren herriko plazan edukiz, jendearen aurrean tripetatik behera egin arte. Eraso hau, euskaltzaleak izan eta antzerkien bidez euskal kultura sustatzeagatik burutu zuten kolpistek. Beste erasotuetako bat Angela Arrue Goiburuko irakaslea izan zen. Angelaren lana askotan goraipatu zuten bai autoritateek eta baita herritarrek ere, irakasteko erabiltzen zuen pedagogia aurreratua zela eta. Hala ere, eskolak euskaraz ematen zituelako, bere lanpostutik kanporatua izan zen eta herrira itzuli zenean ilea moztu zioten.

Baina euskararen aurkako jazarpena aurrera eramatearekin batera, udalak herritarrekin komunikatzeko unean euskara erabiltzen zuen bere bandoetan, ele bitan eta euskara hutsean argitaratuz. Horretaz gain, herriko FET-JONS antolakundea bera ere bere militanteekin komunikatu ahal izateko euskara erabiltzera behartua aurkitu zen, bere militanteak biltzeko erabili zuen bando batek erakusten duen moduan:

Ataques al euskara

La estructura centralista y vertical que quería imponer el Nuevo Régimen en el Estado español no admitía ningún signo distintivo; por ello, las nuevas autoridades pusieron el euskara en el punto de mira, siendo su objetivo españolizar Urnieta. Esta persecución contra el euskara y los símbolos vascos lo iniciaron desde el primer momento, desde que en septiembre de 1936 los soldados entraron en el pueblo. Por ejemplo, al bar que regentaban la abuela y la tía de Kontxi Zaldua Zabala le borraron el nombre, porque se llamaba *Bar Ongietorri*, y lo dejaron solo con *Bar*[277]. En el mismo sentido, un grupo de requetés que visitaron el pueblo, denunciaron en una carta enviada al alcalde, que habían visto un símbolo abertzale en el caserío Urbaneta y que había que quitarlo[278].

También se dio la persecución contra el euskera por parte de las autoridades públicas. Así, la Comandancia Militar de Lasarte ordenó que en los actos religiosos de Urnieta se limitara el euskera a la primera misa del día[279]. En la educación el euskara se dejó a un lado, prohibiendo el bilingüismo que se implantó durante la República. Esto trajo graves problemas entre los críos del pueblo, porque su lengua materna sobre todo solía ser el euskara y porque muchos llegaban a la escuela sin conocer el castellano. Además, el Gobernador Civil le declaró al ayuntamiento que tenía que cumplir la prohibición de utilizar nombres vascos[280].

Además de eso, se generalizaron los ataques contra los euskaltzales y los impulsores de la cultura vasca. Por ejemplo, cinco mujeres del pueblo fueron llevadas a Andoain y allí les cortaron el pelo y les hicieron beber aceite de ricino; luego las tuvieron en la plaza del pueblo hasta que hicieran de vientre ante la gente. Este ataque fue realizado por los golpistas porque esas mujeres eran euskaltzales y mediante obras de teatro fomentaban la cultura vasca. Otra de las atacadas fue la profesora de Goiburu Ángela Arrue. El trabajo de Ángela fue muchas veces ensalzado por las autoridades y por los urnietarras, debido a la pedagogía avanzada que utilizaba en la enseñanza. Aun así, ya que daba las clases en euskara, fue expulsada de su puesto de trabajo, y cuando volvió al pueblo le cortaron el pelo.

Pero a la vez que el ayuntamiento perseguía el euskara, a la hora de comunicarse con los vecinos utilizaba el euskara en sus bandos, publicándolos en bilingüe o únicamente en euskara. Por otro lado, la misma organización FET-JONS local se vio obligada a usar el euskara para poder comunicarse con sus militantes, tal como lo muestra un bando que usaron para reunir a sus militantes:

Errico Falangeco Jefiaren aguinduz,
orrela erabaqui dutelaco goico aguintariac,
afiliatu eta militante diran
guztiac biartubac daude amar egun barruan
azaltzera berari beren carnet
edo tarjeta, rebisatuba izan dediñ.
Orrela eguiten es dutenaren izenac
bialdu bihar dira, eta baja izango dira
erabat afiliatu edo militante becela[281].

[277] Kontxi Zaldua Zabalaren testigantza. / Testimonio de Kontxi Zaldua Zabala.
[278] UUA, 1938ko udal-korrespondentzia. / AMU, correspondencia municipal de 1938.
[279] UUA, 1937ko udal-korrespondentzia. / AMU, correspondencia municipal de 1937.
[280] UUA, 1940ko udal-korrespondentzia. / AMU, correspondencia municipal de 1940.
[281] UUA, 1941ko udal-korrespondentzia. / AMU, correspondencia municipal de 1941.

orr.



Euskarazko udal buletina. (UUA). / **Boletín municipal en euskara.** (AMU).

Nahiz eta Urnietako udalaren eta erregimenaren antolakundeen jarrerak izaera malgua erakutsi, hau, herritarrekin komunikatzeko zuen beharraren baitakoa izan zen. Euskara baztertzeko kanpaina oso bat zuen diseinatua erregimen berriak eta Urnietako udala hau aurrera eramaten joan zen. Honek, poliki-poliki euskara bigarren mailako hizkuntza bat bezala irudikatzea zuen helburu eta honen transmisio eta erabilpenean trabak ezartzea, euskaldunei gazteleraz hitz egitera behartuz,"cristianoz" hitz egitera hain zuzen ere. Honek, euskararen erabilera eta ezagutzaren galera bat ekarri zuen frankismo guztian zehar, familietan, guraso euskaldunek euskara bere haurrei ez transmititzera iritsiz.

Euskararen jazarpenaren beste adibide bat Tiburcio Pontesta herritarraren eta beste euskal herritar batzuen aurkako epaiketa militarrean aurki genezake. Tiburcio, kolpistek espetxeratu egin zuten Gerra Zibileko Iparraldeko Frontea erortzean eta sailkatze batzorde batetik pasa eta gero bortxazko lanak egitera bidali zuten. Kamioi batean sartu zuten beste hainbat presorekin eta Bilbotik igarotzean kamioiko preso batzuek ukabila altxatu eta euskaraz hainbat aldarri ohikatu zituzten. Ekintza honegatik gerra kontseilu batean epaitu zituzten kamioi horretako presoak eta Tiburcio absolbitu egin bazuten ere, berarekin zihoazen 4 kide 30 urteko espetxealdira kondenatu zituzten, 1938ko urrian[282].

Errusiar Txuriak Urnietan

Urnietaren defentsan aipatu den bezala, hainbat nazioarteko brigadistak parte hartze aktiboa izan zuten herriaren defentsan, agintaritza postuak betez edota Buruntzako gaina

Aunque la actitud del ayuntamiento de Urnieta y de las organizaciones del régimen mostraran un carácter flexible, este era por la necesidad que tenían de comunicarse con sus vecinos. El Nuevo Régimen tenía diseñado una campaña completa para despreciar el euskara, y el ayuntamiento de Urnieta fue llevándolo a cabo. Su objetivo era que, poco a poco, se concibiera el euskara como una lengua de segundo nivel, y poner trabas en su transmisión y su uso, obligando a los vascos a hablar en castellano, "en cristiano", precisamente. Esto trajo la pérdida del uso y del conocimiento del euskara durante todo el franquismo, llegando al extremo de que en las familias de padres euskaldunes no se transmitiera el euskara a sus hijos.

Otro ejemplo de la persecución del euskara lo encontramos en el juicio militar contra el urnietarra Tiburcio Pontesta y otros vascos. Tiburcio fue encarcelado por los golpistas cuando cayó el Frente Norte de la Guerra Civil, y tras pasar por una comisión de clasificación, fue enviado a realizar trabajos forzados. Lo metieron en un camión junto con otros presos, y al pasar por Bilbo, algunos presos levantaron el puño y gritaron varias proclamas en euskara Por esa acción, los presos de ese camión fueron juzgados en consejo de guerra, y aunque Tiburcio fue absuelto, otros 4 fueron condenados a 30 años de prisión, en octubre de 1938[282].

Rusos Blancos en Urnieta

Tal como se ha mencionado a la hora de describir la defensa de Urnieta, varios brigadistas internacionales tuvieron una participación activa en la defensa del pueblo, ocupando cargos

[282] AIRMN, 1669/38 urgentziazko prozedura sumarisimoa. / AIRMN, procedimiento sumarísimo de urgencia 1669/38.

beraiek ekarritako metrailadoreekin defendatuz. Bada milizianoen artean nazioartetik etorritako milaka pertsonak hartu bazituzten armak, Estatu osoan kolpistek ere izan zuten nazioarteko laguntza.

Izan ere, Errepublikari Europako estatu ia guztiek bizkarra eman bazioten ere (SESBek izan ezik), kolpistek europar faxismoa boterean zegoen bi estaturen babes ekonomiko, militar eta logistikoa jaso zuen, Alemania eta Italia. Bi hauek, tropa militarrak bidaltzeaz gain, laguntza finantziarioa, materiala eta militarra eskaini zioten Mugimendu Nazionalari. Hala ere, hauek ez ziren kolpisten alde lerratu ziren bakarrak, izan ere Errusiar Txuriak ere estatu-kolpearen alde borrokatzera etorri ziren, ROVS (errusieraz *Russki Obsche-Vóinski Soyuz,* Русский Обще-Воинский Союз, euskaraz Batasun Militar Errusiarra) deituriko erakundeak deituta. Errusiar Txuriak, Errusiako 1917ko Iraultzan, Zarraren alde lerratu ziren sektore tradizionalistak ziren, erbestera joan behar izan zirenak. Hauek, batez ere karlisten tertzioetan engaiatu ziren, mugimendu politiko honen ideia tradizionalistekin bat egiten baitzuten.

Urnietan, Lehen Frankismoan zehar bi Errusiar Txuri herrian bizi izan ziren, lehena eta nabarmenena agian Vladimir Dvoichenko izan zen. 1884an Crimean (Errusia) jaioa, Zarren Inperioko aristokrata bat zen, eta Zalditeriako ofiziala gainera Armada Zaristan. Errusiar Iraultza eman zenean, Zaren alde lerratu zen, hauen Armada Txurian borrokatuz, koronel gisa, baina gerra galtzean Errusia utzi eta Parisen ezarri zen, beste hainbat errusiar zaristekin batera. Bertan,

de autoridad o defendiendo la cima de Buruntza con la ametralladora traída por ellos. Pero si entre los milicianos fueron miles, en todo el Estado, las personas que vinieron del extranjero y cogieron las armas, los golpistas también tuvieron ayuda internacional.

Aunque casi todos los estados europeos (excepto la URSS) dieron la espalda a la República, los golpistas recibieron la ayuda económica, militar y logística de los dos estados en los que el fascismo estaba en el poder, esto es, de Alemania e Italia. Estos dos, además de enviar tropas militares, ofrecieron ayuda financiera y material militar al movimiento nacional. De todos modos, no fueron los únicos que se alinearon con los golpistas; los Rusos Blancos también vinieron a combatir en favor del golpe de Estado llamados por la organización ROVS (Russki Obsche-Vóinski Soyuz, Русский Обще-Воинский Союз, Unión Militar Rusa en español). Los Rusos Blancos fueron los sectores tradicionalistas que se alinearon a favor del zar en la Revolución Rusa de 1917, y que por lo tanto tuvieron que exiliarse. Estos, sobre todo se enrolaron en los tercios carlistas, porque compartían las ideas tradicionalistas de este movimiento político.

En Urnieta vivieron dos Rusos Blancos durante el Primer Franquismo. El primero, y tal vez el más destacado, fue Vladimir Dvoichenko. Nació en Crimea (Rusia) en 1884. Era un aristócrata del Imperio de los Zares, oficial de Caballería del Ejército Zarista. Cuando se dio la Revolución Rusa, se alineó a favor de los zares, combatiendo en su Ejército Blanco como coronel, pero al perder la guerra, dejó Rusia y se estableció en París junto con otros rusos zaristas. Allí, si-

RUSOS BLANCOS EN
SAN SEBASTIAN

Voluntarios contra la U. R. S. S. - Cuatro guerras. - El general Fock y el capitán Polhukin: Dos vidas por España

AY ruso en San Sebastián. Rusos blancos, naturalmente. Usted se habrá cruzado con ellos probablemente en la Avenida, en el café... Pero, si no les ha oído hablar o no se los han señalado, usted no se habrá fijado en ellos, y le habrán parecido tranquilos burgueses de recortados bigotes, calvicie en cualquier parte de España y gran de los Yancopadres.

A usted, quizás, le suene a extraño oído de que viven en San Sebastián auténticos rusos. ¿Cómo es que han llegado aquí? En realidad, por la misma razón que existen tres millones de rusos blancos esparcidos por todo el mundo. Aun vive la patria rusa en el corazón de estos tres millones de expatriados. La auténtica patria rusa, que es todo lo opuesto a la actual U. R. S. S.

Pero, la causa directa por la que vinieron a España, ha sido nuestra guerra de liberación. Militares la mayoría, pero también civiles, vinieron a alistarse en nuestras banderas, contra los que defendían a los auténticos enemigos de Rusia y de todo el mundo: contra los bolcheviques.

Después, San Sebastián les ha gustado. La playa de la Concha, quizás, no les recuerda las tranquilas costas de Jansen y Taudida, evidentemente. Pero han encontrado una cosa nueva, que les ha gustado, y un ambiente amable donde podrían soñar en el retorno a la Patria.

Y es aquí, en San Sebastián, donde les ha llegado, alegre, la buena nueva. Se lucha contra los partidarios de Stalin. En las rusos blancos que en San Sebastián se encontraban, ha palpitado el corazón fuerte. Y dos que podían hacerlo, han ido, desde el primer minuto a alistarse al Banderín de Enganche español para luchar contra el bolchevismo.

Nuestro amigo el ruso...

Hemos ido a encontrar a uno de estos rusos, escritor que ha publicado algunas libros en Alemania. El también ha luchado en nuestra guerra. Una gran cicatriz en la sien, no deja dudas sobre su actuación. Pero también ha estado herido por los propios bolcheviques. Al estallar la revolución en su país, este ruso que hoy nos había amable, defendió rabiosamente su Patria. Tres tiros, tres heridas, no acabaron con su energías y aun continuó luchando hasta el final.

Pero antes de eso, después de la Academia Militar, había ganado sus grados en la guerra contra los turcos. Después también luchó en la guerra europea...

-¿Cómo es que vino usted a España?

-Vinimos cuatro juntos. General de Artillería Fock, y capitán Polukhin; y el capitán Constantino Goguidjanochvili, tres veces herido. Vinimos, claro, a luchar contra las fuerzas rojas, el enemigo común. Pero había una idea más avanzada. Aspirábamos a haber formado unidades exclusivamente formadas por rusos, para luchar contra los rojos. Unidades que serían después la base para un ejército blanco que en su día combatiría contra la U. R. S. S. Esta fué nuestra idea.

-No se hizo por fin, claro...

-No se llegó a realizar. Éramos pocos. A España vinieron en total cerca de cincuenta rusos. No era mucho. No se llegó a formar una unidad rusa, y nosotros nos repartimos en varios sitios. Tercios de requeté, Legión, etc. De los cincuenta que vinimos, siete han muerto, y quince quedaron heridos. Es el porcentaje que damos.

-¿Cuántos han ido ahora a luchar contra la U. R. S. S.?

-De San Sebastián, de los tres que estaban en milicias, han ido dos.

Ung eneral, teniente

-¿Qué se hizo de sus otros tres compañeros?

-Quizás se les ha citado algo ya: ha sido injustamente. El general Fock y el capitán Polukhin, al principio simples soldados de las milicias españolas, ascendieron pronto por méritos, a tenientes de milicias. Llegaron con este grado a Quinto de Ebro, y resistieron los duros combates que tuvieron lugar en ese sector. Se portaron ambos heroicamente. El capitán Polukhin murió atravesado de balas. El general Fock, teniente en nuestras milicias, se hizo fuerte valientemente con su sección. Todos resistieron ferozmente las embestidas rojas. Minutos antes de entregarse a las fuerzas, enormemente mayores, el general Fock se pegó un tiro en la sien, antes de caer en manos enemigas. Los cuerpos de Fock y Polukhin están enterrados en Quinto de Ebro. Nadie se ha acordado de ellos. Es triste. Pero viven siempre presentes en el recuerdo de los que les conocimos. Se batieron por España, y por España dieron sus vidas...

No somos los llamados a hacer una sugerencia. Pero queda ahí, simplemente expuesto, lo realizado por el general de Artillería Fock, y el capitán de Artillería Polukhin, tenientes de nuestras milicias. Sus cuerpos, allá en Quinto de Ebro...

Jaime de URBINO

Errusiar Txurien gaineko notizia. (Unidad). / **Noticia sobre los Rusos Blancos.** (Unidad).

ROVSen barnean militar postua mantendu zuen, 1936an Gerra Zibila hasi zen arte, noiz Espainiako Estatura joan zen eta Nafarroako Tertzioetan eman zuen izena. Bertan sarjentu izatera iritsi zen gainera eta esperientzia militar honi esker gerra amaitu zenean Jefatura Provincial de Milicias de Guipuzcoan hasi zen lanean[283]. Horretaz gain, FET-JONS antolakunde faxistan eman zuen izena eta kolpisten alde borrokatu zuten errusiar guztiei bezala espainiar nazionalitatea eman zioten eta Gipuzkoan bizitzen ezarri zen, 1940 urtean Urnietan bizi zelarik, San Juan kalean[284].

Urnietan bizi izan zen bigarren errusiarra Pablo Aphanassieff izan zen. Pertsona hau Tambov (Errusia) herrian jaio zen eta 1940an bere emazte Elena Mechikoff Aphanassieffekin batera Urnietan hegaztien haztegi bat ezarri zuen. 1939ko iraila inguruan iritsi ziren Urnietara eta 40 urte eta 41 zituzten hurrenez hurren. Pablo ingeniaria zen ofizioz[285], baina ez zuten egonaldi luzea egin izan ere 1941eko martxoan Parisera joan baitzen bizitzera bikotea[286]. 1939an EEBBetan argitaratutako liburu batek, izen berdineko pertsona bat Ipar Amerikan exiliatu zen Errusiar Txuri bat bezala identifikatzen du, Alemania Naziarentzat espoi lanak egin zituena[287].

Erregimen Berriaren aurkako erresistentzia, lehen arrakalak

Esan den bezala, 1936ko uztailaren 18ko estatu-kolpea babestu zutenek, urte bereko irailean Gipuzkoa arma bidez konkistatu eta gero, erregimen diktatorial bat ezarri zuten, eta honen helburua gizartearen arlo guztiak kontrolpean izatea zen. Horretarako, pertsona eta mugimendu oro deuseztu, zapaldu eta txikitzeko baliabideak jarri zituen autoritate berrien esku. Hilketa, espetxeratzea, tortura eta tratu txarrak, bortxazko lanak, konfiskazio eta zigor ekonomikoak, lanpostuetatik kaleratzeak, umiliazio publikoak…

Ildo beretik, herritarren gaineko kontrol zurruna bermatzeko, udalak Gerra Zibileko Iparraldeko Frontea erori zenean edota gerra amaitzean 1939an herrira itzuleran zetozen errefuxiatuak kontrol zurrun baten baitan ezarri zituen, askori udaletxera aurkeztera behartuz eta gainontzekoak FET-JONSeko kideei zainduak izateko aginduz. Kontrol neurri hauen helburua, beldurra eta errepresioaren bitartez jendea Mugimendu Nazionalaren aurka ez altxatzea eta honen aldeko jarrera pasibo bat izatea zen.

Abertzaleen eta batez ere ezkertiarren aurka erregimen berriak hedatu zuen indarkeria eta errepresioak herriaren soziologia erabat aldatu zuen. Ikusi dugun moduan, 1936ko iraila hasieran ehunka izan ziren herria utzi eta ihes egitera behartuta agertu zirenak. Kasurik nabarmenena Oriako biztanleena izan zen, auzo honetako biztanleriaren hiru laurden inguruk utzi baitzituzten beraien etxe eta ondasunak atzean eta ihesari eman zioten. Hauek, miliziano bezala, Eusko Jaurlaritza edota alderdi eta sindikatuentzat lanean edota errefuxiatu bezala ibili ziren, batzuek Bizkaia erori arte, baina ez ziren gutxi izan Asturiasera arte joan zirenak edota itsasoz ihes egitea lortu eta Katalunian edota atzerrian babestu zirenak.

guió manteniendo el puesto militar dentro de la ROVS, hasta que en 1936 empezó la Guerra Civil Española y se dirigió hacia allá, alistándose en los Tercios de Nafarroa. Llegó a ser sargento en ellos, y gracias a esa experiencia militar, cuando terminó la guerra empezó a trabajar en la Jefatura Provincial de Milicias de Gipuzkoa[283]. Además, se afilió en la organización fascista FET-JONS, y como a todos los rusos que combatieron a favor de los golpistas, le dieron la nacionalidad española y se estableció en Gipuzkoa; en 1940 vivía en la calle San Juan de Urnieta[284].

El segundo ruso que vivió en Urnieta fue Pablo Aphanassieff. Nació en Tambov (Rusia), y en 1940, abrió una granja de aves en Urnieta junto con su esposa Elena Mechikoff Aphanassieff. Llegaron al pueblo hacia septiembre de 1939, y tenían 40 y 41 años, respectivamente. Pablo de oficio era ingeniero[285]. No realizaron una larga estancia ya que en marzo de 1941 se fueron a vivir a París[286]. En un libro publicado en los EEUU en 1939, se identifica a una persona con el mismo nombre como a un Ruso Blanco exiliado en EEUU, y que había realizado trabajos de espionaje para la Alemania Nazi[287].

La resistencia contra el Nuevo Régimen, las primeras fisuras

Como hemos dicho, los que apoyaron el golpe de Estado del 18 de julio de 1936, tras tomar Gipuzkoa por las armas en septiembre del mismo año, establecieron un régimen dictatorial, cuyo objetivo era tener bajo control todos los ámbitos de la sociedad. Para ello, pusieron en manos de las nuevas autoridades recursos para destruir, aplastar y aniquilar cualquier persona o movimiento: asesinatos, encarcelamientos, torturas y malos tratos, trabajos forzosos, confiscaciones y sanciones económicas, expulsiones laborales, humillaciones públicas…

Del mismo modo, para garantizar el control estricto sobre los ciudadanos, el ayuntamiento estableció un rígido control sobre los refugiados que volvieron al pueblo tras la caída del Frente Norte de la Guerra Civil o al terminar la guerra en 1939. A muchos les obligaban a presentarse al ayuntamiento y, los demás, eran vigilados por los miembros de las FET-JONS. El objetivo de esas medidas de control era que mediante el miedo y la represión la gente no se levantara contra el movimiento nacional y tuviera una actitud pasiva en su favor.

La violencia y la represión que el Nuevo Régimen desplegaron contra los abertzales y los izquierdistas cambiaron totalmente la sociología del pueblo. Como hemos visto, fueron cientos los que tuvieron que huir del pueblo a comienzos de septiembre de 1936. El caso más destacado fue el de los habitantes de Oria, pues tres cuartas partes de la población de ese barrio tuvo que dejar sus casas y bienes, y tuvo que iniciar la huida. Estos anduvieron como milicianos, trabajando para el Gobierno Vasco, partidos o sindicatos, o si no como refugiados; algunos hasta la caída de Bizkaia, pero no fueron pocos los que fueron hasta Asturias o los que lograron huir por mar y se refugiaron en Cataluña o en el extranjero.

[283] Kovalevski, Vladimir (2019). / Kovalevski, Vladimir (2019).
[284] UUA, 1940ko udal-korrespondentzia. / AMU, correspondencia municipal de 1940.
[285] UUA, 1940ko udal-korrespondentzia. / AMU, correspondencia municipal de 1940.
[286] UUA, 1941ko udal-korrespondentzia. / AMU, correspondencia municipal de 1941.
[287] Spivak J.L. (1939). / Spivak, J.L. (1939).

Horrela, herria uztea erabaki zuten pertsona hauen aurkako errepresio ekonomiko zein politikoari hasiera eman zioten Urnietako udalean boterea hartu zuten kolpistek eta hauen aurkako ehunka informe bidali zituzten eta beraien etxeetako ondasunak konfiskatu zizkieten. Horrela, 72 etxebizitza edota gelatan zeuden ondasunak konfiskatu eta beste 14 pertsonari beraien etxebizitza propioa konfiskatu zioten. 72 etxebizitza hauen gehiengoa Oria auzoko Brunet industriako langile-etxeak ziren, izan ere kolpistek industria hau militarizatu egin zuten eta agintari militarrek bertako produkzioa ahalik eta azkarren berraktibatu nahi zuten eta horretarako etxeak hustu eta langile berriak bidali nahi zituzten, aurrekari ezkertiarrik ez zuen jendea betiere.

1936an eginiko konfiskazio hauei esker, Nafarroa eta inguruko herrietako hamarnaka langile berri eraman zituzten Oriara eta baita Lasartera ere, "Errusia Txikia" bezala ezagutzen zen auzoaren soziologia goitik behera aldatuz. Gainera, erabaki honekin, etxe hauetako biztanle legitimoen kanporatze agindu inplizitu bat burutzen zen, izan ere, auzora itzultzen saiatu ziren asko, etxe eta ondasunik gabe aurkitu ziren eta hau uztera behartuak agertu ziren. Ez ziren gutxi izan ere deserriratze agindua jaso eta gero, ikusirik etxe gabe geratu zirela beraien jaioterrietara itzuli zirenak Julio Alonso Turrientes bezala. Beste asko, gerra aurretik Oria eta Lasarteko industrietara lanera etorritako familietakoak edota senarra ihes eginda edo preso izatean babesgabe geratu zirenak, beraien jaioterrietara edota familia bizi zen herrietara joateko baimena eskatu zuten. Hauek, batez ere emakumeak izan ziren, herrian pairatzen zuten baztertketa eta babes falta jasanezina baitzen.

De ese modo, los golpistas que tomaron el poder en el Ayuntamiento de Urnieta dieron inicio a la represión económica y política contra esas personas que decidieron abandonar el pueblo, enviando cientos de informes y confiscando los bienes de sus casas. Así, confiscaron los bienes que había en 72 viviendas o habitaciones, y a otras 14 personas les confiscaron sus propias viviendas. La mayoría de esas 72 viviendas eran casas de obreros de la industria Brunet de Oria, ya que los golpistas habían militarizado esa industria y las autoridades militares querían reactivar cuanto antes su producción; para ello, querían vaciar las casas e instalar trabajadores nuevos, gente que no tuviera antecedentes izquierdistas.

Gracias a estas confiscaciones realizadas en 1936, llevaron a decenas de nuevos trabajadores de Nafarroa y de los pueblos de alrededor a Oria y a Lasarte, cambiando de arriba abajo la sociología del barrio conocido como la "Pequeña Rusia". Además, con esa decisión, se realizaba una expulsión implícita de los habitantes legítimos de esas casas, ya que muchos de los que intentaron volver al barrio, se encontraron sin casas y sin bienes, y se vieron obligados a dejarlos. No fueron pocos los que al recibir la orden de destierro, y ver que se quedaron sin casa, volvieron a su pueblo natal. Ese fue el caso, por ejemplo, de Julio Alonso Turrientes. Otros muchos, de familias que habían venido antes de la guerra a Oria y Lasarte a trabajar en las industrias, o los que al tener al marido huido o encarcelado se quedaron sin protección, pidieron permiso para volver a sus pueblos natales o a los pueblos donde vivían sus familiares. Estos, sobre todo fueron mujeres, pues la exclusión y la falta de apoyo que sufrían en el pueblo era insoportable.

Juantorena Lopez sendia artilea jotzen Zelaialde etxearen aurrean 1944an. (Oria bizitzako erkidegoa, lanerako eremua). **/ La familia Juantorena López abatanando la lana ante la casa Zelaialde en 1944.** (Oria, una comunidad de vida, un espacio de trabajo).

orr.

Beste askok berriz, deserriratze agindua jaso zuten espetxetik irten zirenean. Hau da, aske geratzen ziren baina Errepublika garaian bizi ziren herrira itzultzeko ezintasunarekin. Hori izan zen adibidez, Isidro Aguirre Mugaren kasua, 1941ko uztailaren arte, Cadizko Puerto Santa Maria espetxean egon zen preso, 30 urteko espetxealdira kondenatua. Urnietako agintariek herrira itzultzeko debekua ezarri zioten eta ondorioz Zaragozara bizitzera joan behar izan zen[288]. Beste hainbat herritarri ere antzerako deserriratzeak aplikatu zizkioten, Miguel Cialceta Goyaranen kasuan Murtziara bizitzera joanez[289].

Otros muchos recibieron la orden de destierro cuando salieron de la cárcel. Esto es, quedaban en libertad pero con la imposibilidad de volver al pueblo donde vivían durante la República. Ese fue el caso, por ejemplo, de Isidro Aguirre Muga. Hasta julio de 1941 estuvo en la cárcel de Puerto Santa María en Cádiz, condenado a 30 años de prisión. Las autoridades de Urnieta le impusieron la prohibición de volver al pueblo y, por lo tanto, tuvo que irse a vivir a Zaragoza[288]. Otro ejemplo de los numerosos urnietarras a los que se les aplicó el destierro fue el de Miguel Cialceta Goyaran, que tuvo que irse a vivir a Murcia[289].

URNIETAKO BIZILAGUNEN SAILKAPEN POLITIKOA SAILEN EDO ALDEEN ARABERA[290] /
CLASIFICACIÓN POLÍTICA DE LOS HABITANTES DE URNIETA EN BASE A SECTORES O AFINIDADES[290]

SAILA / SECTOR	ALDEKOAK / PARTIDARIOS	AURKAKOAK / CONTRARIOS	BADAEZPADAKOAK / DUDOSOS	HAUTESLEAK GUZTIRA / TOTAL ELECTORES
1.- Kalea edo herrigunea / Calle o casco urbano	70	68	128	266
2.- Landa edo baserri aldea / Zona rural o de los caseríos	168	217	142	527
3.- Lasarte-Oria eta Oztaran / Lasarte, Oria y Oztaran	348	123	142	613
Orokorra / General	586	408	412	1406

Erregimen berriak beraz Oria eta Lasarteko langile mugimenduaren aurkako errepresio sistematiko eta orokortu bat burutu zuen. Honi lan legedi berriak eta sindikatuak legez kanpo uzteak eta erregimenaren parte zen sindikatu bertikalaren sorrerak langileen arteko elkartasun eta babesa deuseztu zuen. Horrela beraz, kolpistentzat gorri eta separatista arriskutsuz beterik zegoen auzoen izaera goitik behera irauli zuten, erregimen berriaren babesgune nagusiak bilakatu baitziren Lasarte, Oria eta Oztaran inguruak. Azken hau beti izan zen izaera tradizionalistakoa, baina lehen biak gehitu zitzaizkion. Ezkerreko langileen mugimendua beraz ia ezerezean geratu zen udal frankistaren ustetan, Lehen Frankismoaren lehen urteetan behintzat ez delarik zantzu nabarmenik egongo honen inguruan, baina hau poliki poliki berreskuratuz joango da hurrengo urteetan. Horrela, 1946rako Lasarte eta Orian ezker mugimenduak aurkitzen zirela onartzen du, zeinek euskal abertzaletasunari erresistentzia hegemonia borrokatzen zion[291].

Agintari berrientzat, erregimenaren aurkako bigarren erresistentzia gune nagusia, landa eremua eta Urnietako kaskoa ziren eta hauetan mugimendu abertzaleak ziren nagusi. Hauek, errepresioa pairatu bazuten ere, beraien egitura familiarrak egonkorragoak zirelako eta landa eremuetako etxeetan desjabetzarik eman ez zelako, herrian geratzeko aukera gehiago izan zituzten. Gainera, espetxetik edo erbestetik itzultzerakoan berriro ere herrian bizitzeko aukera izan zuten. Beraz, udalbatzaren hemendik aurrerako buruhauste nagusia eremu honetan ematen ziren gertakariak izan ziren.

Denborarekin erregimen berriak hedatu zuen errepresio eta kontrol zurrunaren aurrean, lehen arrakalak irekitzen hasi ziren, autoritatearen aurkako lehen erresistentzia jarrerak izan

Por lo tanto, el Nuevo Régimen llevó a cabo una represión sistemática y generalizada contra el movimiento obrero de Oria y Lasarte. Si a eso le añadimos la nueva legislación laboral, el dejar a los sindicatos fuera de la ley y la creación del sindicato vertical que era parte del régimen, destruyeron la solidaridad y apoyo entre los trabajadores. De ese modo, cambiaron por completo la identidad de los barrios que para los golpistas estaban llenos de peligrosos rojos y separatistas, y en adelante, los alrededores de Lasarte, Oria y Oztaran se convirtieron en las principales zonas de apoyo del Nuevo Régimen. Oztaran siempre había sido de carácter tradicionalista, pero se le unieron los otros dos. Por lo tanto, según el ayuntamiento franquista, el movimiento obrero izquierdista casi desapareció. Por lo menos en los primeros años del Primer Franquismo no se atisba nada destacado sobre ello, aunque en los años siguientes se irá recuperando poco a poco. Así, para 1946 acepta que hay movimientos izquierdistas en Lasarte y Oria, y que luchaban por la hegemonía con el nacionalismo vasco[291].

Para las nuevas autoridades, el segundo núcleo principal de resistencia contra el régimen eran la zona rural y el casco de Urnieta, y ahí dominaban los movimientos abertzales. Estos, aunque sufrieron la represión, tuvieron más oportunidades de quedarse en el pueblo ya que sus estructuras familiares eran más estables y porque en la zonas rurales no se dieron desahucios. Además, tras volver de la cárcel o del exilio, tuvieron la ocasión de poder quedarse a vivir en el pueblo. Por lo tanto, en adelante, los principales quebraderos de cabeza de la corporación municipal fueron los sucesos ocurridos en este ámbito.

Pero en la represión y el estricto control que había extendido el Nuevo Régimen, empezaron a abrirse las primeras grietas, las que fueron las primeras muestras de resistencia contra

[288] AIRMN, 189/37 urgentziazko prozedimendu sumarisimoa. / AIRMN, procedimiento sumarísimo de urgencia 189/37.
[289] GAHP, Miguel Cialceta Goyaranen espetxe-espedientea. / AHPG, expediente penitenciario de Miguel Cialceta Goyaran.
[290] Imaz, I. (2011). / Imaz, I. (2011).
[291] Imaz, I. (2011). / Imaz, I. (2011).

Landa eremua eta Goiburu bilakatu ziren erregimenaren aurkako erresistentzia gune nagusia. (Gure Gipuzkoa). / **La zona rural y Goiburu se convirtieron en el principal núcleo de resistencia contra el régimen.** (Gure Gipuzkoa).

zirenak. Horrela, taberna eta lagunarteko bilkuretan autoritateen aurkako kritikak hedatzen joan ziren. Baina erresistentzia ekintza hauek, gogor zapaldu nahi izan zituzten autoritate frankistek, salaketa eta espetxe zigorrak ezarriz. Adibidez, Miguel Maria Garmendiarekin urte luzez izan zituen udalak tirabirak, batez ere Seccion Femeninako kideei Auxilio Socialaren aldeko ikurra ez erosteagatik[292] edota Juan Angel Izaguirre Arrueren kasuan falangeko emakumeak iraintzeagatik edota udaleko karguei desegoki hitz egiteagatik[293]. Sebastian Echeverria Iturberen kasuan, 1943an atxilotu zuten, Pasaiako Nicolasa jatetxean bazkaltzen zela jatetxean zegoen Francoren erretratua otarrainen haztegira jaurtitzeagatik. Espetxean izan zuten bere aurkako akusazioa largetsi zen arte[294]. Ildo beretik, Concepcion Ocariz Tarazona espetxeratua izan zen eta 3 urteko kartzelaldira kondenatua, Brunet enpresan zegoen diktadorearen argazkiari ebakiak egiteagatik[295].

Udalbatzaren esanetan beraz, Lehen Frankismoan euskal abertzaletasunaren baitan antolatu zen batez ere erregimen berriaren aurkako erresistentzia. Horrela, agintarien beraien esanetan, mugimendu ezkertiarreko kideen gehiengoa ziren herritarrak joanak ziren edo hilda zeuden. Gainera, nahiz eta uste zuten herritarren gehiengoa ordena eta zibilizazio kristauaren aldekoa zela, hauteskunde aske batzuk eginez gero, erregimenaren alde zeuden indarrek hauek galduko zituztela adierazten zuten, Errepublika garaian eman zen moduan, euskal abertzaletasunaren baitan mugitzen ziren indarrek irabazi ko baitzuten[296].

la autoridad. Así, en los bares y en las reuniones de amigos se fueron expandiendo las críticas contra las autoridades. Pero las autoridades franquistas quisieron aplastar con dureza esas acciones de resistencia, imponiendo denuncias y penas de cárcel. Por ejemplo, Miguel María Garmendia tuvo disputas durante largos años con el ayuntamiento, sobre todo por no comprar a los miembros de Sección Femenina el símbolo a favor del Auxilio Social[292]; lo mismo a Juan Ángel Izaguirre Arrue por insultar a las mujeres de la Falange o por hablar inapropiadamente a los cargos municipales[293]. Sebastián Echeverria Iturbe fue detenido en 1943, estando comiendo en el restaurante Nicolasa de Pasaia, por haber lanzado un retrato de Franco que había en el restaurante al vivero de las langostas. Lo tuvieron en prisión hasta que la acusación en su contra se archivó[294]. Un caso parecido fue el de Concepción Ocariz Tarazona, que fue detenida y condenada a 3 años de prisión por hacer cortes a la fotografía del dictador que estaba en la empresa Brunet[295].

Por lo tanto, según lo dicho por la corporación municipal, en el Primer Franquismo la resistencia contra el Nuevo Régimen se organizó sobre todo en torno al nacionalismo vasco. Así, en palabras de las mismas autoridades, la mayoría de los miembros del movimiento izquierdista local se habían ido o estaban muertos. Además, aunque decían que la mayoría de los urnietarras era favorable al orden y civilización cristiana, también expresaban que si hubiera elecciones libres las fuerzas que estaban a favor del régimen las perderían, igual que durante la República, pues ganarían las fuerzas que se movían en torno al nacionalismo vasco[296].

[292] UUA, 1938ko udal-korrespondentzia. / AMU, correspondencia municipal de 1938.
[293] UUA, 1945ko udal-korrespondentzia. / AMU, correspondencia municipal de 1945.
[294] GPAH, Sebastian Echeverria Iturberen espetxe-espedientea. / AHPG, expediente penitenciario de Sebastián Echeverria Iturbe.
[295] AIRMN, 2050/39 urgentziazko sumarisimoa. / AIRMN, sumarísimo de urgencia 2050/39.
[296] Imaz, I. (2011). / Imaz, I. (2011).


4640
23103
DELITO

Lasarte eta Usurbileko hainbat herritarren aurkako gerra kontseilua. (AIRMN). / **Consejo de guerra contra varios vecinos de Lasarte y Usurbil.** (AIRMN).

Ideia honekin bat dator Jose Primitivo Tellechea Cerrajeria, Benjamin Gorostegui Cano, Jose Vila Yarza eta Angel Aliri Añorgaren aurkako 1942ko gerra kontseilua. Lau hauek, propaganda abertzalea egin eta Lasarte, Usurbil eta Zubietan EAJren baitako laguntza sare bat sortu eta alderdi politiko hau berreraikitzeko saiakera egiteagatik atxilotuak izan ziren eta epaituak. Beraiekin batera beste sei pertsona atxilotu zituzten, Francisco Iparraguirre Arruti, Demetrio Aizpuru Illarramendi, Manuel Sagardia Manterola, Javier Busto Mugica, Andres Plazaola Artola eta Manuel Mugica Irastorza. Epaiketa aurretik, 10 pertsona hauek 9 hilabetez izan zituzten preso eta gerra kontseiluan Angel 3 urteko espetxe zigorrera eta 10.000 pezetako isun ekonomikoa ordaintzera kondenatu zuten, beste guztiak absolbituz. Hala ere, herri hauetan antolakunde abertzaleak egotearen zantzuak zeudela uste zuen tribunal militarrak eta erregimenari gertakari hauek ikertzeko beharra adierazi zion[297]. Aurrez gainera, Benjamin Gorostegui Canori 500 pezetako isun ekonomikoa jarri zioten, taberna batean Espainiako Legioko soldadu batekin eztabaida bat izan eta bertan Espainiaren aurkako ideiak adierazteagatik[298].

Aipatu izan dugu, Lasarte eta batez ere Oria oso kolpatuak izan zirela gerraosteko errepresioarengatik. Errepublika garaian loratu ziren mugimendu ezkertiarren kide nabarmenenak hilda, espetxean edota erbestean aurkitzen ziren. Atzerrira joan ziren asko gainera ez ziren inoiz itzuliko, Echezar Garro familiaren ka-

Acorde a esa idea fue el consejo de guerra de 1942 contra José Primitivo Tellechea Cerrajería, Benjamín Gorostegui Cano, José Vila Yarza y Ángel Aliri Añorga. Estos cuatro fueron detenidos y juzgados por hacer propaganda abertzale, y por intentar reconstruir el partido político PNV y una red de apoyo en torno suyo en Lasarte, Usurbil y Zubieta. Junto a ellos fueron detenidas otras seis personas: Francisco Iparraguirre Arruti, Demetrio Aizpuru Illarramendi, Manuel Sagardia Manterola, Javier Busto Mugica, Andrés Plazaola Artola y Manuel Mugica Irastorza. Antes del juicio, esas 10 personas estuvieron encarceladas durante 9 meses, y en el consejo de guerra, Ángel fue condenado a 3 años de prisión y a pagar una multa de 10 000 pesetas, siendo absueltos todos los demás. De todos modos, el tribunal militar pensaba que había indicios de en esos pueblos había organizaciones abertzales, y le expresó al régimen la necesidad de investigar esos hechos[297]. Además, anteriormente, a Benjamín Gorostegui Cano le impusieron una sanción económica de 500 pesetas, por discutir en un bar con un soldado de la Legión Española y expresar ideas contrarias a España[298].

Hemos mencionado anteriormente, que Lasarte y sobre todo Oria fueron fuertemente golpeados por la represión de la posguerra. Los miembros más destacados de los movimientos izquierdistas que florecieron durante la República estaban muertos, en la cárcel o en el exilio. Además, muchos de los que estaban en el extranjero ya no volverían más, como en el caso de la familia Echezar Garro. De todos modos, no lograron deshacer del todo las redes solidarias entre los trabajadores. Aunque era imposible crear sindicatos y partidos políticos, poco a poco se fueron formando redes de solidaridad entre ellos. Al principio, empezaron a crearse para apoyar a las decenas de oriatarras que estaban encarcelados, realizando visitas a las cárceles, llevándoles comida, etc. Después, se fueron organizando para mejorar las condiciones de vida y laborales de los vecinos. Durante los primeros años se limitaron a redes de solidaridad, algo parecido a la resistencia; pero esos grupos, poco a poco, se fueron organizando, y en las próximas décadas florecieron en un fuerte movimiento obrero. Además, esas resistencias llegaron a pelear por la hegemonía de la lucha contra el régimen en Lasarte y en Oria, con la derecha nacionalista vasca que era hegemónica en los demás barrios.

Otro símbolo de resistencia contra el régimen era el de los maquis. Tal como hemos mencionado, el maquis era un movimiento guerrillero, formado por comunistas y anarquistas, para combatir contra el Estado franquista. Los principales núcleos del Estado español estaban en Asturias, Levante y Teruel; por lo tanto, Euskal Herria se convirtió en una zona estratégica, pues hacía de unión entre el refugio del Estado francés y los montes de Asturias. Así, sobre todo por Nafarroa y Araba se movían grupos de maquis, pero también llegaron a pasar a Gipuzkoa, incluso llegando un grupo a Hernani. Entre 1947 y 1948, la Guardia Civil organizó una emboscada en Lasarte contra una pareja de maquis que iba de Asturias a Iparralde. Uno de los guerrilleros cayó en esa trampa en la zona del hipódromo y fue asesinado; su cuerpo fue mostrado en el ayuntamiento de Lasarte. Según los testigos, el maquis no murió en el tiroteo, sino que fue ejecutado,

[297] AIRMN, 4177/42 sumarisimo arrunta. / AIRMN, sumarísimo ordinario 4177/42.
[298] AIRMN, 4177/42 sumarisimo arrunta. / AIRMN, sumarísimo ordinario 4177/42.

suan bezala. Hala ere, langileen arteko elkarlan sareak guztiz deuseztatzea ez zuten lortu. Horrela, nahiz eta sindikatu eta alderdi politikoak eratzeko ezintasuna izan, langileen arteko elkartasun sareak eratzen joan ziren poliki-poliki. Hauek hasiera batean preso zeuden hamarnaka oriatarren babeserako eratzen joan ziren, espetxeetara bisitak, janaria eramatea etab. burutuz. Hauek, ondoren herritarren bizi baldintzak edota lan baldintzak hobetzeko antolatzen hasi ziren. Hasierako urteetan, elkartasun sareetara mugatu ziren, erresistentzia gisako zerbait sortuz, baina talde hauek poliki-poliki antolatuz joan ziren, eta hurrengo hamarkadetan langile mugimendu indartsu bat loratuko zen bertatik. Erresistentzia sare hauek gainera, erregimenaren aurkako borrokaren hegemonia borrokatzera iritsi ziren Lasarte eta Orian gainontzeko auzoetan hegemonikoa zen eskuineko euskal abertzaletasunari.

Erregimenaren aurkako beste erresistentzia ikur bat makiena izan zen. Aipatu izan den moduan, makiak estatu frankistaren aurka borrokatzeko gerrilla mugimendua izan ziren, komunista eta anarkistez osatua. Espainiako Estatuan, gune nagusiak Asturias eta Levante eta Teruleko guneetan aurkitzen ziren, beraz Euskal Herria gune estrategiko bat bilakatu zen, Frantziako Estatuko babesgunea eta Asturiaseko mendien arteko lotura egiten baitzuen. Horrela, batez ere Nafarroa eta Arabatik makien taldeak mugitzen ziren, baina Gipuzkoara ere pasa izan ziren, talde bat Hernanira iritsi zelarik. Asturiasetik Ipar Euskal Herrira bidean zihoan makien bikote baten aurka, 1947 edo 1948 bitartean Lasarten guardia zibilak segada bat antolatu zuen. Gerrillarietako bat hipodromoaren inguruan erori zen segadan eta erail egin zuten, bere gorpua Lasarteko udaletxean erakutsiz. Testiguen arabera, makia ez zen tiroketa batean hil, baizik eta exekutatua izan zen, kopetan baitzituen tiroak. Bere kideak, bigarrenak, ihes egitea lortu zuen eta muga gurutzatzea lortu zuen[299].

Rosario Galan Murias, Victorio Vicuñaren emaztea ere makien laguntza sareko kidea zen. Galdamestarra, herri honetako mendietatik mugitzen ziren gerrillariei laguntzen zien. Hala ere, Gerra Zibilean izandako parte-hartzeagatik atxilotu zutenean, makiekin zituen loturak jakin aurretik ihes egitea erabaki zuen eta muga zeharkatu zuen, Pariseraino mugituz. Bertan Victorio ezagutu eta ezkondu egin ziren, baina ez ziren berriro Oria ibaiaren magaletara itzuli Franco hil zen arte.

Gerraosteko gizartea orokorrean, erregimen berriaren zapalkuntza eta errepresioaren botaren menpe geratu zen, baina ez ziren gutxi izan zapalkuntza honi aurre egin izan ziotenak, batzuk era aktibo batean erresistentzia guneak antolatuz eta beste batzuk egunerokotasunean arrakalak eraginez eta hauek giro itogarri horretatik ihes egin eta arnasgune bezala baliatuz. Erregimenak, ikusi dugun bezala, aurkakotasun guztia gogor zapaldu nahi izan zuen, baina ez zen gai izan guztiz ezabatzeko eta urte horietan antolatu ziren oinarriak hurrengo hamarkadetan frankismoaren aurka eratu zen erresistentzia loren haziak izan ziren.

ya que tenía los disparos en la frente. Su compañero logró huir y cruzar la frontera[299].

Rosario Galán Murias, esposa de Victorio Vicuña, también era de la red de apoyo a los maquis. De Galdames, ayudaba a los guerrilleros que se movían por los montes de su pueblo. De todos modos, cuando fue detenido por la participación que tuvo durante la Guerra Civil, decidió escapar antes de que supieran las relaciones que tenía con los maquis; cruzó la frontera y se fue hasta París. Allí conoció a Victorio y se casaron, pero no volvieron al regazo del río Oria hasta que murió Franco.

En general, la sociedad de la posguerra quedo bajó la bota de la opresión y la represión del Nuevo Régimen, pero tampoco fueron pocos los que se enfrentaron a esa opresión; algunos organizando zonas de resistencia de un modo activo, y otros causando grietas en el día a día, y aprovechándolos para huir de ese ambiente asfixiante y poder respirar. El régimen, tal como hemos visto, quiso aplastar duramente toda oposición, pero no fue capaz de destruirlo totalmente, y durante esos años se organizaron las bases de lo que en las décadas posteriores serían las semillas de las flores de la resistencia contra el franquismo.

Exekutatutako pertsona baten argazkia. (Euskal Memoria). / **Imagen de una persona ejecutada.** (Euskal Memoria).

[299] Islada ezkutatuak (2020). / Islada Ezkutatuak (2020).

orr.

4.2. EMAKUMEEN AURKAKO ERREPRESIOA

Euskal Herria, aipatu den bezala, sustrai tradizionalista sakoneko lurraldea izan zen historikoki, non genero bidezko rol banaketa zurrun bat mantentzen zen. Eredu hauek, batez ere nekazal esparruetan eta eremu industrial txikietan mantentzen ziren. Hala ere, 1931n Espainiako Bigarren Errepublika iristean, emakumeen eskubide eta askatasunaren loraldi baterako aukera ireki zen.

1930. hamarkadako lehen erdian beraz, eraldaketa soziala bultzatzen zuten proposamen eta proiektu ugari eraman ziren aurrera, hauek emakumeen eskubideetan bere isla izan zutenak. Nabariena agian emakumeek bozka eskubidea izatea izan zen, urnietarren kasuan 1933ko euskal estatutuaren erreferendumean erabili ahal izan zutena. Beste garapen arlo garrantzitsu bat, emakumeek bizitza publikoan eta politikoan parte hartzeko aukera izan zen. Alderdi eta sindikatu ezkertiarren artean, emakumeen mobilizazioa hedatu zen eta ez ziren industriako emakume langile gutxi izan antolakunde hauetara batu zirenak eta beraien eskubideak defendatzeari ekin ziotenak. Hauek batez ere, Oria eta Lasarteko industria guneetako langileak izan ziren, zeintzuk langileen eskubideen aldeko protestetan parte hartu izan zuten. Ildo honetatik, ohikoak izan ziren langileen eskubideen eta herritarren bizi baldintzen hobetzea aldarrikatzen zuten mobilizazioak egitea, manifestazioak, hitzaldiak… eta hauetan emakumeen parte hartzea ekintza hauetan areagotuz joan zen. Adibidez, 1934ko urriko greba orokorrean parte hartu zuten, non industria guztiak ixtea lortu zuten langileek. Baina mobilizazio hauen aurka Espainiako Estatuak errepresio gogorra abiatu zuen hurrengo hilabeteetan eta hainbat Oriako langile atxilotu eta epaitu zituzten. Hauek kondena betetzeko atxilotzera joan zirenean, hainbat auzotar kalera irten ziren eta emakume bat atxilotua izan zen guardia zibilak ukabila altxatuz mehatxatzeagatik[300].

Ohikoa izan zen ere emakumeen gero eta parte hartze nabariagoa lan munduko aldarrikapen eta mobilizazioetan. Urte horietan ohikoa zen manifestazioen aurretik banderadunak eramatea, normalean emakumeak. Kasu honetan, Cano Inza sendiko Delfina eta Magdalena ibili ziren jardun honetan. Parte hartze honegatik biak Hendaian errefuxiatu ziren, errepresioarengandik ihesi[301].

Euskal abertzaletasunaren aldetik, Emakume Abertzale Batzaren baitan antolatu ziren beste hainbat emakume, hauek euskal kultura eta hizkuntza sustatzeko lan mardula egin zutelarik, antzerkiak eta ekitaldiak antolatuz. Hauek, gizartearen ikuspegi tradizionalista batetik zetozen, baina herriko kulturaren transmisioan eginiko lana oso garrantzitsua izan zen eta gogor ordainduko zuten gainera gerrak eztanda egitean.

Hala ere, hauek aldaketa baten printzak bakarrik izan ziren, urte horietan oraindik emakumeen gehiengoa gizarteak egozten zizkien funtzio tradizionalak betetzera mugatzen ziren, familia eta etxearen zaintzara hain zuzen, bizitza publikotik aldenduak beti. Hala ere, nahiz eta gehiengoa ez izan eta epe labur batean iraun zuten, errepresio frankistak guztiz zapaldu arte, gizarte berri eta justuago baterako ateak irekitzen hasi

4.2. LA REPRESIÓN CONTRA LAS MUJERES

Tal como se ha mencionado, Euskal Herria históricamente ha sido un territorio de profundas raíces tradicionalistas, donde se mantenía un rígido reparto de roles basado en el género. Esos modelos se mantenían sobre todo en zonas rurales y en pequeñas zonas industriales. De todos modos, cuando en 1931 llegó la Segunda República, se abrió una puerta a los derechos y libertades de las mujeres.

Por lo tanto, en la década de 1930 se llevaron a cabo muchas propuestas y proyectos que impulsaban la transformación social, los cuales tuvieron sus repercusiones en los derechos de la mujer. Tal vez la más evidente, era que las mujeres tenían derecho a voto, que en el caso de las urnietarras lo pudieron hacer uso de ello en el referéndum sobre el Estatuto vasco en 1933. Otro ámbito importante de desarrollo fue que las mujeres podían participar en la vida pública y política. Entre los partidos y sindicatos izquierdistas se extendió la movilización de las mujeres, y no fueron pocas las mujeres trabajadoras de la industria las que se unieron a estas organizaciones y empezaron a defender sus derechos. Estas, sobre todo fueron trabajadoras de las zonas industriales de Oria y Lasarte que anteriormente ya habían participado en protestas en favor de los derechos de los trabajadores. En ese sentido, fue habitual hacer movilizaciones, manifestaciones, charlas… que reivindicaban la mejora de los derechos de los trabajadores y de las condiciones de vida de los ciudadanos, y en ellas la participación de las mujeres fue creciendo. Por ejemplo, participaron en la huelga general de octubre de 1934, donde los trabajadores lograron cerrar todas las industrias. Pero durante los meses siguientes el Estado español dio inicio a una dura represión contra esas movilizaciones, y entre otros, detuvo y enjuició a varios trabajadores de Oria. Cuando fueron a detenerlos para cumplir la condena, varios vecinos salieron a la calle, y una mujer fue detenida por amenazar a los guardias civiles levantando el puño[300].

También fue cada vez más notoria la participación de las mujeres en las reivindicaciones y movilizaciones laborales. Durante esos años solía ser habitual llevar abanderados por delante de las manifestaciones, normalmente mujeres. En este caso, fueron las hermanas Delfina y Magdalena de la familia Cano Inza las que anduvieron en esos quehaceres. Por esa participación, las dos se refugiaron en Hendaia escapando de la represión[301].

En el nacionalismo vasco, algunas mujeres se organizaron en torno al Emakume Abertzale Batza que realizó un gran trabajo para promover la cultura y la lengua vasca, organizando obras de teatro y otros actos. Venían desde un punto de vista tradicionalista de la sociedad, pero el trabajo que hicieron en la transmisión de la cultura popular fue muy importante, y cuando estalló la guerra, lo tuvieron que pagar con dureza.

De todos modos, estos solo fueron unas pequeñas briznas de un cambio, porque en aquellos años todavía la mayoría de las mujeres se limitaban a cumplir las funciones tradicionales que le asignaba la sociedad, esto es, el cuidado de la familia y de la casa, siempre alejadas de la vida pública. Además de no ser la mayoría, duraron un período breve de tiempo. Las mujeres empezaron a abrir las puertas a una nueva sociedad más justa, hasta que las armas de los militares golpistas las cerraron de un

[300] Navarro J.L. (2007). / Navarro, J.L. (2007).
[301] Islada Ezkutatuak (2020). / Islada Ezkutatuak (2020).

ziren emakumeak, militar kolpisten armek danbada batez hau itxi eta berriro ere iluntasuna eta zapalkuntzara behartu arte. Ernetzen zebilen mugimendua sustraietatik moztu eta gogor zapaltzeaz arduratu ziren hauek lehen unetik, emakumeen aurkako errepresio eta bazterketa soziala aurrera eramanez.

portazo, la represión franquista las aplastó del todo y fueron de nuevo obligadas a la oscuridad y al sometimiento. Los golpistas, desde el primer momento, se encargaron de cortar de raíz y de aplastar con dureza el movimiento que brotaba, llevando a cabo la represión y la marginación social contra las mujeres.

Ohikoa zen emakumeek banderadun gisa parte hartzea mugimendu ezkertiarren manifestazioetan, irudian Errenteriako Alderdi Sozialista 1929 urtean. (Errenteriako Udal Artxiboa). **/ Era habitual que las mujeres participaran como abanderadas en las manifestaciones del movimiento izquierdista, en la imagen el Partido Socialista de Errenteria en 1929.** (Archivo Municipal de Errenteria).

1936ko uztailaren 18, gerra eta eskubideen defentsarako borroka

1936ko uda, beltza izan zen ikuspuntu askotatik. Gerrak eztanda egitearekin batera, urte gutxi batzuk lehenago kostata irabazi ziren eskubide horiek galdu eta oraindik eta gizarte matxistago bat eraikitzea helburu zuten kolpisten mehatxua areagotu zen.

Horrela, emakumeek mehatxu berri honen aurrean, beraien eskubideen defentsan armak hartu eta frontera joan ziren borrokara. Gerraren lehen egunetan, hainbat emakumek buzoa jantzi eta armak eskuan fronterako bideari ekin zioten, eta Gipuzkoan barna hainbat adibide aurki genitzake. Urnietaren kasuan, Maria Carmen Macazaga Arrutiren kasua daukagu. Lasarteko Lasarteko-etxadian jaioa 1909ko urriaren 4ean, gerrak eztanda egitean Gerra Komisariotzarentzat lan egin zuen. Azpimarratzeko beste kasu bat Maria Nieves Basano Camararena izango litzake. Orian bizi zen, baina Donostiako Ospitalean lan egiten zuen erizain postuan, bere senarra zen Juan Zumalacarreguirekin batera. Maria Nieves, miliziano eta gudariak artatzen ibili zen hiri hau okupatu zuten arte eta ondoren Bilbora joan zen, Basurtoko ospitale militarrean lan egitera, non hiria erori arte egin zuen lan.

18 de julio de 1936, la guerra y la lucha para la defensa de los derechos

El verano de 1936 fue oscuro desde muchos puntos de vista. Al estallar la guerra, se perdieron los derechos que pocos años antes se habían conseguido con esfuerzo y se acrecentó la amenaza de los golpistas que tenían como objetivo construir una sociedad aún más machista.

Así, ante esta nueva amenaza, las mujeres cogieron las armas en defensa de sus derechos y fueron a combatir al frente. En los primeros días de la guerra, muchas mujeres se pusieron el buzo y con las armas en mano iniciaron el camino hacia el frente; en Gipuzkoa se encuentran muchos ejemplos de ello. En Urnieta tenemos el caso de María Carmen Macazaga Arruti. Nació en el barrio de Lasarte el 4 de octubre de 1909, y cuando estalló la guerra, trabajó para la Comisaría de Guerra. Otro caso destacable sería el de María Nieves Basano Cámara. Vivía en Oria, pero trabajaba en el Hospital de Donostia como enfermera, junto con su marido Juan Zumalacarregui. María Nieves estuvo atendiendo a milicianos y gudaris hasta que esta ciudad fue ocupada, y entonces se fue a Bilbo, a trabajar al hospital militar de Basurto, donde trabajó hasta la caída de la ciudad.

Emakume milizianoak armak eskuan. (Euskal Memoria). / **Mujeres milicianas con las armas en mano.** (Euskal Memoria).

Gainera, mobilizatu ziren urnietarrez gain, herrira laguntzera etorri ziren emakume milizianoak ezin dira ahaztu. Hauek, Urnietako gainak defendatzera etorritako ehunka milizianoekin batera etorri ziren, buzoz jantziak eta Orian ezarri zen Gurutze Gorriaren postuaz arduratu ziren. Horrela, Bruneteko fabrikako eraikin batean ezarri zuten artatze postua eta frontean zauritutako milizianoak zaintzearen ardura izan zuten[302].

Halaber, behin Armada Errepublikanoaren antolakuntza garatuz joan zenean, Francisco Largo Caballero gobernuburu eta gerra ministroak hau birmoldatu eta antolatzeko hainbat agindu igorri zituen 1936ko urrian, non emakumeak frontean parte hartze aktiboa izatea galarazten zen. Debeku hau, emakumeen ezintasun fisikoagatik zela argudiatu zuten eta atzeraguardiako lanak egitera bideratu zituzten. Nahiz eta erabaki gatazkatsua izan, emakumeen antolakunde gehienek, eskubideetan atzerapauso hau onartu eta atzeraguardiara mugitu ziren, nahiz eta Armada Errepublikanoko emakume miliziano batzuk frontean borrokan mantentzeko erabaki irmoa mantendu zuten gerra guztian zehar[303].

Hala ere, Euskal Herriaren kasuan, orokorrean emakumeen parte hartzea bigarren maila batean geratu zen, frontetik urrun aurkitzen ziren lanak egitera mugatuz. Horrela, gerra sustengatzeko industrian lan egin zuten, edota baita hainbat antolakundeetako azpiegituren barnean ere. Horrela, Isabel Labrador Garciak, UGT sindikatuarentzat lan egin zuen Bilbon, saltoki batean. Ondoren, Kataluniara ihes egin eta gero, SRI antolakundera batu eta bertan lan egin zuen.

Además de las urnietarras que se movilizaron, no podemos olvidar a las mujeres milicianas que vinieron a ayudar al pueblo. Estas, llegaron junto con los cientos de milicianos que vinieron a defender las cimas de Urnieta; vestidas con buzo, se encargaron del puesto de la Cruz Roja establecido en Oria. Así, establecieron el puesto de atención en un edificio de la fábrica Brunet, y se encargaban de cuidar a los milicianos heridos en el frente[302].

A su vez, una vez que se fue desarrollando la organización del Ejército republicano, el jefe de Gobierno y ministro de guerra Francisco Largo Caballero, el octubre de 1936, dio varias órdenes para remodelarlo y organizarlo y, entre otras cosas, se prohibía que las mujeres tuvieran una participación activa en el frente. Esa prohibición se argumentó que era por la incapacidad física de las mujeres, y las dirigieron a realizar trabajos de retaguardia. Aunque fue una decisión conflictiva, la mayoría de las organizaciones de mujeres aceptaron este retroceso en sus derechos y se movieron a la retaguardia; aun así, algunas mujeres milicianas del Ejército republicano mantuvieron la decisión firme de seguir combatiendo en el frente durante toda la guerra[303].

De todos modos, en el caso de Euskal Herria la participación de las mujeres quedó en un segundo plano, limitándose a realizar trabajos lejos del frente. Así, trabajaron en la industria para sostener la guerra, o también, dentro de la infraestructura de varias organizaciones. Por ejemplo, Isabel Labrador García trabajó para el sindicato UGT en Bilbo, en un establecimiento. Después, tras huir a Cataluña, se unió a la organización SRI y trabajó allí.

[302] AIRMN, 2595/38 sumarisimo arrunta. / AIRMN, sumarísimo ordinario 2595/38.
[303] Zuloaga I., (2019). / Zuloaga, I. (2019).

Emakumeak arma industriarentzat lanean. (Euskal Memoria). **/ Mujeres trabajando para la industria de armas.** (Euskal Memoria).

Gerran emakumeak izan zuen beste paperetako bat, gerra amabitxiarena izan zen, frontean aurkitzen ziren gudari eta milizianoei eskutitzak idaztea. Ideia honen funtsa, eskutitz hauekin borrokan zeudenen morala altu mantentzea zen, soldaduei borrokan jarraitzeko esperantza txiki bat sortuz. Honek, emakumea objektu hutsal baten gisan erabiltzea ekarri zuen. Nahiz eta amabitxi hauek errepublikanoek zein kolpistek erabili, behin gerra amaituta, autoritate frankistek gogor jazarri zituzten errepublikanoen alde idatzi zuten emakumeak, emagaldu eta jarrera txarreko emakumetzat joz[304].

Beste funtzioetako bat gerra industrian lan egitea izan zen, gizonezkoak frontera deituak izan zirenez, eta gerra esfortzua sustengatzeko beharrezkoak ziren militarizatutako industrietan milaka emakumek egin zuten lan. Armen produkziotik hasita, elikagai eta arropen arloraino, emakumeek beraien lan esfortzuarekin kolpisten aurkako erresistentzian bere alea eman zuten.

Horretaz gain, nahiz eta gerra egoeran bizi, gizarteak emakumeen sorbalden gain uzten jarraitu zuen zaintza lanak. Armen burrunbetatik ihesi, familia ugarik utzi zuten beraien etxea eta errefuxiatu gisa ihes egin behar izan zuten eta noski tartean milaka haur eta pertsona nagusi aurkitzen ziren. Gainera, gizonezkoen portzentaia haundi bat gudara joan ziren edota militarizatuak izan ziren eta ondorioz emakumeek beraien eguneroko lanez gain beraien familien kargu egin eta hauen ongizatea bermatu behar izan zuten. Hori dela eta, emakume askorentzat senideen beharrizanak lehentasun bilakatu ziren, baina lan eta ardura karga honek bere eragina izan zuen beraien osasunetan. Ez ziren gutxi izan hilabete eta urte horietan gaixotu eta hil ziren emakumeak edota haurdunaldia gaiztotu eta abortuak jasan zein haur jaio berriak galdu zituztenak.

Otro de los papeles que tuvo la mujer durante la guerra fue el de madrina; esto es, algunas mujeres escribían cartas a los gudaris y milicianos que se encontraban en el frente. El objetivo era mantener alta la moral de los combatientes con esas cartas, creando una pequeña esperanza a los soldados para seguir combatiendo. Esto trajo consigo la utilización de la mujer como un mero objeto. Aunque esas madrinas las utilizaran tanto los republicanos como los golpistas, una vez terminada la guerra, las autoridades franquistas persiguieron con dureza a las mujeres que escribieron a favor de los republicanos, calificándolas de prostitutas y de mujeres de malas actitudes[304].

Otra de las funciones era trabajar en la industria de guerra. Como los hombres habían sido llamados al frente, miles de mujeres trabajaron en las industrias militarizadas que eran imprescindibles para sostener el esfuerzo de guerra: desde la producción de armas, hasta el sector alimenticio y de la ropa, con su trabajo hicieron su aportación a la resistencia contra los golpistas.

Además de eso, aunque vivieran en una situación de guerra, las mujeres se tenían que encargar de los trabajos de cuidado. Esto es, muchas familias dejaron sus casas y tuvieron que huir como refugiadas, entre ellos decenas de niños y personas mayores. Por lo tanto, como los hombres estaban en el frente o trabajando en la industria, las mujeres, además de su trabajo, tenían que garantizar el bienestar de la familia, conseguir una vivienda, comida, ropas… Por consiguiente, además de las dificultades que crea la guerra en todo individuo, la mujer muchas veces antepuso el bienestar de los demás al suyo, sin tener en cuenta los daños que podía ocasionarles a ellas mismas.

[304] Zuloaga I., (2019). / Zuloaga I., (2019).

"Emakumearen parte-hartze baliotsua gerran:

Emakumea ez da mugatu lan-jantzia jantzi eta frontera milizianoekin batera militar traidoreen aurka borrokatzera joatera. Atzeguardian ere arreta handiz lan egiten du. Lehen, haien egitekoa zaurituak sendatzera eta soldaduentzat arropak egitera mugatzen zen. Orain ezberdina da. Altxatutako militarrak Estatuak emandako armez eta munizioez jabetu ziren, eta Estatu horrek, defendatzeko, armak eta munizioak egin behar ditu, argazki hauetan ikusten den moduan: ezkerrean, metrailadore-kargagailuak eramaten; eskuinean, kartutxoetan bolborazko karga jartzen; erdian, horien prestaketa amaitzen. Emakume gazteek eta adin handikoek arretaz eta grina errepublikanoarekin betetzen dute haien esku utzitako egitekoa. Badakite, haien eskuetatik heriotza eta mina sortuko duten tresnak irtengo direla; baina jakitun dira hain momentuko lanaz. Haien bizitza propioa eta herritarren askatasunak babesten dituzte. Badakite balak hiltzeko direla. Baina heriotza hori izugarrizko premia bat da, ez haiek, ez guk sortutakoa. Espainia betirako lotzen saiatu diren faxista hiltzaileek sortu dute. Eta emakume gazte horiek badakite, zenbat eta tinkoagoa izan haien lana, eta zenbat eta bala gehiago erori arerioaren aldean, oraingo zenbat eta min gehiago orduan eta zabalagoa etorkizuneko garaipena eta segurtasun osoa, urte askoan, emakumeak itzuli ahal izango duela haren berezko lanetara; izan ere, amaituko baitira bidegabekeriak eta jazarpenak, eta aberastasunaren bidezko birbanaketarekin ongizate aldi bat irekiko da, gaur egun bizi dugun izugarrizko zorigaitza soberan konpentsatuko duena[305]".

"La valiosa colaboración de la mujer en la guerra:

La mujer no se ha limitado a vestirse el mono y ha marchar al frente para combatir en unión de los milicianos, a los militares traidores. Trabaja también con enorme celo en la retaguardia. Antes, su acción se limitaba a curar a los heridos y a construir prendas para los soldados. Ahora es distinto. Los militares sublevados se apoderaron de las armas y la municiones que el Estado les había entregado y ese Estado para defenderse, ha de construir las armas y las municiones, según se comprueba por estas fotografías, en las que aparecen: a la izquierda, cargando peines de ametralladora; a la derecha poniendo carga de pólvora en los cartuchos; en el centro, ultimando la preparación de estos. Mujeres jóvenes y de edad provecta cumplen con celo y ardor republicano la misión que les ha sido confiada. Saben que de sus manos han de salir instrumentos que han de producir la muerte y el dolor; pero lo hacen conscientes de su labor del momento. Defienden su derecho a la vida propia y libertades ciudadanas. Saben que las balas son para matar. Pero esta muerte es una necesidad terrible que no han creado ellas ni nosotros. La han creado los fascistas asesinos que han tratado de atar eternamente a España. Y saben estas jóvenes que, cuando mas firme sea su labor y mas balas caigan sobre el campo enemigo, a mas dolor de ahora, mayor extensión del triunfo futuro y la seguridad completa de que ya, en muchos años, podrá volver la mujer a verse entregada a sus trabajos peculiares, porque cesaran las injusticias y las persecuciones y, con una mas equitativa redistribución de la riqueza, se abrirá una era de bienestar, que compensará, con creces, la terrible tragedia que se vive ahora[305].

Gerraren galera eta "Espainia berriko" emakumea

Estatu-kolpe saiakerarekin eta ondorengo urteetako Gerra Zibilarekin, kolpistek Errepublika garaiko urteetan eginiko aldaketa eta aurrerapausoak albo batera utzi eta balore tradizionaletan oinarritutako gizarte bat eraiki nahi izan zuten. Gizarte homogeneo bat, kontrol zurrun eta hertsi baten baitan ezarria, Gobernu Zentralaren baitan.

Erregimen berriak beraz, Errepublika garaian eginiko aurrerapauso eta legeak ezeztatzearen aldeko politika abiarazi zuen lehen egunetik, ondorioz ezkontza zibila, dibortzioa, bozka eskubidea edota hezkidetza bezalako eskubideak galdu ziren besteak beste. Hauek, gizarte osoari eragiten bazioten ere, batez ere emakumearen erabakitzeko eskubidea eta autonomia murriztu eta galarazten zuten. Horretaz gain, 1939an Estatu Espainolean 1889ko Kode Zibila berrezarri zen, non emakumea legearen aurrean meneko gizaki izatera igaro zen berriz. Ondorioz, data horretatik aurrera gizonezko baten tutoretza legala beharko zuen uneoro (aita hasiera batean eta senarra ezkondutakoan)[306].

Estatu berriarentzat, emakumea bizitza publikotik aldendu behar zen eta etxera itzularazi behar zitzaion. Gizonezkoaren meneko ezarria, familiaren baitan ama eta emazte eginkizuna izatera mugatzen zuen ideologia paternalista, matxista eta totalitario bat ezarri zuten. Horretarako emakume eredu berri bat sortu nahi izan zuten, katolikoa, menekoa, haurren maitatzailea eta etxeko lanei emana[307].

Ideia hau babestuz, 1938an Lanaren Forua onartu zen, non emakumearen lan egiteko eskubidea asko murrizten zen. Honekin, emakume ezkongabeen kasuan, hainbat lanpostu eta gauez lan egitea debekatu zuen erregimen berriak. Ezkontzen zirenean baina, irizpide frankisten arabera, emakumeak lana utzi behar zuen eta etxera itzuli, etxe-

La pérdida de la guerra, y la mujer de la "Nueva España"

Con el intento del golpe de Estado y la consiguiente Guerra Civil, los golpistas quisieron dejar a un lado los cambios y avances realizados durante los años de la República y construir una sociedad basada en los valores tradicionales. Una sociedad homogénea, establecido bajo un control rígido y estricto, bajo el Gobierno Central.

Por lo tanto, el Nuevo Régimen inició desde el primer día una política dirigida a destruir las leyes y los avances conseguidos durante la República. En consecuencia, entre otros, se perdieron la boda civil, el divorcio, el derecho a voto o la coeducación. Estos, aunque afectaban a toda la sociedad, sobre todo disminuían e impedían el derecho a decidir y la autonomía de la mujer. Además, en 1939, en el Estado español se reinstauró el Código Civil de 1889, donde la mujer volvía a ser de nuevo un ser humano subordinado ante la ley. Por lo tanto, a partir de ese momento, necesitaría la tutoría legal de un hombre en cada momento (al principio, el padre y al casarse, el marido)[306].

Para el nuevo Estado había que alejar a la mujer de la vida pública y había que obligarla a que volviera a casa. Subordinada al hombre, establecieron una ideología paternalista, machista y totalitaria que limitaba las funciones de la mujer únicamente a la familia, esto es, a ser madre y esposa. Para ello, quisieron crear un nuevo modelo de mujer, católica, sumisa, amante de los niños y dada a las labores de casa[307].

Apoyando esa idea, en 1938 se aprobó el Fuero del Trabajo, donde el derecho a trabajar de la mujer se reducía mucho. Por ejemplo, en el caso de las mujeres solteras, el Nuevo Régimen les prohibió varios oficios y trabajar por la noche. Pero cuando se casaban, según los criterios franquistas, la mujer debía dejar el trabajo y volver a casa, a hacer las labo-

[305] Frente Popular aldizkaria, 1936ko irailaren 11, Donostia, 47 zenbakia, 4 orrialdea. / Diario *Frente Popular*, nº 47, 11/09/1936, página 4.
[306] Rodriguez, A. (2019). / Rodriguez, A. (2019).
[307] Imaz, I. (2011). / Imaz, I.(2011).

***Guia de la Buena Esposa*, 1953an argitaratua.** (Euskal Memoria). / ***Guía de la Buena Esposa*, publicada en 1953.** (Euskal Memoria).

ko lanak egin eta familiaren zaintzaz arduratzera. Izan ere, Lanaren Foruak senarrari soldatapeko lana egiteko ardura ezartzen zion eta emakumearen kasuan, etxekoandre eta ama izatearen funtziora mugatu zuen, hau da, hurrengo belaunaldiak produzitu, hezi eta elikatzera, erregimen berriaren ustetan Espainiako aberria defendatzeaz arduratuko zirenak. Frankismoak beraz, emakume eredu zehatz bat bultzatu nahi zuen, katolikoa, gizonezkoen menekoa, haurrak erditzeaz arduratu behar zena eta hauek hazteaz eta etxeko lanez arduratu behar zena. Ildo honetatik aldentzen zena, "emakume txar eta desbideratu" bezala identifikatzen zuten eta gizartetik baztertua eta zigortua izaten zen. Rosario Ayestaran Agoteren kasuan, salatu egin zuten auzotarrek gaixotasun batengatik ospitaleratua izan zenean. Udalak bere gaineko datuak eskatzean, agintariek pertsona ustel edo txarra zela adierazi zuten, moralik gabea. Horretaz gain, bere familia guztia ikertzeko agindua igorri zuten[308]. Ildo beretik, 1941ean Liria Barrena Goñi auzotarrek salatu egin zuten ezkongabea izan eta "gizonen konpainiarekin" ibiltzeagatik. Honegatik, 10 hilabeteko haurra kendu eta Liria Oblatoen komentuan sartzera behartu zuten[309].

Erregimen honen moral eta ideia berri hauek bultzatu eta sostengatzeaz Eliza katolikoa arduratu zen, estatu-kolpearen sostengatzaile nagusietako bat izan eta erregimen berriaren ezinbesteko zutabe bilakatuko zena. Ildo honetatik, elizak gizarteko moralaren eta hezkuntzaren gaineko ardura hartu zuen. Horrela, herriko parrokoek beraien pulpituetatik adierazten zuten onargarria zen portaera eta kultura bakarra, irizpide tradizional zurrun eta homogeneizatzaileetan oinarritzen zena. Hezkuntza, eredu honen baitan berrantolatu zuten eta sexu banaketa ezarri zuten eskoletan. Horrela, ikasgela gehienak sexuen arabera banatu ziren, mutilak alde batetik eta neskak bestetik. Baina banaketa ez zen fisikoa bakarrik izan, edukiak ere ezberdinak ziren, mutilei hezkuntza orokorra eskaintzen

res de casa y a encargarse del cuidado de la familia. El Fuero del Trabajo imponía al hombre la responsabilidad de realizar el trabajo asalariado y a la mujer, únicamente la función de ama de casa y de madre, esto es, a producir, educar y alimentar a las futuras generaciones, las que según el Nuevo Régimen se encargarían de defender la patria española. Por lo tanto, el franquismo quería impulsar un modelo concreto de mujer: católica, sumisa al hombre, que tenía que responsabilizarse de parir y de criar hijos y de las labores de casa. La que se alejaba de ese modelo, se identificaba como una "mujer mala y desviada" y solía ser marginada de la sociedad y castigada. Rosario Ayestaran Agote fue denunciada por los vecinos cuando fue hospitalizada por una enfermedad. Cuando el ayuntamiento pidió los datos sobre ella, las autoridades declararon que era una persona depravada e inmoral. Además, dieron la orden de investigar toda su familia[308]. En 1941, en un caso parecido, Liria Barrena Goñi fue denunciada por sus vecinos por andar "en compañía de hombres", siendo soltera. Por ello, le quitaron el niño de 10 meses y Liria fue obligada a ingresar en el convento de las Oblatas[309].

De impulsar y sostener la moral y las nuevas ideas de este régimen se encargó la Iglesia; de ese modo, el que fuera uno de los principales sustentadores del golpe de Estado se convertiría en la columna imprescindible del Nuevo Régimen. La Iglesia también tomó la responsabilidad sobre la moral y la educación de la sociedad. Así, los párrocos expresaban desde los púlpitos el comportamiento aceptable y la cultura única, cimentada en bases tradicionales rígidas y homogeneizantes. La educación fue reorganizada en base a ese modelo, y establecieron la partición por sexos en la escuela; así, la mayoría de las clases se repartieron según el sexo: las chicas por un lado y los chicos por otro. Pero la división no era solo física, las materias también eran diferentes; mientras a los chicos se les ofrecía una educación básica,

[308] UUA, 1944ko udal-korrespondentzia. / AMU, correspondencia municipal de 1944.
[309] UUA, 1941ko udal-korrespondentzia. / AMU, correspondencia municipal de 1941.

zitzaien bitartean, emakumeak izan behar zituzten balore eta funtzioen baitan heztera bideratu ziren, etxeko lanak, jantzigintza, josten irakastea, ekonomia domestikoa etab. Hau da, emakumearen funtzioa gizartean, ama eta etxekoandre izatera mugatu behar zen.

las chicas se educaron en torno a los valores y funciones que debían tener: labores de casa, corte y confección, aprender a coser, economía doméstica, etc. Esto es, la función de la mujer en la sociedad se tenía que limitar a ser madre y ama de casa.

Emakumeak Auxilio Socialarentzat lanean. (Euskal Memoria). / **Mujeres trabajando para el Auxilio Social.** (Euskal Memoria).

Eliz erakundeak gizarteko balore moralak zehazten zituen ildo beretik, sexualitatearen gaineko kontrol zurruna eraman zuen aurrera ere. Horrela, bizitza publikotik atera zuen hau eta jazarri egin zituzten irizpide moral hau jarraitzen ez zituzten pertsonak. Sexualitatea beraz, ezkontza barnean helburu erreproduktiboetara soilik mugatu behar zen, hemendik kanpo zegoen guztia baztertuz. Arau moral hauek, zurrun jazarri zituen bai udalak baita eliza eta Mugimendu Nazionaleko kideek, tabernetan bikoteak gertutasuna erakutsiz gero salatuz edota gizon eta emakumeen arteko dantza publikoak debekatuz, 1945eko kasuan bezala, non dantza guztiak debekatu zituzten Pasio Igandetik Ostiral Santura bitarte[310].

Erregimen frankista berriaren baitan, emakumeak gizonaren meneko gisa erakusten ziren, baina honek ez zuen ekidin tradizionalismo espainiarrarekin lotura zuten emakumeek honen alde lan egiten hastea. Hauek, herrian Seccion Femenina izeneko antolakundea eratu zuten. Hau, Falangearen barnean emakumeentzako taldea zen eta 1934ean sortu zuen Pilar Primo de Riverak eta diktadurak iraun zuen denbora guztian mantendu zen. Antolakunde honen papera, emakumearen paper tradizionala goratu eta bultzatzea izan zen, Falangeak zituen ildo ideologiko, politiko eta moralaren baitan.

La Iglesia, además de determinar los valores morales de la sociedad, también ejerció un control férreo sobre la sexualidad. Así, lo sacó de la vida pública, y persiguieron a las personas que no seguían este criterio moral. Por lo tanto, la sexualidad se tenía que limitar a objetivos reproductivos dentro del matrimonio, todo lo que estaba fuera estaba marginado. Esas reglas morales las persiguieron con firmeza, tanto el ayuntamiento como la Iglesia y los miembros del movimiento nacional. Por ejemplo en los bares, denunciando si una pareja estaba demasiado cerca, o prohibiendo bailes públicos entre hombres y mujeres; un ejemplo de ello fue que en 1945, prohibieron todos los bailes desde el Domingo de Pasión hasta el Viernes Santo[310].

En el Nuevo Régimen franquista la mujer se presenta como sumisa al hombre, pero eso no impidió que las mujeres relacionadas con el tradicionalismo español empezaran a trabajar en favor de él. Estas, crearon en el pueblo la organización Sección Femenina. Esta, era un grupo dentro de la Falange y fue creada por Pilar Primo de Rivera en 1934, y duró durante toda la dictadura. El papel de esta organización era ensalzar e impulsar el papel de la mujer tradicional, dentro de los ejes ideológicos, políticos y morales de la Falange.

[310] UUA, 1945ko udal-korrespondentzia in Imaz, I.(2011). / AMU, correspondencia municipal de 1945 in Imaz, I. (2011).

Kolpistek udala bereganatu arte, ez da ezagutzen antolakunde honek Urnietan oinarririk zuenik, izan ere herrian karlismoarekin zuen lotura tradizionalismoak, baina hau Falangearekin batu zenean 1937an, FET-JONS antolakundea sortu zenean, herriko emakume tradizionalistek antolakunde hau sortu zuten.

Seccion Femeninaren baitan batu ziren emakume hauek ere, gizartearen gaineko kontrola eramateaz ere arduratu ziren eta erregimenarekiko aurkakotasun oro salatu izan zuten. Horrela, Magdalena Apalategui eta Rosalina Martinez urnietarrek Agustin Martiarena herrikidea salatu zuten, Auxilio Socialarentzat egiten ari ziren diru-bilketan ezer ez emateagatik. Ondorioz, jarrera hau agintari militarrei jakinarazi zien udalak, isun ekonomiko bat ezartzeko eta horretaz gain, Agustin herriko bake-epaile izateko hautagaitzatik baztertua izan zen[311]. Miguel Maria Garmendiari ere Auxilio Socialarentzako ikurra ez onartzeagatik eta ustez hauek saltzen zebiltzan emakumeak iraintzeagatik bere aurkako salaketa jarri zuen alkateak, hauek saltzen zebiltzan bi emakumeen jakinarazpena jaso eta gero[312].

Falangeko emakumeek, herrian hainbat ekintza egin zituzten, ongintza eta gizarte-laguntzarekin lotuta. Horrela, Urnietako Plato Unico eta Auxilio Sociala bezalako ekintzak burutzeaz arduratu ziren. Auxilio Sociala deiturikoa, falangearen baitan sorturiko ongintzarako antolakundea zen. Alemania naziko antzerako antolakunde batean oinarritua, Mugimendu Nazionalaren baloreak zabaldu eta hauen baitan beharrizan gehien zituzten gizarteko pertsonei laguntza eskainiz, hauek erregimen berriaren alde lerratzea bilatzen zuten, behartsuen babesgune bezala irudikatuz Falangea. Baina honek funtsean, estatuak gizartearen ongizatea bermatzeko ezintasuna erakusten zuen eta pertsona hauen zaintza berriro ere emakumeen gain ezartzen zuen.

Se desconoce que esta organización tuviera bases en Urnieta hasta que los golpistas tomaron el ayuntamiento, ya que en el pueblo, el tradicionalismo estaba relacionado con el carlismo; pero cuando este se unió a la Falange en 1937 –cuando se creó la organización FET-JONS–, las mujeres tradicionalistas locales.

Se unieron dentro de la Sección Femenina. Estas mujeres también se encargaron de llevar el control sobre la sociedad y de denunciar cualquier oposición hacia el régimen. Así, las urnietarras Magdalena Apalategui y Rosalina Martínez denunciaron a su vecino Agustín Martiarena, por no aportar nada en la recaudación que estaban realizando para el Auxilio Social. Esa actitud fue notificada por el ayuntamiento a las autoridades militares, para que le impusieran una sanción económica. Pero la cosa no quedó en eso, ya que Agustín fue apartado de la candidatura para ser juez de paz del pueblo[311]. Miguel María Garmendia, por no aceptar el símbolo del Auxilio Social y, supuestamente, por insultar a las mujeres que iban vendiéndolos, también fue denunciado por el alcalde, tras la petición de dos de las vendedoras[312].

Estas mujeres, en el pueblo realizaron muchos actos relacionados con la beneficencia y la ayuda social. Así, se encargaron de organizar acciones como Plato Único y Auxilio Social. Auxilio Social era la organización creada dentro de la Falange para la beneficencia. Fundamentada en una organización parecida a la que había en la Alemania nazi, difundían los valores del movimiento nacional y ofrecían ayuda a los sectores sociales que más necesidad tenían; buscaban que estos se alinearan a favor del Nuevo Régimen, representando a la Falange como refugio de los pobres. Pero esto, al fin y al cabo, presentaba la incapacidad del Estado para garantizar el bienestar de la sociedad, y otra vez, la responsabilidad del cuidado de esas personas lo ponía sobre las mujeres.

Urnietan jaiotako Maximo Yurramendi Ciudad Rodrigoko gotzainari 1946an eginiko omenaldiko argazki bat (Erretratu Zaharrak). **/ Una foto del homenaje al obispo de Ciudad Rodrigo, Máximo Yurramendi, nacido en Urnieta, en 1946.** (Erretratu Zaharrak).

[311] UUA, 1937ko udal-korrespondentzia. / AMU, correspondencia municipal de 1937.
[312] UUA, 1938ko udal-korrespondentzia. / AMU, correspondencia municipal de 1938.

Plato Unico proiektuaren arabera, jatetxeetan egun batzuetan eguneko menuak plater bakarra izango zuen eta diru diferentzia ongintzara bideratzen zen. Urnietan, diru hau biltzeaz arduratzen ziren guztiak emakumeak ziren, nahiz eta azaldu zuten ez zegoela une horretan jatetxerik menuak eskaintzen zituenik, beraz ezin zuten proiektu honentzako dirua jaso. Hezkuntzan ere bere eragina izan zuten, izan ere herrian Escuela del Hogar deiturikoak sortu zituzten. Zehazki bi izan zituzten, Lasarten bata (Lasarte eta Oriako emakumeentzat) eta Urnietan bestea (gainontzekoentzat). Hauetan, erregimen berriak bultzatu nahi zituen balore moral eta sozialak emakume gazteei irakasteaz arduratzen ziren.

"Beraz, hau ikusirik, esan dezakegu Estatu Berriak sexuaren araberako bereizketa sakona ezarri zuela, aipatutako mekanismo guztien bitartez. Estatuak bere ahalmen guztiekin bultzatu zuen eredu zurrun hau. Honek bazituen bere konplizeak: herritarrak. Dena besterik gabe onartu zutela esatea justua ez litzatekeen arren, presio sozialak eta familiako kideen aldetik jasotzen zutenak bere papera jokatu zuten. Kontutan hartu behar dugu, moralak, besteen iritziak edo "esango dutenak", zein erlijioak garrantzia zuela egunerokotasunean. Bata bestearen kontrolatzaile bihurtu zen, lehenago ere esan dugun moduan. Aitzitik, garrantzitsua da ez ahaztea eredu diskurtsiboez ari garela. Hots, idealez.

Estatu Berriak, familia nuklearrez osaturiko antolaketa nahi eta bultzatzen zuen. Gizartearen antolaketaren oinarritzat zuen Erregimenak familia nuklearra eta bertan gauzatzen zen, teorian, sexuaren araberako lanaren banaketa. "Familiarismoa", hau da, ordena publikoan giltzarri familiek berebiziko garrantzia edukitzea, zeritzona bultzatu zuen beraz, Erregimenak. Hala ere, gizartearen egiturak ez ziren hain finkoak eta familiarteko sare zabalak hainbat arazori aurre egiteko funtsezkoak izan ziren[313]".

Emakumeen aurkako erasoak Urnietan

Emakumeen aurkako urraketa nabariena eta emakume guztiek sufritu behar izan zutena eskubideen galera izan zen. Bozka eskubidea, lanerako eskubidea, abortatzeko eskubidea esaterako, honekin emakume eredu otzan eta gizonarekiko meneko bat bilatzen baitzuten. Gizarteko bizitza publikotik ere alboratu zitzaion, ume eta familiaren zaintzara mugatuz, antzerki, ekitaldi eta plaza publikoan parte hartzea asko zailduz.

Eskubideen murrizketa honetaz gain, ez ziren emakume gutxi izan gerraren atzaparretan erori eta heriotza aurkitu zutenak edota kolpisten errepresioaren jomugan geratu zirenak. Emakumeen aurkako errepresioak, bi helburu zehatz bilatzen zituen, alde batetik emakume eredu tradizionalistatik aldendu zirenak zigortzea eta bestetik, errepublikaren defentsan lerratu ziren mugimendu politikoen baitan eratu zen elkartasun eta babes sarea deuseztea, emakumeak bakartuz eta seinalatuz, gizarteari hauekin erlazioa edukitzea ez-desiragarria zen zerbait zela adieraziz.

Ez da erraza izaten emakumearen aurkako errepresioa nolakoa izan zen herrietan azaltzea, izan ere aztarna

Según el proyecto Plato Único, en los restaurantes unos días el menú del día solo tendría un plato, y la diferencia de dinero se destinaría a la beneficencia. En Urnieta, todos los que se encargaban de recolectar ese dinero eran mujeres, y explicaron que en ese momento no había ningún restaurante que ofreciera menús y por lo tanto no podían recopilar dinero para ese proyecto. También tuvieron su efecto en la educación ya que crearon en el pueblo las llamadas Escuelas del Hogar. Exactamente había dos, una en Lasarte (para las mujeres de Lasarte y Oria) y la otra en Urnieta (para las demás). En ellas, las mujeres se encargaban de enseñar a las mujeres jóvenes los valores morales y sociales que quería impulsar el Nuevo Régimen.

"Por lo tanto, viendo esto, podemos decir que el nuevo Estado impuso una profunda división conforme al sexo, mediante todos los mecanismos mencionados. El Estado impulsó con todo su poder ese rígido modelo. Este tenía sus cómplices: los ciudadanos. Aunque no sería justo decir que lo aceptaron todo sin más, la presión social y familiar jugaron su papel. Tenemos que tener en cuenta que en el día a día la moral, la opinión de los demás, "el qué dirán" y la religión tenían mucha importancia. Tal como hemos dicho anteriormente, cada uno se convirtió en controlador del otro. Al contrario, es importante no olvidar que estamos hablando de modelos discursivos. Es decir, ideales.

El nuevo Estado quería e impulsaba una organización formada por familias nucleares. El régimen tenía como cimiento de la organización social la familia nuclear, y en ella se materializaba, en teoría, la división laboral conforme al sexo. Por lo tanto, el régimen impulsó el "familiarismo", esto es, que la familia tuviera una enorme importancia en el orden público. De todos modos, las estructuras de la sociedad no eran tan fijas y las amplias redes familiares fueron fundamentales para hacer frente a muchos problemas[313]".

Agresiones contra mujeres en Urnieta

La más destacada trasgresión contra las mujeres, y que sufrieron todas ellas, fue la pérdida de derechos. El derecho a voto, el derecho a trabajar, el derecho a abortar… con ello se buscaba un modelo de mujer mansa y sumisa con el hombre. También se la apartó de la vida pública social, limitándose al cuidado de los niños y la familia, limitando mucho la participación en obras de teatro, actos y en la plaza pública.

Además de esa restricción de derechos, no fueron pocas las mujeres que cayeron en las garras de la guerra y encontraron la muerte o quedaron en el punto de mira de la represión de los golpistas. La represión contra las mujeres tenía dos objetivos claros: por un lado, castigar a las que se alejaron del modelo tradicionalista de mujer; por otro, deshacer la red de solidaridad y apoyo que se creó en torno a los movimientos políticos que se alinearon por la defensa de la República, aislando y señalando a las mujeres, y expresando a la sociedad que era algo no deseable tener alguna relación con ellas.

No suele ser fácil explicar cómo era la represión contra las mujeres en los pueblos, porque suele ser algo que deja

[313] Rodriguez A. (2019). / Rodriguez A. (2019).

Arizmendi Isasa ahizpak, bere ama Josefarekin 1933 urtean. (Erretratu Zaharrak). / **Las hermanas Arizmendi Isasa con su madre Josefa, en 1933.** (Erretratu Zaharrak).

dokumental oso gutxi uzten duen zerbait izaten da. Askotan espontaneoak izaten ziren, herria kolpisten esku erori eta hurrengo ordu eta egunetan ematen zirenak. Hala ere, nahiz eta dokumentazioan islatuak ez egon, emakumeen aurkako eraso hauek herriko memoria kolektiboan txertatuta geratu izan ohi ziren eta gaurdaino iritsi dira.

Emakumeen aurka frankismoak errepresio mota bereziak aplikatu zituen. Eraso fisikoena izan zen bat, bortxaketak, jipoiak, ile mozketak… Erregimen frankistaren arabera, emakumeak rol konkretu bat eta irudi zehatz bat izan behar zuen, dotorea, prestua eta liraina, ile luzeduna eta ongi jantzia. Beraz, estatu-kolpearen aurka eta Errepublikaren alde lerratu ziren emakumeak jazartzeko erregimen berriko agintariek emakumeen gorputzaren aurkako erasoak baliatu zituzten zigor moduan. Hauetatik ohikoena ilea moztu eta errizino-olioa edanaraztea izaten zen, herriko plazara eramanez eta denen aurrean tripetatik behera egin arte bertan edukiz. Honekin, emakumea gizartearen aurrean umiliatzea bilatzen zen, eredu tradizionalaren arabera izan behar zituen balore eta estetika ezabatuz, feminitatearen ikur kontsideratzen zena kenduz hain zuzen ere. Gainera, emakumeen aurkako errepresio hau plaza publikoan egiten zen, herriari hau ikustera behartuz, gainontzeko emakumeendako zigor eredugarri bat bezala ikusten baitzuten, beldurra txertatuz norbanako ororen bihotzetan.

pocos rastros documentales. Muchas veces solían ser espontáneas, y solían darse a las pocas horas o días después de la caída del pueblo en manos de los golpistas. De todos modos, aunque no estén reflejadas en la documentación, estas agresiones contra las mujeres solían quedar grabadas en la memoria colectiva del pueblo y han llegado hasta nosotros.

El franquismo aplicó contra las mujeres tipos especiales de represión. Una fue la de las agresiones físicas: violaciones, palizas, rasurado de pelo... Según el régimen franquista, la mujer tenía que tener un rol y una imagen concretas: elegante, formal y esbelta, de pelo largo y bien vestida. Por lo tanto, a las mujeres que se alinearon contra el golpe de Estado y a favor de la República, las autoridades del Nuevo Régimen aprovecharon como castigo las agresiones contra el cuerpo de las mujeres. Entre ellos los más habituales solían ser cortar el pelo y hacer beber aceite de ricino, para luego llevarlas a la plaza del pueblo y tenerlas allí hasta que hicieran de vientre delante de todos. Con ello se buscaba humillar a la mujer ante la sociedad, dejándolas sin los valores y la estética que según el modelo tradicional debían tener, quitándoles lo que se consideraba el símbolo de la feminidad precisamente. Además, esta represión contra las mujeres se hacía en la plaza pública, obligando al pueblo a verlo, pues lo veían como un castigo ejemplar para las demás mujeres, metiendo el miedo en el corazón de cada individuo.

- Eta illia moztiana, bueno...
- Aiuntamentua deitzen zittuen. Bost... Sei haidi. Jun zian, aiuntamentua jun zian, ta raka-raka-raka, barberuai deitzen ziyuen, ordun barberua esaten geniyon, eta raka-raka-raka. Negar ta negar denak
- Baiño tragua e? Hoik seiñalatuak izango zian ta.
- Bai, hoik zian ba geo antzerkiya iten gendunak, kuadrilla hoi giñan denak. Nei, nei ez zien, nekin ez zian sartu, baiño bestekin bai.
- Neska hoik danak antzerkiyan ibiltzen zian.
- Bai. Haiek? Bai. Nere anaiya're bai, ta nere ahizpa zaharrena, bueno, "aquélla era de los papeles más importantes" in zuna. Dena euskeraz e[314]?

[314] Bixi Garmendia San Sebastianek Ahotsak.eus-i eskainitako elkarrizteka, URN-016 kodea. / Entrevista concedida por Bixi Garmendia San Sebastián a *Ahotsak.eus*, código URN-014.

orr.

Errepresio mota hau jasan zuten gehiengoa, euskal abertzaletasunaren eta euskararen baitan mugitzen ziren emakumeak izan ziren Urnietan. Izan ere, mugimendu ezkertiarretako emakumeak errepresioaren beldur nabarmenagoa zuten eta beraien familiekin batera Bizkaian edota erbestean babesa aurkitzen saiatu ziren.

Beste errepresio mota bat herritik kanporatuak izatea izango litzateke. 1936ko irailean, ehunka izan ziren Urnieta utzi zuten pertsonak tartean emakumeen kopuru nabarmen bat, haur eta guzti etxea utzi zutenak. Ez ziren gutxi izan ere gerratik ihesi zihoazen haurdun zeuden emakumeak eta ihesaldian bertan haurra izan zutenak. Hauek, oso baldintza txarretan bizi izan ziren eta batzuek haurra galdu zuten honen ondorioz, Juanita Viguera eta Lorenzo Echezarren Gabina haurra bezala[315]. Beste askok, herritik joate hutsagatik, beraien lanpostuak galdu zituzten, Valentina Collin Bringas inudearen kasuan bezala.

La mayoría de las que sufrieron este tipo de represión en Urnieta fueron mujeres que se movían en torno al nacionalismo vasco y el euskara. Las mujeres de los movimientos izquierdistas tenían mucho más miedo a la represión, e intentaron encontrar refugio en Bizkaia o en el exilio junto con sus familias.

Otro tipo de represión era ser expulsado del pueblo. En septiembre de 1936, fueron cientos las personas que dejaron Urnieta; entre ellas un número destacado de mujeres que dejaron la casa con críos y todo. Tampoco fueron pocas las mujeres que iban huyendo de la guerra estando embarazadas y que tuvieron a los hijos en plena huida. Estas vivieron en condiciones muy malas y, en consecuencia, algunas perdieron a sus hijos; como fue el caso de la niña, llamada Gabina, de Juanita Viguera y Lorenzo Echezar[315]. Otras muchas, simplemente por irse del pueblo, perdieron sus puestos de trabajo, como en el caso de la matrona Valentina Collin Bringas.

Emakume eta haurrak herritik ihesi. (Euskal Memoria). / **Mujeres y niños huyendo de un pueblo.** (Euskal Memoria).

Hala ere, askotan emakumeak etxean geratzea erabakitzen zuten, haur edota nagusiak zaintzen norbait geratu beharra baitzuen. Kasu horietako batzuetan, herriko autoritate kolpista berriek hauek herritik kanporatzeko erabakia hartzen zuten. Urnietaren kasuan, udalbatzak edota Lasarteko Komandantzia Militarrak egun gutxitako epea ematen zion emakumeari bere familiarekin kontaktuan jarri eta itzularazteko. Hau bete ezean, emakumea herritik kanporatua izango zen. Badakigu gutxienez Felisa Ibarra Gomez trenbideko barrerazainak eta Dolores Icuza Iguerateguik herritik kanporatuak izateko agindua jaso zutela Urnietan.

Herriko politikan parte hartze aktiboa izan zuten emakumeak ere jazarriak izan ziren. Delfina Cano Inzaren kasuan, herriko mugimendu ezkertiarren banderaduna izateagatik ihes egin behar izan zuen familia guztiarekin eta herrira itzultzean epaitua izan zen. Mercedes Uria Canori ere, alderdi ezkertiarrekin lan egiteagatik isun ekonomiko bat ezarri zioten eta

De todos modos, muchas veces la mujer decidía quedarse en casa, pues alguien tenía que quedarse al cuidado de los niños o los mayores. En algunos de esos casos, las nuevas autoridades golpistas tomaban la decisión de expulsarlos del pueblo. En el caso de Urnieta, la corporación municipal o la Comandancia Militar de Lasarte daba un plazo de unos pocos días a la mujer para que se pusiera en contacto con su familia y les hiciera volver. Si no lo cumplían, la mujer era expulsada del pueblo. Sabemos que por lo menos Felisa Ibarra Gómez, guardabarrera de las vías del tren, y Dolores Icuza Iguerategui recibieron la orden de ser expulsadas del pueblo en Urnieta.

Las mujeres que tuvieron una participación activa en la política local también fueron perseguidas. Por ejemplo, Delfina Cano Inza tuvo que huir del pueblo con toda la familia por ser abanderada de los movimientos izquierdistas locales, y cuando volvió al pueblo fue juzgada. A Mercedes Uria Cano le impusieron una sanción económica por trabajar para

[315] Islada Ezkutatuak (2020). / Islada Ezkutatuak (2020).

Maria Cruz Urretavizcaya eta bere senarra, espetxeratuak izan ziren beraien tabernan bilera politikoak egiten zirenaren salaketa bat jaso eta gero. Azkenik, Concepcion Ocariz Tarazonari, Bruneteko langilea, enpresan aurkitzen zen Franco diktadorearen irudi bati kalteak eragiteagatik hiru urteko espetxealdira kondenatu zuten.

Arlo honetan, Aurora Lopez Garinen kasua aipatu beharra dago, Urnietako irakasle nazionala izan zen eta herria utzi behar izan zuen kolpistek Andoiandik hau mehatxatzen zutelako. Horrela, errefuxiatu gisa bizi zela, UGT antolakundera batu zen, bertako kide izanik gutxienez 1937ko ekaina amaierara arte[316]. Puntu honetatik aurrera bere inguruan dagoen aztarna galtzen da, baina pentsa genezake bere lanpostua galdu zuela, herritik joan baitzen eta gainera sindikatu batera afiliatua zegoen. Hala ere, ez dira hipotesi hau sostengatzen duen dokumentu edo aipamenik aurkitu.

partidos izquierdistas. María Cruz Urretavizcaya y su marido fueron encarcelados tras recibir una denuncia de que en su bar se realizaban reuniones políticas. Por último, Concepción Ocariz Tarazona, trabajadora de Brunet, fue condenada a tres años de prisión por infligir daños a una imagen del dictador Franco que había en la empresa.

También hay que mencionar el caso de Aurora López Garin, profesora nacional de Urnieta, que tuvo que abandonar el pueblo porque los golpistas la amenazaban desde Andoain. Así, viviendo como refugiada, se unió al sindicato UGT, siendo miembro de él por lo menos hasta el junio de 1937[316]. A partir de ese punto se pierde su rastro, pero podemos pensar que perdió su puesto de trabajo, pues se fue del pueblo y además estaba afiliada a un sindicato. De todos modos, no se ha encontrado ningún documento o alusión que sostenga esta hipótesis.

ALCAIN ELOSEGUI MIREN ETA SOLEDAD AHIZPAK ETA ARIZMENDI ISASA MARGARITA, MARIA ETA GLORIA AHIZPAK / LAS HERMANAS ALCAIN ELOSEGUI, MIREN Y SOLEDAD Y LAS HERMANAS ARIZMENDI ISASA, MARGARITA, MARÍA Y GLORIA

Euskaldunak eta abertzaleak izateagatik, Andoainera eraman zituzten bost emakume hauek atxilotuak. Bertan ilea moztu eta errizino-olioa eman zieten eta ondoren plazan denen aurrean eduki zituzten, tripetatik behera egin arte. Tinko eutsi zuten bai umiliazioa zein ondorengo ekintzak, izan ere egunero Urigaingo komandantziara joan behar izan ziren sinatzera. Euskal abestiak kantatuz, aldarri politikoak ohikatuz eta errezoan egiten zuten bidea, kuraia eta duintasun erakustaldi bat eginez egunero. Jende asko joan ohi zen bost emakume hauek pasatzen ikustera eta beraien adorea mirestera.

Estas cinco mujeres fueron llevadas detenidas a Andoain por ser vascas y abertzales. Allí, les cortaron el pelo y les dieron aceite de ricino, y después las tuvieron en la plaza, ante todos, hasta que hicieran de vientre. Aguantaron con firmeza tanto la humillación como las acciones posteriores, ya que tuvieron que ir todos los días a firmar a la comandancia de Urigain (Andoain). Hacían el camino cantando canciones vascas, gritando proclamas políticas y rezando, haciendo una demostración de coraje y dignidad todos los días. Solía ir mucha gente a ver pasar a esas cinco mujeres y a admirar su valor.

Alcain Elosegui eta Arizmendi Isasa ahizpak: Atzean, Elisabet Alcain, Margarita Arizmendi eta Teresa Alcain. Aurrean, Gloria Arizmendi, Miren Alkain eta Maria Arizmendi. (Erretratu Zaharrak). / **Las hermanas Alcain Elosegui y Arizmendi Isasa: detrás, Elisabet Alcain, Margarita Arizmendi y Teresa Alcain. Delante, Gloria Arizmendi, Miren Alkain y María Arizmendi.** (Erretratu Zaharrak).

[316] Ministerio de Cultura y Deporte, Archivo CDMH, OIPA, 2 paper-sorta. / Ministerio de Cultura y Deporte, Archivo CDMH, OIPA, legajo 2.

orr.

ALMORZA GOÑI, MERCEDES

Zabaleta baserrikoa (Oztaran), 1919an jaio zen[317]. Gerra zela eta bere osabaren bila joango zirelakoan hau ezkutatu zuen. Honi esker, osaba ezin izan zuten aurkitu eta ez zuten fusilatzera eraman. Kolpistak Mercedesek egin zuenaz ohartu zirenean, bere bila ibili ziren eta ondorioz bi hilabetez egunero bere bila joan ziren eta horregatik ezkutatuta egon behar izan zen denbora hori. Frontea herritik urrundu zenean Andoainera bizitzera joan ziren, hilerri ondora eta bertan gauetan eman ziren fusilatzeak ikusi zituen[318].

Del caserío Zabaleta (Oztaran); nació en 1919[317]. Escondió a su tío creyendo que irían a por él debido a la guerra. Gracias a eso, no lo pudieron encontrar y tampoco lo llevaron a fusilar. Cuando los golpistas se dieron cuenta de lo que había hecho Mercedes, anduvieron en su busca y, por consiguiente, durante dos meses fueron en su busca todos los días. Por ello, tuvo que estar escondida durante ese tiempo. Cuando el frente se alejó del pueblo, se fue a vivir a Andoain, al lado del cementerio y vio los fusilamientos que se dieron allí por las noches[318].

AMUNDARAIN ZUMEAGA, NIEVES

1918an jaioa Orian, bertan bizi zen familiarekin. Bere anaia Miguelek, Andoainen egiten zuen bizitza, bertakoa baitzuen neskalaguna. Miguel militante ezkertiar nabarmena bazen ere, gerrak eztanda egitean ez zuen bere neskalaguna bakarrik utzi nahi Andoainen eta haren amak babestuko zuela hitzeman zionez kolpistak Andoainen sartzean hauen etxean ezkutatu zen. Baina hark salatu eta Miguel Tolosan fusilatu zuten abuztuaren 30ean. Nievesek bitartean Oria utzi zuen bere anai-arreba eta amarekin, Bizkaia aldera mugituz. Asko bezala, gerra hotsak joan zirenean, Urnietara itzuli eta bere bizitza berreraikitzen saiatu ziren. Nievesek lagunak zituenez Andoainen askotan izaten zen bertan eta "amaginarreba" honek, Auxilio Socialerako buruetako bat zenak, antolakunde honetako eraikinetik ura irakiten bota zion leio batetik, lagun bati esker azken unean erasoa saihestua lortu zuen[319].

Nació en Oria en 1918, y vivía allí con la familia. Su hermano Miguel hacía la vida en Andoain, porque la novia era de allí. Aunque Miguel era un destacado militante izquierdista, cuando estalló la guerra no quiso dejar sola a su novia en Andoain, y como su suegra le prometió que le protegería, se escondió en la casa de ellas cuando los golpistas entraron en Andoain. Pero la madre de la novia lo denunció, y Miguel fue fusilado en Tolosa el 30 de agosto. Mientras, Nieves abandonó Oria junto con sus hermanos y su madre, moviéndose hacia Bizkaia. Como otros muchos, cuando terminó la guerra, volvió a Urnieta e intentaron reconstruir su vida. Como Nieves tenía amigos en Andoain, muchas veces solía estar allí, y esa "suegra", que era una de las jefas de Auxilio Social, le echó agua hirviendo desde una ventana del edificio de esa organización; gracias a una amiga pudo evitar la agresión en el último momento[319].

ARRUE INCHAUSPE, ANGELA

Goiburuko eskolako irakaslea zen eta nahiz eta horretarako titulurik ez izan oso irakasle goraipatua zen bai herrian bai hezkuntza inspektoreen aldetik[320]. Oso pertsona euskaltzalea, euskaraz ematen zituen irakasgai batzuk eta mugimendu euskaltzale eta abertzaleekin lotura handia zuen, horregatik kolpisten Urnietara hurbiltzean herria uzteko erabakia hartu zuen. Urnietara itzultzean, kolpistek bere lanpostutik kanporatu zuten eta horretaz gain ilea moztu zioten Angelari[321].

Era maestra de la escuela de Goiburu, y aunque no tuviera ningún título para ello, era una profesora muy alabada tanto en el pueblo como por los inspectores de educación[320]. Era una persona muy euskaltzale, daba algunas clases en euskara y tenía gran relación con los movimientos euskaltzales y abertzales, por ello, cuando los golpistas se acercaron al pueblo huyó; cuando volvió, fue expulsada de su puesto y además le raparon el pelo[321].

BAJO BENITO, PAULA

1870eko ekainaren 29an jaio zen[322] Aldahono (Segovia) herrian, baina Oria auzora bizitzera etorria zen, familiarekin batera, Brunet enpresan lan egitera, birjartzaile postuan lan egiten zuelarik. Bertako langile asko bezala UGT sindikatura afiliatua zegoen eta enpresak zituen Iturralde etxeetan bizi ziren. 1936ko abuztuko ebakuazio deiari kasu eginez Elvira eta Trinidad alabekin Bilbora joan zen eta bertan errefuxiatu ziren, kolpistek hiria armez konkistatu arte. Orduan, Urnietara itzuli zen Paula. Bere alaba Elvirarekin batera ikertu egin zuten frankistek, baina azkenean ez zuten ezertaz akusatu[323]. Herriko autoritate frankistek, herria utzi zuela baliatuz bere etxeko ondasun guztiak konfiskatu zizkioten[324].

[317] UUA, sig. PA00.06. / AMU, sig. PA00. 06.

[318] Mertxe Almortza Goñik Ahotsak.eus-i eskainitako elkarrizteka, URN-019/014 kodea. / Entrevista concedida por Mertxe Almortza Goñi a *Ahotsak.eus*, código URN-019/014.

[319] Lasa, X. (2006). / Lasa, X. (2006).

[320] Salinas Elosegui, A.; Aguirre, J. (2007). / Salinas Elosegui, A.; Aguirre, J. (2007).

[321] Mertxe Almortza Goñik Ahotsak.eus-i eskainitako elkarrizteka, URN-019/014 kodea. / Entrevista concedida por Mertxe Almortza Goñi a *Ahotsak.eus*, código URN-019/014.

[322] UUA, sig. PA00.06. / AMU, sig. PA00. 06.

[323] AIRMN, 780/38 gobernu-informazioa. / AIRMN, información gubernamental 780/38.

[324] UUA, sig. 1936.01. / AMU, sig. 1936. 01.

Nació el 29 de junio de 1870 en Aldahono (Segovia)[322], pero había venido a vivir a Oria con la familia, a trabajar en la empresa Brunet, donde trabajaba como reponedora. Como muchos trabajadores de Brunet, estaba afiliada al sindicato UGT y vivía en las casas Iturralde que tenía la empresa. Haciendo caso al llamamiento de evacuación de agosto de 1936, se refugió en Bilbo con sus hijas Elvira y Trinidad, hasta que los golpistas tomaron la ciudad por las armas. Entonces, Paula volvió a Urnieta. Fue investigada por los franquistas, junto con su hija Elvira, pero al final no las acusaron de nada[323]. Las autoridades franquistas locales, aprovechando que había abandonado el pueblo, le confiscaron todos los bienes de su casa[324].



Pertenece a Oria = Barrio de Urnieta 19

INVENTARIO, del movillario y demas enseres que se hallaban en la habitación que ocupaba PAULA BAJO, en la casa propiedad de los HERS. HNO AT y Cº. quien se ausento y se ignora su paradero.

ENSERES Y OBJETOS

dos .....camas de madera
dos ..... somieres
cinco ..... almohadas
un ..... armario de luna
un ..... tocador
dos ..... mesillas
un ..... lavabo
dos ..... colchones
ocho ..... sillas
un ..... baul
Varios cuadros de imagenes y fotografias
12 platos
un aspero
un frutero de cristal
una cafetera
una maquinilla de moler cafe
Seis sabanas
cuatro cubrecamas

Este movillario Queda depósitado en uno de los cuartos de la habitación de MIGUEL ALBA.

Hecha por triplicado en Urnieta a diez seis de Juni de 1937.

El alcalde

Paula Bajori konfiskatutako ondasunen zerrenda. (UUA). / **Lista de los bienes confiscados a Paula Bajo.** (AMU).

BARRENA GOÑI, LIRIA

1941ean benefizentzia etxean sartu zuten, Oriako auzotarrek salatu eta gero, "gizonen konpainian" ibiltzen zelako bere etxean eta 10 hilabeteko haurra zaintzen ez zuelako. Auzotarren esanez, haur bat hil zitzaion aurretik eta aurrekari horiengatik umea kendu eta ospitalizatua izan zen eta Liria Oblatoen komentuan sartzera behartu zuten[325].

En 1941 la metieron en la casa de beneficencia, tras ser denunciada por los vecinos de Oria, de que andaba "en compañía de hombres" en su casa y porque no cuidaba a su crío de 10 meses. Según los vecinos, anteriormente se le había muerto otro crío y, por esos antecedentes, le quitaron el niño y fue hospitalizada. Liria finalmente fue ingresada en el convento de las Oblatas[325].

CANO INZA, DELFINA

Oriako bizilagun hau 1915eko maiatzaren 8an jaio zen, eta hainbat auzotar bezala, guraso eta anai-arrebekin batera kolpisten aurrerakaden ondorioz herria utzi zuen[326]. Herriko mugimendu ezkertiarreko partaide aktiboa zen, bere ahizpa Magdalenarekin batera, hauen ekitaldietan banderadun ibiltzen baitziren[327]. Severo eta Micaela gurasoak eta Juan izan ezik gainontzeko anai-arrebekin Hendaian errefuxiatu ziren, Orian egoera egonkortu zen arte. Orduan herrira itzultzea erabaki zuten[328]. Kolpistek ez zuten atxilotu, aske aurkitzen baitzen tribunal militarrek bere aurkako gerra kontseilu bat abiarazi zutenean, 1938ko urtarrilean. Bertan, bere ekintzak ez zutela delitu zantzurik ebatzi eta gero, largetsi egin zuten kausa Burgoseko auditoreek 1938ko martxoan[329].

Esta vecina de Oria nació el 8 de mayo de 1915. Como muchos vecinos, en el verano de 1936 abandonó el pueblo junto con sus padres y hermanos, ante el avance de los golpistas[326]. Fue una participante activa de los movimientos izquierdistas locales, junto con su hermana Magdalena, pues andaban como abanderadas en los actos[327]. Se refugió en Hendaia con sus padres Severo y Micaela y con todos los hermanos excepto Juan, hasta que la situación se estabilizó en Oria. Entonces, decidieron volver al pueblo[328]. No fue detenida por los golpistas, ya que se encontraba en libertad cuando los tribunales militares iniciaron un consejo de guerra en su contra, en enero de 1938. En él, tras deliberar que sus actos no tenían ningún rastro de delito, los auditores de Burgos archivaron la causa el marzo de 1938[329].

[325] UUA, 1941ko udal-korrespondentzia. / AMU, correspondencia municipal de 1941.
[326] UUA, sig. PA00.06N. / AMU, sig. PA00. 06N.
[327] Islada Ezkutatuak (2020). / Islada Ezkutatuak (2020).
[328] Islada Ezkutatuak (2020). / Islada Ezkutatuak (2020).
[329] AIRMN, 249 informazioa. / AIRMN, información 249.

orr.

CLERE AIZPURUA, ALEJANDRA

Bere aurkako ikerketa bat burutu zuten tribunal militarrek, baina ihes eginda zegoenez auzi-iheslari deklaratu zuten eta behin-behinean prozesua eten zuten Alejandra agertu bitartean[330].

Los tribunales militares llevaron a cabo una investigación en su contra, pero como estaba huido, lo declararon en rebeldía y el proceso fue provisionalmente interrumpido hasta que apareciera Alejandra[330].

COLLIN BRINGAS, VALENTINA

Haur baten inudea zen, Aldundiak kaxako umeentzat zuen batzordearentzat lan eginez. Hau da, umezurtz edota haur txiro baten kargu egin zen eta horregatik diru kopuru bat jasotzen zuen. Ez da Aldundiko langileen zerrendan agertzen, baina Valentinari diru kopuru bat ordaintzen zion Udalak Aldundiaren aginduz. Kolpistak herrira iritsi aurretik herria utzi eta Bizkaiara joateagatik soldata kendu zion Urnietako udalak Gipuzkoako Aldundiaren aginduz[331].

Era nodriza, trabajando para la comisión de niños expósitos que tenía la Diputación. Se hizo cargo de un huérfano o niño pobre, y por ello recibía una cantidad de dinero. No aparece en la lista de trabajadores de la Diputación, pero el Ayuntamiento pagaba una cantidad de dinero a Valentina por orden de la Diputación. Por abandonar el pueblo e irse a Bizkaia antes de que llegaran los golpistas, el Ayuntamiento de Urnieta le quitó el sueldo, por orden de la Diputación de Gipuzkoa[331].

GARMENDIA, PAULINA

Urnietarra jaiotzez, Donostian bizi zen, bere senarrarekin batera, Juan Antonio Irulegui. Bertan, alde zaharreko Intza taberna eramaten zuten eta haur txiki bat zeukaten. Gerrak eztanda egitean, Donostian geratzea erabaki zuten eta irailean kolpistek senarra atxiki eta Usurbileko Irubide deituriko inguruetara eraman eta fusilatu egin zuten. Paulinari gainera, taberna itxi zioten zigor moduan, haur txiki batekin bakarrik geratuz. Saiatu zen taberna irekitzeko baimena lortzen, baina Donostiako udalak ez zion kasurik egiten. Orduan, Falangeko kide batek lagunduko ziola agindu zion, baldintza batekin, tabernari izena aldatu eta Bar España jartzen bazion. Paulinak, lana eta negozioa berreskuratzeko, men egin behar izan zuen, horretarako gainera tabernako baxera guztia aldatu behar izan zuen[332].

Urnietarra de nacimiento, vivía en Donostia, junto a su marido Juan Antonio Irulegui. Allí, regentaban el bar Intza de la parte vieja y tenían un crío pequeño. Cuando estalló la guerra, decidieron quedarse en Donostia y, en septiembre, los golpistas apresaron al marido, lo llevaron a los alrededores de Irubide en Usurbil, y lo fusilaron. Además, como castigo, a Paulina le cerraron el bar, quedándose sola con un crío pequeño. Intentó conseguir el permiso para abrir el bar, pero el ayuntamiento de Donostia no le hizo caso. Entonces, un miembro de la Falange le dijo que le ayudaría, pero con una condición, que le cambiara el nombre al bar y le pusiera Bar España. Paulina, para recuperar el trabajo y el negocio, tuvo que obedecer, además de tener que cambiar toda la vajilla del bar[332].

GOICOECHEA GOMEZ, JUANA

1897ko irailaren 14ean jaio zen Pasaian, baina Urnietara bizitzera etorri zen txikia zenean. Matxinoen tropak Urnieta konkistatzea mehatxatzen zutenez, herritik joatea erabaki zuen arreba Manuela eta honen senarra zen Ignacio Setien eta seme-alabekin[333]. Behin Gerra Zibileko Iparraldeko Frontea erori zenean, herrira itzuli ziren baina Juana 1938 urtean atxilotu egin zuten, errepresioaren beldur ziren Donostia eta inguruetako herritarrak Frantziako Estatura igarotzen laguntzen zien sare bateko kide izatea egotzi eta gero. Talde honen aurkako epaiketa Donostian 1939ko uztailean eman zen, baina Juanaren aurka ezin izan zutenez nahikoa froga bildu, behin betiko aske geratzea lortu zuen[334].

Nació en Pasaia el 14 de septiembre de 1897, pero vino a vivir a Urnieta de pequeño. Como las tropas sublevadas amenazaban con conquistar Urnieta, decidió irse del pueblo junto con su hermana Manuela y la familia de esta[333]. Una vez caído el Frente Norte de la Guerra Civil, volvieron al pueblo. Como en el caso de Juana tenían la sospecha de que fuera miembro de una red que ayudaba a pasar a la gente perseguida de Donostia y alrededores al Estado francés, los tribunales militares llevaron a cabo un consejo de guerra contra varios miembros, el julio de 1939. Pero, como no había suficientes pruebas contra Juana, consiguió la libertad definitiva[334].

[330] AIRMN, 2785 urgentziazko prozedura sumarisimoa. / AIRMN, procedimiento sumarísimo de urgencia 2785.
[331] UUA, 1937ko udal-korrespondentzia. / AMU, correspondencia municipal de 1937.
[332] Islada Ezkutatuak (2020). / Islada Ezkutatuak (2020).
[333] UUA, sig. PA00.06. / AMU, sig. PA00. 06.
[334] AIRMN, 3131/38 sumarisimo arrunta. / AIRMN, sumarísimo ordinario 3131/38.

GOYARAN OLAZAGUIRRE, MARIA

1898ko uztailaren 31n jaio zen Urnietan eta Orian bizi zen, bere familiarekin batera Brunet industriaren etxeetan[335]. 1936ko uztailean gerrak eztanda egitean, frontearen hurbiltasuna zela eta auzoa ebakuatzeko deia egin zen eta Joaquin Idigoras Guridi senarra eta bi seme-alabekin Oria utzi zuen Mariak. Egoera hori baliatuz, Oriako beste askori bezala, etxeko ondasunak konfiskatu zizkieten[336]. Herritik ihes egite hutsagatik, autoritate frankistek ikerketa bat ireki zuten beraien aurka, horrela 1939an atxilotuak izan ziren bera eta Joaquin eta behin-behineko espetxealdia ezarri zieten biei tribunal frankistek. Bikotearen aurkako salaketak funtsik ez zuen eta ondorioz aske geratzea lortu zuten uztailaren 15ean[337]. Hala ere, Mariaren aurka oraindik bigarren eginbide batzuk ireki zituzten, 1940 urtean, baina hau ere largestea lortu eta gero behin betiko askatasuna lortu zuen Mariak[338].

Nació en Urnieta el 31 de julio de 1898 y vivía en Oria junto con su familia, en las casas de la industria Brunet[335]. Cuando en julio de 1936 estalló la guerra, se hizo un llamamiento para abandonar el barrio debido a la cercanía del frente, y María, junto con su marido Joaquín Idigoras Guridi y sus dos hijos, abandonaron Oria. Aprovechando la situación, las nuevas autoridades franquistas les confiscaron los bienes de su casa, como a muchos otros de Oria[336]. Por el mero hecho de huir del pueblo, las autoridades franquistas iniciaron una investigación en su contra. Así, en 1939, María y Joaquín fueron detenidos y los tribunales franquistas les impusieron la prisión provisional. La acusación contra la pareja no tenía ningún fundamento y fueron puestos en libertad el 15 de julio[337]. De todos modos, en 1940, abrieron otras diligencias contra María, pero también consiguieron archivar estas y María consiguió la libertad definitiva[338].

IBARRA GOMEZ, FELISA

Bere senarrarekin batera, Domingo Gauna, trenbideko etxean bizi zen, bertan barrerazaina baitzen Felisa. Domingok, kolpisten aurrerakada zela eta herria uztea erabaki zuen eta honegatik Urnietako udalak Felisa etxetik kanporatzeko agindua igorri zuen, baina tren konpainiak kanporaketa hau atzeratu zuen ordezko barrerazain bat aurkitu arte. Ez dakigu azkenean herritik kanporatu zuten edo ez[339].

Vivía en la casa de las vías del tren junto con su marido Domingo Gauna, pues Felisa era guardabarrera. Debido al avance de los golpistas, Domingo decidió abandonar el pueblo y, por ello, el ayuntamiento de Urnieta emitió la orden de desalojar a Felisa de su casa. Pero la compañía de tren retrasó ese desalojo hasta que encontraran a otro guardabarrera, y no sabemos si finalmente fue expulsada del pueblo o no[339].



COMPAÑIA DE LOS CAMINOS DE HIERRO DEL NORTE DE ESPAÑA
VIA Y OBRAS

San Sebastian 24 de Enero de 1937

Sr. Alcalde Presidente del Ayuntamiento de la Villa de URNIETA

A Núm. 96

Muy Sr. mio : Con fecha 23 del actual, dirije á esta Sección de Via y Obras un escrito la Guardesa de la Compañia Felicia Ibarra, en unión de la carta que esa Alcaldia le mandó, dándole un plazo de ocho dias para que se ponga en contacto con su esposo para que en ese plazo se presente, y en el caso de que ello no se realice será expulsada con su familia.

Me permito manifestar que estando movilizado todo el personal Ferroviario y de llevarse á cabo la expulsión de la guardesa segun se indica en su carta, habria de quedar abandonado el paso á nivel que ella guarda, es por lo que le ruego se detenga dicha resolución hasta tanto conteste la Autoridad Militar que entiende que entiende con el personal Ferroviario, que es la 5 Unidad de Ferrocarriles con residencia en Miranda á la que se le comunica la determinación de esa Alcaldia en relación á la repetida Guardesa Felicia Ibarra.

Es de V. atento s.s.

P El Jefe de la 5 Sección de Via y Obras

Urnietako udalak Felisa eta bere familiaren aurka igorritako kanporatze agindua. (UUA). / Orden de expulsión emitida por el ayuntamiento de Urnieta contra Felisa y su familia. (AMU).

ICUZA IGUERATEGUI, DOLORES

Herritik kanporatua izateko agindua jaso zuen, Urnieta utzi beharko zuten bere familiako kideak 8 egunen buruan itzuli ezean[340]. / Recibió la orden de ser desalojada del pueblo. Tendrían que abandonar Urnieta si los miembros de su familia no volvían en 8 días[340].

LABRADOR GARCIA, ISABEL

1903ko urtarrilaren 18an jaio zen Puertollano (Ciudad Real), baina 1929tik Lasarteko Atze-kalen bizi zen, Pedro Leon senarra eta seme-alabekin. 1936ko abuztuan, erreketeen zutabeen erasoaldiak zirela eta, herria utzi eta Bilbon babesteko erabakia hartu zuten denek[341]. Isabel, UGTko afiliatua izanik, sindikatu honentzat lan egiten hasi zen saltzaile bezala[342]. Horretaz gain, SRI antolakundera batzea erabaki zuen 1937ko maiatzean[343] eta honi esker, bere seme-alabekin batera Katalunian errefusiatzea

[335] UUA, sig. PA00.06. / AMU, sig. PA00. 06.
[336] UUA, sig. 1936.01. / AMU, sig. 1936. 01.
[337] AIRMN, 1939ko eginbideak. / AIRMN, diligencias de 1939.
[338] AIRMN, 3561 aurretizko eginbideak. / AIRMN, diligencias previas 3561.
[339] UUA, 1937ko udal-korrespondentzia. / AMU, correspondencia municipal de 1937.
[340] UUA, sig. 1936.01. / AMU, sig. 1936. 01.
[341] UUA, sig. PA00.06. / AMU, sig. PA00. 06.
[342] Ministerio de Cultura y Deporte, Archivo CDMH, PS Bilbao, 54 paper-sorta. / Ministerio de Cultura y Deporte, Archivo CDMH, PS Bilbao, legajo 54.
[343] Ministerio de Cultura y Deporte, Archivo CDMH, PS Santander "O", 56 paper-sorta. / Ministerio de Cultura y Deporte, Archivo CDMH, PS Santander "O", legajo 56.

lortu zuen, Berna herrian. Bertan, SRItik 300 pezetako pentsioa jasotzen zuen, familiaren sustengurako[344]. 1946ko ekainean, Lasarten baina Hernaniko aldean bizi zela, atxilotu eta Ondarretako espetxera eraman zuten preso, estraperloagatik 100 pezetako isuna ezarri baitzioten. Hilabetez egon zen preso isuna ordaindu zuen arte[345].

Nació en Puertollano (Ciudad Real) el 18 de enero de 1903, pero desde 1929 vivía en Atzekale de Lasarte, junto con su marido Pedro León y sus hijos. En agosto de 1936, debido a las ofensivas de las columnas requetés, decidieron abandonar el pueblo todos y refugiarse en Bilbo[341]. Isabel, como era afiliada a UGT, empezó a trabajar como vendedora para este sindicato[342]. Además, en mayo de 1937 decidió unirse a la organización SRI[343] y, gracias a eso, logró refugiarse en el pueblo catalán de Berna junto con sus hijos. Allí, recibía una pensión de 300 pesetas de SRI, para el sustento de la familia[344]. En junio de 1946, viviendo en la parte de Lasarte correspondiente a Hernani, fue detenida y encarcelada en la cárcel de Ondarreta, pues le habían puesto una multa de 100 pesetas por estraperlo. Estuvo un mes encarcelada hasta que pagó la multa[345].

MATA GARCIA, MARIA LUISA

Ugao-Miraballesen jaioa, Lasarteko Goenkalen bizi zen eta 23 urte zituen. Orian lan egiten zuen eta Bruneteko ehunka langile bezala 1936ko abuztuan gerra zela eta ihes egitea erabaki zuen. Hala ere, Gerra Zibileko Iparraldeko Frontea erortzean, 1937ko abuztuan Santanderren atxiki zuten kolpistek eta espetxeratua izan zen. Irailean Martutenera eraman zuten eta hil bereko 22an aske geratu zen baina Udalak Domingo Zabala bidali zuen espetxetik irtetzerakoan Lasartera eramateko. Hala ere askatasuna berreskuratu bezain pronto, 1937ko irailak 24ean Donostiara bizitzera joateko erabakia hartu zuen[346].

Nació en Ugao-Miraballes, vivía en la calle Goenkale de Lasarte y tenía 23 años. Trabajaba en Oria y como cientos de compañeros de la fábrica Brunet, en agosto de 1936 decidió huir por motivo de la guerra. Sin embargo, al caer el Frente Norte de la Guerra Civil, en agosto de 1937 fue retenida en Santander por los golpistas y encarcelada. En septiembre fue trasladada a Martutene y el día 22 del mismo mes quedó en libertad. El Ayuntamiento envió a Domingo Zabala para recogerla en la cárcel y llevarla a Lasarte. A los pocos días de recuperar la libertad, decidió irse a vivir a San Sebastián el 24 de septiembre de 1937[346].

Brunet enpresako emakume batzuen argazkia. (Urnietako emakumeak historian zehar). / **Algunas mujeres de la empresa Brunet.** (Urnietako emakumeak historian zehar).

OCARIZ TARAZONA, CONCEPCION

Errenteriarra jaiotzez, Lasarten bizi zen, Hernaniren atala zen kaleetan. Errepublika garaian UGT sindikatuko afiliatua zen eta ideia ezkertiar sakoneko emakumea zen gainera. Gerrak eztanda egitean, ez zen honen aurka nabarmendu, baina bere senarra miliziano gisa joan zen borrokara eta ondorioz berarekin batera Santanderrera arte joan zen atzerakadan. Bertatik Concepcionek Lasartera itzultzea lortu zuen, bere senarra espetxeratua eta bortxetako lanetara kondenatu zutelarik. Senarra espetxean zen bitartean, Concepcionek hainbat lanetan jardun behar izan zuen, 1938 amaieran Brunet enpresan lanean hasi zen arte, Orian. Bertan, harilkatze sailean lan egiten zuen, 14 emakumerekin batera. 1939ko urtarrilaren 2an, beraien sailean Francisco Francoren argazkiko begi eta bibotea urratuta agertu ziren, ondorioz, beraien enkargatuak salaketa bat jarri zuen. Hau dela eta, autoritate frankistek langile guztien aurkako galdeketak egin zituzten eta lankide gehienek Concepcion salatu zuten, esanez ezkertiarra

[344] Ministerio de Cultura y Deporte, Archivo CDMH, PS Bilbao, 275 paper-sorta. / Ministerio de Cultura y Deporte, Archivo CDMH, PS Bilbao, legajo 275.
[345] GPAH, Isabel Labrador Garciaren espetxe-espedientea. / AHPG, expediente penitenciario de Isabel Labrador García.
[346] UUA, 1937ko udal-korrespondentzia. / AMU, correspondencia municipal de 1937.

zela eta Mugimendu Nazionalaren aurkako iritziak publikoki adierazten zituela. Horrela, nahiz eta argazkiaren aurkako erasoa ez zuen inork ikusi, bere aurrekariak kontuan izanik Concepcion ekintza honen egile izan zela ebatzi zuten tribunalek, bere aurka eginiko gerra kontseilu batean, 1939ko abuztuaren 2an. Hori dela eta, matxinada militarraren aldeko proposamena burutu zuela ebatzi zuen tribunalak eta hiru urteko kartzela zigorrera kondenatu zuen[347].

Nació en Errenteria pero vivía en Lasarte, en una de las calles correspondientes a Hernani. Durante la República estuvo afiliada al sindicato UGT y, además, era una mujer de profundas ideas izquierdistas. Cuando estalló la guerra, no destacó en su contra, pero su marido fue a combatir como miliciano y, por lo tanto, se fue con él en retirada, hasta Santander. De allí, Concepción logró volver a Lasarte, mientras su marido fue encarcelado y condenado a trabajos forzados. Mientras el marido estaba en prisión, Concepción tuvo que trabajar en varios trabajos, hasta que a finales de 1938 empezó a trabajar en la empresa Brunet de Oria. Allí, trabajaba en el departamento de devanado, junto con otras 14 mujeres. El 2 de enero de 1939, en su departamento aparecieron un ojo y el bigote de la fotografía de Francisco Franco rasgados, por lo tanto, el encargado puso una denuncia. Debido a ello, las autoridades franquistas hicieron interrogatorios a todas las trabajadoras; la mayoría de las trabajadoras denunciaron a Concepción, diciendo que era izquierdista y que expresaba públicamente opiniones contrarias al "movimiento nacional". Así, aunque nadie vio el ataque contra la fotografía, teniendo en cuenta sus antecedentes, los tribunales dictaminaron que Concepción había sido la autora de la acción, en un consejo de guerra llevado a cabo el 2 de agosto de 1939. Por ello, el tribunal dictaminó que había llevado a cabo una propuesta a la rebelión militar y fue condenada a tres años de prisión[347].

PECHARROMAN BAJO, ELVIRA

1906ko urtarrilaren 26an jaio zen Moradilla de la Roa (Burgos) herrian, baina Urnietara bizitzera etorri zen bertako ehungintza industrian lan egitera. UGTra afiliatua zegoen baina ez zen nabarmendu herriko politikan. 1936ko abuztuan, gerraren hurbiltasuna zela eta Bilbora joan zen bere ama Paula Bajoren eta ahizpa Trinidadekin errefuxiatu moduan. Bertatik Alonsotegira mugitu ziren, hiriaren aurka kolpistek egiten zituzten bonbardaketetatik ihesi. Bilbo kolpistek armez konkistatu eta gero Urnietara itzuli ziren hirurak, 1937ko uztailean. Herrira iristearekin batera, beraien aurkako ikerketa bat abiatu zen, baina berau artxibatu egin zen 1938ko abenduan[348].

Nació en Moradilla de la Roa (Burgos) el 26 de enero de 1906, pero había venido a vivir a Urnieta para trabajar en la industria textil local. Estaba afiliada a UGT, pero no había destacado en la política local. En agosto de 1936, debido a la cercanía de la guerra, se fue a Bilbo como refugiada junto con su madre Paula Bajo y su hermana Trinidad. De allí se movieron a Alonsotegi, huyendo de los bombardeos que los golpistas realizaban contra la capital. Cuando Bilbo fue conquistada por los golpistas por las armas, las tres volvieron a Urnieta, en julio de 1937. Nada más llegar al pueblo, iniciaron una investigación en su contra, pero fue archivada en diciembre de 1938[348].

URIA CANO, MERCEDES

1916ko otsailaren 16an jaioa, Oria auzoan bizi zen eta bertako ehungintza industrian lan egiten zuen. Sektore honetako langile asko bezala, UGTra afiliatua zegoen, antolakunde honetako partaide nabarmenetako bat zen gainera, maiatzaren 1ean eginiko manifestazio batean sindikatu honen bandera eraman baitzuen. Estatu-kolpearen lehen egunak Orian eman bazituen ere, auzoaren ebakuazio agindua iristean hau utzi zuen eta herri ezberdinetan babestu ostean Sestaon ezarri zen, eta tartean bi hilabetez ospitalean gaixotasun bategatik egon zen[349]. Bertan, atzerrira joateko pasaportea lortu zuen, 1937ko maiatzaren 30ean[350], baina azken unean Euskal Herrian geratzea erabaki zuen eta Bilbon bizi izan zen altxatuak bertara armekin sartu arte, noiz Urnietara itzultzeko erabakia hartu zuen. Herrira itzultzean bere aurkako ikerketa bat burutu zuten kolpistek eta ezkerreko ideologia izateagatik isun ekonomiko bat ezartzea ebatzi zuten hauek, naiz eta Mercedesek argudiatu ez zuela ondasunik ezta aurrezkirik ere, egunean 5 pezeta kobratzen zituen jornalaria baitzen. 1939ko urtarrilean 100 pezetako isuna ezarri zioten[351].

Mercedes Uria Canori ezarritako isunaren ordainagiria. (AIRMN). / **Recibo de la multa impuesta a Mercedes Uria Cano.** (AIRMN).

[347] AIRMN, 2050/39 urgentziazko sumarisimoa. / AIRMN, sumarísimo de urgencia 2050/39.
[348] AIRMN, 780/38 gobernu-informazioa. / AIRMN, información gubernamental 780/38.
[349] AIRMN, 843/38 gobernu-informazioa. / AIRMN, información gubernamental 843/38.
[350] Euzkadi Roja aldizkaria, 214 zenbakia, 4 orrialdea, 1937/05/30, Bilbo. / Periódico Euskadi Roja, nº 214, pág. 4, 30/05/1937, Bilbo.
[351] AIRMN, 843/38 gobernu-informazioa. / AIRMN, información gubernamental 843/38.

Nació el 16 de febrero de 1916, vivía en Oria y trabaja en la industria textil local. Como muchos trabajadores de este sector, estaba afiliada a UGT, y además era una miembro destacada de esta organización, pues en una manifestación de un 1 de mayo llevó la bandera de este sindicato. Aunque los primeros días del golpe de Estado los pasó en Oria, cuando llegó la orden de evacuación del barrio, se fue, y tras refugiarse en varios pueblos (incluidos dos meses en un hospital por enfermedad), se estableció en Sestao[349]. Allí, consiguió el pasaporte para ir al extranjero, el 30 de mayo de 1937[350], pero en el último momento decidió quedarse en Euskal Herria y vivió en Bilbo hasta que entraron los sublevados por las armas; en ese momento decidió volver a Urnieta. Cuando volvió al pueblo, los golpistas realizaron una investigación en su contra y decidieron ponerle una sanción económica por ser de ideología izquierdista; aunque Mercedes argumentó que no tenía ni bienes, ni ahorros, pues era una jornalera que cobraba 5 pesetas al día, le pusieron una multa de 100 pesetas, en enero de 1939[351].

URRETAVIZCAYA ZALACAIN, MARIA CRUZ

1878ko urriaren 24an jaio zen Urnietan, nekazaria zen eta Altugain baserrian bizi zen bere familiarekin. 1939 martxoan, Maria Cruz eta bere gizon Juan Bautista, behin-behinean atxilotu zituzten beraien etxean zuten bentan legez kanpoko bilerak egiten zirela salatu baitzuten. Tribunal militarrek, hilabeteko kartzela zigorra ezarri zieten gobernu-zigor baten ondorioz, eta irailaren 11n aske geratu ziren[352].

Nació en Urnieta el 24 de octubre de 1878 y vivía con su familia en el caserío Altugain; era agricultora. Cuando se dio la sublevación militar, la familia se quedó en el caserío, excepto su hijo Martín que dejó el pueblo y se fue como refugiado. Después de que los golpistas tomaran Euskal Herria por las armas, Martín fue detenido y obligado a combatir con el Ejército golpista, en el batallón América 23. Martín murió combatiendo para ese batallón en el frente. En marzo de 1939, María Cruz y su marido Juan Bautista fueron detenidos preventivamente porque fueron acusados de organizar reuniones clandestinas en su casa. Los tribunales militares les impusieron una condena de un mes de prisión, por una sanción gubernativa; quedaron en libertad el 11 de septiembre[352].

Bentako Maria Cruz Urretavizcaya. (Gure Urnieta). / **María Cruz Urretavizcaya de la Venta.** (Gure Urnieta).

VICUÑA FERRERO, CONSUELO

Orian jaioa, Lasarten bizi zen, baina Hernaniko aldean. Bere sendiaren gehiengoa Orian bizi zen eta hauetako asko bezala, autoritate frankisten errepresioa jasan behar izan zuen. Horrela, bere aurkako salaketa bat tarteko atxilotua izan zen eta espetxeratu egin zuten. 1939ko azaroaren 19an, bere aurkako prozesua largestea erabaki zuen Burgosko Gerra Auditoreak, bere aurkako akusazioan delitu zantzurik aurkitzen ez zutelako. Une horretarako, Consuelo behin-behineko askatasunarekin Lasarten bizitzen aurkitzen zen eta honi esker behin-betiko askatasuna lortu zuen[353].

Nació en Oria, pero vivía en la parte de Lasarte correspondiente a Hernani. La mayoría de su familia vivía en Oria, y como muchos de ellos, tuvo que sufrir la represión de las autoridades franquistas. Así, fue detenida y encarcelada por una denuncia en su contra. El 19 de noviembre de 1939, el Auditor de Guerra de Burgos decidió archivar el proceso en su contra por no encontrar rastros de delito en la acusación. Para entonces, Consuelo se encontraba viviendo en Lasarte en libertad provisional y, finalmente, consiguió la libertad definitiva[353].

ZUBILLAGA JOSEFA ANTONIA ETA BERE ALABA GOENAGA ZUBILLAGA, FRANCISCA / ZUBILLAGA, JOSEFA ANTONIA Y SU HIJA GOENAGA ZUBILLAGA, FRANCISCA

Josefa Antonia, Franciscaren ama zen eta Astigarragan bizi ziren, baina frontea Urnietara iritsi zirenean bertan aurkitzen ziren, aita miliziano gisa borrokan zen bitartean. Autoritate frankisten arabera, Urnietan eman ziren borroketako bala galdu batek Josefa Antonia harrapatu zuen eta honen ondorioz hil zen. Honen ondorioz, Francisca alaba Hernaniko umezurztegian sartu zuen Urnietako udalak eta Astigarragakoari jakinarazi zion bera egin behar zela haur horren gastuen kargu[354].

Josefa Antonia era madre de Francisca y vivían en Astigarraga, pero cuando el frente llegó a Urnieta se encontraban aquí, mientras el padre estaba combatiendo como miliciano. Según las autoridades franquistas, una bala perdida de uno de los combates que se dieron en Urnieta pilló de lleno a Josefa Antonia y murió por esa causa. Por eso, el ayuntamiento de Urnieta ingresó a su hija Francisca en el orfanato de Hernani y notificó al de Astigarraga que se tenía que hacer cargo de los gastos de esa niña[354].

[352] AIRMN, 1939 urteko kausa. / AIRMN, causa del año 1939.
[353] AIRMN, 819/38 gobernu informazioa. / AIRMN, información gubernamental 819/38.
[354] UUA, 1936ko udal-korrespondentzia. / AMU, correspondencia municipal de 1936.

4.3. EPAIZ KANPO EXEKUTATUTAKO URNIETARRAK

Kolpisten bortizkeriaren gordintasuna lehen unetik jasan zuten urnietarrak, hauen zitalkeria eta mendeku nahiaren gogorrena jasan zuten, batez ere 1936ko uda amaiera eta udazkenaren lehen egunetan. Horietatik lazgarrienak eta makurrenak inolako epaiketa gabe fusilatu zituzten urnietarren kasuak dira.

Erreketeen zutabeak eta militar zein falangisten tropak Euskal Herriko herri bat indarrez hartu zuten bakoitzean, makurkeriaz eta mendeku gosez jokatzen zuten eta lehen uneetatik hainbat herritar atxilo eramaten zituzten. Atxiloketen arrazoiak, militarrek borroketan hildako kideak mendekatu nahia edota herritarren militantzia politikoa zigortu nahia izan ziren. Hauetako batzuk espetxeratuak eta epaituak izaten ziren (nahiz eta epaiketa justu bat izateko bermeak izan ez), baina beste asko, batez ere lehen egunetan, inguruko herrietako hilerrien hormen aurka fusilatu zituzten. Kasu nabarmenak dira Andoain eta Hernaniko hilerrietako fusilatzeak, non ehundaka euskal herritar erail zituzten kolpistek.

4.3. URNIETARRAS EJECUTADOS EXTRAJUDICIALMENTE

Los urnietarras tuvieron que sufrir la crudeza de la violencia de los golpistas desde el primer momento; tuvieron que sufrir lo más duro de su mezquindad y de su sed de venganza, sobre todo a finales del verano y los primeros días del otoño de 1936. Entre esos sucesos, los más atroces y perversos fueron los casos de los urnietarras que fueron fusilados sin ningún tipo de juicio.

Cada vez que las columnas requetés y las tropas militares o falangistas tomaban un pueblo de Euskal Herria, actuaban con perversidad y con sed de venganza y, desde el primer momento, llevaron a varios ciudadanos detenidos. Las razones de las detenciones fueron el deseo de vengar a los compañeros muertos en los combates o el deseo de castigar la militancia política de los ciudadanos. Algunos de ellos fueron encarcelados y juzgados (aunque no hubiera garantías para un juicio justo), pero otros muchos, sobre todo en los primeros días, fueron fusilados contra las paredes de los cementerios de los pueblos de alrededor. Fueron casos destacados los fusilamientos de los cementerios de Andoain y Hernani, ya que cientos de vascos fueron ejecutados en ellos.

Ba egun batian hartu zituen, bi gizon ta beste mutil bat 18 urtekua, eraman zituzten Andoaina eta han fusilatu zituzten. Por cuestión de politica. Denak PNVkoak ziren eta bestiak Erreketiak. Hemen zan Reketia baserriko Gizon bat Boina roja esaten ziotena ta hura zen delatadorea. Itxuraz istiluak lehenagotik zetorren, diskusioak periodikotan izan zituzten errepublica garaian (karlista alde batetik eta el pueblo vascoko korrespontsala bestetik). Harakina eta bere semea 18 urtekua (el Pueblo Vascon idazten zuen) oso ezagunak ziren eta hauen aurka joan ziren hauek. Gerrako kartzela Ondarretan eraman zituzten; ni han izan zen behin bisitan, eta han ikusi nituen oso gaizki tratatzen zituztela presoak (jesus palizak eta...). Gu junginan egunean arratsaldean fusilatu zituen. Gerra garaian, zenbait etxe sakeatu eta erre egin zituzten. Orduan lapurtutako altzariak gogoan ditu[355].

Ekintza hauek, urnietarrek burutuak edota hauen laguntzari esker aurrera eramanak izan ziren. Hots, herritarrek beraien bizilagunak salatu zituzten, hauek jasango zuten patuaren jakitun. Horretaz gain, herrian boterea bereganatu zuten autoritate berriek (udalbatza, karlisten batzordea edota apaizak) ekintza hauek sustatu eta babestu zituzten uneoro. Horrela, Trino eta Nicolas Olaizola eta Julian Olazaguirreren fusilatzeak herritarren salaketetan oinarritu ziren. Juan Bautista Garmendiari, alkateak udaletxera aurkezteko agindua igorri zion eta bertan atxilotu eta fusilatu zuten. Bestetik, Rafael Barcaiztegui harakina, mezatik irtetean elizan bertan atxilotu zuten eta gutxira Andoainen fusilatu zuten.

Beste kasu nabari bat Guillermo eta Prudencio Liceaga Zuaznabar anaiena izan zen Bidegurutzeta baserrikoak. Kolpistak herrian sartu ziren egun berean, atxiki eta Zaldundegi etxera eraman zituzten hurrengo goizean fusilatzeko helburuarekin, Guillermo EAJko zinegotzia izan baitzen eta baita Euzko Nekazarien Bazkuna sindikatuko lehendakaria herrian. Horretaz gain, kolpistek etxean miliziano eta gudariak babestea egotzi zioten bi anaiei. Zaldundegin preso zituztela, ondoko tabernara armada kolpistako soldaduei soldata ordaintzera Paulino Uzcudun boxeolari famatua iritsi zen. Honek Prudencio ezagutzen zuen, soldadutzatik lagunak baitziren eta Paulinok Andoainera joan eta agintari kolpistekin hitz egin eta gero Prudencio eta Guillermo aske uztea lortu zuen. Bitartean Santan Barbarako milizianoek eta erreketeek izandako borroken ondorioz beraien etxea suntsituta geratu zen[356].

Estas acciones fueron llevadas a cabo por urnietarras o con la ayuda de estos. Esto es, los vecinos denunciaban a sus contrarios, a sabiendas del destino que sufrirían. Además, las nuevas autoridades que se hicieron con el poder en el pueblo (la corporación municipal, la comisión carlista y los curas) promovieron y apoyaron esas acciones en todo momento. De ese modo, los fusilamientos de Trino y Nicolás Olaizola y el de Julián Olazaguirre se fundamentaron en las denuncias de los vecinos. A Juan Bautista Garmendia el alcalde le envió una orden para que fuera al ayuntamiento; allí lo detuvieron y lo llevaron a fusilar. Por otro, el carnicero Rafael Barcaiztegui fue detenido en la misma iglesia cuando salía de misa, y al poco tiempo fue fusilado en Andoain.

Otro caso destacado fue el de los hermanos Guillermo y Prudencio Liceaga Zuaznabar, del caserío Bidegurutzeta. El mismo día en el que los golpistas entraron al pueblo, los apresaron y los llevaron a la casa Zaldundegi con el objetivo de fusilarlos a la mañana siguiente, pues Guillermo había sido concejal del PNV y presidente del sindicato Euzko Nekazarien Bazkuna en el pueblo. Además, los golpistas imputaron a los dos hermanos que habían ofrecido protección a milicianos y gudaris en casa. Mientras los tenían preso en Zaldundegi, vino al bar de al lado el famoso boxeador Paulino Uzcudun a pagar el sueldo a los soldados del Ejército golpista. Este conocía a Prudencio, pues eran amigos desde el servicio militar. Paulino se fue a Andoain y habló con las autoridades golpistas, y consiguió que dejaran en libertad a Prudencio y Guillermo. Mientras, debido a los combates entre los milicianos de Santa Bárbara y los requetés, su caserío fue destruido[356].

[355] Bixi Garmendia San Sebastianek Ahotsak.eus-i eskainitako elkarrizteka, URN-014 kodea. / Entrevista concedida por Bixi Garmendia San Sebastián a *Ahotsak.eus*, código URN-014.

[356] Joxeba Lizeaga Azpiolearen testigantza. / Testimonio de Joxeba Lizeaga Azpiolea.

Hilerrietako hormak fusilatzeen ohiko kokagune izan ziren Gipuzkoako hainbat herritan. (Euskal Memoria). / **Las paredes de los cementerios fueron un emplazamiento habitual de los fusilamientos en varios pueblos de Gipuzkoa.** (Euskal Memoria).

Beste urnietar batzuen kasuan, miliziano gisa borrokan jardun eta gero, kolpistek atxiki zituzten eta fusilatu epaiketa gabe. Bernardino Echezarren kasuan, Oriako militante ezkertiar ezaguna, espetxeratua izan zen baina 1937ko abenduan desagerrarazi egin zuten[357]. Joaquin Garro berriz, Kantabriako frontea erortzean ezkutuan Urnietara itzultzeko saiakera egin zuen, baina kolpistek atxiki eta gero Talledoko hilerrian fusilatu zuten[358].

Epaiz kanpo burututako fusilamendu hauen inguruan argia igortzea ez da gauza erraza izaten, izan ere, hauek Urnieta erori eta lehen egunetan gauzatu ziren gehienak, egoera ilun eta beldurgarri batean murgilduak zeudenean herritarrak. Horretaz gain, ekintza hauek militarrek eta guardia zibilak burutuak edota hauen oniritziarekin gauzatzen ziren eta herriko autoritateen babesarekin. Ondorioz, ez zen orokorrean dokumentaziorik sortzen horren baitan eta familia eta herritarren testigantzak oinarrizkoak izaten dira gertakari hauek ezagutu eta argitu ahal izateko.

Otros urnietarras, tras combatir como milicianos, fueron apresados por los golpistas y fusilados sin juicio. Por ejemplo, Bernardino Echezar, conocido militante izquierdista de Oria, fue encarcelado pero en diciembre de 1937 lo hicieron desaparecer[357]. Joaquín Garro, tras caer el frente de Cantabria, intentó volver a escondidas a Urnieta, pero lo apresaron los golpistas y lo fusilaron en el cementerio de Talledo (Castro Urdiales, Cantabria)[358].

No suele ser fácil dar un poco de luz sobre estos fusilamientos extrajudiciales, ya que la mayoría se llevaron a cabo a los pocos días de que cayera Urnieta, cuando los vecinos todavía estaban sumidos en una situación oscura y aterradora. Además, estas acciones las ejecutaban militares y guardias civiles, o se llevaban a cabo con su beneplácito y el apoyo de las autoridades locales. Por lo tanto, generalmente no se creaba ninguna documentación sobre ellos, y los testimonios de la familia y de los vecinos suelen ser fundamentales para poder conocer y aclarar estos sucesos.

Hainbat fusilatu izan ziren Urnietan, hamar hamabi bat inguru hilko zituzten, aita-semeak ere hil zituzten. Hori tristura! Gerra aurretikan ezinikusi handia zegoen nazionalisten eta karlisten artean. Frankistek herri bat hartzen zutenean, festa izaten zen herrian eta sekulako jende pilak biltzen zen, juten gina gu ere kalea... sekulako festa egoten zan; soinua eta kalejira… herri garrantzitsu bat hartu duela ta kanpaiak ebai "Tin tili tilin" jo ta puskatu zituzten kanpaiak (ospakizunaren ondorioz[359]).

Gauzak horrela, ekintza hauek frankismoaren diktadurak ezarritako beldurraren ondorioz ahanzturan erori ziren askotan, alde batetik familiak berak jasan zuen errepresioa eta beldurragatik eta bestetik autoritate frankista berriek ezarri zuten erregimen berriagatik. Horren adierazgarri gisa, familia askok beraien senitartekoen heriotza erregistro zibilean inskribatzeko urte luzez itxaron behar izan zuten, autoritate berrien zitalkeria eta senitartekoen beldurra zela eta.

Jarraian agertzen dira kolpistek epaiz kanpo fusilatu zituzten eta identifikatzea lortu diren urnietarrak.

De ese modo, estos sucesos muchas veces cayeron en el olvido, debido al miedo establecido por la dictadura franquista, por la represión y el miedo que sufrió la misma familia y, por otro, por el Nuevo Régimen que establecieron las nuevas autoridades franquistas. Un ejemplo elocuente de ello es que muchas familias tuvieron que esperar durante largos años para poder inscribir la muerte de sus familiares en el registro civil, debido a la ruindad de las nuevas autoridades y al miedo de los familiares.

A continuación mostramos los urnietarras que fueron fusilados extrajudicialmente por los golpistas y que hemos podido identificar.

[357] Gogora memoria institutuko datu-basea. / Base de datos de Gogora.

[358] Egaña, I. (et. al) (2000) / Egaña, I. (et. al) (2000)

[359] Joxe Mari Yurramendi Larburuk Ahotsak.eus-i eskainitako elkarrizteka, URN-033 kodea / Entrevista ofrecida por Joxe Mari Yurramendi Larburu a *Ahotsak.eus*, código URN-033.

Miguel Amundarain, bere neskalagunaren amaren salaketaren ondorioz fusilatu zuten. (Historia oral: la voz dormida en la memoria). / **Miguel Amundarain fue fusilado por la denuncia de la madre de su novia.** (Historia oral: la voz dormida en la memoria).

AMUNDARAIN ZUMEAGA, MIGUEL "MORIKO"

1913 urtean jaio zen Orian eta auzotar ugari bezala, Brunet enpresan lan egin eta bertako etxeetan bizi zen[360]. Auzoko langile mugimenduarekin identifikatua sentitu zen hasiera batetik eta horrela langileen babeserako mugimendu eta antolakundeekin elkarlanean lan egin zuen, eta 1930ean Orian langileen sindikatu baten sorreran parte hartu zuen[361]. Hurrengo urteetan langile mugimenduarekin lotuta jarraitu zuen, 1934ko Iraultzan parte hartuz, horren ondorioz epaitua eta espetxeratua izan zelarik Guadalupeko gotorlekuan[362]. Oria auzoarekin lotura sakonak bazituen ere, 1936an gerra piztearekin batera, Andoainen geratu zen Miguel, bertakoa baitzuen neskalaguna. Gainera, nahiz eta bere militantzia ezaguna izan Miguelek Andoainen geratzea erabaki zuen, neskalagunaren amak etxean babestuko zuela hitz eman baitzion. Hala ere, badirudi honek kolpistak herrian sartu bezain pronto salatu zuela, izan ere abuztuaren 30ean Tolosan fusilatu eta bertako hilerrian lurperatu zuten, beste lau andoaindarrekin batera. Gainera, Miguelen arreba Nieves jazarri zuen ere emakume honek, autoritate frankista berrietako pertsona garrantzitsu bat bilakatu baitzen[363].

Nació en Oria en el año 1913, y como muchos vecinos, trabajaba en la empresa Brunet y vivía en sus casas[360]. Se sintió identificado con el movimiento obrero desde el principio y, así, trabajó para los movimientos y organizaciones de ayuda al trabajador; en 1930, participó en la creación de un sindicato obrero en Oria[361]. Durante los años siguientes, siguió unido al movimiento obrero, participando en la Revolución de 1934; por ello, fue juzgado y encarcelado en el fuerte Guadalupe[362]. Aunque su relación con el barrio Oria era profunda, en 1936, nada más iniciarse la guerra, se quedó en Andoain, ya que su novia era de ese pueblo. Además, aunque su militancia era conocida, Miguel decidió quedarse en Andoain, pues la madre de la novia le prometió que le protegería en su casa. En cualquier modo, parece que esta lo denunció ante los golpistas nada más entraron en el pueblo, ya que el 30 de agosto lo fusilaron en Tolosa y lo enterraron en su cementerio, junto con otros cuatro andoaindarras. Además, esa mujer, al convertirse en una autoridad franquista, persiguió a Nieves, la hermana de Miguel[363].

AÑORGA LANDA, JOSE

1915 urtean jaioa, Oria auzoan bizi zen bere familiarekin batera. ELAko kidea, Asteasun fusilatu zuten altxatuen tropek, herri hau armez hartu eta gero, inolako epaiketa gabe[364]. Udalaren arabera, estatu-kolpearen aurka borrokatzeko antolatu ziren milizietara batu zen[365].

Nació en 1915, vivía en el barrio Oria junto con su familia. Miembro de ELA/STV, fue fusilado por las tropas sublevadas en Asteasu, sin ningún tipo de juicio, tras tomar este pueblo por las armas[364]. Según el ayuntamiento, se unió a las milicias que se organizaron para combatir contra el golpe de Estado[365].

ARTOLA AZURMENDI, JOSE MARIA

1894ko martxoaren 28an jaio zen Urnietan, baina Donostiara bizitzera joanda zen[366]. ELAra afiliatua zegoen eta militarrak Errepublikaren aurka armak hartzean, hauen aurka borrokatzeko eratu zen milizianoen Gipuzkoako Komandantzian izena eman zuen[367]. Altxamenduaren aurka izan zuen jarrera zela eta, hiria erortzean kolpistek atxiki eta inolako epaiketa gabe Hernani eta Urnieta bitartean fusilatu zuten[368].

Nació el 28 de marzo de 1894 en Urnieta, pero se fue a vivir a Donostia[366]. Estaba afiliado al sindicato ELA/STV y cuando los militares tomaron las armas contra la República, se alistó en la Comandancia de Gipuzkoa de los milicianos que se había creado para combatirlos[367]. Debido a la actitud que tuvo contra la sublevación militar, fue apresado por los golpistas al caer la ciudad, y lo fusilaron sin ningún tipo de juicio, entre Hernani y Urnieta[368].

---

[360] UUA, sig. PA00.06 / AMU, sig. PA00. 06.

[361] Lasa, X. (2006) / Lasa, X. (2006).

[362] Garai, J. R., Gutiérrez, J., Chueca, J. (2014) / Garai, J.R., Gutiérrez, J. y Chueca, J. (2014).

[363] Lasa, X. (2006) / Lasa, X. (2006).

[364] EAH, Bidasoa Institutua bilduma, Luis Ruiz de Aguirre "Sancho de Beurko" funtsa / AHE, colección Bidasoa Institutua, fondo Luis Ruiz de Aguirre "Sancho de Beurko".

[365] UUA, sig. 1307.02 / AMU, sig. 1307. 02.

[366] Urnietako erregistro zibila, 1 atala, 7 liburua, 121 orrialdea / Registro civil de Urnieta, sección 1ª, libro 7, página 121.

[367] Ministerio de Cultura y Deporte, Archivo CDMH, sig. DNSD-SECRETARIA,FICHERO,5,A0157031 / Ministerio de Cultura y Deporte, Archivo CDMH, sig. DNSD-SECRETARIA, FICHERO 5, A0157031.

[368] Donostiako erregistro zibila / Registro civil de Donostia.

orr.

BARCAIZTEGUI APAICEHEA, RAFAEL

Usurbilen jaioa 1885eko otsailaren 24ean, txikitatik Urnietan bizi zen. Ofizioz harakina, famatuak ziren bere produktuak eta Harategia bezala ezagutzen zen etxean bizi zen bere familiarekin[369]. EAJko kide nabarmenetako bat, 1922-1923 urteen bitartean Urnietako alkate izan zen eta baita ere herriko bake-epailea urte luzez. EAJko kide nabarmenetako bat izan zen Errepublika garaian eta altxamendua eman zenean, alderdi honen baitan antolatu eta kolpisten aldekoen aurkako ekintzak saihesteaz arduratu zen[370]. Iraileko lehen egunetan, karlisten zutabeen aurrerakaden aurrean, familia guztiak Donostiarako bidea hartu zuen, bertan errefuxiatuz. Hala ere, hiria ere mehatxupean geratu zen egun gutxitara, baina bere seme batzuk ihes egin bazuten ere, Rafaelek, emazte eta seme gazteenekin Urnietara itzultzeko erabakia hartu zuen. Ondorioz, itzuli ziren hiru seme atxilotuak eta epaituak izan ziren, tartean aitaren izen bereko 17 urteko semea Donostian fusilatu zutelarik urriaren 20an[371]. Rafael aitaren kasuan, hasiera batean atxilotu ez bazuten ere, urriaren 29an elizatik irteten zela atxiki eta Hernanira eraman zuten preso. Inolako epaiketa gabe, Andoainera eraman zuten gauez eta bertako hilerrian fusilatu zuten. Adunarako bidean botata utzi omen zuten bere gorpua[372].

Nació en Usurbil el 24 de febrero de 1885, pero vivía en Urnieta desde pequeño. De oficio carnicero, sus productos eran conocidos, y vivía en la casa llamada Carnicería junto con su familia[369]. Era un miembro destacado del PNV, fue alcalde de Urnieta entre 1922-1923 y, también, juez de paz del pueblo durante muchos años. Fue un miembro destacado del PNV durante la República, y cuando se dio la sublevación militar, se encargó de evitar que hubiera actos contra los partidarios de los golpistas[370]. En los primeros días de septiembre, ante el avance de las columnas carlistas, toda la familia se refugió en Donostia. De todos modos, la ciudad también quedo amenazada a los pocos días, y aunque algunos de sus hijos lograron huir, Rafael y su esposa, junto con los hijos más jóvenes, decidieron volver a Urnieta. Por consiguiente, tres de los hijos que volvieron fueron detenidos y juzgados, pero el hijo de 17 años (que tenía el mismo nombre que el padre) fue fusilado en Donostia el 20 de octubre[371]. Aunque Rafael padre no fue detenido en primera instancia, el 29 de octubre fue apresado mientras salía de la iglesia, y lo llevaron preso a Hernani. Sin ningún tipo de juicio, lo llevaron a Andoain de noche y lo fusilaron en el cementerio de dicho pueblo. Al parecer, su cuerpo lo dejaron tirado camino a Aduna[372].

Rafael Barcaiztegui Apaicechea bere familiarekin. Rafael semea ere fusilatu egin zuten eta gainontzeko seme-alabek espetxea eta errepresioa ere jasan zuten.
(Nati Garmendiak utzia).

Rafael Barcaiztegui Apaicechea con su familia. Su hijo Rafael también fue fusilado y los demás hijos sufrieron la cárcel y la represión.
(cedido por Nati Garmendia).

[369] UUA, sig. PA00.06 / AMU, sig. PA00. 06.
[370] Lasa, X. (2006) / Lasa, X. (2006).
[371] AIRMN, 489/36 kausa orokorra / AIRMN, causa ordinaria 489/36.
[372] Unanue, J, (2006), *Bi familien tragedia,* Aiurri aldizkaria, 87 zenbakia, 6 orrialdea / Unanue, J (2006), "Bi familien tragedia", revista *Aiurri,* nº 87, pág. 6.

CAMIO AZURMENDI, BERNARDO

Urnietan jaio zen 1886ko azaroaren 27an[373]. Baina Donostiara bizitzera joateko erabakia hartu zuen. ELAko militantea[374], altxamendua eman zenean ez dakigu zein izan zen bere partehartzea, baina Molaren zutabe kolpistek Donostia 1936ko irailaren 14ean hartu zutenean, hirian geratzeko erabakia hartu zuen. Hurrengo egunetan Errepublikaren aurka zeuden donostiarrek salatu egingo zuten izan ere fusilatu egin zuten, inolako epaiketa gabe Donostian, urriaren 2an[375].

Nació en Urnieta el 27 de noviembre de 1886[373]. Pero decidió ir a vivir a Donostia. Militante de ELA/STV[374], no sabemos cuál fue su participación cuando se dio la sublevación militar, pero cuando las columnas golpistas de Mola tomaron Donostia el 14 de septiembre de 1936, decidió quedarse en la ciudad. En los días siguientes, sería denunciado por donostiarras contrarios a la República, ya que fue fusilado, sin ningún tipo de juicio, en Donostia, el 2 de octubre[375].

ECHEZAR GARRO, BERNARDINO

Bernardino Echezar Garro. (Lasarte-Oria 1936-48).

1918ko azaroaren 18an jaio zen Urnietan eta Orian bizi zen bere familiarekin batera, denek Brunet enpresan lan eginez, Bernardino jostun gisa[376]. JS antolakundeko kide izanda, bere anai eta auzoko beste kide batzuekin 1934ko Iraultzan parte hartu zuen, baina honen porrotaren ondorioz espetxeratua eta epaitua izan zen. Hala ere ihes egitea lortu eta anaiekin Frantziako Estatuan babestu ziren, 1936an Fronte Popularrak amnistia eman arte[377]. Oriara itzuli zirenean, anaiak lanera itzuli ziren baina estatu-kolpea ematearekin batera, honen aurkako milizietara batu ziren lehen unetik.

Bernardinoren kasuan, hasiera batean Lasarteko abiazio-zelaian hasi zen lanean, baina abuzturako MAOC Oria batailoiko miliziano izatera pasa zen[378]. Gipuzkoaren defentsan borrokan zela, zauritua izan zen eta Basurtoko ospitalera eraman behar izan zuten[379]. Ondorioz, PC alderdiko militantea izanik, alderdi honetako organigraman lan egiten ibili zen propaganda sailean[380]. Horretaz gain, zaurietatik errekuperatu zenean alderdi komunistatik antolatu zen Rosa Luxemburgo batailoira batu zen, frontera borrokatzera joanez, ofizialorde bezala[381]. Batailoi honetan teniente gradua izatera pasa zen. Bizkaia erori eta gero, Kantanbriara pasa zen, bertan borrokan jarraituz XIV. Armadako Gorputzeko 50 Dibisioan. Honekin, Gerra Zibileko Iparraldeko Frontea erori arte borrokatu zuen, noiz militar kolpistek atxiki eta Santoñako espetxera eraman zuten preso. 1937ko abenduan espetxe honetatik desagerrarazi egin zuten[382]. Seguru aski, bere inplikazio eta lan politiko mardula zela eta, militar kolpistek espetxetik atera eta epaiz kanpo fusilatuko zuten, bere gorpuaren kokapena gaur egun ezezaguna zaigularik. Iturri batzuk zehazten dute Miranda de Ebrora eraman eta bertatik ihes egiten saiatu zenean atxiki eta fusilatu zutela beste lau pertsonekin batera.

Nació en Urnieta el 18 de noviembre de 1918 y vivía en Oria junto con su familia; trabajaban todos en la empresa Brunet, Bernardino como sastre[376]. Como era miembro de la organización JS, participó en la Revolución de 1934 junto con su hermano y otros vecinos, pero tras el fracaso del mismo, fue encarcelado y juzgado; pero consiguieron huir y se refugió en el Estado francés con los hermanos, hasta que en 1936 el Frente Popular emitió la Ley de amnistía[377]. Cuando volvieron a Oria, los hermanos volvieron a trabajar, pero cuando se dio la sublevación militar, se unieron a las milicias organizadas en su contra desde el comienzo.

Bernardino, al principio, empezó a trabajar en el campo de aviación de Lasarte, pero para agosto pasó a ser miliciano del batallón MAOC Oria[378]. Fue herido mientras combatía por la defensa de Gipuzkoa y lo tuvieron que trasladar al hospital de Basurto[379]. Al ser militante del PC, estuvo trabajando en el organigrama de ese partido en la sección de propaganda[380]. Además de eso, cuando se recuperó de las heridas, se unió al batallón Rosa Luxemburgo organizado por el Partido Comunista, y se fue a combatir al frente con el grado de suboficial[381]. En este batallón llegó a tener la graduación de teniente. Tras la caída de Bizkaia,

---

[373] Archivo Histórico Diocesano de San Sebastián DEAH/F06.147//4646/001-01(f.245r,nº45/B,1886-11-27) / Archivo Histórico Diocesano de San Sebastián DEAH/F06.147//4646/001-01(f.245r, nº45/B, 1886-11-27).

[374] EAH, Bidasoa Institutua bilduma, Luis Ruiz de Aguirre "Sancho de Beurko" funtsa / AHE, colección Bidasoa Institutua, fondo Luis Ruiz de Aguirre "Sancho de Beurko".

[375] Egaña, I. (et. al) (2000) / Egaña, I. (et al) (2000).

[376] UUA, sig. PA00.06 / AMU, sig. PA00. 06.

[377] Garai, J. R., Gutiérrez, J., Chueca, J. (2014) / Garai, J.R., Gutiérrez, J. y Chueca, J. (2014).

[378] Egaña, I. (et. al) (2000) / Egaña, I. (et al) (2000).

[379] Ministerio de Cultura y Deporte, Archivo CDMH, sig DNSD-SECRETARIA,FICHERO,16,E0006763 / Ministerio de Cultura y Deporte, Archivo CDMH, sig. DNSD-SECRETARIA, FICHERO 16, E0006763.

[380] Ministerio de Cultura y Deporte, Archivo CDMH, sig. DNSD-SECRETARIA,FICHERO,16,E0006762 / Ministerio de Cultura y Deporte, Archivo CDMH, sig. DNSD-SECRETARIA, FICHERO 16, E0006762.

[381] Ministerio de Cultura y Deporte, Archivo CDMH, sig DNSD-SECRETARIA,FICHERO,16,E0006780 / Ministerio de Cultura y Deporte, Archivo CDMH, sig. DNSD-SECRETARIA, FICHERO16, E0006780.

[382] Gogora memoria institutuko datu-basea / Base de datos de Gogora.

pasó a Cantabria, y siguió combatiendo en la 50ª División del XIVº Cuerpo del Ejército. Combatió en él hasta la caída del Frente Norte de la Guerra Civil, cuando fue apresado por los militares golpistas y lo llevaron preso a la cárcel de Santoña (Cantabria). En diciembre de 1937, lo hicieron desaparecer de esa prisión[382]. Seguramente, por su implicación y a su gran trabajo político, los militares golpistas lo sacarían de la cárcel y lo fusilarían extrajudicialmente; hoy en día, nos sigue siendo desconocido el paradero de su cuerpo. Algunas fuentes especifican que lo llevaron a Miranda de Ebro, y al intentar huir de allí, lo apresaron y lo fusilaron junto a otras cuatro personas.

ELUSTONDO ODRIOZOLA, JUAN JOSE

Juan Jose Egurrola baserrian jaio zen, Lategi auzoan, 1914ko maiatzaren 23an[383]. 1935ean soldadutza egitea tokatu zitzaion eta berau Loiolako Kuartelean (Donostia) egiten ari zela estatu-kolpe saiakera suertatu zen. Beraien kargu zegoen militarrak erabakitzeko eskumena eman zien eta Juan Jose bere etxera itzuli zen. Herrian miliziano taldeak eratzen joan zirenean, Juan Josek hainbat zaintza egin zituen herriko Oblatoen komentuaren aurrean, baina ez zen ezer gehiagotan nabarmendu. Horregatik, karlisten zutabe paramilitarrek Urnieta eraso zutenean Egurrolan geratzea erabaki zuen. Hala ere, soldadutza urteetan aurkitzen zenez, badaezpada Andoaingo Guardia Zibilaren kuartelera joan zen bere egoera argitzera. Orduan, kolpistek momentuan bertan atxiki eta fusilatzeko agindua eman zuten. Hainbat andoaindar, bertako parrokoa barne Juan Joseren defentsan irten baziren ere, irailaren 13ko arratsaldean Andoaingo hilerrian fusilatu zuten, 23 urte zituela[384].

Nació en el caserío Egurrola del barrio Lategi, el 23 de mayo de 1914[383]. En 1935 le tocó hacer el servicio militar, y el intento de golpe de Estado de 1936 ocurrió cuando lo estaba realizando en el cuartel de Loiola de Donostia. El militar que estaba a su mando les dio la opción a elegir, y Juan José decidió volver a casa. Cuando en el pueblo se fueron organizando grupos de milicianos, Juan José realizó varias guardias ante el convento de los Oblatos, pero no destacó en nada más. Por ello, cuando las columnas paramilitares carlistas atacaron Urnieta, decidió quedarse en Egurrola. De todos modos, como se encontraba en los años de servicio militar, por si acaso fue al cuartel de la Guardia Civil de Andoain, para aclarar su situación. Entonces, los golpistas dieron la orden de detenerlo y fusilarlo en el momento. Aunque algunos andoaindarras, incluido el párroco local, salieron en defensa de Juan José, lo fusilaron en el cementerio de Andoain el 13 de septiembre por la tarde, a la edad de 23 años[384].

Juan Jose Elustondo Odriozola, 1926ko familia-argazki batean. (Erretratu Zaharrak). / **Juan José Elustondo Odriozola, en una fotografía familiar de 1926.** (Erretratu Zaharrak)

[383] UUA, sig. PA00.06 / AMU, sig. PA00. 06.
[384] Unanue, J, (2006), *Eulako mutila*, Aiurri aldizkaria, 82 zenbakia, 6 orrialdea / Unanue, J (2006), "Eulako mutila", revista Aiurri, nº 82, pág. 6.

GARMENDIA ICUZA, JUAN BAUTISTA

1911ko azaroaren 2an jaio zen, Azkonobieta baserrian eta bertan bizi zen, familia guztiarekin batera[385]. Familia ez bezala, Engracia arrebarekin batera ideia ezkertiarrak zituen eta zapi gorri bat erabiltzen zuen lepoan. Gerrak eztanda egitean, ez zuen parte hartzerik izan, baserrian lan egitera mugatuz. Urnieta erortzear zela, Hernaniko Santa Barbaratik tiroka zebiltzan Urnieta aldera eta herrirako bidea seguru izateko zapi gorri batekin eginiko bandera batekin egin zuen bidea. Ideia ezkertiarrak izanda, errepresioaren beldur Donostiarainoko bidea egin zuen hasiera batean, baina azkenean hiri hau ere eroriko zela ikusita, bertan geratzea erabaki zuen, seguru zela pentsatuz. Etxera itzultzean, Bartolome Ugalde alkate berriaren jakinarazpen bat zuen eta udaletxera aurkeztu behar izan zuen. Iritsi bezain pronto atxiki egin zuten, bandera gorri batekin ibiltzearen salaketa baitzuen. Inolako epaiketa edota prozesurik gabe fusilatu egin zuten Juan Bautista, 1936ko urrian eta bere gorpua Adunako bidean utzi zuten botata beste batzuekin batera[386].

Nació en el caserío Azkonobieta el 2 de noviembre de 1911 y vivía allí junto con toda su familia[385]. Al contrario que la mayoría de la familia, era de ideales izquierdistas como su hermana Engracia, y solía llevar un pañuelo rojo al cuello. Cuando estalló la guerra, no participó en nada, se limitó a trabajar en el caserío. Cuando Urnieta estaba al caer, estaban disparando desde Santa Bárbara (Hernani) hacia Urnieta y para hacer el camino al pueblo con más seguridad, hizo el camino con una bandera hecha con un trapo rojo. Al ser de ideas izquierdistas, al principio se fue a Donostia por miedo a la represión, pero finalmente, viendo que esta ciudad también iba a caer, decidió quedarse, pensando que sería seguro. Cuando volvió a casa, tenía una notificación del nuevo alcalde Bartolomé Ugalde y tuvo que presentarse en el ayuntamiento. Lo detuvieron nada más llegar, pues tenía una denuncia por andar con una bandera roja. Juan Bautista fue fusilado sin llevar a cabo ningún juicio ni proceso, en octubre de 1936, y su cuerpo fue tirado camino a Aduna junto con algunos otros[386].

GARRO EIZMENDI, JOAQUIN

Orian jaio zen 1915eko abenduaren 21ean eta bertan bizi zen[387]. Bere herrikide ugari bezala, 1934ko Iraultzako greban parte hartu zuen eta horregatik espetxeratua eta epaitua izan zen, nahiz eta 1936an amnistia jaso zuen Fronte Popularraren eskutik[388]. JS eta PC antolakundeetako kidea, altxamendua eman eta berehala Orian antolatu ziren milizietan eman zuen izena, hasiera batean Lasarteko abiazio-zelaian lan eginez eta beranduago, abuztuan, MAOC batailoietan engaiatu eta frontera borrokara joanez. Molaren tropek Gipuzkoaren aurkako erasoaldia burutzean, atzerakadan Bizkaiara mugitu zen Joaquin eta bertan MAOCeko hainbat milizianorekin batera Rosa Luxemburgo batailoi komunistara batu zen. Horrela, batailoi honetan borrokatu zuen Bizkaiko puntu ezberdinetan, sarjentu izatera iritsiz, baina kolpistek frontea 1937ko udaberrian hautsi zutenean atzerakadan ibili ziren Kantabriara iritsi arte. Bertan, altxatuen tropek atxiki eta Talledo herrira eraman zuten, non fusilatu egin zuten bertako hilerriko hormaren aurka[389].

Nació el 21 de diciembre de 1915 en Oria y vivía allí mismo[387]. Como muchos de sus vecinos, participó en la huelga de la Revolución de 1934 y, por ello, fue encarcelado y juzgado, aunque recibió la amnistía del Frente Popular en 1936[388]. Miembro de las organizaciones JS y PC, al poco de darse la sublevación militar se alistó en las milicias que se organizaron en Oria. Empezó trabajando en el campo de aviación de Lasarte, pero en agosto, se alistó en el batallón MAOC y se fue a combatir al frente. Cuando las tropas de Mola realizaron la ofensiva contra Gipuzkoa, se movió en retirada a Bizkaia y allí, junto con varios milicianos de MAOC, se unió al batallón comunista Rosa Luxemburgo. De ese modo, combatió en varios puntos de Bizkaia con ese batallón, llegando a ser sargento, pero cuando los golpistas rompieron el frente en la primavera de 1937, se fueron en retirada hasta llegar a Cantabria. Allí, fue apresado por las tropas sublevadas y lo llevaron a Talledo (Castro Urdiales, Cantabria), donde fue fusilado contra la pared del cementerio local[389].

Joaquin Garro Eizmendi. (Lasarte-Oria 1936-48).

[385] UUA, sig. PA00.06 / AMU, sig. PA00. 06.
[386] Unanue, J, (2007), *Bandera gorria,* Aiurri aldizkaria, 94 zenbakia, 14 orrialdea / Unanue, J (2007) "Bandera gorria", revista *Aiurri*, nº 94, pág. 14.
[387] UUA, sig. PA00.06 / AMU, sig. PA00. 06.
[388] Garai, J. R., Gutiérrez, J., Chueca, J. (2014) / Garai, J.R., Gutiérrez, J. y Chueca, J. (2014).
[389] Egaña, I. (et. al) (2000) / Egaña, I. (et. al) (2000).

orr.

GONZALEZ REDONDO, ISMAEL[390]

Urnietan jaioa, Donostian bizi zen Añorgako Narcisa-enea etxean, 44 urte zituen (1937an) eta tabernaria zen ofizioz. Igeldotik Oriora bidean baina Usurbileko sailak diren Mendizorrotz mendian aurkitu zuten, zementuzko hesi baten aurka, sasi artean zutik, 1937ko ekainaren 11n. Gorpua deskonposatzen hasia zegoen eta bala zuloak zituen arropetan eta buruhezurrean. Gorpuaren egoeragatik, forentse batek ikerketa bat burutu zuen eta 1937ko maiatzean hil zela ebatzi zuten[391]. Autoritate frankistek ikerketa bat burutu zuten baina ez zuten egilea identifikatu ez eta nola izan zen ondorioztatu, soilik aurretiazko ikerketa bat egin baitzuten bakarrik[392]. Kontuan izanik 1937ko maiatzean hil zela, horma baten aurka eta bala zauriekin, ondorioztatu genezake Ismael Mendizorrotzeko inguruetara eraman zutela eta bertan exekutatu zutela epaiz kanpo.

Nacido en Urnieta, vivía en la casa Narcisa-enea de Añorga (Donostia), tenía 44 años (en 1937) y era tabernero. Fue encontrado en el monte Mendizorrotz (entre Igeldo y Orio, pero en terrenos de Usurbil), contra una valla de cemento, de pie entre las zarzas, el 11 de junio de 1937. El cuerpo estaba empezando a descomponerse, y tenía agujeros de bala en la ropa y en el cráneo. Por el estado del cuerpo, un forense realizó una investigación y determinaron que murió en mayo de 1937[391]. Las autoridades franquistas realizaron una investigación, pero no identificaron al autor y tampoco determinaron como fue, ya que solo hicieron una investigación previa[392]. Teniendo en cuenta que murió en mayo de 1937, contra una pared y con heridas de bala, podemos deducir que Ismael fue llevado a los alrededores de Mendizorrotz y que fue ejecutado extrajudicialmente.

IRIARTE GOICOECHEA, FRUCTUOSO

1896ko urtarrilaren 21ean jaio zen Ziordian, baina 1930tik Lasarten bizi zen, bidezain gisa lan eginez[393]. 1940ko otsailaren 11n Donostiara bizitzera joana zen eta hiri honetan bertan fusilatu zuten, inolako epaiketa gabe[394].

Nació en Ziordia el 21 de enero de 1896, pero desde 1930 vivía en Lasarte, trabajando como caminero[393]. El 11 de febrero de 1940, ya vivía en Donostia, y lo sabemos porque ese día fue fusilado en esa misma ciudad, sin ningún tipo de juicio[394].

LASARTE BARCAIZTEGUI, ROQUE

1903ko abuztuaren 16an jaio zen, Urnietan bertan eta Matxoenea etxean bizi zen[395]. Bere aita herriko EAJko buruetako bat izan zen eta Roque eta Jose Angel haren anaia Urnietako milizietara batu ziren lehen unetik, biak kargu garrantzitsuak izan zituztelarik. Roque herriko EAJko milizien buruzagi izan zen eta kapitain funtzioak betetzen zituen[396]. Familia guztiak bezala, karlisten zutabe paramilitarren erasoaldia gelditu ezinean, Donostiara mugitu zen eta borrokan jarraitu zuen Gipuzkoaren defentsako hainbat puntutan. Hiriburua erori eta gero, Hernioko gainetan borrokan zela zauritu egin zuten eta tropa kolpisten esku geratu zen[397]. Hauek Donostiara eraman zuten preso eta inolako epaiketarik gabe fusilatu zuten hiri honetan 1936ko irailaren 18an[398].

Nació en Urnieta el 16 de agosto de 1903 y vivía en la casa Matxoenea[395]. Su padre era uno de los dirigentes del PNV local. Roque y su hermano José Ángel se unieron a las milicias de Urnieta desde el inicio, llegando a tener cargos importantes los dos. Roque fue jefe de las milicias del PNV local y tenía el grado de capitán[396]. Como todas las familias, ante la ofensiva imparable de las columnas paramilitares carlistas, se movió a Donostia y, allí, siguió combatiendo en varios puntos por la defensa de Gipuzkoa. Tras la caída de la capital, fue herido mientras combatía en los alrededores del monte Hernio y cayó en manos de las tropas golpistas[397]. Estos lo llevaron preso a Donostia, y allí fue fusilado sin ningún tipo de juicio, el 18 de septiembre de 1936[398].

OLAIZOLA EMPARANZA, NICOLAS

1912ko otsailaren 2an jaio zen Nicolas eta tren geltokiaren ondoko Altun etxean bizi zen familiarekin, kamioi gidari bezala lan eginez bere anai Trinorekin, enkarguak eta lanak egiten[399]. Beraien aita errepublikazalea zen eta semeek ideia aurrerakoiak eta abertzaleak zituzten. Bere anaia kolpistek atxiki zuten irailaren 13an eta Nicolas hurrengo egunean ere Oriako auzoan, neskalagunaren etxetik itzultzean. Herriko kolpisten aldekoek salatu zituzten, gidari bezala defentsa komitearentzat konfiskazioetan lan egitea egotzita. Nicolasen kasuan, batzuentzat Hernanitik fusilatzera eraman zuten eta hiltzat eman ostean ihes

[390] Heriotzaren kausa zalantzazkoa da, frontean hil zitekeen edota fusialtua izan kolpisten aldetik. Fusilatzearen aldeko hautua egin da horma baten aurka eta itsasora begira aurkitu zelako eta 43 urte zituelako, hots, miliziano eta gudari gehiengoena baino nagusiagoa zen / La causa de la muerte es dudosa, pudo haber muerto en el frente o fusilado por los golpistas. Hemos optado por el fusilamiento porque se le encontró contra una pared y mirando al mar, y porque tenía 43 años, esto es, era mayor que la mayoría de los milicianos y gudaris.

[391] Donostiako erregistro zibila, 3 atala, 107 liburua, 330 orrialdea / Registro civil de Donostia, sección 3ª, libro 107, página 330.

[392] AIRMN, 933/37 aurretiazko eginbideak / AIRMN, diligencias previas 933/37.

[393] UUA, sig. PA00.06 / AMU, sig. PA00. 06.

[394] Donostiako erregistro zibila / Registro civil de Donostia.

[395] UUA, sig. PA00.06 / AMU, sig. PA00. 06.

[396] AIRMN, 489/36 kausa orokorra / AIRMN, causa ordinaria 489/36.

[397] Unanue, J, (2007), *Familiako Harmonia,* Aiurri aldizkaria, 100 zenbakia, 10 orrialdea / Unanue, J (2007), "Familiako Harmonia", revista *Aiurri*, nº 100, pág. 10.

[398] Egaña, I. (et. al) (2000) / Egaña, I. (et. al) (2000).

[399] UUA, sig. PA00.06 / AMU, sig. PA00. 06.

egitea lortu zuen. Beste batzuek diote Orian bertan atxilo zela lortu zuela ihes egitea. Gauza da hurrengo goizean Urnietara zioan autobusari laguntza eskatu ziola eta Valentin Aldanondo gidariak herrira ekarri zuela. Hala ere, kolpisten lagunek Nicolas ikusi eta berriro salatu zuten, guardia zibilak beste behin atxiki eta eramanez. Ez zen ezer gehiago jakin bere inguruan. Trino anaiak ere patu berbera jasan zuen[400].

Nació el 2 de febrero de 1912, y vivía con la familia en la casa Altun, contigua a la estación del tren de Urnieta. Trabajaba como conductor con su hermano Trino, realizando encargos y trabajos[399]. Su padre era republicano y los hijos tenían ideales progresistas y abertzales. Su hermano fue apresado por los golpistas el 13 de septiembre, y Nicolás al día siguiente en el barrio Oria, cuando volvía de la casa de la novia. Fueron denunciados por partidarios locales de los golpistas, acusándoles de trabajar como conductores en las confiscaciones para el Comité de Defensa. En el caso de Nicolás, algunos dicen que fue llevado a fusilar desde Hernani y que, tras darlo por muerto, consiguió huir. Otros dicen que logró huir mientras estaba detenido en Oria. La cuestión es que a la mañana siguiente le pidió ayuda al autobús que iba a Urnieta y el conductor Valentín Aldanondo lo trajo al pueblo. De todos modos, los partidarios de los golpistas lo vieron y lo denunciaron de nuevo; la Guardia Civil lo detuvo y se lo llevó de nuevo. No se supo nada más sobre él. El hermano Trino sufrió el mismo destino[400].

Trino eta Nicolas Olaizola anaiak, Jose Joaquin Iriondorekin lanean. (Kamioian Euskal Estatutuaren aldeko afixa dago itsatsita). / **Los hermanos Trino y Nicolás Olaizola, trabajando con José Joaquín Iriondo.** (En el camión hay pegado un cartel a favor del Estatuto Vasco).

OLAIZOLA EMPARANZA, TRINO

1915eko maiatzak 31n jaio zen, Altun izeneko etxean, tren geltokiaren ondoan. Bere ofizioa gidari izatea zen, bere anai Nicolas bezala[401]. Aitaren aldetik ideia aurrerakoiak jaso zituen baina berak abertzaletasunera ere jo zuen, bi iturrietatik edanez. 1936ko udan, Gerra Zibilak eztanda egin eta gero, kolpisten tropen aurrerakadak ikusita, irailean herritik ihes egitea erabaki zuen, baina karlisten zutabeen aurrerakada azkarrak Bidanian harrapatu eta bertan hauen preso erori zen Jose Ramon Echeverria eta Julian Olazaguirre urnietarrekin batera. Kolpistek Hernanira eraman zituzten preso, baina egun gutxitara aske geratzea lortu zuten. Orduan, Julian eta Trinok Urnietara itzultzeko erabakia hartu zuten, baina itzuleran erregimen frankistaren aldeko he-

[400] Unanue, J, (2007), *Trino, Niko, Txuri,* Aiurri aldizkaria, 100 zenbakia, 10 orrialdea / Unanue, J (2007), "Trino, Niko, Txuri", revista *Aiurri*, nº 100, pág. 10.
[401] UUA, sig. PA00.06 / AMU, sig. PA00. 06.

orr.

rritar batek salaketa bat ezarri zuen bien aurka, herriko defentsa komitearentzat konfiskazioetan parte hartzea egotziz. Ondorioz, berriro atxilotu zituzten eta herritik eraman zituzten eta ez zen ezer gehiago jakin bi herrikide hauen gainean. Nicolas anaia ere atxilotu eta desagerrarazi egin zuten frankistek[402].

Nació el 31 de mayo de 1915, en la casa Altun, contigua a la estación de tren. De oficio era conductor, como su hermano Nicolás[401]. Recibió ideas progresistas de su padre, pero él también bebió de la fuente del nacionalismo vasco. El verano de 1936, tras estallar la Guerra Civil, en septiembre decidió escapar del pueblo, viendo el avance de las tropas golpistas; pero el rápido avance de las columnas carlistas lo atraparon en Bidania, cayendo preso junto con los urnietarras José Ramón Echeverría y Julián Olazaguirre. Los golpistas los llevaron preso a Hernani, pero a los pocos días lograron quedarse en libertad. Entonces, Julián y Trino decidieron volver al pueblo, pero al volver, un vecino partidario del régimen franquista interpuso una denuncia en contra de los dos, acusándolos de haber participado en las confiscaciones para el Comité de Defensa. En consecuencia, fueron detenidos de nuevo y los llevaron del pueblo, y no se supo nada más sobre estos dos urnietarras. El hermano Nicolás de Trino también fue detenido y hecho desaparecer por los franquistas[402].

OLAZAGUIRRE CORTAJARENA, JULIAN "TXURI"

Amitesarobe baserrian jaioa, Ergoien auzoan, etxeko lurrak lantzetik bizi zen Julian. 24 urte zituen gaztea zen Julian eta baserritar asko bezala, izaera tradizionala zuen eta EAJ alderdira afiliatua zegoen[403]. Gerrak eztanda egin zuenean, Julianek hainbat herritar bezala, herria utzi eta aurrera joatea erabaki zuen, Bizkaia alderako bidea eginez. Hala ere, Trino Olaizola eta Jose Ramon Echeverriarekin batera atxilotu zuten kolpistek irailaren 13a bueltan Bidanian eta Hernaniko espetxera eraman zuten. Hala ere, espetxean ez zen luze egon eta hirurak laister aske utzi zituzten. Julianek, Trinorekin batera Urnietara itzultzeko erabakia hartu zuen. Bertara iritsi eta gutxira baina, berriro atxilotu zituzten, herritar batek defentsa komitearen alde konfiskazioak burutu zituztela salatu eta gero. Kolpistek, biak herritik eraman eta desagerrarazi egin zituzten, ez baita ezer gehiago jakin bi urnietar hauen inguruan[404].

Nació en el caserío Amitesarobe del barrio Ergoien y vivía de cultivar los terrenos de la casa. Tenía 24 años, y como muchos baserritarras, era tradicionalista y estaba afiliado al PNV[403]. Cuando estalló la guerra, como muchos del pueblo, decidió abandonar el pueblo e ir hacia Bizkaia. De todos modos, fue detenido por los golpistas en torno al 13 de septiembre, en Bidania, junto con Trino Olaizola y José Ramón Echeverría, y fue llevado a la cárcel de Hernani. Pero no estuvo mucho tiempo en prisión, porque pronto fueron puestos en libertad los tres. Julián, junto con Trino, decidió volver a Urnieta. Pero al poco de llegar fueron detenidos de nuevo, porque un vecino los denunció acusándolos de llevar a cabo confiscaciones a favor del Comité de Defensa. Los golpistas llevaron a los dos del pueblo y los hicieron desaparecer, ya que no se ha sabido nada más sobre estos dos urnietarras[404].

ROMO LACALLE, SABINO

1894ko ekainaren 8an jaio zen Orian, auzo honetako Brunet industrian lan egin eta bizi zelarik, familiarekin batera[405]. 1936ko irailean, gerra hasi eta gutxira karlistek herria armekin hartzean, bertan geratzea erabaki zuen, nahiz eta sozialista izan. Hori dela eta, kolpistek lehen egunetan atxiki eta Hernanira eraman zuten, eta egun gutxitara fusilatu egin zuten[406].

Nació en Oria el 8 de junio de 1894, trabajaba en la industria Brunet del barrio y vivía en sus casas, junto con la familia[405]. En septiembre de 1936, al poco de empezar la guerra, cuando los carlistas tomaron el pueblo por las armas, decidió quedarse aquí, aunque era socialista. Debido a ello, fue apresado por los golpistas en los primeros días y lo llevaron a Hernani; fue fusilado a los pocos días[406].

[402] Unanue, J, (2007), *Trino, Niko, Txuri,* Aiurri aldizkaria, 100 zenbakia, 10 orrialdea / Unanue, J (2007), "Trino, Niko, Txuri", revista *Aiurri*, nº 100, pág. 10.
[403] EAH, Bidasoa Institutua bilduma, Luis Ruiz de Aguirre "Sancho de Beurko" funtsa / AHE, colección Bidasoa Institutua, fondo Luis Ruiz de Aguirre "Sancho de Beurko".
[404] Unanue, J, (2007), *Trino, Niko, Txuri,* Aiurri aldizkaria, 100 zenbakia, 10 orrialdea / Unanue, J (2007), "Trino, Niko, Txuri", revista *Aiurri*, nº 100, pág. 10.
[405] UUA, sig. PA00.06 / AMU, sig. PA00. 06.
[406] Gogora memoria institutuko datu-basea / Base de datos de Gogora.

Epaiz kanpo exekutatuak Urnietako Lasarte edo Oria auzoetan, edota Urnietarekin erlazioa dutenak

Hainbat urnietar Donostian edota kolpistek atxiki zituzten herrietan fusilatu zituzten bezala, bertakoak ez ziren hainbat pertsona Urnietako Lasarte edo Oria auzoetan fusilatu zituzten. Hauen kasuan, donostiarrak ziren edota hiri honetan bizi ziren. Beste kasu batzuetan, beraien jaioterrietan fusilatu zituzten baina urteetara seme edota familiakoren bat Urnietara bizitzera etorri zen. Hauek ere, Gerra Zibilak Urnietan utzitako biktima gisa ulertzen ditugu eta garrantzitsua ikusten dugu pertsona hauei dagokien aitormena egitea.

Fusilados extrajudicialmente en los barrios de Lasarte u Oria de Urnieta, o que tengan relación con Urnieta

Tal como varios urnietarras fueron fusilados por los golpistas en Donostia, o en los pueblos en los que fueron apresados, varias personas de fuera fueron fusiladas en los barrios Lasarte y Oria de Urnieta. En ese caso, fueron donostiarras o vivían en esa ciudad. En otros casos, fueron fusilados en su pueblo natal, pero al cabo de unos años algún hijo o familiar vino a vivir a Urnieta. A estos también los entendemos como víctimas dejadas por la Guerra Civil en Urnieta, y nos parece importante hacer el correspondiente reconocimiento a estas personas.

ARBELOA FERNANDEZ, ISIDRO LINO[407]

Mañeru (Nafarroa)[408] herrian jaioa, Bizkaian bizi zen, 54 urte zituela Lasarten fusilatu zuten 1936ko azaroaren 6an[409]. Suposa genezakegu Donostian atxiki zutela edo bertan egon zela preso, fusilatze datagatik eta baita ere hiri honetako erregistro zibilean inskribatu zutelako.

Nació en Mañeru[408], vivía en Bizkaia, y fue fusilado el 6 de noviembre de 1936 en Lasarte, a la edad de 54 años[409]. Suponemos que fue apresado en Donostia o que estuvo preso allí, por la fecha del fusilamiento y porque fue inscrito en el registro civil de esa ciudad.

IRAZU ECEIZA, MIGUEL MARTIN

Asteasuarra, Ureta baserrian bizi zen, Emilia Amundarain Sorarrainekin ezkondua. Nekazaria ofizioz, bederatzi seme-alaba zituzten. Gerrak eztanda egitean, 44 urte zituen eta herrian geratzeko erabakia hartu zuen tropa frankistak bertara sartu zirenean. Garesti ordaindu zuen erabakia, urriaren 24ean, inolako epaiketa edota prozesu gabe fusilatu baitzuten kolpistek. Familiak bere heriotza ezin izan zuen 1939a arte inskribatu. Bere alabetako bat, Rufina Urnietara bizitzera etorri zen denborara eta 1980an aitaren heriotzagatik laguntzak eskatu zituen[410].

Asteasuarra, vivía en el caserío Ureta de ese pueblo, junto con su esposa Emilia Amundarain Sorarrain. Tenían 9 hijos y de oficio era agricultor. Cuando estalló la guerra tenía 44 años y decidió quedarse en el pueblo cuando entraron las tropas franquistas. Pagó muy cara la decisión, ya que fue fusilado por los golpistas el 24 de octubre, sin ningún tipo de juicio ni proceso. La familia no pudo inscribir su muerte hasta 1939. Años más tarde, una de sus hijas, Rufina, vino a vivir a Urnieta y en 1980 pidió ayudas por la muerte de su padre[410].

MAIZA MIRANDA, ANTONIO

Etxarri-Aranatzen bizi zen Antonio, Luisa Argiñenarekin ezkondua. 1936ko uztailean estatu-kolpe saiakera eta gero, Nafarroa osoa kolpisten esku geratu zen. Ez zen gerra fronterik egon baina hala eta guztiz ere, hauek errepresioa luze eta zabal hedatu zuten bertako herrietan. Antonio, herriko UGTko batzordeko lehendakaria zen eta beste lau kiderekin batera atxilotu zuten. Kolpistek, hiru bat egunez Etxarri bertako espetxean izan zituzten preso, baina laugarrenean Urbasara eraman zituzten eta bertan epai gabe fusilatu zituzten. Familiak ez zuen 2013a arte jakin non erail eta lurperatu zituzten, izan ere urte horretan gorpuak aurkitu eta identifikatzea lortu ziren[411].

Vivía en Etxarri-Aranatz junto con su esposa Luisa Argiñena. En julio de 1936, tras el intento del golpe de Estado, toda Nafarroa quedó en manos de los golpistas. No hubo frentes de guerra, pero aun y todo, estos propagaron la represión a lo largo y ancho de los pueblos del territorio. Antonio era presidente de la comisión de UGT local, y fue detenido junto con otros cuatro miembros. Los golpistas los tuvieron preso en Etxarri durante unos tres días, pero al cuarto los llevaron a Urbasa y allí los fusilaron extrajudicialmente. La familia no supo hasta el 2013 donde fue asesinado y enterrado, cuando encontraron los cuerpos y lograron identificarlos[411].

[407] Ezin izan da argitu Urnieta edo Hernaniko Lasarten fusilatu zuten / No se ha podido esclarecer si fue fusilado en Lasarte en la parte de Urnieta o en la de Hernani.

[408] Posible da ere aurkakoa, Bizkaian jaio izana eta Mañerun bizitzea / También es posible lo contrario, que hubiera nacido en Bizkaia y viviera en Mañeru.

[409] Gogora memoria institutuko datu-basea / Base de datos de Gogora.

[410] UUA, sig. 1327.01 / AMU, sig. 1327. 01.

[411] Islada Ezkutatuak (2020) / Islada Ezkutatuak (2020).

orr.

MATEO PERALTA, ANGEL

Corellan jaio eta bizi zen Angel. Altxamendua eman zenean 39 urte zituen eta Nafarroa lehen unetik kolpisten esku geratu zen. Hauek, abuztu hasieran atxiki eta 8an fusilatu egin zuten Fiteron. Bere emazte zen Benita Mendez Morenok ezin izan zuen senarraren heriotza erregistro zibilean inskribatu 1947ko abuztuaren 28a arte, 11 urtera. Ez zen berriro ezkondu eta urteetara Urnietara bizitzera etorri zen Benita[412].

Nació y vivía en Corella. Cuando se dio la sublevación militar, tenía 39 años, y Nafarroa quedó en manos de los golpistas desde el primer momento. Estos lo apresaron a comienzos de agosto y lo fusilaron en Fitero, el día ocho de ese mes. Su esposa, Benita Méndez Moreno, no pudo inscribir la muerte de su marido en el registro civil hasta después de 11 años, el 28 de agosto de 1947. Benita no se volvió a casar y, tras unos años, vino a vivir a Urnieta[412].

Nazioarteko brigadista bat frontean borrokan. (BNE). **/ Un brigadista internacional combatiendo en el frente.** (BNE).

NAZIOARTEKO BRIGADISTA BAT

Urnieta eta inguruetan hainbat brigadistak borrokatu zuten gerraren lehen egunetan. Brigadista bat, frantziarra edo belgiarra zena, garaia eta ilehoria, Urnietako frontean borrokan zen, Andoaingo mugan. Atxular-Pamendi-Pardaki parajeetan borrokan zela, uneren batean galdu egin zen, bertakoa ez zenez ez baitzituen inguruak ezagutzen eta Andoain aldera jo zuen, Maxartegi baserrian ezkutatzea lortu zuelarik. Hala ere, Leizotz auzoko herritar batek ikusi eta militar kolpistei jakinarazi zien pertsona honen kokapena. Hauek brigadista atxiki eta auzo honetako Asu baserrira eraman zuten. Bertan, lotuta eta horma baten aurka ipini zuten eta ukuiluko lehio txiki batetik konfesatu eta gero, iluntzean gurdibide batetik eraman eta 100 bat metrora zulo bat egitera behartu eta tiro bat buruan emanez fusilatu zuten, berak eginiko zuloan lurperatuz. Baserriko familiak toki hori zaindu zuen urte luzez, 2003an bere gorpua berreskuratu zen arte[413].

Durante los primeros días de la guerra, varios brigadistas combatieron en Urnieta y alrededores. Un brigadista, francés o belga, alto y rubio, estaba combatiendo en el frente de Urnieta, en el límite con Andoain. Estando combatiendo en los parajes de Atxular-Pamendi-Pardaki, en algún momento se perdió, y como no conocía los alrededores, se fue hacia Andoain, y consiguió

[412] UUA, sig. 1327.01 / AMU, sig. 1327. 01.
[413] Lasa, X. (2006) / Lasa, X. (2006).

esconderse en el caserío Maxartegi. De todos modos, lo vio un vecino del barrio Leizotz e hizo saber a los militares golpistas su paradero. Estos apresaron al brigadista y lo llevaron al caserío Asu de ese barrio. Allí, lo pusieron atado y contra una pared, y tras confesarse por una pequeña ventana de la cuadra, por la noche lo llevaron por un camino carretero y a los 100 metros le hicieron cavar un agujero, lo fusilaron dándole un tiro en la cabeza y lo enterraron en el agujero hecho por él mismo. La familia del caserío cuidó ese sitio durante largos años, hasta que en el 2003 se recuperó el cuerpo[413].

ORTIZ VARONA, QUIRICO

La Molina de Ubiernan jaioa Donostiara bizitzera etorria zen. Gerrak eztanda egitean, 29 urte zituen eta ezkondua zegoen. Lasarte edo Orian fusilatu zuten 1937ko urriaren 28an[414]. Kontuan izanik bere heriotzaren inskripzioa 1944ko apirilaren 28an egin zela Donostiako erregistro zibilean, kolpistek epaiz kanpo exekutatutako pertsona bat dela uste dugu.

Nació en La Molina de Ubierna (Burgos) y había venido a vivir a Donostia. Cuando estalló la guerra, tenía 29 años y estaba casado. Fue fusilado en Lasarte u Oria, el 28 de octubre de 1937[414]. Teniendo en cuenta que su muerte fue inscrita el 28 de abril de 1944 en el registro civil de Donostia, pensamos que es una persona que la ejecutaron los golpistas extrajudicialmente.

PEON MONTANER, TEODORO[415]

Teodoro Donostiarra zen eta bertan bizi zen bere emazte Maria Luz Blasco eta sei seme-alabekin. 1936ko irailean kolpistak hiriburua armez hartzean, bertan geratzeko hautua egin zuen eta hauek atxiki eta fusilatu egin zuten, 1936ko urriaren 15ean, Lasarteko errepidean agertu zelarik bere gorpua. Familiak ezin izan zuen bere heriotza inskribatu 1944 urtera arte[416].

Teodoro era donostiarra y vivía allí junto con su esposa María Luz Blasco y sus seis hijos. Cuando en septiembre de 1936 los golpistas tomaron la capital por las armas, decidió quedarse allí, y fue apresado y fusilado por ellos, el 15 de octubre de 1936, apareciendo su cuerpo en la carretera de Lasarte. La familia no pudo inscribir su muerte hasta el año 1944[416].

ZAPIRAIN GURUCEAGA, IGNACIO

Donostiarra, 35 urte zituela Lasarte edo Orian fusilatu zuten 1939ko urriaren 7an[417].

Donostiarra, fue fusilado en Lasarte u Oria, el 7 de octubre de 1939, a la edad de 35 años[417].

Ez iren gutxi kolpistek desagerrarazi zituztenak, askotan soilik hormetan utzitako bala zuloak izaten zirelarik aztarna bakarrak. (Euskal Memoria). **/ No fueron pocos los desaparecidos por los golpistas, y muchas veces los únicos restos conservados eran los agujeros de bala de las paredes.** (Euskal Memoria).

[414] Gogora memoria institutuko datu-basea / Base de datos de Gogora.
[415] Ez dago argi Urnieta edo Hernanin hil zen / No está claro si murió en Urnieta o Hernani.
[416] Donostiako erregistro zibila, 3 atala, 124 liburua, 36 orrialdea / Registro civil de Donostia, sección 3ª, libro 124, página 36.
[417] Gogora memoria institutuko datu-basea / Base de datos de Gogora.

4.4. LANGILE PUBLIKOEN KALERATZEA, GARBIKETA-PROZESUA

Langile publikoen kaleratzea, garbiketa-prozesua bezala ere ezagutua, udalbatza frankistek aurrera eramaten zuten lehen lanetako bat izaten zen. Honekin, erregimenak Errepublika eta gerra garaian langile publikoek izan zuten jarrera zigortzea bilatzen zuten, ideologia frankista eta "Espainia berriarekin" bat etor ez zitezkeen pertsona oro kaleratuz. Errepresio honek gainera, bigarren zati bat zuen, non hutsik geratu ziren postu horiek erregimenaren aliatu edota parte ziren pertsonek okupatzen zituzten.

Horretarako, estatu-kolpe saiakera eta gero, kolpisten kontrol-eremuetako organo administratibo gorena zen Defentsa Batzorde Nazionalak hainbat dekretu igorri zituen, garbiketa prozesu honi oinarri "legal" bat emateko helburuarekin. Horrela, 1936ko irailaren 12an, langile publikoen egoera normalizatzeko dekretua igorri zuen, 101 Dekretua izenpean. Bertan, honela zehazten ziren jarraitu beharreko pausuak, "beraien ohiko egoitza ofizialetik kanpo aurkitzen ziren funtzionario publikoak, zegozkien autoritateen aurrean aurkeztu behar ziren". Autoritate edo erakunde hauek, "langile publikoen erregistro bat burutu beharko dute, beraien informazioa batuz, besteak beste datu pertsonalak, afiliazio politikoa eta bere postuan ez aurkitzearen zergatiak zehaztuz". Azkenik, datu hauek guztiak, udalek Defentsa Batzorde Nazionalera igorri behar zituzten. Itxuraz, hasiera batean dekretu honek erregistro base bat egitea zuen helburu nagusia eta ez zen ondoren emango ziren pausuen inguruan datu gehigarririk ematen[418]. Irailaren 13an bertan, aurreko dekretuari bigarren bat gehitu zitzaion, 108. Dekretua bezala ezagutuko zena. Bertan, Defentsa Batzorde Nazionalak, legez kanpo usten zituen Fronte Popularra eta honen baitan barnebiltzen ziren alderdi, sindikatu eta antolakunde guztiak, hau da, Errepublikaren alde lerratu zen antolakunde oro legez kanpo utzi zituen. Dekretu honetan bertan, alderdi edo antolakunde hauekin erlazioa izan zuten eta Mugimendu Nazionalaren aurkako jarrera izan zuten funtzionario guztiak beraien postuetatik kanporatuak izateko agindua gehitzen zen[419].

Horrez gain, Estatuko Buletin Ofizialean, 1936ko abenduaren 9an, hirugarren dekretu bat argitaratu zen non 101. dekretua bete ez zutenak eta beraien ustez karguan ez egotearen inguruko argudiatze egoki bat burutu ez zuten enplegatu guztiak kargutik kanporatuak izango liratekeen. Hau da, uztailaren 18a eta gero beraien bizitokia aldatu zuten langile publiko guztiak kaleratuak izango ziren. Agindu hau, jada Francisco Francok botere guztia bereganatu zuenean eman zen, Estatuko Batzorde Teknikoa deituriko organoan, Defentsa Batzorde Nazionala ordezkatu zuena eta Estatuko Buletin Ofizialean argitaratu zen[420].

Dekretu guzti hauetaz baliatuko zen Urnietako udalbatza berria herriko langile publikoak kaleratzeko orduan. Izan ere, udal frankista berria irailaren 17an eratu zen, bertan inolako hautaketa demokratiko gabe izendatu zirelarik karguak. Bartolome Ugalde buru izan zuen udalbatza, lehen unetik hasi

4.4. EMPLEADOS PÚBLICOS DESPEDIDOS, PROCESOS DE DEPURACIÓN

La expulsión de trabajadores públicos, también conocido como proceso de depuración, solía ser una de las primeras acciones que realizaban las corporaciones municipales franquistas. Con esto, el régimen buscaba castigar la actitud que tuvieron los trabajadores públicos durante la República y la guerra, expulsando a toda persona que no estuviera de acuerdo con la ideología franquista y la "Nueva España". Además, esta represión tenía una segunda parte, ya que esos puestos que quedaron vacíos fueron ocupados por personas que eran parte o partidarios del régimen.

Para ello, tras el intento de golpe de Estado, la Junta de Defensa Nacional –órgano supremo administrativo de las zonas bajo control de los golpistas– emitió varios decretos con el objetivo de dar una base "legal" a ese proceso de depuración. Así, el 12 de septiembre de 1936, emitió el decreto para normalizar la situación de los trabajadores públicos, conocido como Decreto nº 101. En él, se precisaban los pasos a seguir: "Los funcionarios del Estado que, con causa justificada, se encuentren fuera del lugar de su residencia oficial (…) se presentarán a la Autoridad...". Esas autoridades o instituciones "(…) abrirán un registro de presentación del personal, en el que harán constar, además de la filiación del interesado, cargo que desempeña, lugar de su residencia, causas o motivos que han dado lugar a no estar incorpora-do a su destino…" Por último, los Ayuntamientos tenían que enviar todos esos datos a la Junta de Defensa Nacional. Al parecer, el objetivo principal de ese decreto era, al inicio, hacer un registro base, y no se daban más datos sobre los pasos a seguir a continuación[418]. El 13 de septiembre, al decreto anterior se le añadió un segundo, el conocido como Decreto nº 108. En él, la Junta de Defensa Nacional declaraba fuera de la ley al Frente Popular y a todos los partidos, sindicatos y organizaciones que se agrupaban en torno a él. Por lo tanto, se declaró ilegal toda organización que se alienara a favor de la República. En ese mismo decreto se ordenaba que cualquier funcionario que hubiera estado relacionado con esos partidos u organizaciones, o que hubiera tenido una postura contraria al Movimiento Nacional, debía ser expulsado de su puesto[419].

Además, el 9 de diciembre de 1936, se emitió en el Boletín Oficial del Estado un tercer decreto, donde se expulsaba de su cargo a todo empleado que no hubiera cumplido el Decreto nº 101 y, según ellos, todos los que no hubieran dado razones convincentes para justificar por qué no estaban en sus puestos. Esto es, fueron despedidos todos los trabajadores públicos que cambiaron de vivienda después del 18 de julio. Esta orden, teniendo Francisco Franco ya todo el poder, se dio en el órgano llamado Junta Técnica del Estado, que había sustituido a la Junta de Defensa Nacional, y se publicó en el Boletín Oficial del Estado[420].

La corporación municipal de Urnieta se aprovecharía de todos esos decretos a la hora de expulsar a los trabajadores públicos del pueblo. El nuevo ayuntamiento franquista se formó el 17 de septiembre, y en él, los cargos se asignaron sin ningún proceso de elección democrático. La corporación que

[418] Espainiako Defentsa Batzorde Nazionalaren buletin ofiziala, 20. zenbakia, 1936/09/12 / Boletín Oficial de la Junta de Defensa Nacional, nº 20, 12/09/1936.

[419] Espainiako Defentsa Batzorde Nazionalaren buletin ofiziala, 22. zenbakia, 1936/09/13 / Boletín Oficial de la Junta de Defensa Nacional, nº 22, 13/09/1936.

[420] Estatuko Buletin Ofiziala, 51. zenbakia, 1936/12/09 / Boletín Oficial del Estado, nº 51, 09/12/1936.



Nº 79 - URNIETA

Funcionarios destituidos:

José Manuel Irigoras, Practicante - NACIONALISTA -
Federico Otaegui, Administrador Arb.- "
Juan José Cortajarena, Enterrador - IZQUIERDA -
Domingo Isasa, Alguacil - "
José Aldaz, Alguacil en Oria - NACI.(Amort.Pza
Angela Arue, Maestra Mpal.Giburu - NACIONALISTA -
Pablo Arruarte, Encarg.linea electrica - IZQUIERDA -
Miguel José Zatarain, Encarg.C.electrica- NACIONALISTA.
Silvestre Zatarain, Guardamonte - NACI.(Amort.Plaza)
Nieves Garmendia, Telefonista Subvenc.- IZQUIERDA -
Sixto Prestamero, Secret.Juzg.Mpal. - IZQUIERDA -
Jesus Otaegui, Ayudante Secretario - SI.P. NACI.(Pla
za amortizada)

AN,DP-1035-11

Beraien ideologiagatik kaleratutako udal-langileen zerrenda. (SAF). / **Lista de los empleados municipales despedidos por su ideología.** (FSA).

zen beraien aurkari politikoen gaineko ikerketak burutzen eta herria utzi behar izan zuten udal langileei ordezkoak ezartzen. Horrela, herriko Gerrarako Batzorde Karlistarekin adostu eta gero udal eskolan Maria Elizondo ezarri zuten irakasle, Angela Arrue ordezkatuz nahiz eta irakasle titulurik ez izan eta baita ere aguazil ordezko bat izendatu zuten, Domingo Zabala Larburu hain zuzen, Errepublikan Batzorde Karlistako buru izan zena[421].

Hala ere, honekin behin behinean herrian falta ziren langileen postuak ordezkatzea zuten helburu. Gobernu kolpistak sortutako dekretuak baliatuz, langile hauek beraien postuetatik kaleratuak izateko prestatu zen udala. Horrela, Gipuzkoako Gobernadore Zibilaren aginduan oinarrituz, berau udalbatzarekin bildu zela baliatu eta 1936ko azaroaren 22an lehen langile publikoen kaleratzea burutu zen. Hauek, aurrekari abertzaleak zituztenak izan ziren bakarrik. Aipagarria da, udal dokumentuetan soilik aurrekari abertzaleak zituzten langileen kanporaketa aurkitzen dugula, ideologia ezkertiarra zutenak agertzen ez direlarik, hauek beste iturri batzuetatik lortu behar izan dira.

tuvo a Bartolomé Ugalde como dirigente empezó desde el inicio a realizar investigaciones sobre los oponentes políticos, e imponiendo a los sustitutos de los trabajadores municipales que habían abandonado el pueblo. Así, tras llegar a un acuerdo con la Junta de Guerra Carlista, pusieron como profesora a María Elizondo en la escuela municipal, sustituyendo a Ángela Arrue aunque no tuviera título; también nombraron a un alguacil sustituto, exactamente a Domingo Zabala Larburu, el que fuera jefe de la Junta Carlista durante la República[421].

De todos modos, con esto buscaban sustituir provisionalmente los puestos de los trabajadores que faltaban en el pueblo. Aprovechando los decretos creados por el gobierno golpista, el Ayuntamiento se preparó para que esos trabajadores fueron expulsados de sus puestos. Así, valiéndose de la orden del Gobernador Civil de Gipuzkoa y de que este se juntó con la corporación, el 22 de noviembre de 1936 se llevó a cabo la primera expulsión de trabajadores públicos. Estos, solo fueron los que tenían antecedentes abertzales. Es de destacar, que en los documentos municipales solo encontramos los despidos de los trabajadores de antecedentes abertzales, no aparecen los de ideología izquierdista, estos se han tenido que conseguir de otras fuentes.

UDALAK BERAIEN IDEOLOGIAGATIK KANPORATUTAKO UDAL-LANGILEAK /
TRABAJADORES MUNICIPALES EXPULSADOS POR EL AYUNTAMIENTO POR SU IDEOLOGÍA

IZENA / NOMBRE	LANPOSTUA / PUESTO	FILIAZIOA / FILIACIÓN
ALDAZ, JOSE	Oriako aguazila (lanpostua amortizatu) / Alguacil de Oria (puesto amortizado)	Abertzalea / Abertzale
ARRUARTE JUANGORENA, PABLO	Zerbitzu Elektrikoko arduraduna / Encargado del servicio eléctrico	Abertzalea / Abertzale
ARRUE INCHAUSPE, ANGELA	Goiburuko udal irakaslea / Profesora municipal de Goiburu	Abertzalea / Abertzale
CORTAJARENA AYESTARAN, JUAN JOSE	Ehorzlea / Enterrador	Ezkertiarra / Izquierdista
GARMENDIA SAN SEBASTIAN, NIEVES	Udaleko telefonista / Telefonista municipal	Ezkertiarra / Izquierdista
IDIGORAS GURIDI, JOSE MANUEL	Erizaina / Enfermero	EAJ / PNV
ISASA SAN SEBASTIAN, DOMINGO	Aguazila / Alguacil	Ezkertiarra / Izquierdista
OLLOQUIEGUI, CELESTINO	Behin-behineko idazkaria / Secretario provisional	
OTAEGUI ZABALA, FEDERICO	Arielen administratzailea / Administrador de Arbitrios	Abertzalea / Abertzale
OTAEGUI MIMENDIA, JESUS	Idazkari laguntzailea (lanpostua amortizatu) / Auxiliar secretario (puesto amortizado)	Abertzaleen jarraitzailea / Simpatizante abertzale
PRESTAMERO MARTINEZ, SIXTO	Udal epaitegiko idazkaria / Secretario del juzgado municipal	Ezkertiarra / Izquierdista
ZATARAIN, MIGUEL JOSE	Zentral elektrikoko arduraduna / Encargado de la central eléctrica	Ezkertiarra / Izquierdista
ZATARAIN, SILVESTRE	Basozaina (lanpostua amortizatu) / Guardamonte (puesto amortizado)	Abertzalea / Abertzale

[421] UUA, sig. PL-38-1936 / AMU, sig. PL-38-1936.

Juan Jose Cortajarena Ayestaran. (Erretratu Zaharrak).

Silvestre Zatarain, 1954an Abalosko zentralean. (Erretratu Zaharrak). / **Silvestre Zatarain en la central de Abalos en 1954.** (Erretratu Zaharrak).

Silvestre Zatarain "Txilibistru".
(Gure Urnieta).

Hori gainera ez zen izan langile publikoek sufritu zuten errepresio era bakarra, izan ere beraien ondasunak konfiskatu zizkieten Juan Jose Cortajarena eta Nieves Garmendiari. Jesus Otaegui berriz Armada frankistak mobilizatu zuen[422]. Kasu benetan lazgarria Angela Arruerena izan zen, euskaltzale porrokatua, Goiburun irakasten zuen eta euskara erabiltzen zuen horretarako. Urnietan eman ziren borrokek eskola kaltetu zuten eta frankistek bere euskaltzaletasuna zela eta, ilea moztu eta lan gabe utzi zuten, bere ordez tradizionalismo espainiarrarekin bat egiten zuen irakasle bat ezarriz[423]. Azkenik, Sixto Prestamero berriz, Andoain eta Urnietako udal epaitegien idazkari zena, gerra kontseilu arbitrario batean epaitu eta 1936ko urrian fusilatu egin zuten (erail eta hilabetera kargugabetu zuten)[424]. Udalak kanporatu zituen langileak hauek izan ziren, baina horretaz gain, hiru lanpostu amortizatu egin zituen, hots, udalaren egoera ekonomiko makala zela eta ez zituen berriro hiru lanpostuetarako langileak kontratatu, ezin izango baitzion honek sortuko zizkion gastuei aurre egin.

Horretaz gain, une horretara arte Oriako eta Lasarteko auzoetako alkate izan zirenak kargutik bota zituen udalbatzak eta auzo-alkate berriak izendatu zituen. Juan Ormazabal Oriako auzo alkate izendatu zuen 1936ko irailaren 27an[425] eta Javier Ormazabal Errasquin, Lasarteko alkate zena kargugabetu egin zuen eta Juan Ormazabali eman zion auzo honetako kargua ere abenduaren 13an[426].

Horrela, behin langileak kanporatuta, udalak erregimenaren aldeko pertsonak ezarri zituen, ideologia tradizionalista espainiarrarekin bat zetozenak. Horrela, "balore tradizional eta espainiarrak" zituzten pertsonak ezarri zituzten postu hauetan, hasiera batean postu horiek behin behinean bete

Además, los trabajadores públicos no solo sufrieron ese tipo de represión; a algunos, por ejemplo a Juan José Cortajarena y Nieves Garmendia les confiscaron los bienes. Jesús Otaegui fue movilizado por el Ejército franquista[422]. Un caso realmente atroz fue el de Ángela Arrue, euskaltzale empedernida, era profesora en Goiburu y para ello utilizaba el euskara. Los combates acaecidos en Urnieta dañaron la escuela, y los franquistas le cortaron el pelo y la dejaron sin trabajo porque era euskaltzale; como sustituta suya pusieron a una profesora que comulgaba con el tradicionalismo español[423]. Por último, Sixto Prestamero, el que era secretario de los juzgados municipales de Andoain y Urnieta, fue juzgado en un consejo de guerra arbitrario, y lo fusilaron en octubre de 1936 (fue destituido al mes de ser asesinado)[424]. Estos fueron los trabajadores que despidió el ayuntamiento, pero además de eso, amortizó tres puestos de trabajo, esto es, debido a la floja situación económica del ayuntamiento, no contrató a nuevos trabajadores para tres puestos porque no podría hacerse cargo de los gastos que le supondrían.

Además de eso, la corporación municipal también expulsó de sus cargos a los que hasta ese momento eran alcaldes pedáneos de Oria y Lasarte, y pusieron a unos nuevos. Juan Ormazabal fue asignado alcalde pedáneo de Oria el 27 de septiembre de 1936[425] y, en Lasarte, fue depuesto Javier Ormazabal Errasquin y en su puesto también fue asignado Juan Ormazabal, el 13 de diciembre[426].

Así, una vez expulsados los trabajadores, el ayuntamiento impuso a personas afines al régimen, que comulgaban con la ideología tradicionalista española. De ese modo, en esos puestos colocaron a personas con valores tradicionales y españoles; al principio, esos puestos los ocuparon provisio-

[422] UUA, sig. 1304.05 / AMU, sig. 1304. 05.

[423] Mertxe Almortza Goñik Ahotsak.eus-i eskainitako elkarrizteka, URN-019/014 kodea / Entrevista concedida por Mertxe Almortza Goñi a Ahotsak.eus, código URN-019/014.

[424] AIRMN, 489/36 orokorra / AIRMN, general 489/36.

[425] UUA, sig. PLE33-1936 / AMU, sig. PLE33-1936.

[426] UUA, sig. PL42-1936 / AMU, sig. PL42-1936.

zituzten, oraindik kanporatuak izan gabe zirenean Domingo Zabalak aguazil postua lortuz esaterako[427] edota Goiburuko udal eskolako irakasle izendatu zuten Matilde Aranzaola-troqueren kasua, non udalak "intachable conducta moral y de filiación tradicionalista"[428] zuen pertsona bat zela esaten zuen. Hala ere, behin kanporatuak izan zirenean, behin betiko izendapenak egin zituzten, Eltzemendi Zentraleko postua eta Arielen administraria kanporatuak izan eta hurrengo udal bileran izendatuz esaterako[429]. Horretaz gain, 1938ko maiatzean udalbatzak lanpostu publikoak gerra zibilean zauritutako pertsonentzat gorde zituen, hori bai betiere kolpisten aldeko pertsonentzat.

nalmente, cuando todavía no habían sido expulsados. Por ejemplo, Domingo Zabala consiguió el puesto de alguacil[427] o Matilde Aranzaolatroque (según el Ayuntamiento una persona de "intachable conducta moral y de filiación tradicionalista"[428]) sustituyó a Ángela Arrue en la escuela municipal de Goiburu. De todos modos, una vez que fueron expulsados, hicieron nombramientos provisionales; por ejemplo, el puesto de la central de Eltzemendi y el de administrador de Arbitrios fueron nombrados en el pleno municipal, al día siguiente tras la expulsión[429]. Además, en mayo de 1938, la corporación municipal guardó los puestos de trabajo públicos a las personas heridas en la Guerra Civil, eso sí, siempre personas afines a los golpistas.

UDALAK, KOLPISTEN ALDEKOENTZAKO GORDETZEN ZITUEN LANPOSTU PUBLIKOAK /
PUESTOS DE TRABAJO PÚBLICOS QUE EL AYUNTAMIENTO GUARDABA PARA LOS AFINES A LOS GOLPISTAS

LANPOSTUA / PUESTO		SOLDATA / SUELDO	GENEROA / GÉNERO
Idazkaria / Secretario	Gerra zaurituentzako udal postu administratiboa / Puesto administrativo municipal para heridos de guerra		Gizonezkoa / Hombre
Udal funtsen gordailuzaina / Depositario de los fondos municipales	Gerra zaurituentzako udal postu administratiboa / Puesto administrativo municipal para heridos de guerra	500 pta. / 500 ptas.	Gizonezkoa / Hombre
Arielen administratzailea / Administrador de Arbitrios	Gerra zaurituentzako udal postu administratiboa / Puesto administrativo municipal para heridos de guerra	600 pta. / 600 ptas.	Gizonezkoa / Hombre
Arielen administratzailea / Administrador de Arbitrios	Gerra zaurituentzako udal postu administratiboa / Puesto administrativo municipal para heridos de guerra	600 pta. / 600 ptas.	Gizonezkoa / Hombre
Medikoa / Médico	Gerra zaurituentzako udal postu fakultatibo eta teknikoa / Puesto facultativo y técnico para heridos de guerra	3.000 pta. / 3 000 ptas.	Gizonezkoa / Hombre
Albaitaria / Veterinario	Gerra zaurituentzako udal postu fakultatibo eta teknikoa / Puesto facultativo y técnico para heridos de guerra	2.000 pta. / 2 000 ptas.	Gizonezkoa / Hombre
Lehen hezkuntzako irakasle emakumea / Profesora de educación primaria	Gerra zaurituentzako udal postu fakultatibo eta teknikoa / Puesto facultativo y técnico para heridos de guerra	1.825 pta. / 1 825 ptas.	Emakumezkoa / Mujer
Lehen hezkuntzako irakasle emakumea landa eremuan / Profesora de educación primaria en zona rural	Gerra zaurituentzako udal postu fakultatibo eta teknikoa / Puesto facultativo y técnico para heridos de guerra	500 pta. / 500 ptas.	Emakumezkoa / Mujer
Zentral elektrikoko arduraduna / Encargado de la central eléctrica	Gerra zaurituentzako udal postua zerbitzu berezietan / Puesto municipal en servicios especiales para heridos de guerra	2.555 pta. / 2 555 ptas.	Gizonezkoa / Hombre
Zerbitzu elektrikoko arduraduna / Encargado de la central eléctrica	Gerra zaurituentzako udal postua zerbitzu berezietan / Puesto municipal en servicios especiales para heridos de guerra	3.000 pta. / 3 000 ptas.	Gizonezkoa / Hombre
Udal aguazila / Alguacil municipal	Gerra zaurituentzako udal postua, mendeko pertsonala / Puesto municipal para heridos de guerra, personal dependiente	2.555 pta. / 2 555 ptas.	Gizonezkoa / Hombre
Lasarteko udal aguazila / Alguacil municipal de Lasarte	Gerra zaurituentzako udal postua, mendeko pertsonala / Puesto municipal para heridos de guerra, personal dependiente	400 pta. / 400 ptas.	Gizonezkoa / Hombre
Ehorzlea / Enterrador	Gerra zaurituentzako udal postua, mendeko pertsonala / Puesto municipal para heridos de guerra, personal dependiente	250 pta. / 250 ptas.	Gizonezkoa / Hombre
Danbolinjolea / Tamborilero	Gerra zaurituentzako udal postua, mendeko pertsonala / Puesto municipal para heridos de guerra, personal dependiente	700 pta. / 700 ptas.	Gizonezkoa / Hombre

Hau guztiaz gain, kontuan izanda Urnieta hainbat herrigunez osatua dagoela eta ohikoa zela urnietarrak inguruko herrietan lan egitea edota aurkakoa, kanporatuak izan ziren beste udal edo erakunde batzuetako langileak ziren urnietarrak aurkitu ditugu. Horrela, Prudencio Aramburu Otegui jauna, 1904an jaioa, Urnietan erroldatua zegoen baina Donostian bizi zen, bertako udalarentzat igeltsero gisa lan eginez.

Además de todo eso, teniendo en cuenta que Urnieta está formado por varios núcleos y que era habitual que los urnietarras trabajaran en los pueblos de alrededor o viceversa, hemos encontrado casos en los que se han expulsado trabajadores urnietarras en otros ayuntamientos o entidades. Por ejemplo, Prudencio Aramburu Otegui, nacido en 1904, estaba empadronado en Urnieta pero vivía en Donostia, trabajando para ese ayuntamiento como albañil. Cuando se estableció

[427] UUA, sig. PL-35-1936 / AMU, sig. PL-35-1936.
[428] UUA, sig. 1938. / AMU, sig. 1938.
[429] UUA, sig. Pl40-1936 / AMU, sig. PL40-1936.

Udal frankista ezarri zenean, bere aurkako ikerketa baten ostean kanporatua izan zen lanpostutik[430]. Miguel Aguirre Zatarain ere, Urnietan jaio bazen ere, Donostiara bizitzera joana zen, bertako udalean kale-garbitzaile postuan lan eginez. UGTkoa, estatu-kolpearen aurka miliziano moduan izena eman zuen eta ondorioz bere lanpostua uzteagatik kanporatu egin zuten[431].

Ez dugu ahaztu behar ere norberaren aurrekari politikoen ondorioz, ehunka izan zirela lanpostu publiko bat lortzeko aukera ukatu zitzaien urnietarrak. Tartean, kasu nabarmena Agustin Martiarenarena litzateke. Pertsona hau salatua izan zen herrian Auxilio Socialerako diru bilketa batean zerbait emateari uko egiteagatik eta hau burutzen zebiltzan pertsonekin eztabaidatzeagatik. Udalak ondorioz gertakaria agintari militarrei jakinarazi zien, zigortua izan zedin, eta azkenean 50 pezetako isuna ezarri zioten. Horretaz gain, Agustin herriko bake-epaile izateko hautagaietako bat zen, baina gertakari hau eta gero hautagaitzatik baztertu zuten. Beste herri batzuetan kanporatutako udal langileek beraien lanpostua berreskuratzeko saiakera egin zuten, helegiteak ezarriz, baina hau ez zen Urnietako kasua izan, soilik Domingo Isasa jaunak erakutsi zuen bere lanpostura itzultzeko nahia. Domingo, miliziano gisa borrokan ibili eta gero preso egin zuten kolpistek, baina ihes egitea lortu zuen. Honi esker, Euskal Herria utzi eta Katalunian babestu zen, nahiz eta hau kolpisten esku erortzean Frantziako Estatura joan behar izan zen eta bertan Gurseko kontzentrazio esparruan preso izan zuten. Ondorioz, 1943a arte Gipuzkoara itzuli gabe egon zen eta une honetan, Hernanin ezarri eta bere aguazil postura itzultzea eskatu zuen, baina udalak erantzun zion postu hori armada frankistarekin borrokatu zuen batentzat gordea zegoela[432].

Irakasleen garbiketa-prozesuak

Langile publikoen aurkako jazarpena ez zen udal lanpostuetara mugatu, Erregimen frankistak, hezkuntza eta irakasleak jo puntuan jarri zituen, Espainia galbidera eramatearen arduradunetako bat zirelakoan. Horrela, agintari frankistek abuztuaren 19an sinatutako agindu bat helarazi zion udalbatza berriari, non alkateak irakasleen jarduna zaindu eta depuratzeko ardura zuela adierazi zieten. Ildo beretik, Tolosan egoitza zuen Gerrarako Gipuzkoako Batzorde Karlistak, hurrengo jakinarazpena helarazi zuen:

"Espainiar espirituaren eraldaketa-lan horretarako, Hezkuntza da ezinbesteko palanka; ondorioz, hemendik aurrera, batik bat katolikoa eta guztiz espainolista izan behar du, argi eta garbi, inolako milikeriarik gabe.

Mugimendu honen agintari esanguratsuek arreta oso berezia eskainiko diote Hezkuntzari, Espainia berriaren espiritua eratzeko duen garrantzi erabakigarriaz jakitun.

Irakaskuntzak, eskola publikoetan nahiz pribatuetan, nagusiki katolikoa eta espainolista izan behar du. Nahitaezkoa izango da[433]"..

el ayuntamiento franquista, fue expulsado de su puesto de trabajo tras una investigación en su contra[430]. Miguel Aguirre Zatarain, aunque también nació en Urnieta, había ido a vivir a Donostia, trabajando como barrendero para el Ayuntamiento. De UGT, se alistó como miliciano contra el golpe de Estado y, en consecuencia, fue depurado por haber abandonado su puesto de trabajo[431].

Tampoco podemos olvidar que debido a sus antecedentes políticos, fueron cientos de urnietarras a los que se les negó la posibilidad de conseguir un puesto de trabajo. Entre ellos, el caso más destacado sería el de Agustín Martiarena. Esta persona fue denunciada en el pueblo por haberse negado a dar algo en una colecta para Auxilio Social y por discutir con las personas que la estaban realizando. En consecuencia, el Ayuntamiento notificó el suceso a las autoridades militares, para que fuera castigado; finalmente le impusieron una multa de 50 pesetas. Además de eso, como Agustín era uno de los candidatos a juez de paz del pueblo, fue retirado de la candidatura debido a este suceso. En otros pueblos, los trabajadores municipales despedidos intentaron recuperar su puesto de trabajo, poniendo recursos, pero no fue ese el caso de Urnieta. Solo el señor Domingo Isasa demostró el deseo de volver a su puesto. Domingo fue apresado por los golpistas tras haber combatido como miliciano, pero consiguió huir. Gracias a ello, dejó Euskal Herria y se refugió en Cataluña; pero cuando cayó Cataluña, tuvo que ir al Estado francés y allí estuvo preso en el campo de concentración de Gurs. Por todo ello, estuvo sin volver a Gipuzkoa hasta 1943, y entonces, se estableció en Hernani y pidió volver a su puesto de alguacil; pero el Ayuntamiento le respondió que ese puesto estaba guardado para alguien que hubiera combatido con el Ejército franquista[432].

Depuración de profesores

La persecución contra trabajadores públicos no se limitó a cargos municipales. El régimen franquista puso en el punto de mira la educación y los profesores, creyendo que eran unos de los responsables de llevar a España a la perdición. Así, las autoridades franquistas hicieron llegar una orden firmada el 19 de agosto a la nueva corporación municipal, donde se les decía que el alcalde tenía la responsabilidad de vigilar y depurar el trabajo de los profesores. Del mismo modo, la Junta Carlista de Guerra de Gipuzkoa que tenía su sede en Tolosa hizo llegar la siguiente notificación:

Palanca esencial para esta obra de transformación del espíritu español es la Enseñanza que, por consiguiente, ha de ser en lo sucesivo fundamentalmente católica y netamente españolista sin paliativos, sin remingos (sic) de ninguna clase.

Las autoridades representativas de este movimiento dedicarán especialísima atención a la Enseñanza, conscientes de la decisiva importancia que ella tiene para la formación del espíritu de la nueva España

La enseñanza, tanto en las escuelas públicas como en las privadas, ha de ser eminentemente católica y españolista. Será obligatoria la instrucción del Catecismo, de la Historia Sagrada y de la Historia de España[433].

[430] Donostiako udal artxiboa. / Archivo municipal de Donostia.
[431] Aranzadi Zientzia Elkarteko datu-basea. / Base de datos de la Sociedad de Ciencias Aranzadi.
[432] UUA, 1944ko udal-korrespondentzia. / AMU, correspondencia municipal de 1944.
[433] Salinas Elosegui, A.; Aguirre, J. (2007). / Salinas Elosegui, A.; Aguirre, J. (2007).

orr.

Horrela, Urnietako udalbatzak hezkuntzaren gaineko kontrola areagotu zuen. Izan ere, autoritate berriek, ezinbestekotzat jo zuten hezkuntzaren gaineko kontrol zurrun bat izatea.

"Hamarkada batzuetan zehar, Hezkuntza bere gradu guztietan, izaera eta tradizio nazionalaren aurka zeuden ideologia eta instituzioek monopolizatua egon da, beraz, une erabakigarri hauetan, beharrezkoa da Hezkuntza Sistemaren berrikuspen oso eta sakon bat ematea, beronen berrantolaketa oso bat burutu aurretik. Horrela, sustraietatik ezabatu nahi dira doktrina faltsuak, non hauen gidaritzaren ondorioz iritsi da gure Aberria egoera honetara"[434].

De ese modo, la corporación municipal de Urnieta intensificó el control sobre la educación. Para las nuevas autoridades era imprescindible tener un estricto control sobre la educación.

"El hecho de que durante varias décadas el Magisterio en todos sus grados (…) haya estado influido y casi monopolizado por ideologías e instituciones disolventes, (…), hace preciso que en los solemnes momentos porque atravesamos se lleve a cabo una revisión total y profunda en el personal de Instrucción Pública, trámite previo a una reorganización radical y definitiva de la enseñanza, extirpando así de raíz esas falsas doctrinas con sus apóstoles han sido los principales factores de la trágica situación a que fue llevada nuestra Patria…[434]*".*

Urnietako nesken eskola, 1933an. (Erretratu Zaharrak). / **Escuela femenina de Urnieta, en 1933.** (Erretratu Zaharrak).

Ideia hauek oinarri hartuz, Erregimen berriak hezkuntzarekiko kontrol oso zorrotz bat ezarri zuen, irakasleenganako jazarpen eta kontrol sistematiko bat ezarriz. Beraien lanpostuetara berehala itzultzen ez zirenak kanporatuz eta gainontzekoen jarduna, jarrera, morala eta afiliazio politikoa aztertuz. Horretarako, Gipuzkoako Gerra Batzordearen aginduz udalbatza guztietan Lehen Hezkuntzako Batzordeak eratzeko agindua eman zen, zeinetan Mugimendu Nazionalaren eta erregimen berriaren balore eta ideiekin bat egiten zuten pertsonak ezartzen ziren. Orokorrean bertan alkateak, parrokoak, mugimendu karlistako kideak eta "hutsik gabeko moral eta jarrera" zuten irakasle eta gurasoak parte hartzen zuten. Urnietaren kasuan, 1940ko uztailaren 6a arte ez zen batzorde hau eratu, nahiz eta honek ez zuen irakasleen aurkako espediente eta depurazioak egitea saihestu, Bartolome Ugalde eta Luis Recondo buru zituen Udala eta Batzorde Karlista arduratu baitziren erakunde ezberdinek eskatutako informeak bete eta bidaltzeaz[435]. Hauek, Estatu mailan hartzen ziren erabakiak gauzatzeaz arduratu behar ziren eta herriko irakasleen gaineko datu eta informazioak Gipuzkoako Lehen Hezkuntzako Batzordeari emateaz.

Tomando esas ideas como base, el Nuevo Régimen impuso un control muy estricto sobre la educación, estableciendo una persecución y un control sistemático sobre los profesores. Expulsando a los que no volvían de inmediato a sus puestos de trabajo, y analizando la actividad, la actitud, la moral y la afiliación política de los demás. Para ello, por orden de la Junta de Guerra de Gipuzkoa, se dio la orden de formar en todas las corporaciones municipales una Comisión de Educación Primaria, donde se nombraban a personas que comulgaban con los valores e ideas del movimiento nacional y el Nuevo Régimen. En general, en él participaban el alcalde, los párrocos, los miembros del movimiento carlista y profesores y padres de moral y actitud sin tacha. En el caso de Urnieta, esa comisión no se creó hasta el 6 de julio de 1940, aunque eso no impidió que se hicieran expedientes y depuraciones contra profesores, pues fueron el Ayuntamiento presidido por Bartolomé Ugalde y Luis Recondo y la Junta Carlista los que se encargaron de cumplimentar y enviar los informes pedidos por las diferentes instituciones[435]. Estos, se tenían que encargar de llevar a cabo las decisiones que se tomaban a nivel estatal y de dar a la Comisión de Educación Primaria de Gipuzkoa los datos e informaciones sobre los profesores del pueblo.

[434] Estatuko buletin ofiziala, 27 zenbakia, 1935/11/11koa 153 orrialdea. / Boletín Oficial del Estado, nº 27, p. 153, 11/11/1936.
[435] UUA, sig. 1938.32. / AMU, sig. 1938.32.

Jarraian datozenak era bateko edo besteko ikerketa izan zuten irakasleak dira.

A continuación viene una lista de los profesores a los que se les hizo algún tipo de investigación.

KANPORATUAK EDOTA IKERTUAK IZAN ZIREN URNIETAKO IRAKASLE PUBLIKOAK /
PROFESORES PÚBLICOS DE URNIETA QUE FUERON DESPEDIDOS O INVESTIGADOS

IZENA / NOMBRE	ESKOLA / ESCUELA	FILIAZIOA / FILIACIÓN	AKUSAZIOA / ACUSACIÓN	KONDENA / CONDENA
ASTRAIN MONJELOS, MARIA	Oria	Tradizionalista / Tradicionalista		Expedientea ireki zioten baina postua mantendu zuen / Le abrieron expediente pero mantuvo el puesto
ALONSO ZUBICARAY, NIEVES	Oria	Tradizionalista / Tradicionalista		Lekualdaketarekin zigortu zuten baina tradicionalista zenez bertan behera utzi / Lo castigaron con un traslado, pero como era tradicionalista, finalmente no se llevó a cabo
ARRUE INCHAUSPE, ANGELA	Goiburu	Abertzalea / Abertzale	Abertzalea eta euskara erabiltzea / Abertzale y utilizar el euskara	Depuratua (ilea moztu zioten ere) / Depurada (también le cortaron el pelo)
BARBÉ YARZA, JOSE	Lasarteko eskola nazionala / Escuela nacional de Lasarte	Abertzalea / Abertzale	Abertzalea izatea eta ikur abertzaleak etxeko balkoian eskegita izatea / Ser abertzale y tener símbolos abertzales colgados en el balcón	Avilara kanporatua / Expulsado a Ávila
FRAGO FRAGO, MIGUEL	Urnietako mutilen lehen eskola / Primera escuela de chicos de Urnieta	UGT, PCE	Herria uztea / Abandonar el pueblo	Depuratua / Depurado
PEREZ ALVAREZ, DIONISIO		Tradizionalista, falangista / Tradicionalista, falangista		Espedientea ireki, baina postua mantendu zuen. Urnietako FET-JONSeko Informazio Batzordeko idazkaria / Le abrieron expediente, pero mantuvo el puesto. Secretario de la Comisión de Información de las FET-JONS de Urnieta
PEREZ, FRANCISCA	Urnietako nesken lehena / Primera escuela de chicas de Urnieta	Tradizionalista / Tradicionalista		Expedientea ireki zioten baina postua mantendu zuen / Le abrieron expediente pero mantuvo el puesto
SAENZ DE URTURI, CECILIO	Oriako mistoa / Mixto de Oria	Tradizionalista / Tradicionalista		Expedientea ireki zioten baina postua mantendu zuen / Le abrieron expediente pero mantuvo el puesto
SORO FRIAS, DOLORES	Urnietako nesken bigarrena / Segunda escuela de chicas de Urnieta	Tradizionalista / Tradicionalista		Expedientea ireki zioten baina postua mantendu zuen[436] / Le abrieron expediente pero mantuvo el puesto[436]
ZORZANO, EUSEBIO	Urnietakoa / De Urnieta	Tradizionalista / Tradicionalista		Expedientea ireki zioten baina postua mantendu zuen[437] / Le abrieron expediente pero mantuvo el puesto[437]

Hainbat iturriren arabera, Eusebio Zorzano eta Dolores Frias garbiketa prozesua jasandako irakasleak izan ziren[438]. Baina Urnietako udal artxiboen arabera, Eugeniok lanpostua utzi zuen kolpistekin frontera joateko eta ondoren herrira itzuli eta irakasle izaten jarraitu zuen. Doloresek berriz, irakasle postu finkoa lortu zuen Urnietako nesken eskolan[439].

Deigarria da orokorrean errepresio zabalena egon zen Oriaren kasuan, irakasleak orokorrean izaera tradizionalistakoak zirela, honek talka nabarmenak sortu zituelarik Erre-

Según algunas fuentes, Eusebio Zorzano y Dolores Frias fueron profesores depurados[438]. Pero según el archivo municipal de Urnieta, Eugenio dejó el puesto para ir al frente con los golpistas y luego, volvió al pueblo y siguió siendo profesor. Dolores, en cambio, consiguió un puesto fijo de profesora en la escuela de chicas de Urnieta[439].

Es llamativo que en el caso de Oria, donde la represión en general fue más amplia, que la mayoría de los profesores eran tradicionalistas, lo cual acarreó graves choques con los veci-

[436] Artxibo batzuetan zehazten da depuratua izan zela, baina Urnietako artxiboan 1937/09/17an postua lortu zuela agertzen da. / En algunos archivos se especifica que fue depurada, pero en el archivo de Urnieta, el 17/09/1937, se dice que había conseguido el puesto en propiedad.

[437] Artxibo batzuetan zehazten da depuratua izan zela, baina Urnietako artxiboan postua kolpistekin frontera joateko utzi zuela eta gero itzuli egin zela zehazten da. / En algunos archivos se especifica que fue depurado, pero en el archivo de Urnieta se dice que dejó el puesto para ir al frente con los golpistas y que luego volvió.

[438] AGA-Educacion. / AGA-Educacion.

[439] UUA, sig. 1938.35. / AMU, sig. 1938.35.

Miguel Frago Frago bere ikasleekin, argazkian besoaz biltzen duen Miguel semea, Natividad alaba eta Luisa emaztearekin Urnietatik ihes egin behar izan zuten. (Erretratu Zaharrak). / **Miguel Frago Frago con sus alumnos; tuvo que huir de Urnieta junto con el hijo Miguel que rodea con los brazos, su hija Natividad y su esposa Luisa.** (Erretratu Zaharrak).

Oriako eskola 1931 urtean. (El mundo laboral de Lasarte-Oria). / **La escuela de Oria en 1931.** (El mundo laboral de Lasarte-Oria)

publika garaian auzoko herritarrekin. Horrela, Gipuzkoako batzordeak Oria auzoko Maria Astrain depuratzeko proposatu zuenean, udalak adierazi zuen "jarrera eta moral zuzenekoa eta filiazio tradizionalistakoa" zela eta honek eztabaida eta kexa ugari sortu zituela auzotarren aldetik[440]. Lanpostutik kanporatuak izan ziren bakarrak Urnietako Miguel Frago eta Goiburuko Angela Arrue irakasleak izan ziren, tradizionalismoa eta euskal abertzaletasunarekin lotuagoak zeuden esparruak biak, nahiz eta Miguel militante ezkertiarra izan. Jose Barbéren kasuan Lasarteko eskolatik Avilara lekualdatu zuten, EAJren jarraitzailea izateagatik eta ikur abertzaleak publikoki erakusteagatik[441].

Azkenik, Aurora Lopez Garinen kasua aipatu beharra dago, Urnietako irakasle nazionala izan zen eta herria utzi behar izan zuen kolpistek Andoaindik hau mehatxatzen zutelako. Horrela, errefuxiatu gisa bizi zela, UGT antolakundera batu zen, bertako kide izanik gutxienez 1937ko ekaina amaierara arte[442]. Puntu honetatik aurrera bere inguruan dagoen aztarna galtzen da, baina pentsa genezake bere lanpostua galdu zuela, herritik joan baitzen eta gainera sindikatu batera afiliatua zegoen. Hala ere, ez dira hipotesi hau sostengatzen duen dokumentu edo aipamenik aurkitu.

Lehen Hezkuntzako Batzorde hau, erregimen berriak hezkuntzarako igorritako irizpide guztiak betetzen zirela arduratu behar zen. Horrela, 1938an hainbat landa eskola bere gain hartu zituen eta batez ere antolakunde erlijiosoetako eskolak eraikitzea sustatu zuen. Honekin, hezkuntza eredu zentralizatuago eta kontrolatuago bat sortu nahi zuen. Horretaz gain, Errepublika garaian garatzen joan ziren *laikotasuna, hezkidetza* edota *elebitasuna* ezabarazi zituen eta erlijio katolikoa, genero-rol banaketa, gaztelera eta espainiar nazionalismoa ezarri zituen. Erlijio katolikoa hezkuntzara indarrez itzularazi zuten, bai ordena erlijiosoei eskolak irekitzea ahalbidetu eta sustatuz eta baita publikoetan iruditeria erlijiosoa (gurutzeak, ikono erlijiosoak…) eta doktrina katolikoa txertatuz. Emakumearenganako hezkuntza etxeko lanetan heztera mugatu zen askotan, emakume otzan baten bila, senarraren menpekoa.

Nesken eskoletan, feminitate sendoenak distiratuko du, eta maisuak saiatuko dira, etxerako egokiak diren lan eta irakaskuntzekin, beren Eskolei izaera ematen, gure Armada Gloriatsuaren aldeko ekarpen praktikoa eginez.

Euskararen kasuan, baztertu eta jazarri egin zuten, bai eskolan eta bai kalean, haur eta gazte euskaldunak zigortuz eta umiliatuz. Espainiako patriotismoaren gorazarrea ere hezkuntzako ardatzetako bat bilakatu zen, Franco eta Primo de Riveraren argazkiak ikasgeletan ezarriz, Cara al Sol ereserki faxista abestera behartuz edota eskola bakoitzean Espainiako bandera berria ezartzera behartuz. Irizpide hauek betetzen zirela ziurtatzeko, ikuskatzaileak ezarri ziren, zeinak herriz herri ibiltzen ziren eta horietako batek punturen bat betetzen ez bazuen, egoera zuzentzeko agindua ematen zuten eta hau bete ezean baita zigorrak ezarri ere[443].

nos del barrio durante la República. De ese modo, cuando la Junta de Gipuzkoa propuso depurar a María Astrain del barrio Oria, el ayuntamiento declaró que era "de actitud y moral recta y de filiación tradicionalista", y que eso había creado muchas discusiones y quejas por parte de los vecinos[440]. Los únicos que fueron expulsados de su puesto de trabajo fueron los profesores Miguel Frago de Urnieta y Ángela Arrue de Goiburu, en ámbitos que estaban más relacionados con el tradicionalismo y el nacionalismo vasco, aunque Miguel fuera un militante izquierdista. José Barbé fue trasladado de la escuela de Lasarte a Ávila, por ser simpatizante de PNV y por enseñar públicamente símbolos abertzales[441].

También hay que mencionar el caso de Aurora López Garin, profesora nacional de Urnieta, que tuvo que abandonar el pueblo porque los golpistas la amenazaban desde Andoain. Así, viviendo como refugiada, se unió al sindicato UGT, siendo miembro de él por lo menos hasta el junio de 1937[442]. A partir de ese punto se pierde su rastro, pero podemos pensar que perdió su puesto de trabajo, pues se fue del pueblo y además estaba afiliada a un sindicato. De todos modos, no se ha encontrado ningún documento o alusión que sostenga esta hipótesis.

La Comisión de Educación Primaria se tenía que encargar de que se cumplieran todos los criterios sobre educación emitidos por el Nuevo Régimen. Así, en 1938, se responsabilizó de varias escuelas rurales y, sobre todo, promocionó la construcción de escuelas de organizaciones religiosas. Con ello, se quería crear un modelo educativo más centralizado y controlado. Así, se eliminaron la laicidad, la coeducación y el bilingüismo que se desarrollaron durante la República, y se impusieron la religión católica, la separación de roles por géneros, la lengua española y el nacionalismo español. Introdujeron la religión católica en la educación por la fuerza; por un lado, posibilitando y promocionando la apertura de escuelas de órdenes religiosas y, por otro, integrando la imaginería religiosa (cruces, iconos religiosos…) y la doctrina católica en las escuelas públicas. La mayoría de las veces, la educación de las mujeres se limitó a educarlas en las labores de casa, en busca de una mujer mansa y sumisa al hombre.

En las Escuelas de niñas brillará la feminidad más rotunda, procurando las Maestras, con labores y enseñanzas apropiadas al hogar, dar carácter a sus Escuelas, tendiendo a una contribución práctica en favor de nuestro Glorioso Ejército.

En el caso del euskara, este fue arrinconado y perseguido, tanto en la escuela como en la calle, castigando y humillando a los niños y jóvenes euskaldunes. El elogio al patriotismo español se convirtió en uno de los ejes de la educación, obligando a poner las fotografías de Franco y de Primo de Rivera en las aulas, a cantar el himno fascista "Cara al Sol" o a poner una bandera española nueva en cada escuela. Para asegurar que se cumplían esos criterios, se pusieron inspectores, que andaban de pueblo en pueblo, y si alguno de ellos no cumplía algún punto, daban la orden de corregir la situación, y si eso no se cumplía se ordenaban castigos[443].

[440] UUA, sig. 1938. / AMU, sig. 1938.
[441] Salinas Elosegui, A.; Aguirre, J. (2007). / Salinas Elosegui, A.; Aguirre, J. (2007).
[442] Ministerio de Cultura y Deporte, Archivo CDMH, OIPA, 2 paper-sorta. / Ministerio de Cultura y Deporte, Archivo CDMH, OIPA, legajo 2.
[443] Salinas Elosegui, A.; Aguirre, J. (2007) / Salinas Elosegui, A.; Aguirre, J. (2007).

orr.

Aldundiko langileen garbiketa-prozesuak

Erregimen frankista berriak, estatuaren egitura goitik behera "garbitzea" zuen helburu, beraien "Espainia berria" eraikitzeko unean inolako erresistentziarik ez aurkitzeko nahiarekin. Ondorioz, udaletan eta hezkuntzan gertatu zen bezala, Gipuzkoako aldundian ere langileen aurkako garbiketa-prozesu bat eman zen. Honi, 1936ko irailaren 14an bertan eman zitzaion hasiera, kolpistek Donostia armez hartu eta hurrengo egunean. Udaleko langileekin gertatu zen bezala, aldundian ezarri ziren agintari kolpistak 101 eta 108 dekretuak baliatu zituzten, eta honakoa bilatzen zuten agintariek: funtzionario bati espediente bat abiaraztea, haren jokabide politikoa zigortzeko eta erakunde, elkargo, alderdi politiko eta abarretatik disidentetzat hartutako kideak botatzea.

Hau gauzatzeko helburuarekin, langile publiko guztiak kanporatuak izan ziren eta 1936ko irailaren 21a arteko denbora eman zitzaien beraien lanpostuetara itzultzeko. Orduan, langile guztien aurkako espedienteak abiarazi zituzten, norbanako bakoitzaren gaineko informazioa biltzeko eta horren baitan erreprimitzeko. Prozesu hau 1937ko apirila bitarte luzatu zen, eta guztira 1051 langilek jasan zuten garbiketaren bat[444]. Urnietarren kasuan, 5 herritar izan ziren ikertuak, horietatik 3 behin-betiko kargugabetuak izan zirelarik, bat urte batez lan eta soldata gabe zigortua eta azkena bere karguan berriro onartu zuten.

Depuración de los trabajadores de la Diputación

El objetivo del Nuevo Régimen franquista era "depurar" de arriba abajo la estructura del Estado, para que a la hora de construir su "Nueva España" no tuvieran ningún tipo de resistencia. En consecuencia, tal como ocurrió en los ayuntamientos y en la educación, en la Diputación de Gipuzkoa también se llevó a cabo un proceso de depuración contra sus trabajadores. Se le dio inicio el 14 de septiembre de 1936, al día siguiente de que los golpistas tomaran Donostia por las armas. Tal como ocurrió con los trabajadores municipales, las autoridades golpistas que se establecieron en la Diputación se sirvieron de los decretos 101 y 108. Las autoridades buscaban iniciar un expediente a un funcionario para castigar su conducta política y despedir a los disidentes de las organizaciones, asociaciones, partidos políticos, etcétera.

Para llevar a cabo ese objetivo, fueron expulsados todos los trabajadores públicos y les dieron de plazo hasta el 21 de septiembre de 1936 para volver a sus puestos de trabajo. Entonces, iniciaron expedientes contra todos los trabajadores, para recopilar información sobre cada individuo, y en base a ello, reprimirlo. Ese proceso se alargó hasta el abril de 1937 y, en total, 1051 empleados sufrieron algún tipo de depuración[444]. En el caso de Urnieta, 5 urnietarras fueron investigados, 3 de ellos fueron expulsados definitivamente, uno sancionado sin un año de trabajo ni sueldo y, el último, fue aceptado de nuevo en su cargo.

Gipuzkoako telefonistak lanean. (Gipuzkoako Foru Aldundia). / **Telefonistas de Gipuzkoa trabajando.** (Diputación Foral de Gipuzkoa).

LANPOSTUTIK KANPORATUA EDOTA ZIGORTUAK IZAN ZIREN ALDUNDIKO LANGILEAK /
TRABAJADORES DE LA DIPUTACIÓN EXPULSADOS DE SU PUESTO DE TRABAJO O CASTIGADOS

IZENA / NOMBRE	LANBIDEA / OFICIO	ESPEDIENTEAREN ERABAKIA / DECISIÓN DEL EXPEDIENTE	NOIZ / CUANDO
BLANCO SALVADOR, JOSE MANUEL	Telefonista	Kargugabetua / Destituido	1937/02/25
ECHEVERRIA UNZUETA, JUAN	Mikeletea / Miquelete	Kargugabetua / Destituido	1936/11/02
IPARRAGUIRRE CORTAJARENA, DOMINGO	Telefonista	Urte batez soldata eta lanik gabe / Un año sin sueldo y sin trabajo	1937/02/25
URBIETA TEJERIA, JULIAN	Eskribaua, Basozaintza Zerbitzuko laguntzailea / Escribiente, ayudante del Servicio de Vigilancia Forestal		
ZALDUA IBARGOYEN, FELIPE	Telefonista	Berriro onartua / Reaceptado	1937/02/25
COLLIN BRINGAS, VALENTINA	Inudea / Matrona	Udalak soldata ordaintzeari utzi herritik joan zelako / El Ayuntamiento dejó de pagarle el sueldo porque se había ido del pueblo	1937/04/17

[444] Buces, J.; Querejeta, E. (2016) / Buces, J. y Querejeta, E. (2016).

Beste kasu bat Valentina Collin Bringasena izan zen. Haur baten emagina zen, Aldundiak kaxako umeentzat zuen batzordearentzat lan eginez. Hau da, umezurtz edota haur txiro baten kargu egin zen eta horregatik diru kopuru bat jasotzen zuen. Ez da Aldundiko langileen zerrendan agertzen, baina Valentinari diru kopuru bat ordaintzen zion Udalak Aldundiaren aginduz. Kolpistak herrira iritsi aurretik hau utzi eta Bizkaiara joateagatik soldata kendu zion Urnietako udalak Gipuzkoako Aldundiaren aginduz[445].

Otro caso fue el de Valentina Collin Bringas. Era una comadrona que trabajaba para la comisión de niños expósitos de la Diputación. Se hizo cargo de un huérfano o niño pobre, y por ello recibía una cantidad de dinero. No aparece en la lista de trabajadores de la Diputación, pero el Ayuntamiento pagaba una cantidad de dinero a Valentina por orden de la Diputación. Por dejarlo, e ir a Bizkaia antes de que los golpistas llegaran al pueblo, el Ayuntamiento de Urnieta le quitó el sueldo, por orden de la Diputación de Gipuzkoa[445].

Gipuzkoako hamarnaka mikelete izan ziren jazarriak kolpisten aldetik Aldundiari leial mantentzeagatik. (Gure Gipuzkoa). **/ Decenas de miqueletes de Gipuzkoa fueron perseguidos por los golpistas por haberse mantenido leales a la Diputación.** (Gure Gipuzkoa).

Gipuzkoako mikeleteak. / Miqueletes gupuzcoanos.

[445] UUA, 1937ko udal-korrespondentzia / AMU, correspondencia municipal de 1937

4.5. URNIETAKO ELIZGIZONEN AURKAKO JAZARPENA

Eliza katolikoak, hasieratik militar kolpisten saiakera babestu zuen, oinarri ideologiko bat eskainiz honi eta erregimena justifikatuz lehen unetik. Honek laguntza handia eman zien kolpistei, bai gizarteko esparru tradizionalistak mobilizatzeko unean eta baita beraien aurkarien kontrol soziala eta errepresioa gauzatzeko momentuan. Horretarako, Espainiako Eliza katolikoak estatu-kolpea eta ondorengo gerra, "gurutzada santu" gisa definitu zuen, elizaren etsaien aurkako gerra baten moduan, Errepublika eta hau defendatzen zutenak "fedegabeak" eta katoliko ororen etsai gisa definituz. Francori elizak emaniko babesari esker, hauek trukean Errepublikaren urteetan galdutako gizartearen gaineko kontrola eta boterea berreskuratu zuten, izan ere katolikoen oinarrizko printzipioak (emakumearen baztertzea, dibortzioa atzera botatzea, hezkuntzan eskuhartzea…) lege bilakatu ziren.

Nahiz eta elizaren babesa ia erabatekoa izan zen, bere kide guztiak ez ziren Errepublikaren aurka lerratu, elizako kide guztiek ez baitzioten honi bizkarra eman. Ehunka izan ziren apaiz, parroko edo apaiz lagunkideak balore errepublikano edo demokratikoekin bat egiten zutenak eta kolpisten erregimen autoritarioa babestu ez zutenak. Izan ere, egon ziren elizgizon errepublikanoak eta abertzaleak, zeintzuk elizaren agintari nagusien aurka lerratu ziren, beraien idealen eta herritarren defentsan eta hauek guztiek Eliza beraren eta erregimenaren errepresio gordina jasan behar izan zuten.

1936ko uztailetik aurrera, ehunka izan ziren elizaren irizpideei bizkarra eman eta beraien herritarren defentsan lan egin zutenak. Egon ziren gudariekin batera frontera joan ziren apaizak, meza ematen zutenak, euskararen aldeko lana egin zuten idazle, olerkari edota euskal kultura eta Euskal Herria babestu zutenak. Ondorioz, elizgizon hauek tradizionalisten bazterkeria jasan zuten eta kolpisten esku eroriz gero bortizkeria eta errepresioa besterik ez zuten jasoko. Euskal apaizen dagokionez, 17 pertsona fusilatu zituzten eta berrehun inguruk kolpistek antolatutako tribunal militarretan gerra kontseiluei aurre egin behar izan zieten. Epaiketa hauetan, kolpistek katoliko txar gisa aurkezten zituzten eta beraien ideiak albo batera uztera bultzatzen zituzten, baldin eta ez bazuten urte luzez kartzelan egon nahi. Gerra kontseiluetan asko izan ziren heriotzara kondenatu zituztenak edota biziarteko espetxealdiak edota kondena luzeak jaso zituztenak. Hauek, apaizentzat propio antolatu ziren ziegetan giltzapetu zituzten, non tratu txarrak, bazterkeria, elizgizon kolpisten gorrotoa eta mespretxua eta beraien jardun erlijiosoa garatzeko ezintasuna sufritu zuten. Horretaz gain, behin espetxetik irteten zirenean, deserrira kondenatzen zituen Eliza katolikoak, eta Euskal Herritik ehunka kilometrotara zeuden herri edota kongregazioetara bidali zituzten, beraien herrietara itzultzea debekatuz urte luzetan. Beste 800 kide, inolako epaiketa gabe deserriratuak izan ziren. Azkenik, ez ziren gutxi izan ere kolpistak gailentzen zirela ikusiz erbestera ihes egitea erabaki zutenak, asko Hego Amerikara bezalako kokaguneetara, hamarnaka urtez itzuli gabe edota inoiz Euskal Herria berriro ikusi ez zutenak.

Urnietaren kasuan, lau izan ziren estatu-kolpearen aurka agertu zirenak, zeintzuk herriko mugimendu abertzaleko partaide ziren eta ondorioz kolpisten defentsan lehen unetik lerratu ziren Ayerbe Irastorza anaien gorrotoa jaso zuten, udal idazkaria bat eta herriko parrokoa bestea. Juan Ayerbe,

4.5. LA PERSECUCIÓN CONTRA LOS CLÉRIGOS DE URNIETA

La Iglesia católica apoyó el intento de los militares golpistas desde el primer momento, ofreciendo una base ideológica y justificando el régimen desde el inicio. Eso supuso una gran ayuda para los golpistas, tanto para movilizar a ámbitos tradicionalistas de la sociedad, como a la hora de llevar a cabo el control social y la represión contra sus adversarios. Para ello, la Iglesia católica definió el golpe de Estado y la guerra consecuente como una guerra contra los enemigos de la Iglesia, "Santa cruzada", y la República y a los que lo defendían como "infieles" y enemigos de todos los católicos. Gracias al apoyo dado por la Iglesia a Franco, esta a cambio recuperó, el control y el poder sobre la sociedad que habían perdido durante los años de la República, ya que los principios fundamentales de los católicos (marginación de la mujer, revocar el divorcio, participar en la educación…) se convirtieron en leyes.

Aunque el apoyo de la Iglesia a los golpistas fue casi total, no todos sus miembros se alinearon en contra de la República, no todos los miembros de la Iglesia le dieron la espalda, ya que fueron cientos los curas, párrocos o vicarios coadjutores que se unieron a los valores republicanos o democráticos y que no apoyaron el régimen autoritario de los golpistas. De hecho, hubo eclesiásticos republicanos y abertzales, que se alinearon en contra de las autoridades superiores de la Iglesia, en defensa de sus ideales y de los ciudadanos y, por lo tanto, tuvieron que sufrir la cruel represión de la misma Iglesia y del Régimen.

A partir de julio de 1936, fueron cientos los que dieron la espalda a los criterios de la Iglesia y trabajaron defendiendo a sus ciudadanos. Hubo sacerdotes que fueron a combatir al frente con los gudaris, que daban misas, y apoyaron a escritores y poetas que trabajaron a favor del euskara, o que apoyaron la cultura vasca y Euskal Herria. En consecuencia, estos eclesiásticos sufrieron la exclusión de los tradicionalistas y si caían en manos de los golpistas, no recibirían más que violencia y represión. En lo que se refiere a los curas vascos, fueron 17 los fusilados y alrededor de 200 los que tuvieron que hacer frente a los consejos de guerra organizados por los golpistas en tribunales militares. En esos juicios, los católicos los presentaban como católicos malos y los incitaban a rechazar sus ideas, si no querían sufrir largos años de cárcel. En los consejos de guerra, fueron muchos los condenados a pena de muerte, a cadena perpetua o a largas condenas de prisión. Estos, fueron encarcelados en calabozos organizados expresamente para ellos, donde sufrieron malos tratos, exclusión, el odio y el desprecio de los curas golpistas, y la imposibilidad de ejercer su actividad religiosa. Además de eso, una vez que salían de prisión, la Iglesia católica los condenaba al destierro. Los enviaron a pueblos o congregaciones que estaban a cientos de kilómetros de Euskal Herria, prohibiéndoles volver a sus pueblos durante largos años. Otros 800 miembros fueron desterrados sin ningún tipo de juicio. Finalmente, no fueron pocos los que decidieron huir al exilio viendo que los golpistas resultaban vencedores. Muchos fueron a destinos como Sudamérica, sin volver durante decenas de años o sin volver a ver de nuevo Euskal Herria.

En el caso concreto de Urnieta, fueron cuatro los que se posicionaron contra el golpe de Estado. Participaban en el movimiento abertzale local y, por lo tanto, desde el primer momento se alinearon en contra de los golpistas; también recibieron el odio de los hermanos Ayerbe Irastorza, uno secre-

Euskal elizgizon batzuk Sevillako Carmona espetxean izan zituzten preso. (Sabino Arana Fundazioa). / **Algunos religiosos vascos los tuvieron presos en la prisión de Carmona en Sevilla.** (Sabino Arana Fundazioa).

herriko erretore nagusia zenak, bere lau apaiz-lagunkideak salatu zituen kolpistek herria 1936ko irailean armez hartu zutenean eta ondorioz, espetxea eta deserria pairatu behar izan zuten.

tario municipal y el otro párroco del pueblo. Precisamente este último, Juan Ayerbe, párroco principal del pueblo, denunció a sus cuatro vicarios coadjutores cuando los golpistas tomaron el pueblo por las armas en septiembre de 1936, y, en consecuencia, tuvieron que sufrir la cárcel y el destierro.

ESPETXEA ETA DESERRIA PAIRATU ZUTEN URNIETAKO ELIZGIZONAK /
ECLESIÁSTICOS DE URNIETA QUE SUFRIERON LA CÁRCEL Y EL DESTIERRO

IZENA / NOMBRE	KONDENA / CONDENA
ISASA ENATARRIAGA, CEFERINO	Kapilau koadjutorea Urnietan. 2 hilabetez egon zen preso Gasteizko seminarioan. 1937ko otsailaren 15ean, Gasteizko bikario orokorrak deserriratze agindu bat igorri zuen bere aurka eta seminario batera eramatea agindu zuen / Capellán coadjutor en Urnieta. Estuvo 2 meses preso en el seminario de Gasteiz. El 15 de febrero de 1937, el vicario general de Gasteiz envió una orden de destierro en su contra y ordenó llevarlo a un seminario
ECHEVERRIA-BARAYARZA LARRAMENDI, JOSE ANTONIO	Kapilau koadjutorea Urnietan. Preso egon zen / Capellán coadjutor en Urnieta. Estuvo preso
ANDONEGUI OLAZABAL, EUSTAQUIO	Kapilau koadjutorea Urnietan. Preso egon zen / Capellán coadjutor en Urnieta. Estuvo preso
*** *, IGNACIO**	Juan Ayerbek salatua eta espetxeratua / Denunciado por Juan Ayerbe, y encarcelado

Jose Antonio Echeverria-Barayarza koadjutorea, Juan Ayerbe erretorearen salaketagatik espetxeratu zuten. (Erretratu zaharrak). / **El coadjutor José Antonio Echeverria-Barayarza fue encarcelado por la denuncia del párroco Juan Ayerbe.** (Erretratu zaharrak).

orr.

4.6. ERREPRESIO EKONOMIKOA

Urnietan Andoaindik eta Buruntza gainetik kolpisten tropak sartu ziren unetik bertatik, kolpistek hauen aurka borrokatu eta beraien herria defendatu zuten pertsona ororen ondasunak eduki zituzten jomugan.

Izan ere, estatu-kolpe saiakeraren porrota eta gero, Espainiako Estatuko hiriburua eta industria gune nagusiak Errepublikari leial mantendu ziren eta beraz kolpistek diru-funtsak egonkortu eta areagotzeko beharra zuten, gerra esfortzua mantendu ahal izateko. Horrela, behin eta berriz zergak igo edota berriak ezartzeaz gain ondasunen konfiskazioa ezinbesteko tresna bat bilakatu zen hauentzat, herria utzi zutenen etxe, jabetza, industria edota finantzak jo-mugan ezarriz. Hauek, kolpistak herriak hartu eta lehen egunetan inprobisazioz eta indarkeriaz egin ohi zituzten, herria bera hartu zuten tropak ehunka abere, ondasun txiki eta jaki arpilatuz. Lehen egunak, biolentzia eta kaos egoera muturreko batekoak izaten ziren, non lapurretak, indarkeria eta biolentzia oso ohikoak izaten ziren.

Karlistak hemen sartzekoak zeuden eta aitak esaten zuen Nafarroatik zatoztela. Han Iruñeko plaza famatu horretan, Plaza Castillón sekulako pila elkartu ziren eta honantz etorri ziren. Frentea hemen zegoen nazionalistena, Ibarborenean. Goizean jaiki eta bidean, hanka arrastoak begira ibili zen aita ea pasa ziren jakiteko. Horrelako batean: "Paisano vete a casa". Eta atzetik konturatu zen soldadu pila bat zeudela denak lo. Etxera etorri zen. Bera oso azkarra zen negozioetan, esan dizut lehen etxeak ere egin zituela, 10 pisukoak ere bai. Gerra garaian Zumarragatik ere bazatozten. Hor ere bagenuen ur depositua eta meta bat egin zuen ura tapatzen zuela. Koltxoiarekin jarri ziren. Aitona, nire amaren aita, segari grasa ematen ari zion eta zakuak eta lur azpian sartzen ari zela soldadu batek harrapatu eta egoera txarra izan zuen. Horrelako txorakeriekin afusilatu egiten zuten[446]

Hala ere, aipatu izan den bezala, 1936ko irailaren 13an 108 dekretua igorri zuen kolpisten Defentsa Batzorde Nazionalak. Bertan, kolpisten aurka agertu ziren alderdi, sindikatu eta antolakunde oro legez kanpo utzi zituzten eta hauen ondasun guztiak Estatuak desjabetu zituen. Honek guztiak, ondasunen konfiskaziorako oinarri legal bat eskaini zion erregimen berriari.

Urnietaren kasuan, herria uztera behartuak agertu ziren ehunka pertsonen ondasunen aurkako errepresioa 1936ko urrian abiatu zen. Izan ere, behin Gipuzkoa osoa kolpisten esku erorita eta gerra frontea Bizkaiko mugetako mendietan egonkortua, kolpistek Gipuzkoako instituzioak bereganatu zituzten eta hau baliatuz ondasunak konfiskatzeari ekin zioten. Horrela, Lasarten Komandantzia Militar berria eratu zuten, urriaren 9an, Andoain, Urnieta, Hernani, Usurbil, Orio eta Aiako herrien ardura militarra izango zuena. Komandantzia berriak, Mirentxu izeneko etxean ezarri zuen egoitza. Egoitza hau, Miguel Urreta Echevesteren eraikina zen, denborara konfiskatua izan zena. Hau ezartzearekin batera, egun berean Urnietako udalari herriko industrien zerrenda, hutsik zeuden baserriena, beraien jabe eta errentariena eta hutsik zeuden etxebizitza eta gelen zerrenda, hauen jabe edota errentariekin bidaltzeko agindua pasa zion[447].

4.6. REPRESIÓN ECONÓMICA

Desde el instante en el que las tropas golpistas entraron en Urnieta por Andoain y por el monte Buruntza, los golpistas tuvieron en el punto de mira los bienes de todas las personas que habían defendido su pueblo combatiendo contra ellos.

Tras el fracaso del intento de golpe de Estado, la capital del Estado español y las principales zonas industriales se mantuvieron leales a la República y, por lo tanto, los golpistas tenían la necesidad de estabilizar y aumentar los fondos monetarios, para poder mantener el esfuerzo de guerra. Así, además de subir una y otra vez los impuestos o imponer otros nuevos, la confiscación de bienes fue una herramienta indispensable, y de ese modo pusieron en el punto de mira las casas, propiedades, industrias o finanzas de los que habían abandonado el pueblo. Los golpistas lo solían hacer en los primeros días en que tomaban los pueblos. Improvisadamente y con violencia, las mismas tropas que tomaban el pueblo saqueaban cientos de animales, pequeños bienes y comida. Los primeros días solían ser de una situación extrema de violencia y caos, donde los robos y la violencia eran muy habituales.

"Los carlistas estaban a punto de entrar aquí y el padre decía que venían de Navarra. Allí, en aquella famosa plaza de Iruña, la Plaza del Castillo, se juntaron muchos y vinieron hacia aquí. El frente de los nacionalistas estaba aquí, donde Ibarburu. El padre se levantó a la mañana y en el camino estuvo mirando rastros, para saber si habían pasado. De pronto: "Paisano vete a casa". Y se dio cuenta que detrás había muchos soldados durmiendo. Vino a casa. Él era muy hábil para los negocios, ya te he dicho antes que también anduvo haciendo casas, incluso de 10 pisos. Durante la guerra también venían de Zumarraga. Ahí teníamos un depósito de agua e hizo un almiar para taparlo. Se pusieron con el colchón. El abuelo, el padre de mi madre, estaba dando grasa a la guadaña y cuando estaba metiendo los sacos y demás bajo tierra lo pilló un soldado y tuvo una mala situación. Por tonterías como esa solían fusilar[446]*"*

De todos modos, tal como se ha mencionado, el 13 de septiembre de 1936 la Junta de Defensa Nacional de los golpistas emitió el decreto nº 108. En él, dejaron fuera de la ley a toda organización, partido político y sindicato que se mostró contrario a los golpistas, y el Estado expropió todos sus bienes. Todo ello ofreció una base legal al Nuevo Régimen, para la confiscación de los bienes.

En Urnieta, la represión contra los bienes de los cientos de personas que se vieron obligados a abandonar el pueblo empezó en octubre de 1936. Una vez estuvo toda Gipuzkoa en manos de los golpistas y el frente de guerra estaba estabilizado en los montes de la frontera de Bizkaia, los golpistas se hicieron con las instituciones de Gipuzkoa, y valiéndose de eso, empezaron a confiscar los bienes. Así, nombraron una nueva Comandancia Militar en Lasarte, el 9 de octubre, que tendría la responsabilidad militar sobre Andoain, Urnieta, Hernani, Usurbil, Orio y Aia. La sede de la nueva comandancia se estableció en villa Mirentxu. Entonces, el edificio era de Miguel Urreta Echeveste, y más tarde le fue confiscado. El mismo día en el que se estableció la sede, trasmitieron al Ayuntamiento de Urnieta la orden de enviar la lista de las industrias, de los caseríos, viviendas y habitaciones vacías, con los dueños y arrendatarios de todos[447].

[446] Isidro Iguaran Elizondoren testigantza / Testimonio de Isidro Iguaran Elizondo.
[447] UUA, 1936ko udal-korrespondentzia / AMU, correspondencia municipal de 1936.

Hala ere, konfiskazioak iraila hasieratik hasiak ziren. Armada kolpistako soldaduek ohikoa zuten arpilatzeak egitea inguruetako baserrietan, animaliak eta jakiak eramanez. Horretaz gain, aurkitzen zuten eta desiragarria zitzaien edozer eramateko gai ziren. Horrela, Izaguirre Arrue sendiari, Inbutegi Behekoa baserrikoei kolpisten armadak ukuilu guztia miatu eta oilo guztiak eraman zizkieten bi izan ezik eta txekorren bila ere ibili ziren baina etxean ez zeudenez une horretan ez zituzten eraman[448]. Hala ere, kolpistek behin Gipuzkoa beraien esku izan zutenean, lege babesa eman nahi izan zien konfiskazioei eta horretarako udalbatza berriak Luis Recondo eta Manuel Izaguirre izendatu zituen konfiskazio hauek egiteko eta Orian eman ziren miatze eta konfiskazioak aurrera eramateaz arduratu ziren[449].

De todos modos, las confiscaciones ya habían empezado desde inicios de septiembre. Era habitual que los soldados del Ejército golpista hicieran saqueos en los caseríos de los alrededores, llevándose animales y víveres. Además de eso, eran capaces de llevarse cualquier cosa que encontraran y les resultara apetecible. Por ejemplo, a la familia Izaguirre Arrue del caserío Inbutegi Behekoa, le registraron todo la cuadra y les llevaron todas las gallinas, excepto dos, y también anduvieron buscando terneros, pero como en ese momento no los tenían en casa, no se los pudieron llevar[448]. De todos modos, una vez que los golpistas tuvieran toda Gipuzkoa en sus manos, quisieron dar protección legal a las confiscaciones y, para ello, la corporación municipal nombró a Luis Recondo y Manuel Izaguirre para llevar a cabo los registros y confiscaciones de Oria[449].

Goatzen naiz, gure izebak eta taberna ta zuen ordun ta desbalijatu zizkien, bastante gauza harrapatu zizkien, baiño herriko jendiak e! Soldaduk ez, herriko jendiak … Ta geo eraztun bat goatzen zat. Nere izebak eta nere amak eraztun bat eosi zittuen ta nere izebak gordian zakan eraztun hoi, nik pixkat hazitzeako eta hua eaman in zien. Ta gure izeba horrek elizan baten bati ikusi hua, eraztun hua. Ta klaro, gure aittona zana hain zan fededuna ta hain zan gizona zan aittona: "ez kasoik in, utzi bere kontzientziak". Ta ordun holaxe zian[450].

Oriaren kasuan, ehunka izan ziren auzoa utzi eta herritik ihes egitera behartuak agertu zirenak. Hauek gainera askotan familia osoak izan ziren, soinean eraman zitzaketen ondasun gutxiekin etxea eta herria atzean utzi zutenak. Horietako asko ez ziren berriro Oriara itzuliko, gerraren ondorioz bizia galdu edota erbestera ihes egitea erabaki zutelako. Hala ere, itzuli zirenak ere ez zuten egoera samurra aurkitu, lanik gabe (Brunetetik kanporatuak izan baitziren) eta beraien etxeetan beste familia batzuk bizitzen aurkitu zituzten. Hori dela eta, gerra aurretik Orian bizi ziren askok, bigarren aldiz herria utzi behar izan zuten, bizimodua aurrera ateratzeko lanpostu eta bizitzeko etxe baten bila.

En Oria fueron cientos de personas las que se vieron obligadas a abandonar el barrio y huir del pueblo. Además, muchas veces, solían ser familias enteras que dejaron la casa y el pueblo con los pocos bienes que podían llevar encima. Muchos de ellos no volverían a Oria, porque perdieron la vida en la guerra o porque decidieron huir al exilio. De todos modos, los que volvieron tampoco encontraron una situación tierna: sin trabajo (pues habían sido despedidos de Brunet) y, además, encontraron a otras familias viviendo en sus casas. Debido a ello, muchos de los que vivían en Oria antes de la guerra tuvieron que abandonar el pueblo por segunda vez, en busca de un puesto de trabajo y una vivienda para sacar la vida adelante.

Aurrekoetxea eta Iturralde etxeak, tranbiaren bidea aurrean dutela 1940an. (Oria bizitzako erkidegoa, lanaren eremua). / **Las casas Aurrekoetxea e Iturralde, con la vía del tranvía ante ellos, en 1940.** (Oria, una comunidad de vida, un espacio de trabajo).

[448] Miguel Izagirre Arruek Ahotsak.eus-i eskainitako elkarrizteka, URN-016 kodea / Entrevista concedida por Miguel Izagirre Arrue a *Ahotsak.eus*, código URN-016.
[449] UUA, 1938ko udal-korrespondentzia / AMU, correspondencia municipal de 1938.
[450] Conchi Zaldua Zabalaren testigantza / Conchi Zaldua Zabalaren testigantza.

ETXEKO ONDASUNAK KONFISKATU ZIZKIETEN HERRITARRAK /
HABITANTES A LOS QUE LES CONFISCARON LOS BIENES DE CASA

IZENA / NOMBRE	BIZITOKIA / LUGAR DE RESIDENCIA
ALBA, MIGUEL LUIS	Iturralde
ALCORTA ZABALETA, TEODORO	Aurrekoetxea
AIZPURUA ISASA, MARCELINO	Gizaldi berri
ALCORTA ADARRAGA, TOMAS	Iturralde
ALCORTA CHINCHURRETA, IGNACIO	Gizaldi berri
ALDAZ HUARTE, BAUTISTA	Aurrekoetxea
ALDAZ, BONIFACIO	Gizaldi berri
ALONSO BERMUDEZ, ATILANO eta EGUILUZ ZUGAZTI, MARIA	Etxeluze
ALONSO TURRIENTES, JULIO	San Juan kaleko 21 zenbakiko etxeko ondasunak / Bienes de la vivienda en el nº 21 de la calle San Juan
ARAMENDI SAIZAR, MAGDALENA	Berakoetxea
ARREGUI, JUAN	Gizaldi berri
AZPEITIA, JOSE	Iturralde
BAJO BENITO, PAULA	Iturralde
BELOQUI, PEDRO	Gizaldi berri
BLAZQUEZ, GERONIMA	Gizaldi berri
CABRERIZO GRACIA, DIONISIO	Gizaldi berri
CANO OLLOQUIEGUI, SEVERO	Aurrekoetxea
CHINCHURRETA BELOQUI, MAXIMA	Gizaldi berri
CHINCHURRETA, EUGENIA	Barazalde
CORTAJARENA AYESTARAN, JUAN JOSE	Sabino Arana kaleko etxea / Casa de la calle Sabino Arana
ECHANIZ SAGARZAZU, FRANCISCO	Etxeluze
ECHANIZ, MANUEL	Etxeluze
ECHEZAR EXPOSITO, FERNANDO	Zelaialde
ECHEZAR GARRO, FEDERICO	Gizaldi berri
ECHEZAR GARRO, LORENZO	Iturralde
EIZMENDI ZABALA, JOSEFA ANTONIA	Gizaldi berri
FERNANDEZ, MANUEL	Etxeluze
FERNANDEZ, MANUEL	Gizaldi berri
GABILONDO ECHANIZ, JOAQUIN	Aurrekoetxea
GABILONDO ECHANIZ, MARIA	Barazalde
GABILONDO EPELDE, FELIPE	Gizaldi berri
GALINDO INCHAUSTI, AURELIA	Gizaldi berri
GAMBOA LOPEZ, JERONIMO	Zelaialde
GARMENDIA SAN SEBASTIAN, NIEVES	Sabino Arana kaleko etxea / Casa de la calle Sabino Arana
GARRO TOLOSA, ANGEL	Gizaldi berri
GARRO TOLOSA, ELENA	Gizaldi berri
GAZTAÑAGA GOICOECHEA, JUAN	Etxeluze
GAZTAÑAGA RODRIGUEZ, RAFAEL	Gizaldi berri

IZENA / NOMBRE	BIZITOKIA / LUGAR DE RESIDENCIA
GODOY GONZALEZ, JUAN	Sabino Arana kaleko 10 zenbakian gela bat / Habitación en el nº 10 de la calle Sabino Arana
GOMEZ VIDAL, LUZ	Gizaldi berri
GOÑI LARRETA, IGNACIO	Etxeluze
GOYARAN IZAGUIRRE, JUAN TOMAS	Aurrekoetxea
GOYARAN OLAZAGUIRRE, MANUEL	Etxeluze
GOYARAN OLAZAGUIRRE, MIGUEL	Aurrekoetxea
HERNANDO GARCIA, MOISES	Etxeluze
HERNANGIL ANTON, CIPRIANO eta YUBERO MARTINEZ, ANTONIA	Etxeluze
IDIGORAS GURIDI, JOAQUIN eta GOYARAN OLAZAGUIRRE, MARIA	Aurrekoetxea
LICEAGA ZUAZNABAR, JOSE	Errementari tailerreko materiala / Material del taller de herrería
LOPEZ GARIN, ANTONIO	Sabino Arana kaleko etxea / Casa de la calle Sabino Arana
LOPEZ, MANUEL	Etxeluze
MANUEL LOPEZEN ALARGUNA	Gizaldi berri
MARTIN BARROSO, ANDRES	Gizaldi berri
MARTIN BARROSO, JUAN	Gizaldi berri
MIGUEL ECHEONDOREN ALARGUNA	Etxeluze
MIRON VERA, JOSE	Aurrekoetxea
MUGA FERNANDEZ, JACINTO	Aurrekoetxea
MUGICA, JUAN	Aurrekoetxea
ORBEGOZO LARMENBRITE, AGUSTIN eta GARRO TOLOSA, GREGORIA	Barazalde
PERTICA MAZO, JUAN MARIA	
POZAS GALLEGO, DANIEL	Etxeluze
RODRIGUEZ, MARINA	Etxeluze
ROMO LACALLE, GUILLERMO eta IRULEGUI ZUBILLAGA, JUANA	Etxeluze
ROMO, BALDOMERO	Etxeluze
ROMO, SATURNINO	Aurrekoetxea
SAENZ LEON, JESUS	Mimendia
TRULA, ANGEL	Gizaldi berri
URCELAY, MARTINA	Iturralde
URIA, NATALIO	Aurrekoetxea
VICUÑA BELOQUI, LUIS eta FERRERO MUGA, CELESTINA	Zelaialde
YAÑEZ AÑORGA, JOSE	Iturralde
YAÑEZ, JOSE	Aurrekoetxea
ZABALETA ARTOLA, PABLO	Sabino Arana kaleko etxea / Casa de la calle Sabino Arana



Pertenece a ORIA = Barrio de URNIETA 50

INVENTARIO, del moviliario y demás enseres que se hallaban en la habitación de que ocupaba ELENA GARRO, en la casa propiedad de los Sres. [illegible] y Cª, quien su ausento yse ignora su paradero.

N Ú M E R O Y O B J E T O S

cinco ..... camas de madera
tres ..... jergones
dos ..... somniers
tres ..... mesillas
dos ..... colchonetas
cuatro ..... sabanas usada
dos ..... armarios de luna
dos ..... tocadores
una ..... cuna de niño
un ..... baul
un ..... armario
lo ..... tazas para cafe con sus platillos
seis .....sillas
varios vasos y copas de cristal de diferentes tamaños
Con ese objetivo, el 9 de marzo de 1939, publicaron una nueva ley llamada Ley de Responsabilidades Políticas, y se dio inicio a una segunda fase de la represión económica. Para ello, se crearon unos tribunales especiales llamados Tribunales Regionales de Responsabilidad Política, y el que se encargaba de los municipios vascos se encontraba en Iruñea. Este tribunal sustituyó a la Comisión Provincial de Bienes Incautados de Gipuzkoa. Estos tribunales estaban formados por miembros del Ejército español, de la magistratura y de la organización FET-JONS y tenían una característica distintiva: sus condenas eran retroactivas, esto es, aunque el condenado estuviera en el exilio, en prisión o muerto, si era juzgado y condenado, tenía que hacer frente a la pena, con sus bienes o con los de sus descendientes. Las condenas que imponían estos tribunales se movían en torno a tres ejes: por un lado, la sanción económica (la condena más habitual) las inhabilitaciones para puestos públicos de trabajo y los destierros[464].

Con ese objetivo, en Urnieta se investigaron los bienes y finanzas de todos los urnietarras que poseyeran por encima de una cantidad de dinero, sin tener en cuenta su naturaleza política ni su cargo. De ese modo, fueron decenas los urnietarras investigados. Se dieron casos especiales, como el de las personas que estaban a favor del Nuevo Régimen que fueron investigadas e incluso juzgadas.

Entre los urnietarras, fueron juzgados el que fuera el alcalde legítimo José María Belaunzaran Berridi y otros concejales, entre otros, pero las penas no fueron especialmente duras excepto la sentencia contra el alcalde. La razón de esto la podemos encontrar en la naturaleza económica de los vecinos. Muchos de los dirigentes que participaron en el Comité de Defensa de Urnieta, como Roque Lasarte y Bernardino Echezar, ya estaban muertos. Además, tal como atestiguan las comunicaciones enviadas al ayuntamiento, los miembros del movimiento obrero de Oria y Lasarte en general eran pobres y no tenían bienes a su nombre, como en el caso de Victorio Vicuña y algunos hermanos Echezar Garro, y por lo tanto, no tenían capacidad ni medios para hacer frente a las sanciones económicas. Además, como estaban en el exilio no se les podía obligar a pagar.

[464] Estatuko Buletin Ofiziala, 44 zenbakia, 1936/02/13, 824-827 orrialdeak / Boletín Oficial del Estado, nº 44, p. 824-827, 13/02/1936.



VILLA DE URNIETA — Responsabilidades políticas

Relacion de las personas que, comprendidas en la recibida del Tribunal Regional de Responsabilidades Politicas de Navarra, poseen a juicio de la Alcaldia, capital igual o superior a 15.000 pts. o disponen de jornal no inferior.
Se devuelve la propia relacion con anotacion en ella, con lapiz rojo, de las siguientes:

Nombres y apellidos

D. Antonio Tejeria
- Antonio Almorza
- Angel Izaguirre
- Bartolome Lasarte
- Eugenio Ezcaiaz
- Fernando Alcain
- Felipe Zaldua
- Gregorio Orbegozo
- Gregorio Arruarte
- Ignacio Garmendia
- Jose Mª Peñagaricano
- Jose Antº Ormazabal
- Juan Cruz Izaguirre
- Juan Ventorela
- Josefina Guerra (Fallecida)
- Juan Ignacio Beraza
- Jose Maria Ezcaiaz
- Jose Elicegui
- Mª Petra Belaunzaran
- Maria Ramona Belaunzaran
- Mª Zamalamarregui e Hijos
- Magda Galarza
- Martin Egaña
- Manuel Eluztondo
- Maria Josefa Olano
- Matias Urruzola
- Pedro Goicoechea
- Romualdo Irizar
- Tomas Belderrain
- Victor Almorza
- Vicente Lizurume
- Viuda de Elcicegui

Urnieta a 6 de Junio, 1941
El Alcalde,

Bartolome Ugalde alkateak, TRRPNarentzat eskuz markatu zituen erantzunkizun politikoak zituztelakoan ikertu beharreko herritarrak. (UUA). **/ El alcalde Bartolomé Ugalde marcó a mano, para el TRRPN, los urnietarras que debían ser investigados por presuntas responsabilidades políticas.** (AMU).

ALMORZA AZCUE, VICTOR

1898ko uztailaren 28an jaio zen Urnietan eta Beratsaburu baserrian bizi zen, ezkondua zegoen eta sei seme-alaba zituen, familia baserriko lurrak lantzetik bizi zelarik[465]. Errepublika garaian, EAJra afiliatua zegoen eta udaleko zinegotzi ere izan zen. Urnietan, altxamendua eman zenean, ez zuen honen aurka antolatu ziren talde edota antolakundeetan parte hartu. Halaber, autoritate frankistek, Lasarteko abiazio zelaira lan egitera bidali zuten. Autoritate frankista berriak herrian ezarri zirenean, Victor, errepresioaren beldur seguruenik, FET-JONS antolakundera afiliatu zen, baina Errepublika garaian izan zuen jardun politikoagatik erantzule zela ebatzi zuen tribunalak eta 200 pezetako isuna ezarri zion, 1942ko martxoaren 2an[466].

Nació en Urnieta el 28 de julio de 1898 y vivía en el caserío Beratsaburu; estaba casado, tenía seis hijos y vivía de cultivar las tierras del caserío familiar[465]. Durante la República, estaba afiliado al PNV y también fue concejal del ayuntamiento. Cuando se dio la sublevación militar, no participó en los grupos u organizaciones que se organizaron en su contra en Urnieta. Más tarde, las autoridades franquistas lo enviaron a trabajar al campo de aviación de Lasarte. Cuando las nuevas autoridades franquistas se establecieron en el pueblo, Víctor se afilió a las FET-JONS, seguramente por miedo a la represión, pero el tribunal dictaminó que era responsable de las actividades políticas durante la República, y el 2 de marzo de 1942 le impuso una multa de 200 pesetas[466].

ARREGUI BERRIDI, JESUSA

1873an jaio zen Donostian, baina Urnietako Garratza etxera ezkondu zen, Oztaranen; alarguna zen eta etxean lan egiten zuen emakumea zen[467]. Ideia abertzaleak zituen pertsona zen, baina ez zuen ez politikan ez eta defentsa komitean lan egin, beraz salaketa funtsik gabekoa zela ebatzi eta gero tribunalak absolbitu egin zuen, 1942ko otsailaren 24ean[468].

Nació en Donostia el año 1873, pero se casó a la casa Garratza (Oztaran) de Urnieta; era viuda y era una mujer que trabajaba en casa[467]. Era una persona de ideales abertzales, pero no trabajó ni en política ni en el Comité de Defensa y, por lo tanto, el tribunal dictaminó, el 24 de febrero de 1942, que la denuncia no tenía fundamento y Jesusa fue absuelta[468].

ARRUARTE JUANGORENA, GREGORIO

1889ko uztailaren 10ean jaio zen, Urnietan eta Gurutzeaga baserrian bizi zen, Lategi auzoan, nekazaria zen eta familia baserritik bizi zen[469]. EAJ alderdiaren jarraitzailea zen, nahiz eta ez egon afiliatua eta altxamendua eman zenean, ez zuen parte hartze aktiborik izan honen aurkako mugimenduetan. Hori dela eta, tribunalak inolako erantzukizunik ez zuela ebatzi zuen eta absolbitu egin zuen 1942ko martxoaren 6an[470].

---

465 UUA, sig. PA00.06 / AMU, sig. PA00. 06.
466 NAO / AGN, TRP. Lb.3, Nº 1479 / AGN, TRP. Lb. 3, Nº 1479.
467 UUA, sig. PA00.06 / AMU, sig. PA00. 06.
468 NAO / AGN, TRP. Lb.3, Nº 1470 / AGN, TRP. Lb. 3, Nº 1470.
469 UUA, sig. PA00.06 / AMU, sig. PA00. 06.
470 NAO / AGN, TRP. Lb.3, Nº 1491 / AGN, TRP. Lb. 3, Nº 1491.

Nació en Urnieta el 10 de julio de 1889 y vivía en el caserío Gurutzeaga (Lategi). Era agricultor y vivía del caserío familiar[469]. Era simpatizante del PNV, aunque no estaba afiliado, y cuando se dio la sublevación militar, no participó activamente en los movimientos en su contra. Por ello, el tribunal dictaminó, el 6 de marzo de 1942, que no tenía ninguna responsabilidad y fue absuelto[470].

Gregorio Arruarte, udalbatzak Juan Bautista Zumalacarreguiri eginiko homenaldian (1929). (UUA). **/ Gregorio Arruarte en el homenaje realizado por la corporación municipal a Juan Bautista Zumalacarregui, en 1929.** (AMU).

BELAUNZARAN BERRIDI, JOSE MARIA

1891ko abenduak 6an jaio zen Urnietan eta San Juan kalean bizi zen, bere ama eta arrebarekin[471]. Abokatua ofizioz, EAJko kidea zen eta herriko alkatea 1931ko hauteskundeetan hautatua irten eta gero. Errepublikaren aurkako estatu-kolpea eta gero, bere karguan mantendu zen, herriko defentsa komitearekin elkarlanean jardunez. Horretaz gain, EAJren inguruko jendea milizietara batzea sustatu zuen. Hori dela eta, herria utzi behar izan zuen eta Bizkaian babestu zen hasiera batean, Frantziako Estatuan errefuxiatu aurretik (1942an bertan bizitzen jarraitzen zuen)[472]. Bere jardun politikoa zela eta, errepresio ekonomiko latza jasan zuen, bere ondasun guztiak konfiskatu baitzizkioten udaleko buru frankistek, beraiek kudeatzera pasaz[473]. Horretaz gain, Errepublikan izan zuen kargu politikoa zela eta tribunal honek epaiketa bat burutu zuen bere aurka, 1942ko martxoaren 16an, non bere ondasunen aurkako enbargoa konfirmatu zen eta horretaz gain 25.000 pezetako isuna ezarri eta 15 urtez Urnietatik 50 kilometroko deserriratzera kondenatu zuten[474]. Sententzia hau irmo mantendu zuten frankistek 1958ko martxoaren 3a arte, izan ere data honetan sententziaren gaineko indultua lortu zuen Jose Mariak[475].

Nació el 6 de diciembre de 1891 en Urnieta, y vivía en la calle San Juan junto con su madre y su hermana[471]. De oficio era abogado; también era miembro del PNV y alcalde del pueblo, tras ser elegido en las elecciones de 1931. Tras el golpe de Estado contra la República, se mantuvo en su cargo, trabajando conjuntamente con el Comité de Defensa local. Además, promovió que la gente del entorno del PNV se uniera a las milicias. Debido a ello, tuvo que abandonar el pueblo. Al principio se refugió en Bizkaia, antes de hacerlo en el Estado francés (en 1942 seguía viviendo allí)[472]. Debido a su actividad política, sufrió una dura represión económica, pues los dirigentes franquistas del ayuntamiento le confiscaron todos sus bienes, y los gestionaban ellos[473]. Además de eso, debido al cargo político que tuvo durante la República, este tribunal llevó a cabo un juicio en su contra el 16 de marzo de 1942, donde se confirmó el embargo contra sus bienes y, además de eso, le impusieron una multa de 25 000 pesetas y le condenaron al destierro a 50 kilómetros de Urnieta, durante 15 años[474]. Esta sentencia se mantuvo firme por los franquistas hasta el 3 de marzo de 1958, cuando José María logró el indulto[475].

[471] UUA, sig. PA00.06 / AMU, sig. PA00. 06.
[472] NAO / AGN, TRP. Lb.3, Nº 1510 / AGN, TRP. Lb. 3, Nº 1510.
[473] UUA, sig. 1948.29. / AMU, sig. 1948.29.
[474] NAO / AGN, TRP. Lb.3, Nº 1510 / AGN, TRP. Lb. 3, Nº 1510.
[475] Ministerio de Cultura y Deporte, Archivo CDMH, TNRP, sig. 75/00077 / Ministerio de Cultura y Deporte, Archivo CDMH, TNRP, sig. 75/00077.

BELAUNZARAN BERRIDI, RAMONA

1898 urtean jaio zen Urnietan eta Jose Maria eta Maria Petraren ahizpa zen, udalak bere izenean zeuden Beltraenea eta Oiamar etxeak konfiskatu zizkion[476]. Ramona baina Donostian bizi zen eta erregimenaren aldetik baimen bat lortu eta gero Frantziako Estatura mugitu zen, non bere anaia zegoen errefuxiatua. Hala ere, udalak Erantzukizun Politikoen Tribunalei ikertzeko bidalitako zerrendan txertatu zuen, EAJko jarraitzailea zelako. Tribunalek, bere ahizpa Petraren kasuan bezala absolbitu egin zuten, 1944ko ekainaren 15ean, inolako erantzukizunik egotzi gabe[477].

Hermana de José María y María Petra. El ayuntamiento le confiscó las casas Beltraenea y Oiarmar que estaban a su nombre[476]. Pero Ramona vivía en Donostia, y tras recibir un permiso por parte del régimen, se movió al Estado francés, donde estaba refugiado su hermano. De todos modos, el Ayuntamiento la incluyó en la lista enviada al Tribunal de Responsabilidades Políticas, porque era simpatizante del PNV. Los tribunales la absolvieron, como en el caso de su hermana Petra, el 15 de junio de 1944, sin imputarle ninguna responsabilidad[477].

Ramona Belaunzaran eta Felipe Zabaloren ezkontza argazkia, Loyolan 1927 urtean. (Kutxateka). / **Boda de Ramona Belaunzaran y Felipe Zabalo en Loiola, en 1927.** (Kutxateka).

BELAUNZARAN BERRIDI, MARIA PETRA

1897ko martxoaren 3an jaio zen eta Urnietako San Juan kaleko familiaren etxean bizi zen[478]. Familia abertzale batekoa, EAJren gertukoa zen eta alkatearen arreba izanik, ikertua izan zen tribunalen aldetik. Hala ere, bizitza publikorik ez izatean eta kolpisten aurkako jarrerarik erakutsi ez zuenez, 1944ko ekainaren 15ean absolbitu egin zuten bere ahizparekin batera, inolako erantzukizunik egotzi gabe[479].

Nació en Urnieta el 3 de marzo de 1897 y vivía en la casa familiar de la calle San Juan[478]. De familia abertzale, era cercana al PNV y como era hermana del alcalde, fue investigada por los tribunales. De todos modos, al no tener vida pública y como no demostró ninguna postura contraria a los golpistas, fue absuelto junto con su hermana, el 15 de junio de 1944, sin imputarle ninguna responsabilidad[479].

BELDARRAIN SORONDO, TOMAS

1864ko abenduaren 26an jaio zen Urnietan, Sabino Arana kalean biziz[480]. Nekazaria ofizioz, herrian nagusi zen euskal abertzaletasunarekin bat egiten zuen, nahiz eta ez egon inolako alderdi politikora afiliatua. Gerrak eztanda egitean, ez zuen defentsa komitean edota inolako milizietan parte hartu edo lagundu, eta kolpistak Andoaindik herrian sartu zirenean bertan geratzea erabaki zuen. Erantzukizun Politikoen Tribunalak euskal abertzaletasunarekin zituen loturengatik ikertu eta epaitu zuen 1942ko otsailaren 24ean, baina egozten zizkioten ekintzek garrantzia penalik ez zutenez, absolbitu egin zuten Tomas[481].

Nació en Urnieta el 26 de diciembre de 1864 y vivía en la calle Sabino Arana[480]. De oficio era agricultor, y se unió al nacionalismo vasco imperante en el pueblo, aunque no estaba afiliado a ningún partido político. Cuando estalló la guerra, no participó ni ayudó al Comité de Defensa ni a ninguna milicia y, cuando los golpistas entraron en el pueblo por Andoain, decidió quedarse aquí. El Tribunal de Responsabilidades Políticas lo investigó y lo juzgó por la relación que tenía con el nacionalismo vasco, el 24 de febrero de 1942, pero como las acciones que se le imputaban no tenían importancia penal, Tomás fue absuelto[481].

EGAÑA GARMENDIA, MARTIN

1863ko martxoaren 18an jaio zen Urnietan eta Oztaran auzoko Araneder baserrian bizi zen. Ezkondua eta hiru alabarekin, baserriko lurrak lantzetik bizi zen bere familia[482]. Martin zinegotzi izan zen bi aldiz, Errepublika garaiaren aurretik, 1920-23 eta 1930-31 urteetan[483]. Errepublika garaian mugimendu abertzaleen jarraitzailea izan zen, baina ez zen inolako alderditara afiliatu. Adinez nagusia zenez, ez zuen herriko politikan parte hartu eta ezta ere kolpe militarraren aurka antolatu zen defentsa komitean. Hori dela eta, bere aurkako salaketa baztertu eta absolbitu egin zuten Martin, 1942ko otsailaren 25ean[484].

[476] UUA, sig. 1936.01 / AMU, sig. 1936. 01.
[477] Ministerio de Cultura y Deporte, Archivo CDMH, TNRP, sig. 75/00989 / Ministerio de Cultura y Deporte, Archivo CDMH, TNRP, sig. 75/00989.
[478] UUA, sig. PA00.06 / AMU, sig. PA00. 06.
[479] Ministerio de Cultura y Deporte, Archivo CDMH, TNRP, sig. 75/00989 / Ministerio de Cultura y Deporte, Archivo CDMH, TNRP, sig. 75/00989.
[480] UUA, sig. PA00.06 / AMU, sig. PA00. 06.
[481] NAO / AGN, TRP. Lb.3, Nº 1468 / AGN, TRP. Lb. 3, Nº 1468.
[482] UUA, sig. PA00.06 / AMU, sig. PA00. 06.
[483] UUA, 1942ko udal-korrespondentzia / AMU, correspondencia municipal de 1942.
[484] NAO / AGN, TRP. Lb.3, Nº 1474 / AGN, TRP. Lb. 3, Nº 1474.

Nació en Urnieta el 18 de marzo de 1863 y vivía en el caserío Araneder del barrio Oztaran. Casado y con tres hijas, su familia vivía de cultivar la tierra[482]. Martín había sido concejal dos veces, antes de la República, en los años 1920-23 y 1930-31[483]. Durante la República fue simpatizante de los movimientos abertzales, pero no se afilió a ningún partido. Como era una persona mayor, no participó en la vida política y tampoco en el Comité de Defensa que se organizó en contra del golpe militar. Debido a ello, la denuncia en su contra fue rechazada y Martín fue absuelto, el 25 de febrero de 1942[484].

ELICEGUI ARRIJURIA, JOSE

1871ko uztailaren 16an jaio zen Urnietan eta Lasarteko Etxadi etxean bizi zen. Nekazari arrunt bat bazen ere altxamenduaren aurkako jarrera izatea eta alderdi politiko batera afiliatua egotea egotzi zioten. Hala ere, akusazioak funtsik ez zuela ebatzi zuen tribunalak eta Jose absolbitu egin zuten 1942ko martxoaren 10ean[485].

Nació en Urnieta el 16 de julio de 1871, y vivía en el barrio de Lasarte. Siendo un agricultor corriente, le acusaron de tener una actitud contraria a la sublevación militar y le imputaron estar afiliado a un partido político. De todos modos, el tribunal dictaminó que la acusación no tenía ninguna base y José fue absuelto, el 10 de marzo de 1942[485].

GALARZA GALARZA, MARIA

Urdiainen jaioa, 1870eko uztailaren 29an, Urnietan bizi zen Sabino Arana kalean, 1917tik[486]. Euskal abertzaletasuren bataiko mugimendu politikoen jarraitzailea izan zenez eta 15.000 pezeta baino gehiagoko ondasunak zituenez, Erantzukizun Politikoen Tribunalak ikertu eta epaitu egin zuen azkenean, 1942ko otsailaren 24ean. Baina inolako delitu zantzurik aurkitu ez zutenez absolbitu egin zuten Maria[487].

Nació en Urdiain el 29 de julio de 1870, pero vivía en la calle Sabino Arana de Urnieta desde 1917[486]. Al ser simpatizante de los movimientos políticos abertzales y, además, al tener bienes con un valor superior a 15 000 pesetas, fue investigado y juzgado por el Tribunal de Responsabilidades Políticas; pero finalmente, al no encontrar ningún rastro de delito, María fue absuelta, el 24 de febrero de 1942[487].

GOICOECHEA GOICOECHEA, PEDRO

Tolosan jaioa 1884ko apirilean, Igerategi etxera bizitzera etorria zen, nekazari gisa lan eginez[488]. Ideia abertzaleen jarraitzailea izanda ere, ez zegoen inolako alderdira afiliatua eta ez zuen parte hartzerik izan ez Errepublikan ez eta Gerra Zibilean zehar. Hori dela eta, nahiz eta Erantzukizun Politikoen Tribunalak ikertu eta epaitzea erabaki zuen, absoluzioa lortu zuen 1942ko otsailaren 24ean[489].

Nació en Tolosa en abril de 1884, había venido a vivir a la casa Igerategi, y trabajaba como agricultor[488]. Aunque era simpatizante de ideas abertzales, no estaba afiliado a ningún partido político y no tuvo ninguna participación ni en la República, ni en la Guerra Civil. Por ello, aunque el Tribunal de Responsabilidades Políticas decidió investigarlo y juzgarlo, fue absuelto el 24 de febrero de 1942[489].

IRIZAR INCHAUSTI, ROMUALDO

Itsason jaio zen, 1884ko martxoaren 14ean, baina Urnietara bizitzera etorria zen, Erauso-aundi baserrira eta bertako lurrak lantzetik bizi zen[490]. Alderdi abertzaleen jarraitzailea, nahiz eta ez egon hauetara afiliatua, ez zuen ez Errepublikan ez eta Gerra Zibilean parte hartzerik izan. Erantzukizun Politikoen Tribunalak bere aurkako epaiketa bat burutu zuen 1942ko otsailaren 24ean, baina bertan bere aurkako salaketak funtsik ez zuela eta absoluzioa lortu zuen[491].

Nació en Itsaso el 14 de marzo de 1884, pero vino a vivir a Urnieta, al caserío Erauso-aundi y vivía de cultivar sus tierras[490]. Aunque era simpatizante de ideas abertzales, no estaba afiliado a ningún partido político y no tuvo ninguna participación ni en la República, ni en la Guerra Civil. Aun así, el Tribunal de Responsabilidades Políticas llevó a cabo un juicio en su contra, el 24 de febrero de 1942. Allí, fue absuelto al ver que la denuncia en su contra no tenía base alguna[491].

IZAGUIRRE ARRUE, JUAN ANGEL

1901eko urriaren 20an jaio zen Urnietan eta Enbutegi-bekoa baserrian bizi zen nekazaria zen Juan Angel[492]. 1936ko udan gerrak eztanda egitean, frontearen hurbiltasunagatik herria utzi eta Bizkaiara mugitu zen, bertan Eusko Gudarostean engaiatuz,

[485] NAO / AGN, TRP. Lb.3, Nº 1497 / AGN, TRP. Lb. 3, Nº 1497.
[486] UUA, sig. PA00.06 / AMU, sig. PA00. 06.
[487] NAO / AGN, TRP. Lb.3, Nº 1465 / AGN, TRP. Lb. 3, Nº 1465.
[488] UUA, sig. PA00.06 / AMU, sig. PA00. 06.
[489] NAO / AGN, TRP. Lb. 3, Nº 1464 / AGN, TRP. Lb. 3, Nº 1464.
[490] UUA, sig. PA00.06 / AMU, sig. PA00. 06.
[491] NAO / AGN, TRP. Lb. 3, Nº 1467 / AGN, TRP. Lb. 3, Nº 1467.
[492] UUA, sig. PA00.06 / AMU, sig. PA00. 06.

orr.

mortairuen batailoi batean[493]. Ez dakigu Bizkaia erori eta gero zer egin zuen, baina pentsa genezake Urnietara itzultzea lortu zuela izan ere bertan bizi zen 1942ko martxoaren 4ean Erantzukizun Politikoen Tribunalak epaitu zuenean. Tribunalak ez zuen bere gudari izaera identifikatzea lortu eta soilik EAJkoa zela jakin zuen, horregatik absolbitu egin zuten Juan Angel[494].

Nació en Urnieta el 20 de octubre de 1901 y vivía como agricultor en el caserío Enbutegi-bekoa[492]. Cuando estalló la guerra el verano de 1936, se movió a Bizkaia por la cercanía del frente; allí se alistó al Ejército Vasco, en un batallón de morteros[493]. No sabemos lo que hizo tras la caída de Bizkaia, pero pensamos que consiguió volver a Urnieta ya que vivía aquí cuando fue juzgado por el Tribunal de Responsabilidades Políticas el 4 de marzo de 1942. El tribunal no consiguió identificar su naturaleza de gudari y solo supo que era del PNV, por ello, Juan Ángel fue absuelto[494].

Juan Cruz Izaguirre, 1914ko udalbatzako argazkian. (Erretratu Zaharrak). / **Juan Cruz Izaguirre en la fotografía de la corporación municipal de 1914.** (Erretratu Zaharrak).

IZAGUIRRE ECHEVERRIA, JUAN CRUZ

Urnietarra, nahiz eta Gerra Zibilak eztanda egitean ez zuen parte hartze aktiborik izan. EAJko jarraitzailea zenez, herria utzi eta errefuxiatu gisa ihes egitea erabaki zuen. Horrela, Frantziako Estatura zihoan itsasontzi batean sartzea lortu eta Nièvren ezarri zen, EAJren agindupean zeuden errefuxiatuen gune batean[495]. Hala ere, behin gerra amaituta, Hego Euskal Herrira itzultzeko erabakia hartu zuen eta horregatik Erantzukizun Politikoen Tribunalak bere aurkako ikerketa bat ireki zuen. Baina, EAJko jarraitzailea izateaz gain ez zioten beste inolako deliturik egotzi eta honi esker absoluzioa lortu zuen Juan Cruzek, 1942ko martxoaren 6an[496].

Era urnietarra, y aunque al estallar la Guerra Civil no participó activamente, decidió abandonar el pueblo y huir como refugiado por ser miembro del PNV. Así, consiguió subir a un barco que iba al Estado francés, y una vez allí, se estableció en Nièvre, en una zona de refugiados bajo las órdenes del PNV[495]. De todos modos, una vez terminada la guerra, decidió volver a Hegoalde y, por ello, el Tribunal de Responsabilidades Políticas abrió una investigación contra él. Como no le imputaron ninguna otra cosa que ser simpatizante del PNV, Juan Cruz fue absuelto el 6 de marzo de 1942[496].

LIZURUME BERRA, VICENTE

Oztaran auzoko Ermotegi baserrikoa, 1879an jaio zen Vicente eta nekazaria zen[497]. Nekazal guneetako gehiengoa bezala, alderdi abertzaleen jarraitzailea zen, baina gerrak eztanda egitean ez zuen parte hartzerik izan kolpisten aurka antolatutako defentsa komitearekin. Hala ere, bere segurtasunaren beldur, Molaren tropak herrian sartzean, kolpisten aldeko 150 pezetako dohaintza egin zuen[498]. Baina honek ez zuen Erantzukizun Politikoen Tribunalak ikertu eta epaitzetik libratu eta 1942ko otsailaren 24ean bere aurkako epaiketa burutu zuten. Hala ere, bertan bere ekintzek erantzukizun politikorik ez zutela ebatzi eta gero absolbitu egin zuten Vicente[499].

Nació en el caserío Ermotegi del barrio Oztaran en 1879, y era agricultor[497]. Como la mayoría de la gente del ámbito rural, era simpatizante de los partidos abertzales, pero cuando estalló la guerra no tuvo ninguna relación con el Comité de Defensa organizado contra los golpistas. De todos modos, por miedo a su seguridad, cuando las tropas de Mola entraron al pueblo, hizo una donación de 150 pesetas a favor de los sublevados[498]. Pero eso no le libró de ser investigado y juzgado por el Tribunal de Responsabilidades Políticas, pues el 24 de febrero de 1942 se llevó a cabo un juicio en su contra. De todos modos, dictaminaron que sus actos no acarreaban responsabilidades políticas y, Vicente fue absuelto[499].



SENTENCIA nº 1503

En la Ciudad de Pamplona a once de Marzo de mil novecientos cuarenta y dos.-

Señores
D. Eladio Carnicero Herrero
D. Leocadio Támara García.-
D. Joaquín Ochoa de Olza Arteta

Visto por el Tribunal Regional de Responsabilidades Políticas el expediente número R.620 seguido contra JOSE ANTONIO ORMAZABAL ERRAZQUIN, mayor de edad, viudo, labrador y vecino de Urnieta;

siendo Ponente el Magistrado Don Leocadio Támara García.-

RESULTANDO: Que el inculpado JOSE ANTONIO ORMAZABAL ERRAZQUIN, en 18 de Julio de 1.936, se hallaba afiliado al Partido Nacionalista Vasco y representaba a este en el Ayuntamiento de Urnieta desempeñando el cargo de Concejal; durante el dominio rojo-separatista no tuvo intervención alguna y no evacuó de la localidad a la llegada de las Tropas nacionales.Hechos probados y menos graves.-

RESULTANDO: Que es viudo y tiene en su compañía un hijo casado y dos nietos menores de edad y posee bienes valorados en 27.500 pesetas.-

RESULTANDO: Que, incoado expediente, aportados los informes relativos a la persona y bienes del inculpado, el Juez hizo el resumen de la prueba relacionando lo actuado y elevando seguidamente el expediente a este Tribunal para su resolución.

RESULTANDO: Que puestas las actuaciones de manifiesto a los efectos del apartado C) del art. 55 de la Ley, el inculpado no presentó escrito de defensa.-

RESULTANDO: Que en la tramitación del procedimiento se han observado las disposiciones legales.

CONSIDERANDO: Que los hechos que se declaran probados se hallan comprendidos en los apartados b) y c) del art. 4.º de la Ley de Responsabilidades Políticas siendo responsable de los mismos el inculpado a quien debe imponerse sanción adecuada a los hechos realizados y a su posición social económica y cargas familiares.

CONSIDERANDO: Que no son de estimar circunstancias modificativas de la responsabilidad.-

VISTOS: Los artículos 1, 4, 8, 10, 13 y concordantes de la Ley.

FALLAMOS: Que debemos condenar y condenamos al inculpado JOSE ANTONIO ORMAZABAL ERRAZQUIN, como responsable político a que pague al Estado en concepto de indemnización de perjuicios la cantidad de QUINIENTAS PESETAS, imponiéndole la sanción de inhabilitación para el desempeño de cargos de cualquier clase y confianza en los organismos oficiales por tiempo de CINCO AÑOS.-Notifíquese esta sentencia personalmente al sancionado y una vez firme, remítase testimonio de la misma al Excmo. Jefe Provincial de Falange Española Tradicionalista y de las J.O.N.S. para su ejecución.-

Así por esta nuestra sentencia lo pronunciamos, mandamos y firmamos.-

Jose Antonio Ormazabalen aurkako sententzia. (NAO). / **Sentencia contra José Antonio Ormazabal.** (AGN).

[493] Egaña, I. (et. al) (2000) / Egaña, I. (et al) (2000).
[494] NAO / AGN, TRP. Lb. 3, Nº 1485 / AGN, TRP. Lb. 3, Nº 1485.
[495] Egaña, I. (et. al) (2000) / Egaña, I. (et al) (2000).
[496] NAO / AGN, TRP. Lb. 3, Nº 1495 / AGN, TRP. Lb. 3, Nº 1495.
[497] UUA, sig. PA00.06 / AMU, sig. PA00. 06.
[498] UUA, 1942ko udal-korrespondentzia / AMU, correspondencia municipal de 1942.
[499] NAO / AGN, TRP. Lb. 3, Nº 1469 / AGN, TRP. Lb. 3, Nº 1469.

ORMAZABAL ERRAZQUIN, JOSE ANTONIO

Urnietan jaioa 1880 urtean, Telleri-berri etxean bizi zen[500]. Alarguna, EAJko afiliatua zen eta zinegotzi funtzioak bete zituen Errepublika garaian Urnietako udalean. Hala ere, gerrak eztanda egitean, ez zuen parte hartzerik izan defentsa komitean ez eta egun horietako jarduera politikoan. Ondorioz Urnietan geratzeko erabakia hartu zuen Jose Antoniok. Zinegotzi gisa Errepublikan egin zuen lanagatik, Erantzukizun Politikoen Tribunalak bere aurkako ikerketa bat abiatu zuen, epaiketa batean gauzatu zena, 1942ko martxoaren 11n. Bertan, Errepublikan izan zuen jardun politikoagatik, 500 pezetako isun ekonomikoa ezarri zioten eta 5 urtean kargu publikoak betetzeko gaitasunik gabe utzi zuten[501].

Nació en Urnieta el año 1880 y vivía en la casa Telleri-berri[500]. Viudo, afiliado al PNV y durante la República fue concejal del Ayuntamiento de Urnieta. De todos modos, cuando estalló la guerra, no participó con el Comité de Defensa ni en la actividad política de esos días. En consecuencia, José Antonio decidió quedarse en Urnieta. El TRP inició una investigación, por haber sido concejal durante la República, y el 11 de marzo de 1942 llevó a cabo un juicio en su contra. En él, por su actuación política en la República, fue condenado a una multa de 500 pesetas y a la inhabilitación para cargos públicos durante 5 años[501].

SARASOLA IRAOLA, MARTIN

1885eko martxoaren 14ean jaio zen Urnietan, Etzabalberri baserrian bizi izan zen[502]. Nekazaria, baserrian lan egiten pasatzen zuen denbora gehiena eta ez zuen loturarik herriko bizitza politikoarekin eta ez zuen Errepublikaren aurkako estatu-kolpearen aurka antolatutako ekintzetan inolako parte-hartze aktiborik izan. Hala ere, estatu frankistaren aurka hainbat deklarazio egiteagatik epaitua izan zen eta ondorioz Erantzukizun Politikoen Tribunalak ere prozesu bat ireki zion. Baina politikarekin loturarik ez izanagatik eta tribunalaren ustetan aurrekari onak zituelako, absolbitu egin zuten 1941eko uztailaren 12an[503].

Nació el 14 de marzo de 1885 en Urnieta y vivió en el caserío Etzabalberri[502]. Agricultor, la mayor parte del tiempo lo pasaba trabajando en el caserío y no tenía ninguna relación con la vida política local; tampoco tuvo ninguna participación activa en los movimientos organizados contra los militares que dieron el golpe de Estado, ni en la Guerra Civil posterior. De todos modos, fue juzgado por realizar algunas declaraciones contra el Estado franquista y, por eso, el Tribunal de Responsabilidades Políticas inició un proceso en su contra. Pero como no tenía relación alguna con la política y, según el tribunal, tenía buenos antecedentes, el 12 de julio de 1942 fue absuelto[503].

ZALDUA IBARGOYEN, FELIPE

1891ko uztailaren 23an jaio zen Urnietan bertan eta San Juan kalean bizi zen[504]. Aldundiarentzat lan egiten zuen telefonista zen, eta Errepublika garaian EAJ alderdira afiliatua zegoen eta herrian honen aldeko propaganda egiten ibili izan zen, nahiz eta estatu-kolpea eman zenean bizitza politikotik aldendu zen, defentsa komitean parte hartu gabe. Horregatik autoritate frankistek ikertu egin zuten, baina bere karguan mantentzea lortu zuen. Halaber, nahiz eta lanpostua mantentzea lortu zuen Errepublikako urteetan herriko politikan parte hartzeagatik, Erantzukizun Politikoen Tribunalak 200 pezetako isun ekonomikoa ezarri zion, 1942ko martxoaren 7an[505].

Nació en Urnieta el 23 de julio de 1891 y vivía en la calle San Juan[504]. Era un telefonista que trabajaba para la Diputación y, durante la República, estaba afiliado al PNV. En el pueblo anduvo haciendo propaganda a favor de ese partido, pero cuando se dio el golpe de Estado, se alejó de la vida política y no participó en el Comité de Defensa. Por ello, fue investigado por las autoridades franquistas, pero consiguió mantenerse en su puesto. De todos modos, aunque consiguió mantener el puesto, el 7 de marzo de 1942, el Tribunal de Responsabilidades Políticas le impuso una multa de 200 pesetas por haber participado en la política local durante la República[505].

[500] UUA, sig. PA00.06 / AMU, sig. PA00. 06.
[501] NAO / AGN, TRP. Lb. 3, Nº 1503 / AGN, TRP. Lb. 3, Nº 1503.
[502] UUA, sig. PA00.06 / AMU, sig. PA00. 06.
[503] NAO / AGN, TRP. Lb. 3, Nº 1466 / AGN, TRP. Lb. 3, Nº 1466.
[504] UUA, sig. PA00.06 / AMU, sig. PA00. 066.
[505] NAO / AGN, TRP. Lb. 3, Nº 1496 / AGN, TRP. Lb. 3, Nº 1496.

4.8. ESPETXE, KONTZENTRAZIO ESPARRU ETA LANGILEEN BATAILOIETAN (LB) EGON ZIRENAK

Gerrak eztanda egitearekin batera, karlista eta militar kolpistek beldurra eta ankerkeria oinarri izan zuen erregimen bat ezartzen joan ziren beraien kontrolpean erortzen joan ziren herri eta eskualdeetan. Horrela, goian aipatu den bezala, urnietarren aurkako errepresioa irailaren lehen egunetatik gauzatu zen, Errepublika eta euskal erakundeen alde lerratu ziren pertsonen aurka, herrian bertan kolpistek egin zituzten atxiloketa eta epaiz kanpoko fusilatzeetatik abiatuta. Horrela, kolpistek buruan zuten "Espainia Berriaren" aurka agertzen zen pertsona ororen aurkako errepresio zabal bat hedatu zuten, non dibergentzia txikiena adierazten zuen pertsonak ziega batean amaitzeko arriskua zuen, urnietar askok pairatu behar izan zuten patua hain zuzen. Horregatik ehundaka herritarrek, frontearen hurbiltasuna zela eta, autoritateen ebakuazio deiari kasu egin eta herria utzi eta Bizkaia alderako bideari ekin zioten.

Ehunka izan ziren Bilbo eta inguruetako herrietan babesgunea aurkitu zutenak eta horietako asko eratu berri zen Eusko Gudarostean engaiatu ziren edota honen gerra esfortzua sustengatzearen alde lan egiten zuten. Lurralde hauetan, lasaitasuna berreskuratu zuten hilabete batzuetarako, baina 1937ko udaberria iristean, militar kolpistek Bizkaiko frontearen aurkako erasoaldi orokortu bati hasiera eman zioten eta gerra hotsak berriro gogor jo zuten urnietarren belarrietan.

Apirilean, Intxortako frontearen gainbeherarekin batera, ezin geratuko atzerakadan ibili ziren gudari eta milizianoak. Egun batzuetarako Bilboko Burdin Hesia deituriko gotorleku sisteman egoera egonkortzea lortu bazuten ere, hiria ekainaren 19an erori zen eta ihesean jardun zuten milaka euskal herritar atxiki zituzten kolpistek. Hiritik irtetzea lortu zutenak, Kantabriarako bideari ekin zioten, Eusko Jaurlaritzako kideekin batera, baina Eusko Jaurlaritzak berak Euskal Herria galduta ikustean Santoñako hirian italiar faxisten tropekin, Corpo Truppe Volontarie (CTV), hitzarmen bat sinatu zuen, non Eusko Gudarosteko kideak errespetatu eta Jaurlaritzako kideen ebakuazioa bermatuko zela adostu zuten. Hala ere, militar kolpista espainiarrek akordioaz jakitean, hau hautsi eta milaka euskal gudari eta miliziano atxiki zituzten, beraiekin batera ihesean zihoazen herritarrekin batera. Egun bertsuetan, Santanderreko hiriaren aurkako setioa itxi zuten kolpistek non beste hainbat euskal herritar atzeman zituzten. Horrela, milaka euskal herritar espetxeratuak izan ziren, El Dueso bezalako espetxeetan eta Santander hiriko futbol zelai edota zezen plazatan eraiki ziren kontzentrazio esparru inprobisatuetan.

Miliziano gutxi batzuk, Bizkaia eta Kantabriaren erorketatik ihes egitea lortu zuten eta Asturiasen borrokan jarraitzea lortu zuten. Beste gutxi batzuk, itsasontziz ihes egitea lortu zuten, Frantziako Estatura joanez, nondik Kataluniara pasatzea lortu zuten eta bertan errefuxiatu ziren. Hauek, lurralde hauetan babestu baziren ere, gerraren bilakaera zela eta, berriro ere ihesari ekin behar izan zioten eta 1939an Pirinioak gurutzatzera behartuak agertu ziren. Azken hauek, Frantziako Estatua bera arduratuko zen atxiki eta kontzentrazio esparruetan preso edukitzen.

Gerra Zibilaren urteak bortitzak izan ziren urnietarren gehiengoarentzat, baina are latzagoa izan zen Espainiar Estatu luze zabaleko kartzeletan espetxeratuak egon ziren ehundik gora urnietarrentzat. Hauetan, higiene maila be-

4.8. LOS QUE ESTUVIERON EN PRISIÓN, EN CAMPOS DE CONCENTRACIÓN O EN BATALLONES DE TRABAJADORES (BT)

Al estallar la guerra, los carlistas y los militares golpistas fueron implantando en los pueblos y regiones que caían bajo su control un régimen basado en el miedo y la crueldad. Así, tal como se ha mencionado anteriormente, la represión contra la gente de Urnieta se materializó desde los primeros días de septiembre; fue contra personas que se posicionaron a favor de la República y las organizaciones vascas, empezando por las detenciones y fusilamientos extrajudiciales realizados en el mismo pueblo. Así, extendieron una amplia represión contra toda persona que se opusiera a la "Nueva España" que tenían los golpistas en mente. La persona que expresara la más mínima divergencia corría el riesgo de terminar en un calabozo, un destino que tuvieron que sufrir muchos urnietarras. Por ello, cientos de ellos, por la cercanía del frente, hicieron caso a la llamada de evacuación de las autoridades y abandonaron el pueblo para dirigirse hacia Bizkaia.

Encontraron refugio en Bilbo y los pueblos de alrededor, y muchos de ellos se alistaron en el recién formado Ejército Vasco o trabajaron a favor de sostener su esfuerzo de guerra. En Bizkaia recuperaron la tranquilidad por unos meses, pero al llegar la primavera de 1937, los militares golpistas dieron inicio a una ofensiva generalizada contra el frente de Bizkaia y los sonidos de guerra volvieron a retumbar con fuerza en los oídos de los urnietarras.

En abril, junto con la caída del frente de Intxorta, los gudaris y milicianos se sumieron en una retirada imparable. Aunque durante algunos días consiguieron estabilizar la situación en el sistema de fortificaciones llamado El Cinturón de Hierro de Bilbo, la capital cayó el 19 de junio y miles de vascos que habían huido fueron apresados por los golpistas. Los que lograron salir de la ciudad emprendieron el camino hacia Cantabria, junto con miembros del Gobierno Vasco; pero cuando el mismo Gobierno Vasco dio a Euskal Herria por perdida, firmó un pacto con las tropas de los fascistas italianos CTV (Corpo Truppe Volontarie) en el que se acordó que se respetaría a los miembros del Ejército Vasco y que se garantizaría la evacuación de los miembros del Gobierno. De todos modos, cuando los militares golpistas españoles supieron del acuerdo, lo incumplieron y apresaron a miles de gudaris y milicianos, junto a los ciudadanos que iban huyendo con ellos. Casi en los mismos días, los golpistas cerraron el asedio contra la ciudad de Santander, donde también fueron apresados muchos vascos. De ese modo, miles de vascos fueron encarcelados en prisiones como la de El Dueso o en improvisados campos de concentración construidos en el campo de futbol o la plaza de toros de Santander.

Unos pocos milicianos lograron huir de las caídas de Bizkaia y Cantabria, y consiguieron seguir combatiendo en Asturias. Otros pocos, consiguieron huir en barco, huyendo al Estado francés, de donde pasarían a Cataluña y se refugiarían. Aunque se refugiaron en esos territorios, en 1939 se vieron obligados a volver a huir y cruzar los Pirineos debido a la evolución de la guerra. Una vez allí, el Estado francés se encargaría de detenerlos y aprisionarlos en campos de concentración.

Para la mayoría de los urnietarras los años de la Guerra Civil fueron duros, pero mucho más duro fue para los ciento y pico urnietarras que fueron encarcelados en las cárceles del Estado español. En ellas, el nivel de higiene era lamentable:

Bizkaiko frontean armada kolpistak atxikitako Eusko Gudarosteko hainbat kide. (BNE). / **Varios miembros del Ejército Vasco apresados por el Ejército golpista en el frente de Bizkaia.** (BNE).

netan tamalgarria zen, arkakusoak, izurriteak, hotsa eta zikinkeria imajina ezineko mailetara iritsi ziren. Gainera, espetxeen azpiegitura falta eta mantenu eskasa gehitu beharko genioke eta baita ere hainbat kontzentrazio esparru inprobisatutako eta prestatu gabeko eremuetan eratu zirela. Honi, pertsonen pilaketa eta elikadura eskasia gehitzen badiogu, guztiz ulergarria da Ondarretako espetxeari jarri zioten goitizena, "Infiernillo".

pulgas, epidemias, ruido y suciedad llegaban a niveles inimaginables. Además, habría que añadir la falta de infraestructura y el escaso mantenimiento de las cárceles, y también, que muchos campos de concentración se crearon en zonas improvisadas y que no estaban preparadas. Y si a esto le añadimos el hacinamiento de personas y la escasez de alimentos, se entiende muy bien el sobrenombre que le pusieron a la cárcel de Ondarreta: "Infiernillo".

Ondarretako espetxea. (Euskal Memoria). / **Cárcel de Ondarreta.** (Euskal Memoria).



Onderratako espetxean presoen pilaketa izugarria izan zen. (Euskal Memoria). / **El hacinamiento de presos en Ondarreta fue terrible.** (Euskal Memoria).

Kolpisten buruzagitza militarrak, gauzatzen ari ziren atxiloketak nahiz frontetan atxikitzen zituzten miliziano eta gudariak espetxeratzeko, sailkapen irizpide batzuk finkatu zituen 1937ko martxok 11n. Bertan, Gerrako Presoak Sailkatzeko Agindu Orokorra izenburupean, lau graduko mailaketa egin zuten:

A) "Presoak edo aurkeztutakoak, Mugimendu Nazionalaren aldekoak izatea justifikatzen dutenak edo, gutxienez, Mugimenduaren aurkakoak ez direnak, edo etsaiaren aldean soldadu ibilitakoen kasuan behartuta egin izana, edo lerro horietan haien borondatez soldadu ibili arren, etsaiaren fronteari aurkeztea sustatzeko igorritako aldarrien ondorioz borondatez etorritakoak".

B) "Borondatez etsaiaren aldean soldadu ibili eta beste erantzukizun sozial, politiko edo arruntik ez duten presoak".

C) "Etsaiaren armadako buruak eta ofizialak; gure tropen aurkako ekintzetan nabarmendu edo gailendu diren pertsonak, harrapatutakoak zein aurkeztutakoak; Aberriaren eta Mugimendu nazionalaren etsai diren alderdi eta jarduera politiko zein sozialen buruzagiak eta gailendutako kideak, Mugimendu Nazional Askatzailea baino lehen edo ondoren egindako matxinada edo bestelako ekintza sozial edo politikoko kideak".

D) "Delitu arrunten edo jendeen zuzenbidearen aurkako delituen egiletzat jo daitezkeen pertsona harrapatuak edo aurkeztutakoak, izan delitu horiek Mugimendu Nazionala baino lehenagokoak edo ondorengoak[506]".

Espetxe eta kontzentrazio esparru hauetan espetxeratu zituzten pertsonak, aste edo hilabete gutxiren barruan Sailkatze Batzordeetatik pasarazten zituzten eta horretarako aurretik herriko autoritate frankista berriei pertsona horien gaineko txostenak eskatzen zizkieten. Urnietaren kasuan, errepresio honen kargu, Udala (Bartolome Ugalde alkatea buru), Guardia Zibila (Andoaingo komandantzia), Batzorde Karlista (Luis Recondo Urnietan eta Angel Barreiro Lasarten buru), Ikerketa eta Informazio Batzordea eta Eliza (Juan Ayerbe Irastorza apaiza) izan ziren. Nahiz eta dokumetuak autoritate hauen izenean sinatuak egon, estatu-kolpearen aurka lerratu zirenen aurkako errepresioan Juan Bautista Ayerbe udal idazkaria (apaizaren anaia) ere nabarmendu zen. Karlista porrokatua, Errepublika garaian talka nabarmenak izan zituen bai abertzaleekin Euskal Estatutuaren baitan bai herriko indar ezkertiarekin. Horregatik, kolpisten aldeko jarrera nabarmena erakutsi zuen eta horregatik atxilotu egin zuten agintari errepublikanoek 1936ko uztailean, Donostian eta Bilbon izan zuten preso eta aske geratu bezain pronto bere herrikideen aurkako salaketak aurrera eramateari ekin zion. Urnietako autoritate hauek bidaltzen zituzten informe hauek gainera orokorrean berdintsuak izaten ziren, ia beti aldatzen zen bakarra igorlearen izena eta sinadura izaten zelarik.

Herrietatik dokumentu horiek jasotakoan, Sailkatze Batzordeek pertsona bakoitza goian azaltzen diren lau identifikazio horietako batean kokatzen zuten eta honen baitan patu

El 11 de marzo de 1937, la autoridad militar de los golpistas estableció unos criterios para clasificar a todas las personas que detenían y a los milicianos y gudaris que apresaban, para poder encarcelarlos adecuadamente. En él, bajo el título de "Orden General para la Clasificación de Prisioneros", se hizo una graduación en cuatro niveles:

A) "Prisioneros o presentados, que justifiquen ser afectos al Movimiento Nacional, o al menos, no hostiles a él, o en caso de haber formado en las filas enemigas lo hicieron forzados u obligados a ello, o aunque hayan servido voluntariamente en dichas filas se hayan presentado voluntariamente a nuestras tropas a consecuencia de proclamas arrojadas sobre frente enemigo para estimular la presentación."

B) "Prisioneros que resulten ser incorporados voluntariamente a las filas del enemigo y que no aparezcan afectados de otras responsabilidades de índole social, política o común."

C) "Jefes y oficiales del Ejército enemigo; individuos capturados o presentados que se hubieran destacado o distinguido en actos de hostilidad contra nuestras tropas; dirigentes y destacados en los partidos y actividades políticas y sociales enemigos de la Patria y del Movimiento Nacional, rebelión u otros de índole social y política cometidos antes o después de producirse el Movimiento Nacional Libertador."

D) "Individuos capturados o presentados que aparezcan más o menos claramente presuntos responsables de delitos comunes o contra el derecho de gentes, realizados antes o después de producirse el Movimiento Nacional[506]".

Las personas que estaban en esas cárceles y campos de concentración eran obligadas a pasar, en pocas semanas o meses, ante una Comisión de Clasificación, la cual pedía informes de cada persona a las nuevas autoridades municipales correspondientes. En el caso de Urnieta, se hicieron cargo de esa represión el Ayuntamiento (el alcalde Bartolomé Ugalde a la cabeza), la Guardia Civil (comandancia de Andoain), la Junta Carlista (Luis Recondo en Urnieta y Ángel Barreiro en Lasarte, a la cabeza), la Comisión de Investigación e Información y la Iglesia (el párroco Juan Ayerbe Irastorza). Aunque los documentos estaban firmados por esas autoridades, en la represión contra los que se alinearon contra el golpe de Estado también destacó el secretario municipal Juan Bautista Ayerbe, hermano del párroco Juan Ayerbe. Carlista empedernido, durante la República tuvo notables enfrentamientos tanto con los abertzales –a propósito del Estatuto Vasco– como con las fuerzas izquierdistas. Por ello, tuvo una actitud favorable a los golpistas y fue detenido en julio de 1936. Estuvo preso en Donostia y Bilbo, y tan pronto quedó en libertad, empezó a llevar a cabo denuncias en contra de sus paisanos. Además, esos informes que enviaban las autoridades de Urnieta en general eran muy parecidos; casi siempre, lo único que cambiaba era el nombre del remitente y la firma.

Cuando recibían esos documentos de los pueblos, la Comisión de Clasificación colocaba a cada persona en uno de

[506] Presoak Sailkatzeko Agindu Orokorra (AGMA) / Orden General para la Clasificación de Prisioneros (AGMA)



Saturraraneko emakumeen espetxea, hondartzan zegoen hotel baten eraikina baliatu zuten. (Euskal Memoria). / **Cárcel de mujeres de Saturraran. Aprovecharon el edificio de un hotel que estaba en la playa.** (Euskal Memoria).

ezberdina izango zuen presoak. A edo B ataletan sailkatua izanez gero, espetxe eta kontzentrazio esparruetan preso eta bortxazko lanak egitera behartzen zituzten, inolako epaiketa edota sententziarik jaso gabe. Pertsona bakoitzak egoera hauetan preso egon behar zen denbora kopurua Sailkatze Batzorde bakoitzaren irizpide arbitrarioen baitan aurkitzen zen.

C eta D ataletan sailkatuak izanez gero, pertsona hauek tribunal militarretan gerra kontseilu bidez epaituak izango ziren. Hauei guztiei legedi militarra aplikatuko zieten, inolako berme juridikorik eskaini gabe eta defentsa egoki bat prestatzeko aukerarik gabe.

Hala ere, epaituak eta espetxeratuak izan ziren asko Urnietara itzultzean atxiki eta gero izan ziren. Nabarienak gerraren lehen hilabeteetan itzuli zirenak izan ziren, horietako asko momentuan bertan atxilotu eta espetxeratuak izan baitziren, udaletxera deklaratzera deitu eta gero. Baina Bilbo erori eta Santoñako hitzarmena eta gero, ehunka miliziano eta errefuxiatu itzuli ziren herrira eta autoritate berriek hauen gaineko kontrol zurruna ezarri zuten, ikerketa sakonak eginez eta beraien egunerokoa eta joan etorriak kontrolatuz. Horretaz gain, frontean borrokan ibili ziren gudari eta miliziano guztiak udaletxetik pasatzera behartu zituzten, bertan mediku-azteketa egiteko. Horrela, herritik joan ziren guztiak identifikatzea lortzeaz gain, hainbat gudari eta miliziano armada frankistarentzako indarrez mobilizatu zituzten[507].

esos cuatro niveles y en base a ellos, el destino del preso era diferente. Si era clasificado en los niveles A o B, los obligaban a realizar trabajos forzados en cárceles y campos de concentración, sin recibir ningún juicio, ni sentencia. El tiempo que debía pasar cada preso en esas condiciones variaba según los criterios arbitrarios de cada Comisión de Clasificación.

Si era clasificado en los niveles C o D, serían juzgados mediante consejo de guerra en un tribunal militar. A todos esos se les aplicaría la legislatura militar, sin ofrecerles ninguna garantía jurídica y sin tiempo para preparar una defensa adecuada.

De todos modos, muchos de los que fueron juzgados y encarcelados pudieron volver a Urnieta. Los más notorios fueron los que volvieron en los primeros meses de guerra, pues muchos de ellos fueron detenidos y encarcelados en el momento, tras ser llamados a declarar al ayuntamiento. Pero tras la caída de Bilbo y la ruptura del pacto de Santoña, cientos de milicianos y refugiados volvieron al pueblo y las nuevas autoridades establecieron un control férreo sobre ellos, realizando profundas investigaciones y controlando su día a día y sus vaivenes. Además de eso, obligaron a todos los gudaris y milicianos que combatieron en el frente a pasar por el ayuntamiento, para hacerles una revisión médica. Así, además de lograr identificar a todos los que se fueron del pueblo, obligaron a muchos gudaris y milicianos a movilizarse a la fuerza para el Ejército franquista[507].

[507] UUA, 1937ko udal-korrespondentzia / AMU, correspondencia municipal de 1937.

Kontzentrazio esparruak eta Langileen Batailoiak

1936ko uztaileko estatu-kolpe saiakera eta gero, kolpistek beraien kontrol eremuetan kontzentrazio esparruak eraikitzen hasi ziren, erregimen berriarekin bat ez zetozen etsai politiko guztiak bertan espetxeratzeko helburuarekin. Hauek, ez ziren espetxeak izateko diseinatuak eta askotan eraikin huts soil batzuk ziren, komentu edota fabrika zaharrak, hutsik zeuden hotelak etab.

Hauek hasiera batean behin-behineko espetxealdirako guneak ziren, anomikoak (pertsonak bertan sustengatu eta garatzeko baliabide gabeak) eta ilegalak. Izan ere, gerra garaian kolpistek eraikitako kontzentrazio esparruek ez zituzten Espainiar Estatuko legedia betetzen. Era ezberdinetako kontzentrazio esparruak zeuden. Batzuk, behin behinean eraiki ziren eta denbora gutxi iraun zuten, Santanderreko Sardinero futbol zelaia edota Tolosako zezen plaza esaterako. Hauek, behin presoen sailkapena eginda funtzio hau betetzeari utzi zioten. Baina beste asko egonkorrak bilakatu ziren, Deustuko unibertsitatea, Orduñako Jesuiten Eskola edota espreski kontzentrazio esparrua izateko eraiki zuten Miranda de Ebrokoa. Izan ere, eraikin hauen helburua hasiera batean gerra presoak giltzaperatu eta hauen sailkapen bat egitea izaten zen. Baina behin hau eginda, kontzentrazio esparru hauek ez ziren itxi eta pertsonak preso izateko erabili izan ziren, izan gerra kontseiluetan bortxazko lanak egitera kondenatu zituzten pertsonak preso izateko edota A eta B sailkatze irizpideen baitan kokatu ziren pertsonak espetxeratuak izateko.

Izan ere, Santoñako hitzarmena kolpistek ez betetzean, 50.000 gudari, miliziano eta norbanako baino gehiago atxiki zituzten kolpistek eta 1937ko irailean beste 33.217. Guzti hauek ICCParen baitan geratu ziren hurrengo hilabeteetan (Inspección Campos de Concentración de Prisioneros). 1937 guztian zehar ehun mila pertsonatik gora pasatu ziren sailkatze batzorde hauetatik eta horietatik %40 kolpisten aldekoa lirateke eta %20a zalantzazkoak (bi hauek A mailaren barruan kokatzen ziren), %15 zalantzazkoak (B maila), %10 “kriminalak” lirateke (C eta D mailak) eta gainontzekoak aske utzi beharreko jendea ziren mobilizazio deitik kanpo zeuden pertsonak zirelako.

Campos de concentración y Batallones de Trabajadores

Tras el intento de golpe de Estado del julio de 1936, los golpistas empezaron a construir campos de concentración en sus zonas bajo control, con el objetivo de encarcelar en ellos a todos los enemigos políticos que no estaban de acuerdo con el Nuevo Régimen. Estos no estaban diseñados para ser prisiones y, muchas veces, no eran más que unos edificios vacíos, como conventos, viejas fábricas, hoteles vacíos, etcétera.

Al principio eran zonas para prisión preventiva, anómicas (sin recursos para sostener y desarrollar las personas) e ilegales. De hecho, los que levantaron los golpistas durante la guerra, no cumplían la legislación del Estado español. Había todo tipo de campos de concentración. Unos se construyeron provisionalmente y duraron poco tiempo, como por ejemplo, el campo de futbol El Sardinero de Santander o la plaza de toros de Tolosa. Estos, una vez realizada la clasificación de los presos, dejaron cumplir esa función. Pero otros muchos se convirtieron en estables: la Universidad de Deusto, la escuela de los jesuitas de Orduña o la de Miranda de Ebro, que se construyó expresamente para que fuera un campo de concentración. Al principio, el objetivo de estos edificios era encarcelar a los prisioneros de guerra y realizar una clasificación de ellos. Pero una vez realizada, estos campos de concentración no se cerraron y se usaron para encarcelar a la gente; tanto para las personas que fueron condenadas en los consejos de guerra a realizar trabajos forzados, como para encarcelar a personas que fueron clasificados en el nivel A y B.

La verdad es que al no cumplir los golpistas el pacto de Santoña, estos apresaron a más de 50 000 gudaris, milicianos y demás personas, y en septiembre de 1937 otros 33.217 más. Todos estos quedaron en manos del ICCP (Inspección Campos de Concentración de Prisioneros) durante los siguientes meses. Durante todo el año 1937, más de cien mil personas pasaron por esas comisiones de clasificación y de ellos un 40% fueron identificados como personas que se avenían con la causa golpista, un 20% como dudosos (estos dos entrarían dentro del nivel A), un 15% dudosos (nivel B) y un 10% criminales (niveles C y D); los restantes serían gente que había que dejar en libertad porque eran personas que estaban fuera del llamamiento de movilización.

Santanderreko El Sardinero futbol zelaia kontzentrazio esparru bilakatu zuten. (Los campos de concentracion de Franco). **/ El campo de futbol El Sardinero de Santander fue convertido en campo de concentración.** (Los campos de concentración de Franco).

Gerrako presoak, agur faxista egitera behartuak San Pedro de Cardeñako kontzentrazio esparruan. (Euskal Memoria). / **Prisioneros de guerra obligados a realizar el saludo fascista en el campo de concentración de San Pedro de Cardeña (Burgos).** (Euskal Memoria).

Datuei so eginez gero, %35a inguru (autoritate frankisten ikuspegiaren arabera, uste baita kopuru hauek eraldatu egin zituztela propaganda egiteko eta Errepublikaren babesa ahula zela argudiatzeko) eraldatu eta berreziak izateko bortxazko lanak egitera eta kontzentrazio esparruetara bidaliak izan ziren. Batzuek hilabete batzuk egin zituzten preso egoera honetan, baina beste urnietar asko urte luzez eduki zituzten bortxazko lanak egiten, adibidez Faustino Garro Eizmendi Sondikan aurkitzen zen oraindik preso 1942an bortxazko lanak egiten[508].

Kontzentrazio esparruen helburua, erregimenaren aurka jarrera aktiboa izan zuten pertsona guzti horiei, indarrez Mugimendu Nazional berriaren baitan berrezi eta hauek honen probetxurako berrerabiltzea zen. Horretarako bortxazko lanen batailoiak erabili zituzten, eta presoak esklabu lanak egiteko erabili zituzten, adibidez industria estrategikoetan lan eginez. Horietako bat Jose Hernando Baltasar, ehungintzako langilea zena gerra aurretik, Cadizen izan zuten preso ehule bezala lan egitera behartuz[509]. Beste asko berriz Estatuarentzat estrategikoak ziren obrak egiteko edota gerrak kaltetutako lurraldeak berreraikitzeko erabili ziren, izan Pirinioetan gotorlekuak egiten, Algecirasen trintxerak egiten edota Victoriano Pagola San Sebastianen kasuan bezala Belchiteko (Zaragoza) herri berria eraikitzen, Aragoiko fronteko borrokan suntsitua geratu baitzen[510]. Ramon Odriozola Lasarteren kasuan, Ferrolen aurkitzen zen soldadutza egiten estatu-kolpea eman zenean. Galizia kolpisten esku geratu zen eta Ramon mugimenduaren aurkako pertsona bezala identifikatu eta espetxeratu egin zuten[511]. 1942an Cadizko Cuatro Torres espetxean aurkitzen zen oraindik preso[512].

Mirando a los datos, vemos que un 35% (según el punto de vista de los franquistas, porque se cree que estas cifras fueron manipuladas para hacer propaganda y para argumentar que el apoyo a la República era débil) fueron enviados a realizar trabajos forzados y a campos de concentración. Algunos hicieron varios meses preso en esa situación, pero otros urnietarras estuvieron durante largos años haciendo trabajos forzados; por ejemplo, Faustino Garro Eizmendi en 1942 se encontraba en Sondika realizando trabajos forzados[508].

El objetivo de los campos de concentración era que todas esas personas que tuvieron una actitud activa contra el régimen fueran reeducadas a la fuerza dentro del nuevo movimiento nacional y, además, reutilizarlos para su provecho. Para ello, utilizaron los batallones de trabajos forzados, donde los presos eran usados para hacer trabajos de esclavo. Era habitual usarlos en las industrias estratégicas; por ejemplo, José Hernando Baltasar, que trabajaba en el sector textil antes de la guerra, y que después estuvo preso en Cádiz obligándolo a trabajar como tejedor[509]. Otros muchos fueron utilizados para realizar obras estratégicas para el Estado (por ejemplo, realizando fortificaciones en los Pirineos o trincheras en Algeciras) o para reconstruir territorios dañados por la guerra, como en el caso de Victoriano Pagola San Sebastián, que estuvo reconstruyendo el pueblo Belchite (Zaragoza) que había quedado destruido en los combates del frente de Aragón[510]. Otro caso es el de Ramón Odriozola Lasarte que se encontraba realizando el servicio militar en Ferrol cuando se dio el golpe de Estado. Galicia quedó en manos de los golpistas, y Ramón fue identificado como persona contraria al movimiento y fue encarcelado[511]. En 1942 todavía se encontraba preso en la cárcel Cuatro Torres de Cádiz[512].

[508] Rodrigo J., (2005) / Rodrigo J., (2005).
[509] UUA, sig. 1307.01 / AMU, sig. 1307. 01.
[510] AGMG. BDSTP. 1ª Agrupación saila, 2886 kaxa, 5885 espedientea / AGMG, sección BDSTP. 1ª Agrupación, caja 2886, expediente 5885.
[511] UUA, sig. PA00.06 / AMU, sig. PA00. 06.
[512] UUA, 1942ko udal-korrespondentzia / AMU, correspondencia municipal de 1942.

orr.

Beste batzuetan, miliziano edo gudari ibili zen pertsona bat edota aurrekari politikoak zituena, aurrekari horiengatik soldadutzarako deitzean erregimen berriak armada kolpistarako ez-gai gisa identifikatzen zuen. Orduan, pertsona hau bortxazko lanak egitera bidaltzen zen Miranda de Ebro bezalako kontzentrazio esparruetara. Eman ziren kasuak ere, gudari eta miliziano ibili eta gero, bortxazko lanak egitera bidaltzea baina armada kolpistarentzat frontean, adibidez italiar faxistekin batera Corpo Truppe Volontarie-an.

Otras veces, ocurría que una persona que había andado como miliciano o gudari, o que tuviera antecedentes políticos, estuviera en edad militar pero el Nuevo Régimen lo identificara como incapaz para el Ejército golpista. Entonces, esa persona era enviada a realizar trabajos forzados a un campo de concentración como el de Miranda de Ebro (Burgos). También se dieron casos en los que tras andar como gudari o miliciano, lo enviaran a realizar trabajos forzados pero para el Ejército golpista en el frente, por ejemplo, con los fascistas italianos del Corpo Truppe Volontarien.

Euskal presoen talde bat Burgoseko espetxean. (Euskal Memoria). / **Un grupo de presos vascos en la cárcel de Burgos.** (Euskal Memoria).

Euskal presoen talde bat Burgoseko espetxean. (Euskal Memoria). / **Campo de concentración de Miranda de Ebro.** (Euskal Memoria).

Langileen batailoi bat bortxazko lanak egiten. (Euskal Memoria). / **Un batallón de trabajadores realizando trabajos forzados.** (Euskal Memoria).

Prisioneros — BATALLON DE TRABAJADORES N.º 37 — Letra C.

Apellidos CANO INZA Nombre JUAN

hijo de Severo C.Olloguiagui Micaela I.Cortadi natural de Urnieta

provincia de Bilbao con residencia en Oria-Urnieta

provincia de Bilbao calle Barrio de Oria núm.

partido judicial de Región militar 6ª nació el 21 de Febrero de 1913 y causó alta en este Batallón el 21 de Noviembre de 1937 como procedente de C.C. de Miranda de Ebro y junta clasificadora de Santoña fué hecho prisionero el 22 de Octubre de 1937 en Pola de Lena y se le instruyó la información en Santoña combatió en los frentes de Vizcaya, Santander y Asturias

desempeñaba los servicios de Soldado e ingresó en el Campo de Santoña el 29 de Octubre de 1938

perteneció a la unidad de Bón Inf.ª nº 4 resultado de la información

estado soltero sabe leer y escribir si nombre y apellidos de su esposa

residencia

provincia calle núm., núm. de hijos nombres

edades ideas políticas y religiosas de su familia

sociedad o sindicato a que pertenecía Sindicato Textil-U.G.T. actividades de su ideología política amistades

enfermedades que ha padecido ninguna

ha sufrido condena No en motivo y edad que tenía es relacidente

carrera u oficio Mecánico prestaba sus servicios en Hilados y Tejidos

ingresó en 15 de Noviembre de 1928 nombre de sus jefes Sres. Brunet y Compª residentes en Oria-Lasarte

provincia San Sebastian calle n.º

ganaba 8,50 aplicación destino o talleres en donde ha estado

Observaciones Familiares en zona roja Ninguno

Trabajos a que se dedica en el Batallón

Huellas dactilares	Señas personales
	Estatura: 1,652 Ojos pardos Vello negro Barba saliente Cejas al pelo Nariz Particulares ninguna

Juan Cano Inzaren sailkatze dokumentua. (AGMG). / **Documento de clasificación de Juan Cano Inza.** (AGMG).



Don José Rivera Marquez Primer Jefe del ciento treinta y dos Batallón de Trabajadores.

CERTIFICO: Que por disposición del Excmo. Sr. Inspector de Campos de Concentración de Prisioneros de Guerra, en escrito de la Sección 1.ª núm. 19.267 de fecha 11 del actual, le ha correspondido ser licenciado al trabajador de este Batallón José Hernando Baltasar de 20 edad hijo de Moises y de Julia natural de Urnieta (Guipuzcoa) con residencia en Urnieta (Guipuzcoa)

Tarifa a 26 de Mayo de 1940

BATALLÓN DE TRABAJADORES PRISIONEROS DE GUERRA N.º 132

Jose Hernando Baltasarren askatasun dokumentua. (AGMG). / **Documento de libertad de José Hernando Baltasar.** (AGMG).

Jose Hernando Baltasar (zutik ezkerretik lehena) langileen batailoietara preso eraman zituzten hainbat kiderekin batera. (Lasarte-Oria 1936-48). / **José Hernando Baltasar (de pie, el primero por la izquierda) junto con varios compañeros que fueron llevados a batallones de trabajadores.** (Lasarte-Oria 1936-48).

Mallorkako kontzentrazio esparruko eraikinak adobe eta lastoz zeuden eginak. (Los campos de concentracion de Franco). / **Los edificios del campo de concentración de Mallorca estaban hechos de adobe y paja.** (Los campos de concentracion de Franco).

LANGILEEN BATAILOIETAN, KONTZENTRAZIO ESPARRUETAN ETA ESPETXEETAN PRESO EGON ZIREN URNIETARRAK /
URNIETARRAS QUE ESTUVIERON EN BATALLONES DE TRABAJADORES, CAMPOS DE CONCENTRACIÓN Y EN PRISIONES

IZENA / NOMBRE	PRESO IZAN ZUTEN LANGILEEN BATAILOIA, KONTZENTRAZIO ESPARRUA EDOTA ESPETXEA / BATALLÓN, CAMPO DE CONCENTRACIÓN O PRISIÓN DONDE ESTUVO PRESO
AGUIRRE AIZPURUA, FRANCISCO	Castro Urdialesen preso egin 1937ko abuztuaren 26an. 17 eta 79 SLDBetan 1940ko irailaren 17a arte / Fue apresado en Castro Urdiales (Cantabria) el 26 de agosto de 1937. En los 17º y 79º BDST hasta el 17 de septiembre de 1940
AGUIRRE MUNDUATE, FRANCISCO	
AISA LARRAÑAGA, NICOLAS	Santoñan egon zen preso / Estuvo preso en Santoña (Cantabria)
ALBA INCIARTE, FAUSTINO	104. SLDBa, Orian jaioa / Nació en Oria; 104º BDST
ALBA, MIGUEL LUIS	90. SLDBa, 3 konpainia, 3 urtez preso / 90º BDST, 3ª compañía; 3 años preso
ALCAIN ELOSEGUI, IGNACIO	Iruñako espetxean, San Pedro de Cardeña. SLDBetan lan egitera behartua, Bruneten. Ondoren mobilizatua eta Kataluniara eramana / Prisión de Iruña, San Pedro de Cardeña (Burgos). Obligado a trabajar en varios BDST, en Brunete (Madrid). Después, movilizado y llevado a Cataluña
ALCAIN OLLOQUIEGUI, SATURNINO	60. SLDBa, ondoren soldadutzara bidalia gidari gisa / 60º BDST, luego enviado a hacer el servicio militar como conductor
ALCORTA ADARRAGA, JUAN	Santa Espina kontzentrazio esparruan preso sententzia aurretik. Gerra Kontseiluan SLDB batera bidalia, San Pedro de Cardeñara / Antes de la sentencia estuvo preso en el campo de concentración de Santa Espina (Valladolid). En el consejo de guerra fue enviado al BDST de San Pedro de Cardeña (Burgos)
ALCORTA CHINCURRETA, RAMON	76. SLDBa, Errenterian kokatua. 1940/06/12an Urnietako udalean aurkeztu zen, aske utzi eta gero / 76º BDST, localizado en Errentería. Tras ser puesto en libertad se presentó en el ayuntamiento de Urnieta, el 12/06/1940
ALDAZ OTAMENDI, FRANCISCO	1940an Cortijo de Briales (Malaga) eraikinean preso aurkitzen zen, bortxazko lanak egiten jornalari bezala, 103 SLDBan. Ondoren soldadutza ordez, 440. SLDBra bidali zuten (Lugo de Llanera, Oviedo), aurretik Miranda de Ebroko kontzentrazio esparruan ere izan zuten preso / En febrero de 1940, se encontraba encarcelado en el edificio Cortijo de Briales (Málaga), haciendo trabajos forzados como jornalero en el 103º BDST. Después, en vez de en el servicio militar estuvo en el 40º BDST de Lugo de Llanera (Asturias); anteriormente también estuvo preso en el campo de concentración de Miranda de Ebro (Burgos)
ALIANZA OTEGUI MAURICIO	Santoña 177. SLDBa eta Gijoneko kontzentrazio esparruak / 177º BDST de Santoña (Cantabria) y campos de concentración de Gijón (Asturias)
ALONSO TURRIENTES, JULIO	Porta Coeli (Valentzia) kontzentrazio esparrua / Campo de concentración de Porta Coeli (Valencia)
AÑORGA LANDA, ATANASIO	Casetas (Zaragoza) herrian, 5 Batallon de Trabajadores Especialistas de Parques y Talleres de Automovilismo (SLDB bat da). Bertan lanean 1938/03/28tik / 5º Batallón de Trabajadores Especialistas de Parques y Talleres de Automovilismo en Casetas (Zaragoza). Trabajando allí desde 28/03/1938
ARANA ECHEVERRIA, JOSE	Miranda de Ebro eta Medina de Riosecoko kontzentrazio esparruak. 5 SLDBa, bertan oso gaixo jarri eta familiak ospitalera eramateko eskatzea eskatu Lasarteko alkateari / Campos de concentración de Miranda de Ebro (Burgos) y Medina de Rioseco (Valladolid). 5º BDST; se puso muy enfermo y la familia pidió al alcalde de Lasarte que pidiera que le ingresaran en un hospital
ARBIZA ARRUTI, MARCIAL	Futbolista, Frantziako Estatuan jokatzen zuen gerrak eztanda egitean. Gerra amaitu eta gero itzuli zen baina atxilotu eta Miranda de Ebroko kontzentrazio esparrura eraman zuten, bortxazko lanak egitera behartuz. Bertan preso zela, Alaves futbol taldeak fitxatu zuen eta kontzentrazio esparrutik ateratzen zuten futbol partidak jokatzeko. Beranduago Real Madrilen eta Errealean ere jokatu zuen / Futbolista, jugaba en el Estado francés cuando estalló la guerra. Volvió cuando terminó la guerra, y fue detenido y enviado al campo de concentración de Miranda de Ebro (Burgos) a realizar trabajos forzados. Allí fue fichado por el equipo de futbol Alavés, de Gasteiz, y del campo de concentración iba a jugar allí y luego volvía otra vez a Miranda. Después fue fichado por el Real Madrid y la Real Sociedad
ARRATIBEL OYARZABAL, JOSE	1886an jaioa. Ondarreta eta Iruñeako San Cristobal espetxeetan egon zen preso. Aske geratu eta gutxira italiar faxisten zerbitzura lan egitera behartu zuten / Nació en 1886. Estuvo preso en las cárceles de Ondarreta en Donostia y San Cristóbal de Iruñea. Al poco de ser puesto en libertad, fue obligado a trabajar al servicio de fascistas italianos
ARRATIBEL ZUAZNABAR, JOAQUIN	
ARREGUI ARRUTI, JUAN JOSE	San Pedro de Cardeñako kontzentrazio esparrua / Campo de concentración de San Pedro de Cardeña (Burgos)
AYESTARAN AGOTE, JUAN BAUTISTA	1940ko ekainaren 26tik Miranda de Ebroko kontzentrazio esparruan. Uztailean 40. SLDBra bidalia eta bertan urte bat eta bederatzi hilabete egon zen. Hau eta gero soldadutza egitera bidali zuten / Desde el 26 de junio de 1940, en el campo de concentración de Miranda de Ebro (Burgos). En julio fue enviado al 40º BDST, y estuvo un año y nueve meses. Después de esto fue enviado a hacer el servicio militar
AZPEITIA BARDAJI, JOSE	Santoñako Institutuko kontzentrazio esparrua, 177 SLDBa / Campo de concentración del instituto de Santoña (Cantabria), 177º BDST
BALTASAR URCELAY, SEVERO	Urnietan bizi, Andoainen gozogile gisa lan egiten zuen. 1939ko urriaren 2an itzuli zen Espainiar Estatura eta atxilotu egin zuten. Miranda de Ebro eta San Pedro de Cardeñako kontzentrazio esparruetan preso izan eta gero, La Magdalenakora (Santander) bidali zuten 1940ko otsailaren 13an, bertan preso zela 83 SLDBan bortxazko lanak egitera / Vivía en Urnieta y trabajaba como repostero en Andoain. El 2 de octubre de 1939 volvió del Estado francés al Estado español y fue detenido. Tras estar preso en los campos de concentración burgaleses de Miranda de Ebro y San Pedro de Cardeña, el 13 de febrero de 1940 fue enviado al de La Magdalena (Santander, Cantabria) a realizar trabajos forzados en el 83º BDST
BENGOECHEA RETEGUI, FRANCISCO	Erratzun jaioa, Oriara lan egitera etorri zen 1936a eta gero, bere familiarekin. 1940ko uztailaren 10ean, 42 urte zituela, atxilotua izan zen eta Ondarretako espetxera eraman zuten preso. Inolako epaiketa edota prozesurik ireki gabe, askatasuna berreskuratu zuen uztailaren 22an / Nacido en Erratzu, vino a trabajar a Oria con su familia. Fue detenido el 10 de julio de 1940, teniendo 42 años, y lo llevaron a la cárcel de Ondarreta. Recuperó la libertad el 22 de julio, sin iniciarse ningún juicio ni proceso contra él
CANO INZA, JUAN	Santoña, Miranda de Ebroko kontzentrazio esparruak. 37 LB / Campos de concentración de Santoña (Cantabria) y Miranda de Ebro (Burgos). 37º BT
CORTAJARENA IGUERATEGUI, JULIAN	2 SLDB (Carabanchel Alto) / 2º BDST de Carabanchel Alto (Madrid)
DIAZ GARCIA, JESUS	

IZENA / NOMBRE	PRESO IZAN ZUTEN LANGILEEN BATAILOIA, KONTZENTRAZIO ESPARRUA EDOTA ESPETXEA / BATALLÓN, CAMPO DE CONCENTRACIÓN O PRISIÓN DONDE ESTUVO PRESO
ECHANIZ AÑORGA, ATANASIO	La Magdalena (Santander) eta Bilbon preso. 1938ko azaroan Ingeniarien komandantzia orokorrera bortxazko langile bezala bidali zuten / Estuvo preso en La Magdalena (Santander, Cantabria) y en Bilbo. En noviembre de 1938 fue enviado a la comandancia general de ingenieros a hacer trabajos forzados
ECHEVERRIA IMAZ, JOAQUIN	
ECHEVERRIA LASARTE, JOSE ANTONIO	Tribunal militarrek bortxazko lanak egitera kondenatua / Condenado a realizar trabajos forzados por los tribunales militares
ECHEVERRIA LASARTE, JOSE RAMON	Bidanian atxilotu eta Hernanin espetxeratua. Libre geratzean Donostiara joan zen / Detenido en Bidania y encarcelado en Hernani. Cuando quedó en libertad se fue a Donostia
ECHEVERRIA LASARTE, PEDRO	San Pedro de Cardeñako kontzentrazio esparrua. Ihes egiten saiatzeagatik bortxazko lanak egitera bidali zuten / Campo de concentración de San Pedro de Cardeña (Burgos). Lo enviaron a realizar trabajos forzados por intentar escapar
ECHEVERRIA UNZUETA, JUAN	Logroñoko atxilotu eta aurkeztuen batzordea / Comisión de detenidos y presentados de Logroño
ECHEVESTE ARREGUI, JOSE	89 LBa, 14. Diziplina Batailoia / 89º BT, 14º Batallón Disciplinario
EIZMENDI GARRO, PEDRO JOSE	75 SLZDB (Melilla), baldintzapeko askatasunarekin zela mobilizatua bortxazko lanak egiteko / 75º BDSTP (Melilla), fue movilizado para realizar trabajos forzados cuando se encontraba en libertad provisional
ELICEGUI ARREGUI, IGNACIO	San Juan de Mozarrifar (Zaragoza) kontzentrazio esparrua, Donostian preso 1940 urtean / Campo de concentración de San Juan de Mozarrifar (Zaragoza); en 1940 estaba preso en Donostia
FERNANDEZ ABALIA, SEGUNDO ISMAEL	Comando Genio CTV (italiar faxistak) barnean zegoen langileen batailoian egon ostean, Zaragozan bizi / Tras estar en el batallón de trabajadores integrado en el Comando Genio CTV (fascistas italianos), vivía en Zaragoza
GABILONDO ECHANIZ, PEDRO	Comando Genio CTV (italiar faxistak) barnean zegoen langileen batailoian / En el batallón de trabajadores integrado en el Comando Genio CTV (fascistas italianos)
GABILONDO ECHANIZ, SIMEON	1938ko otsailean Santoñan zuten preso. Comando Genio CTV (italiar faxistak) barnean zegoen langileen batailoian bortxazko lanak ere egin zituen / En febrero de 1938 estaba preso en Santoña (Cantabria). También realizó trabajos forzados en el batallón de trabajadores integrado en el Comando Genio CTV (fascistas italianos)
GARAGORRI SAGASTUME, JOSE ANTONIO	Zulatzaile eta lubakitzaileen batailoiaren langileak (bortxazko lanak) / Realizó trabajos forzados en un Batallón de Zapadores-Minadores
GARAGORRI SAGASTUME, SEBASTIAN	40 SLDBarekin Campos de Puerto (Mallorca) / En el 40º BDST de Campos de Puerto (Mallorca)
GARCIA BLAZQUEZ, JUAN	
GARCIA LACALLE, PANTALEON	68. LBa / 68º BT
GARCIA NAVARRO, FRANCISCO	
GARMENDIA ARIZTIMUÑO, ANGEL	"El Canal" kontzentrazio esparruan, Medina de Riosecon (Valladolid) / En el campo de concentración de El Canal, en Medina de Rioseco (Valladolid)
GARMENDIA GURIDI, LUIS	
GARRO EIZMENDI, FAUSTINO	Santoñako espetxea, Miranda de Ebroko kontzentrazio esparrua, 37. LBa, 9. SLDBa eta 30. SLDBa / Prisión de Santoña (Cantabria), campo de concentración de Miranda de Ebro (Burgos), 37º BT, 9º BDST y 30º BDST
GARRO TOLOSA, ANGEL	
GAZTAÑAGA RODRIGUEZ, FRANCISCO	Seminario del Monte Corban kontzentrazio esparruan (Santander), bertatik 67. LBra / En el campo de concentración del seminario de Monte Corbán (Santander, Cantabria); de allí al 67º BT
GAZTAÑAGA RODRIGUEZ, RAFAEL	75. SLDBa (Maroko). Gursen preso egon eta gero itzultzean atxiki eta bortxazko lanak egitera bidali zuten / 75º BDST (Marruecos). Cuando volvió, después de estar preso en Gurs, fue apresado y enviado a realizar trabajos forzados
GOYARAN OLAZAGUIRRE, LUIS	Santanderren atxilotua, espetxe frankistetan egon zen preso bi urte inguru / Detenido en Santander, estuvo encarcelado alrededor de dos años en cárceles franquistas
HERNANDO BALTASAR, JOSE	Miranda de Ebro, 66. SLDBa, 27. SLDBa, 1942ko abuztua arte. Tartean Cadizko ospitale militarrean ingresatua egon zen / Miranda de Ebro (Burgos), 6º BDST, 27º BDST, hasta agosto de 1942. Durante un tiempo estuvo ingresado en el hospital militar de Cádiz
HERNANGIL YUBERO, DOROTEO	26. SLDBa, Albarracin (Teruel) / 26º BDST, Albarracín (Teruel)
INZA IÑURRIETA, JOSE	
IRIARTE LACALLE, EMILIO	
IRIZAR OTEGUI, MARTIN	La Corchuelako kontzentrazio esparrua, bortxazko lanerako esparru bat zen, hara Espetxe-kolonia militarizatukoak bidali ziren (Dos Hermanas, Sevilla) / Campo de concentración de La Corchuela (Dos Hermanas, Sevilla) a donde fueron enviados los de las colonias penitenciarias militarizadas
ISASA GORRITI, MANUEL	SLDB batean egon zen (Felipe Aranjuelok lagundu zion bertatik irteten) / Estuvo en un BDST (Felipe Aranjuelo le ayudó a salir de allí)
LASARTE ARRILLAGA, JUAN	
LOPEZ GARIN, ANTONIO	
MACAZAGA ARRUTI, VICENTE	3 hilabete kontzentrazio-esparru batean, ondoren 77 SLDBan / Tres meses en un campo de concentración, después en el 77º BDST

IZENA / NOMBRE	PRESO IZAN ZUTEN LANGILEEN BATAILOIA, KONTZENTRAZIO ESPARRUA EDOTA ESPETXEA / BATALLÓN, CAMPO DE CONCENTRACIÓN O PRISIÓN DONDE ESTUVO PRESO
MARTINEZ ADARRAGA, JOSE	Seminario del Monte Corban (Kantabria) izan zuten preso, Bilboko Eskolapioetan preso egon aurretik. Gero soldadutzara deitu eta Miranda de Ebro eta Miguel de Unamunoko kontzentrazio esparruetan. Azkenik 28 SLDBa / En el seminario de Monte Corbán (Santander, Cantabria) antes de estar preso en los escolapios de Bilbo. Luego le llamaron a hacer el servicio militar y en los campos de concentración de Miranda de Ebro (Burgos) y Miguel de Unamuno (Madrid). Finalmente, en el 28º BDST
MUGICA BERRAONDO, VALENTIN	
MUÑOZ JIMENO, VICTORIANO	Gasteiz eta Miranda bitarteko errepidean bortxazko lanak egiten / Realizando trabajos forzados en la carretera entre Gasteiz y Miranda
ODRIOZOLA LASARTE, RAMON	1915/12/17an Urnietan jaioa, Armadan aurkitzen zen estatu-kolpea eman zenean, erroldan Ferrolen zegoela eta "marino preso" bezala izendatzen da. 1942/07/04ean Cadizko Cuatro Torres espetxetik Urnietako udalera baldintzapeko askatasuna lortzeko eskaera iritsi zen / Nació el 17/12/1915 en Urnieta; cuando se dio el golpe de Estado estaba en el Ejército, en el censo se dice que estaba en Ferrol como "marino preso". El 04/07/1942 llega al Ayuntamiento de Urnieta, desde la cárcel Cuatro Torres de Cádiz, la petición para conseguir la libertad condicional
OLAZAGUIRRE MUGICA, VALENTIN	12. SLDBan Ceutan / En el 12º BDST de Ceuta
OLLOQUIEGUI URDAMPILLETA, REGINO	Iruñeako espetxe batean egon zen preso / Estuvo preso en una cárcel de Iruña
ORMAZABAL INCHAUSTI, JOSE	Gironako herri batean izan zuten preso / Estuvo preso en una cárcel de Girona
OROTEGUI BELAMENDI, ALBERTO	Gijongo (Asturias) zezen-plazako kontzentrazio-esparruan, hiltzera kondenatua; Bruneteko buruzagiak bere alde idatzi zuen, gidaria baitzen bere enpresan, eta horri esker, ez zuen exekutatu / En el campo de concentración de la plaza de toros de Gijón (Asturias), condenado a muerte; el dirigente de Brunet escribió en su favor, ya que era conductor en su empresa, y gracias a ello evitó que le ejecutaran
OTEGUI ZABALA, JESUS	
PAGOLA SAN SEBASTIAN, VICTORIANO	75. SLDBa (Belchite, Zaragoza) / 75º BDST (Belchite, Zaragoza)
PONTESTA MARTICORENA, TIBURCIO	Gerra kontseiluan absolbitua, baina bortxazko lanak egitera bidalia / Absuelto en el consejo de guerra pero enviado a realizar trabajos forzados
ROMO ZULAICA, JUAN	Murgiako kontzentrazio esparrua / Campo de concentración de Murgia
SAENZ GARMENDIA, RAMON	SLDB batera eta Kontzentrazio esparru batean egon zen preso / A un BDST y en un campo de concentración
SARABIA TORRE, NEMESIO	1942ko martxotik uztailera 50 SLDBan izan zuten preso. Bertatik, 49 SLDBra eraman zuten (Unamunoko kontzentrazio esparruan). 1946ko martxoan, soldadutzako erregimendu batera bidali zuten, Batallon Ciclista Cantabria nº39 / Estuvo preso en el 50º BDST de marzo a julio de 1942. De allí, fue llevado al 49º BDST en el campo de concentración de Unamuno (Madrid). En marzo de 1946, fue enviado a un regimiento del servicio militar, Batallón Ciclista Cantabria nº 39
SEVILLANO IDIAZABAL, RAFAEL	Medina de Rioseco / Medina de Rioseco (Valladolid)
SORRONDEGUI INCHAUSTI, CLAUDIO	Sukaldaria, 25 urte, Lizarran egon zen preso eta 1937ko urrian San Pedro de Cardeñako kontzentrazio esparrura eraman zuten / Cocinero, 25 años, estuvo preso en Lizarra y en octubre de 1937 fue llevado al campo de concentración de San Pedro de Cardeña (Burgos)
TRECU TEJERIA, JUAN BAUTISTA	
ZABALETA ARTOLA, PABLO	Gerra kontseiluan absolbitua, baina bortxazko lanak egitera bidalia / Absuelto en el consejo de guerra pero enviado a realizar trabajos forzados
ZURIARRAIN OLAVE, JOSE	Santanderren eta Burgosen preso, guztira bi urte inguru / Estuvo preso en Santander y Burgos, en total alrededor de dos años

Comando Genio C. T. V. Bón. de Trabajadores 1ª Compañía

MEDIA FILIACION

Se incorporó el día 13 de Diciembre de 1937

Cumplió el día 30-11-19..

Procede de Campo de Concentración de S. Juan de Mozarrifar

Está en la casificación

Salió a incorporarse a San Juan de Mozarrifar (Zaragoza)

Ismael Fernández Abalia

hijo de Esteban y de Dominica

natural de Oria provincia de Guipuzcoa, residencia actual en Pasajes Ancho calle de Ceromi Berlegui núm. 1 piso 1º

Estado soltero Edad 21 Nombre de su mujer

Religión Católica Estatura 1'70

Pelo Cast. Ojos pardos Cejas Cast. Nariz regular

Barba escasa Boca grande Color moreno

Señas particulares

Sirvió en

Firma y huellas dactilares

Ismael Fernández

1º de Enero de 1938

Hainbat urnietar italiar faxistentzat bortxazko lanak egitera behartuak izan ziren. (AGMG). / **Algunos urnietarras fueron obligados a realizar trabajos forzosos para fascistas italianos.** (AGMG).



Oiako (Pontevedra) kontzentrazio esparruan presoek eginiko graffitia. (Los campos de concentracion de Franco). / Grafiti realizado por los presos en el campo de concentración de Oya (Pontevedra). (Los campos de concentracion de Franco).

San Cristobal gotorlekua (Iruña) kontzentrazio-esparru bilakatu zuten. (Euskal Memoria). / El fuerte de San Cristóbal (Iruña) fue convertido en campo de concentración. (Euskal Memoria).

Upo-mendi itsasontzi-espetxeko bizi baldintza txarregatik hil zen Angel Garro Tolosa. (Vidamaritima web-orrialdea). / Ángel Garro Tolosa murió por las malas condiciones de vida en el barco prisión *Upo-mendi*. (página web Vidamarítima).

Lasarte, Oria eta Andoaingo presoak, Cijuelako langile batailoietan: Atzean, ezker-eskuin, Jose Zabala, Ramon Salazar eta Faustino Garro. Aurrean, Teodoro Txopitea, identifikatu gabe eta Juan Cano. (Lasarte-Oria 1936-48). / Presos de Lasarte, Oria y Andoain en los batallones de trabajadores de Cijuela (Granada): Detrás, de izquierda a derecha, José Zabala, Ramón Salazar y Faustino Garro. Delante, Teodoro Txopitea, sin identificar y Juan Cano (Lasarte-Oria 1936-48).

Gurs

Gerra zela eta Urnieta uztera behartuak agertu ziren ehunka herritarretatik, gehiengoa 1937ko udan Bizkaia eta Gerra Zibileko Iparraldeko Frontea erortzean kolpistek atxiki zituzten. Horietako askok tortura eta tratu txarrak, espetxea, bortxazko lanak edota deserriratzea pairatu zuten. Urnietara itzultzea lortu zutenak berriz, mespretxatuak, baztertuak edota lanpostu edo etxebizitza gabe aurkitu ziren. Hala ere, kolpisten atzamarretatik ihes egitea lortu zuten eta erbesterako bidea egin zuten urnietarrak ere aurki genitzake.

Hauek hiru taldetan banatu genitzake, lehena, kargu publiko nabarmenak izan zituzten politikari eta milizianoak. Hauek, kolpistek haien aurka burutu zezaketen errepresioaren beldur ziren eta horregatik itsasoz ihes egiteko beharra izan zuten. Bigarrenak, itsasoz ihes egitea lortu zuten zibil eta familiak eta Eusko Jaurlaritzak haurrak atzerrian errefuxiatu gisa babesteko antolatu zuten kanpainan joandako haurrak aurki genitzake. Bi hauek errefuxiatuen orrialdeetan agertu izan dira. Hirugarrenak, kolpisten armadaren setiotik itsasoz ihes egitea lortu zuten gudari eta milizianoak izan ziren, hauek Frantziako Estatua gurutzatu eta gero, Kataluniara igarotzea lortu zuten eta 1937 amaieratik aurrera, kolpisten aurkako borrokan jarraitu ahal izan zuten.

Gudari eta miliziano hauek armada errepublikanora batu ziren, hainbat batailoietan engaiatuz eta hurrengo urteetan eman ziren borroka garrantzitsuenetan parte hartuz. Horrela, milaka izan ziren Zaragoza eta Teruel bezalako fronteetan borrokatu zuten euskal herritarrak, tartean urnietarrak aurkitzen zirelarik. Gainera, askotan beraien aurrean armada frankistak jaioterrian bertan indarrez errekrutatutako urnietar ugari aurkitu zituzten trintxeraren beste aldean, frontean hildako armada frankistako urnietarren atalean ikus daitekeen gisan.

1937an, Kataluniako lurraldea egonkor samar mantendu zen, borroka gehienak Aragoiko frontean gauzatu zirelarik Zaragoza eta Teruelen aurka errepublikanoek eginiko erasoei esker, hiri hau berreskuratuz. Hala ere, azken hau berriro kolpisten esku erori zen 1938ko otsailean eta honek Ebroko batailara eramango zituzten bi armadak, urte honetako udan. Errepublikanoek nahiz eta lurralde batzuk bereganatu, ez zituzten zehaztuak zituzten helburuak bete. Gainera armada frankistak udazken eta neguan eginiko kontra-ofentsibetan lurraldea bereganatzeaz gain Kataluniaren aurkako kanpaina bati ekin zion.

Horrela, kolpistek Ebro ibaia gurutzatu eta Tarragonan gora eginez Bartzelonaren aurkako erasoaldiari ekin zioten. Honek Kataluniako fronte guztiaren gainbehera ekarri zuen 1939 hasieran, orokorra izan zena Bartzelona kolpisten esku erori zenean urtarrilaren 26an. Honen ondorioz, hamarnaka mila kataluniar eta beste hainbat errefuxiatu tartean milaka euskaldunek, errepresio uholde berri baten beldur, Girona eta ondoren Perpignanerako bideari ekin zioten. Honek bigarren erbestealdi masibo bat eragin zuen, Generalitateko eta Eusko Jaurlaritzako kide ugari buru zituena. Hala ere, errefuxiatu kopuruaren beldur, Frantziako Estatuak muga ixtea erabaki zuen, milaka eta milaka errefuxiatu bertan pilatu zirelarik, krisi eta izu egoera orokortu bat sortuz, armada kolpistak jazartzen baitzituzten. Azkenean baina, erabaki honek izan zitzakeen ondorio larriengatik eta sortu zezakeen

Gurs

De los cientos de urnietarras que se vieron obligados a dejar Urnieta por la guerra, la mayoría fueron apresados por los golpistas cuando el verano de 1937 cayeron sucesivamente Bizkaia y el Frente Norte de la Guerra Civil. Muchos de ellos sufrieron torturas y malos tratos, prisión, trabajos forzados o destierro. Por otro lado, los que consiguieron volver a Urnieta sufrieron el desprecio y la marginación, y a veces se encontraron sin puesto de trabajo o vivienda. De todos modos, también encontramos urnietarras que escaparon de las garras de los golpistas e hicieron el camino al exilio.

A estos los podríamos clasificar en tres grupos: el primero, el de los políticos y milicianos que tuvieron cargos públicos destacados. Estos tenían miedo de la represión que pudieran aplicar los golpistas en su contra y, por eso, tuvieron que escapar en barco. El segundo, encontramos a los civiles y familias que consiguieron huir en barco, y los niños que se fueron en la campaña organizada por el Gobierno Vasco para proteger como refugiados a los niños en el extranjero. De estos dos grupos hemos hablado anteriormente. El tercer grupo sería el caso de los gudaris y milicianos que lograron huir en barco del asedio del Ejército golpista.

Estos se unieron al Ejército republicano, en diferentes batallones, y participaron en los combates más importantes que se dieron durante los años siguientes. Por ejemplo, fueron miles los vascos que combatieron en los frentes de Zaragoza y Teruel; entre ellos algunos urnietarras. Además, muchas veces, se encontraron con que en la trinchera de enfrente había algunos urnietarras que fueron reclutados a la fuerza por el Ejército franquista en su pueblo natal, tal como se puede ver en el capítulo de los urnietarras muertos en el frente combatiendo con el Ejército franquista.

En 1937, el territorio catalán se mantuvo bastante estable, ya que la mayoría de los combates se llevaron a cabo en el frente de Aragón, gracias a las ofensivas realizadas por los republicanos contra Zaragoza y Teruel que lograron recuperar esta ciudad. De todos modos, en febrero de 1938 cayó de nuevo en manos de los golpistas, y esto llevó a los combatientes a la batalla del Ebro, el verano del mismo año. Aunque los republicanos recuperaron algunos territorios, no llevaron a cabo los objetivos especificados, y los franquistas, además de recuperar el territorio en las contraofensivas realizadas en otoño e invierno, comenzaron con una campaña contra Cataluña.

Así, los golpistas cruzaron el río Ebro y, subiendo por Tarragona, comenzaron con la ofensiva contra Barcelona. Esto supuso la caída de todo el frente de Cataluña a comienzos de 1939, acentuada por la caída de Barcelona en manos de los golpistas el 26 de enero. Debido a ello, decenas de miles de catalanes y otros tantos refugiados –entre ellos miles de vascos– se fueron hacia Girona y luego a Perpignan, por miedo a una nueva ola de represión. Se dio una segunda etapa de exilio masivo dirigido por muchos miembros de la Generalitat y el Gobierno Vasco. Pero el Estado francés, por miedo a la cantidad de refugiados, cerró la frontera, y miles y miles de refugiados se apilaron, creando una situación generalizada de crisis y miedo, ya que el Ejército golpista los perseguía. Debido a las graves consecuencias y la crisis humanitaria que pudiera crear esa

krisi humanitarioa ikusirik, errefuxiatuak muga zeharkatzeko baimena lortu zuten, eta kalkulatzen da 450.000 pertsonak zeharkatu zituztela Pirinioak, erbesterako bidean[513].

decisión, los refugiados lograron el permiso para cruzar la frontera. Se calcula que unas 450 000 personas cruzaron los Pirineos, camino al exilio[513].

Errefuxiatuak Frantziako Estatura ihesean zihoazela, mugan blokeatuak izan ziren. (Euskal Memoria). **/ Los refugiados fueron bloqueados en el camino, cuando iban huyendo al Estado francés.** (Euskal Memoria).

Muga zeharkatzen zuten milizianoak miatuak eta armak uztera behartuak izan ziren. (Euskal Memoria). **/ Los milicianos que cruzaban la frontera eran cacheados y obligados a entregar las armas.** (Euskal Memoria).

[513] Chueca, J. (2007) / Chueca, J. (2007).



Milaka errefuxiatu hondartzetan itsasoa eta txarrantxen artean preso izan zituen Frantziako Estatuak. (Euskal Memoria). /
El Estado francés tuvo a miles de refugiados apresados en playas, entre el mar y los alambres de espino. (Euskal Memoria).

Hala ere, Estatu Frantzesak mugan bertan miaketak burutu zituen indar polizial eta militarrak baliatuz, miliziano guztiei armak kendu eta ondoren errefuxiatu guztiak identifikatu eta kontzentrazio esparruetara bidaltzeko. Horrela, taldeetan banatu eta behin-behinean eratutako kontzentrazio esparruetara eraman zituzten preso errefuxiatuak, hasiera batean "champs sur la plage" bezala ezagutuko zirenak. Hauek, definizioak berak adierazten duen gisan, hondartzetan sortu zituzten txarrantxaz inguratutako esparruak ziren, non albo batean polizia edo militar armatuak eta txarrantxak zituzten eta bestean berriz Mediterraneo itsasoa. Esparru ugari eratu ziren helburu honekin, eta urnietarrak preso egon zirenak Argèles sur Mer, Barcarès edota Saint Cyprien izan ziren besteak beste. Hurrengo egun eta hilabeteetan, Estatu Frantsesak polizia eta armadaren laguntzarekin, behin-betiko kontzentrazio esparruak eratzeari ekin zion. Hauek, egurrezko barrakoiez osatuak zeuden eta txarrantxa eta hesi ugariz inguratuak, errefuxiatuen gaineko kontrol zorrotz bat edukitzeko helburuarekin. Guztira 350 esparru ezberdin eraiki zituzten Frantziako Estatu guztian barreiatuak.

Izan ere, gobernu frantsesa ez zen eroso sentitzen gerratik ihesi muga zeharkatu zuten milaka miliziano eta errefuxiatuekin, "izaera ezkertiar eta arriskutsudun" pertsonak zirela uste baitzuten eta beldur ziren Frantziako Estatuko mugimendu ezkertiarrekin harremanak egin eta elkarlanean alderdi ezkertiarren indartze bat sortzeaz. Ondorioz, Pariseko gobernuaren erabakia denak atxiki eta beraien kontrolpeko esparruetan preso izatea izan zen. Euskaldunen kasuan, Eusko Jaurlaritzako kide ziren Telesforo Monzon, Jesus Luisa eta Ander Bereziartua autoritate frantsesekin kontaktuak egin zituzten eta esparru ezberdinetan dispertsatuak zeuden euskal errefuxiatu guztiak esparru bakarrean biltzeko negoziazio bat burutu zuten. Hasiera batean, Argèles sur Mer kontzentrazio esparruan bildu zituzten, "Gernika-Berri" izena ezarriz baina azkenean denak Gurs herriko esparrura lekualdatu zituzten. Oloroe ibaiaren bailaran kokatzen da hau, Mauletik 19 kilometrora, Euskal Herriko mugetatik gertu.

De todos modos, el Estado francés realizó inspecciones en la misma frontera valiéndose de las fuerzas policiales y militares, para quitar las armas a todos los milicianos y, después, para identificar a todos los refugiados y mandarlos a campos de concentración. Así, repartieron a los refugiados presos en grupos y los enviaron a campos de concentración creados provisionalmente, conocidos al comienzo como "champs sur la plage" (campamentos de la playa). Estos, tal como dice la definición, eran campos creados en las playas y estaban rodeados de alambre de espino; por lo tanto, por un lado tenían a los policías o militares armados y al otro el mar Mediterráneo. Se crearon muchos campos con ese objetivo, pero los urnietarras estuvieron sobre todo en Argèles sur Mer, Barcarès y Saint Cyprien. En los próximos días y meses, el Estado francés empezó a construir campos de concentración definitivos, con la ayuda de la policía y el Ejército. Estaban formados por barracones de madera y rodeados por muchas vallas de alambre de espino, con el objetivo de tener un control riguroso sobre los refugiados. En total construyeron 350 campos desperdigados en todo el Estado francés.

El gobierno francés no se sentía cómodo con los miles de milicianos y refugiados que cruzaron la frontera huyendo de la guerra, porque creían que eran personas "de naturaleza izquierdista y peligrosa", y tenían miedo de que se relacionaran con los movimientos izquierdistas del Estado francés y que con la colaboración se fortalecieran los partidos izquierdistas. En consecuencia, la decisión del gobierno de París fue apresarlos a todos y tenerlos en campos de concentración bajo su control. En el caso de los vascos, los miembros del Gobierno Vasco Telesforo Monzon, Jesús Luisa y Ander Bereziartua contactaron con las autoridades francesas, y llevaron a cabo una negociación para reunir a todos los refugiados vascos que estaban dispersados en varios campos en uno solo. Al principio los reunieron en el campo de concentración de Argèles sur Mer, poniéndole el nombre de "Gernika-Berri", pero finalmente todos fueron trasladados al campo de concentración de Gurs. Estaba en el valle del río Olorón, a 19 kilómetros de Maule, cerca de las fronteras de Euskal Herria.

Gurseko kontzentrazio esparruko hainbat irudi. (Euskal Memoria). / **Varias imágenes del campo de concentración de Gurs.** (Euskal Memoria).

Kontzentrazio esparru hau 1939ko martxoaren 15ean sortu zen eta 18.500 pertsona inguru batzera iritsi zen. Esparrua, "irla" deitzen zitzaien azpi-esparruz eratua zegoen, 13 zirelarik guztira. Hauek 162 metro luze eta 89 metro zabaleko tamaina zuten eta txarrantxaz inguratuak zeuden, gainontzeko irletatik bananduak egoteko. Euskaldunen kasuan, gehiengoa A, B, C eta D irletan aurkitzen ziren. Aipatu diren irla bakoitzaren barnean, hainbat barrakoi aurkitzen ziren, esparru guztian orotara 328 aurkitzen zirelarik. Barrakoiak 24x6 metroko tamaina zuten eta egur taula finezko hormak eta metalezko txapazko teilatua zuten, lurralde honetako eguraldi eta tenperaturei aurre egiteko gabezia larriak zituztela adierazten dutenak[514]. Horretaz gain, argiteria eta ur zerbitzu benetan mugatua zuten. Azkenik, esparruaren gehiengoa lur soila zen eta euria egiten zuenean guztiz lokazten zen, bertako bizi baldintzak asko gogortuz.

Behin Gerra Zibila amaitua, Frantziako Estatua, errefuxiatuen auzia ebazteko bidean, aterabideak eskaintzen hasi zen hauei. Lehena, Espainiako Estatura itzultzeko aukera ematea zen. Hautu hau, ehunka euskal herritarrek hartu zuten, beraien senitartekoekin kontaktuan jarri eta Euskal Herrian egoeraren gordinena pasa zela ikusita eta autoritate frankistek beraien aurka izan zezaketena ikertu eta gero. Bigarrena, erbesterako bidea izan zen, eta gobernuak horretarako hainbat portutan Atlantikoa zeharkatzeko itsasontziak antolatzeari ekin zion. Hautu hau orokorrean, kargu politiko edo militarrak izan zituztenak eta gerran parte hartze nabarmena izan zutenek hartu behar izan zuten, itzuliz gero heriotza edota espetxeratze luzeak pairatu beharko baitzituzten. Erbesterako biderik ohikoena Amerikarako bidea izan zen, Hego Amerika eta Mexiko batez ere. Azkenik, kontzentrazio esparrutik irteteko beste bide bat Langileen Konpainiak izan ziren, hauek Frantziako Estatuko Lan Ministerioak antolatutako lantaldeak ziren, eta langile eskasia zegoen sektoreetan lan esku merkea erabiltzeko helburuarekin sortu ziren. Hau, populazio eskasia zegoen eskualdeetan nekazaritza lanak egiteko edota gerraren hurbiltasunak ekarritako soldaduen mobilizazioak utzitako hutsuneak betetzeko erabili zituzten agintariek. Euskaldunen kasuan, gehiengoa nekazal eskualdeetara bideratua izan zen, landa eremu ezberdinetara bidaliak izan zirelarik. Industria arloan kualifikazioa zutenak berriz, gutxiengoa izan ziren baina hauek hiri handietako zonalde industrialetara bidali zituzten. Hala ere, bide hau "arriskutsuak" ez ziren pertsonak soilik egin zezaketen eta zaintza zorrotz batenpean.

Este campo de concentración se creó el 15 de marzo de 1939 y llegó a tener a 18 500 personas. El campo estaba dividido en trece subcampos, llamados "islas". Estos medían 162 metros de largo y 89 metros de ancho, y estaban rodeados de alambre de espino, para estar separados de las demás islas. La mayoría de los vascos estuvieron en las islas A, B, C y D. Dentro de cada isla había varios barracones, y en total, en todo el campo, había 328. Los barracones medían 24x6 metros, y tenían paredes de tablas finas y tejados de chapa metálica, lo cual demuestra las graves carencias que tenían para hacer frente al tiempo y a las temperaturas de esta región[514]. Además, el servicio de luz y agua era muy limitado. Finalmente, la mayor parte del campo no era más que tierra y, por lo tanto, cuando llovía se embarraba totalmente, endureciendo mucho las condiciones de vida.

Una vez terminada la Guerra Civil, el Estado francés empezó a ofrecer soluciones a los refugiados, para resolver su cuestión. La primera, dar la opción para volver al Estado español. Esta opción fue elegida por cientos de vascos, tras ponerse en contacto con sus familiares y viendo que en Euskal Herria lo más duro de la situación ya había pasado y tras investigar lo que pudieran tener las autoridades franquistas en su contra. La segunda opción era el exilio, y para ello el gobierno empezó a organizar barcos en varios puertos, para cruzar el Atlántico. Esta opción, en general, la tuvieron que coger los que tuvieron cargos políticos y militares y los que tuvieron una participación destacada en la guerra, ya que si volvían tendrían que padecer largos encarcelamientos o la muerte. El camino más habitual para el exilio fue América, sobre todo Sudamérica y México. Finalmente, otra opción para salir del campo de concentración eran las Compañías de Trabajadores. Estos eran grupos de trabajo organizados por el Ministerio de Trabajo del Estado francés, y fueron creados con el objetivo de utilizar mano de obra barata en los sectores que había escasez de trabajadores. Las autoridades las utilizaron para realizar trabajos de agricultura en regiones con escasez de población, o para llenar los vacíos que se crearon a raíz de la movilización de soldados acaecida por la cercanía de la guerra. En el caso de los vascos, la mayoría fue dirigido a campos de agricultura, siendo enviados a varias zonas rurales. Los que tenían alguna cualificación en el ámbito industrial, que eran minoría, fueron enviados a zonas industriales de las grandes ciudades. De todos modos, este camino solo lo podían hacer personas que no eran "peligrosas" y bajo una rigurosa vigilancia.

[514] Id.

1939ko bigarren erdian zehar eta batez ere udan, kontzentrazio esparrua uzteko erritmoa azkartu egin zen, gehiengoak data hauetan utzi baitzuten Gurs, Espainiako Estatura eta erbesterako bidea hartuz. Atlantikoa gurutzatzeko helburua zuten itsasontziak 1940 hasiera arte mantendu ziren, baina erritmoa asko geldotu zen data horietarako[515]. Gainontzekoak, Langileen Konpainietan edota Frantziako Estatuan errefuxiatu gisa geratu ziren. Asko, Frantziako Estatuak Alemaniari gerra deklaratzean, gerra esfortzurako mobilizatuak izan ziren, gerra industrian lan egitera edota Maginot defentsa sistemara eramanak izan zirelarik. Hala ere, Alemania gerran gailentzean, egoera asko gordindu zen euskal errefuxiatuentzat, bertan preso geratzen zirenak euskal agintari politiko eta gudari zein miliziano nabarmenak baitziren. Gursen kasuan, 1940ko ekainean, 800 bat euskaldun geratzen ziren, baina hauek egun gutxitan esparrua uztea lortu zuten, Frantziako Estatuaren gainbehera baliatuz. Hauetako askok Hego Amerikarako bidea egin zuten, beste batzuk Londresera eta gainontzekoak Ipar Euskal Herrira. Adibidez azken honen aldeko hautua egin zuen Victorio Vicuña Ferrero lasartearrak[516]. Bertan, PCEren agindupean ezarri zen eta nazien aurkako erresistentziara batu zen. 1944an, alderdi komunistaren aginduak betez, Espainiako Estatuan gerrilla mugimendua indartzeko agindua jaso zuen eta Hego Euskal Herrian makien mugimendua antolatu eta gidatzen jardun zuen. Echezar Garro anaien kasuan, Lorenzo eta Agustin Gursen egon ziren preso eta ondoren Frantziako Estatuan geratu ziren bizitzen, beste anai batzuekin batera. Urnietarren kasuan, nabarmentzekoa da, Gursen preso egon zirenen artean, 1934ko Iraultzan parte hartu zutenen kopuru garrantzitsu bat aurkitzen dela, honek esan nahi du Oria eta Lasarteko langile mugimenduko parte aktibo ziren pertsona ugarik amaitu zutela kontzentrazio esparru honetan preso.

Hauek dira Gurseko kontzentrazio esparruan une ezberdinetan egondako urnietarrak:

En la segunda mitad de 1939, y sobre todo en verano, el ritmo de abandonar el campo de concentración se aceleró, ya que la mayoría lo abandonaron en esas fechas, encaminándose al Estado español o al exilio. Los barcos que tenían como objetivo cruzar el Atlántico se mantuvieron hasta 1940, pero el ritmo se ralentizó mucho para esas fechas[515]. Los demás se quedaron en las Compañías de Trabajadores o en el Estado francés como refugiados. Cuando el Estado francés declaró la guerra a Alemania, muchos fueron movilizados para el esfuerzo de guerra, siendo llevados a trabajar en la industria de guerra o al sistema de defensa Maginot. De todos modos, cuando Alemania dominó en la guerra, la situación encrudeció mucho para los refugiados vascos, pues los que quedaban presos eran dirigentes políticos y gudaris o milicianos destacados. En Gurs, en junio de 1940, quedaban alrededor de 800 vascos, pero en pocos días lograrían dejar el campo, aprovechando el declive del Estado francés; muchos irían a Sudamérica, otros a Londres y los demás se quedarían en Iparralde. Por ejemplo, el lasartearra Victorio Vicuña Ferrero optó por esa última opción[516]. Allí se instaló bajo las órdenes del PCE y se unió a la resistencia contra los nazis. En 1944, recibió la orden del partido comunista de fortalecer el movimiento guerrillero en el Estado español, y estuvo organizando y dirigiendo el movimiento de los maquis en Hegoalde. Es reseñable también el caso de los hermanos Echezar Garro, ya que Lorenzo y Agustín estuvieron presos en Gurs y, después, se quedaron viviendo en el Estado francés junto con otros hermanos. Es de destacar en el caso de los urnietarras que estuvieron presos en Gurs, el importante número de personas que habían participado en la Revolución de 1934; eso quiere decir que muchas personas que fueron parte activa en el movimiento obrero de Oria y Lasarte terminaron presos en este campo de concentración.

A continuación, damos los nombres de los urnietarras que en algún momento estuvieron en el campo de concentración de Gurs:

ALBA INZIARTE, FAUSTINO

Orian jaioa, Ordiziara bizitzera joana zen 1936an gerrak eztanda egin zuenean. Gerra aurretik, zapatagilea zen eta UGT sindikatuko zein JS antolakundeko militantea. Gerra Zibileko Iparraldeko Frontea erortzean Kataluniara ihes egitea lortu zuen eta bertan armada errepublikanora batu zen, kabo maila lortzera iritsiz. Baina 1939ko hasieran, kolpistak Ebrotik gora erasoa jotzean, muga zeharkatu eta Frantziako Estatuan babestu zen. Frantziako indar polizialek atxilotu egin zuten orduan eta Saint Cyprien eta Barcareseko kontzentrazio esparruetan preso izan eta gero Gursekora eraman zuten[517]. Faustino hemen egongo zen preso, Espainiako Estatura itzultzea erabaki zuen arte, non atxilotua izan zen eta bortxazko lanak egitera bidalia, 104 langileen batailoira, Jimena de la Fronterara, 1940 urtean[518].

Nació en Oria, pero cuando estalló la guerra en 1936 ya vivía en Ordizia. Antes de la guerra era zapatero y era militante del sindicato UGT y de la organización JSU. Cuando cayó el Frente Norte de la Guerra Civil, logró huir a Cataluña y allí se unió al Ejército republicano; llegó a tener la graduación de cabo. Pero a comienzos de 1939, cuando los golpistas iniciaron la ofensiva al norte del Ebro, cruzó la frontera y se refugió en el Estado francés. Entonces fue detenido por las fuerzas policiales francesas, y tras estar preso en los campos de concentración de Saint Cyprien y Barcarès, fue llevado a Gurs[517]. Faustino estuvo allí preso

[515] Id.

[516] Jimenez de Aberasturi Corta, Juan Carlos. Euskaldunak Bigarren Mundu Gerran. Auñamendi Entziklopedia [on line], 2020. [Kontsulta data: 2020ko Urtarrilaren 28a]. Eskuragarri hemen: http://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/euskaldunak-bigarren-mundu-gerran/ar-107927/ / Jiménez de Aberasturi Corta, Juan Carlos. Euskaldunak Bigarren Mundu Gerran. Enciclopedia Auñamendi [on line], 2020. [Fecha de la consulta: 28 de enero de 2020]. Dirección: http://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/euskaldunak-bigarren-mundu-gerran/ar-107927/.

[517] EAH, Eusko Jaurlaritzaren Artxibo Historikoa, Lehendakaritza saileko funtsa, Delegaciones atala, En Perpignan y Oloron azpiatala, Ficheros (Varios) seriea / AHE, Archivo Histórico del Gobierno Vasco, fondo del Departamento Lehendakaritza, sección Delegaciones, subsección de Perpignan y Oloron, serie Ficheros (varios).

[518] Aranzadi Zientzia Elkarteko datu-basea / Base de datos de la Sociedad de Ciencias Aranzadi.

hasta que en el año 1940 decidió volver al Estado español, donde fue detenido y enviado a realizar trabajos forzados al 104º BT de Jimena de la Frontera (Cádiz)[518].

ALCAIN OLLOQUIEGUI, SANTIAGO

1903an jaioa, Lasarte auzoan, estatu-kolpe saiakera eta gero gerrak eztanda egitean Lasarteko abiazio-zelaian hasi zen lanean, miliziano talde batean[519]. Hala ere, Andoaindik kolpistek eginiko erasoaldien ondorioz, herria utzi eta Bizkaia aldera mugitzera behartua agertu zen. Bertan zela, itsasontzi batean izena ematea lortu zuen eta Frantziako Estatura errefuxiatu gisa joatea lortu zuen eta ondoren Kataluniara pasako zen. Izan ere, Argèles sur Mer herriko kontzentrazio esparruan izan zuten preso, Kataluniatik berriro ihes egin eta gero. Azkenik, gainontzeko euskaldunekin Gursera eraman zuten, non B irlan izan zuten preso. Bertan UGT sindikatura afiliatua zegoela zehazten da[520]. Frantziako Estatuan bizitzen geratu zen, exiliatu moduan[521].

Nació en el barrio Lasarte, en 1903; cuando estalló la guerra tras el intento de golpe de Estado, empezó a trabajar en el campo de aviación de Lasarte, en un grupo de milicianos[519]. Cuando los golpistas comenzaron con las ofensivas desde Andoain, abandonó el pueblo y se vio obligado a moverse hacia Bizkaia. Estando allí, consiguió inscribirse en un barco e irse como refugiado al Estado francés; de allí pasaría a Cataluña. Tras volver a huir de Cataluña, estuvo preso en el campo de concentración de Argèles sur Mer. Finalmente, fue llevado a Gurs junto con los demás vascos, y estuvo preso en la isla B. Allí se especifica que estaba afiliado al sindicato UGT[520]. Se quedó a vivir en el Estado francés, como exiliado[521].

ALCORTA CHINCHURRETA, IGNACIO

1904ko abenduaren 14ean jaio zen Hernanin, baina Oriara bizitzera etorria zen Gizaldiberri etxera, bertako industrietan lan egitera[522]. 1934ko greba eta mobilizazioetan parte hartu zuen, JSko militante gisa eta ondorioz atxilotu egin zuten, 1936ko amnistiak aske utzi zuen arte[523]. Lanera itzulita, tornulari gisa lan egin zuen gerrak eztanda egin zuen arte, noiz Lasarteko abiazio-zelaian lan egitera pasa zen eta baita MAOC Oria miliziano taldean ere[524]. Gerra Zibileko Iparraldeko Frontea erori aurretik, itsasoz ihes egitea lortu zuen eta Kataluniara pasa zen, non hasiera batean Gerra Industria sailean lan egin zuen, baina gero aire-armada errepublikanora pasa zen, eta bertan abiazio teniente izan zen. Frontea erortzearekin batera, Perpignanerako bidea egin zuen eta Barcàres eta Arles sur Tech herrietako kontzentrazio esparruetatik pasa eta gero, Gursera lekualdatu zuten. Bertan, UGTko afiliatu gisa agertzen da. Gursetik irtetea lortu zuen Langileen Konpainia batekin, tornulari gisa Arudy udalerriko industrietara lanera joanez[525]. Frantziako Estatuan bizitzen ezarri zen Basilisa Mugica Uria emaztearekin eta seme-alabekin. Urnietako autoritate frankistek, herria utzi behar izan zuela baliatuz bere etxeko ondasun guztiak konfiskatu zizkioten[526].

Nació en Hernani el 14 de diciembre de 1904, pero había venido a vivir a la casa Gizaldi-berri del barrio Oria, a trabajar en las industrias locales[522]. Participó en la huelga y las movilizaciones de 1934 como militante de JS, y en consecuencia fue detenido, hasta que gracias a la ley de amnistía de 1936 quedó en libertad[523]. Volvió al trabajo, y hasta que estalló la guerra trabajó como tornero; entonces, pasó a trabajar al campo de aviación de Lasarte y también en el grupo de milicianos de MAOC Oria[524]. Antes de la caída del Frente Norte de la Guerra Civil, logró huir en barco y pasar a Cataluña, donde al comienzo estuvo trabajando en la industria de guerra; luego pasó al Ejército del aire republicano, donde fue teniente de aviación. Cuando cayó el frente, se fue a Perpignan y tras pasar por los campos de concentración de Barcàres y Arles sur Tech, fue trasladado a Gurs. Allí aparece como militante de UGT. Consiguió salir de Gurs en una Compañía de Trabajo, yendo a trabajar a las industrias del municipio de Arudy como tornero[525]. Se estableció en el Estado francés junto con su esposa Basilisa Mugica Uria y sus hijos. Las autoridades franquistas de Urnieta les confiscaron todos los bienes de su casa, aprovechando que tuvieron que abandonar el pueblo[526].

ARZAC ONDARRA, HILARIO

Ziordian jaioa, 1920ko azaroaren 4ean, Urnietan bizi izan zen Gerra Zibila hasi aurretik. Gaztetasunagatik ez zuen gerran parte hartu baina Kataluniara ebakuatu ziren milaka euskal herritarretako bat izan zen, bere anaia Joserekin batera[527]. Biak, Katalunia utzi behar izan zuten kolpisten aurrerakadak zirela eta, Pirinioak gurutzatuz, baina hau egitean atxiki eta kontzentrazio

[519] Ministerio de Cultura y Deporte, Archivo CDMH, sig. DNSD-SECRETARIA,FICHERO,1,A0034614 / Ministerio de Cultura y Deporte, Archivo CDMH, sig. DNSD-SECRETARIA, FICHERO 1, A0034614.

[520] EAH, Eusko Jaurlaritzaren Artxibo Historikoa, Lehendakaritza saileko funtsa, Delegaciones atala, En Perpignan y Oloron azpiatala, Ficheros (Varios) seriea / AHE, Archivo Histórico del Gobierno Vasco, fondo del Departamento Lehendakaritza, sección Delegaciones, subsección de Perpignan y Oloron, serie Ficheros (varios).

[521] Islada Ezkutatuak (2020) / Islada Ezkutatuak (2020).

[522] UUA, sig. PA00.06 / AMU, sig. PA00. 06.

[523] Garai, J. R., Gutiérrez, J., Chueca, J. (2014) / Garai, J.R., Gutiérrez, J. y Chueca, J. (2014).

[524] Egaña, I. (et. al) (2000) / Egaña, I. (et al) (2000).

[525] EAH, Eusko Jaurlaritzaren Artxibo Historikoa, Lehendakaritza saileko funtsa, Delegaciones atala, En Perpignan y Oloron azpiatala, Ficheros (Varios) seriea / AHE, Archivo Histórico del Gobierno Vasco, fondo del Departamento Lehendakaritza, sección Delegaciones, subsección de Perpignan y Oloron, serie Ficheros (varios).

[526] UUA, sig. 1936.01 / AMU, sig. 1936. 01.

[527] Jose anaia: Ziordian jaioa, 1916an, eskultorea, UGTkoa, frontean zauritua masailan. Mexikora erbesteratua / El hermano José: nació en Ziordia en 1916; escultor, de UGT; herido en una mejilla en el frente. Exiliado a México.

esparruetan preso sartu zituzten, Saint Cyprienen lehenik eta Gursen beranduago. 1939ko maiatzean bi anaiek, beste hainbat errefuxiaturekin batera Mexikora zihoan itsasontzi bat hartu zuten eta erbesterako bidea hartu behar izan zuten[528].

Nació en Ziordia el 4 de noviembre de 1920, pero vivía en Urnieta antes del comienzo de la Guerra Civil. Por su juventud no participó en la guerra, pero fue uno de los miles de vascos que evacuaron a Cataluña, junto con su hermano José[527]. Los dos tuvieron que abandonar Cataluña debido al avance de los golpistas y, tras cruzar los Pirineos, fueron apresados y llevados a campos de concentración: primero al de Saint Cyprien y después a Gurs. En mayo de 1939, los dos hermanos tomaron un barco que iba a México junto con otros refugiados, y tuvieron que tomar el camino al exilio[528].

AZURZA USATEGUI, JOSE MARIA

Ikus Alemaniako Nazien Kontzentrazio Esparruak atala. / Ver el capítulo sobre los campos de concentración de Alemania.

BALTASAR URCELAY, SEVERO

Urnietan jaioa, 1913ko urriaren 16an Oria auzoan bizi zen[529], baina Andoainen lan egiten zuen gozotegi batean[530]. UGTra afiliatua, gerrak eztanda egin bezain pronto kolpisten aurka antolatu ziren milizietara batu zen, Eibarko Intendentzian (okin lanpostuan) eta Capitan Casero batailoian borrokatuz[531]. Euskal Herria kolpisten esku geratu aurretik, itsasontziz ihes egitea lortu zuen eta ondoren Kataluniara joan zen. Bertan, berriro ere miliziano gisa izena eman zuen Alpino batailoian. Hala ere, Katalunia altxatuen esku erortzear zela, muga berriro zeharkatu eta Frantziako Estatuak atxilotu egin zuen eta hainbat kontzentrazio esparrutatik pasa eta gero Gurseko A irlara eraman zuten[532]. Severok, Frantziako Estatuko egoera ikusita, 1939ko urriaren 2an Espainiako Estatura itzultzeko erabakia hartu zuen, non berriro atxilotua izan zen eta Miranda de Ebro eta San Pedro de Cardeñako kontzentrazio esparruetan izan zuten preso. Bertan, Sailkatze Batzorde batetik pasa zuten eta bortxazko lanak egitera bidali zuten, 83 SLDBarekin, La Magdalenako (Santander) kontzentrazio esparrura, 1940ko otsailean[533].

Nació en Urnieta el 16 de octubre de 1913; vivía en el barrio Oria[529], pero trabajaba en una pastelería de Andoain[530]. Afiliado a UGT, tan pronto como estalló la guerra se unió a las milicias que se organizaron contra los golpistas, trabajando en la Intendencia de Eibar como panadero y combatiendo en el batallón Capitán Casero[531]. Antes de que Euskal Herria quedara en manos de los golpistas, consiguió huir en barco y luego cruzar a Cataluña. Una vez allí, se unió de nuevo a las milicias, en el batallón Alpino. De todos modos, estando Cataluña a punto de caer en manos de los sublevados, cruzó de nuevo la frontera. Allí fue apresado por el Estado francés, y tras pasar por varios campos de concentración, fue llevado a Gurs, donde estuvo en la isla A[532]. Severo, viendo la situación del Estado francés, el 2 de octubre de 1939 decidió volver al Estado español. Allí fue nuevamente detenido, y lo tuvieron preso en los campos de concentración de Miranda de Ebro y San Pedro de Cardeña, ambos en la provincia de Burgos. Allí, tras pasar por una Comisión de Clasificación, en febrero de 1940 fue enviado a realizar trabajos forzados al 83º BDST del campo de concentración de La Magdalena en Santander[533].

EIZMENDI GARRO, FERNANDO

1900eko urtarrilaren 5ean jaio zen Urnietan eta Orian bizi zen Hilaria Lopez emaztea eta Fernando semearekin batera[534]. JS eta UGT antolakundeetako militantea, Gerra Zibilak eztanda egitearekin batera miliziano gisa engaiatu zen, hasiera batean Gipuzkoako Komandantziaren agindupean eta gero MAOC batailoian[535]. Kolpisten tropen aurrerakada zela eta, Oria uztea erabaki zuen bere emazte Hilaria Lopez eta Fernando semearekin. Hauekin, itsasontzi bat hartzea lortu zuen eta erbesterako bidea egin zuen[536]. Puntu honetan familiaren inguruan ditugun aztarnak galdu egiten dira, dakigun bakarra da Gurseko kontzentrazio esparrua eratu zenean, Fernando bertan zutela preso eta PCE alderdiko militante gisa agertzen zela[537]. Familiaren arabera, Bizkaiatik Mexikorako bidea egin zuen[538], Elena ahizparekin batera eta beranduago Hilaria eta semea ere Mexikora joan ziren[539].

---

[528] EAH, Eusko Jaurlaritzaren Artxibo Historikoa, Lehendakaritza saileko funtsa, Delegaciones atala, En Perpignan y Oloron azpiatala, Ficheros (Varios) seriea. / AHE, Archivo Histórico del Gobierno Vasco, fondo del Departamento Lehendakaritza, sección Delegaciones, subsección de Perpignan y Oloron, serie Ficheros (varios).

[529] UUA, sig. PA00.06. / AMU, sig. PA00. 06.

[530] AGMG, BDST, 628 kaxa, 21219 espedientea. / AGMG, BDST, caja 628, expediente 21219.

[531] Egaña, I. (et. al) (2000). / Egaña, I. (et al) (2000).

[532] EAH, Eusko Jaurlaritzaren Artxibo Historikoa, Lehendakaritza saileko funtsa, Delegaciones atala, En Perpignan y Oloron azpiatala, Ficheros (Varios) seriea. / AHE, Archivo Histórico del Gobierno Vasco, fondo del Departamento Lehendakaritza, sección Delegaciones, subsección de Perpignan y Oloron, serie Ficheros (varios).

[533] AGMG, BDST, 628 kaxa, 21219 espedientea. / AGMG, BDST, caja 628, expediente 21219.

[534] UUA, sig. PA00.06. / AMU, sig. PA00. 06.

[535] Ministerio de Cultura y Deporte, Archivo CDMH, sig. DNSD-SECRETARIA,FICHERO,17,E0011700 eta sig. DNSD-SECRETARIA,FICHERO,17,E0011701. / Ministerio de Cultura y Deporte, Archivo CDMH, sig. DNSD-SECRETARIA, FICHERO 17, E0011700 y sig. DNSD-SECRETARIA, FICHERO 17, E0011701.

[536] Ministerio de Cultura y Deporte, Archivo CDMH, sig. DNSD-SECRETARIA,FICHERO,17,E0011698. / Ministerio de Cultura y Deporte, Archivo CDMH, sig. DNSD-SECRETARIA, FICHERO 17, E0011698.

[537] Chueca, J. (2007). / Chueca, J. (2007).

[538] Posible da Gursen preso edota Frantziako Estatuan errefuxiatua egotea eta bertatik Mexikora joatea, ohikoena baitzen bidaia hau egin zutenak frantziar portuetatik irtetea. / Es posible que estuviera preso en Gurs o refugiado en el Estado francés y que de allí fuera a México, ya que lo más habitual era que los que hacían ese viaje salieran de puertos franceses..

[539] Islada Ezkutatuak (2020). / Islada Ezkutatuak (2020).

Nació en Urnieta el 5 de enero de 1900 y vivía en Oria junto con su esposa Hilaria López y su hijo Fernando[534]. Militante del sindicato UGT y de la organización JS, cuando estalló la Guerra Civil se alistó como miliciano, al principio bajo las órdenes de la Comandancia de Gipuzkoa y, después, en el batallón MAOC[535]. Debido al avance de las tropas golpistas, decidió abandonar Oria junto con su esposa y su hijo. Consiguieron tomar un barco y hacer el camino al exilio[536]. En ese punto se pierden las pistas que tenemos sobre la familia. Solo sabemos que cuando crearon el campo de concentración de Gurs, Fernando estaba allí preso y que aparece como militante del partido PCE[537]. Según la familia, hizo el camino de Bizkaia a México[538], junto con su hermana Elena, y en la década de 1940 Hilaria y su hijo Fernando también se fueron a México[539].

Fernando eta Elena Eizmendi anai-arrebak, Talapan (Mexiko) exilioan. (Lasarte-Oria 1936-48). / **Los hermanos Fernando y Elena Eizmendi Garro en el exilio, en Talpa (México).** (Lasarte-Oria 1936-48).

ECHEVERRIA IMAZ, LAZARO

Orian bizi zen Lazaro, metalurgia sektorean lan eginez. Garaiko langile ugari bezala, UGT sindikatuko kide zen eta horregatik estatu-kolpe saiakeraren aurka antolatu ziren milizietara batu zen, Astigarragako frontean borrokatuz[540]. Gerraren lehen egunak Gipuzkoako Gerra Komisariotzaren agindupean pasa zituen, baina gero Auto Blindatuen batailoira pasa zen, bertan borrokatuz Euskal Herriaren defentsan[541]. Gerra Zibileko Iparraldeko Frontea erori eta Bizkaia erortzen zela ikusita, itsasoz erbestera joan zen, Frantziako Estatua zeharkatu ostean Kataluniara pasa eta berriro ere miliziano gisa engaiatu zen arte. Hala ere, Bartzelona erori eta gero, Lazaro Frantziako Estatura itzuli behar izan zen eta bertan atxilotu eta Gurseko kontzentrazio esparrura eraman zuten preso, D irlan ezarriz[542].

Agustin Echezar Garro.
(Lasarte-Oria 1936-48).

Vivía en Oria, trabajando en el sector metalúrgico. Como muchos trabajadores de la época, era miembro del sindicato UGT y, por ello, se unió a las milicias que se organizaron contra el intento de golpe de Estado, combatiendo en el frente de Astigarraga[540]. Los primeros días de la guerra los pasó bajo las órdenes de la Comisaría de Guerra de Gipuzkoa, pero luego pasó al batallón de coches blindados y estuvo combatiendo por la defensa de Euskal Herria[541]. Viendo que el Frente Norte de la Guerra Civil estaba al caer en manos de los golpistas, se fue al exilio en barco; tras cruzar el Estado francés, se pasó a Cataluña y de nuevo se alistó como miliciano. De todos modos, tras la caída de Barcelona, Lázaro tuvo que volver al Estado francés, donde fue detenido y llevado al campo de concentración de Gurs, exactamente a la isla D[542].

ECHEZAR GARRO, AGUSTIN

1915eko maiatzaren 24ean jaio zen Urnietan eta Orian bizi zen[543]. Anai guztiak bezala, JSko militantea, antolakundeko hainbat kide eta bere bost anaiekin batera atxilotua izan zen 1934ko Iraultzan parte hartzeagatik. Ihes egitea lortu zuen bere anaiekin eta ez zen Oriara itzuli 1936ko amnistia gauzatu arte[544]. Aske geratu eta gutxira baina Gerra Zibila hasi zen eta Agustin lehen unetik herriko milizietara batu zen, Lasarteko abiazio-zelaian eta MAOC batailoian jardunez[545]. Hala ere, Gipuzkoa erortzean Bizkaiara mugitu zen eta bertan PCE alderdiko militante gisa agertzen da, Rosa Luxemburgo batailoian[546]. Batailoi honekin Bizkaiko defentsan borrokatu zuen besteak beste, baina Agustinen kasuan, Santoña eta Santander erortzean borrokan segitzeko erabakia hartu zuen[547], armada errepublikanoan, zela, itsasoz ihes egitea lortu zuen eta Frantziako Estatua gurutzatu eta gero Katalunian berriro batu zen armada errepublikanora, Alpino batailoian beste urnietarrekin batera. Honetan, teniente mailara igo zuten. Hala ere, Kataluniako frontea erori zenean berriro muga igaro behar izan zuen eta Frantziako Estatuak atxilotu eta kontzentrazio espa-

[540] Ministerio de Cultura y Deporte, Archivo CDMH, sig. DNSD-SECRETARIA,FICHERO,16,E0006275. / Ministerio de Cultura y Deporte, Archivo CDMH, sig. DNSD-SECRETARIA, FICHERO 16, E0006275.

[541] Egaña, I. (et. al) (2000). / Egaña, I. (et al) (2000).

[542] EAH, Eusko Jaurlaritzaren Artxibo Historikoa, Lehendakaritza saileko funtsa, Delegaciones atala, En Perpignan y Oloron azpiatala, Ficheros (Varios) seriea. / AHE, Archivo Histórico del Gobierno Vasco, fondo del Departamento Lehendakaritza, sección Delegaciones, subsección de Perpignan y Oloron, serie Ficheros (varios).

[543] UUA, sig. PA00.06. / AMU, sig. PA00. 06.

[544] Garai, J. R., Gutiérrez, J., Chueca, J. (2014). / Garai, J.R.; Gutiérrez, J. y Chueca, J. (2014).

[545] Egaña, I. (et. al) (2000). / Egaña, I. (et al) (2000).

[546] Ministerio de Cultura y Deporte, Archivo CDMH, sig. DNSD-SECRETARIA,FICHERO,16,E0006777. / Ministerio de Cultura y Deporte, Archivo CDMH, sig. DNSD-SECRETARIA, FICHERO 16, E0006777.

[547] Ministerio de Cultura y Deporte, Archivo CDMH, sig. DNSD-SECRETARIA,FICHERO,16,E0006796. / Ministerio de Cultura y Deporte, Archivo CDMH, sig. DNSD-SECRETARIA, FICHERO 16, E0006796

rruetan preso izan zuten Gursera eraman aurretik. Bertan bere anaia Lorenzorekin egon zen preso, baina Agustinek Langileen Konpainia batean txertatzea lortu zuen eta bertatik irten zen Landetara egurgile lanetara joanez[548]. Frantziako Estatuan bizitzen geratu zen, Paris hiriburuan.

Nació en Urnieta el 24 de mayo de 1915 y vivía en Oria[543]. Como todos los hermanos, militante de las JS; fue detenido por participar en la Revolución de 1934, junto con varios miembros de la organización y cinco de sus hermanos. Consiguió huir con sus hermanos, y no volvió a Oria hasta la ley de amnistía de 1936[544]. Pero al poco de quedar en libertad comenzó la Guerra Civil, y Agustín se unió a las milicias locales desde el primer momento; al principio trabajando en el campo de aviación de Lasarte y, después, en el batallón MAOC[545]. De todos modos, al caer Gipuzkoa se movió a Bizkaia, y allí aparece como militante del PCE, en el batallón Rosa Luxemburgo[546]. Con ese batallón combatió por la defensa de Bizkaia, pero tras la caída de Santoña y Santander, Agustín decidió seguir combatiendo en el Ejército republicano, hasta la caída del Frente Norte de la Guerra Civil, llegando a ser sargento[547]. Estando combatiendo en los últimos núcleos de resistencia del Frente Norte, consiguió huir por mar, cruzar el Estado francés y llegar a Cataluña. Allí se unió de nuevo al Ejército republicano, exactamente al batallón Alpino, junto con otros urnietarras. Ahí, fue ascendido a teniente. De todos modos, cuando cayó el frente de Cataluña, tuvo que volver a cruzar la frontera al Estado francés, donde lo detuvieron y lo tuvieron preso en campos de concentración, hasta que fue llevado al de Gurs. Allí, estuvo preso con su hermano Lorenzo, pero Agustín logró entrar en una Compañía de Trabajadores y salir de allí; exactamente a trabajar como leñador a las Landas[548]. Se quedó a vivir en París.

Lorenzo Echezar Juanita Viguera emaztea eta Maria Angeles alabarekin. (Lasarte-Oria 1936-48). / **Lorenzo Echezar, su esposa Juanita Viguera y su hija María Ángeles.** (Lasarte-Oria 1936-48).

ECHEZAR GARRO, LORENZO

1906an jaio zen Urnietan eta bere anai guztiekin batera Orian bizi zen, Iturralde etxean[549]. Anai guztiak JS antolakundera afiliatuak zeuden eta guztiak atxilotu zituzten 1934ko Urriko Iraultzan parte hartzeagatik. Atxilotuak izan baziren ere, ihes egitea lortu zuten eta ihesean ibili ziren 1936ko amnistia legea arte, noiz Oriara itzultzea lortu zuten[550]. 1936ko uztailean estatu-kolpe saiakera eta gero, anaiekin batera herrian antolatu ziren milizietara batu zen, Lasarteko abiazio-zelaian lan eginez eta MAOC batailoira batuz. Hala ere, ez ziren gai izan Andoaindik zetozen kolpisten tropen erasoaldiei aurre egiteko eta ondorioz Bizkaia aldera mugitu behar izan zen. Bertan, Eusko Gudarostearen berrantolaketa burutzean, UHP batailoiko miliziano izatera pasa zen (JSUren batailoi bat). Batailoi honekin, 1936ko abenduko Legutioko erasoan parte hartu zuen, non zauritua izan zen eskuineko hankan, abenduaren 3an. Durangoko ospitalera eramatea lortu zuten eta zaurietatik errekuperatzen pasa zituen hilabete luzeak, Gijoneko ospitalean aurkitzen zelarik bertara kolpisten armen hotsa iritsi zenean. Hori dela eta, ebakuazioan parte hartu zuen itsasontzietako batean sartu zuten eta Bartzelonara eramana izan zen. Bertan, zaurietatik osatu behar izan zen oraindik eta medikuek elbarri izendatu zuten, ankilosia baitzuen eskuineko hankan. Bartzelonan errefuxiatu zen, baina 1939 hasieran hiria utzi eta Frantziako Estatura itzuli behar izan zen, non Gurseko kontzentrazio esparrura eraman zuten preso bere anai Agustinekin. Lorenzo, Agustin eta beste anai batzuk bezala, Frantziako Estatuan geratu zen bizitzen, Oriara itzuli gabe[551]. Urnieta utzi zuela baliatuz, herriko autoritate frankistek bere etxeko ondasunak konfiskatu zizkioten[552].

Nació en Urnieta el año 1906, y vivía en la casa Iturralde de Oria junto con todos sus hermanos[549]. Todos los hermanos estaban afiliados a la organización JS, y todos fueron detenidos por haber participado en la Revolución de Octubre de 1934. Pero consiguieron huir, y así anduvieron hasta la ley de amnistía de 1936 y pudieron volver a Oria[550]. En julio de 1936, tras el intento del golpe de Estado, se unió a las milicias que se organizaron en el pueblo junto con sus hermanos, trabajando en el campo de aviación de Lasarte y uniéndose al batallón MAOC. De todos modos, no fueron capaces de hacer frente a las ofensivas que hacían las tropas golpistas desde Andoain y, por eso, tuvo que moverse hacia Bizkaia. Allí, cuando se llevó a cabo la reorganización del Ejército Vasco, pasó a ser miliciano del batallón UHP (un batallón de las JSU). Con ese batallón, participó en la ofensiva de Legutio de diciembre de 1936, donde fue herido en la pierna derecha, el 3 de diciembre. Lograron llevarlo al hospital de Durango, y pasó largos meses recuperándose de las heridas. Estando en el hospital de Gijón (Asturias), llegó el ruido de las armas de los golpistas. Debido a ello, lo metieron en un barco que participaba en la evacuación y fue llevado a Barcelona. Allí, todavía tuvo que recuperarse de las heridas y los médicos lo declararon minusválido, pues tenía anquilosis en la pierna derecha. Se refugió en Barcelona, pero a comienzos de 1939 dejó la ciudad y se fue al Estado francés, donde fue llevado al campo de concentración de Gurs con

[548] EAH, Eusko Jaurlaritzaren Artxibo Historikoa, Lehendakaritza saileko funtsa, Delegaciones atala, En Perpignan y Oloron azpiatala, Ficheros (Varios) seriea. / AHE, Archivo Histórico del Gobierno Vasco, fondo del Departamento Lehendakaritza, sección Delegaciones, subsección de Perpignan y Oloron, serie Ficheros (varios).

[549] UUA, sig. PA00.06. / AMU, sig. PA00. 06.

[550] Garai, J. R., Gutiérrez, J., Chueca, J. (2014). / Garai, J. R., Gutiérrez, J. y Chueca, J. (2014).

[551] UUA, sig. 1327.02. / AMU, sig. 1327.02.

[552] UUA, sig. 1936.01. / AMU, sig. 1936. 01.

su hermano Agustín. Tanto Lorenzo, como Agustín y otros de sus hermanos, se quedaron a vivir en el Estado francés, sin volver a Oria[551]. Las autoridades franquistas locales, aprovechando que había abandonado Urnieta, le confiscaron los bienes de su casa[552].

GAMBOA LOPEZ, JERONIMO

1913ko apirilaren 18an jaio zen Urnietan eta Oria auzoan bizi zen, Maria Uria Cano emaztea eta bere familiarekin Zelaialde etxean[553]. Echezar Garro anaiekin batera, JSko militantea zen eta 1934ko Iraultza bezala ezaguna den mobilizazioetan parte hartu zuen eta ondorioz atxilotua eta espetxeratua izan zen. Hala ere, 1936ko amnistia baliatuz, Oriara itzuli zen[554], berriro lanean hasiz, baina ez zion lasaitasunak luze iraun, izan ere Gerra Zibilak eztanda egitean, estatu-kolpe saiakerari aurre egiteko herriko milizietara batu zen, hasieran Lasarteko abiazio-zelaian eta MAOC batailoian beranduago[555]. Hala ere, Molaren tropen abuztu eta irailеko erasoaldiak ezin izan zituzten gelditu eta herria utzi eta Bizkaia alderako bidea egin zuen. Gipuzkoa eta Bizkaiko mugan frontea egonkortu zenean, beste hainbat milizianorekin Asturiaserako bidea egin zuen, bertan kolpisten erasoaldiak gelditzeko laguntza emateko helburuarekin. Asturiasen borrokan zela, urriaren 2an zauritu egin zuten eta Ujoko ospitalean lehenik eta Bilbokoan ostean artatu behar izan zuten[556]. Hala ere, zaurietatik berreskuratzea lortu zuen eta berriro ere frontera itzuli zen, kasu honetan Rosa Luxemburgo batailoiarekin, non sarjentu mailara igo zuten. Batailoi honekin borrokan zela, 1937an frontea ezin zela sustengatu ikusita, Jeronimok ebakuazio deia jaso zuen eta Frantziako Estatura itsasoz eta trenez Kataluniara igaro zen, bertan berriro ere armada errepublikanoan izena emanez. Katalunia erori arte borrokan mantendu zen, baina 1939ko urte hasieran Frantziako Estatura itzuli behar izan zen eta han atxilotu eta Gurseko kontzentrazio esparrura eraman zuten[557]. Gursetik aske irtetea lortu zuenean, Frantziako Estatuan ezarri zen, izan ere Maria emaztea eta bere hiru seme-alabak hilik aurkitzen ziren, errefuxiatuek pairatu behar izan zituzten bizi baldintza gogorren ondorioz. Bort-les-Orgues herrian ezarri zen Elisabet izeneko alemaniar batekin eta familia berri bat sortu zuten. Jeronimok ez zuen Oriako familiarekin erlaziorik galdu baina ez zen Franco hil arte herrira itzuli[558].

Nació en Urnieta el 18 de abril de 1913 y vivía en la casa Zelaialde de Oria, junto con su esposa María Uria Cano y su familia[553]. Junto con los hermanos Echezar Garro, era militante de las JS y participó en las movilizaciones conocidas como Revolución de 1934, y por lo tanto, fue detenido y encarcelado. De todos modos, volvió a Oria aprovechando la ley de amnistía de 1936[554], y volvió al trabajo. Pero no le duró mucho la tranquilidad, ya que al estallar la Guerra Civil, se unió a las milicias organizadas en el pueblo para hacer frente al intento de golpe de Estado; al principio trabajó en el campo de aviación de Lasarte y después se alistó en el batallón MAOC[555]. De todos modos, no pudieron parar las ofensivas de agosto y septiembre de las tropas de Mola, y abandonó el pueblo para dirigirse hacia Bizkaia. Cuando el frente se estabilizó entre Gipuzkoa y Bizkaia, se fue a Asturias junto a otros milicianos, con el objetivo de ayudar a parar las ofensivas de los golpistas. El 2 de octubre fue herido mientras combatía en Asturias; primero, lo tuvieron que atender en el hospital de Ujo (Mieres, Asturias) y, luego, en el de Bilbo[556]. De todos modos, consiguió recuperarse de las heridas y volvió al frente, esta vez con el batallón Rosa Luxemburgo, donde fue ascendido a sargento. Estando combatiendo con ese batallón en 1937, y viendo que el frente era insostenible, Jerónimo recibió la llamada de evacuación y pasó en barco al Estado francés, y de allí, en tren a Cataluña. Allí, de nuevo se alistó en el Ejército republicano. Estuvo combatiendo hasta la caída de Cataluña, pero a comienzos de 1939 tuvo que volver al Estado francés, donde fue detenido y llevado al campo de concentración de Gurs[557]. Cuando logró salir en libertad de Gurs, se estableció en el Estado francés, pues su esposa María y sus tres hijos habían muerto debido a las duras condiciones de vida que tuvieron que soportar los refugiados. Se estableció en el pueblo Bort-les-Orgues con una refugiada alemana y formaron una nueva familia. Jerónimo no perdió la relación con la familia de Oria, pero no volvió al pueblo hasta la muerte de Franco[558].

Jeronimo Gamboa, Elisabet emaztea eta beraien zazpi seme-alabekin Frantziako Estatuan. (Lasarte-Oria 1936-48). **/ Jerónimo Gamboa, junto con su esposa Elisabet y sus siete hijos, en el Estado francés.** (Lasarte-Oria 1936-48).

[553] UUA, sig. PA00.06. / AMU, sig. PA00. 06.

[554] Garai, J. R., Gutiérrez, J., Chueca, J. (2014). / Garai, J. R., Gutiérrez, J. y Chueca, J. (2014).

[555] Egaña, I. (et. al) (2000). / Egaña, I. (et al) (2000).

[556] Aranzadi Zientzia Elkarteko datu-basea. / Base de datos de la Sociedad de Ciencias Aranzadi.

[557] EAH, Eusko Jaurlaritzaren Artxibo Historikoa, Lehendakaritza saileko funtsa, Delegaciones atala, En Perpignan y Oloron azpiatala, Ficheros (Varios) seriea. / AHE, Archivo Histórico del Gobierno Vasco, fondo del Departamento Lehendakaritza, sección Delegaciones, subsección de Perpignan y Oloron, serie Ficheros (varios).

[558] Islada Ezkutatuak (2020). / Islada Ezkutatuak (2020).

orr.

GAZTAÑAGA RODRIGUEZ, RAFAEL

1909an Urnietan jaio zen eta Orian bizi zen Bruneteko etxeetan, eta bertako fabrikan lan egiten zuen[559]. JS eta UGT antolakunde ezkertiarretako kidea zen eta horrela 1934ko urriko mobilizazioetan parte hartu zuen, baina hauek porrot egitean atxilotu eta espetxeratu egin zuten Rafael[560]. Hala ere, 1936ko Fronte Popularrari esker berriro askatasuna berreskuratu zuen eta Oriara itzuli zen, berriro ere Bruneten enpresan lan egitera itzuliz. Halaber, uztailaren 18an gerrak eztanda egitean, Lasarteko abiazio-zelaian lan egin zuen eta baita MAOC miliziano taldera batu zen ere, Urnietaren defentsan borrokatuz. Baina karlisten zutabeen erasoaldien ondorioz herria utzi eta Bizkaiara joan zen, non Rosa Luxemburgo batailoian engaiatu zen. Batailoi honekin hainbat frontetan borrokatu zuen, Bizkaia erori eta gero Kantabria eta Asturiasen borrokan jarraituz. Azken honetan aurkitzen zela, itsasoz ihes egitea lortu zuen eta Frantziako Estatutik igaroz Kataluniara pasa zen. Baina 1939 hasieran, Ebroko bataila eta gero frontea erortzean, berriro Pirinioak gurutzatu behar izan zituen, eta bertan atxilotu eta hainbat kontzentrazio esparrutan izan zuten preso, Gursen amaitu aurretik. Bertatik, langileen konpainia bati esker irtetea lortu zuen, nekazaritza lanak egiteko baimenarekin. Frantziako Estatuan bizitzen ezarri zen orduan Rafael, 1942ko azaroan muga zeharkatu eta Irunen aurkeztea erabaki zuen arte. Orduan polizia indarrek atxilotu egin zuten eta miliziano moduan izan zuen parte hartzeagatik bortxazko lanak egitera bidali zuten Marokora, 1943ko ekaina arte[561].

Nació en el año 1909 en Urnieta y vivía en Oria, en las casas de la empresa Brunet, y trabajaba en su fábrica[559]. Era miembro de las organizaciones izquierdistas JS y UGT. Participó en las movilizaciones de octubre de 1934, y cuando fracasaron, fue detenido y encarcelado[560]. De todos modos, gracias a la Ley de amnistía que promulgó el Frente Popular en 1936, recuperó la libertad y volvió a Oria y empezó a trabajar de nuevo en la empresa Brunet. Cuando el 18 de julio estalló la guerra, al principio empezó a trabajar en el campo de aviación de Lasarte y, después, se unió al grupo de milicianos MAOC, combatiendo por la defensa de Urnieta. Pero debido a las ofensivas de las columnas carlistas, abandonó el pueblo y se fue a Bizkaia, donde se unió al batallón Rosa Luxemburgo. Con ese batallón combatió en varios frentes, y tras la caída de Bizkaia y después Cantabria, siguió combatiendo en Asturias. Estando allí, consiguió huir por mar, y cruzando el Estado francés pasó a Cataluña. Pero a comienzos de 1939, cuando cayó el frente tras la batalla del Ebro, tuvo que volver a cruzar la frontera. Allí, fue detenido y lo tuvieron preso en varios campos de concentración, hasta que acabó en Gurs. De allí consiguió salir gracias a una Compañía de Trabajadores, con permiso para realizar trabajos de agricultura. Entonces, Rafael se estableció en el Estado francés, hasta que en noviembre de 1942 decidió cruzar la frontera y entregarse en Irun. Fue detenido por las fuerzas policiales, y por la participación que tuvo como miliciano, fue enviado a realizar trabajos forzados a Marruecos, hasta junio de 1943[561].

ISASA SAN SEBASTIAN, DOMINGO

Ikus Gerra Kontseiluen atala.

Ver el capítulo sobre los Consejos de Guerra.

LATORRE CRESPO, JUAN

1909an jaio zen Urnietan eta bertako Oria auzoan bizi zen Juan[562]. Bertako industrietako langilea, herriko mugimendu ezkertiarretako kide zen, JS eta UGT antolakundeetako kide baitzen. Hori dela eta, gerra hastearekin batera, hauek antolatu zituzten MAOC milizietan eman zuen izena[563]. Gipuzkoaren defentsan borrokatu zuen, baina hau erortzean Bizkaiara mugitzea erabaki zuen eta bertan UHP batailoira batu zen, zeinekin Bizkaiatik hasi eta Asturias arte borrokatu zuen. Asturiasen zela, ebakuazio baimena eskatu zuen eta baita lortu ere eta honi esker itsasoz ihes egin zuen Frantziako Estatura 1937ko iraila eta urria bitartean[564]. Puntu honetatik aurrera, dakigun bakarra da Gurseko kontzentrazio esparrura eraman zutela 1939an eta bertan egon zela preso B irlan[565].

Nació en el año 1909 en Urnieta y vivía en el barrio Oria[562]. Trabajador de la industria local, era miembro de los movimientos izquierdistas locales de JS y UGT. Por eso, nada más empezar la guerra, se alistó en las milicias MAOC que organizaron esas organizaciones[563]. Combatió por la defensa de Gipuzkoa, pero cuando esta cayó, decidió moverse a Bizkaia. Allí, se unió al batallón UHP, con el que combatió desde Bizkaia hasta Asturias. Estando en Asturias, pidió permiso de evacuación y al conseguirlo, huyó por mar al Estado francés, entre septiembre y octubre de 1937[564]. De ahí en adelante, lo único que sabemos es que fue llevado al campo de concentración en 1939 y que estuvo allí preso en la isla B[565].

[559] UUA, sig. PA00.06. / AMU, sig. PA00. 06.

[560] Garai, J. R., Gutiérrez, J., Chueca, J. (2014). / Garai, J. R., Gutiérrez, J. y Chueca, J. (2014).

[561] AGMG, BDSTP. 1ª Agrupación saila, 2818 kaxa, 3164 espedientea. / AGMG, BDSTP. sección 1ª Agrupación, caja 2818, expediente 3164.

[562] UUA, sig. PA00.06. / AMU, sig. PA00. 06.

[563] Egaña, I. (et. al) (2000). / Egaña, I. (et al) (2000)

[564] Ministerio de Cultura y Deporte, Archivo CDMH, PS Gijon "F", 27 paper-sorta. / Ministerio de Cultura y Deporte, Archivo CDMH, PS Gijón "F", legajo 27.

[565] EAH, Eusko Jaurlaritzaren Artxibo Historikoa, Lehendakaritza saileko funtsa, Delegaciones atala, En Perpignan y Oloron azpiatala, Ficheros (Varios) seriea. / AHE, Archivo Histórico del Gobierno Vasco, fondo del Departamento Lehendakaritza, sección Delegaciones, subsección de Perpignan y Oloron, serie Ficheros (varios).

RAMIREZ LOPEZ, ANTONIO[566]

Gurseko presoen fitxetan, Oriarra dela zehazten da, UGT sindikatuko afiliatua eta Argèles sur Mer herrian egon zela aurrez preso. 1939an, Espainiako Estatura itzultzeko erabakia hartu zuen[567].

En las fichas de los presos de Gurs se dice que era de Oria, estaba afiliado al sindicato UGT y que anteriormente estuvo preso en el pueblo de Argèles sur Mer. En 1939 decidió volver al Estado español[567].

RODRIGUEZ OLLOQUIEGUI, ANGEL

1913an Donostian jaioa, bi urte zituela Oriara bizitzera etorri zen Angel, bere ama eta arrebarekin[568]. Oriako ehungintza industrian lan egin zuen eta JS antolakundeko kide moduan 1934ko Iraultzan parte hartu zuen eta honen porrota eta gero atxilotua eta espetxeratua izan zen. Gerra Zibila hasi zenean, aske aurkitzen zen berriro Orian eta estatu-kolpea eman zuten militarren aurka antolatu ziren milizietara batu zen lehen unetik, JS antolakundeko kide gisa, Lasarteko abiazio-zelaian lan eginez eta MAOC batailoian miliziano moduan borrokatuz[569]. Hainbat frontetan borrokatu zuen, baina kolpisten armadaren aurrerakadak ezin gelditzean, itsasoz ebakuatzea lortu zuen eta Frantziako Estatua gurutzatu eta gero Kataluniara pasa zen, non Alpino batailoira batu zen. Hemen gainera PCE alderdiko militante gisa agertzen da. Hala ere, 1939ko Kataluniaren aurkako ofentsiba eta gero, ihesean berriro Frantziako Estatura itzuli behar izan zen. Bertan, Argèles sur Mer herriko kontzentrazio esparruan izan zuten preso Gursekora eraman aurretik, non B irlan giltzapetu zuten. Ez dakigu nolakoa izan zen Gurs eta geroko bizitza, baina 1941ean oraindik Urnietara itzuli gabe zegoen, bere egoera ezezaguna baitzen udalarentzat[570].

Nació en el año 1913 en Donostia, pero con dos años vino a vivir a Oria junto con su madre y su hermana[568]. Trabajó en la industria textil de Oria, y como miembro de la organización JS, participó en la Revolución de 1934; tras el fracaso de esta, fue detenido y encarcelado. Cuando empezó la Guerra Civil, se encontraba de nuevo en libertad en Oria, y, desde el primer momento, se unió a las milicias que se organizaron contra los militares que dieron el golpe de Estado; como miembro de las JS, empezó trabajando en el campo de aviación de Lasarte y más tarde, se unió al batallón de milicianos MAOC[569]. Combatió en varios frentes, pero al no poder parar el avance del Ejército golpista, consiguió huir por mar al Estado francés y de allí pasar a Cataluña. Allí, se unió al batallón Alpino y siguió combatiendo. Además, allí aparece como militante del partido PCE. De todos modos, tras la ofensiva de 1939 contra Cataluña, tuvo que regresar huyendo al Estado francés. Allí, lo tuvieron preso en el campo de concentración de Argèles sur Mer antes de que lo llevaran al de Gurs, donde estuvo preso en la isla B. No sabemos cómo fue su vida en Gurs, ni tampoco después, pero en 1941 todavía no había vuelto a Urnieta, pues para el ayuntamiento su situación era desconocida[570].

VICUÑA FERRERO, VICTORIO

Ikus Makien atala. / Ver el capítulo sobre los Maquis.

ZABALETA LABACA, MARCELINO

1899ko ekainaren 6an jaio zen Orian. Altzairugintzako langilea, moldatzaile gisa lan egiten zuen Aceros Lasarte enpresan. Ideia ezkertiarrekoa, UGT eta PC antolakundeetako militantea zen 1934tik aurrera. Ondorioz, estatu-kolpe saiakera eta gero gerrak eztanda egitean, Trinidad Pecharroman emaztea eta seme-alabekin batera Bizkaian babestea erabaki zuen. Horretaz gain, Marcelino Eusko Gudarostera batu zen. Baina 1937ko udaberrian gerra hotsak hurbiltzen zirela ikusita, Trinidad eta Marcelinok beraien semeak SESBera bidaltzea erabaki zuten itsasontziz, Marcelinok garraio bide berbera erabili zuelarik Frantziako Estatura ihes egiteko eta trenez ostean Kataluniara joateko. Bertan, berriro armak hartu eta Errepublikaren alde borrokatu zuen, Bartzelona erori eta gero berriro ere Frantziako Estatura ihes egitera behartuta aurkitu zen arte. Bertan, autoritate frantsesek hainbat kontzentrazio esparruetan preso izan zuten, Gursekora eraman zuten arte[571].

Nació en Oria el 6 de junio de 1899. Trabajador en la industria del acero, trabajaba como moldeador en la empresa Aceros Lasarte. De ideales izquierdistas, fue miembro de las organizaciones UGT y PC a partir de 1934. Cuando estalló la guerra tras el intento de golpe de Estado, decidió buscar refugio en Bizkaia junto con su esposa Trinidad Pecharroman y sus hijos. Además, Marcelino se unió al Ejército Vasco. Pero en la primavera de 1937, viendo que se se acercaba la guerra, Trinidad y Marcelino decidieron enviar sus hijos a la URSS en barco. Marcelino usó el mismo medio de transporte para huir al Estado francés, y, después, de allí se fue a Cataluña en tren. Allí tomó de nuevo las armas y combatió por la República, hasta que se vio obligado a huir el Estado francés tras la caída de Barcelona. Allí, las autoridades francesas lo tuvieron preso en varios campos de concentración, hasta que lo llevaron al de Gurs[571].

---

[566] Ez da Urnietako 1935eko erroldan agertzen, ez eta kontsultatu dugun artxibo eta datu baseetan. / No aparece en el censo de 1935 de Urnieta y tampoco en los archivos y base de datos consultados.

[567] EAH, Eusko Jaurlaritzaren Artxibo Historikoa, Lehendakaritza saileko funtsa, Delegaciones atala, En Perpignan y Oloron azpiatala, Ficheros (Varios) seriea. / AHE, Archivo Histórico del Gobierno Vasco, fondo del Departamento Lehendakaritza, sección Delegaciones, subsección de Perpignan y Oloron, serie Ficheros (varios).

[568] UUA, sig. PA00.06. / AMU, sig. PA00. 06.

[569] Egaña, I. (et. al) (2000). / Egaña, I. (et al) (2000).

[570] UUA, sig. 1305.03. / AMU, sig. 1305. 03.

[571] Ministerio de Cultura y Deporte, Archivo CDMH, sig. TERMC,FICHERO,75,2516419. / Ministerio de Cultura y Deporte, Archivo CDMH, sig. TERMC, FICHERO 75, 2516419

Marcelino Zabaleta eta Lorenzo Echezar Gurseko kontzentrazio esparruan preso (zutik ezkerretik hasita bigarrena Marcelino eta hirugarrena Lorenzo). (Lasarte-Oria 1936-48). / **Marcelino Zabaleta y Lorenzo Echezar prisioneros en el campo de concentración de Gurs.** (Lasarte-Oria 1936-48).

ZUMALACARREGUI ALMORZA, JUAN

1896ko irailaren 22an jaio zen[572] eta Orian bizi zen bere emazte Maria Nieves Basanorekin. Biak Donostiako ospitalean erizainak ziren eta gerra hasi zenetik funtzio hori bete zuten zaurituak artatuz. Donostia erori zenean, Bilbora mugitu ziren, Basurtoko ospitale militarrean lan egitera pasaz[573]. Iparraldeko Frontea erori aurretik, ebakuatua izatea lortu zuen eta Katalunian armada errepublikanora batu zen, sarjentu gisa. Katalunia erortzean baina, Frantziako Estatura ihes egin behar zuen eta atxilotu egin zuten eta kontzentrazio esparruetan egon zen preso, Gursera 1939ko apirilean iritsiz. Bertan, UGTko afiliatu gisa agertzen da eta elektrikari lanak egiten ibili zen[574].

Nació el 22 de septiembre de 1896[572], y vivía en Oria junto a su esposa María Nieves Basano. Los dos eran enfermeros en el hospital de Donostia y desde que empezó la guerra cumplieron esa función atendiendo a los heridos. Cuando cayó Donostia, se movieron a Bilbo, pasando a trabajar al hospital militar de Basurto[573]. Consiguió ser evacuado antes de la caída del Frente Norte de la Guerra Civil, y en Cataluña se unió al Ejército republicano como sargento. Pero cuando cayó Cataluña, tuvo que huir al Estado francés, donde fue detenido y estuvo preso en varios campos de concentración, llegando al de Gurs en abril de 1939. Allí aparece como afiliado a UGT y anduvo trabajando como electricista[574].

Gurseko presoen irudikapena. (Euskal Memoria). / **Representación de los presos de Gurs.** (Euskal Memoria).

[572] Donostiako elizbarrutiko artxibo historikoa, DEAH/F06.147//4646/002-01(f.74v,nº41/B,1896-09-22). / Archivo Histórico Diocesano de San Sebastián, DEAH/F06.147//4646/002-01(f.74v, nº41/B, 1896-09-22).

[573] Ministerio de Cultura y Deporte, Archivo CDMH, PS Santander "O", 110 paper-sorta. / Ministerio de Cultura y Deporte, Archivo CDMH, PS Santander "O", legajo 110.

[574] EAH, Eusko Jaurlaritzaren Artxibo Historikoa, Lehendakaritza saileko funtsa, Delegaciones atala, En Perpignan y Oloron azpiatala, Ficheros (Varios) seriea. / AHE, Archivo Histórico del Gobierno Vasco, fondo del Departamento Lehendakaritza, sección Delegaciones, subsección de Perpignan y Oloron, serie Ficheros (varios)

Alemaniako kontzentrazio esparruak

Errefuxiatuen atalean azaldu den gisan, milaka euskal herritarrek Pirinioen iparraldera babes bila joateko erabakia hartu zuten, Hego Euskal Herriko probintziak kolpistek armen bitartez hartu zituztenean.

Horrela, Ipar Euskal Herrian eta Frantziako Estatuan hamarnaka urnietarrek beraien bizitzak berreraikitzeko helburua ezarri zuten, errepresio eta beldurretik ihes egitea lortu zutelakoan. Hala ere, ez ziren gutxi izan miliziano edo gudari izateagatik hainbat kontzentrazio esparrutan preso egon zirenak ere. Gerratik ihesi joan ziren askok, 1939an zehar, muga zeharkatu eta Espainiako Estatura itzultzeko erabakia hartu zuten, berriro beraien familiarekin elkartzeko nahia baitzuten, baina beste askok, Pirinioen iparraldean geratzeko erabakia hartu zuten.

Baina lasaitasunak ez zien luzaro iraungo izan ere 1939ko azaroan Frantziako Estatuak gerra deklaratu zion Alemania Naziari eta berriro ere arma hotsak areagotu ziren. Alemaniak 1940ko ekainean, Blitzkrieg deituriko gerra mekanizatu modernoari esker, frantsesen defentsak suntsitu eta aste gutxitan garaipena lortu zuen, Frantzia bitan banatuz, kostaldea (Ipar Euskal Herria barne) eta eskualde estrategikoak alemaniarren esku geratu ziren eta gainontzekoa Pétain jeneral frantses kolaborazionistaren kontrolpean. Horrela, milaka euskaldun Alemania naziaren jo-puntuan geratu ziren.

Naziek euskaldun eta errepublikazaleen aurkako errepresio zabala abiatu zuten, alemaniarren aurkako erresistentziarekin lan egiten zutela argudiatuz milaka atxilotuz eta kontzentrazio esparruetara eramanez, Stalag izenekoak. Bitartean, Francoren erregimena eta Naziak negoziazio prozesu batean zeuden 1940tik aurrera, Espainiako Estatuaren papera adosteko. Orduan, miliziano eta errefuxiatuen gaia aztertzean Francok hauek jasotzeko nahirik ez zuela ikusirik, hauek kontzentrazio esparru eta deusezte esparruetara bidaltzen hasi ziren Naziak, bi erregimenentzat ezabatu beharreko oztopo bat baitziren hauek.

Campos de concentración de Alemania

Tal como se ha explicado en el capítulo sobre los refugiados, cuando las provincias de Hegoalde fueron tomadas por las armas por los golpistas miles de ciudadanos vascos decidieron ir al norte de los Pirineos en busca de protección.

Así, decenas de urnietarras se afincaron en Iparralde y en el Estado francés con el objetivo de reconstruir sus vidas, y creyendo que habían conseguido huir de la represión y el miedo. Tampoco fueron pocos los que estuvieron presos en varios campos de concentración por ser milicianos o gudaris. Muchos que huyeron de la guerra, decidieron cruzar la frontera y volver al Estado español durante el año 1939, pues tenían el deseo de juntarse con la familia; otros muchos decidieron quedarse al norte de los Pirineos.

Pero a estos últimos no les duró mucho la tranquilidad, ya que en noviembre de 1939, el Estado francés declaró la guerra a la Alemania nazi y de nuevo sonaron los ruidos de guerra. En junio de 1940, Alemania destruyó las defensas de los franceses y en pocas semanas consiguieron la victoria, gracias a la moderna guerra mecanizada llamada “Blitzkrieg”. Francia quedó dividida en dos: la costa (incluida Iparralde) y las regiones estratégicas en manos de los alemanes y el resto bajo el control del general francés colaboracionista Pétain. De ese modo, miles de vascos quedaron bajo el punto de mira de la Alemania nazi.

Los nazis iniciaron una amplia represión contra los vascos y los republicanos, argumentando que colaboraban con la resistencia en su contra, y detuvieron a miles y los llevaron a campos de concentración llamados “Stalag”. Mientras, a partir de 1940, el régimen de Franco y los nazis estaban en un proceso de negociación para pactar el papel del Estado español durante la guerra. Entonces, a la hora de analizar el tema de los milicianos y los refugiados, los nazis, viendo la negativa de Franco para acogerlos, empezaron a enviarlos a campos de concentración y exterminio, pues los dos actores los veían como un obstáculo a eliminar.

Preso eroritako soldadu sobietarrak Mauthausenera iristen. (Mauthausen-memorial web orrialdea). / **Soldados soviéticos prisioneros llegando a Mauthausen.** (página web de Mauthausen-memorial).

Gusen (Austria) kontzentrazio esparruko argazki orokorra. (Mauthausen-memorial web orrialdea). / **Fotografía general del campo de concentración de Gusen.** (página web de Mauthausen-memorial).

Naziek presoak sailkatzeko erabiltzen zuten irizpideen taula. (Mauthausen-memorial web orrialdea). / **Tabla con los criterios que usaban los nazis para clasificar a los presos.** (página web de Mauthausen-memorial).

orr.

Hau izan zen Jose Maria Azurza Usateguiren patua, naziek atxilotu eta gero:

Este fue el destino de José María Azurza Usateguiren tras ser detenido:

AZURZA USATEGUI, JOSE MARIA

Igeldon jaio zen, 1906ko azaroaren 28an, eta 1933 urtean Oriara bizitzera etorri zen, bertako Brunet enpresan lan egitera. 1936ko udan gerrak eztanda egin eta gero, auzoa ebakuatzeko deiari kasu egin eta bere emazte Josefa Gabilondo eta Eugenio semearekin batera herria utzi eta Bizkaia aldera mugitu ziren[575]. Orian lan egin zuen bitartean UGTko militantea izan zen eta mobilizazio deia jasotzean Jose Mariak Mortairuen bataloian[576] eta Negrita bataloian borrokatu zuen[577]. 1937ko udaberrian, Intxortako frontea hautsi eta gero, atzerakadan Santanderrera arte joan zen, non hiria erori aurretik itsasontziz ihes egitea lortu zuen eta Frantziako Estatuan babestea lortu zuen, 1937ko udan. Gertakari hau eta gero, Jose Mariaren inguruko aztarna galdu egiten da, 1939a arte. Data honetan, Kataluniatik Frantziako Estatura ihes egitea lortu zuten milaka euskaldunekin batera Gurseko kontzentrazio esparrura eraman zuten, A irlan giltzapetu zutelarik. Bertatik, Landetara irtetzea lortu zuen ekainean, egurketari bezala lan egitera, baina uztailerako berriro itzularazi zuten[578]. Bigarren Mundu Gerrak eztanda egitean Jose Maria jada Frantziako Estatuan bizitzen aurkitzen zen, baina hau naziek indarrez konkistatu eta gero, Francoren erregimenaren aurka zeuden milaka pertsona bezala atxilotu egin zuten alemaniarrek eta gerra presoen esparru batera eraman zuten. Treveriseko (Alemania) XII-D Stalagera zehatzagoak izateko. 1941eko apirilaren 3an berriz, Mauthauseneko (Austria) deuseztatze-esparrura eraman zuten, 3826 zenbakiaz identifikatu zutelarik. Hala ere, ez zuten denbora luzez esparru honetan izan, izan ere urriaren 20an Gusen I (Austria) esparrura lekualdatu zuten, 13423 zenbakiarekin. Azken hau, bortxazko lanen eta presoen erailketarako esparru bat zen eta hau izango zen Jose Mariaren azkena, izan ere iritsi eta 8 egunetara hil zuten, 1941eko urriak 28an[579].

Nació en Igeldo el 28 de noviembre de 1906 y en 1933 vino a vivir a Oria, y a trabajar en la empresa Brunet. Tras estallar la guerra en el verano de 1936, decidió hacer caso a la llamada de evacuación y abandonó el pueblo yendo hacia Bizkaia, junto a su esposa Josefa Gabilondo y su hijo Eugenio[575]. Mientras estuvo trabajando en Oria, fue militante de UGT; de ese modo, José María fue movilizado y combatió en el batallón de morteros[576] y en el batallón Negrita[577] En la primavera de 1937, tras la caída del frente de Intxorta, se fue en retirada hasta Santander, de donde consiguió huir en barco antes de caer la ciudad en manos de los golpistas; el verano de 1937 consiguió refugiarse en el Estado francés. A partir de ese momento se pierde el rastro de José María, hasta 1939. Entonces, junto con miles de vascos que lograron huir de Cataluña al Estado francés, fue llevado al campo de concentración de Gurs, encarcelándolo en la isla A. De allí, consiguió salir a Las Landas en junio, a trabajar como leñador, pero para julio le hicieron volver[578]. Cuando estalló la Segunda Guerra Mundial, José María ya se encontraba viviendo en el Estado francés, pero cuando este fue conquistado por los nazis, fue detenido por estos, como otras miles de personas que estaban en contra del régimen de Franco, y fue llevado a un campo de prisioneros de guerra. Más exactamente al XII-D Stalag de Tréveris (Alemania). El 3 de abril de 1941 fue trasladado al campo de exterminio de Mauthausen (Austria), identificándolo con el número 3826. De todos modos, no lo tuvieron durante mucho tiempo en ese campo, ya que el 20 de octubre lo llevaron al campo de Gusen I (Austria), con el número 13423. Este era un campo para trabajos forzados y para el asesinato de presos. Precisamente ese último sería el destino de José María, ya que lo asesinaron a los 8 días de su llegada, el 28 de octubre de 1941[579].

Nazien kontzentrazio esparruetako presoak bortxazko lanak egiten. (Mauthausen-memorial web orrialdea). / **Prisioneros de un campo de concentración nazi realizando trabajos forzados.** (página web de Mauthausen-memorial).

Josefa Gabilondo Echaniz eta Jose Maria Azurza Usategui senar-emazteak. (Lasarte-Oria 1936-48). / **Josefa Gabilondo Echaniz y José María Azurza Usategui, esposa y marido.** (Lasarte-Oria 1936-48).

Jose Maria Azurza, Eugenio semearekin Frantziara ihes egin aurretik. (Lasarte-Oria 1936-48). / **José María Azurza con su hijo Eugenio antes de huir a Francia.** (Lasarte-Oria 1936-48).

[575] UUA, sig. PA00.06. / AMU, sig. PA00. 06.

[576] Egaña, I. (et. al) (2000). / Egaña, I. (et. al) (2000).

[577] Ministerio de Cultura y Deporte, Archivo CDMH, sig.,DNSD-SECRETARIA,FICHERO,5,A0182877. / Ministerio de Cultura y Deporte, Archivo CDMH, sig., DNSD-SECRETARIA, FICHERO 5, A0182877.

[578] EAH, Eusko Jaurlaritzaren Artxibo Historikoa, Lehendakaritza saileko funtsa, Delegaciones atala, En Perpignan y Oloron azpiatala, Ficheros (Varios) seriea. / AHE, Archivo Histórico del Gobierno Vasco, fondo del Departamento Lehendakaritza, sección Delegaciones, subsección de Perpignan y Oloron, serie Ficheros (varios).

[579] Bermejo B. eta Checa S. (2006). / Bermejo, B. y Checa, S. (2006)

4.9. GERRA KONTSEILUAK

Estatu-kolpe saiakera eta gero, Espainiako Estatuko lurraldea bi sektoretan banatua geratu zen, Errepublikari leial mantendu zirenak eta honen aurka armak altxatu zituztenak. Armada kolpistak, beraien kontrol eremuan zeuden lurraldeetan legedi errepublikanoa bertan behera utzi zuen 1931ko Konstituzioa indarrik gabe utziz eta justizia militarra oinarri zuen jurisdikzioa ezarri zuen. Horretarako, gobernu organo berri bat eratu zuten, Defentsa Batzorde Nazionala eta honek dekretu bat igorri zuen, 1936ko azaroan eta bertan justizia militarra ezarri zuen botere judizialaren oinarrizko organo bezala, hots, tribunalak ordutik aurrera kodigo militarrean oinarrituko ziren.

Horrela, tribunal militarren erabilera orokortu egin zen, tabernako liskar batetik hasita heriotza zigorra eskatzen zen epaiketa bateraino epaitzeko eskumena baitzuten. Horretarako, epaitegi militar hauek herriko autoritate frankista berriak baliatzen zituzten, bai salaketak jasotzeko baita ere espetxean zeuden pertsonen gaineko informazioa biltzeko.

Akusatuen aurkako informazioa lortzeko beste bide bat, herriko autoritate frankista berriei informazioa eskatzea izan zen. Hauek, herriko kolpisten artean informazioa bildu eta pertsona horren aurkako salaketak biltzeaz arduratzen ziren. Auzitegiek Bartolome Ugalde Urnietako alkateari, Juan Ayerbe herriko parrokoari, Saturnino Larburu bake epaileari, Luis Recondo FET-JONS buruari eta Andoaingo Guardia Zibilaren Komandantziari egiten zizkieten txosten eskariak. Horretaz gain, Juan Lacarrari ere eskatzen zitzaizkion, hau FET-JONSeko ikerketa eta informazio sailekoa eta Brunet enpresako kontularia zen. Juanek, preso zeudenen aurkako txosten gogor gutxi idatzi zituen eta baita batzuen aldekoak ere.

4.9. CONSEJOS DE GUERRA

Tras el intento del golpe de Estado, el territorio del Estado español quedó dividido en dos sectores: el que se mantuvo leal a la República y el sector que se levantó en armas contra ella. El Ejército golpista anuló la legislación republicana en los territorios bajo su control, aboliendo la constitución de 1931 e imponiendo la jurisdicción que se cimentaba en la justicia militar. Para ello formaron un nuevo gobierno, la Junta de Defensa Nacional, que emitió un decreto el noviembre de 1936 en el que se establecía la justicia militar como el principal órgano del poder judicial; es decir, en adelante los tribunales trabajarían bajo el código militar.

De ese modo, el uso de los tribunales militares se generalizó, pues su jurisdicción abarcaba desde los juicios por trifulcas de bares, hasta los juicios en los que se pedía la pena de muerte. Para ello, estos juzgados militares se servían de las nuevas autoridades franquistas locales, tanto como para recibir denuncias como para recopilar información sobre las personas encarceladas.

Otro modo de conseguir información sobre los acusados fue la de pedir información a las nuevas autoridades franquistas locales. Estos recopilaban información entre los golpistas del pueblo y se encargaban de recoger denuncias contra esa persona. Los tribunales hacían peticiones de informe a Bartolomé Ugalde, alcalde de Urnieta, a Juan Ayerbe, párroco local, a Saturnino Larburu, juez de paz, a la comandancia de la Guardia Civil de Andoain y a Luis Recondo, jefe de las FET-JONS. También a Juan Lacarra, de la sección de investigación e información de las FET-JONS y contable de la empresa Brunet. Juan redactó pocos informes duros contra los que estaban presos, incluso redactó a favor de alguno de ellos.



FALANGE ESPAÑOLA TRADICIONALISTA Y
DE LAS J.O.N.S.

LASARTE 22 de Octubre de 1937
II Año Triunfal.

Iltmo Sr.

En contestacion al oficio dirigido a esta Jefatura fecha 20 del actual haciendo peticion de los informes politico social antes y durante el Glorioso Movimiento Nacional de Mercedes Uria vecina de esta localidad; yo como Presidente de esta Junta Informativa y Alcalde Pedaneo de esta, tengo a bien de exponer lo siguiente:

Que dicha individua, de 21 años de edad soltera, era de ideas extremistas, estaba afiliada a la U.G.T. En una de las varias manifestaciones de 1º de Mayo se la vio de abanderada de la U.G.T.

Con respecto al Glorioso Movimiento nada podemos concretar, ya que se ausento de esta en los primeros dias del mes de Agosto de 1936 a Bilbao por miedo a las Gloriosas Tropas.

Para que asi conste firmamos la presente.

Dios guarde a Vd muchos años.

El Alcalde Pedaneo — La Junta Local Informativa.

ARRIBA ESPAÑA

Sr. Juez Instructor del Juzgado Militar nº 11 de San Sebastian.

Mercedes Uria Canoren aurka Lasarteko agintariek eginiko informea. (AIRMN). **/ Informe de las autoridades de Lasarte contra Mercedes Uria Cano.** (AIRMN).

Tribunalek ere, akusatuen aurka froga eta salaketak biltzeko, "Junta Local de Información" deiturikoak baliatzen zituzten. Bertako kide zen Saturnino Larburu bake epailea. Urnietaren kasuan bi batzorde zeuden herrian, Urnietan bertan zegoena bat eta bestea Lasarten zegoena, bertako kide ziren, besteak beste, Ricardo Joaquin, Santiago Gallego eta Ramon Arratibel[580]. Lasartekoa Oria eta Lasarte auzoez arduratzen zen. Hala ere, esan beharra dago, nahiz eta erakunde eta norbanako ezberdinei eskatu txostenak, gehienetan bertan azaltzen ziren salaketak berdinak izaten zirela eta askotan txostena bera hitzez hitz berdina izaten zen, Eustaquio Echezar Garroren aurkako gerra kontseiluan bezala[581].

Puntu honetan aipatu beharra dago, Luis Recondo Ordozueta. Urnietako Batzorde Karlistakoa hasiera batean eta hau Falangearekin batu zenean, FET-JONS antolakunde faxistako buruzagia izan zena herrian, bost urnietar heriotza zigorrera kondenatu zuen prozesuan hainbat deklarazio egin zituen hiru urnietarren aurka Andoaineko Guardia Zibilaren komandantzian. Zehazki, Rafael Barcaiztegui Garmendia, Juan Jose Iceta Arrue eta Manuel Lasarte Larbururen aurka. Epaiketa honetan, 489/36 kausa orokorra izenekoa Rafael Barcaiztegui Garmendia, Faustino Aldaz, Juan Jose Iceta, Pedro Manuel Lasarte herritarrak eta Sixto Prestamero Urnietako bake epaitegiko idazkaria izan zena heriotzara kondenatu eta fusilatu zituzten[582]. Luis Recondoz gain Bartolome Ugalde alkatea ere Barcaiztegui Garmendia familiaren aurkako salaketetan nabarmendu zen, beraien aurkako prozesu guztietan agertzen baita eta Juanen kasuan, testigu guztiak honen alde testifikatu zutenean Bartolome izan zen aurkako testigantza eman zuen bakarra[583].

Urnietarrek, lehen egunetatik pairatu zituzten tribunalen epaiketa arbitrarioak. Izan ere, nahiz eta ehunka izan herria utzi zutenak, bertan geratu zirenak ere ez ziren salbu izan. Horrela, udalbatza berria eratu eta berehala, Bartolome Ugaldek jakinarazpenak igorri zizkien urnietar ugariri udaltxera deklaratzera deituz. Hau askotan aitzakia bat izan zen atxilotuak izan zitezen eta espetxeratuak, askotan udaletxean sartu bezain pronto Guardia Zibilak atxiki eta Andoaingo komandantziara eramaten baitzituzten preso, goian aipatu den 489/36 kausan gertatu zen bezala.

Autoritate frankista berriek, errepresio hau ez zuten era inprobisatu batean egin, baizik eta beraien helburua Errepublika garaian herriko mugimendu politiko ezberdinetan ibilitako pertsona guztien aurka jotzea izan zen. Horrela, Urnietako familia askoren aurka jo zuten, aita-semeak edota anai-arreba guztiak atxilotuz. Horien artean familia kolpatuena Barcaiztegui Garmendiatarrena izan zen, izan ere familiako bi kide (aita eta semea, aita epaiketa gabe) fusilatu zituzten eta beste 5 anaiek gerra kontseiluak eta espetxealdiak pairatu zituzten. Lehen asteetako errepresio bortitz hori eta gero, bigarren olatu bat Bizkaia erortzean eta beranduago Gerra Zibileko Iparraldeko Frontearen gainbehera eta gero eman zen. Orduan, herria utzi zuten asko kolpistek atxiki eta espetxeratu zituzten, El Dueso, Bilboko kartzelak

Los tribunales también se servían de la denominada Junta Local de Información para recopilar información y así acumular pruebas y denuncias contra los acusados. El juez de paz Saturnino Larburu era miembro de ella. En el municipio de Urnieta había dos comisiones: la que estaba en Urnieta mismo y la que estaba en Lasarte; eran miembros de ellas, entre otros, Ricardo Joaquín, Santiago Gallego y Ramón Arratibel[580]. La comisión de Lasarte se encargaba de los barrios de Oria y Lasarte. De todos modos, hay que decir que aunque pidieran informes a varios organismos y personas, las denuncias que aparecían en la mayoría eran iguales y que muchas veces se copiaba el mismo informe letra a letra. Por ejemplo, así fue como ocurrió en el caso del consejo de guerra contra Eustaquio Echezar Garro[581].

En este punto hay que mencionar a Luis Recondo Ordozueta. Al comienzo era miembro de la Junta Carlista de Urnieta, y cuando esta se unió a la Falange, fue jefe de la organización fascista FET-JONS en el pueblo. Fue una de las personas que realizó las denuncias en el proceso contra cinco urnietarras que fueron condenados a pena de muerte. En ese proceso sumarísimo, denominado como causa general 489/36, fueron juzgados los vecinos de Urnieta Rafael Barcaiztegui Garmendia, Faustino Aldaz, Juan José Iceta y Pedro Manuel Lasarte, y Sixto Prestamero, secretario del juzgado de paz de Urnieta[582]. Además, el alcalde Bartolomé Ugalde destacó por las denuncias contra la familia Barcaiztegui Garmendia, pues aparece en todos los procesos contra ellos, y en el caso de Juan, cuando todos los testigos testificaron a favor de él, Bartolomé fue el único que lo hizo en su contra[583].

Los urnietarras tuvieron que padecer desde los primeros días los juicios arbitrarios de los tribunales. Porque aunque fueron cientos los que abandonaron el pueblo, los que se quedaron tampoco estuvieron a salvo. De ese modo, al poco de formar la nueva corporación municipal, Bartolomé Ugalde envió notificaciones a muchos urnietarras llamándolos al Ayuntamiento a explicar su situación. Muchas veces era una excusa para que los detuvieran y los encarcelaran. La mayoría de las veces, tan pronto como entraban en el ayuntamiento la Guardia Civil los apresaba y los llevaba detenidos a la comandancia de Andoain; así ocurrió, por ejemplo, en la causa 489/36 anteriormente citada.

Las nuevas autoridades franquistas no realizaron todo esto de un modo improvisado, porque su objetivo era ir en contra de toda persona que hubiera participado en los diferentes movimientos políticos locales durante la República. De ese modo, fueron contra muchas familias de Urnieta, deteniendo padres e hijos o, incluso, a todos los hermanos. Entre todas esas familias la más golpeada fue la de los Barcaiztegui Garmendia, por que dos de sus familiares (padre e hijo, el padre sin juicio) fueron fusilados y por que 5 de sus hermanos tuvieron que sufrir consejos de guerra y penas de cárcel. Tras la cruel represión de las primeras semanas, hubo otro pico tras la caída de Bizkaia y otro tras la caída del Frente Norte. Por aquel entonces, muchos de los que huyeron del pueblo fueron apresados y encarcelados por los golpistas, sobre todo en las cárceles de Bilbao, El Dueso (Cantabria) y Ondarreta de

[580] AIRMN, 843/38 gobernu-informazioa. / AIRMN, información gubernamental 843/38.
[581] AIRMN, 14363/37 urgentziazko sumarisimoa. / AIRMN, sumarísimo de urgencia 14363/37.
[582] AIRMN, 489/36 kausa orokorra. / AIRMN, información gubernamental 486/36.
[583] AIRMN, 189/37 urgentziazko prozedura sumarisimoa. / AIRMN, procedimiento sumarísimo de urgencia 189/37.

eta Ondarretako espetxeetan batez ere. Ondoren, sailkatze batzordeetatik pasarazi zituzten eta C eta D sailkapena jaso zutenak tribunal militarretatik pasa zituzten.

Donostia. Después, los hicieron pasar por comisiones clasificadoras, y los que fueron clasificados en las categorías C y D pasaron por tribunales militares.

Santoñako espetxea, 1937ko udan milaka euskaldun jaso zituen. (BNE). **/ Prisión de Santoña, recibió a miles de vascos en el verano de 1937.** (BNE).

Guztira 126 urnietar izan ziren tribunal hauek epaitu zituztenak, horietatik 11 emakumeak ziren eta emakumeen aurkako errepresioaren atalean aztertu direnak. Horietatik 10 heriotza zigorrera kondenatuak izan ziren eta 9 fusilatuak izan ziren. Esan bezala, epaiketa larriena 489/36 kausa orokorra izan zen, bertan 5 urnietar fusilatu baitzituzten.

Baina heriotza zigorra ez zen espetxean hiltzeko modu bakarra, izan ere ziega ilunetan preso zeudela 5 pertsonak galdu zuten bizia, Jacinto Montes Aspiazu, Angel Garro Tolosa, Esteban Garmendia Icuza eta Juan Bautista Trecu Tejeriak. Hauetako batzuk kondena urte luzeak betetzen hil ziren, baina beste batzuk behin-behinean zeuden preso, epaiketa zain. Valentin Olazaguirre Mugikari, espetxeko bizi baldintza eskasek eta bortxazko lanetako krudelkeriek biriketako gaitz larria eragin zioten, eta etxera itzultzeko baimena lortu arren, 1943an tuberkulosiak jota zendu zen 26 urte besterik ez zituenean.

Victoriano Muñoz Jimenoren kasuan, bortxazko lanak egiten izan zuten eta militar batzuen salaketa eta gero tribunal militarren aurrera eraman behar zutela ikusita espetxetik ihes egitea erabaki zuen. Gasteizko El Carmelo espetxetik gauez ihes egin zuen eta kolpistek berriro atxilotu eta espetxera itzularazi zutenean hainbat hezur hautsita zituen eta zaurien ondorioz beso bat ebaki behar izan zioten. Zauri larri hauek izanda ere, espetxean izan zuten urte luzez eta aske geratzean Frantziako Estatura joan zen bizitzera, non 44 urterekin hil zen.

Ezin ahaztu ere urte luzez epai gabe espetxean egon ziren pertsona haiek ere, ondoren absolbituak edota inolako

En total fueron 126 urnietarras los que fueron juzgados por esos tribunales; 11 de ellos fueron mujeres y sus casos los hemos analizado en el capítulo sobre la represión contra las mujeres. De esos 126, fueron condenados a pena de muerte 10 y de ellos fueron fusilados 9. Tal como hemos mencionado, el juicio más grave fue la causa general 489/36, pues a causa de él fueron fusilados 5 vecinos de Urnieta.

Pero la pena de muerte no fue la única forma de morir en la cárcel, porque otras 5 personas perdieron la vida estando encarcelados en oscuros calabozos: Jacinto Montes Aspiazu, Ángel Garro Tolosa, Esteban Garmendia Icuza y Juan Bautista Trecu Tejeria. Algunos de ellos murieron cumpliendo largos años de condena, pero otros eran presos preventivos en espera de juicio. A Valentín Olazaguirre Mugica las malas condiciones de vida de las cárceles y la crueldad de los trabajos forzados le produjeron una grave enfermedad pulmonar y, aunque consiguió el permiso para volver a casa, murió por tuberculosis en 1943, cuando solamente contaba con 26 años.

A Victoriano Muñoz Jimeno lo tuvieron haciendo trabajos forzados, y viendo que tras la denuncia de unos militares lo iban a llevar ante un tribunal militar, decidió escapar de la cárcel. Escapó de la cárcel El Carmelo (Gasteiz) de noche, pero tras ser detenido y devuelto nuevamente a la cárcel por los golpistas, tenía varios huesos rotos y por culpa de las heridas le tuvieron que amputar un brazo. Aun teniendo heridas tan graves lo tuvieron encarcelado durante largos años. Tras dejarlo en libertad, se fue a vivir al Estado francés donde murió a la edad de 44 años.

No podemos olvidar tampoco a aquellas personas que tras estar largos años encarcelados fueron absueltas o simplemente

epaiketa gabe aske utzi zituzten gainera batzuk. Horrela, Ignacio Setien Cortajarena ia hiru urtez izan zuten Ondarretan preso epai zain eta azkenean absolbitu egin zuten.

dejadas en libertad, sin ningún tipo de juicio. Fue el caso de Ignacio Setién Cortajarena, que tras estar tres largos años esperando un juicio encarcelado en Ondarreta, al final fue absuelto.

AGUIRRE MUGA, ISIDRO

Isidro Aguirreren atxiloketaren unea. (Lasarte-Oria 1936-48). / **Momento de la detención de Isidro Aguirre.** (Lasarte-Oria 1936-48).

1913ko abuztuaren 9an jaio zen, Urnietako Oria auzoan bertan[584]. Herriko ehungintza industrian ehungailu-muntatzaile gisa lan egiten zuen. 1934ko Urriko Iraultzan parte hartu zuen eta atxilotua izan zen ondorioz[585]. Errepublikaren aurkako altxamendua eman zenean UGT sindikatura afiliatu zen eta herriaren defentsarako antolatzen zebiltzan milizietan engaiatu zen, betiere izaera komunista zutenetan. Horretaz gain, SRI antolakundeko kide ere bazen[586]. Hasiera batean MAOC milizietan jardun bazuen ere[587], Tolosa erortzearekin batera Bizkaiara mugitu behar izan zen eta bertan UHP batailoira lekualdatu zuten. Batailoi honekin Aretxabaletako frontean borrokan ibili zen, baina frontean zauritu eta Elorrioko ospitalera eraman behar izan zuten. Alta lortu zuenean Rosa Luxemburgo batailoira batu zen, Bizkaia osoan borrokatuz. Santurtzin sarjentu bezala borrokan zela zauritu egin zuten berriro, baina osatzea lortu eta teniente gradura igo zuten. Santanderreko frontean inguratuak geratu eta kolpisten armadak atxilotu egin zuen Isidro.

1937ko abenduan bertan burutu zuten bere aurkako gerra kontseilua, Santoñako espetxean bertan ezarri zuten tribunalean. Bertan, FET-JONSeko kide zen Florentino Ugaldek eta Bartolome Ugalde alkateak Brunet-tarren jauregiko konfiskazioetan parte hartzea egotzi zioten, baina Isidrok ukatu egin zuen hau. Salaketa hauetan oinarrituz, tribunalak 30 urteko espetxealdira kondenatu zuen.

1941eko uztailean Cadizko Puerto Santa Maria espetxean preso aurkitzen zela, kondena 10 urtera kommutatzea lortu zuen. Honi esker baldintzapeko askatasunarekin espetxetik irtetzea lortu zuen, baina deserriratze aginduarekin. Hori dela eta Zaragozara bizitzera joan behar izan zen. Behin betiko askatasuna lortu zuenean Oriara bizitzera itzuli zen[588].

Nació el 9 de agosto de 1913, en el barrio Oria de Urnieta[584]. Trabajaba en la industria textil local como montador de telares. Participó en la Revolución de Octubre de 1934 y fue detenido por esa razón[585]. Cuando se dio la sublevación militar contra la República, se afilió al sindicato UGT y se alistó en las milicias de carácter comunista que se organizaron para la defensa del pueblo. Además, también se registró como afiliado de la organización SRI[586]. Aunque al inicio estuvo en las milicias MAOC[587], al caer Tolosa tuvo que trasladarse a Bizkaia y, una vez allí, fue trasladado al batallón UHP. Con ese batallón estuvo combatiendo en el frente de Aretxabaleta, pero fue herido y lo tuvieron que llevar al hospital de Elorrio. Cuando consiguió el alta se unió al batallón Rosa Luxemburgo y combatió por toda Bizkaia. En Santurtzi, combatiendo con la graduación de sargento, fue de nuevo herido pero consiguió recuperarse y fue ascendido a teniente. Quedaron rodeados en el frente de Santander, e Isidro fue apresado por el Ejército golpista.

El consejo de guerra en su contra se celebró el mismo diciembre de 1937, en el tribunal establecido en la misma cárcel de Santoña. Allí, fue acusado por el miembro de las FET-JONS Florentino Ugalde y por el alcalde Bartolomé Ugalde de haber participado en las confiscaciones del palacio de Brunet, pero Isidro lo negó. Basándose en esas acusaciones, el tribunal lo condenó a 30 años de prisión.

El julio de 1941, estando preso en la cárcel de Puerto de Santa María (Cádiz), consiguió que le conmutaran la pena a 10 años. Gracias a ello consiguió salir de la cárcel en libertad condicional pero con orden de destierro. Por eso, tuvo que ir a vivir a Zaragoza. Una vez conseguida la libertad definitiva volvió a vivir a Oria[588].

Isidro Aguirre eta Soledad Garroren ezteietako argazkia. (Lasarte-Oria 1936-48). / **Foto de las bodas de Isidro Aguirre y Soledad Garro.** (Lasarte-Oria 1936-48).

[584] UUA, sig. PA00.06. / AMU, sig. PA00.06.
[585] Garai, J. R., Gutiérrez, J., Chueca, J. (2014). / Garai, J.R.; Gutiérrez, J. y Chueca, J. (2014).
[586] AIRMN, 189/37 urgentziazko prozedimendu sumarisimoa. / AIRMN, procedimiento sumarísimo de urgencia 189/37.
[587] Egaña, I. (et. al) (2000) / Egaña, I. (et al) (2000).
[588] AIRMN, 189/37 urgentziazko prozedimendu sumarisimoa / AIRMN, procedimiento sumarísimo de urgencia 189/37.

AGUIRRE ZATARAIN, MIGUEL

Urnietan jaio zen 1898ko otsailaren 23an, baina Donostian bizi zen, bertako udaleko kale-garbitzailea baitzen. UGTra afiliatua zegoen[589]. Donostia utzi behar izan zuen altxatuen tropak hirira hurbildu zirenean eta Bizkaian zela, Eusko Gudarostean izena eman zuen, milizietako brigada postua lortuz[590]. 1937ko abuztuan, Santanderreko fronteko borroketan desagertu egin zen[591]. Seguruenik kolpisten armadak atxilotuko zuen, izan ere 1940an Donostian bizi zen, igeltsero bezala lan eginez, bere lanpostu publikotik kanporatua izan baitzen. Urte honetako irailean, Gobernadore Zibilaren aginduz Ondarretan preso izan zuten astebetez. 1941 eta 1943 urteetan, hilabete berean atxilotua izan zen, beste hainbatekin batera, astebeteko espetxealdi bat pairatuz[592]. Kasu hauetan, erregimen frankistako goi-karguren baten bisita izaten zen atxiloaldiaren kausa.

Nació en Urnieta el 23 de febrero de 1898 pero vivía en Donostia, porque era barrendero del Ayuntamiento. Estaba afiliado al sindicato UGT[589]. Tuvo que dejar Donostia cuando las tropas sublevadas se acercaron a la ciudad; estando en Bizkaia, se alistó al Ejército Vasco donde consiguió el grado de brigada de las milicias[590]. Desapareció durante los combates del frente de Santander, el agosto de 1937[591]. Seguramente fue detenido por el Ejército golpista, puesto que en 1940 ya vivía en Donostia, trabajando de albañil, porque fue expulsado de su puesto público. En septiembre del mismo año, estuvo encarcelado durante una semana en la cárcel de Ondarreta por orden del Gobernador Civil. En los años 1941 y 1943, fue detenido el mismo mes, junto a muchos otros, sufriendo una semana de encarcelamiento[592]. En esos casos, la causa del encarcelamiento solía ser la visita de algún alto cargo del régimen franquista a la ciudad.

ALCORTA ADARRAGA, JUAN

1909ko apirilaren 4ean jaio zen Orian eta bertan bizi zen[593]. Auzoko gehiengoak bezala, ehungintza arloan lan egiten zuen, bere kasuan tindatzailea zen. Ideia ezkertiarrak zituen eta UGT sindikatura afiliatua zegoen 1928tik (baita JSUra ere[594]). Militar eskuindarrek Errepublikaren aurka armak hartzean, herrian antolatu ziren milizietan engaiatu zen, hasiera batean Lasarteko abiazio-zelaian guardiak egin zituen eta beranduago Oriako MAOC batailoira batu zen[595]. Horrela, Urnietako defentsan borrokatu zuen, baina Buruntza mendiaren galera eta gero, herria utzi behar izan zuen. Bizkaiara mugitu eta gero, UHP batailoian borrokatzera pasa zen, Elorrion hiru hilabeteko instrukzioa egin eta gero. Batailoi honekin hainbat frontetan borrokatu zuen: Kanpazar, Bizkargi… Azken honetan zauritu eta Santaderrera (Kantabria) ebakuatu zuten arte. Denborara berriro borrokara batu zen, UHPrekin, Miañon (Kantabria) berriro zauritu zutelarik. Gertakari honen ostean, Euskal Brigadara izendatu zuten eta 1937ko irailean, Asturiasko azken erresistentzian Peñas Blancas zonaldean borrokan zela, armada kolpistaren esku erori zen.

Picos de Europan preso egin eta gero, Santa Espina monasterioko kontzentrazio esparrura eraman zuten (Valladolid). 1938ko otsailean Donostiako Zapatari espetxera lekualdatu zuten, Medina De Rioseco (Valladolid) hiriko sailkatze batzordetik bidalia. Bere anaia Tomas ere preso zegoen eta familiako gainontzeko kideak Frantzian errefuxiatuak.

Donostian bere aurkako gerra kontseilua egin zuten kolpistek, 1938 azaroan. Bertan Andoaingo Guardia Zibilak Brunet jaunaren jauregiko konfiskazioetan parte hartzea egotzi zion, baina hau ez zuten beste testiguek sostengatu. Hori dela eta, miliziano bezala izan zuen jardunagatik ez zioten inolako espetxe zigorrik ezarri, baina bortxazko lanak egitera bidali zuten Langileen Batailoi batera. Horretarako San Pedro de Cardeñako kontzentrazio esparrura eraman zuten, 1939ko ekainean. Azkenean, 1945ean bere aurkako kausa largetsi egin zuen Gerra Auditoreak, aske geratuz[596]. Hala ere Juanen aurkako errepresioa ez zen hor amaitu, izan ere Erantzukizun Politikoen Tribunalak ikertu egin baitzuen, baina ez zen epaitua izan[597].

Nació el 4 de abril de 1909 en Oria y vivía allí mismo[593]. Como la mayoría de la gente del barrio, trabajaba en el sector textil; en su caso como tintorero. Tenía ideales izquierdistas y estaba afiliado al sindicato UGT desde 1928 (también al JSU[594]). Cuando los militares derechistas se alzaron en armas contra la República, se alistó en las milicias locales inscribiéndose en el batallón MAOC de Oria, con el que realizó guardias en el campo de aviación de Lasarte[595]. De ese modo, combatió en la defensa por Urnieta, pero tras la pérdida del monte Buruntza tuvo que dejar el pueblo y huyó a Bizkaia. Allí, pasó a combatir en las filas de UHP tras realizar una instrucción de tres meses en Elorrio. En ese batallón estuvo combatiendo en varios frentes: Kanpazar, Bizkargi… Fue herido en ese último y lo evacuaron a Santander. Tras un tiempo volvió a unirse a la lucha, con UHP, y lo volvieron a herir en Miaño (Cantabria). Tras este suceso lo asignaron a la Brigada Vasca, y en septiembre de 1937, estando combatiendo en la última resistencia de Asturias, en la zona de Peñas Blancas, cayó en manos del Ejército golpista.

---

589 Ministerio de Cultura y Deporte, Archivo CDMH, sig. DNSD-SECRETARIA,FICHERO,1,A0021431 / Ministerio de Cultura y Deporte, archivo CDMH, sig. DNSD-Secretaría, Fichero 1, A0021431.

590 Ministerio de Cultura y Deporte, Archivo CDMH, sig. DNSD-SECRETARIA,FICHERO,1,A0021432 / Ministerio de Cultura y Deporte, archivo CDMH, sig. DNSD-Secretaría, Fichero 1, A0021432.

591 Ministerio de Cultura y Deporte, Archivo CDMH, sig. DNSD-SECRETARIA,FICHERO,1,A0021431 / Ministerio de Cultura y Deporte, archivo CDMH, sig. DNSD-Secretaría, Fichero 1, A0021431.

592 GAHP, Miguel Aguirre Zatarainen espetxe-espedientea. / AHPG, expediente penitenciario de Miguel Aguirre Zatarain.

593 UUA, sig. PA00.06. / AMU, sig. PA00.06.

594 Egaña, I. (et. al) (2000). / Egaña, I. (et. al) (2000).

595 Egaña, I. (et. al) (2000). / Egaña, I. (et. al) (2000).

596 AIRMN, 486/38 prozedimendu sumarisimoa. / AIRMN, procedimiento sumarísimo 486/38.

597 UUA, 1937ko udal-korrespondentzia. / AMU, correspondencia municipal de 1937.

Tras ser apresado en Picos de Europa fue trasladado al campo de concentración del monasterio de Santa Espina (Valladolid). En febrero de 1938 fue trasladado a la cárcel Zapatari de Donostia, enviado por la comisión clasificadora de la ciudad de Medina de Rioseco (Valladolid). Su hermano Tomás también estaba encarcelado, y los demás miembros de la familia estaban refugiados en Francia.

Fue sometido a un consejo de guerra contra él por parte de los golpistas, en Donostia, en noviembre de 1938. En él la Guardia Civil de Andoain lo acusó de haber participado en las confiscaciones en el palacio del señor Brunet, pero eso no fue sostenido por los demás testigos. Por eso, no le fue impuesto ninguna condena penitenciaria por las actividades que realizó como miliciano, pero sí lo enviaron a un batallón de trabajadores a realizar trabajos forzados. Para ello fue llevado al campo de concentración de San Pedro de Cardeña (Burgos), en junio de 1939. Al final, su causa fue sobreseída por el auditor de guerra y quedó en libertad en 1945[596]. Aun así, no terminó ahí la represión en su contra, porque el Tribunal de Responsabilidades Políticas investigó a Juan, aunque finalmente no fue juzgado[597].

ALCORTA ADARRAGA, TOMAS

1912ko abenduaren 21ean jaio zen Orian eta bertan bizi izan zen, Iturralde etxean[598]. Ehungintza alorreko langilea zen eta kimikari-laguntzaile gisa lan egiten zuen. Brunet enpresako langilea, UGT eta Sindicato del Arte Textil sindikatuetara afiliatua zegoen, eta uztailaren 18ko estatu-kolpea eta gero, auzoan eratu zen defentsa komitera batu zen, bertako buruzagi izatera iritsiz. Bruneteko goi kargua zen Juan Lacarrarekin eta langileen ordezkari bezala Gaytan de Ayala kolpistaren semearen askapena eskatzera joan zen Donostiara[599]. Horretaz gain erreketeen zutabe paramilitarren aurrerakadari erantzuteko auzoko milizien gidaritza hartu zuen, MAOC-Oria batailoiarena hain zuzen ere[600] eta Urnieta inguruko gainak erortzean, Durangora ihes egitera behartuta agertu zen. Herri honetan mobilizatua izan zen eta Bilbotik pasa eta gero Rosa Luxemburgo batailoi komunistako teniente izendatu zuten. Hala ere, ez zuen frontean denbora asko egin, Juana Hualde Olloquiegui emazteak seme bat erditu baitzuen. Tamalez zazpi egunetara hil zen gaixotasunez. Bizkaia erortzear zela, Turtzioz herriaren aurka eginiko bonbardaketa batean bere emaztea, honen ama eta lau anai-arreba hil ziren kolpisten bonben ondorioz. Gertakari guzti hauen ondorioz, Tomas gaixotu egin zen eta lizentziatu egin zuten. Gerra Zibileko Iparraldeko Frontea erortzean Tomas kolpistek preso egin zuten eta espetxeratua izan zen Bilbon.

Estatu-kolpearen aurka izan zuen jarreragatik prozesu judizial bat abiatu zuten Tomasen aurka hiri honetan. Honetan Florentino Ugalde, Urnietako FET-JONS buruak eta Bartolome Ugalde alkateak deklaratu zuten Oriako defentsa komiteko burua eta auzoko milizien antolatzailea zela esanez. Gainera, Tomasen gela miatzerakoan 11 fusil kargatu eta karabina bat aurkitu zirela adierazi zuten. Tomasen aurka egin zen gerra kontseiluan, 1937ko abenduan, Florentino eta Bartolomeren akusazioak ontzat eman eta tribunalak heriotza zigorrera kondenatu zuen. Halaber, 1938ko abuztuan kondena 30 urteko espetxealdiagatik kommutatua izan zitzaion. Orduan, Bilboko espetxetik Burgosko espetxera lekualdatu zuten eta bertan egon zen preso, baldintzapeko askatasuna lortu zuen arte, 1943ko urrian. Honi esker Oriara bizitzera itzuli ahal izan zen, Etxeberri baserrira[601]. Frontean borrokan zela baliaturik, Urnietako autoritate frankistek Errepublika garaian bizi zen etxeko ondasun guztiak konfiskatu zizkioten[602].

Nació el 21 de diciembre de 1912 en Oria y vivió allí mismo, en la casa Iturralde[598]. Trabajaba en el sector textil como auxiliar químico. Trabajador de la empresa Brunet, estaba afiliado a UGT y al Sindicato del Arte Textil. Tras el golpe de Estado del 18 de julio, se unió al Comité de Defensa que se organizó en el barrio, llegando a estar en su jefatura. Junto con Juan Lacarra –concejal durante la República y alto cargo de Brunet– y como representante de los trabajadores, fue a Donostia a pedir la liberación del hijo de Gaytan de Ayala[599]. Aun así, tomó el mando de las milicias del barrio (del batallón MAOC-Oria precisamente)[600], para responder al avance de las columnas paramilitares de los requetés. Cuando cayeron las cimas de los alrededores de Urnieta, se vio obligado a escapar a Durango. Allí, fue movilizado y, tras pasar por Bilbo, fue nombrado teniente del batallón comunista Rosa Luxemburgo. Aun así, no estuvo mucho tiempo en el frente, porque su mujer Juana Hualde Olloquiegui tuvo un hijo. Desgraciadamente, murió a los siete días de nacer, por enfermedad. Cuando Bizkaia estaba al caer, murieron su mujer, y la madre y cuatro hermanos de esta en un bombardeo realizado por los golpistas contra el pueblo de Turtzioz. Tras todos esos sucesos, Tomás cayó enfermo y fue licenciado. Tras la caída del Frente Norte, fue apresado y encarcelado por los golpistas en Bilbo.

Jeronimo Gamboa, Eduardo Artola eta Tomas Alcorta. (Lasarte-Oria 1936-48). / **Jerónimo Gamboa, Eduardo Artola y Tomás Alcorta.** (Lasarte-Oria 1936-48).

[598] UUA, sig. PA00.06. / AMU, sig. PA00.06.
[599] AIRMN, 189/37 urgentziazko prozedura sumarisimoa. / AIRMN, procedimiento sumarísimo de urgencia189/37.
[600] Ministerio de Cultura y Deporte, Archivo CDMH, sig. PS BILBAO 64. / Ministerio de Cultura y Deporte, archivo CDMH, sig. PS BILBAO 64.
[601] AIRMN, 189/37 urgentziazko prozedura sumarisimoa. / AIRMN, procedimiento sumarísimo de urgencia 189/37.
[602] UUA, sig. 1936.01. / AMU, sig. 1936.01.

En esa ciudad, iniciaron un proceso judicial en su contra por su actitud contraria al golpe de Estado. En él participaron Florentino Ugalde jefe de las FET-JONS y Bartolomé Ugalde alcalde de Urnieta, y declararon que Tomás era el jefe del Comité de Defensa de Oria y el organizador de las milicias del barrio. Además, declararon que al inspeccionar la habitación de Tomás encontraron 11 fusiles cargados y una carabina. En el consejo de guerra que se hizo contra Tomás, en diciembre de 1937, se dieron por buenas las acusaciones de Florentino y Bartolomé, y el tribunal lo condenó a pena de muerte. En agosto de 1938, la pena le fue conmutada por otra de 30 años de prisión. Entonces fue trasladado de la prisión de Bilbo a la de Burgos, y allí, estuvo encarcelado hasta que consiguió la libertad condicional, en octubre de 1943. Gracias a eso pudo volver a vivir a Oria, al caserío Etxeberri[601]. Aprovechando que estaba combatiendo en el frente, las autoridades franquistas de Urnieta le confiscaron todos los bienes de la casa en la que vivía durante la República[602].

ALCORTA CHINCHURRETA, RAMON

1917ko urriaren 17an jaio zen Orian eta bertako kontsumo kooperatibako saltzaile moduan lan egin zuen 1936ko uztailaren aurretik[603]. JSUra afiliatua estatu-kolpea eman zenean Lasarteko abiazio-zelaian lan egitera pasa zen eta kolpisten zutabeen hurbiltasuna nabaria zenean batailoi komunistetan engaiatu zen, MAOC-Oria eta UHP batailoietan[604]. Batailoi hauekin, Bizkaian borrokatu zuen, Santanderren inguratuak geratu eta preso erori zen arte 1937ko abuztuan[605]. Hiri honetan bertan gerra kontseilu bat abiarazi zuten Ramonen aurka, bertan 1934ko Urriko Iraultzan parte hartzea, UGTko lehendakari izatea eta miliziano bezala konfiskazioetan eta lehergailuen produkzioan parte hartzea egotzi zioten[606]. Halaber, bere aurkako prozesua largetsi bazuten ere, langileen batailoietan bortxazko lanak egitera kondenatu zuten[607]. Besteak beste 89. SLDBan (Lezo) eta 76an (Errenteria) izan zuten preso, bortxazko lanak egiten[608].

Nació en Oria el 17 de octubre de 1917, y estuvo trabajando como vendedor en la cooperativa de consumo local hasta el julio de 1936[603]. Estaba afiliado al JSU. Cuando se dio el golpe de Estado, pasó a trabajar al campo de aviación de Lasarte. Cuando era patente la cercanía de las columnas golpistas, se alistó en los batallones comunistas, exactamente en MAOC-Oria y UHP[604]. Combatió con esos batallones en Bizkaia hasta que quedaron rodeados en Santander y fueron apresados el agosto de 1937[605]. En esa misma ciudad, hicieron un consejo de guerra contra Ramón, donde fue acusado de participar en la Revolución de Octubre de 1934, de ser presidente de UGT de Oria y, como miliciano, de participar en las confiscaciones y en la producción de explosivos[606]. Aunque el proceso en su contra fue sobreseído, fue condenado a realizar trabajos forzados en varios batallones de trabajadores[607], sobre todo, en el 89º BDST (Lezo) y en el 76º (Errenteria)[608].

ALCORTA ELOLA, JUAN MARIA

1883ko martxoaren 10ean jaio zen Usurbilen, baina Oria auzoan bizi izan zen. UGT sindikatura afiliatua zegoen eta auzoko kooperatibako arduraduna izan zen. Altxamendua eman eta defentsa komiteak ebakuazio deia egitearekin batera, herria utzi zuen, indar errepublikanoekin batera mugituz, matxinoen erasoaldien arabera. Azkenik Santander hirian kolpisten esku preso geratu zen. 1937ko abenduan, Ondarretako espetxera eraman zuten atxilo, bere aurkako prozesu bati hasiera eman baitzioten tribunal militarrek. Tribunalek, Errepublika garaian ezkerreko mugimenduen alde eginiko lanagatik, isun ekonomiko bat ezartzea ebatzi zuten, 3.000 pezetakoa, eta isuna ordaindutakoan askatasuna berreskuratuko zuen. Isun honen ordainketa, Juan Mariak bere emazte Maxima Chinchurreta Beloquirekin batera zuen kontu korrontetik kopuru hori konfiskatuz burutu zuten kolpistek. 1938ko apirilean aske geratu zen Juan Maria[609]. Espetxean zela, bere emaztea hil zen Orian[610].

Nació en Usurbil el 10 de marzo de 1883, pero vivió en el barrio Oria. Estaba afiliado al sindicato UGT y era el encargado de la cooperativa del barrio. Tras la sublevación militar y cuando los comités de defensa hicieron la llamada a la evacuación, dejó el pueblo, moviéndose junto a las fuerzas republicanas en función de los ataques de los sublevados. Finalmente, cayó en manos de los golpistas en la ciudad de Santander. En diciembre de 1937, fue trasladado a la cárcel de Ondarreta porque los tribunales militares dieron inicio a un proceso en su contra. Los tribunales decidieron imponerle una sanción económica de 3 000 pesetas, por los trabajos realizados a favor de movimientos izquierdistas durante la República. Quedaría en libertad una vez fuera pagada la sanción. Los golpistas procedieron al pago de la sanción confiscando la cantidad antes señalada de la cuenta corriente que Juan María tenía junto con su mujer Máxima Chinchurreta Beloqui. Juan María quedó en libertad el abril de 1938[609]. Cuando estaba en prisión, murió su mujer en el Oria[610].

[603] UUA, sig. 1307.01. / AMU, sig. 1307.01.
[604] Egaña, I. (et. al) (2000). / Egaña, I. (et al) (2000).
[605] UUA, sig. 1307.01. / AMU, sig. 1307.01.
[606] AIRMN, 2533/37 prozedimendu sumarisimoa. / AIRMN, procedimiento sumarísimo 2533/37.
[607] AIRMN, 21742/38 urgentziazko prozedimendu sumarisimoa. / AIRMN, procedimiento sumarísimo de urgencia 21742/38.
[608] UUA, sig. 1306.03 eta sig. 1307.02. / AMU, sig. 1306.03 y 1307.02.
[609] AIRMN, 1835 gobernu-informazioa. / AIRMN, información gubernamental 1835.
[610] Islada Ezkutatuak (2020). / Islada Ezkutatuak (2020).

orr.

ALDAZ LABACA, FAUSTINO "NAPARRA"

Urnietan jaioa, 1889ko otsailaren 15ean, baina Andoainera bizitzera joana zen. Bertan ezkondu egin zen Maria Argarate Cipitriarekin eta lau-seme alaba izan zituzten. Herriko Subijana industrian lan egiten zuen eta UGTra afiliatua zegoen bere bi seme-alaba Micaela eta Bonifacio bezala.

1936ko udako estatu-kolpea eta gero, milizia sozialistetara batu zen, bertako Zerbitzu Osagarrietan lan eginez. Andoain zutabe erreketeen esku erortzear zela, familiarekin Urnietara etorri ziren, non hamabost egunez babestu ziren, Getariara mugitu aurretik. Herri honetan bizi izan zen familia, udaletxeko gela batean, iraila amaieran Latorreren zutabe paramilitarrek Gipuzkoako kostaldea armaz konkistatu arte. Orduan, Faustinoren Bonifacio semea Eusko Gudarostean engaiatu zen eta gainontzekoak herrira itzultzea erabaki zuten[611].

Herrira itzultzean, bertako agintariek salatu eta berehala atxilotu zituzten Bonifacio eta Micaela alaba. Beste hainbat herritarrekin batera, urrian epaitu zituzten eta Faustinoren kasuan, UGTko batzordekide izatea, Fronte Popularra babestea eta milizia sozialistetan jardutea egotzi zioten, Andoaingo autoritate frankisten salaketetan oinarrituta. Hau dela eta, heriotza zigorrera kondenatu zuten urriaren 11n, matxinada militarrean parte hartu zuela ebatzi eta gero. Handik 9 egunetara Polloeko hilerrian fusilatu eta hilobi komun batean lurperatu zuten[612].

Bere familian errepresioa ez zen hor amaitu. Familiaren etxea arpilatu zuen bizilagun batek eta lanik gabe geratu ziren. Horretaz gain, Bonifacio eta Micaela seme-alabek espetxe eta bortxazko lanen urte luzeak pairatu behar izan zituzten[613].

Nació en Urnieta el 15 de febrero de 1889, pero se fue a vivir a Andoain. Allí se casó con María Argarate Cipitria y tuvieron cuatro hijos. Trabajaba en la empresa local Subijana y estaba afiliado a UGT, como sus hijos Micaela y Bonifacio.

Tras el golpe de Estado del verano de 1936, se unió a las milicias socialistas, trabajando en los servicios auxiliares de las mismas. Estando Andoain a punto de caer en manos de las columnas requetés, volvió a Urnieta con la familia. Estuvieron quince días allí y se movieron a Getaria. La familia vivió en esta localidad, en una habitación del Ayuntamiento, hasta que a finales de septiembre las columnas paramilitares de Latorre conquistaron con armas la costa guipuzcoana. Entonces, Bonifacio, hijo de Faustino, se alistó en el Ejército Vasco y los demás decidieron regresar al pueblo[611].

Al volver al pueblo, Faustino y su hija Micaela fueron acusados y detenidos en seguida por las autoridades locales. Junto a otros muchos urnietarras fueron juzgados en octubre, y en el caso de Faustino fue acusado, basado en las denuncias de las autoridades franquistas de Andoain, de ser vocal del sindicato UGT, de apoyar al Frente Popular y de participar en las milicias socialistas. Por ello, fue condenado a muerte el 11 de octubre, tras considerar que participó en la rebelión militar. A los 9 días fue fusilado en el cementerio de Polloe y enterrado allí mismo, en una fosa común[612].

La represión en su familia no acabó ahí. Un vecino saqueó la casa familiar y se quedaron sin trabajo. Además, sus hijos Bonifacio y Micaela tuvieron que soportar largos años de cárcel y trabajos forzados[613].

Faustino Aldaz Labaca.
(Historia oral: la voz dormida en la memoria).

ALDAZ OTAMENDI, FRANCISCO

1915eko uztailaren 31n jaio zen, Orian eta bertan bizi zen[614]. Bertako industriako langilea, JS antolakundera eta UGT sindikatura afiliatua zegoen. JS antolakundeko kide ugari bezala, 1934ko urriko gertakarietan parte hartu zuen eta ondorioz atxilotua eta epaitua izan zen. Baina, 1936an Fronte Popularraren garaipenari esker amnistia lortu zuen, herrira itzuliz[615]. Urte bereko uztaileko estatu-kolpea eman zenean, Errepublikaren defentsarako antolatu ziren milizietan eman zuen izena, auzotar ugari zituen MAOC-Orian lehendabizi eta gero Rosa Luxemburgo batailoi komunistetan[616]. Francisco, Turtziozen aurkitzen zen kolpistek herria airez bonbardatu eta Hualde Olloquiegui sendiko sei kide erail zituztenean[617].

Eusko Gudarostean jardun zuen borrokan Santander erori zen arte, 1937ko abuztuan, non kolpistek espetxeratu egin zuten eta bere jarduera politikoa zela eta epaitua izan zen, Bilboko tribunal militar batean, 1938ko uztailean. Bertan, Franciscoren aurkako kasua largetsi zuten, baina bere aurrekari politikoak zirela eta, langileen batailoi batera lan egitera bidali zuten[618]. 1940ko otsailean Cortijo de Briales (Malaga) kortijoan preso aurkitzen zen, bortxazko lanak egiten jornalari bezala, 103 SLDBan[619]. Hala

[611] Lasa, X. (2006). / Lasa, X. (2006).
[612] AIRMN, 489/36 kausa. / AIRMN, causa 489/36.
[613] Lasa, X. (2006). / Lasa, X. (2006).
[614] UUA, sig. PA00.06. / AMU, sig. PA00.06.
[615] Garai, J. R., Gutiérrez, J., Chueca, J. (2014)6. / Garai, J.R.; Gutiérrez, J. y Chueca, J. (2014).
[617] AIRMN, 3234/38 urgentziazko prozedura sumarisimoa. / AIRMN, procedimiento sumarísimo de urgencia 3234/38.
[617] UUA, sig. 1327.01. / AMU, sig. 1327.01.
[618] AIRMN, 3234/38 urgentziazko prozedura sumarisimoa. / AIRMN, procedimiento sumarísimo de urgencia 3234/38.
[619] UUA, sig. 1307.01. / AMU, sig. 1307.01.

ere, 1940ko maiatzean aske geratu eta Urnietara itzultzea lortu zuen. Baina bere aurkako errepresioa ez zen eten, izan ere, urte bereko uztailean soldadutzara deitua izan zen eta bere aurrekariak zirela eta berriro bortxazko lanak egitera bidali zuten. Lehenik eta behin Miranda de Ebroko kontzentrazio esparrura eta ostean Lugo (Galizia) hiriko 40 SLDBra, non 1942ko apirilean oraindik bertan aurkitzen zen[620].

Nació el 31 de julio de 1915 en Oria y vivía allí mismo[614]. Trabajador en la industria local, estaba afiliado a la organización JS y al sindicato UGT. Como muchos miembros de esa organización, participó en los sucesos de octubre de 1934, por los cuales fue detenido y juzgado. Pero en 1936 consiguió la amnistía, gracias a la victoria del Frente Popular, y volvió al pueblo[615]. Cuando en julio del mismo año se dio el golpe de Estado, se alistó en las milicias que se formaron para la defensa de la República: primero en la MAOC-Oria que estaba formado por muchos convecinos, y después, en los batallones comunistas Rosa Luxemburgo[616]. Francisco se encontraba en Turtzioz cuando los golpistas bombardearon el pueblo y asesinaron a seis miembros de la familia Hualde Olloquiegui[617].

Luchó en el Ejército Vasco hasta la caída de Santander, en agosto de 1937, donde fue encarcelado por los golpistas y juzgado por su actividad política en un tribunal militar de Bilbao, en julio de 1938. Allí se sobreseyó el caso contra Francisco, pero debido a sus antecedentes políticos fue enviado a trabajar a un batallón de trabajadores[618]. En febrero de 1940, se encontraba encarcelado en el edificio Cortijo de Briales (Málaga), haciendo trabajos forzados como jornalero en el SLDB 103[619]. Sin embargo, en mayo de 1940 quedó en libertad y regresó a Urnieta. Sin embargo, la represión contra él no cesó: en julio del mismo año, fue llamado al servicio militar y enviado de nuevo a realizar trabajos forzados debido a sus antecedentes. Primero, al campo de concentración de Miranda de Ebro (Burgos) y, después, al 40º SLDB de la ciudad de Lugo (Galicia) donde se encontraba todavía en abril de 1942[620].

Francisco Aldaz, Rosa Luxemburgo bataloiko kideekin. / Francisco Aldaz, con los miembros del batallón Rosa Luxemburgo.

ALIRI AÑORGA, ANGEL

Aurrekari politiko abertzaleak zituen pertsona zen Angel. Lasarte eta Usurbilen propaganda abertzalea egiten jardun zuen, gerra berri posible baten aurrean antolakuntza taldeak sortzen eta preso politikoen aldeko babes-sarea eratuz ibili zen. Ekintza hauengatik atxilotua izan zen 1942ko martxoan, Jose Vilarekin eta Primitivo Tellechearekin batera. Azken bien aurkako salaketa artxibatu egin bazuten ere, Angelen kasuan Estatuaren segurtasunaren aurkako delitu bategatik kondenatu zuten, 3 urteko espetxealdia eta 10.000 pezetako isuna ordaintzera. Izan ere, tribunalak Lasarte, Usurbil eta Zubietan EAJ alderdia berreraikitzearen ardura egotzi zion, bertako burua zela adieraziz[621].



Angel Aliri eta beste hainbat herritar epaitzeko, presoen aldeko propaganda hau izan zen frogetako bat. (AIRMN). / Para juzgar a Ángel Alí y a otros ciudadanos, esta propaganda a favor de los presos fue una de las pruebas. (AIRMN).

[620] UUA, sig. 1306.01. / AMU, sig. 1306.01.

[621] AIRMN, 4177 sumarisimo arrunta. / AIRMN, sumarísimo ordinario 4177.

orr.

Ángel era una persona con antecedentes políticos nacionalistas. Anduvo en Lasarte y Usurbil haciendo propaganda nacionalista, creando grupos de organización ante una posible guerra y creando una red de apoyo por los presos políticos. Fue detenido por esas actividades en marzo de 1942 junto a José Vila y Primitivo Tellechea. Aunque archivaron las denuncias en contra de los otros dos, Ángel fue condenado a 3 años de prisión y una multa de 10 000 pesetas por un delito en contra de la seguridad del Estado. El tribunal le atribuyó la responsabilidad de la reconstrucción del PNV en Lasarte, Usurbil y Zubieta, indicando que era el jefe del mismo[621].

ALONSO TURRIENTES, JULIO

1897ko abenduaren 5ean jaio zen Burgosen[622], baina Urnietan bizi zen trenbideetako langilea zen. Ideologia ezkertiarrekoa, UGT sindikatura afiliatua zegoen. Estatu-kolpea ematearekin batera, Errepublikaren defentsarako miliziekin bat egin zuen, miliziano talde baten buru jarriz. Defentsa komitearen aginduz, Jose Romero militarraren objektu militarrak konfiskatu eta komertzioetan konfiskazioak egin zituen[623]. Baina irailean Urnieta kolpisten esku erori zenean, Eusko Gudarosteko milizietara batu zen, trenbideetako sailean[624]. Gerra Zibileko Iparraldeko Frontea erori zenean, ihes egitea lortu zuen, Errepublikaren kontrolpeko lurraldeetara itzuliz. Bertan PCE alderdiko afiliatu bezala agertzen da eta intendentzia-militarrera batu zen, osagarrizko alferez graduarekin[625]. Gerra amaitzeraino borrokatu zuen, Valentzian atxilotu zutelarik, non kolpistek Porta Coeli kontzentrazio esparruan preso izan zuten. 1940ko apirilaren 25ean, espetxe honetatik Donostiara lekualdatu zuten. Bere aurkako epaiketa 1941eko maiatzaren 1ean gauzatu zen, non miliziano bezala eginiko ekintzak zirela eta matxinada militarrari laguntza ematea egotzi zioten, eta 6 urte eta egun bateko espetxe zigorrera kondenatu zuten. 1941eko urriaren 3an baldintzapeko askatasuna berreskuratu zuen, baina deserriratzearekin, Urnietako autoritateek herrira itzultzeko aurkakotasuna erakutsi baitzuten. Ondorioz, bere jaioterrira itzultzea erabaki zuen, Burgosen bizitzen ezarriz[626]. 1936an herritik joan behar izan zuenez, autoritate frankistek bere ondasunak konfiskatu eta Saturnino Larburu epaileari eman zizkioten (ondoren Julio herrira itzultzea galarazi zutenetako bat) eta 1942 urtean, Julio ondasunak berreskuratzen saiatu zenean, tribunalek Saturninori arrazoia eman zioten eta Julio ondasun horiek gabe geratu zen[627].

Nació en Burgos el 5 de diciembre de 1897[622], pero era un trabajador ferroviario que vivía en Urnieta. De ideología izquierdista, estaba afiliado al sindicato UGT. Casi al mismo tiempo que se dio el golpe de Estado, se unió a las milicias en defensa de la República, siendo jefe de un grupo de milicianos. Por orden de los Comités de Defensa, confiscó los objetos militares del militar José Romero y realizó confiscaciones en comercios[623]. Pero en septiembre, cuando Urnieta cayó en manos de los golpistas, se unió a las milicias del Ejército Vasco, en la sección de ferrocarriles[624]. Cuando cayó el Frente Norte, logró huir y volver a territorios bajo control de la República. Allí, aparece como afiliado al PCE, y se unió a la intendencia militar con la graduación de adjunto a alférez[625]. Luchó hasta el final de la guerra, siendo detenido en Valencia, y encarcelado por los golpistas en el campo de concentración de Porta Coeli. El 25 de abril de 1940 fue trasladado de esta prisión a Donostia. El juicio contra él se celebró el 1 de mayo de 1941 y, por sus acciones como miliciano, fue acusado de ayudar a la insurrección militar, por lo que fue condenado a 6 años y un día de prisión. El 3 de octubre de 1941 recuperó la libertad condicional, pero con destierro, pues las autoridades de Urnieta mostraron su oposición a que regresara al pueblo. En consecuencia, decidió regresar a su ciudad natal y se instaló en Burgos[626]. Como tuvo que marcharse del pueblo en 1936, las autoridades franquistas habían confiscado sus bienes y los entregaron al juez Saturnino Larburu (uno de los que luego impidió que Julio regresara al pueblo) y en 1942, cuando Julio intentó recuperar los bienes, los tribunales dieron la razón a Saturnino y Julio se quedó sin los mismos[627].

APAOLAZA ECHEVERRIA, JOSE RAMON

1912 urtean jaio zen Urnietan[628], baina Altzan bizi zen. Jornalari gisa lan egiten zuen eta ezkongabea zen[629]. Arrain saltzailea zen eta CNT sindikatura afiliatua zegoen Errepublika garaian[630]. Honen aurka 1936ko uztailean estatu-kolpea eman zenean Euzko Indarra batailoira batu zen[631]. Momenturen batean kolpisten kontrolpeko eskualdeetan geratu zen edota preso egin zuten, baina ihes egitea lortu zuen eta Errepublikaren kontrolpeko guneetara pasa zen[632], Bartzelonan errefuxiatzea lortuz[633]. Gerra

[622] UUA, sig. PA00.06. / AMU, sig. PA00.06.

[623] AIRMN, 3449/40 sumarisimo arrunta. / AIRMN, sumarísimo ordinario 3449/40.

[624] Egaña, I. (et. al) (2000). / Egaña, I. (et. al) (2000).

[625] Ministerio de Cultura y Deporte, Archivo CDMH, sig. DNSD-SECRETARIA,FICHERO,2,A0064638. / Ministerio de Cultura y Deporte, archivo CDMH, sig. DNSD-Secretaría, Fichero 2, A0064638.

[626] GAHP, Julio Alonso Turrientesen espetxe-espedientea. / AHPG, expediente penitenciario de Julio Alonso Turrientes.

[627] AIRMN, 4267/42 aurretiazko eginbideak. / AIRMN, diligencias previas 4267/42.

[628] UUA, sig. 1305.02. / AMU, sig. 1305.02.

[629] GPAH, Jose Ramon Apaolaza Echeverriaren espetxe-espedientea. / AHPG, expediente penitenciario de José Ramón Apaolaza Echeverría.

[630] Ministerio de Cultura y Deporte, Archivo CDMH, sig. DNSD-SECRETARIA,FICHERO,4,A0121612. / Ministerio de Cultura y Deporte, archivo CDMH, sig. DNSD-Secretaría, Fichero 4, A0121612.

[631] Egaña, I. (et. al) (2000). / Egaña, I. (et. al) (2000).

[632] Ministerio de Cultura y Deporte, Archivo CDMH, sig. DNSD-SECRETARIA,FICHERO,4,A0121612. / Ministerio de Cultura y Deporte, archivo CDMH, sig. DNSD-Secretaría, Fichero 4, A0121612.

[633] Egaña, I. (et. al) (2000). / Egaña, I. (et. al) (2000).

amaitzean Urnietara bizitzera itzuli zen berriro, baina atxilotua izan zen 1939ko urrian, Donostiako Zapatari presondegian espetxeratu zutelarik Gerra Auditorearen esku utziz. Bere aurkako ekinbide judiziala azkenik bertan behera geratu zen eta 1940ko martxoan aske geratu zen[634].

Nació en Urnieta el año 1912[628], pero vivía en Altza. Trabajaba como jornalero y estaba soltero[629]. Era un pescadero que estaba afiliado al sindicato CNT durante la República[630]. Cuando el julio de 1936 se dio el golpe de Estado contra ella, se unió al batallón Euzko Indarra[631]. En algún momento se quedó en territorio bajo control de los golpistas, o fue apresado, pero consiguió huir y paso a territorio bajo control de la República[632], consiguiendo refugiarse en Barcelona[633]. Al terminar la guerra volvió de nuevo a Urnieta, pero fue detenido el octubre de 1939 y lo encarcelaron en la prisión Zapatari de Donostia, dejándolo en manos del Auditor de Guerra. Finalmente, se suspendió la iniciativa judicial en su contra y quedó en libertad en marzo de 1940[634].

ARAMBURU CHINCHURRETA, CANDIDO

Urnietan jaioa, Hernaniko zatia zen Lasartera bizitzera joana zen Candido. Nahiz eta Errepublika garaian militantzia politikorik ez izan, altxamendua eman zenean lehen unetik Lasarteko hainbat herritarrekin defentsa komitearentzat lan egiten hasi zen, gidari gisa[635]. Baina frontea gero eta hurbilago ikusirik, milizianoekin batu eta frontean borrokatzera joan zen, hasiera batean MAOC Oria taldearekin. Molaren tropen erasoaldia zela eta, atzerakadan Bizkairaino joan behar izan ziren eta bertan Rosa Luxemburgo batailoi komunistara batu zen[636]. Batailoi honekin jardun zuen borrokan, Bizkaia erori zen arte; orduan kolpistek atxiki eta Bilboko kartzeletan espetxeratuta egon zen, Deustu eta Eskolapioetakoan, besteak beste. Hiri honetan bertan bere aurkako prozesu bat ireki zuten tribunalek, non herriko defentsa komitearentzat lan egitea egotzi zioten eta horretaz gain, baita Cecilio Humanes zaldizkoa etxetik atera eta fusilatu zuten miliziano taldeko partaide izatea ere bai. Horregatik, matxinada militarraren egilea izatea egotzi zioten eta heriotza zigorrera kondenatu zuten, 1938ko martxoaren 24an[637]. Bere aitak frogak bildu zituen egozten ziotenaren aurka eta hauek aurkezteko eskaera burutu zuen[638], baina beste epaiketarik burutu gabe fusilatu zuten urte bereko urriaren 24an[639].

Nacido en Urnieta, Cándido se fue a vivir a la parte de Lasarte que era de Hernani. Aunque no tuvo militancia política alguna durante la República, cuando se dio la sublevación militar empezó, desde el primer momento, a trabajar para el Comité de Defensa, junto con más gente de Lasarte, trabajando como guía[635]. Pero viendo el frente cada vez más cerca, se unió a los milicianos y se fue a combatir al frente, al comienzo con el grupo MAOC Oria. Debido a la ofensiva de las tropas de Mola, tuvieron que retirarse hasta Bizkaia y, una vez allí, se unió al batallón comunista Rosa Luxemburgo[636]. Combatió en ese batallón hasta que cayó Bizkaia, cuando fue apresado por los golpistas y estuvo encarcelado en varias cárceles de Bilbo, entre otros en la de Deustu y la de los Escolapios. En esta misma ciudad, los tribunales militares abrieron un proceso contra él, en el que le acusaron de trabajar para el Comité de Defensa del pueblo y de formar parte del grupo de milicianos que sacaron de casa al jinete Cecilio Humanes y lo fusiló. Por eso, le acusaron de rebelión militar y fue condenado a pena de muerte, el 24 de marzo de 1938[637]. Su padre reunió pruebas en contra de lo que le acusaban y realizó una petición para poder presentar dichas pruebas[638], pero Cándido fue fusilado sin realizarse ningún otro juicio, el 24 de octubre del mismo año[639].

Maria Aramburu arreba, Candidoren hilobian, fusilatu eta egun gutxira. (Lasarte-Oria 1936-48). / **La hermana Maria Aramburu en la tumba de su hermano fusilado Candido Aramburu, a los pocos días de su muerte.** (Lasarte-Oria 1936-48).



Candidoren aitak, bere semearen defentsan idatzitako eskutitza. (AIRMN). / **Carta del padre de Cándido en defensa de su hijo.** (AIRMN).

634 GPAH, Jose Ramon Apaolaza Echeverriaren espetxe-espedientea. / AHPG, expediente penitenciario de José Ramón Apaolaza Echeverría.

635 AIRMN, 10543/38 urgentziazko prozedura sumarisimoa. / AIRMN, procedimiento sumarísimo de urgencia 10543/38.

636 Egaña, I. (et. al) (2000). / Egaña, I. (et. al) (2000).

637 AIRMN, 10543/38 urgentziazko prozedura sumarisimoa. / AIRMN, procedimiento sumarísimo de urgencia 10543/38.

638 AIRMN, 9054/38 prozedura sumarísimo arrunta. / AIRMN, procedimiento sumarísimo ordinario.

639 EAH, Bidasoa Institutua bilduma, Luis Ruiz de Aguirre “Sancho de Beurko” funtsa. / AHE, colección Bidasoa Institutua, fondo Luis Ruiz de Aguirre “Sancho de Beurko”.

ARANA ECHEVERRIA, JOSE

1915eko otsailaren 5ean jaio zen Tolosan, baina Lasartera bizitzera etorria zen, Atzekaleko Olaberria Lizaso sendiaren etxera. Bertan jornalari bezala lan egiten zuen[640]. Altxamendua eman eta erreketeak Urnieta mehatxatzen zutela ikusita, herria utzi zuen eta Eusko Gudarostera batu zen, Laredon (Kantabria) kolpistek preso egin zuten arte, 1937ko irailean. Bertatik Medina de Riosecoko kontzentrazio esparrura eraman zuten eta abenduan Ondarretako espetxera lekualdatu zuten[641]. Donostian bere aurkako ikerketa bati hasiera eman zioten tribunal militarrek, baina bere ekintzek ondorio penalik ez zutela ebatzi eta gero, kausa largetsi egin zuten. Hala ere, sailkapen batzordean diktaduraren aurkako pertsona bezala identifikatu zuten eta bortxazko lanak egitera bidali zuten, 1939ko urtarrilean[642]. SLDB batera bidalia izan zen, baina apirilean, tuberkulosiaz gaixo zen eta horregatik ospitale batera eramatea eskatu zuen, denborara Donostiako Manteo ospitalera ekarri zutelarik[643]. Hala ere, nahiz eta gaixo aurkitu, sententzia ez zuten bertan behera utzi eta 1940ko udaberrian Granadako 5 SLDBra bidali zuten[644].

Nació en Tolosa el 5 de febrero de 1915, pero se fue a vivir a Lasarte, a la casa de la familia Olaberria-Lizaso, en Atzekale. Allí, estuvo trabajando como jornalero[640]. Tras la sublevación militar, y viendo que los requetés amenazaban Urnieta, dejó el pueblo y se unió al Ejército Vasco. Fue apresado por los golpistas en Laredo (Cantabria), en septiembre de 1937. De allí fue trasladado al campo de concentración de Medina de Rioseco (Valladolid), y en diciembre lo trajeron a la cárcel de Ondarreta[641]. En Donostia, los tribunales dieron inicio a una investigación en su contra, pero determinaron que sus actos no tenían consecuencias penales y sobreseyeron la causa. De todos modos, en la Comisión de Clasificación lo identificaron como persona contraria a la dictadura y, en enero de 1939, lo enviaron a hacer trabajos forzados[642]. Fue enviado a un SLDB, pero en abril pidió que le enviaran a un hospital porque estaba enfermo de tuberculosis; por esa razón, más tarde, fue llevado al hospital Manteo de Donostia[643]. Aunque estuviera enfermo, la sentencia no fue suspendida, y en la primavera de 1940 lo enviaron al 5º SLDB de Granada[644].

ARBIZA GOICOECHEA, MANUEL

1861eko azaroaren 5ean jaioa Hernanin, baina Urnietan urte luzez bizi izan zen Manuel, herrian errementari lanak eginez. Urnietar asko bezala, gerra hotsak hurbildu zirenean, Donostiara mugitzeko erabakia hartu zuen, bertan ezarriz denbora batez, Urnietara itzuli aurretik[645]. Estatu-kolpea eman zuten militarrek Gipuzkoa armekin hartu eta gero, Manuel eta beste hiru herritarren (Gregorio Echeverria, Antonio Gorriti eta Bartolome Lasarte) aurkako prozedura bat ireki zuten, baina Lasarteko Komandantzia Militarraren arabera, lau urnietar hauek absolbitu egin zituzten 1937ko maiatzaren 22an[646].

Nació el 5 de noviembre de 1861 en Hernani, pero vivió muchos años en Urnieta trabajando como herrero. Como muchos urnietarras, decidió moverse a Donostia cuando se acercaron los ruidos de la guerra, y allí estuvo establecido hasta que volvió a Urnieta[645]. Cuando los militares que dieron el golpe de Estado tomaron Gipuzkoa por las armas, abrieron un procedimiento contra Manuel y otros tres vecinos del pueblo (Gregorio Echeverria, Antonio Gorriti y Bartolomé Lasarte), pero según la Comandancia Militar de Lasarte, estos cuatro urnietarras fueron absueltos el 22 de mayo de 1937[646].

ARBIZA ICUZA, GREGORIO

1907an jaio zen Urnietan eta bertan bizi zen, familiako etxean, errementari lanak eginez[647] Donostiako Jose Imazen forjan[648]. Gregorio Urnietako EAJko kidea zen eta alderdi honentzat lan egin izan zuen hauteskundeetan, propaganda egiten eta interbentore bezala egonez hautets-mahaietan. Militarrek estatu-kolpea eman zutenean, honen aurka antolatutako milizia eta batailoietan parte hartu zuen, herritik ihes egin behar izan zuelarik kolpisten zutabeak Gipuzkoa erasotu zutenean. Gregorioren inplikazio politikoa zela eta, altxatuek atxilo hartu zuten eta tribunal militarrek gerra kontseilu bat burutu zuten bere aurka, non 12 urte eta egun batera kondenatu zuten matxinadara kitzikatzea egotzi eta gero, 1938ko maiatzean[649]. Orduan, Burgoseko espetxe zentralera eraman zuten preso, kondena betetzera. Bertatik, azaroan Valladolideko espetxera eraman zuten eta bertan kondenaren kommutazio bat jaso zuen, 6 urte eta egun batera jaitsiz. Honi esker, espetxealdi arinduan irtetzea lortu zuen 1940ko abuztuan[650]. Espetxean zela baliatuz, erantzukizun zibilen espediente bat ireki zioten, baina ez berak ez bere familiak ondasunik ez aurrezkirik ez zutenez, ezin izan zioten inolako konfiskaziorik egin[651].

Nació en el año 1907 en Urnieta y vivía allí, en la casa familiar, trabajando como herrero[647] en la forja de José Imaz[648]. Gregorio era miembro del PNV de Urnieta y había trabajado para ese partido en las elecciones, haciendo propaganda y como interventor

[640] UUA, sig. PA00.06. / AMU, sig. PA00.06.
[641] AIRMN, 1644 aurretiazko diligentziak. / AIRMN, diligencias previas 1644.
[642] AIRMN, 15132/38 urgentziazko sumarisimoa. / AIRMN, sumarísimo de urgencia 15132/38.
[643] UUA, 1939ko udal-korrespondentzia. / AMU, correspondencia municipal de 1939.
[644] UUA, sig. 1307.02. / AMU, sig. 1307.02.
[645] UUA, sig. PA00.06. / AMU, sig. PA00.06.
[646] UUA, 1938ko udal-korrespondentzia. / AMU, correspondencia municipal de 1938.
[647] UUA, sig. PA00.06. / AMU, sig. PA00.06.
[648] UUA, 1940ko udal-korrespondentzia. / AMU, correspondencia municipal de 1940.
[649] AIRMN, 3263/38 urgentziazko prozedura sumarisimoa. / AIRMN, procedimiento sumarísimo de urgencia 3263/38.
[650] AGA, Gregorio Arbiza Icuzaren espetxe-fitxa. / AGA, expediente penitenciario de Gregorio Arbiza Icuza.
[651] UUA, 1938ko udal-korrespondentzia. / AMU, correspondencia municipal de 1938.

en las mesas electorales. Cuando los militares dieron el golpe de Estado, participó en las milicias y batallones organizados en su contra, pero tuvo que huir del pueblo cuando las columnas de los golpistas atacaron Gipuzkoa. Debido a la implicación política de Gregorio, los sublevados lo detuvieron y los tribunales militares hicieron un consejo de guerra en su contra. Fue condenado a 12 años y un día de prisión por incitación a la rebelión, el mayo de 1938[649]. Fue llevado a la prisión central de Burgos a cumplir la condena. De allí, en noviembre fue llevado a la cárcel de Valladolid y consiguió que le conmutaran la pena a 6 años y un día. Debido a ello, consiguió la libertad atenuada en agosto de 1940[650]. Aprovechando que estaba en prisión, le abrieron un expediente de responsabilidad civil, pero como él ni su familia tenía ni bienes ni ahorros, no pudieron realizarle ninguna confiscación[651].

ARREGUI ARRUTI, JUAN JOSE

Urnietan jaio eta Errenteriara joan zen bizitzera, lanbidez saltzailea zelarik. Ideologia abertzalea zuen eta ELAra afiliatua zegoen Errepublika garaian eta estatu-kolpea eman zenean herriko defentsa komitearentzat guardiak egin zituen. Hau dela eta herria uztea erabaki zuen matxinoen tropak iritsi zirenean[652]. Orduan Eusko Gudarostean engaiatu zen, San Andres batailoian[653]. 1937ko uztailaren 3an, kolpisten tropen aurrean errenditu zen Balmasedan. Bertatik Gasteizko espetxera eraman zuten eta San Pedro de Cardeñako kontzentrazio esparrura beranduago (Burgos). Bertan hainbat bortxazko lan egitera behartu eta gero, 1938ko abuztuaren 20an aske utzi zuten. Hala ere, irailaren 17an Errenterian bertan atxilotu zuten, Ondarretan espetxeratuz. Gerra Kontseilu batean prozesatu zuten eta bertan defentsa komitearen aginduz Concepcion Egurrola errenteriarra atxilotzea egotzi zioten. Hau dela eta bi urteko espetxe zigorrera kondenatu zuten. Ondarretan egon zen preso, 1940ko maiatzaren 11n askatasuna berreskuratu zuen arte, espetxealdi arindua lortu eta gero[654].

Nació en Urnieta, pero se fue a vivir a Errenteria y trabajaba como vendedor. Era de ideología abertzale y estaba afiliado al sindicato ELA durante la República. Cuando se dio el golpe de Estado, realizó guardias para el Comité de Defensa local. Por eso, decidió abandonar el pueblo, cuando llegaron las tropas sublevadas[652]. Entonces, se alistó en el Ejército Vasco, en el batallón San Andrés[653]. El 3 de julio de 1937 se rindió ante las tropas golpistas en Balmaseda. Desde allí, fue trasladado a la cárcel de Gasteiz y posteriormente al campo de concentración de San Pedro de Cardeña (Burgos). Tras varios trabajos forzados, fue puesto en libertad el 20 de agosto de 1938. Sin embargo, el 17 de septiembre, fue detenido en Errenteria y encarcelado en Ondarreta. Fue procesado en un Consejo de Guerra y fue acusado de detener a la errenteriarra Concepción Egurrola, por orden del Comité de Defensa. Por ello, fue condenado a dos años de prisión. Permaneció preso en Ondarreta hasta que el 11 de mayo de 1940 recuperó la libertad tras obtener la prisión atenuada[654].



Juan Jose Arregui Arrutiren historia penala Ondarretako espetxean. (GPAH). / Historia penal de Juan José Arregui Arruti en la cárcel de Ondarreta. (GPAH.

[652] AIRMN, 2783/39 urgentziazko prozedura sumarisimoa. / AIRMN, procedimiento sumarísimo de urgencia 2783/39.

[653] Ministerio de Cultura y Deporte, Archivo CDMH, sig. DNSD-SECRETARIA,FICHERO,5,A0160128. / Ministerio de Cultura y Deporte, archivo CDMH, sig. DNSD-Secretaría, Fichero 5, A0160128.

[654] GAHP, Jose Juan Arregui Arrutiren espetxe-espedientea. / AHPG, expediente disciplinario de José Juan Arregui Arruti.

ARREGUI EGUIGUREN, MIGUEL

1906ko azaroaren 19an jaio zen Urnietan eta Oria auzoan bizi zen. JSU eta UGT sindikatura afiliatua zegoen eta zurgina zen ofizioz. 1936ko uztailaren 18an, matxinada militarra eman zenean, tuberkulosiaz gaixo zegoen etxean, baina hala ere, egun batzuetara alta eman eta Bruneteko enpresan lan egin zuen lehergailuak egiten, baina laster eten zen bonben produkzioa eta defentsa komitearentzat lan egitera pasa zen. Hemen, ibiltze-baimenak idazteaz arduratu zen[655]. Horretaz gain, Lasarteko abiazio-zelaian ere jardun zuen eta denborara herriaren defentsarako milizietan engaiatu zen, MAOC-Oria batailoi komunistan[656]. Erreketeek Gipuzkoaren aurka eginiko erosoaldiak eragindako atzerakadan JSUren batailoietan jardun zuen Elorriora arte, eta bertan, sortu berria zen UHP batailoira batu zen. Tuberkulosia izan zuenez, hainbat arazo zituen, eta ondorioz zerbitzu osagarriak egitera bideratu zuten; horrela bere lanbideagatik arotz lanak egiten edota garbitzaile ibili zen. Arlo honetan lan egin zuen Celta batailoi anarkistan ere, baina azkenean medikuaren aginduz laguntza-batailoi batera bideratu zuten eta bertan egin zuen lan Santander erori arte.

Bertatik, kolpistek preso eraman zuten Santoñara, 1937ko abuztuan eta plaza honetan bertan burutu zen Miguelen aurkako gerra kontseilua urriaren 17an. Bertan, matxinada militarrera atxikitzea egotzi eta 30 urteko espetxealdira kondenatu zuten. Ildo beretik, ondasunen konfiskazioen batzordeak ikertu zuen, baina ez zuen ondasunik bere izenean Miguelek[657]. Tuberkulositik eratorritako osasun arazoak zirela eta, Segoviako espetxe-ospitalera eraman behar izan zuten preso. 1941ko uztailean ospitale honetatik Urnietako autoritate frankistei idatzi zieten baldintzapeko askatasunaren inguruan eta hauen oniritzia jaso eta gero aske geratu zen, Oriara bizitzera itzuliz[658].

Nació el 19 de noviembre de 1906 en el barrio Oria de Urnieta. Estaba afiliado a la organización JSU y al sindicato UGT, y de oficio era ebanista. El 18 de julio de 1936, cuando se dio la rebelión militar, estaba enfermo de tuberculosis en casa; aun así, a los pocos días le dieron el alta y estuvo fabricando explosivos en la empresa Brunet. Pronto se paró la producción de bombas, y pasó a trabajar para el Comité de Defensa. Allí, se encargaba de escribir los salvoconductos[655]. Además, también estuvo trabajando en el campo de aviación de Lasarte y, al de poco, se enroló en las milicias para la defensa del pueblo, en el batallón comunista MAOC-Oria[656]. Estuvo en los batallones de las JSU hasta Elorrio, en retroceso por la ofensiva que iniciaron los requetés contra Gipuzkoa, donde se unió al recién creado batallón UHP. Debido a que padeció tuberculosis, tuvo diversos problemas, por lo que fue destinado a realizar servicios complementarios y, de ese modo, ejerció su oficio de carpintero y también como limpiador. También siguió en ese trabajo en el batallón anarquista Celta, pero finalmente fue destinado por prescripción médica a un batallón asistencial, donde trabajó hasta la caída de Santander.

De allí, el agosto de 1937, los golpistas lo llevaron detenido a Santoña, donde se realizó el consejo de guerra contra Miguel, el 17 de octubre. Le acusaron de unirse a la rebelión militar y fue condenado a 30 años de prisión. Del mismo modo, fue investigado por la Comisión de Bienes Incautados, pero Miguel no tenía bienes a su nombre[657]. Debido a los problemas de salud derivados de la tuberculosis, lo tuvieron que llevar a la prisión-hospital de Segovia. En julio de 1941, escribió desde ese hospital a las autoridades franquistas de Urnieta requiriéndoles su libertad condicional. Su petición fue aceptada y quedó en libertad, tras lo cual volvió a vivir a Oria[658].

ARRUARTE JUANGORENA, PABLO

1900eko urtarrilaren 24ean jaio zen, Urnietan bertan eta Sabino Arana kalean bizi zen. Udal langilea zen eta Eltzemendi ur-jauziko eta zentralak sortutako elektrizitatearen horniduraren arduraduna zen. Bere postutik kaleratua izan zen EAJ alderdikoa izateagatik[659]. 1943ko uztailaren 7an, herrian erasotu egin zuten eta gainean zeramatzan 400 pezetak lapurtu zizkioten. Erasoan zauritua izan zen. Gertakariaren gaineko ikerketa bat abiatu zen baina ez zen lortu erasotzailea identifikatzea[660].

Nació el 24 de enero de 1900 en Urnieta, y vivía en la calle Sabino Arana. Era un empleado municipal, y era responsable de la cascada de Eltzemendi y del suministro de electricidad creada en la central anexa. Fue despedido de su puesto por ser del PNV[659]. El 7 de julio de 1943, fue agredido en el pueblo. En el ataque le robaron las 400 pesetas que llevaba encima y también resultó herido. Se inició una investigación sobre el suceso, pero no se logró identificar al atacante[660].

ARSUAGA LARRAGAN, CALIXTO

1915eko otsailaren 8an Zizurkilen jaio zen Calixto. Ideia tradizionalistak zituen pertsona izaki, erreketeen zutabeek Urnieta armekin hartu eta gero, indar paramilitar hauetara batu zen, kolpisten alde borrokatuz Gerra Zibilean. Hala ere, 1942an berriro ere soldadutzara deitu zutenean, ez aurkeztea erabaki zuen eta Frantziako Estatura ihes egin zuen. Herrialde honetan bizi izan zen, 1945eko desertoreen indultuaren legea argitaratu zen arte. Honi esker 1946ko azaroan Iruneko polizia etxean aurkeztu zen, herrira itzultzeko asmoz[661].

[655] AIRMN, 112/37 urgentziazko prozedura sumarisimoa. / AIRMN, procedimiento sumarísimo de urgencia 112/37.
[656] Egaña, I. (et. al) (2000). / Egaña, I. (et. al) (2000).
[657] AIRMN, 112/37 urgentziazko prozedura sumarisimoa. / AIRMN, procedimiento sumarísimo de urgencia 112/37.
[658] UUA, 1941ko udal-korrespondentzia. / AMU, correspondencia municipal de 1941.
[659] SAF. / SAF.
[660] AIRMN, 760/43 sumario arrunta. / AIRMN, sumario ordinario 760/43.
[661] UUA, sig. 1306.01. / AMU, sig. 1306.01.

Nació el 8 de febrero de 1915 en Zizurkil. Al ser una persona con ideas tradicionalistas, cuando las columnas de los requetés tomaron Urnieta por las armas, se unió a estas fuerzas paramilitares, luchando por los golpistas durante la Guerra Civil. Sin embargo, cuando en 1942 fue llamado de nuevo al servicio militar, decidió no presentarse y huyó al Estado francés. Vivió en ese país hasta la publicación de la ley de indulto de los desertores de 1945, gracias a la cual pudo presentarse en la comisaría de policía de Irún, en noviembre de 1946, con el objetivo de regresar al país[661].

AULESTIA MENDIETA, TOMAS

Bilbon jaio eta bizi zen Tomas, 40 urte zituen (1940an) eta delineatzailea zen. Ideia ezkertiar sakonekoa[662], 1927tik hiri honetako Kasino Errepublikanoko kide zen[663]. Gerrak eztanda egitean Errepublikaren aldeko defentsarako antolatutako milizietan engaiatu zen, hainbat frontetan borrokatuz (Fermin Galan batailoiarekin[664]), teniente izan zen ere (Zabalbide batailoian[665]), kapitain izateraino armada errepublikanoan (Asturiasko Iparraldeko Armadan[666]) eta Armadako Estatu Nagusian ere jardun zuen.

Frontea erori zenean, altxatuengandik ezkutatzea lortu zuen, Gipuzkoara itzuliz, baina 1938ko irailean atxilotu egin zuten Donostian[667]. Atxilotzean Urnietan bizi zela adierazi zuen, bere emaztearekin batera, Itxaso-Asu etxean. 1940 hasieran, espetxeko baldintza gogorrak zirela eta, gaixotu egin zen eta ospitaleratua izan zen eta ebakuntza bat egin behar izan zioten. Hau eta gero, urte bereko uztailean, Errepublikaren alde egindako borrokagatik tribunal kolpistek gerra kontseilu bat ireki zuten bere aurka, Bilbon, bertako espetxe batera eramanez. Bertan, matxinada militarra laguntzea egotzi zioten eta 12 urte eta egun batera zigortu zuten, baina ostean 6 urte eta egun batera kommutatu zioten kondena. Berarekin batera beste lau pertsona epaitu zituzten, tartean bere emaztea zen Carmen Garcia, seguruenik Tomas izkutatzeagatik, baina beraien aurkako kausa artxibatu egin zen. Kondena irmoa izan zenean, abenduan Tomasek baldintzapeko askatasuna lortu zuen, baina hau atzera bota zuen auditoreak eta berriro espetxeratua izan zen. Azkenik, Tomasek baldintzapeko askatasuna deserriratzearekin lortu zuen 1942ko martxoan, Donostian ezarriz[668].

Nació y vivía en Bilbo, tenía 40 años (en 1940) y era delineante. Era de profundas ideas izquierdistas[662], y como tal, era miembro del Casino Republicano de esa ciudad desde 1927[663]. Al estallar la guerra, se alistó en las milicias organizadas para la defensa de la República y combatió en varios frentes (con el batallón Fermín Galán[664]); también fue teniente (batallón Zabalbide[665]), llegando a ser capitán del Ejército republicano (en el Ejército del norte de Asturias[666]) y llegó a estar en el Estado Mayor del Ejército.

Al caer el frente, consiguió esconderse de los sublevados en Gipuzkoa, pero en septiembre de 1938 fue detenido en Donostia[667]. Al ser detenido, declaró que vivía junto a su esposa en la casa Itxaso-Asu de Urnieta. A principios de 1940 cayó enfermo debido a las duras condiciones de la cárcel. Debido a ello fue hospitalizado y tuvieron que realizarle una operación. Tras eso, en julio del mismo año, los tribunales golpistas dieron inicio a un consejo de guerra en su contra, en Bilbo, por su lucha a favor de la República. Por lo tanto, fue trasladado a una cárcel de dicha ciudad. Allí, fue acusado de apoyar la rebelión militar y condenado a 12 años y un día de prisión, pero posteriormente, le conmutaron la condena a 6 años y un día. Junto a él fueron juzgadas otras cuatro personas, entre ellas su esposa Carmen García, posiblemente por ocultar a Tomás, pero la causa contra ellos fue archivada. Pese a la condena impuesta, Tomás obtuvo en diciembre la libertad condicional, pero ésta fue rechazada por el auditor y fue encarcelado de nuevo. Finalmente, en marzo de 1942, Tomás consiguió la libertad condicional con destierro, estableciéndose en San Sebastián[668].

CERTIFICADO DE LIBERACION DEFINITIVA

Tomas Aulestiari deserriratzearekin espetxetik irtetea ahalbidetu zioten. (GPAH). / **Tomás Aulestia fue expulsado de prisión con el destierro.** (GPAH).

BALTASAR URCELAY, MAURICIO

1917ko uztailaren 9an jaio zen Urnietan eta Orian bizi zen, bertako industrietan lan eginez[669]. Auzo honetan Errepublika garaian zegoen langile mugimendu indartsuko kide zen, UGT sindikatura afiliatua zegoelarik. Hori dela eta, estatu-kolpea eman

662 AIRMN, 3420/40 prozedimendu sumarísimo arrunta. / AIRMN, procedimiento sumarísimo ordinario 3420/40.

663 Ministerio de Cultura y Deporte, Archivo CDMH, sig. DNSD-SECRETARIA,FICHERO,5,A0172902. / Ministerio de Cultura y Deporte, archivo CDMH, sig. DNSD-Secretaría, Fichero 5, A0172902.

664 Egaña, I. (et. al) (2000). / Egaña, I. (et. al) (2000).

665 Ministerio de Cultura y Deporte, Archivo CDMH, sig. DNSD-SECRETARIA,FICHERO,5,A0172901. / Ministerio de Cultura y Deporte, archivo CDMH, sig. DNSD-Secretaría, Fichero 5, A0172901.

666 Ministerio de Cultura y Deporte, Archivo CDMH, sig. DNSD-SECRETARIA,FICHERO,5,A0172900. / Ministerio de Cultura y Deporte, archivo CDMH, sig. DNSD-Secretaría, Fichero 5, A0172900.

667 AIRMN, 3420/40 prozedimendu sumarísimo arrunta. / AIRMN, procedimiento sumarísimo ordinario 3420/40.

668 GPAH, Tomas Aulestia Mendietaren espetxe-espedientea. / AHPG, expediente penitenciario de Tomás Aulestia Mendieta.

669 UUA, sig. PA00.06. / AMU, sig. PA00.06.

orr.

zenean, honen aurka borrokatzeko antolatu ziren milizietara batu zen, Eibarko intendentzian eta IR-ren Zabalbide batailoietan borrokatu zuelarik[670]. Inplikazio politiko honegatik, militar kolpistek atxilotu egin zuten eta gerra kontseilu bati hasiera eman zioten bere aurka. Horretarako Ondarretako espetxean izan zuten preso, baina egozten zizkioten delituak era egokian justifikatu gabe zeudenez auzia artxibatu egin zuten, aske utziz Mauricio 1938ko irailean[671]. Hala ere, bere aurkako errepresioa ez zen hor eten, izan ere espetxetik irten eta berehala armada kolpistarekin borrokatzera deitua izan baitzen[672].

Nació el 9 de julio de 1917 en Urnieta y vivía en Oria, trabajando en las industrias locales[669]. Era miembro del fuerte movimiento obrero existente en ese barrio durante la República, estando afiliado al sindicato UGT. Debido a ello, cuando se dio el golpe de Estado, se unió a las milicias organizadas para luchar en su contra, y combatió en la intendencia de Eibar y en el batallón Zabalbide de IR[670]. Por esa implicación política, fue detenido por los militares golpistas que además iniciaron un consejo de guerra en su contra. Para ello estuvo encarcelado en la cárcel de Ondarreta, pero como los delitos que se le imputaron no estaban debidamente justificados, la causa fue sobreseída, y Mauricio fue puesto en libertad en septiembre de 1938[671]. De todos modos, no terminó ahí la represión en su contra, ya que al poco de salir de prisión fue llamado a combatir con el Ejército golpista[672].

Antonio eta Domingo Barcaiztegui, Urnietako mutilen eskolan 1935ean, Miguel Frago irakaslearekin batera. (Erretratu Zaharrak). / **Antonio y Domingo Barcaiztegui, en la escuela de chicos de Urnieta en 1935, junto al profesor Miguel Frago.** (Erretratu Zaharrak).

BARCAIZTEGUI GARMENDIA, ANTONIO ETA DOMINGO

Domingo 1919ko abuztuaren 7an jaio zen Orian eta Antonio berriz 1921eko urtarrilaren 28an. Bi anaiek aitaren haratagian lan egiten zuten eta familiak erakutsitako kompromiso polikoa zela eta denek Donostiara ihes egin zuten Urnieta errekete eta tropa paramilitarrek hartu aurretik. Rafael izeneko aita eta izen bereko semea kolpistek fusilatu zituzten 1936ko urrian eta beste anai batzuk Eusko Gudarostean borrokatu eta erbestea eta espetxea pairatu behar izan zuten. Horregatik, Domingo eta Antoniori herrira itzultzeko debekua ezarri zien Urnietako alkateak.

1937ko ekainean Urnietako alkateak salatu egin zituen eta uztailaren 7an atxilotu eta Ondarretako espetxera preso eraman zituzten. Bi anaien aurkako salaketa, Bartolome Ugalde alkateak abiatu bazuen ere Luis Recondo zinegotzi eta FET-JONSeko buruak eta Dolores Izaguirre Achucarro eta Jose Benito Arizmendi Irigoyen karlisten salaketetan sustengatu zen, zeintzuk ideia nazionalista sakonak izatea, herriko baserritarrei abereak konfiskatu eta ez ordaintzea, armekin guardiak egin eta eskuindarrak jazartzea eta Dolores

Barcaiztegui Garmendia sendia 1928 urtean. (Nati Garmendia). / **La familia Barcaiztegui Garmendia en 1928.** (Nati Garmendia).

[670] Egaña, I. (et. al) (2000). / Egaña, I. (et. al) (2000).
[671] AIRMN, 13897/38 urgentziazko sumarisimoa. / AIRMN, sumarísimo de urgencia 13897/38.
[672] UUA, sig. 1306.01. / AMU, sig. 1306.01.

Izaguirreri tiro egiten saiatzea egotzi zioten. Gainera, Bartolomek salaketa egin zuen arren ez zen gertakarien testigu izan, Donostian egon baitzen estatu-kolpeaz geroztik.

Antonio eta Domingo anaiek akusazioa ukatu zuten eta ez zeudela inongo alderdira afiliatuak eta familiako harategian lan egitera mugatu zirela soilik adierazi zuten. Behin bakarrik igo zutela janaria Adarra tontorrera, Oblatoen komentuan zen milizianoen kuartelaren aginduz eta inoiz ez zirela armatuak ibili. Horretaz gain, salaketa beraien familiaren aurkako mendeku bat bezala ikusten zuten, anai bat eta aita fusilatu baitzieten kolpistek.

Andoaingo Guardia Zibilak salaketak ezagutzen zituela baina ezin izan zituela berretsi adierazi zuen, abertzaleak zirela bai eta Domingo behin armatua ikusi zutela, baina ez zirela inoren aurka jardun edota jazartzera iritsi. Soilik herria utzi zutela kolpisten zutabeak iristear zeudela. Jesus Gaston postuko komandanteak, Domingori milizianoentzat abereak konfiskatzea egotzi zion. Gainontzeko testiguek ez zuten salatzaileek esandakoa berretsi, oso gazteak zirela eta ez zutela parte-hartzerik izan adierazi baitzuten. Gainera, Zabala Larburu sendiak, Urnietako Batzorde Tradizionalistakoak eta Urnietan geratu ziren karlista bakarrak haien alde deklaratu zuten, salaketak funtsik ez zuela adieraziz. Konfiskazioen harira jasotako testigantza guztietan haien anaia bat identifikatzen dute egile bezala, Ignacio.

Tribunaleko ikertzaileak, salatzaileen testigantza zalantzan jarri zuen, ez zirelako gai izan jazarritako eskuindarren izenik emateko, eta Barcaiztegui Garmendia familiaren aurkako mendekua izateko zantzuak zeudela adierazi zuen. Baina epailearen aurrean salaketak berretsi zituzten hauek eta ondorioz, Antonio behin-behinean aske utzi zuten, 1938ko ekainean eta bere auzia adin txikikoen tribunalera pasa zuten. Uztailean berriz, frankistek Domingo indarrez errekrutatu eta espetxetik armada kolpistako Bailen erregimentura bidali zuten eta, 1940 urtean oraindik armada kolpistan aurkitzen zen[673].

Eran dos hermanos nacidos en Oria, Domingo nació el 7 de agosto de 1919 y Antonio el 28 de enero de 1921. Trabajaban en la carnicería de su padre, y debido al compromiso político de él y sus hijos, la familia huyó a San Sebastián antes de que Urnieta fuera ocupada por los requetés y las tropas paramilitares. El padre, Rafael, y un hermano suyo fueron fusilados por los golpistas en octubre de 1936, y otros varios hermanos combatieron en el Ejército Vasco y tuvieron que sufrir el exilio y la cárcel. Por ello, el alcalde de Urnieta impuso a Domingo y Antonio la prohibición de regresar a la localidad. En junio de 1937, el alcalde de Urnieta los denunció, y el 7 de julio fueron detenidos y encarcelados en la cárcel de Ondarreta. A pesar de que la denuncia contra los dos hermanos fue iniciada por el alcalde Bartolomé Ugalde, se sustentaba en las acusaciones de Luis Recondo, concejal y jefe de las FET-JONS, y los carlistas Dolores Izaguirre Achucarro y José Benito Arizmendi Irigoyen. Le acusaron de tener ideas nacionalistas profundas, de incautación e impago de ganado a los baserritarras del pueblo, de hacer guardias armados, de persecución de gente de derechas y de intentar disparar a Dolores Izaguirre. Además, Bartolomé hizo la denuncia pero no fue testigo, ya que desde el golpe de Estado estuvo en Donostia.

Los hermanos Antonio y Domingo negaron la acusación, y señalaron que no estaban afiliados a ningún partido y que solo se limitaron a trabajar en la carnicería familiar. Que solo una vez subieron la comida a la cima del Adarra, por orden del cuartel de los milicianos que había en el convento de los Oblatos y que nunca estuvieron armados. Además, veían la denuncia como una venganza contra su familia, ya que un hermano y el padre fueron fusilados por los golpistas.

La Guardia Civil de Andoain aseguró que conocía las denuncias pero que no pudo corroborarlas, que sí eran nacionalistas y que vieron a Domingo armado una vez, pero que no llegaron a ir en contra de nadie ni a perseguir a nadie. También dijeron, que abandonaron el pueblo cuando las columnas de los golpistas estaban a punto de llegar. El comandante del puesto, Jesús Gastón, acusó a Domingo de confiscar reses para los milicianos. El resto de testigos no corroboraron lo manifestado por los denunciantes, pues señalaron que eran muy jóvenes y que no habían tenido ninguna participación. Además, la familia Zabala Larburu, de la Comisión Tradicionalista de Urnieta y los únicos carlistas que quedaron en Urnieta declararon a su favor, alegando que la denuncia no tenía ningún fundamento. En todos los testimonios recogidos a raíz de las confiscaciones identifican como autor a un hermano suyo, Ignacio.

El investigador del tribunal cuestionó el testimonio de los denunciantes porque no fueron capaces de dar nombres de los derechistas perseguidos, y señaló que había indicios de que fuera una venganza contra la familia Barcaiztegui Garmendia. Pero estos se reafirmaron en sus denuncias ante el juez y, por lo tanto, Antonio fue puesto en libertad provisional en junio de 1938, y su causa pasó al tribunal de menores. En julio, Domingo fue reclutado violentamente por los franquistas y enviado de la prisión al Regimiento de Bailén del Ejército golpista; en 1940 aún permanecía en el Ejército golpista[673].

BARCAIZTEGUI GARMENDIA, BARTOLOME

1913ko maiatzaren 29an jaio zen Urnietan, Sabino Arana kalean, familiako etxean bizi zelarik eta gainera familiako harategian lan egiten zuen[674]. Errepublikaren aurkako estatu-kolpea eman zenean, herrian antolatu ziren milizietako kide izatera pasa zen, herrian hainbat lan eginez. Baina, zutabe karlisten erasoak gailentzean, bere familiako kide ugari bezala, herria utzi behar izan zuen Donostian babestuz. Familiako asko bertan geratu baziren ere, Bartolome Eusko Gudarostera batu zen, gidari bezala[675]. Hortaz, hainbat frontetan borrokatu zuen, 1937ko udan italiar faxistek Santoñan preso egin zuten arte. Espetxeratua izan eta gero, indarrez armada kolpistarentzat borrokatzera behartu zuten, atxilotu zuten italiarren Frecce Nere batailoian, Aragoiko

[673] AIRMN, 777/38 informazioa. / AIRMN, información 777/38.
[674] UUA, sig. PA00.06. / AMU, sig. PA00.06.
[675] Egaña, I. (et. al) (2000). / Egaña, I. (et. al) (2000).

fronte guztian zehar, 1937ko abuztutik 1938ko irailera arte. Data horretan frontetik zuzenean Zaragozako epaitegi militarrera eraman zuten, gerra kontseiluan epaitua izateko[676]. Epaitegi militarrek 30 urteko espetxealdira kondenatu zuten, matxinadara batzea egotzi eta gero, Urnietako defentsa komitearen aginduz hainbat atxiloketa egitearen arduraduna izateagatik[677]. Zaragozako espetxetik Burgoseko espetxera lekualdatu zuten 1938ko ekainean eta espetxe honetan egon zen preso 1941eko ekainean espetxealdi arindua lortu zuen arte[678]. Behin espetxetik irtetzean, Urnietara itzultzea lortu zuen, non autoritate frankistek kontrol zorrotzarekin zaindu zuten urte luzez[679]. Espetxean zen bitartean ikertua izan zen Ondasunen Konfiskazioen Epaitegi Bereziarengatik, baina ez zuenez inolako ondasunik ezin izan zioten ezer konfiskatu[680].

Nació el 29 de mayo de 1913 en la calle Sabino Arana de Urnieta, vivía en la casa familiar y trabajaba en la carnicería familiar[674]. Cuando se dio el golpe de Estado contra la República, pasó a ser miembro de las milicias que se organizaron en el pueblo y realizó diferentes trabajos allí mismo. Pero cuando los ataques de las columnas carlistas prevalecieron, tuvo que dejar el pueblo y protegerse en Donostia, como muchos miembros de su familia. Aunque muchos familiares se quedaron allí, Bartolomé se unió al Ejército Vasco como conductor[675]. Por ello, combatió en varios frentes hasta que fue apresado por los fascistas italianos en Santoña. Tras ser encarcelado, fue obligado a luchar a favor del Ejército golpista, en el batallón Frecce Nere de los italianos que lo detuvieron, por todo el frente de Aragón, desde agosto de 1937 hasta septiembre de 1938. Entonces, fue llevado directamente del frente al juzgado militar de Zaragoza, para ser juzgado en consejo de guerra[676]. Fue condenado a 30 años de prisión por unirse a la rebelión y por ser responsable de realizar varias detenciones por orden del Comité de Defensa de Urnieta[677]. Fue trasladado de la cárcel de Zaragoza a la de Burgos el junio de 1938, y en esa prisión estuvo encarcelado hasta que el junio de 1941 consiguió la prisión atenuada[678]. Una vez fuera, consiguió llegar a Urnieta, donde las autoridades franquistas establecieron un control férreo en torno a él durante muchos años[679]. Mientras estaba en la cárcel, fue investigado por el Tribunal Especial de Bienes Incautados, pero como nunca tuvo ningún bien no pudieron confiscarle nada[680].

BARCAIZTEGUI GARMENDIA, JOSE

1908ko urtarrilaren 10ean jaio zen Urnietan, mekanikaria zen eta Lizarraga etxean bizi zen, Casimira Igueategui emaztearekin batera[681]. Bere ofizioa baliatuz, udalarentzat herriko zentral elektriko eta transformadoreen mantenuaz arduratu zen bi urtez[682]. Ideia marxistadun pertsona, altxamendua eman zenean honen aurka borrokatzeko herrian antolatzen hasi ziren milizietara batu zen. Hori dela eta militar kolpistek Urnieta hartzea mehatxatzen zutela ikusita herria utzi behar izan zuen, baina hauen erasoaldiren batean preso egin zuten eta Donostiako espetxera eramana izan zen[683]. Preso zegoela, gerra kontseilu batean epaitu zuten eta 12 urte eta egun batera kondenatu zuten 1937ko abenduan, matxinadari laguntza ematea egotzi eta gero. Horrela, "Las Salesas" (Madrid) izeneko espetxera, izatez komentu bat zena bidali zuten. Bertan egon zen preso 1940ko abuztua arte, noiz espetxealdi arindua lortu zuen[684]. Honi esker Urnietara itzultzea lortu zuen, baina herrira itzuli eta berehala Erantzukizun Politikoen Tribunalak ikerketa bat ireki zuen bere aurka baina zorionez ez ziren ezer akusatzera iritsi[685].

Bartolome Barcaiztegui Garmendiaren espetxe-fitxa. (AGA). / Ficha penitenciaria Bartolomé Barcaiztegui Garmendia. (AGA).

Nació el 10 de enero de 1908 en Urnieta y vivía en la casa Lizarraga junto a su mujer Casimira Igueategui[681]. Al ser mecánico de oficio, estuvo trabajando durante dos años para el Ayuntamiento en el mantenimiento de las centrales eléctricas y los transformadores[682]. Persona de ideas marxistas, cuando se dio la sublevación militar se unió a las milicias que empezaron a organizarse en el pueblo. Debido a ello, y viendo que los militares golpistas amenazaban con tomar Urnieta, tuvo que dejar el pueblo, pero en una ofensiva fue apresado y llevado a la cárcel de Donostia[683]. Estando preso, en diciembre de 1937, fue juzgado en consejo de guerra acusado de ayuda a la rebelión, y fue condenado a 12 años y un día de prisión. De ese modo, fue enviado a la cárcel de Las Salesas (Madrid), que en sí era un convento. Estuvo allí encarcelado hasta que en agosto de 1940 consiguió la prisión atenuada[684]. Gracias a ello consiguió volver a Urnieta; al de poco el Tribunal de Responsabilidades Políticas inició una investigación en su contra pero, afortunadamente, no llegaron a acusarlo de nada[685].

[676] UUA, sig. 1305.03. / AMU, sig. 1305.03.
[677] Archivo Intermedio Militar Pirenaico, 297/37 uegentziazko prozedura sumarisimoa. / AIRMN, procedimiento sumarísimo de urgencia 297/37.
[678] AGA, Bartolome Barcaiztegui Garmendiaren espetxe-fitxa. / AGA, ficha penitenciaria de Bartolomé Barcaiztegui Garmendia.
[679] UUA, 1941ko udal-korrespondentzia. / AMU, correspondencia municipal de 1941.
[680] UUA, 1938ko udal-korrespondentzia. / AMU, correspondencia municipal de 1938.
[681] UUA, sig. PA00.06. / AMU, sig. PA00.06.
[682] UUA, 1941ko udal-korrespondentzia. / AMU, correspondencia municipal de 1941.
[683] UUA, sig. 1936.01. / AMU, sig. 1936.01
[684] AGA, Jose Barcaiztegui Garmendiaren espetxe-fitxa. / AGA, ficha penitenciaria de José Barcaiztegui Garmendia.
[685] UUA, 1941ko udal-korrespondentzia. / AMU, correspondencia municipal de 1941.

BARCAIZTEGUI GARMENDIA, JUAN

1908ko urtarrilaren 10ean jaio zen eta Urnietako Sabino Arana kalean bizi zen[686]. Familiak harategia zuen herrian eta bertan lan egiten zuen. Ideologia abertzalea zuen eta 1933tik EAJ alderdira afiliatua zegoen gainera. 1936ko udan, altxamendua eman zenean, lehen egunetan Oblatoen komentuaren aurrean zaintzak egiten jardun zuen, beste hainbat herritarrekin batera. Baina abuztu hasieran, herriko defentsa komitearentzat lan egitera pasa zen, bertako kide nabarmenetako bat bilakatuz eta gasolina erreserbak kudeatzearen ardura bere gain hartuz. Urnietan zela, estatu-kolpea babestu zuten mugimendu politikoetako jendea babestu zuen, hauen atxiloketa saihestuz. Tartean, Araluce anaien etxe aurrean zaintzak antolatu zituztenetako bat izan zen, beranduago Azpeitira preso eramateaz arduratuz. Abuztu amaieran, ardura berri bat eman zioten, EAJren aginduz Hernaniko San Agustin komentura bidali baitzuten zaintzak egitera.

Hala ere, kolpisten tropen erasoaldien ondorioz Hernani erori zenean, herritik ihes egin eta Eusko Gudarostean engaiatu zen, Loiolako santutegian, Amayur batailoira zehatzagoak izateko. Bertan gidari bezala ibili zen. Bertatik Lehen Brigadara bidali zuten, betiere gidari bezala. Santanderren zela, Asturiasera joateko agindua jaso zuen, gerra-materiala zuen kamioi bat gidatuz, baina iskin egitea lortu eta Juan Santoñara joan zen, errenditzera.

Hiri honetan kolpistek atxilotu eta preso eraman zuten El Duesoko espetxera. Espetxean bertan epaitua izan zen Juan eta bere anaiei bezala, Bartolome Ugalde alkateak salaketa gogorra egin zuen bertan, konfiskazioak burutzea egotzi eta kolpisten alde eginiko lana aipatu gabe, mendeku gosea erakutsiz. Gainontzeko testiguek beraien alde eginikoa goraipatu zuten epaiketan. Hori dela eta, Juan absolbitu egin zuten[687]. Baina, adin militarrean aurkitzen zenez, armada frankistak errekrutatu eta frontera bidali zuen[688]. Halaber, bere aurkako errepresioa ez zen hor eten, izan ere 1938an berriro atxilotu zuten salaketa bat medio. 1940an, baldintzapean aske aurkitzen zela Urnietan, gerra auditoreak salaketak funtsik ez zuela ebatziz prozesua largetsi egin zuen[689].

Nació el 10 de enero de 1908 en Urnieta, y vivía en la calle Sabino Arana[686]. La familia tenía una carnicería en el pueblo y trabajaba allí. Era de ideología nacionalista y desde 1933 estaba afiliado al PNV. El verano de 1936, cuando se dio la sublevación militar, los primeros días estuvo haciendo guardias ante el convento de los Oblatos junto a otros paisanos. Pero a comienzos de agosto, pasó a trabajar al Comité de Defensa local y se convirtió en uno de los miembros destacados; se encargaba de gestionar las reservas de gasolina. Estando en Urnieta, protegió a gente de movimientos políticos que apoyaban el golpe de Estado, evitando su detención. Entre ellos estaba uno de los que organizó las guardias ante la casa de los hermanos Araluze; más tarde se encargó de llevarlo detenido a Azpeitia. A finales de agosto, le dieron una responsabilidad, pues fue enviado al convento San Agustín de Hernani a hacer guardias por orden del PNV.

De todos modos, cuando cayó Hernani debido a las ofensivas de las tropas golpistas, huyó del pueblo y se alistó en el batallón Amayur del Ejército Vasco, en el Santuario de Loiola (Azpeitia). Allí, estuvo trabajando de conductor. Siguiendo con su labor de conductor, fue trasladado a la primera Brigada. Estando en Santander (Cantabria), recibió la orden de ir a Asturias conduciendo un camión cargado de material de guerra, pero consiguió dar el esquinazo y Juan fue a rendirse a Santoña (Cantabria).

En esa ciudad, fue detenido y llevado a la cárcel de El Dueso (Cantabria) por los golpistas. Fue juzgado en la misma prisión. Como en el caso de sus hermanos, el alcalde de Urnieta Bartolomé Ugalde hizo una dura denuncia contra Juan, y demostrando una gran sed de venganza, lo acusó de haber realizado confiscaciones pero no mencionó la labor que hizo a favor de algunos golpistas. Los demás testigos ensalzaron durante el juicio lo que Juan había hecho en su favor. Debido a ello, Juan fue absuelto[687]. Pero como estaba en edad militar, el Ejército franquista lo reclutó y lo mandó al frente[688]. Pero no acabó ahí la represión en su contra, ya que en 1938 fue de nuevo detenido por una denuncia. En 1940, estando en Urnieta en libertad condicional, el auditor de guerra dictaminó que la denuncia no tenía fundamento y sobreseyó el proceso[689].

BARCAIZTEGUI GARMENDIA, RAFAEL

1917ko uztailaren 17an jaio zen, Harakinaren etxean eta familiarekin bizi zen, harakin moduan lan eginez[690]. Barcaiztegui Garmendia sendia, herriko familia abertzale nabarmena zen eta estatu-kolpea eman zenean, familiako asko bezala honen aurka borrokatzeko defentsa komiteetara batu zen. Rafael armak eskuan guardiak egiten ibili zen abuztu erdira arte, herriko sarreretan, baina hau eta gero, milizianoentzako hornidurak prestatzeko beharra zela eta, etxeko harategira lan egitera itzuli zen. Andoain eta Buruntzako gaina eroritakoan, Donostiara lekualdatu zen familiarekin, non milizia abertzaleetara batu zen, baina erreumak jo zuen bertan eta bizi ziren Parisien hotelera itzuli behar izan zen. Bertan egon zen ohean, Rafael aitarekin eta gainontzekoekin Urnietara itzuli zen arte, irailaren 16an. Urnietara iritsi eta berehala atxilotu egin zuten eta Andoaingo espetxera eraman zuen Guardia Zibilak. Honen zergatia, Luis Recondo zinegotzi frankistaren salaketa izan zen, zeinek guardia armatu bezala, Rafaelek eskuindarrak mehatxatu eta jazarri zituela adierazi zuen.

Andoaingo espetxean egon zen preso, baina leku falta zela eta irailaren 26an Donostiako espetxera lekualdatu zuten. Hiri honetan, hurrengo egunetan Rafaelen aurkako gerra kontseilu bat burutu zen, non akusazio eta froga bakarra Luis Recondoren salaketa izan zen eta tribunalak hau ontzat eman eta Rafael heriotza zigorrera kondenatu zuen[691]. Sententzia jaso bezain pronto, urriaren 20an, Donostian fusilatu zuten Rafael eta Polloeko hilerrian lurperatua izan zen[692].

---

[686] UUA, sig. PA00.06. / AMU, sig. PA00.06.

[687] AIRMN, 189/37 urgentziazko prozedura sumarisimoa. / AIRMN, procedimiento sumarísimo de urgencia 189/37.

[688] UUA, sig. 1307.02 / AMU, sig. 1307.02.

[689] AIRMN, 2708/38 urgentziazko sumarisimoa / AIRMN, sumarísimo de urgencia 2708/38.

[690] UUA, sig. PA00.06 / AMU, sig. PA00.06.

[691] AIRMN, 489/39 kausa / AIRMN, causa 489/39.

[692] Polloeko hilerriko erregistro liburua, 1048 akta, 997 agindua / Libro de registro del cementerio de Polloe, acta 1048, orden 997.

orr.

Nació el 17 de julio de 1917 en casa Carnicero y vivía con la familia, trabajando como carnicero[690]. La familia Barcaiztegui Garmendia era una notable familia nacionalista de Urnieta, y cuando se dio el golpe de Estado, Rafael se unió a los comités de defensa para combatir contra él, junto con muchos de su familia. Rafael estuvo haciendo guardias con armas en mano en las entradas del pueblo, hasta la mitad de agosto; pero después, debido a la necesidad de preparar las provisiones para los milicianos, volvió a trabajar a la carnicería de su casa. Cuando cayeron Andoain y la cima de Buruntza, la familia se trasladó a Donostia, donde se unió a la milicia abertzale; pero allí le dio un ataque de reuma y tuvo que volver al hotel Parisien donde vivían. Allí estuvo encamado, hasta que el 16 de septiembre volvió a Urnieta junto a su padre Rafael y todos los demás. Al poco de llegar a Urnieta fue detenido y llevado a la cárcel de Andoain por parte de la Guardia Civil. La razón fue la denuncia que interpuso el concejal Luis Recondo, que declaró que Rafael amenazó y persiguió a derechistas cuando estaba de guardia armado.

Estuvo encarcelado en la prisión de Andoain pero, por falta de sitio, el 26 de septiembre fue trasladado a la cárcel de Donostia. En la capital, los días siguientes se llevó a cabo un consejo de guerra en su contra, donde la única acusación y prueba fue la denuncia de Luis Recondo. El tribunal lo dio por bueno y Rafael fue condenado a pena de muerte[691]. Tan pronto se notificó la sentencia, el 20 de octubre, Rafael fue fusilado en Donostia y fue enterrado en el cementerio de Polloe[692].



489/36 kausa orokorrean Faustino Aldaz, Rafael Barcaiztegui, Juan Jose Iceta, Manuel Larburu eta Sixto Prestamero epaitu eta heriotzara kondenatu zituzten. (AIRMN).

489/36 En la causa general fueron juzgados y condenados a muerte Faustino Aldaz, Rafael Barcaiztegui, Juan José Iceta, Manuel Larburu y Sixto Prestamero. (AIRMN).

CABRERIZO LARRARTE, JOSE

1920ko apirilaren 2an jaio zen Urnietan eta Oria auzoko Bruneten etxeetan bizi zen, bere familiarekin. Gerra hastean, defentsa komiteak auzoa ebakuatzeko agindua eman zuen eta familia guztiarekin batera herria utzi zuen Josek[693]. Altxatuen etengabeko erasoen aurrean, hainbat herritatik pasa ziren, Kantabriara iritsiz. Bertan Cabezon de la Sal herrian ezarri zen, laguntza sozialaren babesari esker[694]. Gerra Zibileko Iparraldeko Frontea erori eta gutxira kolpistek atxilotu egin zuten eta 1937ko abendurako Ondarretako espetxean aurkitzen zen preso, 17 urte bakarrik zituenean. Bere aurka gerra kontseilu bat abiarazi zuten Donostian, baina bere aurkako salaketak oinarririk ez zuela ebatzi ostean 1939ko martxoan aske utzi zuten, urte eta lau hilabeteren ostean[695]. Behin espetxetik irten zenean, adin militarrean aurkitzen zenez, armada frankistak errekrutatu zuen[696].

Nació el 2 de abril de 1920 en Urnieta y vivía en las casa Brunet de Oria junto a su familia. Al comenzar la guerra, el Comité de Defensa dio la orden de evacuar el barrio y José dejó el pueblo junto con toda su familia[693]. Ante los interminables ataques de los sublevados, tuvieron que pasar por varios pueblos, llegando finalmente hasta Cantabria. Allí se instaló en Cabezón de la Sal, gracias a la ayuda social[694]. Al poco de caer el Frente Norte, fue detenido por los golpistas, y para diciembre de 1937, se encontraba encarcelado en la prisión de Ondarreta, con tan solo 17 años. En Donostia iniciaron un consejo de guerra en su contra, pero tras dictaminar que las denuncias en su contra no tenían fundamento, fue puesto en libertad en marzo de 1939, tras pasar un año y cuatro meses encarcelado[695]. Una vez que hubo salido de la cárcel, al encontrarse en edad militar, fue reclutado por el Ejército franquista[696].

CIALCETA GOYARAN, MIGUEL

1906ko maiatzaren 6an jaio zen Orion, atletismoan nabarmendu zen 1930. hamarkadan, estatu mailako hainbat errekor ezarriz krosean[697]. Urnietako Lasarte auzoan bizi zen eta ideologia ezkertiarra zuen, Errepublika garaian UGTra afiliatua baitzegoen eta baita SRIra ere[698]. Beste iturri batzuek JSra afiliatua zegoela ere diote[699]. 1934ko gertakari iraultzaileetan parte hartu zuen eta porrot egitean atxilotua izan zen, hainbat herritarrekin batera[700]. 1936ko uztailean gerrak eztanda egitean, herriko miliziekin bat egin zuen eta Usurbileko apaiza atxilotzen saiatu ziren, baina haren laguntzailea zen Francisco Errazti atxilotzea bakarrik lortu zuten[701]. Milizianoak antolatuz joan ziren heinean, MAOC batailoian eman zuen izena[702] eta UHP batailoian ere borrokatu zuen beranduago[703]. Gerra Zibileko Iparraldeko Frontearen gainbehera eman zenean preso egin zuten, 1937ko irailean[704]. Preso hartu eta berehala kolpistek mobilizatu egin zuten, beraien armadan borrokatzera behartuz[705]. Halaber, 1938ko urrian, berriro preso aurkitzen zen Bilbon eta Donostiako Ondarretako espetxera lekualdatu zuten epaitua izateko. 1939ko azaroan eman zen epaiketa eta bertan Usurbilgo apaizen aurkako ekintzagatik matxinadari laguntzea egotzi eta 15 urteko espetxealdira zigortu zuten. 1941ko ekainaren 24ean baldintzapeko askatasuna deserriratzearekin lortu zuen eta honen ondorioz Murtziara joan zen bizitzera, eta deserriratzea ezabatu eta gero ere hiri honetan bizitzen jarraitu zuen, non FET-JONSeko gazteen kirol-entrenatzailea izan zen[706].

Nació el 6 de mayo de 1906 en Orio. En la década de 1930 destacó en atletismo pues estableció varios records de nivel estatal en cross[697]. Vivía en el barrio Lasarte de Urnieta y era de ideología izquierdista, razón por la cual estuvo afiliado a UGT y a SRI durante la República[698]. Otras fuentes dicen que también estaba afiliado a JS[699]. Participó en los sucesos revolucionarios de 1934 y, al fracasar, fue detenido junto a muchos paisanos[700]. En 1936, cuando estalló la guerra en julio, se unió a las milicias locales e intentaron detener al párroco de Usurbil, pero solo consiguieron detener a su ayudante Francisco Errazti. Más tarde, este fue liberado por los comités de defensa de Lasarte[701]. Cuando los milicianos fueron organizándose, se alistó en el batallón MAOC[702] y más tarde también combatió con el batallón UHP[703]. Fue apresado cuando la caída del Frente Norte, en septiembre de 1937[704]. En seguida fue movilizado por los golpistas, obligándolo a que combatiera en su Ejército[705]. Asimismo, en octubre de 1938 estaba de nuevo preso en Bilbo y, de allí, fue trasladado a la cárcel Ondarreta de Donostia, para ser juzgado. El juicio se llevó a cabo en

---

693 UUA, sig. PA00.06 / AMU, sig. PA00.06.

694 Ministerio de Cultura y Deporte, Archivo CDMH, sig. DNSD-SECRETARIA,FICHERO,9,C0010310 / Ministerio de Cultura y Deporte, archivo CDMH, sig. DNSD-Secretaría, Fichero 9, C0010310.

695 AIRMN, 2443/38 urgentziazko kausa sumarisimoa / AIRMN, causa sumarísima de urgencia 2443/38.

696 UUA, sig. 1306.01 / AMU, sig. 1306.01.

697 Auñamendi Entziklopedia. CIALCETA GOYARAN, Miguel. Auñamendi Entziklopedia [on line], 2019. [Kontsulta data: 2019ko Azaroaren 21a]. Eskuragarri hemen: http://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/cialceta-goyaran-miguel/ar-149182/. / Enciclopedia Auñamendi. CIALCETA GOYARAN, Miguel. Enciclopedia Auñamendi [on line], 2019. [Fecha de la consulta: 21 de noviembre de 2019]. Dirección: http://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/es/cialceta-goyaran-miguel/ar-149182/.

698 AIRMN, 13082/38 urgentziazko sumarisimoa / AIRMN, sumarísimo de urgencia 13082/38.

699 Egaña, I. (et. al) (2000) / Egaña, I. (et. al) (2000).

700 Garai, J. R., Gutiérrez, J., Chueca, J. (2014) / Garai, J.R.; Gutiérrez, J. y Chueca, J. (2014).

701 AIRMN, 13082/38 urgentziazko sumarisimoa / AIRMN, sumarísimo de urgencia 13082/38.

702 Ministerio de Cultura y Deporte, Archivo CDMH, sig. DNSD-SECRETARIA,FICHERO,12,C0141642 / Ministerio de Cultura y Deporte, archivo CDMH, sig. DNSD-Secretaría, Fichero 12, C0141642.

703 Ministerio de Cultura y Deporte, Archivo CDMH, sig. DNSD-SECRETARIA,FICHERO,12,C0141642 / Ministerio de Cultura y Deporte, archivo CDMH, sig. DNSD-Secretaría, Fichero 12, C0141642.

704 GAHP, Miguel Cialceta Goyaranen espetxe-espedientea / AHPG, expediente penitenciario de Miguel Cialceta Goyaran.

705 UUA, sig. 1306.02 / AMU, sig. 1306.02.

706 GAHP, Miguel Cialceta Goyaranen espetxe-espedientea / AHPG, expediente penitenciario de Miguel Cialceta Goyaran.

noviembre de 1939 donde fue acusado de ayuda a la rebelión, por la acción contra el cura de Usurbil, y fue condenado a 15 años de prisión. El 24 de junio de 1941, consiguió la libertad condicional pero con destierro, y debido a ello se fue a vivir a Murcia. Tras anularle el destierro siguió viviendo allí, donde fue entrenador juvenil de las FET-JONS[706].

Miguel Cialceta Lasarteko miliziano talde batekin Zornotzan. (Lasarte-Oria, 1936-48). / **Miguel Cialceta con un grupo de milicianos de Lasarte en Amorebieta.** (Lasarte-Oria, 1936-48).

CLERE AIZPURUA, MARCIAL

1900eko martxoaren 29an jaio zen, Urnietan[707], baina Zarautzera bizitzera joana zen. UGTra afiliatua zegoen eta altxamendua eman zenean herriko beste hainbat kiderekin kontrol postuetan eta eraikinetan guardia armatuak egin zituen. Gerra egoera orokortu zenean, altxatuen aurka borrokatzeko antolatutako milizietara batu zen, eta Gipuzkoako Komandantziarentzat gerra komisario bezala jardun zuen Marcialek. Hala ere, 1936ko irailean, Latorre komandantearen zutabe paramilitarrak herrira hurbiltzean, hau uztera behartua agertu zen eta Eusko Gudarostearekin batera borrokan ibili zen, Santanderreko frontean altxatuek atxiki eta preso egin zuten arte. Atxilotzearekin batera, bere aurkako prozesu judizial bati hasiera eman zioten tribunal militarrek eta honen ondorioa Marcialen aurka 1938ko urtarrilean eman zen gerra kontseilua bat. Bertan defentsa komitearentzat eta miliziano bezala eginiko lanagatik, matxinadari laguntza ematea egotzi zioten eta 20 urteko espetxealdira kondenatu zuten[708]. 1938ko irailean, El Dueso (Kantabria) espetxera lekualdatu zuten, bertan kondena bete zezan, baina denbora gutxian San Marcosekora eta azkenik La Bañezakora lekualdatu zuten, biak Leoneko espetxeak[709].

Zehaztu gabe dagoen data batean aske geratu zen eta Zarautzera itzuli zen bizitzera, baina 1944ko maiatzean, berriro atxilotu zuten, segurtasun legean oinarrituta herriko taberna batean “Vivan los rojos” oihukatzeagatik. Fiskalak hiru urteko espetxe zigorra eskatzen bazuen ere, froga faltagatik kausa artxibatu eta aske utzi zuten 1944ko irailean[710].

Nació el 29 de marzo 1900 en Urnieta[707], pero se fue a vivir a Zarautz. Estaba afiliado al sindicato UGT, y cuando se dio la sublevación militar, hizo guardias armadas en puestos de control y en edificios junto con otros miembros del pueblo. Cuando la guerra se generalizó, se unió a las milicias organizadas para combatir contra los sublevados; exactamente, trabajó como comisario de guerra para la Comandancia de Gipuzkoa. De todos modos, en septiembre de 1936, cuando las columnas paramilitares del comandante Latorre se acercaron al pueblo, se vio obligado a huir, y estuvo combatiendo con el Ejército Vasco hasta que fue detenido y encarcelado por los sublevados en Santander. Al mismo tiempo, los tribunales militares iniciaron un proceso judicial contra él que terminó con un consejo de guerra en enero de 1938. En él, se le acusó de ayudar a la rebelión, por los trabajos realizados para el Comité de Defensa y como miliciano, y fue condenado a 20 años de prisión[708]. En septiembre de 1938, fue trasladado a la prisión de El Dueso (Cantabria) a cumplir la condena, pero al de poco fue trasladado a la de San Marcos y, finalmente, al de La Bañeza, las dos en León[709].

[707] Archivo Histórico Diocesano de San Sebastián DEAH/F06.147//4646/002-01(f.129r,nº12/B,1900-03-29) / Archivo Histórico Diocesano de San Sebastián DEAH/F06.147//4646/002-01(f.129r,nº12/B,1900-03-29).

[708] AIRMN, 1129/37 urgentziazko prozedura sumarisimoa / AIRMN, procedimiento sumarísimo de urgencia 1129/37.

[709] AGA, Marcial Clere Aizpuruaren espetxe-fitxa / AGA, ficha penitenciaria de Marcial Clere Aizpurua.

[710] AIRMN, 342/44 sumarisimoa / AIRMN, sumarísimo 342/44.

En una fecha aún sin precisar, quedó en libertad y volvió a vivir a Zarautz; pero en mayo de 1944, fue de nuevo detenido basándose en la ley de seguridad, por gritar "Vivan los rojos"en un bar del pueblo. Aunque el fiscal pedía una condena de tres años de prisión, la causa fue archivada por falta de pruebas y Marcial fue liberado en septiembre de 1944[710].

DIAZ GARCIA, JESUS

1909ko uztailaren 19an jaio zen Reinosan (Santander), baina Andoainera lanera etorria zen eta UGTko kide nabarmenetako bat izan zen Errepublika garaian, iturgin bezala lan egiten zuen bitartean. Aurretik, 1930eko abenduan Jakan (Huesca) eginiko altxamendu saiakerarekin bat egin zuen eta ondorioz espetxeratua izan zen denbora batez. Errepublikaren urteetan, Andoaingo UGTko taldeko zuzendaritzako partaide izan zen eta hainbat mobilizazio eta greba antolatzen jardun zuen. Hau guztia kontuan izanik, 1936ko estatu-kolpe saiakera ematean, honen aurka borrokatzeko antolatu ziren milizietara batu zen lehen unetik, lehenik eta behin Azaña (IR) batailoian eta ostean Perezaguan (PCE)[711]. Azken honekin frontean aurkitzen zenean, Bizkaiko mendietan, bala leherkari batek zauritu egin zuen eskuetan. Ondorioz, Basurtoko ospitalera eraman behar izan zuten, non ezkerreko eskuko bi hatz ebaki behar izan zizkioten, 1937ko apirilean[712]. Kolpistek atxilotu zutenean, Loiuko ospitalean izan zuten preso zauri hauen ondorioz. Handik Bilbora eraman zuten, 1938ko ekainean, bere aurkako gerra kontseilura hain zuzen ere. Han, UGTko kide izateagatik eta miliziano bezala borrokatzeagatik 12 urte eta egun bateko espetxealdira kondenatu zuten[713]. Bilbotik, 1938ko urrian San Simoneko espetxera (Pontevedra) lekualdatu zuten[714], baina 1940ko azaroan berriz probintzia bereko Camposancos espetxean aurkitzen zen[715]. Baliteke probintzia honetan bortxazko lanak egiten jardutea, izan ere SLDB batera bidali zuten frankistek[716]. Askatasuna lortu eta gero, ezkondu eta Oria auzora joan zen bizitzera[717].

Nació el 19 de julio de 1909 en Reinosa (Santander), pero había venido a trabajar a Andoain y trabajaba como fontanero; era uno de los miembros destacados de UGT durante la República. Antes, en diciembre de 1930, se unió al intento de sublevación militar de Jaca (Huesca) y, por ello, estuvo encarcelado durante un tiempo. En los años de la República, fue miembro de la directiva de UGT de Andoain y participó en la organización de varias movilizaciones y huelgas. Tras el intento de golpe de Estado de 1936, se unió desde el principio a las milicias que se organizaron en su contra; al inicio en el batallón Azaña de IR y después en el batallón Perezagua del PCE[711]. Cuando se encontraba con estos últimos en el frente, en los montes de Bizkaia, una bala explosiva lo hirió en las manos. Por ello, fue llevado al hospital de Basurto donde le tuvieron que amputar dos dedos de su mano izquierda, el abril de 1937[712]. Cuando fue detenido por los golpistas, fue encarcelado en el hospital de Loiu debido a esas heridas; de allí fue llevado a Bilbo, en junio de 1938, al consejo de guerra iniciado en su contra. En él, fue condenado a 12 años y un día de prisión por ser miembro de UGT y por combatir como miliciano[713]. En octubre de 1938, de Bilbo fue trasladado a la cárcel de San Simón (Pontevedra)[714], pero en noviembre de 1940, se encontraba en la cárcel Camposancos de la misma provincia[715]. Puede ser que hubiera estado haciendo trabajos forzados en esa provincia, pues los franquistas lo habían enviado a un SLDB[716]. Tras lograr la libertad, se casó y se fue a vivir al barrio Oria[717].

ECHANIZ AÑORGA, ATANASIO

1917 urtean jaio zen Urnietan eta bertako Oria auzoan bizi zen, Bruneteko etxeetan. Industria honetako lankide asko bezala, UGT sindikatura afiliatua zegoen eta auzoan lehen egunetan estatu-kolpearen aurka antolatu ziren milizietara batu zen 1936ko uztailean. Auzotarrekin batera, kontrol postuak ezarri zituzten errepideetan eta zaintza armatuak egin zituen, tartean Lasarteko abiazio-zelaian. Baina handik gutxira, MAOC Oria batailoira batu eta herriko mendietan aurkitzen zen frontera borrokatzera pasa zen, karlisten aurrerakadak Oria uztera behartu zuen arte. Orduan, JSU antolakundeko kide bezala Rosa Luxemburgo batailoian engaiatu zen[718]. Azken honetan zela, alderdi komunistara afiliatu zen, baina frontean zauritua izan zen eta ospitalizatu egin behar izan zuten[719]. Bizkaiako frontea erortzean, 1937ko ekainean atxilotu egin zuten Atanasio kolpistek eta espetxeratua izan zen, bere aurkako gerra kontseilu bat egin zutelarik tribunal militarrek 1938 uztailean. Bertan, bere aurkako prozedura largetsi bazuten ere, "B" sailkapeneko pertsona bezala identifikatu zuten eta bortxazko lanak egitera bidali zuten SLDB batera[720]. Atanasio, 1940ko martxoan Almazan (Soria) herrian aurkitzen zen Parque Ingenieros batailoian (Batallon de trabajadores prisioneros) bortxazko lanak egiten[721].

---

[711] AIRMN, 2894/37 urgentziazko prozedura sumarisimoa / AIRMN, procedimiento sumarísimo de urgencia 2894/37.
[712] UUA, sig. 1327.02 / AMU, sig. 1327.02.
[713] AIRMN, 2894/37 urgentziazko prozedura sumarisimoa / AIRMN, procedimiento sumarísimo de urgencia 2894/37.
[714] AGA, Jesus Diaz Garciaren espetxe-fitxa / AGA, ficha penitenciaria de Jesús Díaz García.
[715] Lasa, X. (2006) / Lasa, X. (2006).
[716] AGMG / AGMG.
[717] UUA, sig. 1327.02 / AMU, sig. 1327.02.
[718] Egaña, I. (et. al) (2000) / Egaña, I. (et. al) (2000).
[719] Ministerio de Cultura y Deporte, Archivo CDMH, sig. DNSD-SECRETARIA,FICHERO,16,E0001177 / Ministerio de Cultura y Deporte, archivo CDMH, sig. DNSD-Secretaría, Fichero 16, E0001177.
[720] AIRMN, 1692/37 urgentziazko prozedura sumarisimoa / AIRMN, procedimiento sumarísimo de urgencia 1692/37.
[721] UUA, sig. 1307.01 / AMU, sig. 1307.01.

Nació el año 1917 en Urnieta y vivía en las casas Brunet del barrio Oria. Como muchos trabajadores de esta industria, estaba afiliado al sindicato UGT. En julio de 1936, se unió a las milicias que se organizaron los primeros días en el barrio en contra del golpe de Estado. Junto con otros vecinos, estableció puestos de control en las carreteras e hizo guardias armadas, por ejemplo, en el campo de aviación de Lasarte. Al de poco, se unió al batallón MAOC-Oria y pasó a combatir en el frente que se encontraba en los montes del pueblo, hasta que el avance de los carlistas le obligó a que abandonara Oria. Entonces, como miembro de la organización JSU, se alistó en el batallón Rosa Luxemburgo[718]. Estando en ese batallón, se afilió al partido comunista, pero fue herido en el frente y tuvieron que hospitalizarlo[719]. Al caer el frente de Bizkaia, los golpistas detuvieron a Atanasio el junio de 1937 y fue encarcelado; el julio de 1938, los tribunales militares iniciaron un consejo de guerra en su contra. En él, aunque sobreseyeron el procedimiento en su contra, lo identificaron como una persona de categoría "B" y lo mandaron a una SLDB a hacer trabajos forzados[720]. En marzo de 1940, Atanasio se encontraba en el pueblo de Almazán (Soria), dentro del batallón de trabajadores prisioneros llamado Parque Ingenieros, realizando trabajos forzados[721].

Atanasio Echanzi Rosa Luxemburgoko milizianoen argazkian. / Atanasio Echanzi Rosa en la foto de los milicianos de Luxemburgo.

ECHEVERRIA ALDACO, SEGUNDO

1875ean Donostian jaio zen, baina Orian bizi zen Segundo. Errepublika garaian Bruneteko ehungintza enpresan lan egiten zuen eta bertako lankideen gehiengoa bezala UGT sindikatura afiliatua aurkitzen zen 1936ko estatu-kolpea eman zenean. Langileen kooperatibako kidea zenez, bertako produktuak banatzen jardun zuen, auzoa ebakuatzeko agindua iritsi zen arte. Orduan, militar altxatuen aurrerakada zela eta hainbat herritatik pasatu ostean, Elorriora iritsi zen, non Antonio Iriarterekin batera UHP batailoian hasi zen lanean, zerbitzu osagarriak egiten. Batailoi honetan jardun zuen gerra guztian zehar, Santanderren inguratuak geratu eta kolpisten esku geratu zen arte. Antoniorekin batera, ibiltze-baimen bat lortu eta Urnietara itzuli ziren, baina herrira iristearekin batera, beraien aurkako ikerketa bati hasiera eman zioten tribunal kolpistek. Hala ere, ikerketa bertan behera geratu zen, Sailkatze Batzordeak "A" saileko norbanako bezala identifikatu zuenean[722].

Nació en Donostia en 1875, pero vivía en Oria. Durante la República, estuvo trabajando en la empresa textil Brunet y, como la mayoría de los trabajadores de allí, estaba afiliado al sindicato UGT cuando en 1936 se dio el golpe de Estado. Como era miembro de la cooperativa de trabajadores, anduvo repartiendo sus productos hasta que llegó la orden de evacuar el barrio. Entonces, debido al avance de los militares sublevados, llegó a Elorrio, tras pasar por varios pueblos y junto a Antonio Iriarte empezó a trabajar en el batallón UHP, realizando servicios auxiliares. Estuvo en ese batallón durante toda la guerra, hasta que quedaron rodeados y fueron detenidos por los golpistas en Santander (Cantabria). Junto con Antonio, consiguió un salvoconducto y volvieron a Urnieta, pero al llegar al pueblo los tribunales golpistas dieron inicio a una investigación en su contra. De todos modos, la investigación se suspendió cuando la Comisión de Clasificación lo identificó como individuo de grado "A"[722].

ECHEVERRIA ITURBE, SEBASTIAN

1913ko irailaren 5ean Urnietan jaioa, Pasaian bizi zen Sebastian. Herriko udaltzaina zen eta ezkongabea zen. 1943ko maiatzaren 17an atxilotu egin zuten indar polizialek sei lagunekin batera eta Ondarretako espetxera eramanak izan ziren, estatuburuaren aurkako irainen delitua egotzita[723]. Sebastian salatua izan zen lagunen bazkari batean, Nicolasa jatetxean, Francoren erretratu bat otarrainen haztegi batera jaurti zelako. Bera eta gainontzekoak espetxean egon ziren Burgosko auditoreak kausa largetsi zuen arte urte bereko abuztuaren 18an[724].

Nació el 5 de septiembre de 1913 en Urnieta, pero vivía en Pasaia. Era guardia municipal del pueblo y estaba soltero. Fue detenido, por las fuerzas policiales, junto a otras seis personas, el 17 de mayo de 1943, y fueron llevados a la cárcel de Ondarreta acusados del delito de ofensas contra el jefe de Estado[723]. Sebastián fue denunciado porque en una comida entre amigos, en el restaurante Nicolasa, había lanzado un retrato de Franco a un vivero de langostas. Él y los demás estuvieron encarcelados hasta que el auditor de Burgos sobreseyó la causa, el 18 de agosto del mismo año[724].

[722] AIRMN, 780/38 gobernu-informazioa / AIRMN, información gubernamental 780/38.
[723] GPAH, Sebastian Echeverria Iturberen espetxe-espedientea / AHPG, expediente penitenciario de Sebastián Echeverria Iturbe.
[724] AIRMN, 531/43 sumario arrunta / AIRMN, sumario ordinario 531/43.

ECHEVERRIA LASARTE, JOSE ANTONIO

1905eko abuztuaren 20an jaio zen eta Urnietako San Juan kalean bizi zen Jose Antonio, familiako Elizacho etxean, familiako ogibidean lan eginez, saskigile lanbidean[725]. Politikoki kide nabarmena zen herrian, bertako EAJko zuzendaritzako partaide moduan eta Euzko Etxeko lehendakari gisan. Horrela, herrian 1936ko uztail amaieran antolatu zen defentsa komitearen esku jarri zen, hainbat zaintza armatu eginez. Horretaz gain, Hernanin antolatzen zebiltzan euskal milizietako kide ere izan zen, beranduago Eusko Gudarostera batuz, eta bertan borrokatu zuen Santoñako hitzarmenaren porrota eta gero kolpistek preso eraman zuten arte. Santoñako eta Bilboko espetxeetan egon zen preso, 1939ko martxoan bere aurkako ikerketa bat gauzatu zuten arte tribunal militarrek. Bertan, Luis Recondo eta Ignacio Iribarrek ehizako armak konfiskatzeagatik salatu zuten Jose Antonio, baina salaketarako frogak nahikoa ez zirela ebatzi zuen tribunalak eta "B" saileko norbanako bat bezala identifikatu zuten. Ondorioz bortxazko lanak egitera bidali zuten[726].

Nació el 20 de agosto de 1905 y vivía en la calle San Juan de Urnieta, en la casa familiar llamada Elizatxo; trabajaba en la profesión familiar de cestero[725]. Políticamente era un miembro destacado en el pueblo, pues era miembro de la directiva del PNV local y presidente del Euzko Etxea. De ese modo, se puso en manos del Comité de Defensa que se organizó en el pueblo, a finales de julio de 1936, y estuvo haciendo guardias armadas. Por otro lado, también fue miembro de las milicias vascas que se estaban organizando en Hernani; más tarde se unió al Ejército Vasco. Combatió en él hasta el fracaso del pacto de Santoña, donde fue hecho prisionero por los golpistas. Estuvo encerrado en las cárceles de Santoña y Bilbo, hasta que los tribunales militares llevaron a cabo una investigación en su contra en marzo de 1939. En ella, José Antonio fue denunciado por Luis Recondo e Ignacio Iribar de haber confiscado armas de caza, pero el tribunal dictaminó que no había pruebas suficientes para la denuncia y fue identificado como individuo de nivel "B". Por ello, fue enviado a realizar trabajos forzados[726].

Echeverria Lasarte familia 1932an. Atzean Leandro (errefuxiatua), Antonia, Jose Antonio. Aurrean, Pedro eta Jose Ramon (gudariak eta bortxazko lanak egitera behartuak), Gregorio Echeverria (aita), Sebastian eta Miguel. (Erretratu Zaharrak). **/ La familia Echeverria Lasarte en 1932. Detrás Leandro (refugiado), Antonia, José Antonio. Delante, Pedro y José Ramón (gudaris y forzados a realizar trabajos forzados), Gregorio Echeverría (padre), Sebastián y Miguel.** (Erretratu Zaharrak).

ECHEVERRIA MENDIZABAL, GREGORIO

Estatu-kolpea eman zuten militarrek Gipuzkoa armekin hartu eta gero, Gregorio eta beste hiru herritarren (Manuel Arbiza, Antonio Gorriti eta Bartolome Lasarte) aurkako prozedura bat ireki zuten, baina Lasarteko Komandantzia Militarraren arabera, lau urnietar hauek absolbitu egin zituzten 1937ko maiatzaren 22an[727]. Lau hauek, Gipuzkoako Ondasunen Konfiskazio Batzordeak ikertuak izan ziren[728].

Cuando los militares que dieron el golpe de Estado tomaron Gipuzkoa por las armas, abrieron un procedimiento contra Gregorio y otros tres vecinos del pueblo (Manuel Arbiza, Antonio Gorriti y Bartolomé Lasarte), pero según la Comandancia Militar de Lasarte, estos cuatro urnietarras fueron absueltos el 22 de mayo de 1937[727]. Los cuatro fueron investigados por la Comisión de Bienes Incautados de Gipuzkoa[728].

ECHEVERRIA UNZUETA, JUAN

1893 martxoaren 7an jaio zen Aramaion, baina mikelete bezala lan egiten zuenez, Urnietara etorri zen postu hori betetzera, bertako San Juan kalean bizi zelarik 1923 urtetik. Estatu-kolpea eman zenean, euskal autoritateei fidel mantendu zen eta ondorioz herria utzi behar izan zuen 1936ko irailean[729]. Hori dela eta, Gipuzkoako Aldundia kolpisten esku geratu zenean, bere postutik kanporatua izan zen, lanik gabe geratuz[730]. Euskal Herria altxatuen esku erori zenean, Juan atxiki egin zuten eta espetxeratua izan zen Logroñoko zezen plazako kontzentrazio esparruan. Bertan, gainean zeramatzan 275 pezeta kartzelazainei ematera behartu zuten, inoiz itzuli ez zizkiotenak[731]. Inongo salaketa edota epairik gabe, aske utzi zuten eta 1937an Urnietara bizitzera itzultzea lortu zuen, baina herria eta lanpostua uzteagatik tribunal militarrak ikertu egin zuten 1938 urteko ekainean, baina bere aurkako frogarik aurkitu ez zenez, kausa bertan behera geratu zen[732]. Ezin izan zuen gerra aurretik zuen lanpostua berreskuratu.

[725] UUA, sig. PA00.06 / AMU, sig. PA00.06.
[726] AIRMN, 3115 aurretiazko eginbideak / AIRMN, diligencias previas 3115.
[727] UUA, 1938ko udal-korrespondentzia / AMU, correspondencia municipal de 1938.
[728] UUA, sig. 1936.03 / AMU, sig. 1936.03.
[729] UUA, sig. PA00.06 / AMU, sig. PA00.06.
[730] Buces, J. eta Querejeta, E. (2016) / Buces, J. y Querejeta, E. (2016).
[731] UUA, 1937ko udal-korrespondentzia / AMU, correspondencia municipal de 1937.
[732] AIRMN, 794/38 gobernu-informazioa / AIRMN, información gubernamental 794/38.

Nació el 7 de marzo de 1893 en Aramaio, pero como trabajaba como miquelete vino a Urnieta a ocupar ese puesto. Desde 1923 vivía en la calle San Juan. Cuando se dio el golpe de Estado, se mantuvo fiel a las autoridades vascas y, por ello, tuvo que abandonar el pueblo en septiembre de 1936[729]. Debido a eso, fue expulsado de su puesto cuando los golpistas tomaron la Diputación de Gipuzkoa, y se quedó sin trabajo[730]. Cuando Euskal Herria cayó en manos de los sublevados, Juan fue apresado y, después, encarcelado en el campo de concentración de la plaza de toros de Logroño (La Rioja). Allí, le obligaron a dar las 275 pesetas que llevaba encima a los carceleros. Nunca le fueron devueltas[731]. Fue liberado sin ninguna denuncia ni juicio, y en 1937 consiguió volver a vivir a Urnieta. Sin embargo, en junio de 1938, fue investigado por el tribunal militar por dejar el pueblo y el puesto de trabajo, pero como no se encontró ninguna prueba en su contra, la causa fue suspendida[732]. No pudo recuperar el puesto de trabajo que tenía antes de la guerra.

ECHEZAR GARRO, EUSTAQUIO

Eustaquio Echezar Garro. (Lasarte-Oria 1936-48).

Orian bizi zen Eustaquio, bere familia guztia bezala. Jornalaria zen eta ehungintzan lan egiten zuen. Ideia ezkertiarrekoa UGTra eta JSra afiliatu zen errepublika garaian. 1933an Ehungintza saileko lehendakaria izan zen eta sindikatu horretan pisu handiko pertsona izan zen. Politikoki oso inplikatua, lan ugari egin zuen hauteskundeetan ezkerreko alderdien alde, 1936an Fronte Popularraren alkategai izan zelarik Urnietan. 1934ko Urriko Iraultzan parte hartze nabarmena izan zuen bere bost anaiekin batera, herrian greba bultzatuz, baina honen porrotaren ostean atxilotu egin zuten eta eskuindarren errepresioaren beldur, baldintzapean aske zela baliatuz Frantziako Estatuan errefuxiatu zen hainbat herritarrekin batera, 1936ko Fronte Popularraren amnistia legera arte.

Estatu-kolpea eman zenean, herriko armen konfiskazioaz arduratu zen eta herriko milizien antolakuntzan jardun zuen. Herriaren defentsa ahalbidetzeko, Buruntza, Belkoain eta inguruetako mendietan telefono postuak ezartzeaz arduratu zen. Ekintza hauetaz gain, konfiskazio eta ibiltzeko-baimenen dokumentuak sinatzeaz arduratu zen. Horretaz gain, Usurbilen Gerra Komisariotzako arduraduna izan zen eta konfiskazioetarako dokumentazio eta ibiltzeko baimenak igortzeaz arduratu zen herri horretan. Postu hau baliatuz, Donostiako familia eskuindarrei ibiltzeko baimenak igorri zizkien, hiria utzi eta leku seguruetara joan ahal izateko. Jose Manuel Idigoras Zubietako apaiza babestu zuen ere, fusilatu egin nahi baitzuten. Usurbileko milizien buru izendatu zuten eta herri honetan mobilizazioa eta defentsa antolatu zituen; irailean errekete paramilitarren aurrerakada zela eta, herria utzi eta Eusko Gudarostean engaiatu zen[733].

Miliziano bezala, MAOC batailoian borrokatu zuen, teniente postuan[734], baita ere Larrinaga batailoian[735]. Matxinoen erasoaldiak zirela eta, hasiera batean Bizkaiara eta ostean Santanderrera mugitu behar izan zen, non milizianoen kapitain zela atxilo hartu zuten[736]. 1937ko abuztuan, Santander hiria erortzear zela itsasontziz Frantziako Estatura ihes egiteko saiakera egin zuen, baina kolpisten itsasontzi batek atxiki zituen 26an. Matxinoek Orduñako espetxera eraman zuten.

Espetxeratua izan eta berehala, bere aurkako gerra kontseilu bati eman zitzaion hasiera. Bertan herriko autoritate frankista guztiek deklaratu zuten. Andoaingo Guardia Zibilak, Urnietako Alkateak, FET-JONS buruak bere gaineko txosten berdinak bidali zituzten, eta bertan Bruneteko jauregiko konfiskazioen ardura egotzi zioten. Pedro Aramburu Murgoitiok Hernaniko zaintzaile bat erailtzea egotzi zion, honek aurrez miliziano bat erail zuelakoan. Akusazio hau ez dute beste testiguek baieztatuko. Juan Lacarrak berriz, eskuindarren aldeko gestioak egin zituela eta herrian ez zela eskuindarrik atxilotu deklaratu zuen. Salaketa guzti hauetan oinarrituta, eta Errepublikaren defentsan egin zuen borroka kontuan izanda, matxinada militarrarekin bat egitea egotzi zioten eta 30 urteko espetxealdira kondenatu zuten[737].

Sententzia Donostiako espetxean jaso zuen 1939ko azaroan, Murgia eta Gasteizko espetxeetatik pasa eta gero 1938ko azaroan Ondarretara lekualdatu baitzuten[738]. Espetxeen bizi-baldintza txarrak zirela eta, osasun arazo larriak izan zituen, eta 1938an ospitalean ingresatu behar izan zuten. Eustaquioren osasunak ez zuen hobera egingo eta 1942ko martxoaren 1ean, goizeko 00:15etan hil zen espetxeko erizaintzan biriketako edema baten ondorioz[739].

[733] AIRMN, 14363/37 urgentziazko sumarisimoa / AIRMN, sumarísimo de urgencia 14363/37.

[734] Ministerio de Cultura y Deporte, Archivo CDMH, sig. DNSD-SECRETARIA,FICHERO,16,E0006786 / Ministerio de Cultura y Deporte, archivo CDMH, sig. DNSD-Secretaría, Fichero 16, E0006786.

[735] Ministerio de Cultura y Deporte, Archivo CDMH, sig. DNSD-SECRETARIA,FICHERO,16,E0006781 / Ministerio de Cultura y Deporte, archivo CDMH, sig. DNSD-Secretaría, Fichero 16, E0006781.

[736] Ministerio de Cultura y Deporte, Archivo CDMH, sig. DNSD-SECRETARIA,FICHERO,16,E0006784 / Ministerio de Cultura y Deporte, archivo CDMH, sig. DNSD-Secretaría, Fichero 16, E0006784.

[737] AIRMN, 14363/37 urgentziazko sumarisimoa / AIRMN, sumarísimo de urgencia 14363/37.

[738] AGA, Eustatuio Echezar Garroren espetxe-fitxa / AGA, ficha penitenciaria de Eustaquio Echezar Garro.

[739] GPAH, Eustaquio Echezar Garroren espetxe-espedientea / AHPG, expediente penitenciario de Eustaquio Echezar Garro.

Vivía en el barrio Oria de Urnieta, junto a toda su familia. Era jornalero y trabajaba en el sector textil. Era izquierdista, y durante la República estuvo afiliado al sindicato UGT y a JSU. En 1933 era presidente del sector textil de UGT y, por lo tanto, era una persona de gran peso en ese sindicato. Políticamente estaba muy implicado y trabajó mucho durante las elecciones a favor de los partidos izquierdistas; incluso fue el candidato a alcalde de Urnieta del Frente Popular. Participó de forma destacada en la Revolución de octubre de 1934, junto con sus cinco hermanos, impulsando una huelga en el pueblo; pero tras su derrota fue detenido, y temiendo la represión de los derechistas, aprovechó su libertad condicional para refugiarse en el Estado francés junto a otros urnietarras, hasta la ley de amnistía del Frente Popular en 1936.

Cuando se dio el golpe de Estado, se encargó de la confiscación de las armas del pueblo y de la organización de las milicias locales. Para que fuera posible la defensa del pueblo, se encargó de colocar puestos de teléfono en Buruntza, Belkoain y en los montes de los alrededores. También se encargó de firmar los documentos de confiscación y los salvoconductos. Además, fue el encargado de la Comisaría de Guerra de Usurbil, y se encargó de emitir los documentos de confiscación y los salvoconductos. Aprovechando ese puesto, emitió salvoconductos a familias derechistas de Donostia para que pudieran dejar la ciudad e ir a sitios seguros. También protegió al párroco de Zubieta José Manuel Idigoras, pues lo querían fusilar. Fue nombrado jefe de las milicias de Usurbil y organizó la movilización y defensa de ese pueblo; en septiembre, debido al avance de los requetés paramilitares, abandonó el pueblo y se alistó en el Ejército Vasco[733].

Como miliciano combatió en el batallón MAOC, con el grado de teniente[734], y también en el batallón Larrinaga[735]. Debido a las ofensivas de los sublevados, primero tuvo que moverse a Bizkaia y después a Santander, donde fue detenido siendo capitán de los milicianos[736]. En agosto de 1937, cuando estaba la ciudad de Santander al caer, intentó huir al Estado francés por barco, pero fue apresado por un barco de los golpistas el día 26. Los sublevados lo enviaron a la cárcel de Orduña.

Al poco, iniciaron un consejo de guerra en su contra. En él, declararon todas las autoridades franquistas del pueblo. La Guardia Civil de Andoain, el alcalde de Urnieta y el jefe de las FET-JONS enviaron el mismo informe sobre él, acusándolo de ser el responsable de la confiscación del palacio de Brunet. Pedro Aramburu Murgoitio lo acusó de haber asesinado un guarda de Hernani, creyendo que este, a su vez, había asesinado a un miliciano. Esa acusación no fue confirmada por los otros testigos. Al contrario, Juan Lacarra declaró que Eustaquio hizo gestiones a favor de los derechistas, y que en el pueblo no hubo ningún derechista detenido. Fundamentándose en todas estas denuncias, y teniendo en cuenta que combatió por la defensa de la República, le imputaron adhesión a la sublevación militar y fue condenado a 30 años de prisión[737].

Recibió la sentencia en la cárcel de Donostia en noviembre de 1939, tras ser trasladado de las cárceles de Murgia y Gasteiz a la de Ondarreta en noviembre de 1938[738]. Debido a las malas condiciones vitales en las cárceles, tuvo graves problemas de salud, y en 1938 tuvo que ser hospitalizado. La salud de Eustaquio no mejoró, y el 1 de marzo de 1942, a las 00:15 de la madrugada, murió en la enfermería de la cárcel debido a un edema pulmonar[739].

Prisión Provincial de San Sebastián

Expediente del gubernativo

SEÑAS

Natural de — provincia de — Iris (ojos)

vecino de — provincia de — hijo — Cabellos

de — y de — edad — años — Piel

instrucción — estado — hijos — Cejas

número de ellos — profesión — antecedentes — Barba

ingresa por — vez. Domicilio — Talla

L.° N.° F.°

Conocido por su nombre

Nombre del cónyuge

Partido de San Sebastián

Debido

17 Noviembre 1938 - Ingresa en esta Prisión procedente de la Provincial de Vitoria conducido por la Guardia Civil en concepto de detenido y a disposición del Ilmo. Sr. Auditor de Guerra de la Sexta Región Militar, según oficio de referido Establecimiento que se une al expediente de Claudio Leturiaga Igastuna. Se da cuenta.

El Subdirector Actual.

Vº. Bº.

El Director.

Marzo 42

Eustaquio Echezarren espetxe espedientea, heriotza data gorriz markatua. (GPAH). / **Expediente penitenciario de Eustaquio Echezar, marcado en rojo la fecha de defunción.** (GPAH).

ECHEZARRETA GARMENDIA, MIGUEL

1909 urtean jaioa[740], EAE alderdira afiliatua zegoen eta altxamendua eman zenean, Lenago il batailoi abertzalera batu zen, honen aurka borrokatzeko[741]. Gerra Zibileko Iparraldeko Frontea erortzean, kolpistek preso izan zuten behin behineko askatasuna lortu zuen arte. 1940ko maiatzean, Irunen, bere aurka irekita zeuden diligentzien gaineko ebazpen bat igorri zen, eta behin betiko askatasuna lortu zuen Miguelek, auzia artxibatua izan eta gero[742].

Nació en el año 1909[740], estaba afiliado al partido ANV y cuando se dio la sublevación militar, se unió al batallón abertzale "Lenago il" para combatir contra él[741]. Cuando cayó el Frente Norte, permaneció preso hasta que consiguió la libertad provisional. En mayo de 1940, en Irun, se emitió una resolución sobre las diligencias que estaban abiertas en su contra, y Miguel consiguió la libertad permanente tras sobreseerse su causa[742].

[740] UUA, sig. 1304.04 / AMU, sig. 1304.04.

[741] Egaña, I. (et. al) (2000) / Egaña, I. (et. al) (2000).

[742] AIRMN, 3177/40 aurretiazko eginbideak / AIRMN, diligencias previas 3177/40.

orr.

EGAÑA ESCUDERO, JOSE MARIA

Urnietan jaioa, Hernanin bizi zen. ELA sindikatura afiliatua zegoen eta horregatik kolpistek herria armaz konkistatu bezain pronto, bere aurkako ikerketa bat abiatu zuten Lasarteko Komandantzia Militarrak eta Donostiako Epaitegi Militarrak[743]. Ikerketa ez zen amaitu, izan ere, Jose Maria sukar erreumatiko akutu baten ondorioz hil zen, Hernanin bertan[744].

Nació en Urnieta y vivía en Hernani. Estaba afiliado al sindicato ELA y, por eso, tan pronto los golpistas tomaron el pueblo por las armas, la Comandancia Militar de Lasarte y el Juzgado Militar de Donostia iniciaron una investigación en su contra[743]. La investigación no se llevó a cabo, porque José María murió a causa de una fiebre reumática aguda, en Hernani[744].

EIZMENDI GARRO, PEDRO JOSE

Pedro Jose Eizmendi, Maria Ester Lopezekin. (Lasarte-Oria 1936-48). / **Pedro José Eizmendi, con María Ester López.** (Lasarte-Oria 1936-48).

1916ko urtarrilaren 7an jaioa Orian eta bertan bizi zen[745]. JSra afiliatua[746], antolakunde honetako asko bezala 1934ko urriko greba eta mobilizazioetan parte hartu zuen eta ondorioz bere herrikide asko bezala espetxea pairatu behar izan zuen[747]. UGT sindikatura afiliatua zegoen gerra aurretik eta horrela militarrek estatu-kolpea ematean Errepublikaren defentsarako antolatutako komiteetako kide bezala eman zuen izena, herriko hainbat postutan guardiak eginez. Beste hainbat herritarrekin batera, komitearen eta milizien jardunerako beharrezkoak ziren Brunet jauregiko hainbat ondasunen konfiskazioan parte hartu zuen[748]. Irailean, erreketeen zutabe paramilitarrek herria mehatxatzen zutenean, hau utzi eta Eusko Gudarostea osatzen zuten milizietako kide bilakatu zen, MAOC batailoira batuz[749].

Gerra Zibileko Iparraldeko Frontea erortzearekin batera, 1937ko abuztuaren 26an kolpisten tropen esku geratu zen. Hauek, espetxeratu egin zuten eta hainbat espetxetatik pasa eta gero 1938ko urrian Bilboko Eskolapioen espetxetik Ondarretakora lekualdatu zuten, frankistek hiri honetan epaitu nahi baitzuten. 1939ko abuztuan, defentsa komitean eta miliziano jardunean eginiko ekintzengatik matxinadari laguntza ematea egotzi zioten eta 12 urte eta egun bateko espetxe zigorra ezarri zioten. Ondarretako espetxean izan zuten preso, 1942ko maiatzaren 27a arte, noiz baldintzapeko askatasuna lortu zuen eta Urnietara itzuli zen[750]. Hala ere, soldadutza garaian espetxean aurkitzen zenez, 1943ko urtarrilean, Melillako 75 SLDBra bidali zuten, bortxazko lanak egitera[751]. Espetxe urteetako eta bortxazko lanen bizi baldintza txarrengatik, tuberkulosia hartu zuen, eta gaixotasun honen ondorioz hilko zen 1947 urtean, 33 urte zituela[752].

Nació el 7 de enero de 1916 en Oria y vivía allí mismo[745]. Estaba afiliado a las JSU[746], y como muchos otros de esa organización, participó en la huelga y movilizaciones de octubre de 1934 y, por ello, tuvo que sufrir la cárcel como muchos de sus paisanos[747]. Antes de la guerra también estaba afiliado al sindicato UGT y así, cuando los militares dieron el golpe, se hizo miembro de los comités en defensa de la República y realizó guardias en varios puestos del pueblo. Junto con otros urnietarras, participó en la confiscación de varios bienes del palacio Brunet que eran necesarios para realizar la labor del comité y de las milicias[748]. En septiembre, cuando las columnas paramilitares de los requetés amenazaban el pueblo, huyó y se hizo miembro de las milicias del Ejército Vasco, uniéndose al batallón MAOC[749].

Al caer el Frente Norte, quedó en manos de las tropas golpistas el 26 de agosto de 1937. Estos lo encarcelaron y, tras pasar por varias prisiones, en octubre de 1938 fue trasladado de la prisión bilbaína de los Escolapios a la de Ondarreta en Donostia, pues los franquistas querían juzgarlo en esta ciudad. Por las acciones realizadas en el Comité de Defensa y como miliciano le acusaron de ayudar a la rebelión, y en agosto de 1939, fue condenado a 12 años y un día de prisión. Lo tuvieron encarcelado en la prisión de Ondarreta hasta el 27 de mayo de 1942, cuando consiguió la libertad condicional y volvió a Urnieta[750]. De todos modos, como durante el servicio militar se encontraba en la cárcel, en enero de 1943 fue enviado al 75º SLDB de Melilla a realizar trabajos forzados[751]. Debido a las malas condiciones de vida de los años penitenciarios y de los trabajos forzados, contrajo tuberculosis, enfermedad por la que moriría en 1947 a la edad de 33 años[752].

[743] AIRMN, 36 informazioa / AIRMN, información 36.
[744] Hernaniko erregistro zibila, 3 atala, 25 liburua, 197 folioa / Registro civil de Hernani, sec. 3ª, lib. 25, f. 197.
[745] UUA, sig. 1306.02 / AMU, sig. 1306.02.
[746] Egaña, I. (et. al) (2000) / Egaña, I. (et. al) (2000).
[747] Garai, J. R., Gutiérrez, J., Chueca, J. (2014) / Garai, J.R.; Gutiérrez, J. y Chueca, J. (2014).
[748] AIRMN, 12974/38 urgentziazko sumarisimoa / AIRMN, sumarísimo de urgencia 12974/38.
[749] Egaña, I. (et. al) (2000) / Egaña, I. (et. al) (2000).
[750] GPAH, Pedro Jose Eizmendi Garroren espetxe-espedientea / AHPH, expediente penitenciario de Pedro José Eizmendi Garro.
[751] AGMG, 2795 kaxa, 2139 espedientea / AGMG, caja 2795, exp. 2139.
[752] Islada Ezkutatuak (2020) / Islada Ezkutatuak (2020).

ELOSEGUI ARTOLA, NARCISO

1884an jaioa Urnietan, Donostian bizi zen. Ezkonduta zegoen eta 9 seme-alaba zituen Narcisok eta merkataritza-agente bezala lan egiten zuen[753]. Ideia abertzale sakonekoa, hiriburuko EAJren oso gertukoa zen. 1937ko martxoan bere aurkako ekinbide judizial bat abiatu zuten kolpistek, ideia abertzaleak zituelako eta horien baitako propaganda egiteagatik. Tribunalak, martxoaren 30ean auzia largetsi egin zuen eta 5.000 pezetako isuna ezarri zion, baina sententzia galdu egin zelako 1938ko urtarrilaren 18a arte espetxeratua egon zen Narciso. Kalte ordain gisa, isuna jaistea eskatu zuen eta 2.500 pezeta ordaindu behar izan zituen[754]. Hala ere, kolpistek bere aurka egindako ekinbideak ez ziren hor amaitu; izan ere, 1939ko maiatzean, beste 14 pertsonarekin batera espioitza burutzeagatik prozesatu zuten. Kontua da, Britainia Handiko kontsulatuaren baliza diplomatikoak baliatu zituztela Errepublikaren alde borrokan zeuden lagun eta familiakoekin kontaktuan egoteko. Hala ere, Narcisoren aurka ekintza honetan, espioitza zantzurik aurkitu ez zutenez artxibatu egin zuten auzia[755]. Azkenik, 1939ko urriaren 1ean, Donostiako frantziskanoen elizan gerran hildako hainbat gudariren oroimenean eginiko meza batera joateagatik berriro atxilotua, espetxeratua eta epaitua izan zen eta zigor ekonomiko berri bat ezartzea eskatu zitzaion gobernadore zibilari sententzian[756]. Gobernadorearen beraren aginduz, 1940ko irailean astebete egon zen preso Ondarretako espetxean, bere aurkako inolako kausa edota sententzia gabe[757].

Nació en Urnieta el año 1884, pero vivía en Donostia. Estaba casado y tenían 9 hijos; trabajaba como agente comercial[753]. De profundas ideas nacionalistas, era muy cercano al PNV de la capital. Los golpistas, en marzo 1937, pusieron en marcha una iniciativa judicial en su contra porque tenía ideas nacionalistas y por hacer propaganda de ellas. El tribunal sobreseyó la causa el 30 de marzo y le impuso una multa de 5 000 pesetas, pero como se perdió la sentencia, Narciso estuvo encarcelado hasta el 18 de enero de 1938. En compensación pidió que se le rebajara la multa y, al final, tuvo que pagar 2 500 pesetas[754]. Aun así, no terminaron ahí las iniciativas en su contra por parte de los golpistas. En mayo de 1939, junto a otras 14 personas, fue procesado por espionaje. La cuestión es que aprovecharon las balizas diplomáticas del consulado de Gran Bretaña para estar en contacto con amigos y familiares que combatían a favor de la República. De todos modos, como no encontraron ningún indicio de espionaje en esta iniciativa contra Narciso, la causa fue archivada[755]. Finalmente, el 1 de octubre de 1939, fue nuevamente detenido, encarcelado y juzgado por ir a una misa en memoria de varios gudaris muertos en la guerra, a la iglesia de los franciscanos de Donostia. En la sentencia se pedía al gobernador civil que se le impusiera un castigo económico[756]. Por orden del mismo gobernador, en septiembre de 1940 estuvo una semana encarcelado en la cárcel de Ondarreta, sin ninguna causa ni sentencia en su contra[757].

ELOSEGUI USABIAGA, FRANCISCO

1914ko irailaren 5ean jaio zen Urnietan bertan eta Oria auzoan bizi zen, bertako industrietan lan eginez[758]. Estatu-kolpea eman zenean, hauen aurka borrokatzeko nahiarekin herrian antolatuz zihoazen milizietara batu zen, hasiera batean kabo moduan baina brigada izatera iritsi zen. Santoñako hitzarmenaren porrotaren ostean espetxeratu egin zuten kolpistek, izen bereko espetxean, non gerra kontseilu bat burutu zuten bere aurka 1937ko urrian. Epaiketan Franciscoren jarreraren aldeko txostenak aurkeztu zirelako soilik, 12 urte eta egun bateko espetxealdira kondenatu zuten, miliziano bezala izan zuen parte-hartzea matxinadari laguntza ematea zela ebatzi eta gero[759]. Santoñako El Dueso espetxetik Puerto Santa Maria eta ondoren Sevillako espetxeetara lekualdatu zuten, bertan kondena bete zezan[760].

Nació el 5 de septiembre de 1914 en Urnieta, vivía en el barrio Oria y trabajaba en las industrias locales[758]. Cuando se dio el golpe de Estado, se unió a las milicias que iban organizándose en el pueblo para combatir contra él; al principio tenía graduación de cabo pero llegó hasta brigada. Fue detenido y encarcelado tras el fracaso del pacto de Santoña, en la cárcel de mismo nombre, donde llevaron a cabo un consejo de guerra en su contra en octubre de 1937. Como en el juicio solo se presentaron informes favorables a Francisco, fue condenado a 12 años y un día de prisión, por entender que la participación que tuvo como miliciano se consideraba ayuda a la rebelión[759]. Desde la cárcel de El Dueso (Santoña, Cantabria) fue trasladado a la de Puerto Santa María (Cádiz) y después a la de Sevilla, para que cumpliera la condena[760].

FERNANDEZ OLLOQUIEGUI, JOAQUIN

1916ko ekainaren 6an jaio zen Oriako biztanle hau[761]. Ideia abertzaleak zituen Joaquinek eta EAJ alderdira afiliatua zegoen. Zurgin moduan lan egiten zuen auzoan[762]. Auzoko hainbat langilerekin 1934ko greba orokor eta mobilizazioetan parte hartu zuen eta hori dela eta atxilotua izan zen, 1936an amnistia jaso zuen arte[763]. Estatu-kolpea ematearekin batera, honen aurka borrokat-

[753] GAHP, Narciso Elosegui Artolaren espetxe-espedientea / AHPG, expediente penitenciario de Narciso Elosegui Artola.
[754] AIRMN, 445/37 prozedimentu sumarisimoa) / AIRMN, procedimiento sumarísimo 445/37.
[755] AIRMN, 3264 sumarisimo arrunta / AIRMN, sumarísimo ordinario 3264.
[756] AIRMN, 2435/39 sumarisimo arrunta / AIRMN, sumarísimo ordinario 2435/39.
[757] GPAH, Narciso Elosegui Artolaren espetxe-espedientea / AHPG, expediente penitenciario de Narciso Elosegui Artola.
[758] UUA, sig. PA00.06 / AMU, sig. PA00.06.
[759] AIRMN, 98/37 urgentziazko prozedura sumarisimoa / AIRMN, procedimiento sumarísimo de urgencia 98/37.
[760] AGA, Francisco Elosegui Usabiagaren espetxe-fitxa / AGA, ficha penitenciaria de Francisco Elosegui Usabiaga.
[761] UUA, sig. PA00.06 / AMU, sig. PA00.06.
[762] AIRMN, 65/37 urgentziazko sumarioa / AIRMN, sumario de urgencia 65/37.
[763] Garai, J. R., Gutiérrez, J., Chueca, J. (2014) / Garai, J.R.; Gutiérrez, J. y Chueca, J. (2014).

orr.

zeko sortzen hasi ziren milizietara batu zen Joaquin, Lasarteko errepideen kontrolerako zaintzak eginez. 1936ko irailean, erreketeen erasoaldia zela eta, atzerakadan Azpeitiraino joan zen, non Eusko Gudarostean engaiatu zen, Zarateko Bentako frontera borrokara joanez. Lenago il batailoia eratu zenean, bertako kapitain izatera pasa zen, batailoi honekin borrokatu zuelarik Santoñako hitzarmenaren porrotaren ostean preso egin zuten arte.

Errepublikaren aldeko defentsan izan zuen paperagatik, Santoñan bertan epaitu zuten, 1937ko irailean eta bertan heriotza zigorrera kondenatu zuten astungarriekin matxinada militarrarekin bat egitea egotziz. Kondena irmoa izan zen, baina Joaquinen onurarako, 1938ko urtarrilean, presoen elkartruke baterako proposatu zuten eta Errepublikaren eremuetara itzultzea lortu zuen. Trukea egin eta gutxira, gerra auditoreak kondena 30 urteko espetxealdiagatik kommutatu zion. 1943an kondenaren bigarren kommutazio bat eman zen, baina sententzian ez da agertzen honen jakinarazpena jaso zuenik[764].

Izan ere, Errepublikara iritsi eta bertako armadara batu zen, altxatuen aurka borrokatzeko helburuarekin. Horrela, 1938ko ekainean, berriro kapitain gradua berreskuratu zuen[765]. Badirudi indar errepublikanoek gerra galtzear zutela, Pirinioak gurutzatu eta Frantziako Estatuan errefuxiatu zela[766]. Garai horretako Oriako bizilagun baten arabera, Joaquinek herrira itzultzea lortu zuen eta bi edo urte gehiagotan etxean klandestinoki ezkutatua egon zen, bere egoera normalizatzea lortu zuen arte[767].

ESTADO ESPAÑOL

Ilmo. Señor :

Como ampliación a mi Oficio nº 3316 por el que se comunicaba el ejercicio de la prerrogativa al condenado JOAQUIN FERNANDEZ OLLOQUIEGUI, tengo el honor de participarle que el referido individuo ha sido objeto de un canje con intervención de la Cruz Roja Internacional y a los efectos de cumplimiento del mismo se da por suspendida la pena de privación de libertad que actualmente cumple, sin perjuicio de ser reanudada, si fuera habido con posterioridad.

El dicho condenado deberá ser puesto a disposición del Comandante Militar de Irún el día 17 de los corrientes a las 12 horas.

Dios guarde a V.I. muchos años. Salamanca 15 de Enero de 1938. -Segundo Año Triunfal-

EL ASESOR,

Ilmo. Sr. auditor de la 6ª Región Militar. Burgos.

Joaquin Fernandez heriotza zigorretik libratu zen preso elkartruke baterako proposatu zutelako. (AIRMN). / **Joaquín Fernández se libró de la pena de muerte porque fue propuesto para un intercambio de prisioneros.** (AIRMN).

Este vecino de Oria nació el 6 de junio de 1916[761]. Joaquín era de ideas nacionalistas y estaba afiliado al PNV. Trabajaba de ebanista en el barrio[762]. Participó junto a otros trabajadores del barrio en la huelga general y movilizaciones de 1934 y, debido a ello, fue detenido y estuvo encarcelado hasta la amnistía de 1936[763]. Cuando se dio el golpe de Estado, Joaquín se unió a las milicias que empezaron a formarse para combatir en su contra, y realizó guardias para el control de las carreteras en Lasarte. En septiembre de 1936, debido a la ofensiva de los requetés, retrocedió hasta Azpeitia y se alistó en el Ejército Vasco y se fue a combatir al frente de Venta de Zarate. Cuando se formó el batallón "Lenago il", paso a ser capitán del mismo, y en él combatió hasta que fue detenido tras el fracaso del pacto de Santoña.

Por el papel que jugó en la defensa de la República, fue juzgado en Santoña (Cantabria), en septiembre de 1937, y fue condenado a muerte con agravantes, acusándole de adherirse a la rebelión militar. La condena era firme, pero resultó beneficioso para Joaquín, porque en enero de 1938, fue propuesto para un intercambio de presos y logró volver a territorios de la República. Al poco de realizar el trueque, el auditor de guerra le conmutó la pena por 30 años de prisión. En 1943 le volvieron a conmutar la pena, pero en la sentencia no aparece que recibiera esta notificación[764].

Ciertamente, cuando llegó a la República se unió a su Ejército, con el objetivo de combatir contra los sublevados. Así, en junio de 1938, volvió a recuperar el grado de capitán[765]. Al parecer, cuando las fuerzas republicanas estaban a punto de perder la guerra, cruzó los Pirineos y se refugió en el Estado francés[766]. Según un vecino del Oria de esa época, Joaquin logró regresar al pueblo y permaneció clandestinamente oculto en casa durante dos o más años, hasta que logró normalizar su situación[767].

FRAGO FRAGO, MIGUEL

1894ko irailaren 29an jaio zen Huescan, eta irakaslea zen Urnietako eskoletan, ezkondua eta bi seme-alabarekin, familia guztiarekin herria utzi zuen 1936ko abuztua eta iraila bitartean[768]. UGT sindikatuko eta PCE alderdiko kidea zen Urnietan eta hori izan zen herria uztearen arrazoia. Kantabria erori arte joan zen kolpisten tropengandik ihesi[769]. Behin Santander erorita, Urnietara itzultzeko erabakia hartu zuen 1937ko irailean, eta herrira itzultzearekin batera jakinarazi zioten bere irakasle postutik kaleratua izan zela mugimendu ezkertiarrekin zuen lotura zela eta[770]. 1938 urtean, aurrekari hauengatik bere aurkako ikerketa bat ireki zuten tribunal kolpistek, baina azkenean 5 urteko prozesu luze bat eta gero, bere aurkako auzia ez zen inora iritsi, artxibatu egin baitzuten 1943 urtean[771].

[764] AIRMN, 65/37 urgentziazko sumarioa / AIRMN, sumario de urgencia 65/37.

[765] Defentsa Ministerioaren eguneroko ofiziala, 137 zenbakia, Bartzelona, 1938ko ekainaren 6a. / Diario oficial del Ministerio de Defensa, nº 137, Barcelona, 6 de junio de 1938.

[766] UUA, sig. 1306.02. / AMU, sig. 1306.02.

[767] Isla Ezkutatuak (2020). / Isla Ezkutatuak (2020).

[768] UUA, sig. 1305.04. / AMU, sig. 1305.04.

[769] Ministerio de Cultura y Deporte, Archivo CDMH, sig. DNSD-SECRETARIA,FICHERO,21,F0125790. / Ministerio de Cultura y Deporte, archivo CDMH, sig. DNSD-Secretaría, Fichero 21, F0125790.

[770] UUA, 1937ko udal-korrespondentzia. / AMU, correspondencia municipal de 1937.

[771] AIRMN, 443 gobernu informazioa. / AIRMN, información gubernamental 443.

Nació el 29 de septiembre de 1894 en Huesca, y era profesor en las escuelas de Urnieta. Estaba casado y era padre de dos hijos. Entre agosto y septiembre de 1936 tuvo que abandonar el pueblo junto a toda su familia[768]. Era miembro del sindicato UGT y del partido PCE en Urnieta, y esa fue la razón por la que abandonó el pueblo. Estuvo escapando de las tropas golpistas hasta la caída de Cantabria[769]. Una vez cayó Santander, tomó la decisión de volver a Urnieta en septiembre de 1937. Nada más llegar al pueblo, le notificaron que fue suspendido de su puesto de profesor debido a la relación que tenía con movimientos izquierdistas[770]. Debido a esos antecedentes, en 1938, los tribunales golpistas iniciaron una investigación en su contra, pero finalmente, tras un largo proceso de 5 años, la causa en su contra fue archivada en 1943[771].

GARATE ODRIOZOLA, JESUS

1913ko uztailaren 11n jaio zen Urnietan baina Fermin eta Manuela gurasoak bezala 1933rako ez ziren herrian bizi[772] Altxamendua eman zenean, Ingeniarien bigarren batailoira batu zen, eta lubakiak eta defentsa sistemak eraikitzen ibili zen[773]. Hori dela eta kolpistek bere aurkako ikerketa bat hasi zuten, gerra-kontseilu batean amaitu zena. Hau guztia dela eta, espetxeratua aurkitzen zen eta Larrinagako kartzelara eraman zuten. Bertan preso zela, 1938ko abenduan bere aurkako prozesuaren sententzia igorri zen eta bertan auzia largetsia izan zen, bere aurkako salaketek ez zutelako garrantzia penalik. Hala ere, adin militarrean aurkitzen zenez, ordezkapenen kutxan txertatu zuten eta kolpisten armadan borrokatzera behartu zuten[774].

Nació el 11 de julio de 1913 en Urnieta pero, como sus padres Fermín y Manuela, para 1933 ya no vivía en el pueblo[772]. Cuando se produjo la sublevación militar, se unió al segundo batallón de Ingenieros y estuvo construyendo trincheras y sistemas defensivos[773]. Por ello, los golpistas iniciaron una investigación en su contra que terminó en consejo de guerra. Debido a ello, se encontraba encarcelado y lo llevaron a la cárcel de Larrinaga. Estando allí preso, en diciembre de 1938, se envió la sentencia del proceso en su contra y, en ella, la causa fue sobreseída porque las acusaciones en su contra no tenían relevancia penal. De todos modos, como estaba en edad militar, lo metieron en la caja de las sustituciones y le obligaron a combatir en el Ejército de los golpista[774].

GARCIA LACALLE, PANTALEON[775]

1910 urtean jaio zen Urnietan baina Santander ondoko Montes herrian bizitzen aurkitzen zen estatu-kolpea eman zenean 1936ko uztailean. Bertan iturgin moduan lan egiten zuen eta PCE alderdiko eta SRI antolakundeko kide zen. Kolpisten aurka borrokatzeko nahiarekin, lehen unetik herriko defentsa komitearen esku jarri zen eta honentzat hainbat zaintza eta konfiskazio burutu izan zituen. Horretaz gain, herriko eskuindarren aurkako hainbat atxiloketa egin zituen komitearen aginduz. 1937ko udan, matxinatuen tropen aurrerakada zela eta, armada errepublikanora batu zen miliziano bezala, Asturiasko frontea erori arte borrokatuz. Bertan, atxilotu egin zuen armada frankistak eta espetxeratua izan zen, bortxazko lanak egitera bidalia izan zelarik. Hala ere, herriko indar ezkertiarren kide nabarmena izanik, tribunal militarrek bere aurkako epaiketa bat gauzatu zuten 1939ko urtarrilean, Bilbon. Fiskaltzak, arestian zehaztutako ekintzez gain, herriko elizaren aurkako erasoak burutzea eta bertako kanpaia eramatea egotzi zion. Horretaz gain, pertsona baten erailketan parte hartzea ere bota zuen haren gain. Tribunalak akusazioak ontzat hartu eta Pantaleon heriotzara kondenatu zuen. Pantaleonek sententziaren indultua eskatu zuen, baina estatu frankistaren ezezkoaren ondorioz, 1939ko azaroaren 30ean fusilatu egin zuten, Santanderren bertan[776].

SENTENCIA

Pantaleon Garciaren aurka eginiko gerra kontseiluko sententzia, urak kaltetua. (AIRMN). / **Sentencia del Consejo de guerra contra Pantaleón García, dañado por el agua.** (AIRMN).

[772] UUA, sig. 1304.05. / AMU, sig. 1304.05.

[773] Egaña, I. (et. al) (2000). / Egaña, I. (et. al) (2000).

[774] AIRMN, 12429/38 urgentziazko prozedura sumarisimoa. / AIRMN, procedimiento sumarísimo de urgencia 12429/38.

[775] Bere aurkako sententzia hezetasunak kaltetua dago eta ezin izan da datu askorik atera handik. / La sentencia en su contra está afectada por la humedad y no se ha podido obtener mucha información de él.

[776] AIRMN, 14606/38 urgentziazko prozedura sumarisimoa. / AIRMN, procedimiento sumarísimo de urgencia 14606/38.

Nació en Urnieta en el año 1910, pero cuando se dio el golpe de Estado el julio de 1936, se encontraba en un pueblo cántabro cercano a Santander llamado Montes. Allí, trabajaba de fontanero y era miembro del partido PCE y de la organización SRI. Con la intención de combatir contra los golpistas, desde el inicio se puso en manos del Comité de Defensa del pueblo y realizó varias guardias y confiscaciones para él. Además, también realizó algunas detenciones de derechistas del pueblo por órdenes del comité. El verano de 1937, debido al avance de las tropas sublevadas, se unió como miliciano al Ejército republicano, combatiendo hasta la caída del frente de Asturias. Allí, fue detenido y encarcelado por el Ejército franquista, tras lo cual fue enviado a realizar trabajos forzados. De todos modos, como era miembro destacado de las fuerzas izquierdistas locales, los tribunales militares llevaron a cabo un juicio en su contra, el enero de 1939, en Bilbo. La fiscalía, además de los actos que se detallan anteriormente, lo acusó de haber realizado ataques contra la iglesia del pueblo y de haberse llevado la campana de la misma. Además, lo acusó de haber participado en el asesinato de una persona. El tribunal dio por buenas las acusaciones y condenó a muerte a Pantaleón. Pantaleón pidió el indulto de la sentencia, pero debido a la negativa del Estado franquista, fue fusilado el 30 de noviembre de 1939, en Santander[776].

GARMENDIA AGUIRRE, LORENZO

1909ko azaroaren 8an jaio zen Urnietan eta bertako Oria auzoan bizi zen langilea zen[777]. Auzotar ugari bezala UGTko Sindicato del Arte Textil sindikatura afiliatua zegoen, eta altxamendua eman zenean Lasarteko abiazio-zelaian lan egin zuen abuztuan zehar. Baina karlisten aurrerakada zela eta, herria utzi eta Eusko Gudarostera batu zen MAOC batailoi komunistan. Miliziano bezala borrokan aurkitzen zela zauritua izan zen Bilboko defentsan eta ondorioz ospitaleratua izan zen. Zauriak zirela eta, lehenik Frantziako Estatura eta ostean Levanteko ospitale batera ebakuatu zuten, eta hiri honetan egon zen zaurietatik osatzen. 1939an Valentzia kolpisten esku geratu eta gerra amaitu zenean atxilotua izan zen Lorenzo, espetxeratua izan zelarik. Horrela, tribunal militarrek bere aurkako ikerketa bat abiatu zuten, non Urnietako autoritate frankistek bere aldeko txostena igorri zuten eta honi esker, erantzukizunik gabe aske utzi zuten Lorenzo 1939ko urrian[778].

Nació el 8 de noviembre de 1909 en Urnieta y era un trabajador que vivía en el barrio Oria[777]. Como muchos vecinos estaba afiliado el Sector Textil de UGT. Cuando se dio la sublevación militar, en agosto trabajó en el campo de aviación de Lasarte. Pero debido al avance de los carlistas, dejó el pueblo y se unió al Ejército Vasco en el batallón comunista MAOC. Estando combatiendo como miliciano, fue herido durante la defensa de Bilbo y, por ello, fue hospitalizado. Debido a las heridas, primero fue evacuado al Estado francés y después a un hospital de Levante, donde estuvo sanándose de las heridas. Cuando en 1939 Valencia cayó en manos de los golpistas y la guerra se terminó, Lorenzo fue detenido y encarcelado. De ese modo, los tribunales militares iniciaron una investigación en su contra. En él, las autoridades franquistas de Urnieta enviaron un informe favorable a Lorenzo y, gracias a ello, fue puesto en libertad sin responsabilidad alguna, el octubre de 1939[778].

GARMENDIA ARAMBURU, MIGUEL

1908ko irailaren 28an jaio zen Urnietan, Beltraenea baserrian baina Lizartzara bizitzera joana zen[779]. Herri honetan, elektrikari bezala lan egiten zuen eta IR alderdira eta UGT sindikatura afiliatua zegoen. 1936ko uztailean, altxamendu militarra ematearekin batera, herriko defentsa komitera batu zen eta bere ogibidea baliatuz, Beasain eta Altsasuren arteko telefono-linea ebakitzen saiatu ziren, baina kolpisten tropek hau saihestu zuten. Lizartzako defentsa komitearentzat, herriko eskuindar batzuen atxiloketak egin eta hainbat konfiskazioetan parte hartu zuen. Nafarroako zutabe paramilitarren erasoen aurrean, herria utzi eta Eusko Gudarosteko Lotura eta Transmisioen batailoira batu zen, Asturiasko Gijon hiria erori arte miliziano moduan borrokan jardun zuelarik, 1937ko urrira arte. Hiri honetan preso egin eta Gasteizko espetxera lekualdatu zuten azaroan. Hiri honetan kolpistek bere aurka gerra kontseilu bat burutu zuten eta herriaren defentsarako antolatutako komitearentzat eginiko lanegatik 20 urteko espetxealdira kondenatu zuten[780]. Espetxe horretan izan zuten preso 1943ko apirilean baldintzapeko askatasuna lortu zuen arte[781].

Nació el 28 de septiembre de 1908 en el caserío Beltraenea de Urnieta, pero se había ido a vivir a Lizartza[779]. Allí, trabaja como electricista y estaba afiliado al partido IR y al sindicato UGT. En julio de 1936, al mismo tiempo que la sublevación militar, se unió al Comité de Defensa local y, aprovechando su experiencia como electricista, intentaron cortar la línea telefónica entre Beasain y Altsasu, pero las tropas golpistas lo evitaron. Participó en la detención de algunos derechistas y en varias confiscaciones para el Comité de Defensa de Lizartza. Ante las ofensivas de las columnas paramilitares navarras, abandonó el pueblo y se alistó en el batallón Enlaces y Transmisiones del Ejército Vasco; combatió como miliciano hasta que cayó la ciudad de Gijón (Asturias), en octubre de 1938. Al principio, estuvo encarcelado en esa ciudad pero en noviembre fue trasladado a Gasteiz. Allí, los golpistas llevaron a cabo un consejo de guerra en su contra y fue condenado a 20 años de prisión por los trabajos realizados para el Comité de Defensa del pueblo[780]. Estuvo encarcelado en esa prisión hasta que en abril de 1943 consiguió la libertad provisional[781].

[777] UUA, sig. PA00.06 / AMU, sig. PA00.06.
[778] AIRMN, 4387/39 aurretiazko eginbideak / AIRMN, diligencias previas 4387/39
[779] UUA, sig. 1306.01. / AMU, sig. 1306.01.
[780] AIRMN, 644/38 sumarisimoa. / AAIRMN, sumarísimo 644/38.
[781] AGA, Miguel Garmendia Arambururen espetxe-fitxa. / AGA, ficha penitenciaria de Miguel Garmendia Aramburu.

GARMENDIA ARIZTIMUÑO, ANGEL

Lasarten bizi zen gerrak eztanda egin zuenean. Nahiz eta inolako alderdi edo antolakundeko militantea ez izan, izaera ezkertiarrekoa zen eta horregatik lehen unetik herriko milizietara batu zen, Lasarteko abiazio-zelaiko langile talde bateko kontramaisu gisa, Aldundiko peoi-bidezaina baitzen[782]. Andoaindik karlisten tropak hurbiltzen zirela ikusita, MAOC milizietara batu zen, herria defendatzeko, baina honen ezintazunaren aurrean, herria utzi eta Bizkaia aldera mugitu zen. Bilbo erori aurretik, gaixotu egin zen eta ospitalera eraman behar izan zuten, non ingresatua geratu zen. Ondorioz, ezin izan zuen hiria utzi kolpistak bertara sartu zirenean eta hauek atxiki eta Bilbon bertan espetxeratu zuten. 1938an epaitua izan zen tribunal militarren eskutik hiri honetan eta bortxazko lanak egitera kondenatuko zuten izan ere 1939an "El Canal" izeneko kontzentrazio esparrura eraman zuten, Medina de Riosecon (Valladolid). Hala ere, urte horretako maiatzean aske geratzea lortu zuen eta Lasartera bizitzera itzultzea lortu zuen[783].

Cuando estalló la guerra vivía en Lasarte. Aunque no era militante de ningún partido político ni organización, era izquierdista y desde el primer momento se unió a las milicias locales. En ellas, trabajó como capataz de un grupo de trabajadores del campo de aviación de Lasarte pues era peón caminero de la Diputación[782]. Viendo que las tropas carlistas se acercaban por Andoain, se unió a las milicias MAOC para defender el pueblo, pero como eso resultó imposible por mucho tiempo, abandonó el pueblo y escapó hacia Bizkaia. Enfermó antes de que cayera Bilbo y lo tuvieron que hospitalizar; como tuvo que estar ingresado, no pudo huir de la capital cuando entraron los golpistas y fue detenido y encarcelado por ellos en Bilbo. En 1938, en esa misma ciudad, fue juzgado por los tribunales militares y condenado a trabajos forzados, ya que en 1939 fue trasladado al campo de concentración de El Canal en Medina de Rioseco (Valladolid). De todos modos, en mayo de ese mismo año consiguió la libertad y pudo volver a vivir a Lasarte[783].

GARRO TOLOSA, ANGEL

Angel Garro Tolosa. (Lasarte-Oria 1936-48).

1888ko abuztuaren 17an jaio zen Hondarribian, baina Urnietan bizi zen 1900etik, Gizaldiberri etxean[784]. Trenbideetako langilea zen, kontramaisu eginbeharrak burutzeaz arduratzen zelarik kolpistek altxamendua burutu aurretik, gainera langile bezala UGT sindikatura afiliatua zegoen. Gerra hasi zenean, defentsa komitearentzat hasi zen lanean, zaintza armatuak burutzen hasi zelarik, eskopeta edota pistola batekin. Horretaz gain, Lasarteko abiazio-zelaian ere zaintzak egin zituen eta bertako langile talde baten arduraduna ere izatera pasa zen. Talde honen ardurapean, telefono-lineak ezartzen ibili ziren, frontearen puntu ezberdinak komunikatzeko helburuarekin.

Matxinoen tropak Urnietara hurbiltzean, berau utzi zuen familia guztiarekin eta autoritate frankistek Oriako hutsik zeuden etxeak konfiskatzerakoan Angelen etxean armak eta lehergailuak aurkitu zituzten. Angel eta bere familiari ondasun guztiak konfiskatu zizkieten. Familia hasiera batean Errenteriara eta beranduago Bilbora mugitu zen, non trenbideetako langile moduan jardun zuen. 1937ko maiatzean, Bilbo erasopean zela, familia guztia Frantziako Estatura bidali eta bere seme Joaquin eta Faustinorekin Gijon aldera joan zen, denbora guztian trenbideen arloan lan eginez. Behin frontea eroritakoan, Urnietara itzultzea lortu zuen baina herrira itzuli eta berehala, 1937ko azaroan Andoaingo Guardia Zibilaren kuartelean aurkeztu zen Angel, hauek atxilotu egin zuten eta espetxeratua izan zen. Ondarretako espetxera lekualdatu zuten eta hiri honetan bertan gerra kontseilu batean epaitu zuten tribunal frankistek. UGTkoa izateagatik eta defentsa komitearentzat lan egiteagatik 15 urteko espetxealdira kondenatu zuten[785]. Donostiatik Vigoko (Galizia) San Simon espetxera lekualdatu zuten, hiri honetako itsasadarreko irla batean zegoena, zigorra bete zezan, baina espetxeko bizi baldintza txarrek eragina izan zuten bere adinean eta bihotzeko baten ondorioz hil zen espetxean, 1939ko abuztuaren 2an[786]. Zehatzagoak izateko, Upo-Mendi espetxe-itsasontzian aurkitzen zen preso Angel[787].

Nació el 17 de agosto 1888 en Hondarribia, pero vivía en la casa Gizaldi-berri de Urnieta, desde 1900[784]. Antes de que los golpistas llevaran a cabo la sublevación militar, era un trabajador ferroviario que se encargaba de realizar labores de capataz, y estaba afiliado al sindicato UGT. Cuando comenzó la guerra, empezó a trabajar para el Comité de Defensa haciendo guardias armadas con una escopeta o una pistola. También realizó guardias en el campo de aviación de Lasarte, y pasó a ser encargado de un grupo de trabajadores. Con ese grupo estuvo instalando líneas telefónicas, intentando comunicar entre ellos diferentes puntos del frente.

Cuando las tropas sublevadas se acercaron a Urnieta, escapó de allí con toda la familia; las autoridades franquistas, al confiscar las casas vacías de Oria, encontraron armas y explosivos en la casa de Ángel. A Ángel y a su familia les confiscaron todos los bienes. La familia huyó al principio a Errenteria y más tarde a Bilbo, donde trabajó como ferroviario. En mayo de 1937, estando Bilbo bajo la ofensiva franquista, envió toda la familia al Estado francés y él se fue hacia Gijón, junto a sus hijos Joaquín y Faustino, trabajando todo el tiempo en el sector ferroviario. Una vez caído el frente, logró volver a Urnieta pero en seguida, en noviembre de 1937, Ángel se presentó en el cuartel de la Guardia Civil de Andoain por lo que fue detenido y encarcelado. Fue trasladado

[782] UUA, 1939ko udal-korrespondentzia. / AMU, correspondencia municipal de 1939.
[783] UUA, sig. 1306.04. / AMU, sig. 1306.04.
[784] UUA, sig. 1305.04. / AMU, sig. 1305.04.
[785] AIRMN, 690/38 sumarisimoa. / AIRMN, sumarísimo 690/38.
[786] Vigoko erregistro zibila, 3 atala, 93 liburukia, 326 orrialdea. / Registro civil de Vigo, sección 3ª, lib. 93, p. 326.
[787] UUA, sig. 1327.02. / AMU, sig. 1327.02.

orr.

a la cárcel de Ondarreta y fue juzgado en consejo de guerra por los tribunales franquistas. Fue condenado a 15 años de prisión por ser de UGT y por trabajar para el Comité de Defensa[785]. De Donostia fue trasladado para cumplir la condena, a la cárcel San Simón de Vigo (Pontevedra), que estaba en una isla de la ría de la ciudad, pero las malas condiciones de vida de la cárcel hicieron mella en su salud y murió debido a un infarto el 2 de agosto de 1939[786]. Para ser más precisos, Ángel estaba prisionero en el barco presidio Upo-Mendi[787].

GODOY GONZALEZ, JUAN

Somorrostron jaio bazen ere, Urnietan bizi zen Juan, herrian mandatari bezala lan eginez. 36 urte zituen (1937) eta ezkondua zegoen. 1936an gaixotu egin zen eta Donostiara joan behar izan zen, bertan aurkitzen zelarik estatu-kolpea eman zenean. Hori dela eta, Urnietara itzuli zenean etxean egon zen osatu bitartean abuztu amaiera arte. Nahiz eta guztiz osatua ez egon, Urnietako milizientzako sukaldean lanean hasi zen eta batzuetan Adarra mendira janaria eraman zuen. Atxilotu osteko galdeketetan, 1936ko abuztuan, ezagutzen ez zituen miliziano batzuek etxe kanpoan Paulino Mediavilla ezagutzen zuen eta non bizi zen galdegin ziotela adierazi zuen. Juanek bidea erakutsi eta Paulinorekin batera atxilo eraman zuten bera ere, Urnietako kuartelera, non aske utzi zuten.



Cumplimentando lo interesado en su telefonema fecha 28 del actual referente a JUAN GODOY GONZALEZ, debemos hacerle presente que dadas sus antecedentes y, sobre todo, el hecho de haber [redacted] quien dentro a D.Paulino Mediavilla,patrista navarro que residía en ésta, y el cual fué luego asesinado en el punto Hecalde, de San Sebastian, estimamos prematuro conceder libertad,ni aun condicional, por su manifiesta complicidad muerte expresada.

Sin embargo, V.S,con mejor criterio, obrará como mejor proceda en justicia.

Dios gue. a V.S.muchos años.
Urnieta (Guipª) a 30 de Ag.1940

EL ALCALDE,

El Jefe local de FET y de las JONS

Sr.Dr. de la Colonia Penitencia de [redacted]
Santoña (Santander)

Juan Godoyren askatasunaren aurka alkateak eta FET-JONSak bidalitako jakinarazpena. (UUA). / Notificación del alcalde y FET-JONS contra la libertad de Juan Godoy. (UUA).

Herriko miliziekin batera, herria utzi behar izan zuen iraila hasieran. Hernanin egun gutxi batzuk egon eta gero, Lekeitiora joan ziren eta denbora honetan uneoro sukaldari bezala lan egin zuen Juanek. Herri honetan, tribunal militarrek aztertu eta zuen gaixotasuna zela eta ezgai zela esan zuten eta Algortan errefuxiatu zen. Han PC alderdira afiliatu zen[788]. Bilbo erortzear zela, Santanderrera mugitu zen, non berriro armetara deitu zuten eta ingeniarien batailoi batera batu zen, baina egun gutxira, hiria erori eta preso egin zuten.

Kolpistek orduan El Duesoko espetxera eraman zuten preso eta bertan izan zen epaitua. Epaiketan Urnietako autoritate frankistek Paulino Mediavillaren atxiloketaren ardura egotzi zioten, Juanek uneoro ukatu zuen zerbait. Tribunalak ordea atxiloketa burutzea egotzi zion eta 30 urteko espetxealdira kondenatu zuten[789]. Espetxe honetan egon zen kondena betetzen 1941eko uztailean espetxealdi arinduari esker aske geratu zen arte[790]. Nahiz eta aske geratu deserriratua izan zenaren zantzuak daude, udala eta FET-JONS antolakundea Urnietara itzultzearen aurka agertu baitziren[791]. Gainera 1943ko ekainean Bilbon atxilotu zuten eta Ondarretako espetxera eraman zuten, Paulinoren atxiloketaren harira eginiko salaketa berri bat zela eta. Tribunalak, 1944ko urtarrilean, gertakari horiengatik jadanik epaitua izan zela ebatzi zuen eta kausa largetsi zuen[792]. Azkenik, herritik ihes egitera behartua izan zela probestuz, autoritate frankistek Urnietan Ichaso-Asu familiari alokatua zuen gelako ondasun guztiak konfiskatu zizkioten[793].

Aunque nació en Somorrostro, vivía en Urnieta trabajando de recadista. Tenía 36 años (1937) y estaba casado. En 1936 cayó enfermo y tuvo que ir a Donostia, por lo que cuando se dio el golpe de Estado todavía se encontraba allí. Debido a ello, cuando volvió a Urnieta estuvo en casa hasta agosto, hasta que se recuperó. Aunque no estaba curado del todo, empezó a trabajar para las milicias de Urnieta en labores de cocina, y algunas veces tuvo que llevar la comida al monte Adarra. Fue arrestado en agosto de 1936, y en el interrogatorio posterior declaró que unos milicianos a los que no conocía le preguntaron, fuera de su casa, si conocía a Paulino Mediavilla y si sabía dónde vivía. Juan les enseñó el camino y se lo llevaron detenido junto a Paulino al cuartel de Urnieta, donde fue liberado.

A comienzos de septiembre tuvo que huir del pueblo junto con las milicias locales. Tras pasar unos pocos días en Hernani, se fueron a Lekeitio y durante todo ese tiempo Juan estuvo trabajando de cocinero. En ese pueblo, lo examinaron los tribunales militares y, debido a su enfermedad, lo declararon incapaz y se refugió en Algorta. Allí se alistó al partido PC[788]. Cuando Bilbo estaba al caer, se fue a Santander, donde de nuevo fue llamado a armas y se unió a un batallón de ingenieros; a los pocos días la capital cántabra cayó y fue hecho prisionero.

Los golpistas lo llevaron a la prisión de El Dueso (Cantabria) y fue juzgado allí. En el juicio, las autoridades franquistas de Urnieta le hicieron responsable de la detención de Paulino Mediavilla, algo que Juan negó en todo momento. Pero el tribunal le acusó de haber realizado la detención, y fue condenado a 30 años de prisión[789]. Estuvo encarcelado en esa prisión hasta el julio de 1941, cuando mediante la prisión atenuada logró la libertad[790]. Aunque fue puesto en libertad, hay indicios de que estuvo desterrado ya que el Ayuntamiento de Urnieta se mostró reacio a que retornara[791]. En ese sentido, en junio de 1943, fue de nuevo detenido en

[788] Ministerio de Cultura y Deporte, Archivo CDMH, sig. DNSD-SECRETARIA,FICHERO,26,G0167742. / Ministerio de Cultura y Deporte, archivo CDMH, sig. DNSD-Secretaría, Fichero 26, G0167742.

[789] AIRMN, 174/37 urgentziazko prozedura sumarisimoa. / AIRMN, procedimiento sumarísimo de urgencia 174/37.

[790] AGA, Juan Godoy Gonzalezen espetxe-fitxa. / AGA, ficha penitenciaria de Juan Godoy González.

[791] UUA, 1940ko udal-korrespondentzia. / AMU, correspondencia municipal de 1940.

[792] AIRMN, 701/43 sumarisimo arrunta. / AIRMN, sumarísimo ordinario 701/43.

[793] UUA, sig. 1936.01. / AMU, sig. 1936.01.

Bilbo y trasladado a la cárcel de Ondarreta, debido a una nueva denuncia realizada en torno a la detención de Paulino. El tribunal, en enero de 1944, dictaminó que ya había sido juzgado por esos sucesos y sobreseyó la causa[792]. Finalmente, aprovechando que fue obligado a dejar el pueblo, las autoridades franquistas le confiscaron todos los bienes que tenía en la habitación alquilada a la familia Ichaso-Asu en Urnieta[793].

GONZALEZ ECHAIDE, PRUDENCIO

Lasarte auzoko biztanlea, Donostiako tribunal militarrek haren aurkako prozesu judiziala ireki zuten, baina ikerketak burutu ostean behin-behinean largetsi behar izan zuten, 1940ko otsailean. Ez zekiten Prudencio non aurkitzen zen eta auzi-ihes egoeran deklaratu zuten[794]. Ildo beretik, Ondasunen Konfiskazioen Epaitegi Bereziak Prudencioren ondasunen gaineko txosten bat eskatu zuen 1938an, sententzia ezartzerakoan kontuan izateko[795]. Aske geratu eta gutxira, 1940an, Tarragonara bizitzera joateko erabakia hartu zuen[796].

Vecino del barrio Lasarte, los tribunales militares de Donostia iniciaron un proceso judicial contra él, pero tras realizar las investigaciones lo tuvieron que archivar provisionalmente, en febrero de 1940. No sabían dónde se encontraba Prudencio y lo declararon en rebeldía[794]. Del mismo modo, en 1938 el Tribunal Especial de Bienes Incautados pidió un informe sobre los bienes de Prudencio, para tenerlos en cuenta a la hora de establecer la sentencia[795]. Al poco de quedar en libertad, en 1940, decidió irse a vivir a Tarragona[796].

GOÑI GOÑI, FRANCISCO

1852ko azaroaren 25ean jaio zen Gesalatzen, eta 1928an Urnietara bizitzera etorri zen familiarekin batera, Oria auzoko langile etxeetara. 1936ko estatu-kolpea eta gero abuztuan egin zen ebakuazio deiari kasu egin eta familia guztiak herria utzi zuen[797]. Familia errefuxiatua zen bitartean, Francisco Eusko Gudarostearentzat lanean hasi zen, lubakien eraikuntzan[798]. Euskal Herrian gerra galtzean, Oriara itzuli baziren ere, altxatuen aurkako jarrera egotzi eta 1938ko otsailean behin-behinean Ondarretako espetxera preso eraman zuten. Urte bereko azaroan, inolako erantzukizunik ez zuela izan eta kolpisten aurkako ideiak bazituen ere, hauen aurkako zigorra behin-behineko espetxealdia betetzearekin nahikoa izan zela ebatzi zuen Burgosko gerra auditoreak, Franciscok askatasuna berreskuratuz[799].

Nació el 25 de noviembre de 1852 en Gesalatz, y en 1928 vino a vivir junto con su familia a Urnieta, a las casas de obreros del barrio Oria. Hizo caso al aviso de evacuación que se hizo tras el golpe de Estado de 1936 y toda la familia dejó el pueblo[797]. Mientras la familia estaba refugiada, Francisco empezó a trabajar para el Ejército Vasco, construyendo trincheras[798]. Aunque tras perder la guerra en Euskal Herria volvió al barrio Oria, le acusaron de conducta contraria a los sublevados y, el febrero de 1938, fue provisionalmente encarcelado en la prisión de Ondarreta. En noviembre del mismo año, el auditor de guerra de Burgos dictaminó que no tuvo ninguna responsabilidad y, aunque tenía ideas contrarias a los golpistas, era suficiente con cumplir la encarcelación provisional, y Francisco recuperó la libertad[799].

GOROSTEGUI CANO, BENJAMIN

1914ean Orian jaioa, Lasarten (Hernani) bizi zen Errepublika garaian. Ideia abertzale sakonekoa, EAJ alderdiko eta ELA sindikatuko kide zen. Horrela, 1936ko uztaileko kolpeak kale egin zuenean, honen aurka antolatu ziren milizietara batu zen lehen unetik. Nafarroako zutabe kolpisten erasoen aurrean, herria utzi behar izan zuen eta Azkoitiatik pasa eta gero Bizkaiara mugitu zen. Bertan, gudari bezala izena eman zuen eta Lenago il batailoi abertzalera batu zen. Hauekin hainbat frontetan borrokatu eta gero, Ertzainaren brigada motorizatura pasa zen eta ertzain moduan ere Larrinagako espetxean zaintzak egin zituen. Hala ere, 1937ko udaberriko erasoaldien ostean ekainean Bilbo erori zenean, bertan geratzea erabaki zuen eta kolpistek atxiki eta Deustoko kontzentrazio esparrura eraman zuten preso. Bertatik Iruñeakora eraman zuten eta hemen indarrez armada frankistara batzera behartu zuten. Bere kintaren mobilizazioa amaitu zenean, Lasartera bizitzera itzuli zen. 1942ko otsailean, berriro atxilotu zuten, EAJren baitako talde bat berreraikitzeko saiakera egiteagatik, Angel Aliri eta beste zortzirekin batera. Bertan, Benjamini euskal abertzaletasunaren baitako erresistentzia talde bateko kide izatea egotzi zioten, baina froga faltagatik bere aurkako kausa largetsi egin zuten eta aske geratu zen. Honi esker, urte bereko abenduan aske geratu zen, bederatzi hilabete preso egon eta gero[800].

[794] AIRMN, 2187 urgentziazko sumarisimoa. / AIRMN, sumarísimo de urgencia 2187.
[795] UUA, 1938ko udal-korrespondentzia. / AMU, correspondencia municipal de 1938.
[796] UUA, 1940ko udal-korrespondentzia. / AMU, correspondencia municipal de 1940.
[797] UUA, sig. PA00.06. / AMU, sig. PA00.06.
[798] Ministerio de Cultura y Deporte, Archivo CDMH, PS Santander "O", 105 paper-sorta. / CDMH, PS Santander "O", legajo 105.
[799] AIRMN, 781 gobernu-informazioa. / AIRMN, información gubernamental 781.
[800] AIRMN, 4177/42 sumario arrunta / AIRMN sumario ordinario 4177/42.



Benjamin Gorostegui, Ertzainako brigada motorizatuaren argazkian. (Lasarte-Oria 1936-48). / **Benjamín Gorostegui, en la foto de la brigada motorizada de la Ertzaintza.** (Lasarte-Oria 1936-48).

Nació en Oria en el año 1914 y durante la República vivía en Lasarte (Hernani). De profundas ideas abertzales, era miembro del PNV y del sindicato ELA. Cuando en julio de 1936 fracasó el golpe de Estado, desde el inicio se unió a las milicias que se organizaron en su contra. Ante las ofensivas de las columnas golpistas navarras, tuvo que abandonar el pueblo, y tras pasar por Azkoitia se fue a Bizkaia. Allí, se alistó como gudari en el batallón abertzale "Lenago il". Tras combatir con ellos en varios frentes, se pasó a la brigada motorizada de la Ertzaintza, y como ertzaina también realizó guardias en la cárcel de Larrinaga (Bilbo). Cuando Bilbo cayó en manos de los golpistas, tras las ofensivas de primavera de 1937, decidió quedarse y fue apresado por ellos; fue llevado preso al campo de concentración de Deustu. De allí fue trasladado a la de Iruñea, y allí lo obligaron a unirse al Ejército franquista. Cuando terminó la movilización de su quinta, volvió a vivir a Lasarte. En febrero de 1942 fue detenido de nuevo, con Ángel Aliri y otros ocho, por intentar reconstruir un grupo del entorno del PNV. A Benjamín lo acusaron de ser miembro de un grupo de resistencia relacionado con el nacionalismo vasco, pero su causa fue archivada por falta de pruebas. Quedó en libertad en diciembre del mismo año, tras estar nueve meses preso[800].

GORRITI GORRITI, ANTONIO

Ideia abertzaleak zituen pertsona zen Antonio eta Urnietako Batzokiko Lehendakari izan zen gainera Errepublika garaian. Horretaz gain, Euzko Nekazarien Bazkuna elkarteak bere etxean zuen egoitza[801]. Hala ere, gerrak eztanda egitean Urnietan geratzeko erabakia hartu zuen. Ondorioz, behin Gipuzkoa armez hartuta, kolpistek, bera eta beste hiru herritarren (Manuel Arbiza, Gregorio Echeverria eta Bartolome Lasarte) aurkako prozedura bat ireki zuten, baina Lasarteko Komandantzia Militarrak jakinarazi zien beraien aurkako epaiketan absolbitu egin zituztela 1937ko maiatzaren 22an[802].

Era una persona de ideales nacionalistas que durante la República fue lehendakari del Batzoki de Urnieta. Además, la organización Euzko Nekazarien Bazkunaa tenía la sede en su casa[801]. A pesar de todo, al estallar la guerra decidió quedarse en Urnieta. Por eso, una vez tomaron Gipuzkoa por las armas, los golpistas iniciaron un proceso contra él y otros tres urnietarras (Manuel Arbiza, Gregorio Echeverria y Bartolomé Lasarte), pero la Comandancia Militar de Lasarte les notificó que en el juicio llevado a cabo en su contra, el 22 de mayo de 1937, fueron absueltos[802].

[801] UUA, sig. 1936.01 / AMU, sig. 1936.01.
[802] UUA, 1938ko udal-korrespondentzia / AMU, correspondencia municipal de 1938.

Antonio Gorriti, Juan Bautista Zumalacarreguiren omenaldian, 1929an. (Erretratu Zaharrak). / **Antonio Gorriti, en el homenaje a Juan Bautista Zumalacarregui, 1929.** (Erretratu Zaharrak).

GOYARAN OLAZAGUIRRE, MANUEL

1904ko abenduaren 30ean jaio zen Urnietan, eta Oriako Brunet enpresan lan egiten zuen eta bertako etxeetan bizi, Etxeluze izenekoan. UGTko Sindicato del Arte Textil sindikatuko kidea zen eta Errepublika garaian herriko zuzendaritzako kide izan zen, batzordekide bezala. Hori dela eta, kolpisten tropen hurbiltasuna zela eta, auzokideekin eta familia guztiarekin batera herria utzi zuen. Orduan, Eusko Gudarostean engaiatu zen, intendentzia sailean, lehergailuen industria batean lan egitera pasaz. Bizkaia erori zenean, Santoñan altxatuek preso egin zituzten milaka euskal herritarretako bat izan zen, El Duesoko espetxera eraman zutelarik. Santoñan bertan, bere aurkako ikerketa bat abiarazi zuten, 1937ko abenduan gerra kontseilu batean amaituko zena eta bertan, bere inplikazio politikoagatik 20 urte eta egun bateko espetxealdira kondenatu zuten[803]. 1938ko abuztuan, Puerto Santa Mariara (Cadiz) lekualdatu zuten eta urte amaieran berriz Sevillako espetxera, kondena bete zezan. Espetxe honetan zela, kondena 3 urteko espetxealdiagatik kommutatu zioten eta honi esker aske geratu zen[804].

Nació el 30 de diciembre de 1904 en Urnieta, trabajaba en la empresa Brunet de Oria y vivía en las casas de allí, exactamente en la que se llamaba Echeluce. Era miembro del Sector Textil de UGT, y durante la República fue miembro de la directiva local, como vocal. Por ello, debido a la cercanía de las tropas golpistas, abandonó el pueblo junto con los vecinos y todos los familiares. Entonces se alistó en el Ejército Vasco, en la sección de intendencia, y pasó a trabajar en una industria de explosivos. Fue uno de los miles de vascos que fueron apresados en Santoña (Cantabria) por los sublevados cuando cayó Bizkaia, y fue encarcelado en la prisión de El Dueso de la misma ciudad. Allí, empezaron una investigación en su contra; terminó en un consejo de guerra en diciembre de 1937 y fue condenado a 20 años y un día de prisión, por su implicación política[803]. En agosto de 1938 fue trasladado a Puerto Santa María (Cádiz) y a final de año a la cárcel de Sevilla, a cumplir la condena. Estando en esa cárcel, le conmutaron la pena por 3 años de prisión y, gracias a ello, quedó en libertad[804].

HERNANDO BALTASAR, JOSE

1918ko abenduaren 27an jaio zen Urnietan, eta Oria auzoko etxeetan bizi zen, familia guztiarekin[805]. Josek auzoko ehungintza industrian lan egiten zuen, ehule moduan eta arlo horretako asko bezala JS eta UGT antolakundeetara afiliatua zegoen[806]. Hori zela eta Orian antolatzen zebiltzan milizietan izena eman zuen altxamendua izan eta gutxira, MAOC batailoi komunistara batuz, bitartean bere familia guztiak auzoa utzi zuen. Gerra Zibileko Iparraldeko Frontearen gainbehera eta gero, 1937ko abuztuan, Santanderren altxatuek atxilotu egin zuten eta bortxazko lanak egitera kondenatu zuten. Horrela, Tarifara bidalia izan zen, 132 SLDBra ehule moduan lan egitera[807], 1940ko udan aske geratu zen, baina soldadutza egin gabe zuenez, autoritate frankistek hau bortxazko lanen bidez egin behar zuela ebatzi zuten eta berriro SLDB batera bidali zuten, oraindik 1942ko abuztuan Cadizko Pacina herrian aurkitzen zelarik, bortxazko lanak egiten 6 SLDBan[808].

Jose Hernando Baltasar Cadizen 1942an langileen batailoietan aurkitzen zela. (Lasarte-Oria 1936-48)). / **José Hernando Baltasar en los batallones obreros de Cádiz en 1942.** (Lasarte-Oria 1936-48).

[803] AIRMN, 127/37 urgentziazko prozedura sumarisimoa / AIRMN, procedimiento sumarísimo de urgencia 127/37.
[804] AGA, Manuel Goyaran Olazaguirreren espetxe-fitxa / AGA, ficha penitenciaria de Manuel Goyaran Olazaguirre.
[805] UUA, sig. 1305.04 / AMU, sig. 1305.04.
[806] UUA, 1942ko udal-korrespondentzia / AMU, correspondencia municipal de 1942.
[807] UUA, sig. 1307.01 / AMU, sig. 1307.01.
[808] UUA, 1942ko udal-korrespondentzia / AMU, correspondencia municipal de 1942.

orr.

Nació en Urnieta el 27 de diciembre de 1918 y vivía en las casas del barrio Oria, junto a toda su familia[805]. José trabajaba como tejedor en la industria textil del barrio y como muchos de ese sector estaba afiliado al JS y a UGT[806]. Por eso, al poco de que se diera la sublevación militar, se apuntó a las milicias que se estaban organizando en Oria, exactamente se unió al batallón comunista MAOC; mientras, toda su familia abandonaba el barrio. Tras la caída del Frente Norte, en agosto de 1937, fue detenido por los sublevados en Santander y condenado a hacer trabajos forzados. Por esa razón, fue enviado a Tarifa (Cádiz) al 132º SLDB a trabajar como tejedor[807]; el verano de 1940 quedó en libertad, pero como tenía sin hacer el servicio militar, las autoridades franquistas dictaminaron que tenía que cumplirlo mediante trabajos forzados, y de nuevo fue enviado a un SLDB; en agosto de 1942 todavía se encontraba haciendo trabajos forzados en el 6º SLDB de Pacina (Cádiz)[808].

HERNANGIL ANTON, CIPRIANO

1881eko irailaren 26an jaio zen Blocona (Soria) herrian, baina 1927tik Orian bizi zen, bere familiarekin batera, Gizaldiberri etxean[809]. Brunet enpresan lan egiten zuen beraz, eta UGT sindikatura afiliatua zegoen. Gerra Zibila hastearekin batera, 1936ko abuztuan, bere bi semeekin Lasarteko abiazio-zelaian lan egin zuen[810], baina gerragatik Oria ebakuatzeko agindua eman zenean familia guztiarekin utzi zuen herria eta ihes egin zuten, Donostiara lehenik eta Bilbora ostean. Bertan, alderdi komunistako afiliatua gisa agertzen da eta mobilizatua izan zen, Garraio sailarentzako guardiak eginez[811]. Hiri honetara frontea hurbiltzean Santanderrera joateko hautua egin zuen, non kolpistek atxiki zuten 1937ko abuztuan, baina aske geratu eta Urnietara itzultzea lortu zuen. Hala ere, Andoaingo Guardia Zibil postuak, galdeketa batera deitu zuen abenduaren 26an eta honen ostean atxilotu eta Ondarretako espetxera eraman zuten. Autoritate frankistek, Bilbon errefuxiatu zen etxetik ondasunak ostea egotzi zioten eta horregatik 3 urteko espetxealdira kondenatu zuten, 1939ko apirilean. Hori dela eta, preso izan zuten 1940ko urtarrila arte, noiz baldintzapeko askatasuna lortu zuen, hilean behin udaletxetik sinatzera pasatzeko baldintzarekin[812].

Nació el 26 de septiembre de 1881 en Blocona (Soria), pero desde 1927 vivía en Oria, junto a su familia, en la casa Gizaldiberri[809]. Por lo tanto, trabajaba en la empresa Brunet, y estaba afiliado al sindicato UGT. Nada más iniciarse la Guerra Civil, en agosto de 1936, estuvo trabajando con sus dos hijos en el campo de aviación de Lasarte[810], pero cuando se dio la orden de evacuar Oria por la guerra, abandonó el pueblo con toda la familia y escaparon, primero a Donostia y luego a Bilbo. Allí, aparece como afiliado al partido comunista, y fue movilizado haciendo guardias para la sección de Transporte[811]. Cuando el frente se acercó a esta ciudad, decidió irse a Santander, donde fue apresado por los golpistas el agosto de 1937; pero fue puesto en libertad y consiguió volver a Urnieta. Aun así, el puesto de la Guardia Civil de Andoain lo llamó a un interrogatorio el 26 de diciembre y, tras esto, fue nuevamente detenido y encarcelado en la prisión de Ondarreta. Las autoridades franquistas lo acusaron de haber robado bienes de la casa donde estuvieron refugiados y, por ello, fue condenado a 3 años de prisión, en abril de 1939. Por ese motivo, estuvo encarcelado hasta que en enero de 1940 consiguió la libertad provisional, con la condición de que todos los meses pasara por el ayuntamiento a firmar[812].

HERNANGIL YUBERO, DOROTEO

1907ko martxoaren 28an jaio zen Blocona (Soria) herrian, baina 1927az geroztik Oria auzoan bizi zen, familia guztiarekin batera, Brunet enpresan lan egin eta biziz[813]. Ehungintzako langile asko bezala UGT sindikatura afiliatua zegoen. 1936ko uztailean, estatu-kolpearen ostean gerra hastearekin batera, honen aurka borrokatzeko herrian antolatu ziren milizietara batu zen, Lasarteko abiazio zelaian lan egitera pasaz. Hala ere, zutabe erreketeen erasoaldien ondorioz, herria uztera behartua agertu zen eta ondorioz Eusko Gudarosteko Rosa Luxemburgo batailoi komunistara batu zen[814]. Batailoi honekin, Bilbo erori arte borrokan jardun zuen, baina hiri honetan kolpisten tropen esku geratu zen eta hauek espetxeratu egin zuten. Inolako epaiketarik gabe, Doroteo bortxazko lanak egitera bidali zuten militar kolpistek, frontean borrokatzera behartuz 1938ko otsailean 26 SLBan, Terueleko batailan hain zuzen ere[815]. 1942an Urnietan jada aske aurkitzen zela, bere aurkako ikerketa bat gauzatu zuten tribunal militarrek, non zehaztu zen egotzi izan zioten ekintzek ez zutela erantzukizun penalik, nahiz eta aurretik urteak pasa zituen bortxazko lanetan[816].



Doroteo Hernangilek Mallorkatik udalera bidalitako eskutitza. (UUA). / Carta de Doroteo Hernangil enviada desde Mallorca al Ayuntamiento. (UUA).

[809] UUA, sig. PA00.06 / AMU, sig. PA00.06.
[810] Ministerio de Cultura y Deporte, Archivo CDMH, Lasarteko abiazio-zelaia / Ministerio de Cultura y Deporte, archivo CDMH, campo de aviación de Lasarte.
[811] Ministerio de Cultura y Deporte, Archivo CDMH, P.S. Bilbao, 83 paper-sorta / Ministerio de Cultura y Deporte, archivo CDMH, P.S. Bilbao 83.
[812] GPAH, Cipriano Hernangil Antonen espetxe-espedientea / AHPG, expediente penitenciario de Cipriano Hernangil Antón.
[813] UUA, sig. PA00.06 / AMU, sig. PA00.06.
[814] Egaña, I. (et. al) (2000) / Egaña, I. (et. al) (2000).
[815] UUA, 1938ko udal-korrespondentzia / AMU, correspondencia municipal de 1938.
[816] AIRMN, 3995 aurretiazko prozedura / AIRMN, procedimiento previo 3995.

Nació el 28 de marzo de 1907 en Blocona (Soria), pero vivía en el barrio Oria de Urnieta desde 1927, junto a toda su familia. Trabajaba en la empresa Brunet[813]. Como muchos trabajadores del sector textil, estaba afiliado al sindicato UGT. En julio de 1936, al poco de darse el golpe de Estado, se unió a las milicias que se organizaron para combatirlo, y pasó a trabajar al campo de aviación de Lasarte. De todos modos, debido a las ofensivas de las columnas requetés, se vio obligado a dejar el pueblo y así, se unió al batallón comunista Rosa Luxemburgo del Ejército Vasco[814]. Con ese batallón combatió hasta que cayó Bilbo, y donde cayó también él en manos de las tropas golpistas y fue encarcelado. Doroteo fue enviado a hacer trabajos forzados por los militares golpistas, sin ningún tipo de juicio, obligándole a combatir en el frente en el 26º SLB, el febrero de 1938, precisamente en la batalla de Teruel[815]. En 1942, una vez ya libre en Urnieta, los tribunales militares llevaron a cabo una investigación en su contra, donde se precisó que los actos que se le habían imputado no implicaban responsabilidades penales, aunque ya había pasado varios años haciendo trabajos forzados[816].

HERNANGIL YUBERO, VICENTE

1914ko abuztuaren 31n jaio zen Blocona (Soria) herrian, baina 1927tik aurrera Orian bizi zen, Brunet enpresako etxeetan, bertan lan egiten baitzuen[817]. Estatu-kolpea eta gero, aita eta anaia batekin Lasarteko abiazio-zelaian lan egin zuen, hasiera batean[818]. Baina hau 1936ko abuztu erdian desegitean, Vicente Eusko Gudarosteko milizietara batu zen, hastapenetan MAOC Oria batailoian, herriko mendietan borrokatuz[819], eta herriaren ebakuazio deia iritsi zenean, hau utzi eta Bizkaiko frontearen gainbehera arte borrokatu zuen. Miliziano bezala izan zuen jarduna zela eta, Donostiako epaitegi militarrak bere aurkako sumario bat ireki zuen 1939ko abuztuan, baina bere aurkako frogak oinarririk ez zutela ebatzi eta gero aske geratu zen Vicente[820].

Nació el 31 de agosto de 1914 en Blocona (Soria), pero desde 1927 vivía en Oria, en las casas de la empresa Brunet, pues trabajaba en ella[817]. Tras el golpe de Estado, al principio estuvo trabajando con su padre y un hermano en el campo de aviación de Lasarte[818]. Pero cuando este se deshizo a mediados de agosto de 1936, Vicente se unió a las milicias del Ejército Vasco. Al comienzo estuvo en el batallón MAOC Oria, combatiendo en los montes del pueblo[819]; después, cuando llegó la orden de evacuación del pueblo, huyó y combatió hasta la caída del frente de Bizkaia. Debido a su trayectoria como miliciano, el agosto de 1939 el juzgado militar de Donostia inició un sumario en su contra, pero determinaron que las pruebas en su contra no tenían ninguna base, y Vicente quedó en libertad[820].

ICETA ARRUE, JUAN JOSE[821]

1909ko uztailaren 28an jaio zen Urnietan eta Galardi-borda baserrian bizi zen, bere izeba Angela Arrue irakaslearekin (frankistek bere postutik kaleratu zuten Angela)[822]. Beste iturri batzuek diote Mozotegi baserrian bizi zela[823]. Baserriko lurrak lantzetik bizi zen eta EAJko kidea zen, honen ordezkari bezala zinegotzi izatera iritsiz Errepublikako urteetan. Horregatik, estatu-kolpea eman zenean, herrian honen aurka borrokatzeko eratu zen defentsa komitearentzat hasi zen lanean, egunez baserrian lan egiten zuen eta gero gauetan Agirre mendian zaintza armatuak egitera joaten zen, etsaiaren mugimenduak zelatatzeko helburuarekin.

Juan Jose, erreketeen iraileko erasoen aurrean, Urnietan geratzea erabaki zuen eta herria kolpistek hartu eta gutxira, deklaratzera deitua izan zen. Orduan, Andoaingo Guardia Zibilak atxilotu eta espetxeratu egin zuen Andoainen bertan. Herri honetan egin zuen lehen deklarazioa irailaren 18an. Bertan, bere gerra kontseilua abiatu zuen salaketa egin zuen Luis Recondo zinegotzi frankistak, pertsona arriskutsua zela eta kolpisten aurka parte hartze aktiboa izan zuela adieraziz. Egun gutxitara Donostiara lekualdatu zuten eta bere aurkako prozesu judizial bat ireki zuten tribunal militarrek. Fiskaltzak, Luis Recondoren deklarazioa oinarri hartu zuen Juan Joseren aurkako akusazioan; tribunalak ontzat eman zuen hau eta, horregatik, Juan Jose heriotza zigorrera kondenatu zuten Donostian, 1936ko urriaren 11n. Sententzia irmoa egin zen egun gutxitara eta hiri honetako Ondarretako espetxean fusilatu zuten Juan Jose urriaren 20an, ondoren Polloeko hilerrian lurperatuz[824].



Juan Jose Icetaren deklarazioa atxilotu eta Andoianera preso eraman zutenean. (AIRMN). / Declaración de Juan José Iceta cuando fue detenido y llevado preso a Andoian. (AIRMN).

[817] UUA, sig. PA00.06 / AMU, sig. PA00.06.

[818] Ministerio de Cultura y Deporte, Archivo CDMH, Lasarteko abiazio-zelaia / Ministerio de Cultura y Deporte, archivo CDMH, campo de aviación de Lasarte.

[819] Ministerio de Cultura y Deporte, Archivo CDMH, PS Bilbao, 64 paper-sorta / Ministerio de Cultura y Deporte, archivo CDMH, sig. PS BILBAO 64.

[820] AIRMN, 16518/39 urgentziazko sumarisimoa / AIRMN, sumarísimo de urgencia 16518/39.

[821] Iturri batzuek adierazten dute Mozotegi baserrikoa zela, izan ere Antonio Iceta Pagola aita, bigarren aldiz baserri horretara ezkondu zen 1934an. Hala ere, Juan Jose, Galardi-borda baserrian erroldatua aurkitzen zen 1935 urtean. / Algunas fuentes dicen que era del caserío Mozotegi, ya que su padre Antonio Iceta Pagola se casó en segundas nupcias a ese caserío, en 1934. De todos modos, Juan José se encontraba empadronado en el caserío Galardi-borda, en 1935.

[822] UUA, sig. PA00.06. / AMU, sig. PA00.06.

[823] Unanue, J, (2007), "Mozotegikoaren bekatua", revista *Aiurri*, nº 95, p. 6. / Unanue, J, (2007), "Mozotegikoaren bekatua", revista *Aiurri*, nº 95, p. 6.

[824] AIRMN, 489/36 kausa. / AIRMN, causa 489/36.

orr.

Nació el 28 de julio de 1909 en Urnieta, y vivía en el caserío Galardi-borda, con su tía Ángela Arrue (los franquistas expulsaron a Ángela de su puesto de profesora)[822]. Otras fuentes dicen que vivía en el caserío Mozotegi[823]. Vivía de cultivar la tierra. Era miembro del PNV y, durante la República llegó a ser concejal, como miembro de ese partido. Por ello, cuando se dio el golpe de Estado, empezó a trabajar para el Comité de Defensa que se creó en el pueblo para combatir contra él. De día trabajaba en el caserío y por las noches iba al monte Agirre a hacer guardias armadas, con la intención de vigilar los movimientos del enemigo.

Ante las ofensivas de los requetés en septiembre, Juan José decidió quedarse y, al poco de que los golpistas tomaran el pueblo, fue llamado a declarar. Entonces, fue detenido y encarcelado en Andoain, por la Guardia Civil del mismo pueblo. Allí realizó su primera declaración el 18 de septiembre. Allí fue también donde el concejal franquista Luis Recondo puso la denuncia que dio inicio al consejo de guerra en su contra; Recondo declaró que era una persona peligrosa y que participó activamente contra los golpistas. A los pocos días fue trasladado a Donostia y los tribunales militares iniciaron un proceso judicial en su contra. En la acusación contra Juan José, la fiscalía tomó como base la declaración de Recondo. El tribunal lo dio por bueno y, en consecuencia, condenó a Juan José a pena de muerte, el 11 de octubre de 1936. La sentencia fue firme a los pocos días, y Juan José fue fusilado el 20 de octubre en la cárcel de Ondarreta de esta ciudad. Fue enterrado en el cementerio de Polloe[824].

IDIGORAS GURIDI, JOAQUIN

1891ko abuztuaren 18an jaio zen Urnietan bertan eta Oriako etxeetan bizi zen, jornalari bezala lan eginez. 1936ko abuztuan, gerra zela eta auzoa ebakuatzeko agindua eman zenean, herria utzi zuen emazte eta bi seme alabekin[824]. Egoera hori baliatuz, Oriako beste askori bezala, etxeko ondasunak konfiskatu zizkieten[825]. Baina errepresioa ez zen hor eten, izan ere 1939an atxilotuak izan ziren bera eta Maria Goyaran emaztea eta behin-behineko espetxealdia ezarri zieten biei tribunal frankistek. Bikotearen aurkako salaketak funtsik ez zuen eta ondorioz aske geratzea lortu zuten uztailaren 15ean[826].

Joaquin Idigoras Guridi, Luis Goyaran Olazaguirre eta Guillermo Romo Lacalle Sorgin dantzako txistulariak, hirurek herritik ihes egin behar izan zuten eta espetxea eta errepresioa pairatu zituzten. (Oria nire oroipenak)**. / Joaquín Idigoras Guridi, Luis Goyaran Olazaguirre y Guillermo Romo Lacalle, txistularis de la Sorgin dantza, los tres tuvieron que huir del pueblo y sufrieron la cárcel y la represión.** (Oria nire oroipenak)**.**

Nació en Urnieta el 18 de agosto de 1891 y vivía en las casas de Oria, trabajando de jornalero. En agosto de 1936, cuando se dio la orden de evacuar debido a la guerra, abandonó el pueblo junto con la esposa y dos hijos[824]. Aprovechando la situación, les confiscaron los bienes de su casa, como a muchos otros de Oria[825]. Pero la represión no terminó ahí, ya que en 1939 fueron detenidos él y su mujer María Goyaran, y los tribunales franquistas les impusieron la prisión preventiva. La acusación contra la pareja no tenía ningún fundamento y fueron puestos en libertad el 15 de julio[826].

INZA URRESTARAZU, AVELINO

1916ko otsailaren 4an jaio zen Urnietan, baina Pasaiara bizitzera joana zen estatu-kolpea eman zenean. Herri honetan, Usoz txapel fabrikan lan egiten zuen[827]. Arlo politikoan, ideia ezkertiar sakonak zituen eta JS antolakundera afiliatua zegoen eta gerra hastapenetan, lehen egunetik Tomas Meabe milizianoen konpainiara batu zen kolpisten aurka borrokatzeko, Oiartzuneko frontean borrokatuz besteak beste[828]. Hala ere, Gipuzkoako frontea haustean, atzerakadan Bizkaira mugitu zen eta bertan Dragones (JS) batailoira batu zen. Batailoi honetan, sarjentu izatera iritsi zen eta hainbat frontetan borrokatu zuen, baina Bizkaia erortzearekin batera, kolpistek atxiki eta preso eraman zuten El Duesoko espetxera. Espetxe honetako gehiengoa bezala, Santoñan berariaz eraikitako tribunalean prozesatu zuten eta bere aurkako gerra kontseilua 1938ko otsailaren 11n izan zen, non Avelinori miliziano bezala izandako ardurengatik, matxinadarekin bat egitea egotzi zioten eta 30 urteko espetxealdira kondenatu zuten[829]. Behin sententzia irmoa jasota, abuztuan Puerto Santa Mariako (Cadiz) espetxera lekualdatu zuten, bertan kondena bete zezan. Urteetara, kondena 6 urteko espetxealdiagatik kommutatu zioten[830].

Nació en Urnieta el 4 de febrero de 1916, pero cuando se dio el golpe de Estado vivía en Pasaia. Trabajaba en la fábrica de boinas Usoz de ese pueblo[827]. Políticamente, era de fuertes convicciones izquierdistas y estaba afiliado a la organización JS. Al comienzo de la guerra, desde el primer día se unió a la compañía de milicianos Tomás Meabe para combatir contra los golpistas.

824 UUA, sig. PA00.06. / AMU, sig. PA00.06.
825 UUA, sig. 1936.01. / AMU, sig. 1936.01.
826 AIRMN, 1939ko eginbideak. / AIRMN, diligencias de 1939.
827 AIRMN, 253 urgentziazko prozedura sumarisimoa. / AIRMN, procedimiento sumarísimo de urgencia 253.
828 Ministerio de Cultura y Deporte, Archivo CDMH, PS Bilbao, 89 paper-sorta. / Ministerio de Cultura y Deporte, archivo CDMH, P.S. BILBAO 89.
829 AIRMN, 253 urgentziazko prozedura sumarisimoa. / AIRMN, procedimiento sumarísimo de urgencia 253.
830 AGA, Avelino Inza Urrestarazuren espetxe-fitxa. / AGA, ficha penitenciaria de Avelino Inza Urrestarazu.

Entre otros, estuvo combatiendo en el frente de Oiartzun[828]. De todos modos, cuando cayó el frente de Gipuzkoa, se movió hacia Bizkaia en retirada, y allí, se unió al batallón Dragones de JS. En ese batallón, combatió en varios frentes y llegó a ser sargento, pero cuando cayó Bizkaia, fue apresado por los golpistas y encarcelado en la prisión de El Dueso (Cantabria). Como la mayoría de esa cárcel, fue procesado en el tribunal expresamente creado en Santoña. El consejo de guerra en su contra fue el 11 de febrero de 1938; en él, por la responsabilidad que tuvo como miliciano, Avelino fue acusado de adherirse a la rebelión y fue condenado a 30 años de prisión[829]. Una vez que recibió la sentencia firme, fue trasladado a la prisión de Puerto Santa María (Cádiz) para que cumpliera la condena. A los años, le fue conmutada la pena por 6 años de prisión[830].

IRIARTE CIALCETA, ANTONIO

1878ko urriaren 18an jaio zen Lasarten (Hernani) baina Orian bizi zen, Braulia Enean[831]. Ideia ezkertiar sakoneko pertsona zen, mugimendu ezkertiarretako partaide aktibo bat izan zelarik, besteak beste 1931ko herriko hauteskundeetan hautagaia izan baitzen, baina ez zuen zinegotzi izaterik lortu. Errepublika garaian UGTra afiliatua zegoen gainera, ehungintza sailera eta Oriako UGTko egoitza eta La Emancipación kooperatiba bere jabetzako eraikin batean aurkitzen ziren. 1936ko uztailean estatu-kolpea eman osteko lehen egunetan Lasarteko abiazio-zelaian lan egin zuen, baina abuztu erdian auzoaren ebakuazioa agindua eman zenean emaztea eta seme batekin herritik ihes egin behar izan zuen. Atzerakadan hainbat herritatik pasa zen, Elorriora iritsi arte, non UHPko kuartelak garbitzen lan egin zuen. Batailoiarekin batera mugitu zen, ordenantza ardurak betez, Maliaño (Kantabria) herrian altxatuek atxiki zuten arte. Bertatik Urnietara itzultzea lortu zuen, baina bere aurkako ikerketa bati hasiera eman zioten tribunal militarrek, baina sailkapen batzordeak "A" saileko norbanako bezala identifikatu zuen eta bertan behera geratu ziren bere aurkako ekinbideak[832].

Nació en Lasarte el 18 de octubre de 1878, pero vivía en la casa Braulia Enea de Oria[831]. Era una persona de profundos ideales izquierdistas y fue miembro activo de los movimientos izquierdistas. Por ejemplo, fue candidato en las elecciones locales de 1931, pero no consiguió ser concejal. Además, durante la República estaba afiliado a la sección textil de UGT. La sede de UGT de Oria y la cooperativa La Emancipación se encontraban en un edificio de su propiedad. En julio de 1936, durante los primeros días tras el golpe de Estado, trabajó en el campo de aviación de Lasarte, pero cuando a mediados de agosto se llamó a la evacuación del barrio, tuvo que huir del pueblo con su mujer y un hijo. Durante la retirada pasaron por varios pueblos, y cuando llegaron a Elorrio empezó a trabajar limpiando el cuartel de UHP. Se movió con el batallón, realizando labores de ordenanza, hasta que fue apresado en Maliaño (Cantabria) por los sublevados. De allí logró volver a Urnieta, pero los tribunales militares dieron inicio a una investigación en su contra; al ser identificado como individuo de grado "A" por la Comisión de Clasificación, se abandonaron las iniciativas en su contra[832].

IRIZAR OTEGUI, MARTIN

1913ko martxoaren 13an jaio zen Itsasondon, baina familiarekin Urnietara bizitzera etorriak ziren, Erauso-haundi baserrira, nekazari moduan lan eginez[833]. Ideia abertzaleak zituen, horregatik estatu-kolpea ematearekin batera, defentsa komitearen esku jarri zen, zaintzak eginez herrian. Horretarako armatua joaten zen eta ondorioz, kolpistek herria armekin hartu eta gero bere etxea miatzera joan ziren, arma batzuk aurkituz bertan. Martinek, bere inplikazioa zela eta, aurretik herria utzi zuen eta Eusko Gudarostera batua zegoen, gidari gisa, beronekin borrokatuz, Santoña erori arte. Orduan, militar kolpistek atxilo eraman zuten, El Duesoko espetxera. Espetxean bertan, bere aurkako prozedura bat ireki zuten, Santoñako tribunal militarrean gerra kontseilu batean gauzatu zena eta hemen, altxamenduaren aurka erakutsitako jarreragatik matxinadarekin bat egin zuela egotzi zioten eta 12 urte eta egun bateko espetxealdira kondenatu zuten[834]. Sententzia irmoa jaso zuenean, Puerto Santa Mariako espetxera eta handik gutxira Sevillakora lekualdatu zuten. 1942ko urtarrilaren 26an, Espetxe-kolonia militarizatuetara pasa zuten Martin eta ondorioz hiri honetako Dos Hermanas auzoko La Corchuela bortxazko lanen esparrura eraman zuten[835].

Nació en Itsasondo el 13 de marzo de 1913, pero vino a vivir al caserío Erauso-haundi de Urnieta con la familia; trabajaba como agricultor[833]. Era de ideas nacionalistas, por eso, cuando se dio el golpe de Estado, se puso en manos del Comité de Defensa y realizó guardias y vigilancias en el pueblo. Para ello solía ir armado, y cuando los golpistas tomaron el pueblo por las armas, fueron a inspeccionar su casa y encontraron algunas armas. Martín, debido a su implicación, ya había abandonado el pueblo y se unió al Ejército Vasco; allí, trabajó como conductor y combatió en él hasta la caída de Santoña. Los militares golpistas lo llevaron detenido a la cárcel de El Dueso (Cantabria). Iniciaron un procedimiento en su contra en la misma cárcel, que acabó con un consejo de guerra en el tribunal militar de Santoña; en él por la actitud que tuvo en contra de la sublevación militar, se le imputó adhesión a la rebelión y fue condenado a 12 años y un día de prisión[834]. Cuando recibió la sentencia firme, fue trasladado a la cárcel de Puerto Santa María (Cádiz) y luego a la de Sevilla. El 26 de enero de 1942, Martín fue pasado a la sección de Colonia Penitenciaria Militarizada, por lo cual, fue trasladado al campo de trabajos forzados de La Corchuela que estaba en el barrio Dos Hermanas de dicha ciudad[835].

---

831 UUA, sig. PA00.06. / AMU, sig. PA00.06.

832 AIRMN, 780/38 gobernu-informazioa. / AIRMN, información gubernamental 780/38.

833 UUA, sig. 1305.04. / AMU, sig. 1305.04.

834 AIRMN, 127/37 urgentziazko prozedura sumarisimoa. / AIRMN, procedimiento sumarísimo de urgencia 127/37.

835 AGA, Martin Irizar Oteguiren espetxe-fitxa. / AGA, ficha penitenciaria de Martín Irizar Otegui.

orr.

ISASA GORRITI, MANUEL

1906ko abenduaren 18an jaio zen Urnietan eta herriguneko San Juan kalean bizi zen, Kantoi etxean, saskigile gisa lan eginez[836]. Ideia abertzaleak zituen pertsona zen eta altxatuak herrira sartzear zeudela ihes egitea erabaki zuen eta udal frankistaren txosten baten arabera Eusko Gudarostearekin borrokan jardun zuen[837]. Gerra Zibileko Iparraldeko Frontea erori zenean, 1937ko udan, atxilo eraman zuten kolpistek eta bortxazko lanak egitera behartu, baina bertatik Felipe Aranjuelo eskuindarrak irteten lagundu zion, Isasa-Gorriti familiak 1936ko udan Kantoi etxean ezkutatzen uzteagatik[838]. Halaber 1938ko abenduan, Ondarretako espetxean aurkitzen zen preso, bere aurka tribunal militarrek irekita zuten prozesu bategatik, behin behineko espetxealdian izan zuten 1939ko abenduaren 5a arte, noiz prozesua largestea erabaki zuen tribunalak, Manueli egozten zizkioten ekintzek erantzukizun penalik ez zutela ebatzi eta gero[839].

Nació en Urnieta el 18 de diciembre de 1906, y vivía en la casa Kantoi de la calle San Juan del casco, trabajando de cestero[836]. Era una persona de ideas nacionalistas, y cuando los sublevados estaban a punto de entrar en el pueblo, decidió escaparse. Según un informe del Ayuntamiento franquista combatió con el Ejército Vasco[837]. Cuando cayó el Frente Norte, el verano de 1937, los golpistas se lo llevaron detenido y lo obligaron a hacer trabajos forzados; el derechista Felipe Aranjuelo le ayudó a escapar de allí, porque el verano de 1936 la familia Isasa-Gorriti le había dejado que se ocultara en su casa[838]. En diciembre de 1938, se encontraba de nuevo preso, en la cárcel de Ondarreta, por un proceso que iniciaron en su contra los tribunales militares. Lo tuvieron en prisión preventiva hasta el 5 de diciembre de 1939, cuando el tribunal decidió sobreseer el proceso tras dictaminar que los actos que se le imputaban a Manuel no constituían ninguna responsabilidad penal[839].

ISASA SAN SEBASTIAN, DOMINGO

1899ko martxoaren 9an jaio zen Urnietan eta herriguneko San Juan kalean bizi zen familiarekin. Udaleko udaltzaina zen eta beraz herriko defentsa komitearekin elkarlanean jardun zuen gerraren lehen hilabeteetan, besteak beste, Udaleko diruak bere gain hartu eta Urnietatik ateraz. Kolpisten iraileko erasoaldiak zirela eta, bere emaztea Joaquina Jines eta beraien bi seme-alabak Hernanin babestu ziren eta Domingo berriz Bilbora joan zen[840]. Beste iturri batzuek Hernaniren defentsan borrokatu zuela diote, Santa Barbarako kanoien tirogile nagusi bezala, Urnietan aurkitzen ziren militar kolpisten aurka[841]. Gipuzkoa erori zenean, Bilbon babestea lortu zuen, baina Gerra Zibileko Iparraldeko Frontearen gainbehera zela eta, Santanderrera mugitu zen, non kolpistek atxiki eta Santoñako espetxera eraman zuten. Egonaldi labur bat eta gero, aske utzi zuten eta egoera baliatuz mendietan babestu eta ezkutuan Frantziako Estatura gurutzatzea lortu zuen. Hemendik, Kataluniara pasa zen, bertan mantenduz 1939ko urtarrilera arte, Katalunia kolpisten esku erori eta gero Frantziako Estatuan berriro babestu behar izan baitzen[842].

Frantziako Estatuko segurtasun indarrek, Gurseko kontzentrazio esparrura eraman zuten, non 1939ko ekainaren 18a arte egon zen, noiz esparrua utzi zuen nekazari bezala lan egiten hasteko[843]. Frantziako Estatuan babestua 1943ko maiatza arte egon zen, Hego Euskal Herrira itzuli zen data. Itzuli eta berehala atxilotua izan zen eta Ondarretan espetxeratua, bere aurka irekita zegoen ikerketa bat zela eta. Domingo, prozesatua izan zen eta bere aurkako epaiketa bat burutu zuten tribunal militarrek 1944ko urtarrilaren 18an. Bertan, udaltzain moduan milizianoei emaniko laguntzagatik eta Frantziako estatura





Domingo Isasak udaltzain postua berreskuratzeko idatzitako eskutitza eta Urnietako udalaren erantzuna. (UUA). / Carta de Domingo Isasa para recuperar el puesto de policía municipal y respuesta del Ayuntamiento de Urnieta. (UUA).

[836] UUA, sig. 1305.04. / AMU, sig. 1305.04.

[837] UUA, sig. 1936.01. / AMU, sig. 1936.01.

[838] Unanue, J, (2007), *Garate Itxaso-Asu*, Aiurri aldizkaria, 76 zenbakia, 4 orrialdea. / Unanue, J, (2007), "Garate Itxaso-Asu", revista Aiurri, nº 76, p. 4.

[839] AIRMN, 13272 urgentziazko sumarisimoa. / AIRMN, sumarísimo de urgencia 13272.

[840] UUA, sig. PA00.06. / AMU, sig. PA00.06.

[841] Unanue, J, (2013), Postontzia: Anttoni gaztea, Sabordegikoa, Aiurri aldizkaria, 354 zenbakia, 4 orrialdea. / Unanue, J. (2013), "Postontzia: Anttoni gaztea, Sabordegikoa"; Revista Aiurri, nº 354, p. 4.

[842] AIRMN, 749/43 sumarisimo arrunta. / AIRMN, sumarísimo ordinario 749/43.

[843] EAH, Delegaciones saila, En Perpignan y Oloron azpisaila, Ficheros (Gurs) seriea, Fichero paper-sorta. / AHE, sección Delegaciones, subsección de Perpignan y Oloron, serie Ficheros (Gurs), Fichero legajo.

ihes egiteagatik 12 urte eta egun bateko espetxealdira kondenatu zuten[844]. Hala ere, Domingo otsailean bertan aske utzi zuten, Burgosko Gerra Auditoreak kondena murriztu edota kommutatzea erabaki baitzuen. Behin betiko askatasuna lortuta, Hernanira joan zen bizitzera eta Urnietako Udalari udaltzain postua berreskuratzea eskatu zion baina honek ez zuen eskaria onartu, autoritate frankisten aurkako jarrera erakutsi zuelako eta postu hori armada frankistako kide ohi batentzako gordea zegoelako[845].

Nació el 9 de marzo de 1899 en Urnieta y vivía con la familia en la calle San Juan del casco urbano. Era guardia municipal y, por lo tanto, durante los primeros meses de la guerra estuvo colaborando con el Comité de Defensa local, entre otras cosas, tomando el dinero del Ayuntamiento a su cargo y sacándolo de Urnieta. Debido a las ofensivas de los golpistas, su mujer Joaquina Jinés y sus dos hijos se refugiaron en Hernani y Domingo se fue a Bilbo[840]. Otras fuentes dicen que combatió en la defensa de Hernani, siendo el tirador principal de los cañones de Santa Bárbara contra los golpistas que se encontraban en Urnieta[841]. Cuando cayó Gipuzkoa consiguió refugiarse en Bilbo, pero debido a la debacle del Frente Norte, se movió a Santander, donde fue detenido y encarcelado en la prisión de Santoña (Cantabria). Tras una corta estancia, lo dejaron en libertad y aprovechando la situación se refugió en el monte y logró cruzar al Estado francés a escondidas. De allí pasó a Cataluña, y estuvo allí hasta que en enero de 1939 Cataluña cayó en manos de los golpistas y tuvo que volver a refugiarse en el Estado francés[842].

Las fuerzas de seguridad del Estado francés lo enviaron al campo de concentración de Gurs, donde estuvo hasta el 18 de junio de 1939, cuando dejó el campo y empezó a trabajar como agricultor[843]. Allí estuvo hasta el mayo de 1943, cuando volvió a Hego Euskal Herria. Al poco fue detenido y encarcelado en Ondarreta, debido a una investigación que estaba iniciada en su contra. Domingo fue procesado y los tribunales militares llevaron a cabo un juicio en su contra el 18 de enero de 1944. En él, fue condenado a 12 años y un día de prisión por la ayuda dada a los milicianos como guardia municipal, y por huir al Estado francés[844]. De todos modos, Domingo fue puesto en libertad en febrero ya que el auditor de guerra de Burgos decidió reducir o conmutar su condena. Una vez conseguida la libertad definitiva, se fue a vivir a Hernani y pidió al Ayuntamiento de Urnieta poder recuperar su puesto de guardia municipal. Su petición no fue aceptada porque había mostrado una actitud contraria a las autoridades franquistas y porque ese puesto estaba guardado a un exmiembro del Ejército franquista[845].

LABACA BELDARRAIN, ANASTASIO

1893ko abenduaren 21ean jaio zen, Urnietan eta Orian bizi zen, Bruneteko enpresan lan eginez eta honen etxeetan biziz, bere emazte Valentina Collinekin. Gerra Zibilaren hasierarekin batera, herriko milizientzat lanean hasi zen baina adinez nagusia izanik, Lasarteko abiazio-zelaian peoi moduan lan egiten jarri zuten. Hala ere, altxatuen aurrerakada zela eta, abuztuan auzoa ebakuatzeko deiarekin bat egin eta Bilbora joan ziren biak eta Valentinaren ama[846]. Orduan, autoritate frankista berriek, etxea hutsik zegoela baliatuz, ondasunak konfiskatu zizkieten eta, gainera beraien etxea zegoen eraikina, Iturralde izenekoa, erreketeen kuartel bilakatzeko agindua eman zuten. Gainera, dokumentu berean zehazten da Anastasio Frantziako Estatuan babestu zela[847]. Hala ere, 1939ko urtarrilean Anastasio prozesatua izan zen, nahiz eta preso egon eta gero baldintzapeko askatasuna zuen une horretan. Tribunal militarrek Guillermo eta Alejandro Romo aita-semeekin batera epaitu zuten, baina hirurak libre utzi zituzten, deliturik egin izanaren zantzurik ez zegoela ebatzita[848].

Nació en Urnieta el 21 de diciembre de 1893 y vivía en el barrio Oria de esa localidad. Trabajaba en la empresa Brunet y vivía en sus casas junto a su mujer Valentina Collín. Al iniciarse la Guerra Civil, empezó a trabajar para las milicias locales, pero como era mayor de edad, lo pusieron a trabajar como peón en el campo de aviación de Lasarte. De todos modos, debido al avance de los sublevados, en agosto se unió a la llamada de evacuación del barrio y se fue a Bilbo junto con su esposa y la madre de esta[846]. Entonces, las nuevas autoridades franquistas, aprovechando que la casa estaba vacía, les confiscaron los bienes; además, ordenaron que el edificio donde estaba su casa, llamada Iturralde, se convirtiera en cuartel de los requetés. En el mismo documento se precisa que Anastasio se refugió en el Estado francés[847]. De todos modos, en enero de 1939 Anastasio fue procesado después de haber logrado la libertad condicional tras un periodo de encarcelamiento. Los tribunales militares lo juzgaron junto a Guillermo y Alejandro Romo, padre e hijo, pero absolvieron a los tres, tras determinar que no había ningún rastro de delito[848].

LASARTE LARBURU[849], BARTOLOME

Autoritate frankista berriek, bera eta beste hiru herritarren (Manuel Arbiza, Gregorio Echeverria eta Antonio Gorriti) aurkako prozedura bat ireki zuten, baina Lasarteko Komandantzia Militarrak jakinarazi zien beraien aurkako epaiketan absolbitu egin zituztela 1937ko maiatzaren 22an[850].

---

[844] AIRMN, 749/43 sumarisimo arrunta. / AAIRMN, sumarísimo ordinario 749/43.

[845] UUA, 1944ko udal-korrespondentzia. / AMU, correspondencia municipal de 1944.

[846] UUA, sig. PA00.06. / AMU, sig. PA00.06.

[847] UUA, sig. PL12-1937. / AMU, sig. PL12-1937.

[848] AIRMN, 770 gobernu-informazioa. / AIRMN, información gubernamental 770.

[849] Dokumentuan ez da bigarren abizenik agertzen, Lasarte Larburu, Bartolome izan daiteke, baina Frantziako Estatuan errefuxiatu zenez, beste persona bat ere izan daiteke. / En el documento no aparece el segundo apellido; podría ser Lasarte Larburu, Bartolomé, pero como se refugió en el Estado francés, también podría ser otra persona.

[850] UUA, 1938ko udal-korrespondentzia. / AMU, correspondencia municipal de 1938.

Las nuevas autoridades franquistas iniciaron un proceso contra él y otros tres urnietarras (Manuel Arbiza, Gregorio Echeverria y Antonio Gorriti), pero la Comandancia Militar de Lasarte les notificó que en el juicio llevado a cabo en su contra, el 22 de mayo de 1937, fueron absueltos[850].

LASARTE LARBURU, PEDRO MANUEL

1872ko azaroaren 25ean jaio zen Urnietan eta herriguneko Sabino Arana kalean bizi zen Matxoenea etxean, Antonia Barcaizteguirekin ezkondua, bere lurrak lantzea zuelarik ogibide[851]. Herriko EAJren taldeko sortzaileetako bat izan zen Manuel eta 1936ko udan gerrak eztanda egiterekin batera, Manuelen bi semeak, Roque eta Angel herriko defentsa komiteko kide nabarmenak izan ziren. Manuelen kasuan, gerraren gertutasuna zela eta, abuztuaren 8an Zulueta baserrira joan zen babes bila, eta bertatik soilik zutabe erreketeek herria hartu eta gero, Andoaingo Guardia Zibilak deklaratzera deitu zuenean jaitsi zen. Bertan atxilotu egin zuten eta egun batzuk herri honetako espetxean izan eta gero, Donostiako Ondarretakora lekualdatu zuten irailaren 26an.

Andoaingo Guardia Zibilaren aurrean, Luis Recondok salaketa oso larria egin zuen Manuelen aurka, esanez mugimendu frankistaren aurkako kide nabarmena zela eta propaganda abertzale ugari egin zuela. Gainera, azken hauteskundeetan pistola eskuan estatu-kolpea babestu zuten alderdien aurkako mehatxuak burutu zituela eta Luis bera erasotu zuela adierazi zuen. Azkenik, gerra garaian, defentsa komitearentzat etengabeko lana egin zuela ere, espia eta kontu-hartzaile bezala. Fiskaltzak salaketa hau oinarri hartuz prozesu bat ireki zuen Manuelen aurka eta tribunalak, hitzez hitz Luis Recondoren salaketa bere egin zuen eta heriotz zigorrera kondenatu zuen Manuel 1936ko urriaren 11n. Sententzia egun gutxitan irmoa egin zen eta Manuel Ondarretako espetxean fusilatu zuten irailaren 20an, Polloeko hilerrian lurperatuz[852].

Nació en Urnieta el 25 de noviembre de 1872 y vivía en la casa Matxoenea de la calle Sabino Arana del casco urbano, junto a su mujer Antonia Barcaiztegui; de oficio era agricultor[851]. Fue uno de los fundadores del PNV local. El verano de 1936, al estallar la guerra, los dos hijos de Manuel, Roque y Ángel, fueron miembros destacados del Comité de Defensa local. En el caso de Manuel, debido a la cercanía de la guerra, el 8 de agosto se fue al caserío Zulueta en busca de refugio; de allí, solamente bajó después de que el pueblo fuera tomado por las columnas requetés y fuera llamado a declarar por la Guardia Civil de Andoain. Lo detuvieron allí mismo y tras pasar unos días en la cárcel de esa localidad, fue trasladado al de Ondarreta el 26 de septiembre.

Luis Recondo puso una denuncia muy grave contra Manuel ante la Guardia Civil de Andoain, diciendo que era un miembro destacado contra el movimiento franquista y que había hecho mucha propaganda nacionalista. Además, declaró que en las últimas elecciones realizó amenazas, pistola en mano, contra partidos que apoyaron el golpe de Estado, y que atacó a Luis mismo; finalmente, que durante la guerra trabajó continuamente para el Comité de Defensa como espía e interventor. La fiscalía inició un proceso contra Manuel tomando como base esta denuncia; el tribunal hizo suya la denuncia de Luis Recondo palabra por palabra y condenó a Manuel a la pena de muerte, el 11 de octubre de 1936. La sentencia fue firme a los pocos días y Manuel fue fusilado en la cárcel de Ondarreta el 20 de septiembre; fue enterrado en el cementerio de Polloe[852].

Pedro Manuel Lasarte, 1929an Juan Bautista Zumalacarreguiri eginiko omenaldian. (Erretratu Zaharrak). / **Pedro Manuel Lasarte, en el homenaje a Juan Bautista Zumalacarregui en 1929.** (Erretratu Zaharrak).

[851] UUA, sig. PA00.06. / AMU, sig. PA00.06.
[852] AIRMN, 489/36 kausa. / AIRMN, causa 489/36.

LEZA CASADO, JOSE

Donostian bizi zen Errepublika garaian eta bertako UGTko militantea zen. Horrela, altxamendua eman zenean, lehen egunetatik hiriko defentsa komitearen aginduetara jarri zen, estatu-kolpea babesten zuten herritarren atxiloketetan parte hartuz. Horretaz gain, gidari bezala ere lan egin zuen, pertsonen eta hornigaien garraioan. Behin hiria kolpisten esku erori zenean, hau utzi eta Eusko Gudarostean engaiatu zen, fusilari gisa borrokatuz Gerra Zibileko Iparraldeko Frontea erori arte. Orduan, Donostiara itzultzeko aukera izan zuen baina 1938ko martxoaren 8an polizia frankistak atxilotu eta Ondarretara eraman zuten preso, bere aurka hiriko tribunal militarrek irekia zuten prozesu bat zela eta. Hau, gerra kontseilu batean gauzatu zen, maiatzaren 11n, non Joseri, Vignau prokuradorearen atxiloketan parte hartu izana eta altxamendu militarraren aurka borrokatu izana egotzi zioten. Horregatik, matxinada militarraren delitua egotzi zioten eta 30 urteko espetxealdira kondenatua izan zen[853]. Behin sententzia irmoa jasota, Jose Puerto Santa Maria (Cadiz) espetxera lekualdatu zuten, bertan kondena bete zezan. Espetxe honetatik aske geratzean Oriara bizitzera etorri zen. Bertan bizi zela, 1941ean tribunal militarrek berriro epaitu nahi izan zuten Gerra Zibilean izan zuen papera zela eta, baina ekintza hauek jada 1938 urtean epaituak izan zirela kontuan izanda, bere aurkako kausa largestea lortu zuen Josek, askatasuna berreskuratuz[854].

Durante la República vivía en Donostia, y era militante del UGT local. Así, cuando se dio la sublevación militar, desde el primer día se puso al servicio del Comité de Defensa de la capital y participó en la detención de ciudadanos que apoyaron el golpe de Estado. Por otro, también trabajó como conductor en el transporte de personas y suministros. Una vez caída la ciudad en manos de los golpistas, huyó de allí y se alistó en el Ejército Vasco; combatió como fusilero hasta la caída del Frente Norte. Entonces, tuvo ocasión de volver a Donostia, pero el 8 de marzo de 1938, fue detenido por la policía franquista y encarcelado en la prisión de Ondarreta, debido a un proceso que habían iniciado los tribunales militares de la ciudad en su contra. El 11 de mayo se llevó a cabo un consejo de guerra, donde se le acusó de haber participado en la detención del procurador Vignau y de combatir en contra de la sublevación militar. Por ello, se le acusó de delito de rebelión militar y fue condenado a 30 años de prisión[853]. Una vez que recibió la sentencia firme, José fue trasladado a la prisión de Puerto Santa María (Cádiz) para que cumpliera la condena. Cuando salió en libertad de esa cárcel, se fue a vivir a Oria. Viviendo allí, en 1941 los tribunales militares quisieron volver a enjuiciarlo por el papel que tuvo durante la Guerra Civil, pero teniendo en cuenta que esas acciones ya fueron juzgadas en 1938, José logró que la causa en su contra fuera sobreseída y recuperó la libertad[854].

LOPEZ GARIN, ANTONIO

1908ko abenduaren 16an jaio zen Donostian baina 1913an familiarekin batera Urnietara bizitzera etorria zen eta bertan saltzaile-bidaiari moduan hasi zen lanean[855]. 1936 urtean, PCE eta UGT antolakundeetan eman zuen izena[856]. Gainera, herriko pertsona batzuek, altxamendua eta gero sortu zen defentsa komiteko buruetako bat izan zela adierazi zuten Roque eta Angel Lasarte Barcaiztegui anaiekin batera[857]. Hori dela eta, familia guztiarekin batera herria utzi zuen eta Eusko Gudarostera batu zen, Santanderreko frontean borrokan zela kolpisten armadak atxiki eta espetxeratu zuelarik, 1937ko abuztuaren 24an[858]. Egoera hau baliatuz, alokatua zuen Idiazabal kaleko gela miatu zuten autoritate frankistek eta bertan zeuden ondasun guztiak konfiskatu zituzten[859]. Espetxealdian zela, bere aurkako prozesu bat ireki zuten tribunal militarrek, 1940an gerra kontseilu batean gauzatu zena, baina ordurako Antonio espetxealdi arinduari esker Pasaian bizi zen. Bilboko gerra auditoreak, maiatzaren 25ean bere aurkako kausa largetsi zuen, udalak Antoniorekiko inolako salaketarik ez zuela adierazi eta gero. Hala ere, ez zuen Antonio aske utzi, baizik eta atxilotu eta bortxazko lanak egitera bidali zuen SLDB batera[860].



Ministerio de Defensa Nacional
Pagaduría Secundaria del Ejército de Tierra
CENTRAL
Negociado de Estadística

Sección 2 Documentos N.º de expediente de: { Pagaduría central Golgo / Subpagaduría 12384

CAUSANTE

Apellidos LOPEZ GARIN Nombre ANTONIO
Natural de SAN SEBASTIAN Provincia de GUIPUZCOA Nació el 20 de 12 1908 de Co
Estado S Filiación política N.º del carnet Fecha del mismo
Profesión viajante Filiación sindical UGT N.º del carnet Fecha del mismo
Ultimo empleo o tajo San Sebastián Cargo Viajante Retribución 9
que Sí dejó de percibir.
Unidad militar en que se enroló Bón. 22 Mzabo Fecha de enrolamiento 20-12-936
Ascendido a BRIGADA el de de 193
Muerto en el de de 193
Desaparecido en Santander el 24 de 8 de 193 7
Inútil según certificación médica expedida el de de 193, como consecuencia de heridas recibidas en el de de 193

DERECHO-HABIENTES

NOMBRE Y APELLIDOS | Edad | Natural de | Sueldo o pensión
de la esposa:
de los hijos:
del padre: Cipriano López Anero 65 Miranda de Ebro
de la madre: Maxima Garín Castillo 55 Pamplona
Dirección: Hotel MOLINS DE LLOBREGAT (BARCELONA)
Observaciones:

Subpagaduría de Golgo N.º del carnet

Antonio Lopez Garinen familiak laguntza ekonomikoa jaso zuen Katalunian errefuxiatuak zeudela, Antonio Santanderren preso egin zutelako. (CDMH). / La familia de Antonio López Garín recibió ayuda económica cuando estaban refugiados en Cataluña, porque Antonio estaba preso en Santander. (CDMH).

Nació en Donostia el 16 de diciembre de 1908, pero en 1913 vino a vivir a Urnieta junto con su familia. Aquí, empezó a trabajar como viajante[855]. En 1936, se inscribió en las organizaciones PCE y UGT[856]. Además, algunas personas del pueblo declararon que, junto a los hermanos Roque y Ángel Lasarte Barcaiztegui, fue uno de los jefes del Comité de Defensa que se creó tras la subleva-

[853] AIMRN, 996/38 prozedura sumarisimoa. / AIRMN, procedimiento sumarísimo 996/38.
[854] AIRMN, 3734 sumarisimo arrunta. / AIRMN, sumarísimo ordinario 3734.
[855] UUA, sig. PA00.06. / AMU, sig. PA00.06.
[856] Ministerio de Cultura y Deporte, Archivo CDMH, OIPA, 3 paper-sorta. / Ministerio de Cultura y Deporte, archivo CDMH, OIPA 3.
[857] AIRMN, 489/36 kausa. / AIRMN, causa 489/36.
[858] Ministerio de Cultura y Deporte, Archivo CDMH, sig. PS-SECCION_MILITAR_PSET,C.104,F.260. / Ministerio de Cultura y Deporte, archivo CDMH, sig. PS-SECCION_MILITAR_PSET, C.104, F.260.
[859] UUA, sig. 1936.01. / AMU, sig. 1936.01.
[860] AIRMN, 2699/38 urgentziazko sumarisimoa. / AIRMN, sumarísimo de urgencia 2699/38.

orr.

ción militar[857]. Debido a ello, abandonó el pueblo junto con toda la familia y se unió al Ejército Vasco; el 24 de agosto de 1937, fue apresado y encarcelado por el Ejército sublevado mientras estaba combatiendo en el frente de Santander[858]. Aprovechando esta situación, las autoridades franquistas inspeccionaron la habitación que tenía alquilada en la calle Idiazabal y confiscaron todos los bienes que había en ella[859]. Estando en prisión, los tribunales militares iniciaron un proceso en su contra, el cual se materializó en un consejo de guerra en 1940; para entonces Antonio vivía en prisión atenuada, en Pasaia. El auditor de guerra de Bilbo, tras ver que el Ayuntamiento no puso ninguna denuncia en contra de Antonio, sobreseyó la causa en su contra el 25 de mayo. De todos modos, no dejó en libertad a Antonio, sino que lo mandó detener y lo envió a un SLDB a hacer trabajos forzosos[860].

MARTIN BARROSO, JUAN

Peñafielen jaioa (Valladolid), Urnietan bizi zen, Gizaldiberri etxean[861]. Bruneteko langilea izandakoa eta UGTra afiliatua, sindikatu honen herriko taldearen sortzaile eta buruetako bat izan zen, idazkari postua izanik tartean. 1934ko Urriko Iraultzan parte hartu zuen eta atxilotua izan zen beste hainbat herritar bezala, bere etxean armak aurkitu baitziren. Horretaz gain, enpresako lankide batekin izandako gatazka batean, berau erailtzea egotzi zioten eta espetxeratua izan zen ondorioz. Fronte Popularrak hauteskundeak irabazi ostean askatasuna berreskuratu zuen[862].

Bartolome Ugaldek Juan Martin Barrosoren aurka bidalitako txostena. (AIRMN). / Informe enviado por Bartolomé Ugalde contra Juan Martín Barroso. (AIRMN).

Estatu-kolpea eta gero, Lasarteko abiazio-zelaian jardun zuen miliziano bezala[863] eta baita MAOC Oria milizietan[864]. Gauzak horrela, Gipuzkoako defentsan borrokatu zuen, Ordizia, Tolosa eta Beasainen. Milizien antolakuntzarako, Brunet jaunen etxeko ondasunak konfiskatu zituen, Oriako kuartelera eramanez. Matxinoen aurrerakada zela eta, herria utzi behar izan zuen iraileko lehen egunetan, intendentzia eta gidari lanak egitera pasaz UHP eta Rosa Luxemburgo batailoietan. 1937ko abuztuaren 26an itsasoz ihes egiten saiatu zen, baina atxiki eta Santurtzira eraman eta espetxeratu egin zuten kolpistek. Orduña eta Murgiako espetxeetan izan eta gero, Gasteizkora eraman zuten eta bertatik, Donostiako Ondarretako espetxera lekualdatu zuten 1938ko abenduaren 16an, bere aurka abiarazita zegoen gerra kontseilua zela eta. Hiriburu honetan epaitu zuten eta Urnietako agintariek bere aurkako txostenak bidali zituzten, ezkertiar nabarmena zela eta 1934ko Iraultzan parte hartu zuela esanez. Horretaz gain, Bruneteko konfiskazioetan eta udaleko idazkari zen Juan Bautista Ayerberen atxiloketan parte hartzea egotzi zioten, Juanek ukatu egin zuena. Bere aurkako epaiketa 1939ko maiatzaren 4an burutu zen eta autoritate frankisten akusazioak ontzat hartuz 12 urte eta egun bateko espetxealdira kondenatu zuten[865]. Gainera Udalak herritik kanpo egon zen garaia baliatuz bizi zen etxeko ondasunak konfiskatu zizkion[866]. 1942ko otsailaren 15ean deserriratzerik gabeko baldintzapeko askatasunarekin aske geratu zen[867].

Nació en Peñafiel (Valladolid) pero vivía en la casa Gizaldi-berri de Urnieta[861]. Era trabajador de Brunet, afiliado a UGT y uno de los creadores y jefes del grupo local del sindicato, del que fue incluso secretario. Participó en la Revolución de Octubre de 1934 y fue detenido por esa razón, junto con otros muchos vecinos, ya que se encontraron armas en su casa. Además, en una disputa que tuvo con un compañero de trabajo en la empresa, le acusaron de haberlo asesinado y fue encarcelado. Recuperó la libertad tras la victoria del Frente Popular en las elecciones[862].

Tras el golpe de Estado, anduvo como miliciano en el campo de aviación de Lasarte[863] y también como miliciano de las milicias MAOC Oria[864]. Con todo, combatió por la defensa de Gipuzkoa en Ordizia, Tolosa y Beasain. Confiscó varios bienes de la casa de los señores Brunet y los llevó al cuartel local. Debido al avance de los sublevados, tuvo que abandonar el pueblo a principios de septiembre, y pasó a hacer trabajos de intendencia y de conductor en los batallones UHP y Rosa Luxemburgo. El 26 de agosto de 1937 intentó huir por mar, pero lo apresaron y fue llevado y encarcelado en Santurtzi por los golpistas. Tras estar en las cárceles de Orduña y Murgia, fue llevado a la de Gasteiz y, de allí, a la de Ondarreta en Donostia, el 16 de diciembre de 1938, debido al consejo de guerra que habían iniciado en su contra. Fue juzgado en esa capital. Las autoridades de Urnieta enviaron informes en su contra, diciendo que era un destacado izquierdista y que había participado en la Revolución de 1934. Además, le acusaron de haber participado en las confiscaciones de Brunet y en la detención del secretario municipal Juan Bautista Ayerbe; Juan lo negó.

[861] UUA, sig. 1936.01. / AMU, sig. 1936.01.
[862] AIRMN, 14525/38 urgentziazko sumarisimoa. / AIRMN, sumarísimo de urgencia 14525/38.
[863] Egaña, I. (et. al) (2000). / Egaña, I. (et. al) (2000).
[864] Ministerio de Cultura y Deporte, Archivo CDMH, sig. PS Bilbao, 64 paper-sorta. / Ministerio de Cultura y Deporte, archivo CDMH, sig. PS Bilbao 64.
[865] AIRMN, 14525/38 urgentziazko sumarisimoa. / AIRMN, sumarísimo de urgencia 14525/38.
[866] UUA, sig. 1936.01. / AMU, sig. 1936.01.
[867] GAHP, Juan Martin Barrosoren espetxe-espedientea. / AHPG, expediente penitenciario de Juan Martín Barroso.

El juicio en su contra se llevó a cabo el 4 de mayo de 1939, y tomando como buenas las acusaciones de las autoridades franquistas fue condenado a 12 años y un día de prisión[865]. Además, el Ayuntamiento le confiscó los bienes de la casa en la que vivía, aprovechando la época que estuvo fuera del pueblo[866]. El 15 de febrero de 1942 quedó en libertad condicional sin destierro[867].

MARTINEZ ADARRAGA, JOSE

1916ko irailaren 29an jaio zen, Oria auzoan bizi zelarik eta auzoko industrietako bulegoetako idazkari bezala lan egiten zuen estatu-kolpearen aurretik[868]. Gerrak eztanda egitean, auzoan antolatzen hasi ziren milizietara batu zen lehen unetik. Hasiera batean Lasarteko abiazio-zelaian hasi zen lanean, baina frontea herrira hurbiltzen zela ikusita, MAOC batailoira batu zen frontera borrokatzera joanez. Armada kolpistaren erasoaldiak zirela eta, herria utzi eta Gipuzkoa osoan borrokatu ostean atzerakadan Rosa Luxemburgo batailoi komunistara batu zen[869]. Josek Euskal Herri osoan borrokatu zuen eta Santanderreraino joan zen atzerakadan, non kolpisten esku geratu zen, eta bertatik Bilbora joan zen bertako autoritate militar frankisten aurrean aurkeztuz. Hauek, prozesu bat ireki zioten eta espetxeratua izan zen 1940ko otsailaren 10ean Eskolapioen espetxetik baldintzapeko askatasunarekin irten zen arte[870]. 1940ko maiatzean, bere aurkako prozesua behin-betiko itxi zen, Josek inolako erantzukizunik ez zuela ebatzi baitzen[871].

Hala ere, hor ez zen amaitu Joseren aurkako jazarpena. Izan ere, soldadutza egitera deitu zuten aske utzi eta berehala, eta bere aurrekari politikoak zirela eta hasiera batean Miranda de Ebro eta Miguel de Unamuno (Madril) kontzentrazio esparruetan izan zuten preso. Azken honetan, soldadu langile bezala identifikatu eta 28 SLDBra bidali zuten, Madrilen bertan. Bortxazko lanak egiten 1941eko otsailaren 4a arte izan zuten eta ondoren urte bat eta bederatzi hilabetez soldadutza egitera behartu zuten[872]. SLDBtik soldadutzara pasa ahal izatea, bere aitak Jose semearen aldeko Urnietako udal frankistaren eskutitz bat lortu izanari esker izan zen[873]. Ezin izan zen 1942ko azaroa arte Oriara itzuli.

Nació el 29 de septiembre de 1916, vivía en el barrio Oria y antes del golpe de Estado trabajaba como secretario en las oficinas de la industria del barrio[868]. Cuando estalló la guerra, desde el inicio se unió a las milicias que empezaron a organizarse en el barrio. Al principio, empezó a trabajar en el campo de aviación de Lasarte, pero al ver que el frente se acercaba al pueblo, se unió al batallón MAOC y fue a combatir en él. Debido a las ofensivas del Ejército golpista, dejó el pueblo, y tras combatir por toda Gipuzkoa, se unió al batallón comunista Rosa Luxemburgo en retirada[869]. José combatió por toda Euskal Herria y se fue en retirada hasta Santander, donde fue apresado por los golpistas; de allí se fue a Bilbo y se presentó antes las autoridades militares franquistas. Estos iniciaron un proceso en su contra, y antes de que terminara el mismo fue encarcelado, hasta el 10 de febrero de 1940, fecha en la que salió en libertad condicional de la cárcel de los Escolapios[870]. En mayo de 1940, se cerró para siempre el proceso en su contra, donde se dictaminó que José no tenía ninguna responsabilidad[871].

Jose Martinez Adarraga, Rosa Luxemburgoko kideekin. (AIRMN). / José Martínez Adarraga, con los compañeros del Rosa Luxemburgo. (AIRMN).

[868] UUA, sig. PA00.06. / AMU, sig. PA00.06.
[869] Egaña, I. (et. al) (2000). / Egaña, I. (et. al) (2000).
[870] UUA, sig. 1307.01. / AMU, sig. 1307.01.
[871] AIRMN, 101403/43 presoen informazioa. / AIRMN, información de los presos 101403/43.
[872] AGMG, BDST, 1810 kaxa, 88352 espedientea. / AGMG, BDST, caja 1810, exp. 88352.
[873] UUA, 1940ko udal-korrespondentzia. / AMU, correspondencia municipal de 1940.

De todos modos, no terminó ahí la persecución en contra de José. Al poco de dejarlo en libertad, lo llamaron a hacer el servicio militar y, debido a sus antecedentes políticos, al principio lo tuvieron prisionero en los campos de concentración de Miranda de Ebro (Burgos) y Miguel de Unamuno (Madrid). En ese último fue identificado como soldado trabajador y fue enviado al 28º BDST de Madrid. Lo tuvieron haciendo trabajos forzados hasta el 4 de febrero de 1941 y, después, lo obligaron a hacer el servicio militar durante un año y nueve meses[872]. Que José consiguiera pasar de estar en un BDST a hacer el servicio militar, fue después de que su padre consiguiera una carta favorable a su hijo en el Ayuntamiento franquista de Urnieta[873]. No pudo volver a Oria hasta el noviembre de 1942.

MATA DE LA FUENTE, DANIEL

Gallartarra jaiotzez, 1892ko otsailaren 21ean, bera eta bere familia Lasartera bizitzera etorri ziren 1927an. Gumersinda Garciarekin ezkondua zegoen eta hiru seme alaba zituzten. Lasarteko bizilagun ugari bezala, abuztuan Andoain aldetik gerra hotsak iritsi zirenean, etxea utzi eta Bizkaia alderako bideari ekin zioten[874]. Bertan, mobilizazio orokorrerako deia iritsi zenean, Daniel Eusko Gudarostera batu zen, Diziplinazko batailoian jardun zuelarik gerrak iraun zuen hilabeteetan, lubakiak egiten[875]. Erregimen frankistaren aurka erakutsi zuen jarreragatik, Danielen aurkako ikerketa bat hasi zuten tribunal militarrek, baina hau 1940ko urtarrilaren 8an artxibatu egin zuten, froga falta zela eta[876].

Nació en Gallarta el 21 de febrero de 1892; en 1927 vino con su familia a vivir a Lasarte. Estaba casado con Gumersinda García y tenían tres hijos. Como muchos lasartearras, cuando en agosto llegaron ruidos de guerra desde Andoain, dejaron la casa y se fueron hacia Bizkaia[874]. Allí, cuando llegó el llamamiento a la movilización general, Daniel se unió al Ejército Vasco y, durante los meses que duró la guerra, estuvo en el batallón Disciplinario haciendo trincheras[875]. Por la actitud que tuvo contra el régimen franquista, los tribunales militares iniciaron una investigación contra Daniel, pero se archivó el 8 de enero de 1940 por falta de pruebas[876].

MENDEZ MENDOZA, JUAN MARIA

Domingo eta Eugeniaren semea, Urnietan jaio zen 1912ko urriaren 8an, baina 1933rako jada ez zen Urnietan bizi[877]. Altxamendua eman zenean, Astigarragan bizi zen eta bertako ELAko taldeko kidea zen Juan Maria. Horrela, erreketeen zutabeen erasoen aurrean herri horretan antolatzen hasi ziren milizietara batu zen[878]. Badirudi kolpistek Euskal Herria armekin hartu eta gero atxilotua eta Burgosen espetxeratua izan zela. Bertan prozesu bat abiarazi baitzuten bere aurka, 1938ko abenduan, non erantzukizun deklarazio gabe berau artxibatu egin zuten[879].

Hijo de Domingo y Eugenia, nació el 8 de octubre de 1912 en Urnieta, pero para 1933 ya no vivía allí[877]. Cuando se dio la sublevación militar vivía en Astigarraga y era miembro del sindicato ELA local. Así, ante las ofensivas de las columnas de los requetés se unió a las milicias que empezaron a organizarse en ese pueblo[878]. Al parecer, fue detenido y encarcelado en la prisión de Burgos tras haber sido tomado Euskal Herria por las armas. Allí iniciaron un proceso en su contra en diciembre de 1938, pero lo archivaron sin declaración de responsabilidades[879].

MINER TELLECHEA, JUAN BAUTISTA

1872ko urtarrilaren 9an jaio zen Urnietan eta bere familiarekin Altugain baserrian bizi zen, nekazaria zen. Altxamendua eman zenean familia baserrian geratu zen, baina Martin semeak herria utzi zuen eta errefuxiatu bezala joan zen. Kolpistek Euskal Herria armen bitartez hartu eta gero, Martinen kasuan, atxilotu eta gero kolpisten armadarekin borrokatzera behartu zuten, America 23 batailoian. Batailoi honekin borrokan zela hil zen Martin[880]. 1939 martxoan, Juan Bautista eta bere emaztea Maria Cruz, behin-behinean atxilotu zituzten beraien etxean legez kanpoko bilerak egiten zirela salatu baitzuten. Tribunal militarrek, hilabeteko kartzela zigorra ezarri zieten, gobernu-zigor baten ondorioz eta irailaren 11n aske geratu ziren[881].

Miner Urretavizcaya sendiaren argazkia, atzean Martin, Jose eta Ramon (armada frankistan borrokatzera behartuak, Martin gainera frontean hil zuten). Eserita haurrak altzoan Juan Bautista Miner eta Maria Cruz Urretavizcaya Zalacain, biak espetxeratuak. (Erretratu Zaharrak). / **Foto de la familia Miner Urretavizcaya, detrás Martín, José y Ramón (obligados a combatir en el ejército franquista, Martín fue asesinado además en el frente). Sentados en el alcázar Juan Bautista Miner y María Cruz Urretavizcaya Zalacain, ambos encarcelados.** (Erretratu Zaharrak).

874 UUA, sig. PA00.06. / AMU, sig. PA00.06.
875 Egaña, I. (et. al) (2000). / Egaña, I. (et. al) (2000).
876 AIRMN, 11111/39 aurretiazko ekinbideak. / AIRMN, diligencias previas 11111/39.
877 UUA, sig. PA00.06. / AMU, sig. PA00.06.
878 Egaña, I. (et. al) (2000). / Egaña, I. (et. al) (2000).
879 AIRMN, 8844/38 aurretiazko eginbideak. / AIRMN, diligencias previas 8844/38.
880 UUA, 1936ko udal-korrespondentzia / AMU, correspondencia municipal de 1936.
881 AIRMN, 1939 urteko kausa / AIRMN, causa del año 1939.

Nació en Urnieta el 9 de enero de 1872 y vivía junto a su familia en el caserío Altugain; era agricultor. Cuando se dio la sublevación militar, la familia se quedó en el caserío, excepto su hijo Martín que dejó el pueblo y se fue como refugiado. Después de que los golpistas tomaran Euskal Herria por las armas, Martín fue detenido y obligado a combatir con el Ejército golpista, en el batallón América 23. Martín murió en combate con ese batallón[880]. En marzo de 1939, Juan Bautista y su mujer María Cruz fueron detenidos preventivamente porque fueron acusados de organizar reuniones clandestinas en su casa. Los tribunales militares les impusieron una condena de un mes de prisión, por una sanción gubernativa; quedaron en libertad el 11 de septiembre[881].

MONTES ASPIAZU, JACINTO

Urnietan jaioa 1915eko uztailaren 18an, Zizurkilen bizi zen Jacinto[882]. UGT sindikatura afiliatua zegoen eta altxamendua eman zenean, Villabonan honen aurka borrokatzeko milizietara batu zen lehen unetik, beranduago JSUren Rusia batailoian engaiatu zen. Batailoi honekin borrokatu zuen gerra guztian zehar, bai Gipuzkoa eta Bizkaiaren defentsan, baita Asturiasen ere. Bizkaiako frontea erortzean Santanderren babestu ziren, bertan batailoiko kide gehienak kolpisten esku geratu zirelarik. Jacintoren kasuan, atxiki eta Bilbora eraman zuten preso, bertako hainbat espetxetatik pasa zelarik, bere aurka hiriko tribunal militarrek prozesu bat irekita baitzituzten. El Carmeloko espetxean preso zela, 1938ko azaroaren 26an hil zen, nefritis gaixotasunaren ondorioz[883]. Beste iturri batzuek Escolapioen espetxean zegoela preso diote eta 1939ko maiatzaren 2an hil zela espetxean[884].

Nació en Urnieta el 18 de julio de 1915, pero vivía en Zizurkil[882]. Estaba afiliado al sindicato UGT, y cuando se dio la sublevación militar, desde el principio se unió a las milicias que se organizaron en su contra en Villabona; más tarde, combatió en el batallón Rusia de las JSU. Con este batallón combatió durante toda la guerra, tanto en la defensa de Gipuzkoa y de Bizkaia, como en la de Asturias. Al caer el frente de Bizkaia se refugiaron en Santander, pero casi todos los miembros del batallón cayeron en manos de los golpistas. En el caso de Jacinto, lo apresaron y se lo llevaron a Bilbo; pasó por varias de las cárceles de allí porque los tribunales militares de la ciudad habían iniciado un proceso en su contra. Murió de nefritis el 26 de noviembre de 1938, estando en la cárcel de El Carmelo[883]. Otras fuentes dicen que estaba en la cárcel de los Escolapios y murió el 2 de mayo de 1939[884].

Comisariado de Guerra — Negociado de Movilización

Nombre del miliciano: Jacinto
Apellidos: Montes Aspiazu
Fecha del nacimiento: 18 Julio 1915
Estado: Soltero
Lugar de donde procede: Villabona
Domicilio: Caserío Ulare
Ha servido en el Ejército: No
Arma y Cuerpo: fusiles
Categoría actual: Miliciano
Columna o frente donde actúa: Varios
Grupo o milicia a que pertenece: Compañía "Rusia" Batallón
Nombre de su Jefe: Luis Andonegui
Día en que empezó a prestar servicio: 19 de Julio
Partido a que está afiliado: U.G.T.
Conforme con lo anterior ficha
El Jefe de
Luis Andonegui

Jacinto Montesen mobilizazio dokumentua. (CDMH). / Documento de movilización de Jacinto Montes. (CDMH).

MUGA GARCIA, ELIAS

Urnietan jaio zen 1909 urtean, baina Donostiara bizitzera joana zen gurasoekin 1930 aurretik[885]. Hiri honetako alderdi sozialistara eta JS antolakundera afiliatua zegoen, azken honetako kide nabarmenetako bat zelarik gainera, 1934an bertako buruzagi izendatu baitzuten. Altxamendua eman zenean, Madrilen aurkitzen zen arrazoi politikodun bidaia batean Elias baina Euskal Herrira itzultzea lortu zuen[886] eta Gipuzkoaren defentsan antolatu zen lehen batailoietako batera batu zen, Rusia izenekoa (JSU) eta probintzia honetan eta Bizkaiako fronte ezberdinetan borrokatu zuen[887]. Horretaz gain, Asturiaseko defentsara joan ziren euskal milizianoetako bat izan zen, 1936ko azaroan asturiar frontean zauritu baitzuten[888]. Bizkaiara itzulita, batailoiarekin Durangon aurkitzen zen unean, herri honetako falangeko kide nabarmena zen pertsona bat eta beste falangista batzuk babestu zituen. Halaber, 1937ko udaberrian frontea erori zenean, atzerakadari ekin zion bere batailoiak, 1937ko abuztuan Santanderren kolpisten esku geratu ziren arte. Bertatik, Elias El Duesoko espetxera eraman zuten preso eta gutxira, azaroan epaitua izan zen, eta miliziano izateagatik 12 urteko espetxealdira kondenatu zuten. Eliasek errekurtsoa jartzea lortu zuen eta prozesua irekitzea erabaki zuen auditoreak[889]. Honi esker, epaiketa errepikatu zen 1941 urtean eta Elias espetxeali arinduan aurkitzen zen jada, Donostian bizitzen. Bertan, gerra auditoreak erabaki zuen, falangistak babestean erakutsi zuen jarrerari esker, gerran burutu zituen gainontzeko ekintzek garrantzia penalik ez zutela eta honi esker behin-betiko askatasunarekin aske geratu zen Elias[890].

Nació en Urnieta en 1909, pero se había ido a vivir a Donostia antes de 1930[885]. Estaba afiliado al partido socialista y a la organización JSU de esa ciudad; además, era un miembro destacado de JSU, pues en 1934 pasó a ser su dirigente. Cuando se dio la sublevación militar, se encontraba en Madrid por un viaje de razones políticas, pero consiguió volver a Euskal Herria[886]. Una vez

[882] UUA, sig. 1306.01 / AMU, sig. 1306.01.
[883] Egaña, I. (et. al) (2000) / Egaña, I. (et. al) (2000).
[884] AIRMN, 12282/38 urgentziazko prozedura sumarisimoa / AIRMN, procedimiento sumarísimo de urgencia 12282/38.
[885] UUA, sig. 1304.04 / AMU, sig. 1304.04.
[886] AIRMN, 3763 sumarisimo arrunta / AIRMN, sumarísimo ordinario 3763.
[887] Egaña, I. (et. al) (2000) / Egaña, I. (et. al) (2000).
[888] Ministerio de Cultura y Deporte, Archivo CDMH, PS Gijon "F", 41 paper-sorta / Ministerio de Cultura y Deporte, archivo CDMH, PS Gijón F 41.
[889] AIRMN, 172/37 urgentziazko prozedura sumarisimoa / AIRMN, procedimiento sumarísimo de urgencia 172/37.
[890] AIRMN, 3763 sumarisimo arrunta / AIRMN, sumarísimo ordinario 3763.

allí, se unió a uno de los primeros batallones que se organizaron en defensa de Gipuzkoa, el batallón Rusia del JSU, con el que combatió en varios frentes de Gipuzkoa y Bizkaia[887]. Además, fue uno de los milicianos vascos que fueron a defender Asturias, pues en noviembre de 1936 fue herido en el frente[888]. Cuando volvió a Bizkaia, estando en Durango con el batallón, protegió a un miembro destacado de la falange y a otros falangistas de ese pueblo. Por otro lado, en la primavera de 1937, cuando cayó el frente, su batallón se abrió en retirada, hasta que en agosto de 1937 quedaron en manos de los golpistas en Santander. De allí, Elías fue encarcelado en la prisión de El Dueso (Santoña, Cantabria). En seguida, en noviembre, fue juzgado y condenado a 12 años de prisión por ser miliciano. Elías logró interponer un recurso y el auditor decidió abrir de nuevo el proceso[889]. Gracias a ello, estando Elías en prisión atenuada viviendo en Donostia, en 1941 se repitió el juicio. En él, el auditor de guerra decidió que las acciones que hizo durante la guerra no tuvieran importancia penal, porque había protegido a los falangistas, y Elías quedó en libertad definitiva[890].

MUGICA BERRAONDO, ANTONIO

1902ko otsailaren 9an jaio zen Urnietan baina Altzan bizi zen, bertan tornulari-mekaniko bezala lan eginez. Pertsona erlijiosoa zen oso eta ideologia abertzalea zuena, gainera EAJ alderdira afiliatua zegoen. Horrela gerra hastearekin batera, herriko defentsa komitearentzat zaintzak egin zituen Altzako elizaren aurrean, berau babesteko. Kolpistek Gipuzkoaren aurka irailean burututako erasoaldia zela eta, Altza utzi eta Eusko Gudarostean engaiatu zen (Saseta batailoian[891]) hasiera batean kabo izendatu zuten eta sarjentu beranduago. 1937ko udaberrian, Bizkaiako frontearen haustura eta gero, Gernikan metrailadoreen teniente izendatu zuten, kargu horretan jardun zuelarik Bilbo erori arte, non kolpistek preso atzitu zuten.

Kolpisten aurka izan zuen jarreragatik gerra kontseilu bat abiatu zuten bere aurka eta 1939ko otsailean Logroñoko espetxera eraman zuten behin-behineko espetxealdi egoeran. Errioxan izan zuten preso 1940 arte, noiz Ondarretara lekualdatu zuten. Urte bereko otsailean auzitegi frankistek bere aurkako epaia igorri zuten eta Antonio sei hilabete eta egun bateko espetxealdira kondenatu zuten. Hau dela eta, aske geratu zen, kondena baino 2 urte gehiago pasa behar izan zituelarik preso[892].

Nació en Urnieta el 9 de febrero de 1902, pero vivía en Altza; trabajaba como tornero mecánico. Era una persona muy religiosa y ideología abertzale; estaba afiliado al PNV. Al comienzo de la guerra, realizó guardias para el Comité de Defensa local ante la iglesia de Altza, para protegerlo. Debido a la ofensiva realizada por los golpistas en septiembre contra Gipuzkoa, huyó de Altza y se alistó en el batallón Saseta[891] del Ejército Vasco; al principio tenía graduación de cabo y más tarde de sargento. En la primavera de 1937, tras fracturarse el frente de Bizkaia, fue nombrado teniente de ametralladoras; estuvo en ese cargo hasta que Bilbo cayó y fue apresado por los golpistas.

Iniciaron un consejo de guerra en su contra por la actitud que tuvo contra los golpistas, y el febrero de 1939 fue trasladado a la prisión de Logroño en situación de prisión preventiva. Estuvo encarcelado en La Rioja hasta 1940, cuando fue trasladado a Ondarreta. En febrero del mismo año, los juzgados franquistas notificaron la sentencia en su contra y condenaron a Antonio a seis meses y un día de prisión. Por ello quedó en libertad, pues estuvo encarcelado 2 años más de lo que marcaba la condena[892].

MUÑOZ JIMENO, VICTORIANO "TORINO"

1912ko martxoaren 25ean jaio zen, Valladolid hirian, baina Euskal Herrira etorria zen bizitzera, Oriara 1934 urtean etorriz, bere emazte eta alabarekin, Fidela Martin eta Maria Angeles Muñoz[893]. Bere anaia eta gurasoekin batera aurretik Donostian bizi izan ziren eta hauek hiri honetan bizitzen jarraitzen zuten. JS antolakundera afiliatua, komunista konbentzitua zen eta Urnietan *Euzkadi Roja* aldizkaria banatzeaz arduratu zen. Horrela, herrira iritsi eta gutxira, 1934ko Urriko Iraultzaren baitan eman ziren mobilizazioetan parte hartu zuen, besteak beste ogiz betetako kamioi bat gelditu eta herrikideen artean ogia banatuz. Testigu batzuen arabera, matxinada honetan parte hartzeagatik espetxeratua izan zen, Fronte Popularrak 1936an amnistiatu zuen arte.

Urte berean estatu-kolpe saiakera eman zenean, honen aurka antolatu ziren milizietara batu zen lehen unetik, eta bere bi anai Julian eta Alejandrorekin Donostiako defentsara batu zen pistola eskuan, Loiolako militar kolpisten aurka borrokatzeko. Horrela, Maria Kristina hotelean zeuden militarren aurkako borrokan nabarmendu zen, hauek errenditzeko negoziaketan parte hartu zuelarik, mezulari moduan. Behin hiriburuko kontrola berreskuratuta, Oriara itzuli zen eta bertan antolatzen zebiltzan MAOC milizietako kide izatera pasa zen eta Lasarteko abiazio-zelaian ere lan egin zuen. Horretaz gain, errepideetan eraikitako barrikadetan zaintzak egin zituen, horietako batean Eduardo Gaytan Bruneteko banka-gizona askatzeko sinadura bilketan parte hartuz, Donostian preso zena. Orian buzo urdinarekin eta zapi gorri batekin joaten zen miliziano asko bezala eta Bruneteko eskoletan ezarria zuten kuartela. Baina irailean, Molaren erreketeen erasoaldiak herria uztera behartu zuen, familiarekin atzerakadan Bilboraino joanez. Bertan, UHP batailoira batu zen eta Elorriora joan zen frontera, dinamitari gisa, sarjentu izatera iritsiz. Intxortako frontearen gainbeherarekin, Errigoitira joan ziren atzerakadan eta hor, baserri batean babestuak zeuden Muxikako Catalina Jayo eta Gernikako Magdalena Vidaguren babesteaz arduratu zen, behiak itzuli eta anai bat askatzeaz arduratuz. Baina Bilboren aurkako erasoaldiek postu hau utzi eta Santanderrera arte erretiratzera behartu zuten, non itsasontzi bat hartu eta itsasoz ihes egiten saiatu zen. Baina itsas-armada frankistaren

[891] Egaña, I. (et. al) (2000) / Egaña, I. (et. al) (2000).
[892] GPAH, Antonio Mugica Berraondoren espetxe-espedientea / AHPG, expediente penitenciario de Antonio Mugica Berraondo.
[893] UUA, sig. PA00.06 / AMU, sig. PA00.06.

blokeoa zela eta atxiki egin zuten eta espetxeratua izan zen 1937ko abuztuaren 26an. Frontea erori aurretik, bere emaztea eta alabak Frantziako Estatura ihes egitea lortu zuten itsasontziz.

Santoñan preso zela, bertako sailkatze batzordeak bortxazko lanak egitera bidali zuen Miranda de Ebroko kontzentrazio esparrura, Gasteizera doan errepidean lanak egitera. 1938ko apirilean, errepide honetan lanean zela, Vicente Alonso eta Mario Hormaechea militarrek ikusi eta salaketa bat egin zuten bere aurka, esanez Donostiako borroketan militar kolpista batzuk erail zituela eta gauza bera egin zuela 1934ko Iraultzan. Miliziano bezala hainbat lapurreta egin zituela salatu zuten gainera. Salaketa hau zela eta, prozesu bat ireki zuten tribunal militarrek, Victoriano atxilotuz eta Gasteizko El Carmelo espetxera eramanez. Hala ere, bertatik ihes egitea lortu zuen, azaroaren 20an, baina Olarizu baserrian atxiki zuten hurrengo egunean. Victoriano zauritua iritsi zen espetxera, tamalez hauek gaiztotu eta besoa galdu zuen. Medikuek honako txostena idatzi zuten espetxera iritsi zenean:

"… ha ingresado nuevamente en la Prisión, el fugado Victoriano Muñoz Jimeno… por referencias que ese recogen del casero de Olarizu… ha pedido auxilio… alegando haberse caído por una sima de las canteras del monte… una vez ingresado el Medico de la Prisión… observa la fractura de la mandíbula inferior, extensa herida en el labio superior, dilatación pupilar, fractura completa de cubito y radio, con herida por el tercio inferior del antebrazo derecho, conmoción visceral y probable fractura de algunas costillas, siendo su estado de pronostico grave…"

1938/11/29an beste txosten bat idatzi zuten medikuek, "… fractura abierta con conminuta de cubito y radio… ha presentado este individuo como complicación gangrena gaseosa que le obligó a que le fuese practicada amputación del brazo derecho…".


Comisión Clasificadora de prisioneros o presentados de Vitoria

Victoriano Muñoz, atxilotu eta gutxira sailkatze batzordeak egin zion fitxa. (AIRMN). / Victoriano Muñoz, ficha que le hizo el comité de clasificación poco después de ser detenido. (AIRMN).

Bere aurkako prozesu judizialak aurrera jarraitu zuen, Victoriano Ondarretara lekualdatuz. Horrela Udala, FET-JONS eta Guardia Zibilari informazioa eskatu zion epaitegiak eta hauek txosten berdina bidali zuten, ezkertiarra eta milizianoa izan zela, baina ez zuela defentsa komitean parte hartu. Gaineratuz konfiskazioetan parte zuela baina ez zela miliziano nabarmen bat izan herrian. Hala ere, Lasarteko hainbat eskuindarrek zein auzo-alkate zen Javier Ormazabal eta Rosendo Recondo parrokoak oso arriskutsua zela eta Brunet jauregian zein auzotarren etxeetan lapurretak egin zituela eta auzo-alkatea tiroz hiltzeko saiakera egin zuela adierazi zuten. Azken hau beraiek onartu zuten bezala, hipotesi hutsa zen, ez baitzuen inork ikusi tiro egiten.

Donostiako epaitegi militarrek Victorianoren aurkako epaiketa 1942ko otsailaren 2an burutu zuten eta bertan salatzaileen hitzak ontzat hartu zituzten eta Oriako milizietako buru izan eta hainbat konfiskazio egin eta miliziano bezala militar kolpistak hil zituela ebatziz, era jarraitu batean matxinada militarrarekin bat egitea egotzi zioten eta 20 urteko espetxealdira kondenatu zuten[894]. Donostiako espetxean izan zuten preso, 1943ko martxoan espetxealdi arindua lortu zuen arte, nahiz eta 1944ko uztailean espetxeratua izan zen berriro epe labur baterako. Berriro aske geratu zenean, Frantziako Estatura joan zen bizitzera, bertan hil zelarik, 44 urte soilik zituela[895]. Bere familiaren kasuan, gurasoak eta anai bat prozesatu zituzten eta espetxean egon ziren eta bigarren anaia armada frankistan borrokatzera behartu zuten[896].

Nació el 25 de marzo de 1912 en la ciudad de Valladolid, pero vino a vivir a Euskal Herria y a Oria en 1934; vino con su mujer Fidela Martín y su hija María Ángeles Muñoz[893]. Anteriormente estuvo viviendo con sus hermanos y sus padres en Donostia, y cuando él vino a Oria, los demás siguieron viviendo en la capital. Era un comunista convencido, que estaba afiliado a la organización JSU y se encargaba de repartir la revista Euzkadi Roja en Urnieta. Así, al poco de llegar al pueblo, participó en las movilizaciones que se dieron a raíz de la Revolución de Octubre de 1934. Según algunos testigos, por haber participado en esa rebelión, estuvo encarcelado hasta la amnistía de 1936 del Frente Popular.

Cuando el mismo año se dio el golpe de Estado, se unió desde el principio a las milicias que se organizaron en su contra. Junto con dos de sus hermanos, Julián y Alejandro, se unió por la defensa de Donostia, pistola en mano, para combatir contra los militares golpistas de Loiola. Destacó en los combates contra los militares que estaban en el hotel María Cristina, y participó en las negociaciones de su rendición como mensajero. Una vez recuperado el control de la capital, volvió a Oria y pasó a ser miembro de las milicias MAOC que se estaban organizando, trabajando en el campo de aviación de Lasarte. Además, realizó guardias en las barricadas construidas en las carreteras; en una de ellas participó en la recogida de firmas para pedir la liberación del banquero de Brunet, Eduardo Gaytán, que estaba encarcelado en Donostia. Como muchos milicianos, en Oria solía ir con buzo azul y un pañuelo rojo; los milicianos tenían establecido el cuartel en las escuelas de Brunet. Pero las ofensivas de Mola le obligaron a dejar el pueblo en septiembre, y tuvo que ir en retirada hasta Bilbo con la familia. Allí, se unió al batallón UHP y se fue a combatir al frente en Elorrio,

[894] AIRMN, 2595/38 sumarisimo arrunta / AIRMN, sumarísimo ordinario 2595/38.
[895] AGA, Victoriano Muñoz Jimenoren espetxe-fitxa / AGA, ficha penitenciaria de Victoriano Muñoz Jimeno.
[896] UUA, sig. 1327.01 / AMU, sig. 1327.01.

como dinamitero; llegó a ser sargento. Con la caída del frente de Intxorta, se fueron a Errigoiti en retirada; allí, se responsabilizó de la protección de Catalina Jayo de Muxika y de Magdalena Vidaguren de Gernika que estaban refugiadas en un caserío, responsabilizándose de que les devolvieran las vacas y de liberar a un hermano. Pero las ofensivas contra Bilbo le obligaron a que dejara ese puesto y se retirara a Santander, donde intentó coger un barco y escapar por mar. Pero debido al bloqueo de la Armada franquista, fue apresado y encarcelado el 26 de agosto de 1937. Antes de que cayera el frente, su mujer y su hija consiguieron huir al Estado francés en barco.

Mientras estaba preso en Santoña (Cantabria), la Comisión de Clasificación local lo envió al campo de concentración de Miranda de Ebro (Burgos) a realizar trabajos forzados, a trabajar en la carretera que va a Gasteiz precisamente. En abril de 1938, estando trabajando en esa carretera, lo vieron los militares Vicente Alonso y Mario Hormaechea y pusieron una denuncia en su contra, diciendo que en los combates de Donostia asesinó a varios militares golpistas y que hizo lo mismo en la Revolución de 1934. Además, denunciaron que como miliciano hizo varios robos. Debido a esa denuncia, los tribunales militares iniciaron un proceso en su contra, detuvieron a Victoriano y lo enviaron a la prisión de El Carmelo en Gasteiz. El 20 de noviembre logró escapar de allí, pero fue apresado al día siguiente en el caserío de Olarizu. Tras la fuga, Victoriano entró en estado grave en la prisión según los informes médicos de la misma:

El proceso judicial en su contra siguió avanzando y trasladaron a Victoriano a Ondarreta. El juzgado pidió información al Ayuntamiento, a las FET-JONS y a la Guardia Civil; todos enviaron el mismo informe, en el que se decía que era izquierdista y miliciano, pero que no participó en el Comité de Defensa. Añadieron que participó en las confiscaciones pero que no fue un miliciano destacado en el pueblo. De todos modos, varios derechistas de Lasarte como el alcalde pedáneo Javier Ormazabal y el párroco Rosendo Recondo declararon que era muy peligroso, y que había cometido robos tanto en el palacio Brunet como en las casas del vecindario, y que intentó asesinar al alcalde pedáneo. Esto último, tal como lo aceptaron ellos mismos, solo era una suposición, pues no vieron a nadie realizar el disparo.

Los juzgados militares de Donostia llevaron a cabo el juicio contra Victoriano el 2 de febrero de 1942; en él, aceptaron las palabras de los denunciantes, y determinaron que fue jefe de las milicias de Oria y como miliciano realizó varias confiscaciones y asesinó militares golpistas. De ese modo, le imputaron adherirse a la rebelión militar de una forma continuada y fue condenado a 20 años de prisión[894]. Estuvo encarcelado en la prisión de Donostia hasta que el marzo de 1943 consiguió la prisión atenuada; aun así, el julio de 1944 fue de nuevo encarcelado por un corto periodo de tiempo. En lo que se refiere a su familia, sus padres y un hermano fueron procesados y encarcelados, y el segundo hermano fue obligado a combatir con el Ejército franquista[895]. Cuando de nuevo quedó en libertad, se fue a vivir al Estado francés, donde murió a la edad de 44 años[896].

OLAZAGUIRRE MUGICA, VALENTIN

1917ko otsailaren 14ean jaio zen Urnietan eta bertako Sabino Arana kalean bizi zen, Practicante-enea etxean[897]. Abertzalea, altxamendua eman zenean, EAJren baitan mobilizatu zen herriko milizietan engaiatuz eta baita Hernaniko Euskal Milizien komandantzian eta hori dela eta herria utzi behar izan zuen. Loiolatik (Azpeitia) pasa eta gero, Itxarkundia batailoira batu zen, 1936ko iraila amaieran[898]. Batailoi honekin fronte ezberdinetan borrokatu zuen, izan Legutio edota Bizkaiako defentsan, baina 13 hilabete eta gero, Santanderreko hiria erortzean kolpistek atxilo eraman zuten El Duesoko espetxera[899]. Bertatik, Valdenocedako espetxera lekualdatu zuten eta 1940 ekaina inguruan baldintzapean aske geratu zen, Urnietara itzuliz[900].

Espetxeratua egon zenez, ez zuen soldadutza egin eta aske geratu bezain pronto mobilizatua izan zen, baina erregimen frankistaren aurkakoa zenez, Miranda de Ebroko kontzentrazio esparrura bidali zuten Valentin, soldadutza bertan egitera, 1941eko otsailean. Bertan soldadu langile izendatu zuten eta bortxazko lanak egitera bidali zuten 12 SLDBan 1941eko azaroan. Hala ere, 1942ko uztailean Segoviako Alkazarrera lekualdatua aurkitzen zen, 13 SLDBan. Batailoi hau Marokora lekualdatu zuten abuztuan, non jada gaixo zegoen eta ezgaitasun osoa eman zioten azterketa mediku bat eta gero, biriketako gaitz larri bat baitzuen. Hori dela eta, lizentziatu eta Urnietarako bidaia hasi zuen irailaren 11n[901]. Tamalez, preso egon zeneko bizi baldintza txarrek eragindako gaixotasunetik ez zen berreskuratu eta tuberkulosiaren ondorioz hil zen Urnietan, 1943 otsailaren

CUERPO DE SANIDAD MILITAR
HOSPITAL MILITAR DE CEUTA

Valentin Olazaguirre, Ceutako Ospitale Militarrean artatu behar izan zuten preso zela. (AIRMN). / **Valentín Olazaguirre, tuvo que ser atendido en el Hospital Militar de Ceuta cuando era preso.** (AIRMN).

897 UUA, sig. PA00.06 / AMU, sig. PA00.06.
898 Egaña, I. (et. al) (2000) / Egaña, I. (et. al) (2000).
899 UUA, sig. 1307.01 / AMU, sig. 1307.01.
900 UUA, sig. 1307.02 / AMU, sig. 1307.02.
901 AGMG, BDST, 2052 kaxa, 103798 espedientea / AGMG, BDST, caja 2052, exp. 103798.

27an, 26 urte zituela[902]. Tribunal militarrek bere aurka prozesu bat irekita zuten, artxibatu egin zutena Valentinen heriotza jakin eta gero[903].

Nació el 14 de febrero de 1917 en Urnieta y vivía en la casa Practicante-enea de la calle Sabino Arana[897]. Era nacionalista, y cuando se dio la sublevación militar, se unió a las milicias locales que se movilizaron en torno al PNV; también se unió a la comandancia de las Milicias Vascas de Hernani y por ello tuvo que dejar el pueblo. Tras pasar por Loiola (Azpeitia), a finales de septiembre de 1936 se unió al batallón Itxarkundia[898]. Con ese batallón combatió en varios frentes (por ejemplo en la defensa de Legutio o de Bizkaia) pero 13 meses más tarde, al caer la ciudad de Santander, fue detenido y encarcelado por los golpistas en la prisión de El Dueso (Cantabria)[899]. De allí fue trasladado a la cárcel de Valdenoceda (Burgos) y, alrededor de junio de 1940, salió en libertad condicional y volvió a Urnieta[900].

Como estuvo encarcelado no pudo hacer el servicio militar y, por ello, fue movilizado en cuanto quedó en libertad; como era contrario al régimen franquista, lo enviaron al campo de concentración de Miranda de Ebro (Burgos), el febrero de 1941. Allí, fue asignado soldado-trabajador y en noviembre de 1941 lo enviaron a hacer trabajos forzados al 12º BDST. En julio de 1942 se encontraba trasladado al alcázar de Segovia, en el 13º BSDT. Ese batallón fue trasladado a Marruecos en agosto, aunque para entonces ya estaba enfermo; tras una revisión médica le diagnosticaron una grave enfermedad pulmonar y le dieron la incapacidad total. Por ello, se licenció e inicio el viaje de vuelta a Urnieta el 11 de septiembre[901]. Desgraciadamente, Valentín no se recuperó de la enfermedad que le provocaron las malas condiciones de vida que tuvo mientras estuvo encarcelado, y murió de tuberculosis el 27 de febrero de 1943, a la edad de 26 años, en Urnieta[902]. Los tribunales militares tenían abierto un proceso en su contra, pero lo archivaron al tener noticias de la muerte de Valentín[903].

OLLOQUIEGUI ZULAICA, FERNANDO

1901ean Urnietan jaioa, Hernaniko zatia zen Lasarten bizi zen. Gidari bezala lan egiten zuen eta ideia abertzaleak zituen, horrela EAJra afiliatua zegoen. Horretaz gain, Lasarteko auzo-alkatea zen Errepublika garaian eta Hernaniko udaleko zinegotzia ere. Militarren matxinada eman zenean, auzoan sortu zen defentsa komiteko kide izatera pasa zen. Komiteko kide izan zen bitartean eskuindarren aurkako gehiegikeriak saihesten saiatu zen[904], baina erreketeen zutabeen gertutasuna zela eta herria utzi eta Eusko Gudarostean engaiatu zen, gidarien batailoian[905]. Gerra Zibileko Iparraldeko Frontearen gainbehera eta gero preso hartuko zuten kolpistek eta 1938ko abenduan Bilboko Eskolapioen espetxetik Donostiakora lekualdatu zuten[906]. Hiri honetan, bere aurkako prozesu judizial bat burutu zuten kolpistek, 1940ko otsailean, baina eskuindarren alde izan zuen jarrera zela eta, estatu-kolpea eta gero Errepublika garaiko kargu publikoa mantentzeagatik kondenatu zuten soilik eta ez espetxe zigorrera, baizik eta 8 urtez kargu publiko bat izateko desgaikuntzara. Gauzak horrela aske geratzea lortu zuen otsailaren 23an[907].

Nació en Urnieta en 1901, y vivía en la parte de Lasarte que pertenecía al municipio de Hernani. Trabajaba como conductor. Era de ideales nacionalistas y como tal, estaba afiliado al PNV. Además, era el alcalde pedáneo de Lasarte durante la República y también concejal en el ayuntamiento de Hernani. Cuando se dio la rebelión militar, pasó a ser miembro del Comité de Defensa que se creó en el barrio. Mientras fue miembro del comité intentó que no se cometieran abusos contra los derechistas[904]. Más tarde, debido a la cercanía de las columnas requetés, dejó el pueblo y se alistó en el Ejército Vasco, en el batallón de los conductores[905]. Tras la caída del Frente Norte, fue apresado por los golpistas, pues en diciembre de 1938 fue trasladado de la prisión de los Escolapios de Bilbo a la de Donostia[906]. En esa ciudad, los golpistas llevaron a cabo un proceso judicial en su contra el febrero de 1940, pero debido a la actitud que tuvo a favor de los derechistas, solo fue condenado por mantener el cargo público que tenía durante la República tras el golpe de Estado; no le impusieron ninguna condena penitenciaria, sino una pena de inhabilitación para cargos públicos durante 8 años. Así, logró quedar en libertad el 23 de febrero[907].

PAGOLA SAN SEBASTIAN, VICTORIANO

Urnietan jaio bazen ere, Elgoibarren bizi zen, 39 urte zituelarik (1942). Ideia ezkertiarrak zituen pertsona zen eta Union Republicanako kide izan zen herri honetan. Horretaz gain UGTko afiliatua zen eta eskualdeko armagintza industrietan doitzaile bezala lan egiten zuen. Iraila amaieran, erreketeen zutabeen aurrerakada zela eta herria utzi eta Bizkaiara joan behar izan zuen. Bertan Gerra Industria sailean jarraitu zuen lanean, non 1937ko ekainean, Bilboko agintaritzaren aginduak betez, miliziano talde batekin Deustuko Salestarren fabrikako makina batzuk desmuntatzen jardun zuen Santanderrera eramateko. Bertan, lankide bat ezkutatua aurkitu eta atxilo hartu zuten, desertorea zelakoan arduradunen aurrera eramanez. Francisco Anitua eibartarra zen pertsona hau eta fusilatu egin zuten miliziano asturiar batzuek gutxira[908].

---

[902] Urnietako erregistro zibila, 3 atala, 17 liburua, 37 orrialdea / Registro civil de Urnieta, sección 3ª, libro 17, página 37.
[903] AIRMN, 12850/41 sumarisimo arrunta / AIRMN, sumarísimo ordinario 12850/41.
[904] AIRMN, 16044/40 urgentziazko sumarisimoa / AIRMN, sumarísimo de urgencia 16044/40.
[905] Egaña, I. (et. al) (2000) / Egaña, I. (et. al) (2000).
[906] GPAH, Fernando Olloquiegui Zulaicaren espetxe-espedientea / AHPG, expediente penitenciario de Fernando Olloquiegui Zulaica.
[907] AIRMN, 16044/40 urgentziazko sumarisimoa / AIRMN, sumarísimo de urgencia 16044/40.
[908] AIRMN, 2296/40 sumarisimo arrunta / AIRMN, sumarísimo ordinario 2296/40.
[909] AIRMN, 16196/38 urgentziazko prozedura sumarisimoa / AIRMN, procedimiento sumarísimo de urgencia 16196/38.

orr.

Ez dakigu noiz erori zen kolpisten esku, baina espetxeratua izan zen, 1938ko urrian Bilbon espetxealdi arinduan bizi baitzen. Matxinadara bultzatzeagatik epaitua izan zen data hauetan baina artxibatu egin zuten salaketa, askatasuna berreskuratuz[909]. Hala ere, 1939ko otsailaren 20an Bilbon segurtasun indar frankistek atxiki eta Deustuko espetxera eraman zuten preso, eskandalu publikoa egotzita. Preso izan zuten, martxoan 208. SLDBra, izendatua izan zen arte, Valsequillo (Kordoba) herrian. Batailoi honekin, Los Barrios (Cadiz) herrira joan zen bortxazko lanak egitera, 1940ko otsailaren 20an. Ondoren 75 SLDBra lekualdatu zuten Belchitera (Aragoi). Bortxazko lanak egiten izan zuten 1940ko azaroan Donostiako Ondarreta espetxera eraman zuten arte[910]. Hiri honetako espetxean izan zuten atxilo 1941eko uztaila arte, zaintzapeko askatasuna lortu zuen data[911]. Halaber, gerra industrian izan zuen papera zela eta gerra kontseilu batean epaitu zuten Donostian bertan 1942an, baina akusazioa ez zela sostengatzen ebatziz artxibatu egin zen bere aurkako kausa, behin betiko askatasuna lortuz Victorianok[912].



INSPECCION DE LOS CAMPOS DE CONCENTRACION DE PRISIONEROS DE GUERRA

TELEGRAMA POSTAL

Sección 19. Reg. 21.
Número 10.418

Burgos, 10 de Marzo de 193 9 III Año Triunfal

EL CORONEL INSPECTOR

A JEFE BATALLON TRABAJADORES Nº. 208
VALSEQUILLO

Con esta fecha digo al Delegado de esta Inspección en Bilbao, lo siguiente:
"En relación con su escrito 6 del actual, dispongo que el trabajador del 6º. Batallón de Trabajadores Especialistas, VICTORIANO PAGOLA SAN SEBASTIAN, sea conducido, debidamente custodiado, al Batallón de Trabajadores nº. 208, que tiene su Plana Mayor en VALSEQUILLO (Córdoba). - Dese cuenta día salida".
Lo que traslado a V. para su conocimiento, debiendo avisarme el día que efectúe su incorporación el mencionado individuo.

TRANSMITASE.

23 a Burgos la incorpora
ya di cuenta
oficio nº 337

Al contestar, háganse referencia a la Sección, nº y fecha.

Victoriano Muñoz Valsequillora (Cordoba) bortxazko lanak egitera bidaltzeko agindua. (AIRMN). / Orden de envío de Victoriano Muñoz a Valsequillo (Córdoba) para la realización de trabajos forzados. (AIRMN).

Aunque nació en Urnieta, vivía en Elgoibar y tenía 39 años (1942). Era una persona de ideales izquierdistas y era miembro del partido Unión Republicana de ese pueblo. Además, estaba afiliado a UGT y trabajaba como ajustador en las industrias armeras de la comarca. A finales de septiembre, debido al avance de las columnas requetés, abandonó el pueblo y tuvo que irse a Bizkaia. Allí estuvo trabajando en el sector de industria de guerra. En junio de 1937, cumpliendo las órdenes de la autoridad bilbaína, estuvo desmontando unas máquinas de la fábrica de los salesianos de Deustu junto con unos milicianos, para llevarlas a Santander. Allí encontraron a un trabajador escondido y, creyendo que era un desertor, lo detuvieron y lo llevaron ante sus responsables. Esa persona era el eibartarra Francisco Anitua, que al de poco fue fusilado por unos milicianos asturianos[908].

No sabemos cuándo cayó en manos de los golpistas, pero fue encarcelado, porque en octubre de 1938 estaba en Bilbo en prisión atenuada. Fue juzgado en esas fechas por incitación a la rebelión, pero la denuncia fue archivada y recuperó la libertad[909]. De todos modos, el 20 de febrero de 1939, fue apresado por las fuerzas franquistas en Bilbo y encarcelado en Deustu, por escándalo público. Lo tuvieron preso hasta que en marzo fue asignado al 208º BDST en Valsequillo (Córdoba). Con ese batallón también fue a Los Barrios (Cádiz) a realizar trabajos forzados, el 20 de febrero de 1940. Más tarde, fue trasladado al 75º BDST de Belchite (Aragón). Lo tuvieron haciendo trabajos forzados hasta que en noviembre de 1940 lo llevaron a la prisión de Ondarreta en Donostia[910]. Ahí estuvo encarcelado hasta el julio de 1941, fecha en la que consiguió la libertad vigilada[911]. A su vez, debido al papel que tuvo en la industria de guerra, en 1942 fue juzgado en consejo de guerra en Donostia; como determinaron que la acusación no se sostenía, archivaron la causa en su contra y Victoriano consiguió la libertad definitiva[912].

PERTICA MAZO, JUAN MARIA

Gernikan jaio zen, 1896ko apirilaren 14ean eta Urnietara bizitzera etorri zen 1933 urtean, hala ere, bere ogibidea zela eta, Donostian lan egiten zuen. 1936ko udan Gerra Zibila hasi zenean, herria utzi zuen kolpisten mehatxua zela eta[913]. Orduan Eusko Gudarostera batu zen, Itxarkundia batailoian izena emanez[914]. Urnietako Udalak, etxea utzi zuela baliatuz bertako ondasunak konfiskatu zizkion[915], ondorioz Juan Maria gerra amaitzean Donostian bizitzen ezarri zen, Egia auzoan. 1939ko urriaren 1ean, Donostiako frantziskanoen elizan gerran hildako hainbat gudariren oroimenean eginiko meza batera joan zen eta horregatik autoritate frankistek espetxeratu eta epaiketa militar bat abiatu zuten bera eta beste 225 pertsonen aurka. 1940ko urtarrilean epaituak izan ziren eta ideia abertzaleen propaganda egiteagatik zigor ekonomiko bat ezartzea eskatu zion tribunalak gobernadore zibilari sententzian[916].

Nació en Gernika el 14 de abril de 1896 y vino a vivir a Urnieta en 1933; debido a su oficio trabajaba en Donostia. Cuando el verano de 1936 empezó la Guerra Civil, dejó el pueblo debido a la amenaza golpista[913]. Entonces, se unió al Ejército Vasco, preci-

[910] AGMG, BDST, 2098 kaxa, 106756 espedientea / AGMG, BDST, caja 2098, exp. 106756.
[911] GPAH, Victoriano Pagola San Sebastianen espetxe-espedientea / AHPG, expediente penitenciario de Victoriano Pagola San Sebastián.
[912] AIRMN, 2296/40 sumarisimo arrunta / AIRMN, sumarísimo ordinario 2296/40.
[913] UUA, sig. PA00.06 / AMU, sig. PA00.06.
[914] Egaña, I. (et. al) (2000) / Egaña, I. (et. al) (2000).
[915] UUA, sig. 1306.01 / AMU, sig. 1306.01.
[916] AIRMN, 2435/39 sumarisimo arrunta / AIRMN, sumarísimo ordinario 2435/39.

samente en el batallón Itxarkundia[914]. El Ayuntamiento de Urnieta, aprovechando que había abandonado la casa, le confiscó todos los bienes que tenía allí[915]; por consiguiente, al terminar la guerra, Juan María tuvo que instalarse en el barrio Egia de Donostia. El 1 de octubre de 1939, fue a una misa que se celebró en la iglesia de los franciscanos de Donostia en memoria de varios gudaris muertos durante la guerra; fue detenido por las autoridades franquistas que, a su vez, iniciaron un juicio militar en contra suya y de otras 225 personas. Fueron juzgados en enero de 1940, y en la sentencia el tribunal pedía al gobernador civil que impusiera una sanción económica por hacer propaganda de ideas nacionalistas[916].

POLO CRIADO, JOSE

1917ko maiatzaren 25ean jaio zen eta Urnietan bizi zen. Ideologia ezkertiarrekoa zen eta UGT sindikatura afiliatua zegoen. Altxamendua eman zenean, herriko milizietara batu zen herri inguruko mendietara joanez borrokara. Horretaz gain, defentsa komitearentzat lan egiten hasi zen, armen konfiskazioak burutuz. Hori dela eta, 1936ko irailean herria utzi zuen eta Eusko Gudarostearekin borrokan jarraitu zuen, UHP batailoian, lehenik Bilbo eta gero Santander erori arte. Azken honetan kolpistek atxilotu eta hiri horretako Tabacalera espetxera eraman zuten preso. Bertan egon zen preso, baldintzapeko askatasuna lortu zuen arte, 1939ko maiatzean. Orduan, Donostiako Añorga auzora joan zen bizitzera. Espetxean egin zituen ia bi urteak, behin behineko espetxealdian izan ziren, izan ere, bere jardun politikoa zela eta tribunal militarrek bere aurka egin zuten epaiketa ez zen 1941eko uztaila arte gauzatu. Bertan, bere aurkako salaketak ongi argudiatu gabeak zirela ebatzita behin betiko askatasuna lortu zuen Josek[917].

Nació el 25 de mayo de 1917 y vivía en Urnieta. De ideología izquierdista, estaba afiliado al sindicato UGT. Cuando se dio la sublevación militar, se unió a las milicias locales y combatió en los montes de alrededor del pueblo. Además, empezó a trabajar para el Comité de Defensa y realizó confiscaciones de armas. Por ello, en septiembre de 1936 dejó el pueblo y siguió combatiendo, ahora con el Ejército Vasco, primero en Bilbo y luego hasta la caída de Santander. En esa ciudad fue detenido por los golpistas y llevado a la cárcel de Tabacalera (Santander, Cantabria). Allí estuvo preso, hasta que en mayo de 1939 consiguió la libertad condicional. Entonces, se fue a vivir al barrio Añorga de Donostia. Los casi dos años que pasó encarcelado estuvo en prisión preventiva, ya que el juicio que realizaron en su contra los tribunales militares por su actividad política, no se llevó a cabo hasta el julio de 1941. En él, determinaron que las denuncias en su contra no estaban bien argumentadas y José consiguió la libertad definitiva[917].

PONTESTA MARTICORENA, TIBURCIO

1914ko abuztuaren 11n jaio zen Orion, baina Lasartera bizitzera etorri zen 1933an[918]. Altxamendua eman zenean, Loiolara (Azpeitia) joan zen eta bertan antolatzen hasi ziren batailoietara batu zen, ondoren Eusko Gudarostea bezala ezagutuko zena[919]. Hainbat gudari eta miliziano bezala, Euskal Herriko frontea hautsi eta kolpistek lurralde guztia armaz hartu eta gero, hauek atxiki eta espetxeratu egin zuten. Presoen sailkatze batzorde batetik pasa eta gero, bortxazko lanak egitera bidali zuten kolpistek. Zaragozara bidean zioan beste preso batzuekin kamioi batean eta Bilbotik igarotzean euskaraz aldarri politikoak egin eta ukabilak altxatzeagatik epaituak izan ziren pertsonetako bat izan zen. Tiburcioren kasuan, bere kasua artxibatu egin zuten eta Zarago-



Sixto Gregorio Prestamero (27 zenbakiarekin), Andoaingo pertsonaia nabarmenekin 1932an ateratako argazkian. (Historia oral: la voz dormida en la memoria). / **Sixto Gregorio Prestamero (número 27), fotografiado con destacados personajes de Andoain en 1932.** (Historia oral: la voz dormida en la memoria).

[917] AIRMN, 12305/38 prozedimendu sumarísimo arrunta / AIRMN, procedimiento sumarísimo ordinario 12305/38.
[918] UUA, sig. PA00.06 / AMU, sig. PA00.06.
[919] Buces, J. (2016) / Buces, J. (2016).

zako SLDBra bidalia izan zen 1938ko urriaren 22an. Hala ere, berarekin epaitu zituzten 4 kide 30 urteko espetxealdira kondenatu zituzten ekintza honegatik[920]. Ondasunen konfiskaziorako epaitegi bereziak ikertu zuen, baina ezin izan zioten ezer konfiskatu ez baitzuen inolako ondasunik Tiburciok[921].

Nació el 11 de agosto de 1914 en Orio, pero se fue a vivir a Lasarte en 1933[918]. Cuando se dio la sublevación militar, se fue a Loiola (Azpeitia) y se unió a los batallones que empezaron a organizarse allí, lo que después se conocería como Ejército Vasco[919]. Tras la caída del frente de Euskal Herria, y de que todo el territorio fuera tomado por los golpistas, fue detenido y encarcelado por estos. Tras pasar por la comisión de clasificación de presos, fue enviado a realizar trabajos forzados. Iba en un camión junto a otros presos en dirección a Zaragoza y, al pasar por Bilbo, algunos realizaron reivindicaciones políticas en euskara y con el puño en alto; Tiburcio fue una de las personas que fue juzgada por ello. Su causa fue archivada y fue enviado al BDST de Zaragoza el 22 de octubre de 1938. De todos modos, 4 compañeros que fueron juzgados junto a él fueron condenados a 30 años de prisión por esa acción[920]. Fue investigado por el Tribunal Especial de Bienes Incautados, pero no le pudieron confiscar nada porque Tiburcio no tenía ningún bien[921].

PRESTAMERO MARTINEZ, SIXTO GREGORIO

Hueten (Cuenca) jaioa, 44 urte zituen (1936an) eta ezkondua zegoen, seme bat zutelarik. Errepublika garaian Urnietan bizi zen, bertako bake epaitegiko idazkari funtzioak betetzen zituelako. Baina 1935ean, Andoainera bizitzera joan zen, bertan ere funtzionario postu berbera lortu baitzuen, baina Urnietako epaitegian lan egiten jarraitu zuen. Halaber, 1936ko uztailean gerrak eztanda egin eta zutabe karlistak Gipuzkoara sartu zirenean, kolpisten tropak herri honetara hurbiltzen zirela ikusita, abuztuan Urnietan babestu zen egun batzuetan baina azkenik Zarautzera joan zen, bertan zinegotzi baten etxean geratuz. Gipuzkoa osoa erori zenean, Zarautzetik Andoainera itzultzeko erabakia hartu zuen, baina iritsi eta gutxira, Guardia Zibilak atxiki eta atxilotu egin zuen irailaren 26an. Izan ere, Andoaingo idazkari eta alkate frankistek, Ignacio Echesortu eta Domingo Soroak, armatua ibiltzen zela herrian eta defentsa komiteko buruetako bat izan zela salatu zuten. Sixtok hau guztia ukatu zuen, esanez defentsa komitearentzat lan batzuk egin zituela, baina soilik gobernuko funtzionario postuari zegozkienak eta horretaz gain pistola bat zuela baina altxamenduaren aurretik zela honen jabea eta lizentzia zuela horretarako. Hala ere, fiskaltzak salatzaileen hitzak berretsi eta Andoaingo defentsa komiteko buruetako bat zela ebatzi zuen eta gerra kontseilu bat burutu zuten bera eta beste urnietar eta andoaindar batzuen aurka Donostian, urriaren 11n. Bertan, epaileek fiskaltzaren akusazioa ontzat hartu zuten eta matxinada militarra egotzi zioten Sixtori eta heriotza zigorrera kondenatu zuten. Sixto, beste andoaindar eta urnietar batzuekin batera urriaren 20an fusilatu zuten Ondarretako espetxean eta Polloeko hilerrian lurperatu zuten[922]. Fusilatua izan eta gero, bere postuetatik kanporatua ere izan zen, Andoain eta Urnietako bake-epaitegietako idazkari izatetik[923]. Haren emazte Valentina Carballo eta German semea, gertakariek gogor kolpatu zituzten eta Zaragozara joan ziren bizitzera eta ez ziren inoiz Andoainera itzuli[924].

Nació en Huete (Cuenca) y tenía 44 años (1936), estaba casado y tenían un hijo. Durante la República vivía en Urnieta y cumplía las funciones de secretario del juzgado de paz local. En 1935 se fue a vivir a Andoain, pues había logrado el mismo puesto de funcionario allí; aun así, también siguió trabajando en el juzgado de Urnieta. Cuando en julio de 1936 estalló la guerra y las columnas carlistas entraron en Gipuzkoa, y viendo que las tropas golpistas se acercaban a ese pueblo, en agosto se refugió durante unos días en Urnieta, pero finalmente se fue a Zarautz, donde estuvo en casa de un concejal. Cuando cayó todo Gipuzkoa, decidió volver de Zarautz a Andoain, pero al de poco, el 26 de septiembre, fue apresado y detenido por la Guardia Civil. La razón fue que el secretario y el alcalde franquista de Andoain, Ignacio Echesortu y Domingo Soroa, denunciaron que solía andar armado y que era uno de los jefes del Comité de Defensa. Sixto negó todo ello, diciendo que sí hizo algunos trabajos para el Comité de Defensa, pero solo los correspondientes al puesto de funcionario del gobierno, y que tenía una pistola pero era dueño de ella desde antes de la sublevación militar, y que tenía licencia para ello. De todos modos, la fiscalía corroboró las palabras de los denunciantes y determinó que era uno de los jefes del Comité de Defensa; por ello, el 11 de octubre llevaron a cabo un consejo de guerra en su contra, y en contra de otros urnietarras y andoaindarras, en Donostia. En él, los jueces aceptaron la acusación de la fiscalía y a Sixto le imputaron rebelión militar y fue condenado a muerte. Sixto, junto a otros vecinos de Andoain y Urnieta, fue fusilado el 20 de octubre en la cárcel de Ondarreta y fue enterrado en el cementerio de Polloe[922]. Después de que fuera fusilado, también fue expulsado de sus puestos de secretario de los juzgados de paz de Andoain y Urnieta[923]. Su mujer Valentina Carballo y su hijo Germán, duramente golpeados por los sucesos, se fueron a vivir a Zaragoza y no volvieron jamás a Andoain[924].

RICO EZAMA, DIONISIO

Urnietan jaioa, Donostiara bizitzera joana zen, bertan mikelete gisa lan egiten baitzuen, korneta-jotzaile postuan. Gainera ezkondua zegoen eta seme bat zuen. 1936ko uztaileko estatu-kolpea eta gero, mikelete postuan mantendu zen baina Donostia eta ondoren Gipuzkoa erori zirenean, Bilbora mugitu zen Dionisio eta bertan, alferez gradu militarra lortu eta milizianoen instrukzioan jardun zuen Eskolapioetan, urritik apirilera arte. Hiria erortzean, bertan geratzeko erabakia hartu zuen eta kolpistak

[920] AIRMN, 1669/38 urgentziazko prozedura sumarisimoa / AIRMN, procedimiento sumarísimo de urgencia 1669/38.
[921] UUA, sig. 1306.03 / AMU, sig. 1306.03.
[922] AIRMN, 489/36 kausa orokorra / AAIRMN, causa ordinaria 489/36.
[923] SAF, sig. AN-DP-1035-11 / FSA, sig. AN-DP-1035-11.
[924] Lasa, X. (2006) / Lasa, X. (2006).

hirira sartzean bertan zeuden mikelete guztiekin batera atxiki eta Arriaga teatrora eraman zuten preso ekainaren 26an. Uztailaren 1ean, mikeleteen aurkako epaiketa burutu zuten tribunal militarrek, Bilbon bertan eta milizianoak irakasten ibiltzeagatik matxinada delitua egotzi zioten eta heriotzara kondenatu zuten. Hau dela eta, Bilbon bertan fusilatu eta hilobiratu zuten Dionisio, uztailaren 23an, 34 urte zituela[925].

Nació en Urnieta, pero había ido a vivir a Donostia; trabajaba como miquelete en el puesto de corneta. Estaba casado y tenían un hijo. Tras el golpe de Estado de julio de 1936, se mantuvo en su puesto de miquelete, pero cuando cayeron Donostia y luego Gipuzkoa, se fue a Bilbo. Allí, logró la graduación de alférez militar y anduvo instruyendo a los milicianos en los Escolapios, de octubre a abril. Cuando cayó la capital, decidió quedarse y cuando entraron los golpistas, fue apresado junto a todos los miqueletes y fue encarcelado en el teatro Arriaga el 26 de junio. El 1 de julio, en el mismo Bilbo, los tribunales militares llevaron a cabo el juicio contra los Miqueletes; le imputaron el delito de rebelión por instruir a los milicianos y fue condenado a muerte. En consecuencia, Dionisio fue fusilado y enterrado en Bilbo, el 23 de julio, a la edad de 34 años[925].

Bilboko Larrinagako espetxe-buruak, Dionisio eta fusilatuak izango ziren beste 6 pertsona bakanduak izateko jaso zuen agindua. (AHPB). **/ El jefe de prisión de Larrinaga en Bilbao recibió la orden de que Dionisio y otras 6 personas que serían fusiladas fueran aisladas.** (AHPB).

RIVERA IRADI, FRANCISCO

1918 urtean jaio zen Urnietan. 1934ko abenduan, ama hil zitzaion eta aita berriz ospitalean zegoen ingresatua gaixotasun bat zela eta. Ondorioz, umezurtz geratu zen, kalean bizitzen eta inolako babesik gabe. Hori dela eta, Urnietako Udaletxeak, umezurztegi batera bidaltzeko erabakia hartu zuen Donostiara eta gastuez udal diru-kutxa arduratu zen[926]. Hala ere, 1936an gerrak eztanda egitean, hiriko eta probintziaren defentsarako antolatu ziren miliziekin bat egin zuen Gerra Komisariotzaren agindupean geratuz[927]. Gipuzkoan miliziano bezala ibili eta gero, erreketeen aurrerakada zela eta atzerakadan ibili zen, baina Gerra Zibileko Iparraldeko Frontea erori aurretik itsasontzi bat hartu eta Frantziako Estatura ihes egitea lortu zuen[928]. Francisco errefuxiatu gisa hainbat urtez egon zen Hego Euskal Herrira itzuli gabe, 1941eko apirilean mugan aurkeztu zen arte. Orduan, atxiki eta preso eraman zuten Ondarretara, epaitegi militarrek matxinadari laguntzea egozten baitzioten. Horregatik behin-behinean espetxean egon zen abuztuaren 22a arte, noiz espetxealdi arindua lortu zuen. Ikerketak aurrera jarraitu zuen eta luzatu egin zen denboran, epaia 1943ko uztailaren 7a arte ez baitzen eman. Bertan, gerra auditoreak, Franciscori egozten zitzaizkion ekintzek garrantzia penalik ez zutela ebatzi eta gero, bere aurkako kausa largestea erabaki zuen, behin-behinean aske utziz[929].

Nació en Urnieta el año 1918. En diciembre de 1934, se le murió la madre, y el padre estaba ingresado en el hospital debido a una enfermedad. Por lo tanto, se quedó huérfano, viviendo en la calle y sin ninguna protección. Debido a ello, el Ayuntamiento de Urnieta tomó la decisión de enviarlo a un orfanato de Donostia, y el arca municipal se hizo cargo de los gastos[926]. De todos modos, cuando en 1936 estalló la guerra, se unió a las milicias que se organizaron para la defensa de la ciudad y la provincia, quedándose a las órdenes de la Comisaría de Guerra[927]. Tras andar como miliciano por Gipuzkoa, se fue en retirada debido al avance de los requetés, pero antes de que cayera el Frente Norte subió a un barco y consiguió escapar al Estado francés[928]. Francisco estuvo varios años refugiado sin volver a Hego Euskal Herria, hasta que en abril de 1941 se presentó en la frontera. Entonces, fue detenido y encarcelado en Ondarreta pues los juzgados militares le imputaban auxilio a la rebelión; estuvo encarcelado preventivamente hasta el 22 de agosto, cuando consiguió prisión atenuada. La investigación prosiguió y se alargó en el tiempo, por lo que la sentencia no se dio hasta el 7 de julio de 1943. En ella, el auditor de guerra dictaminó que las acciones que se le imputaban a Francisco no tenían importancia penal y decidió sobreseer la causa en su contra, dejándolo en libertad provisional[929].

ROMO LACALLE, GUILLERMO

1896ko martxoaren 21ean jaio zen, Urnietan eta Orian bizi zen, Bruneteko enpresan lan eginez eta Etxeluze etxean biziz, bere emazte Juana Irulegui eta seme alabekin batera. Gerra Zibilaren hasierarekin batera, herriko milizientzat lanean hasi zen

[925] AIRMN, 160/37 prozedura sumarisimoa / AIRMN, procedimiento sumarísimo 160/37.
[926] UUA, sig. 1305.04 / AMU, sig. 1305.04.
[927] Egaña, I. (et. al) (2000) / Egaña, I. (et. al) (2000).
[928] UUA, sig. 1306.04 / AMU, sig. 1306.04.
[929] AIRMN, 710/43 sumarioa / AIRMN, sumario 710/43.

baina adinez nagusia zenez, Lasarteko abiazio-zelaian peoi moduan lan egiten jarri zuten. Hala ere, altxatuen aurrerakada zela eta, abuztuan auzoa ebakuatzeko deiarekin bat egin eta Bilbora joan zen, emaztea eta seme alaba guztiekin[930]. Orduan, autoritate frankista berriek, etxea hutsik zegoela baliatuz, ondasunak konfiskatu zizkieten[931]. Gerra Zibileko Iparraldeko Frontearen gainbeherarekin, kolpistek atxiki eta atxilo eraman zuten, bere aurkako prozesu bat abiatzen zuten bitartean. Preso egon eta gero baldintzapeko askatasuna lortu zuen, Urnietara itzuliz eta aske zela tribunal militarrek Alejandro semea eta Anastasio Labacarekin batera epaitu zuten. Halaber, hirurak libre utzi zituzten, deliturik egin izanaren zantzurik ez zegoela ebatzita[932].

Nació el 21 de marzo de 1896 en Urnieta y vivía en Oria, en la casa Etxeluze, junto a su esposa Juana Irulegui y sus hijos; trabajaba para la empresa Brunet. Al iniciarse la Guerra Civil, empezó a trabajar para las milicias locales, pero como era mayor de edad lo pusieron a trabajar como peón en el campo de aviación de Lasarte. De todos modos, debido al avance de los sublevados, cuando en agosto dieron la orden de evacuar el barrio, se fue a Bilbo con la mujer y todos los hijos[930]. Entonces, las nuevas autoridades franquistas, aprovechando que su casa estaba vacía, les confiscaron los bienes[931]. Con la caída del Frente Norte, fue apresado y encarcelado por los golpistas, mientras iniciaban un proceso en su contra. Tras estar encarcelado, consiguió la libertad condicional y volvió a Urnieta; estando en libertad fue juzgado por los tribunales militares junto a su hijo Alejandro y Anastasio Labaca. Dejaron en libertad a los tres, dictaminando que no había rastro alguno de que hubieran cometido ningún delito[932].

ROMO IRULEGUI, ALEJANDRO

1921eko urtarrilaren 21ean jaio zen, Urnietan eta Orian bizi zen, Bruneteko enpresan lan eginez eta Etxeluze etxean biziz, bere familiarekin. Gerra Zibilaren hasierarekin batera, herriko milizietara batu eta Lasarteko abiazio-zelaian peoi moduan lan egiten jarri zuten. Hala ere, altxatuen aurrerakada zela eta, abuztuan auzoa ebakuatzeko deiarekin bat egin eta Bilbora joan zen guraso eta anai-arreba guztiekin[933]. Orduan, autoritate frankista berriek, etxea hutsik zegoela baliatuz, ondasunak konfiskatu zizkieten[934]. Gerra Zibileko Iparraldeko Frontearen gainbeherarekin, kolpistek atxiki eta espetxeratua izan zen, bere aurkako prozesu bat abiatzen zuten bitartean. Preso egon eta gero baldintzapeko askatasuna lortu zuen, Urnietara itzuliz. Tribunal militarrek Guillermo aita eta Anastasio Labacarekin batera epaitu zuten, baina hirurak libre utzi zituzten, deliturik egin izanaren zantzurik ez zegoela ebatzita[935].

Nació el 21 de enero de 1921 en Urnieta, vivía en la casa Echeluce de Oria con su familia y trabajaba para la empresa Brunet. Al inicio de la Guerra Civil, se unió a las milicias locales y lo enviaron a trabajar como peón al campo de aviación de Lasarte. De todos modos, debido al avance de los sublevados, cuando en agosto dieron la orden de evacuar el barrio, se fue a Bilbo con sus padres y todos los hermanos[933]. Entonces, las nuevas autoridades franquistas, aprovechando que su casa estaba vacía, les confiscaron los bienes[934]. Con la caída del Frente Norte, fue apresado y encarcelado por los golpistas, mientras iniciaban un proceso en su contra. Tras estar encarcelado, consiguió la libertad condicional y volvió a Urnieta. Los tribunales militares lo juzgaron junto a Guillermo, su padre, y Anastasio Labaca, pero absolvieron a los tres, tras determinar que no había ningún rastro de delito[935].

ROMO ZULAICA, JUAN

1913ko abuztuaren 11n jaio zen, Urnietan eta Oria auzoan bizi zen, bere familiarekin[936]. Errepublika garaian, JS eta UGT antolakundeetara afiliatua zegoen Juan, horregatik estatu-kolpea eman zenean, herria uzteko hautua egin zuen. Orduan PC alderdira batu eta Rosa Luxemburgo batailoi komunistako kide izatera pasa zen, frontera borrokatzera joanez[937]. 1937ko maiatzaren 16an, frontearen gainbehera eta gero atzerakadan zeudela, kanoikada batek Juan zauritu egin zuen Zornotzan eta Basurtoko ospitalera eraman behar izan zuten. Horrela, ebakuntza bat egin behar izan zioten eta zaurien ondorioz, mutilazio bat jasan zuen[938]. Gerra Zibileko Iparraldeko Frontea erortzean, kolpistek atxiki eta espetxeratu egingo zuten Juan, bortxazko lanak egitera bidaliz, izan ere 1940ko martxoan Murgiako kontzentrazio esparrutik Ondarretakora lekualdatu zuten, Donostian bere aurka burutu nahi zuten gerra kontseilu bat zela eta. Tribunal militarrek behin behinean aske utzi zuten Juan eta 1941eko apirilean behin betiko askatasuna lortu zuen, bere aurkako kausa largetsi baitzuten, garrantzia penalik ez zuela ebatzi eta gero[939].

Nació el 11 de agosto de 1913 en Urnieta y vivía en el barrio Oria con su familia[936]. Durante la República, estaba afiliado a las organizaciones JS y UGT; por eso, cuando se dio el golpe de Estado, decidió abandonar el pueblo. Se unió al partido PC, pasó a ser miembro del batallón comunista Rosa Luxemburgo y se fue a combatir al frente[937]. El 16 de mayo de 1937, estando en retirada tras la caída del frente, Juan fue herido por un cañonazo en Zornotza y lo tuvieron que llevar al hospital de Basurto. Tuvieron que hacerle una operación, pero debido a las heridas sufrió una mutilación[938]. Tras la caída del Frente Norte, Juan fue apresado y en-

930 UUA, sig. PA00.06 / AMU, sig. PA00.06.
931 UUA, sig. PL12-1937 / AMU, sig. PL12-1937.
932 AIRMN, 770 gobernu-informazioa / AIRMN, información gubernamental 770.
933 UUA, sig. PA00.06 / AMU, sig. PA00.06.
934 UUA, sig. PL12-1937 / AMU, sig. PL12-1937.
935 AIRMN, 770 gobernu-informazioa / AIRMN, información gubernamental 770.
936 UUA, sig. PA00.06 / AMU, sig. PA00.06.
937 Egaña, I. (et. al) (2000) / Egaña, I. (et. al) (2000).
938 UUA, sig. 1327.01 / AMU, sig. 1327.01.
939 AIRMN, 3077/40 sumarisimo arrunta / AIRMN, sumarísimo ordinario 3077/40.

Juan Romo Zulaica Rosa Luxemburgo batailoiarekin Bizkaian. (Lasarte-Oria 1936-48). / **Juan Romo Zulaica con el batallón Rosa Luxemburgo en Vizcaya.** (Lasarte-Oria 1936-48).

carcelado por los golpistas y lo enviaron a hacer trabajos forzados; en marzo de 1940, fue trasladado del campo de concentración de Murgia al de Ondarreta, debido al consejo de guerra que querían llevar a cabo en su contra. Los tribunales militares dejaron en libertad provisional a Juan; en abril de 1941, logró la libertad definitiva porque la causa en su contra había sido archivada tras determinar que carecía de relevancia penal[939].

SAENZ GARMENDIA, RAMON

Urnietan jaio bazen ere, Tolosan bizi zen. 36 urte (1937an) zituen elektrikaria zen Ramon, ezkondua eta bi seme-alaba zituena[940]. Gerra Zibilean, Eusko Gudarosteko kide izan zen, JSUren Rusia batailoian[941]. 1937ko irailaren 30ean atxilotu zuten, Tolosan bertan eta herri honetako espetxean egon zen preso 1938ko ekainaren 10a arte, noiz Ondarretako espetxera lekualdatua izan zen. Hiri honetan gerra kontseiluan epaitua izan zen; izan ere, autoritate frankistek Tolosako defentsa komitearentzat pistola eskuan herriko mendietan zaintzak egitea egozten zioten, baina prozesua largetsi egin zen. Hala ere Ramon langileen batailoi batera bidaltzea erabaki zuen tribunalak, bortxako lanak egitera, 1939ko maiatzaren 31n[942].

Aunque nació en Urnieta, vivía en Tolosa. Tenía 36 años (1937), estaba casado y tenían dos hijos; era electricista de oficio[940]. Durante la Guerra Civil, fue miembro del Ejército Vasco, precisamente del batallón Rusia de la JSU[941]. Lo detuvieron el 30 de septiembre de 1937 en Tolosa mismo, y estuvo encarcelado en la prisión local hasta el 10 de junio de 1938, cuando fue trasladado a la cárcel de Ondarreta. Allí, fue juzgado en consejo de guerra porque las autoridades franquistas le acusaron de hacer guardias para el Comité de Defensa, pistola en mano, por los montes de Tolosa, pero el proceso fue sobreseído. De todos modos, el tribunal decidió enviarlo a un batallón de trabajadores a realizar trabajos forzados, el 31 de mayo de 1939[942].

SARABIA TORRE, NEMESIO[943]

1918ko azaroaren 1ean jaio zen Sodupen, baina Oria auzora bizitzera etorri zen, 1932an bere amarekin[944]. Altxamendua eman zenean, honen aurka antolatu ziren milizietara batu zen lehen unetik, hasiera batean Lasarteko abiazio-zelaian lan egiten hasiz eta beranduago MAOC batailoian miliziano bezala borroka egitera pasaz. Andoaingo zutabe kolpistek herria hartzear zeudela, hau uzteko erabakia hartu zuen, Bizkaiara mugituz. Bertan, Rosa Luxemburgo batailoi komunistan engaiatu zen 1936 urte amaieran[945]. Bizkaia erortzean atxiki egingo zuten kolpistek, izan ere bortxazko lanak egiten jardun zuen

[941] GPAH, Pedro Ramon Saenz Garmendiaren espetxe-espedientea / AHPG, expediente penitenciario de Pedro Ramón Saenz Garmendia.

[942] Egaña, I. (et. al) (2000) / Egaña, I. (et. al) (2000).

[943] AIRMN, 1912/37 sumarisimo arrunta / AIRMN, sumarísimo ordinario 1912/37.

[944] AGMGko dokumentuetan Nemesioren datu pertsonalak ez dira erroldako berdinak, baina Oriara telegrama bat bidaltzen duenez itzulera jakinarazten pertsona berbera dela uste da / En los documentos del AGMG los datos sobre Nemesio no son iguales a los del censo, pero como envía un telegrama a Oria haciendo saber que va a volver, se piensa que es la misma persona.

[945] UUA, sig. PA00.06 / AMU, sig. PA00.06.

[946] Egaña, I. (et. al) (2000) / Egaña, I. (et. al) (2000).

denbora batez[946]. Preso egon eta gero, Gipuzkoara itzultzea lortu zuen, baina Donostian aurkitzen zela, 1940ko ekainaren 28an, berriro atxiki eta Ondarretako espetxera eraman zuten, bere aurka tribunal militarrek irekita zuten prozesu bat zela eta. Hala ere, bere aurkako akusazioa azkenean largetsi egin zuten eta honi esker askatasuna lortu zuen. Ordea, tribunalak soldadutza egiteko kutxan txertatzeko agindua eman zuen, kolpisten esku preso zen bitartean ez baitzuen soldadutza egiterik izan[947]. Baina bere aurrekari politikoak zirela eta, SLDBetara bidali zuten, 50 zenbakidunera hasiera batean eta 49ra ostean. Azken hau Unamunoko kontzentrazio esparruan aurkitzen zen, Madrilen. Kontzentrazio esparruetan izan zuten Nemesio autoritate frankistek, 1946ko martxoan soldadu arrunten erregimentu batera bidali zuten arte[948].

Nemesio Sarabiak Matilderi bidalitako telegrama Unamunoko kontzentrazio esparruan preso zela, baimen bat lortu eta Oriara joango zela jakinaraziz. (AGMG). / **Telegrama enviado por Nemesio Sarabia a Matilde cuando era preso en el campo de concentración de Unamuno informándole de que obtendría un permiso y viajaría a Oria.** (AGMG).

Nació el 1 de noviembre de 1918 en Sodupe (Gueñes), pero en 1932 vino con su madre a vivir a Oria[944]. Cuando se dio la sublevación militar, desde el principio se unió a las milicias que se organizaron en su contra; primero, trabajó en el campo de aviación de Lasarte y, más tarde, pasó a combatir como miliciano del batallón MAOC. Cuando las columnas golpistas estaban a punto de tomar Andoain, decidió abandonarlo y moverse a Bizkaia. Allí, a finales del año 1936, se alistó al batallón comunista Rosa Luxemburgo[945]. Al caer Bizkaia, fue detenido por los golpistas y estuvo haciendo trabajos forzados durante un tiempo[946]. Tras estar preso, consiguió volver a Gipuzkoa; pero estando en Donostia, el 28 de junio de 1940, fue detenido de nuevo y llevado a la cárcel de Ondarreta, debido a un proceso que los tribunales militares habían iniciado en su contra. De todos modos, la acusación en su contra fue sobreseída y gracias a eso consiguió la libertad. Sin embargo, el tribunal ordenó que fuera incluido en la caja para ir al servicio militar, porque mientras estuvo preso en manos de los golpistas no pudo hacerlo[947]. A pesar de todo, debido a sus antecedentes políticos, fue enviado al 50º BDST y más tarde al 49º. Este último se encontraba en el campo de concentración de Unamuno en Madrid. Las autoridades franquistas tuvieron a Nemesio en campos de concentración, hasta que el marzo de 1946 fue enviado a un regimiento de soldados corrientes[948].

SARASOLA IRAOLA, MARTIN

1885eko martxoaren 14an jaio zen Urnietan, Etzabalberri baserrian[949]. Herriko bizitza politikoarekin loturarik gabea, ez zuen Errepublikaren aurkako estatu-kolpea eta ondorengo Gerra Zibilean inolako parte-hartze aktiborik izan, bere baserrian lan egitera mugatuz. Hala ere, 1938ko irailaren 17an atxilotua izan zen, jendaurrean kolpisten eta autoritate frankisten aurkako jarrera erakusteagatik salatua izan eta gero. Horrela, Ondarretan espetxeratua izan zen eta bere aurkako prozesu judizial bat abiatu zen. Hau, inolako erantzukizunik egotzi gabe largetsi egin zuen auditoreak, 1939ko urtarrilaren 17an, Martinek askatasuna berreskuratuz honi esker[950]. Hala ere, bere aurkako jazarpena ez zen hor amaitu, izan ere, epaiketa hau baliatuz, Erantzukizun Politikoen Tribunalak ikerketa bat ireki zuen bere aurka, 1941eko uztailaren 12an eman zen epaiketa batean gauzatu zena, baina honetan ere artxibatu egin zuten salaketa, bere ekintzek erantzukizunik ez zutela ebatzi eta gero[951].

Nació el 14 de marzo de 1885 en Urnieta, en el caserío Etzabalberri[949]. Sin ninguna relación con la vida política local, no tuvo ninguna participación activa en el golpe de Estado en contra de la República ni en la Guerra Civil posterior, limitándose a trabajar en el caserío. Sin embargo, fue detenido el 17 de septiembre de 1938, al haberse recibido una denuncia que decía que había mostrado, en público, una actitud contraria a los golpistas y las autoridades franquistas. Así, fue encarcelado en Ondarreta e iniciaron un proceso judicial en su contra. El 17 de enero de 1939, el auditor lo sobreseyó sin imputarle ninguna responsabilidad, y Martín recuperó la libertad[950]. De todos modos, la persecución en su contra no terminó ahí; a causa de ese juicio, el Tribunal de Responsabilidades Políticas abrió una investigación en su contra que se materializó en otro juicio celebrado el 12 de julio de 1941. En ese caso también se archivó la denuncia tras determinar que sus acciones no tenían ninguna responsabilidad[951].

SETIEN CORTAJARENA, IGNACIO

Urnietan jaioa, Hernanin bizi zen 39 urteko (1940an) arotza zen Ignacio. EAJra afiliatua, estatu-kolpea eman zenean, honen aurka borrokatzeko antolatu zen Hernaniko defentsa batzordera batu zen, alderdi honen ordezkari gisa Ordena Publikoko Komisariotzan. Arlo honetan, atxilotutako jendearen eskubideen defentsan nabarmendu zen gainera. Irailean, zutabe erreketeek herria mehatxatzen zutela ikusita, hau utzi zuen baina Gerra Zibileko Iparraldeko Frontearen gainbeherarekin, atxiloketa eta errepresioaren beldur, muga era klandestinoan gurutzatzen saiatu zen, hortaz arduratzen zen sare bat baliatuz. Hala ere atxilotua

946 AGMG / AGMG.
947 AIRMN, 3574 aurretiazko eginbideak / AIRMN, diligencias previas 3574.
948 AGMG, BDST, 2508 kaxa, 133555 espedientea / AGMG, BDST, caja 2508, expediente 133555.
949 UUA, sig. PA00.06 / AMU, sig. PA00.06.
950 AIRMN, 2682/38 urgentziazko sumarisimoa / AIRMN, sumarísimo de urgencia 2682/38.
951 TRRPN, TRP_SENTENCIAS_Lb3_N1466pdf / AGN, TRP, Lb. 3, Nº 1466.

izan zen, bere arreba Teresarekin batera. Ondorioz, 1937ko abuztuaren 5ean Ondarretan espetxeratua izan zen. Presondegi honetan egon zen, behin-behineko espetxealdian, 1940ko uztailaren 23an gerra kontseilua gauzatu zen arte. Hemen, atxilotu eskuindarren alde erakutsitako jarreragatik, egozten zizkioten delitu guztietatik absolbitu eta Ignacio aske geratu zen, ia hiru urtez espetxean egon eta gero[952].

Nació en Urnieta pero vivía en Hernani, y era un carpintero de 36 años (1940). Estaba afiliado al PNV. Al darse el golpe de Estado, se unió al Comité de Defensa que se organizó en Hernani para combatir contra él. En ese sentido, destacó en la defensa de los derechos de las personas detenidas. En septiembre, viendo que las columnas requetés amenazaban el pueblo, se fue de allí. Cuando cayó el Frente Norte, temiendo la detención y la represión, intentó pasar la frontera clandestinamente aprovechando una red que se encargaba de ello, pero fue detenido, junto a su hermana Teresa. Fue encarcelado en Ondarreta, el 5 de agosto de 1937. Estuvo en esa cárcel, en prisión preventiva, hasta que se celebró el consejo de guerra el 23 de julio de 1940. En él, fue absuelto de los delitos que se le imputaban, por la actitud que tuvo hacia los detenidos derechistas, e Ignacio quedó en libertad, tras haber estado casi tres años encarcelado[952].

SEVILLANO IDIAZABAL, RAFAEL

Hernanin jaioa, Urnietan bizi zen, Lasarteko Etxegorri etxean. Oriako UGT taldeko afiliatua zen Errepublika garaian eta iturgina bazen ere, altxamendua eman aurretik, lanik gabe aurkitzen zen, osasun arazoak zirela eta ebakuntza bat egin behar izan baitzioten eta honen ondorioetatik errekuperatzen aurkitzen zelako. Abuztu amaieran, erreketeen Gipuzkoaren aurkako erasoak zirela eta, bi miliziano etorri ziren Lasarteko abiazio-zelaira zioan zubia dinamitatzeko helburuarekin eta Rafaelek ekintza hau burutzen lagundu zien, dinamita kutxak eramanez.

Tropa kolpisten aurrerakada zela eta 1936ko irailean herria utzi zuen eta hasiera batean Donostiara joan bazen ere, Durangon lortu zuen babesgunea, sei hilabetez bederen. Eusko Gudarosteak mobilizazio orokorra deitzean, ebakuntzatik osatua zegoenez frontera joan zen Guillermo Torrijos batailoiko miliziano-zulatzaile gisa. Bizkaiako hainbat frontetan borrokan jardun eta gero, Metrailadoreen Konpainiara lekualdatu zuten eta hauekin jardungo zuen frontearen gainbehera arte. Orduan bere kideekin batera Santoñan militar kolpisten aurrean aurkeztu zen. Hauek, Medina de Rioseco (Valladolid) kontzentrazio esparrura eraman zuten, baina azaroan Urnietan aurkitzen zen behin-behinean aske utzi eta gero. Bere sendiaren kasuan, Bartzelonan errefuxiatu ziren Kropotkin babeslekuan bizitzen ezarriz.



Don JUAN BAUTISTA SANTA CRUZ, casado, vecino de Oria.Urnieta declara haber visto al individuo llamado Rafael Sevillano Ydiazabal, casado, vecino de Oria,Urnieta, cuando el dominio rojo-separatista en esta carga con dinamita el puente que conduce al Hipodromo término municipal de Oria, Urnieta y darle fuego para volar y al ver que no le dió resultado apetecido llevó otra caja y le dió fuego segunda vez y el puente quedó destrozado.

Oria, 3 de Diciembre de 1.937 II A.T.

Saludo a Franco

Arriba España

Bautista Santa Cruz

EXCELENTISIMO SEÑOR COMANDANTE DE ESTA DEMARCACION.-

Juan Bautista Santa Cruzek Rafael Sevillanoren aurka eginiko salaketa. (AIRMN). / Denuncia de Juan Bautista Santa Cruz contra Rafael Sevillano. (AIRMN).

Urnietako autoritateek ez zuten bere aurkako akusaziorik baina Juan Bautista Santa Cruz eta Feliciano Urruzola jaunek, Rafaelek zubia dinamitatu zuela salatu zuten eta ondorioz, bere aurkako prozesu bat hasi zuten tribunal militarrek, Rafael Ondarretako presondegian espetxeratuz, 1937ko abenduan. Salaketa hauetan oinarrituz, Urnietako autoritateek txosten berriak bidali zituzten eta Rafaelen aurka gerra kontseilu bat burutu zuten tribunalek 1938ko ekainaren 4an. Bertan, Lasarteko zubia dinamitatzeagatik, matxinadarekin bat egitea egotzi eta 30 urteko espetxealdira kondenatu zuten[953]. Behin sententzia irmoa jasota, Espainiako Estatuko hainbat espetxeetara lekualdatu zuten, Burgos, El Dueso, Cangas de Onis eta Dueso berriro ere. Azken honetan izan zuten preso, 1944ko apirilaren 1ean baldintzapeko askatasuna lortu zuen arte[954].

Nacido en Hernani, vivía en la casa Etxegorri de Lasarte. Durante la República estaba afiliado al sindicato UGT de Oria. Aunque era fontanero, antes de la sublevación militar se encontraba en paro, porque debido a problemas de salud le tuvieron que practicar una operación y se encontraba en rehabilitación. A finales de agosto, debido a las ofensivas de los requetés contra Gipuzkoa, vinieron dos milicianos con el objetivo de dinamitar el puente que iba al campo de aviación de Lasarte y Rafael les ayudó en esa acción llevando cajas de dinamita.

Debido al avance de las tropas golpistas, en septiembre de 1936 abandonó el pueblo, y aunque al principio se fue a Donostia, encontró refugio en Durango, por lo menos durante seis meses. Como ya estaba recuperado de la operación, cuando el Ejército Vasco hizo el llamamiento a la movilización general se fue al frente como miliciano-zapador del batallón Guillermo Torrijos. Tras combatir en varios frentes de Bizkaia, fue trasladado a la Compañía de Ametralladoras, y estuvo en ella hasta la caída del frente. Entonces, se presentó ante los militares golpistas en Santoña junto a sus compañeros. Fue enviado al campo de concentración de Medina de Rioseco (Valladolid), pero en noviembre se encontraba en Urnieta tras haber sido liberado provisionalmente. Su familia se encontraba refugiada en el Estado francés o en Cataluña.

[952] AIRMN, 1141 sumario arrunta / AIRMN, sumario ordinario 1141.

[953] AIRMN, 116/38 sumarisimoa / AIRMN, sumarísimo 116/38.

[954] AGA, Rafael Sevillano Idiazabalen espetxe-fitxa / AGA, ficha penitenciaria de Rafael Sevillano Idiazabal.

Las autoridades de Urnieta no tenían ninguna acusación contra él, pero los señores Juan Bautista Santa Cruz y Feliciano Urruzola denunciaron que Rafael había dinamitado el puente y, por lo tanto, los tribunales militares iniciaron un proceso en su contra y lo encerraron en la cárcel de Ondarreta, en diciembre de 1937. Basándose en esas denuncias, las autoridades de Urnieta enviaron nuevos informes, y los tribunales llevaron a cabo un consejo de guerra contra Rafael, el 4 de junio de 1938. En él, le imputaron adhesión a la rebelión por haber dinamitado el puente de Lasarte, y fue condenado a 30 años de prisión[953]. Una vez recibida la sentencia firme, fue trasladado a varias cárceles del Estado español: Burgos, El Dueso (Cantabria), Cangas de Onis (Asturias) y de nuevo El Dueso. En esa última estuvo encarcelado hasta que el 1 de abril de 1944 consiguió la libertad condicional[954].

TELLECHEA CERRAJERIA, JOSE PRIMITIVO

Urnietan jaio zen 1904ko ekainaren 4ean eta Oria auzoan bizi zen, bertako Bruneteko etxeetan, ehungintza industrian bulegari moduan lan eginez. Kolpisten zutabeek herrian sartu eta errolda aztertzean Primitivo Frantzian errefuxiatua aurkitzen zela adierazi zuten[955]. Suposa genezake gerra Urnietatik aldendu eta egoera gordinena pasatakoan herrira itzuli zela, Lasarteko Bernarda-enea etxean bizitzen eta idazkari moduan lan egiten hasiz. Ideia abertzaleak zituen pertsona, 1942ko otsailaren 16an atxilotu egin zuten beste herritar batzuekin indar polizialek, behin-behineko espetxealdia ezarriz, herrian EAJ alderdia berreraikitzea egotziz. Uztailaren 22an espetxealdi arinduarekin aske geratu zen epaiketa zain eta hau azaroaren 6an Donostian ospatu zen. Bertan, Jose Vila herrikidea bezala, absolbitu egin zuten Primitivo, froga falta zela eta. Hala ere tribunalak ideia abertzaleak zituen talde bat egon bazegoela ebatzi zuen eta hau gehiago ikertzeko beharra adierazi zuen[956].

Nació el 4 de junio de 1904 en Urnieta y vivía en las casas Brunet del barrio Oria. Trabajaba como oficinista en la industria textil. Cuando las columnas golpistas entraron en el pueblo y examinaron el censo, se dice que Primitivo estaba refugiado en Francia[955]. Suponemos que volvió al pueblo cuando la guerra se alejó de Urnieta y ya pasó lo más severo de la situación; se puso a vivir en la casa Bernarda-enea de Lasarte y a trabajar como secretario. Era una persona de ideales nacionalistas, y el 16 de febrero de 1942 fue detenido, junto a otros vecinos, por las fuerzas policiales; se le impuso la prisión provisional por haber reconstruido el PNV en el pueblo. El 22 de julio quedó en libertad atenuada, en espera de juicio, que finalmente se celebró el 6 de noviembre en Donostia. Primitivo, como su vecino José Vila, fue absuelto por falta de pruebas. De todos modos, el tribunal determinó que sí había un grupo de ideales nacionalistas, e indicó que había la necesidad de investigar más[956].

UBARRECHENA IRAOLA, AGUSTIN

Hernanin jaio zen Agustin, 1891ko uztailaren 31n, baina 1931 urtean, Urnietara bizitzera etorri zen, Zabaleta etxera[957]. Hala ere, nahiz eta herri honetan erroldatua egon, Donostian egiten zuen bizia, bertako EAJ alderdiko kide nabarmenetako bat izanez, Euzko Etxearen ardura beregain baitzuen, 1934 urtean. Estatu-kolpea eman zenean, hiri honetako defentsaren antolakuntzan parte hartu zuen eta horretarako armatua ibili zen. Iraileko Molaren erasoaldia zela eta, Donostia uztera behartua agertu zen, Bilbon babestuz hasiera batean[958]. Gerraren ondorioengatik, une batean zauritua izan zen eta ondorioz elbarri geratu zen, eta horregatik itsasoz ebakuatu zuten eta Ipar Euskal Herriko laguntza sarean artatua izan zen[959]. 1940ko uztailaren 29a arte ez zen Hego Euskal Herrira itzuli, Iruneko kontrol postu batean aurkeztuz, non Guardia Zibilak atxilotu egin zuen. Orduan, tribunal militarrek bere aurka irekitako prozesu bati aurre egin behar izan zion. Behin behineko espetxealdi bat eta gero, epaiketa 1940ko urrian eman zen eta bertan froga faltagatik Agustin absolbitu egin zuten, behin betiko askatasuna lortuz. Hala ere, bertako deklarazio eta testigantzak Erantzukizun Politikoen Tribunalari pasa zizkioten eta honek bere militantziagatik eta Frantziako egonaldia era egokian ez justifikatzeagatik 3.000 pezetako isun ekonomikoa eta kargu publikoak betetzeko 5 urteko desgaikuntzara kondenatu zuen[960].

Nació el 31 de julio de 1891 en Hernani, pero en 1931 vino a vivir a la casa Zabaleta de Urnieta[957]. De todos modos, aunque estuviera censado en este pueblo, hacía la vida en Donostia, porque era un miembro destacado del PNV; en 1934, concretamente, tenía la responsabilidad del Euzko Etxea. Cuando se dio el golpe de Estado, participó en la organización de la defensa de la capital y, para ello, anduvo armado. Debido a la ofensiva de Mola de septiembre se vio obligado a abandonar Donostia y, al principio, a refugiarse en Bilbo[958]. Por efectos de la guerra, fue herido y se quedó inválido; por ello, fue evacuado por mar y atendido por la red de ayuda de Iparralde[959]. No volvió a Hegoalde hasta el 29 de julio de 1940, presentándose en un puesto de control de Irun, donde fue detenido por la Guardia Civil. Entonces, tuvo que hacer frente a un proceso abierto en su contra por los tribunales militares. Tras estar en prisión provisional, el juicio se llevó a cabo en octubre de 1940; Agustín fue absuelto por falta de pruebas y consiguió la libertad definitiva. Aun así, las declaraciones y testimonios del juicio fueron enviados al Tribunal de Responsabilidades Políticas. En él, por su militancia y por no justificar debidamente su estancia en Francia, fue condenado a una multa de 3 000 pesetas y a la inhabilitación para cargos públicos durante 8 años[960].

[955] UUA, sig. PA00.06 / AMU, sig. PA00.06.
[956] AIRMN, 4177 sumarisimo arrunta / AIRMN, sumarísimo ordinario 4177.
[957] UUA, sig. PA00.06 / AMU, sig. PA00.06.
[958] NAO / AGN, TRP. Lb.2, Nº 884 / AGN, TRP. Lb.2, Nº 884.
[959] Egaña, I. (et. al) (2000) / Egaña, I. (et. al) (2000).
[960] NAO / AGN, TRP. Lb.2, Nº 884 / AGN, TRP. Lb.2, Nº 884.

UNANUE ULACIA, JOSE LUIS

Maria Paz San Sebastian eta Jose Luis Unanue San Juan plazan Anselmo semearekin 1924an. (Erretratu Zaharrak). / **María Paz San Sebastián y José Luis Unanue en la plaza San Juan con su hijo Anselmo en 1924.** (Erretratu Zaharrak).

1896ko abuztuaren 15ean jaio zen Donostian, baina 1918tik Urnietako kaskoan bizi zen, Kontzeju-zahar etxean, bertara ezkondu baitzen, Maria de la Paz San Sebastianekin. Estatu-kolpea eman zenean eta 1936ko irailean kolpistek Urnieta mehatxatzen zutela ikusita, herria uzteko erabakia hartu zuen[961]. Udal frankista berriak, herritik ihes egitera behartuak egon ziren pertsonen gainean eginiko ikerketetan, hainbat txostenetan Turtziozen aurkitzen zela eta baita Frantziako estatuan ere diote[962]. Horretaz gain, Bizkaiko herri horren aurka eginiko bonbardaketetan hil zela ere ondorioztatu zuten hasiera batean[963]. Herritik ihes egiteko erabakia zuzena izan zen, izan ere herriko FET-JONS taldeak bere aurkako testigantza eman baitzuen EAJra afiliatua zegoelako. Hori dela eta, Bizkaiko frontearen gainbeherarekin batera militar kolpistek atxiki zutenean espetxeratua izan zen eta bere aurkako prozesu bat ireki zuten tribunal militarrek. Hau, 1938ko apirilean hasi zen, baina ordurako Jose Luis baldintzapeko askatasunarekin aurkitzen zen. Abuztuan bertan eman zen sententzia eta bertan, Jose Luis absolbitu egin zuten, egozten zizkioten ekintzek garrantzia penalik ez zutelako. Horretaz gain, bere aurka FET-JONSek eginiko txostena zuzentzeko agindua eman zuten tribunalek[964].

Nació el 15 de agosto de 1896 en Donostia, pero desde 1918 vivía en la casa Kontzeju-zahar del centro de Urnieta, pues se había casado a Urnieta con María de la Paz San Sebastián. Cuando se dio el golpe de Estado y viendo que los golpistas amenazaban Urnieta, en septiembre de 1936, decidió abandonar el pueblo[961]. El nuevo ayuntamiento franquista, en la investigación realizada sobre las personas que se vieron obligadas a huir del pueblo, en varios informes se dice que se encontraba en Turtzioz y también en el Estado francés[962]. Además, al principio también dedujeron que había muerto en los bombardeos realizados contra ese pueblo vizcaíno[963]. La decisión de escapar del pueblo fue acertada, ya que el grupo de las FET-JONS local había testificado en su contra porque estaba afiliado al PNV. Por ello, cuando fue apresado por los militares golpistas tras la caída del frente de Bizkaia, fue encarcelado y los tribunales militares abrieron un proceso en su contra. Este empezó en abril de 1938, pero para entonces José Luis se encontraba en libertad condicional. La sentencia se dio en agosto y en ella, José Luis fue absuelto, porque las acciones que se le imputaban carecían de relevancia penal. Además, el tribunal dio la orden de corregir el informe que hicieron las FET-JONS en su contra[964].

URRETA ECHEVESTE, MIGUEL

Urnietako Oria auzoan jaio zen 1881eko uztailaren 19an, baina Donostian bizi izan zen, nahiz eta Lasarterekin lotura estua zuen, Mirentxu etxea eta industria bat baitzituen bertan besteak beste. Eskuineko euskal mugimendu abertzaleko kide nabarmenetako bat izan zen Gipuzkoan eta karlistekin lotura estuak zituen. Donostian EAJren lehenengo zinegotzia izan zen 1913an eta Gipuzkoako diputatua 1915ean. Alderdi honetan gero eta pisu nabarmenagoa izan zuen, lurraldeko buruzagi izatera iritsiz. Karlistekin batera El Día aldizkaria sortu zuen. Arlo kulturalean berriz, euskararen sustatzailea, Eusko Ikaskuntzaren sorkuntzan ere parte hartu zuen.

Estatu-kolpea eman zenean, Donostian mantendu zen baina hau erortzear zela Lekeitiora joan zen, eta beranduago Frantziako Estatuan errefuxiatu zen familia guztiarekin. Bertatik baina, Ipar Euskal Herrira joan zen, Azkainen bizitzen hasiz[965]. Gerra amaitu zenean itzultzeko erabakia hartu zuen, baina Hego Euskal Herrira iristean atxiki egin zuten eta behin-behineko espetxealdi bat eta gero Alacantera deserriratu zuten. Gainera tribunal militarrek bere aurkako ikerketa bat burutu zuten, baina erantzukizunik gabe largetsi bazuten ere, Migueli ez zioten urte batez Gipuzkoara itzultzen utzi[966]. Ihes eginda zen bitartean, Konfiskazioen Batzordeak eta Erantzukizun Politikoen Tribunalek bere ondasun guztiak konfiskatu zizkioten, gure kasuan Lasarten zituen Echeverria y Urreta teileria mekanikoa eta Zubiaurre eta Mirentxu etxea, azken hau Lasarteko Komandantzia Militarra bilakatu zena. Horretaz gain, 500.000 pezetako isun ekonomikoa ezarri zioten[967]. Hainbat errekurtsoren ostean, hauen jabetza berreskuratzea lortu zuen 1943ko irailaren 15ean[968].

---

[961] UUA, sig. PA00.06 / AMU, sig. PA00.06.

[962] UUA, sig. 1936.01 / AMU, sig. 1936.01.

[963] UUA, sig. 1327.01 / AMU, sig. 1327.01.

[964] AIRMN, 601 informazioa / AIRMN, información 601.

[965] Estornés Zubizarreta, I. Urreta Etxebeste, Miguel. Auñamendi Entziklopedia [on line], 2019. [Kontsulta data: 2019ko Azaroaren 21a]. Eskuragarri hemen: http://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/urreta-etxebeste-miguel/ar-135316/ Estornés Zubizarreta, I. Urreta Etxebeste, Miguel. Enciclopedia Auñamendi [on line], 2019. [Fecha de la consulta: 21 de noviembre de 2019]. Dirección: http://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/es/urreta-etxebeste-miguel/ar-135316/

[966] AIRMN, 4062 aurretiazko eginbideak / AIRMN, diligencias previas 4062.

[967] Islada Ezkutatuak (2020) / Islada Ezkutatuak (2020).

[968] UUA, sig. 1936.02 / AMU, sig. 1936.02.

Nació el 19 de julio de 1881 en el barrio Oria de Urnieta, pero vivió en Donostia. Aún así mantenía una gran relación con Lasarte porque allí tenía, entre otros bienes, la casa Mirentxu y una industria. Fue un miembro destacado del movimiento nacionalista vasco de derechas de Gipuzkoa y tenía estrechas relaciones con los carlistas. Fue el primer concejal del PNV de Donostia en 1913, y diputado de Gipuzkoa en 1915. En ese partido destacaba cada vez más, llegando a ser dirigente del territorio. Creó junto con los carlistas el periódico El Día. En lo que se refiere a la cultura, fue un impulsor del euskara y también participó en la fundación de Eusko Ikaskuntza/Sociedad de Estudios Vascos.

Miguel Urreta Echeveste, eskuinetik hasita lehena, Galizia, Katalunia eta Euskal Herriaren arteko anaitasun jardunaldi batean. (Gure Gipuzkoa). / **Miguel Urreta Echeveste, primero desde la derecha, en una jornada de hermandad entre Galicia, Cataluña y el País Vasco.** (Gure Gipuzkoa).

Cuando se dio el golpe de Estado se quedó en Donostia, pero cuando estaba al caer, primero, huyó a Lekeitio y, más tarde, se refugió en el Estado francés junto con toda la familia. Allí, volvió a Iparralde, comenzando a vivir en Azkaine[965]. Al terminar la guerra decidió volver, pero al llegar a Hegoalde fue apresado y, tras un periodo de prisión provisional, fue desterrado a Alicante; los tribunales militares llevaron a cabo una investigación en su contra, y aunque fue sobreseído sin responsabilidades, no le permitieron volver a Gipuzkoa durante un año[966]. Mientras estaba huido, la Comisión de Bienes Incautados y los Tribunales de Responsabilidades Políticas le habían confiscado todos sus bienes: la tejería mecánica Echeverría y Urreta y la casa Mirentxu de Lasarte. Esta casa se convertiría en la Comandancia Militar de Lasarte, además le impusieron una sanción económica de 500 000 pesetas[967]. Tras varios recursos, logró recuperar la propiedad de los mismos, el 15 de septiembre de 1943[968].

VELASCO LARREA, JOSE

1916ko urriaren 26an jaio zen Urnietan, baina bere guraso Julio eta Juliarekin batera ez ziren jada herrian bizi estatu-kolpea eman zenean. Horregatik autoritate frankistek bere kinta deitu zutenean 1937an, ez zen agertu eta iheslari bezala izendatu zuten, bere aurkako atxikitze agindua igorriz[969]. Jose aurkitzeko ikerketa bat abiarazi zuten, baina bere inguruan inolako datu berririk ez zuten aurkitu eta 1942ko abuztuan desertore izendatu zuten bere aurkako prozesua artxibatu eta gero, datu berriak izan arte[970]. Hau guztia dela eta, pentsa genezake Josek gerra zela eta atzerrira erbesteratzea erabaki zuela, Espainiako Estatura ez itzultzeko hautua eginez Lehen Frankismoko lehen urteetan behintzat.

Nació el 26 de octubre de 1916 en Urnieta, pero cuando se dio el golpe de Estado, ya no vivía en el pueblo con sus padres, Julia y Julio; por ello, cuando fue llamado a quintas en 1937, no apareció y lo nombraron como prófugo, notificando una orden de detención en su contra[969]. Iniciaron una investigación para encontrar a José, pero al no encontrar ningún dato nuevo en su entorno, en agosto de 1942, lo declararon desertor y archivaron su proceso hasta tener datos nuevos[970]. En conclusión, podemos pensar que José decidió refugiarse en el extranjero debido a la guerra, y que decidió no volver al Estado español, por lo menos en los primeros años del Primer Franquismo.

VICUÑA BELOQUI, LUIS

1877ko martxoaren 20an jaio zen Urnietan eta Orian bizi zen, bertako ehungintzako langileen etxean, Zelayalde etxean. Oriako biztanleriaren gehiengoa bezala, abuztuan auzoa ebakuatzeko agindua eman zenean, familia guztiarekin batera herria uzteko hautua egin zuen[971]. Autoritate frankistek, etxea hutsik utzi zutela baliatuz, beraien ondasun guztiak konfiskatu zituzten[972]. Hego Euskal Herria kolpisten esku geratu zenean, herrira itzultzeko erabakia hartu zuten, baina 1937ko abenduaren 26an, Luis Ondarretako espetxera eraman zuten preso, tribunal militarrek irekita zuten prozesu bategatik. Gerra auditoreak 100 pezetako isuna ezarri zion, herritik ihes egiteagatik ziur asko, eta horregatik Luis espetxean izan zen isuna ordaindu zuten arte[973].

Nació el 20 de marzo de 1877 en Urnieta y vivía en la casa Zelaialde de Oria, la casa donde vivían los trabajadores textiles locales. Como la mayoría de los habitantes de Oria, decidió abandonar el pueblo junto con toda su familia cuando en agosto se dio la orden de evacuar el barrio[971]. Las autoridades franquistas, aprovechando que habían abandonado la casa, les confiscaron todos sus bienes[972]. Cuando Hego Euskal Herria quedó en manos de los golpistas, decidieron volver al pueblo, pero el 26 de diciembre de 1937, Luis fue encarcelado en la prisión de Ondarreta por un proceso que iniciaron los tribunales militares en su contra. El auditor de guerra le impuso una multa de 100 pesetas, seguramente por haber huido del pueblo, y Luis tuvo que estar en prisión hasta que pagaron la multa[973].

969 UUA, sig. 1306.02 / AMU, sig. 1306.02.
970 AIRMN, 1113/41 expediente judiziala / AIRMN, expediente judicial 1113/41.
971 UUA, sig. PA00.06 / AMU, sig. PA00.06.
972 UUA, sig. 1936.01 / AMU, sig. 1936.01.
973 AIRMN, 1772 gobernu-informazioa / AIRMN, información gubernamental 1772.

VILA YARZA, JOSE

Urnietan jaio zen 1909ko martxoaren 23an eta Lasarten bizi zen, Geltoki kalean. Hortaz gain, ezkongabea zen eta jornalari bezala lan egiten zuen[974]. 1938ko azaroan bere aurkako ekinbide judizial bat abiatu zuten kolpistek eta Jose Ondarretako espetxean izan zuten bitartean preso. Denborara zaintzapeko askatasuna lortu zuen eta horrez gain bere aurkako kausa artxibatu egin zuten 1940an[975]. Hala ere, 1942ko martxoan berriro atxilotu zuten, estatuaren segurtasunaren aurkako delituak gauzatzeagatik, herrian EAJ berreraikitzen jardutea egozten baitzioten. Halaber, urte bereko abenduan froga falta zela eta aske utzi zituzten denak Angel Aliri izan ezik, nahiz eta tribunalak delitu zantzuak ikusi eta kausa sakonago ikertzea eskatu[976].

Jose Vila Yarza (3), berarekin batera espetxeratu zituzten Usurbil eta Lasarteko 11 kideekin batera, 1942an. Tartean daude Manuel Sagardia (1), Angel Aliri (2) eta Benjamin Gorostegui (4). (Lasarte-Oria 1936-48). / **José Vila Yarza (3), junto a él fueron encarcelados junto a los 11 miembros de Usurbil y Lasarte en 1942. Entre ellos están Manuel Sagardia (1), Angel Aliri (2) y Benjamín Gorostegui (4).** (Lasarte-Oria 1936-48).

Nació el 23 de marzo de 1909 en Urnieta y vivía en la calle Geltoki de Lasarte. Estaba soltero y trabajaba como jornalero[974]. En noviembre de 1938, los golpistas pusieron en marcha una iniciativa judicial en su contra y, mientras tanto, tuvieron a José en la cárcel de Ondarreta. Tras un tiempo, consiguió la libertad vigilada y además, en 1940, archivaron la causa en su contra[975]. De todos modos, en marzo de 1942, fue detenido de nuevo por realizar delitos en contra de la seguridad del Estado, pues se le imputaba haber participado en la reconstrucción del PNV del pueblo. En diciembre del mismo año, fueron puestos todos en libertad, excepto Ángel Aliri, por falta de pruebas, aunque el tribunal veía indicios de delito y pidió que se investigara la causa más profundamente[976].

ZABALETA ARTOLA, PABLO

Tolosan jaioa, Urnietako Sabino Arana kalean alokatua zuen gela batean bizi zen Pablo, iturgin gisa lan egiten zuen bitartean[977]. Altxamendu kolpista eman zenean 1936ko udan, karlisten zutabeen gertutasunagatik herritik ihes egiteko hautua egin zuen, Bizkaira mugituz. Bertan, Eusko Gudarostea antolatuz zioan heinean, Ingeniarien bigarren batailoira batu zen, azpiegiturak eta defentsa sistemak eraikitzeaz arduratzen zena[978]. Hori dela eta, frontearen gainbehera eta Santoñako errendizioa eta gero, militar kolpistek atxiki eta espetxeratu egin zuten, bere aurkako prozesu bat irekiz gainera. Hau, 1938ko martxoaren 14ean amaitu zen Bilbon, non auditoreak bere ekintzek garrantzia penalik ez zutela ebatzi eta gero kausa largetsi zuen. Hala ere, altxamenduaren aurka izaniko jarreragatik bortxazko lanak egitera kondenatu zuten Pablo[979].

Nació en Tolosa, pero vivía en una habitación alquilada en la calle Sabino Arana de Urnieta; trabajaba como fontanero[977]. Cuando el verano de 1936 se dio la sublevación militar golpista, decidió escapar a Bizkaia porque las columnas carlistas estaban cerca del pueblo. Allí, mientras se iba organizando el Ejército Vasco, se unió al segundo batallón de Ingenieros, que se encargaba de construir infraestructuras y sistemas de defensa[978]. Por ello, tras la caída del frente y la rendición de Santoña, fue apresado y encarcelado por los militares golpistas, que además abrieron un proceso en su contra. Este se dio por terminado el 14 de marzo de 1938 en Bilbo, pues los auditores determinaron que sus acciones carecían de relevancia penal y sobreseyeron la causa. De todos modos, por su actitud contraria a la sublevación militar, fue condenado a realizar trabajos forzados[979].

ZALDUA ZABALA, FLORENCIO

1922ko maiatzaren 9an jaio zen Urnietan San Juan kalean. Sukaldaria zen herrian, 1943an soldadutza egitera deitu zuten arte eta 1945ean Legazpi Mendiko Ehiztarien batailoian aurkitzen zen soldadu, Orion. Baimen bat eta gero, berandu iristeagatik espetxeratua izan zen egun batzuk eta ziegatik irtetean, bere makutoa jaso eta egoera baliatuz 1945eko maiatzaren 17an, kuarteletik ihes egitea erabaki zuen, muga zeharkatzeko helburuarekin. Helburua bi egun beranduago lortu zuen Etxalarretik Pirinioak igaroz. Autoritate frankistek, ekintza honegatik desertore izendatu zuten eta atxilotzeko agindua igorri zuten Florencioren aurka. Hala ere, bera Frantziako Estatuan bizi izan zen, 1947ko Gabon bezperan Berako polizia etxean aurkeztu zen arte. Bertan, hasiera batean atxilotu bazuten ere, espetxealdi arindua eman zioten eta Urnietara itzultzea lortu zuen. Hala ere, soldadutzan zela ihes egiteagatik, tribunal militarrek haren aurkako epaiketa burutu zuten 1948ko ekainaren 23an eta bertan desertzioagatik espetxe militar batean 2 urteko espetxealdira eta makutoarekin eraman zituen armadaren arropak ordaintzera behartu zuten[980].

Nació el 9 de mayo de 1922 en la calle San Juan de Urnieta. Era cocinero en el pueblo. En 1943 fue llamado a realizar el servicio militar, y en 1945 se encontraba como soldado en el batallón de Cazadores de Montaña “Legazpi”, en Orio. Fue encarcelado

974 GPAH, Jose Vila Yarzaren espetxe-espedientea / AHPG, expediente penitenciario de José Vila Yarza.
975 AIRMN, 2038/39 urgentziazko sumarisimoa / AIRMN, sumarísimo de urgencia 2038/39.
976 AIRMN, 4177 sumarisimo arrunta / AIRMN, sumarísimo ordinario 4177.
977 UUA, sig. PA00.06 / AMU, sig. PA00.06.
978 Egaña, I. (et. al) (2000) / Egaña, I. (et. al) (2000).
979 AIRMN, 17579/38 urgentziazko prozedura sumarisimoa / AIRMN, procedimiento sumarísimo de urgencia 17579/38.
980 AIRMN, 796/45 expediente judiziala / AIRMN, expediente judicial 796/45.

por unos días por volver tarde de un permiso, y tras salir del calabozo, cogió su macuto y, aprovechando la situación, el 17 de mayo de 1945 decidió escapar del cuartel y pasar la muga. A los dos días ya había conseguido el objetivo cruzando los Pirineos por Etxalar. Por esa acción las autoridades franquistas lo declararon desertor y enviaron una orden de detención contra Florencio. De todos modos, estuvo viviendo en el Estado francés, hasta que en vísperas de Navidad de 1947 se presentó en la comisaría de policía de Bera. Aunque al principio fue arrestado, le concedieron la prisión atenuada y consiguió volver a Urnieta. Pero, por escapar mientras estaba haciendo el servicio militar, los tribunales militares llevaron a cabo un juicio en su contra el 23 de junio de 1948 y en él fue condenado a 2 años de prisión en una cárcel militar, por deserción, y fue obligado a pagar la ropa militar que se llevó con el macuto[980].

ZUMALACARREGUI INDA, JOAQUIN

1906ko apirilaren 25ean jaio zen, Urnietan, Sabino Arana kalean biziz familiarekin. Errementari bezala lan egiten zuen[981], baina soldadutza aire-armadan egin zuen eta bertan geratu zen soldadu profesional bezala. Burgoseko Gamonaleko aerodromoan jardun zuen mekanikari moduan 1929tik, kabo-mekanikari bezala.

Estatu-kolpe saiakera egunean, Madrilen aurkitzen zen formazio saio baterako lekualdatu baitzuten eta Errepublikari fidel mantendu zen, beraientzat lan egiten hasiz lehen unetik. Horrela, denbora gutxian ofizial izatera pasa zen, teniente gradua lortuz. Madril, Valentzia, Katalunia eta Albaceten bete zituen bere funtzioak. Abiazioko ofizial bezala, armada kolpistaren aurkako aire-borroketan parte hartu zuen eta baita ere kolpisten aerodromoen bonbardaketetan ere.

Madrilen aurkitzen zen 1939ko martxoaren 28an hirian armada kolpista sartu zenean. Gerraren amaiera gertu ikusita, ofizial talde batek hegazkin bat hartu eta Oran (Algeria) hirira ihes egin zuten. Bertatik Urnietako familiarekin kontaktuan jarri eta hauek gomendatuta Frantziako Estatura pasa eta gero abuztuaren 6an Iruneko muga-postuan aurkeztu zen. Hemen atxilotua izan zen eta Bilboko Tabacalera espetxera eraman zuten. Epaitegi militarrek bere aurkako prozedura bat ireki zuten, 1939ko irailean, Joaquinek aire-armada errepublikanoan izan zituen funtzioak zirela eta. Baina Gamonaleko autoritate frankisten aldeko txostenak jaso eta gero espetxealdi arinduan irten zen hilabete amaieran, Urnietara bizitzera itzuliz, non udalean aurkeztu beharra zuen hamabostean behin.

ESCUELA DE MECÁNICOS

DATOS DE EXPEDIENTE PERSONAL

Nombre y apellidos Joaquín Zumalacarregui Inda

Fecha del nacimiento: Día 25 del mes de Abril del año 1906. Naturaleza Urnieta, provincia de Guipúzcoa, nombre de su padre José, idem de su madre [illegible]

domicilio de sus padres , avecindado en , calle de , núm. , piso

Oficio:

Otras especialidades que conoce

CASAS EN QUE HA TRABAJADO ANTES DE SU INGRESO EN FILAS

NOMBRE DE LA CASA	[illegible]	[illegible]	[illegible]	[illegible]

Joaquin Zumalacarregui Indaren Aire Armadako soldadu fitxa. (AHEA). / Ficha de soldado de la Fuerza Aérea Joaquín Zumalacarregui (AHEA).

Aire-armada frankistak Joaquinen aurkako prozedura jarraitu zuen, Madrileko bere egoitzan. Horretarako, komunista zela eta ideia horien propaganda zabala egiteaz salatu zuten txosten batean, Joaquinen izenean zegoen alderdi komunistako kartilla bat aurkitu baitzuten. Horregatik 1940ko urriaren 29an berriro atxilotua izan zen. Bestalde, Burgoseko soldadutzako hainbat kide falangistek eta bertako parrokoak "pertsona eskuindarra eta moral zuzenekoa" zela adierazten zuten txostenak bidali zituzten, Joaquin babestuz. Hala ere, 1941eko maiatzaren 8an egin zen gerra kontseiluan, armada errepublikanoan Errepublikaren alde eginiko ekintzak matxinadari laguntza ematea zirela ebatzi zuen tribunalak eta ondorioz urte bateko espetxealdira kondenatu zuten. Baina frankismoko estamentu ezberdinetatik Joaquinen alde jasotako txostenak zirela eta 1941eko maiatzaren 21n indultua jaso zuen, nahiz eta aire-armadatik kaleratua izan zen[982].

Nació el 25 de abril de 1906 en Urnieta y vivía en la calle Sabino Arana. Trabajaba como herrero[981], pero hizo el servicio militar en el Ejército del aire y allí se quedó como soldado profesional. Desde 1929, trabajó como mecánico en el aeródromo de Gamonal en Burgos con la graduación de cabo mecánico.

El intento de golpe de Estado lo pilló en Madrid, pues fue trasladado para una prueba de formación. Se mantuvo fiel a la República, empezando a trabajar para ellos desde el primer momento. En poco tiempo pasó a ser oficial, consiguiendo el grado de teniente. Cumplió sus funciones en Madrid, Valencia, Cataluña y Albacete. Como oficial de aviación, participó en los combates aéreos contra el Ejército golpista y también en los bombardeos contra los aeródromos golpistas.

Se encontraba en Madrid cuando el Ejército golpista entró el 28 de marzo de 1939. Viendo cerca el final de la guerra, un grupo de oficiales cogió un avión y escapó a la ciudad de Orán (Argelia). Allí se puso en contacto con la familia de Urnieta y, recomendado por ellos, pasó al Estado francés y después, el 6 de agosto, se presentó en el puesto fronterizo de Irun. Allí, lo detuvieron y lo llevaron a la cárcel de Tabacalera de Bilbo. En septiembre de 1939, los juzgados militares abrieron un procedimiento en su contra

[981] UUA, sig. PA00.06 / AMU, sig. PA00.06.
[982] AHEA, sig. C6823 / AMU, sig. C6823.

por las funciones que tuvo Joaquín en el Ejército republicano. Pero tras recibir informes positivos de las autoridades franquistas de Gamonal, le concedieron la prisión atenuada y salió al final de mes; volvió a vivir a Urnieta, donde tenía que presentarse cada quince días en el ayuntamiento.

El Ejército de aire franquista, en su sede de Madrid, siguió con el proceso contra Joaquín. Para ello, en un informe denunciaron que era comunista y que había hecho una profusa propaganda de esas ideas, y presentaron una cartilla del partido comunista que estaba a nombre de Joaquín. Por ello, fue de nuevo detenido el 29 de octubre de 1940. Por otro lado, varios miembros falangistas y el párroco del servicio militar enviaron unos informes protegiendo a Joaquín y declarando que era una persona derechista y de moral recta. De todos modos, en el consejo de guerra que se llevó a cabo el 8 de mayo de 1941, el tribunal dictaminó que las acciones realizadas en el Ejército republicano a favor de la República se consideraban ayuda a la rebelión. Pero debido a los informes favorables recibidos de diferentes estamentos franquistas, el 21 de mayo de 1941 fue indultado, aunque fue expulsado del Ejército de aire[982].

Gerra Kontseiluan epaituak eta Urnietarekin lotura zutenak

Milaka izan ziren tribunal militarretatik pasa ziren euskal herritarrak eta zer esanik ez Espainiar Estatuko pertsonak. Artxiboak kontsultatuz, ikusi dugu Urnietarekin lotura duten baina urte horietan bertan bizi ez ziren eta errepresaliatuak izan ziren pertsona batzuk izan zirela. Herria uztera behartuak izan zirenak, herriko bazterketa edo errepresioa jasan ezin izan zutenak edota lan bila etorri zirenak ehunka izan ziren; batez ere XX. mendeko bigarren erditik aurrera. Horregatik, uste dugu atal honetan egon behar luketenak gehiago izan zitezkeela, baina aipamen honek izen horiek ahanzturatik eta iluntasunetik ateratzeko baliagarria izatea espero dugu. Gehiago izan zirelakoan, honakoak dira:

Juzgados en Consejo de Guerra y que tenían relación con Urnieta

Fueron miles los vascos que pasaron por tribunales militares y ni que decir tiene las personas del Estado español. Consultando los archivos hemos visto algunas personas que tenían relación con Urnieta, y fueron represaliadas, pero que durante aquellos años no vivían allí. Fueron cientos los que fueron obligados a abandonar el pueblo, los que no pudieron aguantar la exclusión o represión de sus pueblos, o los que vinieron buscando trabajo, sobre todo a partir de la segunda mitad del siglo XX. Por eso, pensamos que podrían ser más los que deberían estar en este capítulo, pero esperamos que esta mención sirva para sacar esos nombres del olvido y de la oscuridad. Pensando que serían más, estos son:

ARREGUI ORMAECHEA, JUAN

Mallabian jaioa, 25 urte zituen (1937an) eta hargina zen ofizioz[983]. Hala ere, Errepublika garaian, gerra hasi aurretik Mallabiko udal-epaile izendatu zuten[984]. EAJra afiliatua, gerrak eztanda egitean eta Eusko Gudarosteak mobilizaziora deitzean Juan gudari bezala engaiatu zen, Ingeniarien bigarren batailoian[985]. Bizkaia kolpisten esku geratzean, Juan atxilotu eta espetxeratua izan zen denbora batez, baina 1937ko urrirako jada aske zen eta Berrizen bizi zen. Horrela, urriaren 27an, Bilboko tribunal militarrek bere aurkako gerra kontseilu bat eraman zuten aurrera, baina garrantzia penalik gabeko ekintzak egozten zizkiotenez, auzia artxibatzea erabaki zuen tribunalak[986]. Behin aske geratu eta gero, Urnietara bizitzera etorri zen, 1940 urtean jada bertan bizi zelarik[987].

Nació en Mallabia, tenía 25 años (en 1937) y de oficio era cantero[983]. Durante la República, antes de empezar la guerra, fue asignado como juez municipal de Mallabia[984]. Estaba afiliado al PNV, y cuando estalló la guerra y el Ejército Vasco hizo el llamamiento a la movilización, Juan se alistó como gudari en el segundo batallón de Ingenieros[985]. Cuando Bizkaia cayó en manos de los golpistas, Juan fue detenido y encarcelado durante un tiempo, pero para octubre de 1937 estaba en libertad y vivía en Berriz. El 27 de octubre, los tribunales militares de Bilbo llevaron a cabo un consejo de guerra en su contra, pero como le imputaban acciones de poca importancia penal, el tribunal decidió archivar la causa[986]. Una vez que salió en libertad, vino a vivir a Urnieta (para 1940 ya vivía aquí)[987].

MACHO PACHECO, FRANCISCO

Palentzian (Espainia) bizi zen, ezkondua zegoen eta hiru seme-alaba zituzten. Familiako hainbat kide bezala, komunista zen eta 29 urte zituen. 1936an, altxamendua eman zenean, hiriko hainbat militante komunistekin batera, armak eskuan hartu eta Errepublika defendatzeko helburuarekin Palentziako aldundira jo zuten, kolpistek hartua baitzuten. Hala ere, eraso honetan Guardia Zibilak atzeman eta atxilotu egin zituzten denak. Kolpistek orduan denak espetxeratu zituzten eta beraien aurkako prozesu bat

[983] Ministerio de Cultura y Deporte, Archivo CDMH, sig. DNSD-SECRETARIA,FICHERO,5,A0160371 / Ministerio de Cultura y Deporte, archivo CDMH, OIPA DNSD-Secretaría, Fichero 5, A0160371.

[984] Ministerio de Cultura y Deporte, Archivo CDMH, sig. DNSD-SECRETARIA,FICHERO,5,A0160372 / Ministerio de Cultura y Deporte, archivo CDMH, sig. DNSD-Secretaría, Fichero 5, A0160372.

[985] Ministerio de Cultura y Deporte, Archivo CDMH, sig. DNSD-SECRETARIA,FICHERO,5,A0160371 / Ministerio de Cultura y Deporte, archivo CDMH, sig. DNSD-Secretaría, Fichero 5, A0160371.

[986] AIRMN, 1492/37 urgentziazko prozedura sumarisimoa / AIRMN, procedimiento sumarísimo de urgencia 1492/37.

[987] UUA, 1941ko udal-korrespondentzia / AMU, correspondencia municipal de 1941.

abiatu zuten, Burgosen eman zen gerra kontseilu batean gauzatu zena. Bertan, tribunal militarrek Francisco heriotza zigorrera kondenatu zuten eta 1938ko uztailaren 13an fusilatu zuten. Bere emazte eta seme-alabek gabezia ugari pairatu zituzten, batez ere elikadura eskasiaren eta diru faltaren ondorioz. Hori horrela, seme-alabetako batzuk bizimodu hobeago baten bila hiria uzten joan ziren hurrengo hamarkadetan eta Carmen Macho Magdaleno Oriara etorri zen bizitzera 1962 urtean[988].

Vivía en Palencia (España), estaba casado y tenía tres hijos. Tenía 29 años, y como varios miembros de su familia, era comunista. En 1936, cuando se dio la sublevación militar, cogió las armas junto con varios militantes comunistas y, con la intención de defender la República, se fueron a la Diputación de Palencia que estaba tomada por los golpistas. Todos fueron detenidos por la Guardia Civil. Los golpistas los encarcelaron e iniciaron un proceso en su contra, que se materializó en un consejo de guerra en Burgos. En él, el tribunal militar condenó a Francisco a pena de muerte, y fue fusilado el 13 de julio de 1938. Su mujer y sus hijos sufrieron muchas penurias, sobre todo a causa de la escasez de alimentos y de dinero. Por ello, durante las décadas siguientes, algunos hijos fueron dejando la ciudad de Palencia en busca de una vida mejor; de ese modo, en 1962, Carmen Macho Magdaleno vino a vivir a Oria[988].

REYES GONZALEZ, JUAN

Bedmar (Jaén) herrian jaio eta bizi zen Juan. 44 urte zituen (1939an) eta ezkondua zegoen eta seme-alabak zituzten. Probintzia honek azken unera arte iraun zuen Errepublikaren esku, beraz herritarren aurkako errepresioa bortitza izan zen 1939ko apiriletik aurrera.

Juan UGT sindikatura eta PSOE alderdira afiliatua zegoen 1931tik aurrera, 1934 urtean alderdi sozialistako eta honen egoitzako diruzain izatera iritsiz, eta gerran zehar kargu hori mantenduz. Horrela, herriko mugimendu ezkertiarreko kide nabarmen bat izatera iritsi zen eta 1934ko Iraultza sustatu zutenetako bat izan zen, ondorioz espetxeratua izan zelarik. Horrela, altxamendua eman zenean, lehen unetik defentsa komitera batu zen, herriko komiteko zuzendaritzan lan eginez, hasiera batean diruzain funtzioak betez denbora batez, baina gero hornidura eta arma arduradun bezala jardunez. Komite honetako lehendakari izan zen 1939an kolpistek gerra irabazi zuten arte.

Antonio Peña Fernandez eta Juan Medina Ruiz bizilagunek salatu zuten, apirilaren lehen egunetan, Komandantzia Militarrean, erradikala zela esanez eta herriko elizaren konfiskazio eta su ematean parte hartu zuela adieraziz. Herriko mediku, farmazialari zein autoritate frankista berriek ere hainbat konfiskazioetan parte hartu zuela salatu zuten. Juanek, onartu zuen defentsa komitearen aginduak betez konfiskazioak egin zituela, baina suteak ez zirela beraien ardura izan adierazi zuen.

Hala ere, tribunal frankistek, salaketak oinarri hartuta, Juanen aurkako gerra-kontseilu bat burutu zuten 1939ko urriaren 25ean Jaenen. Bertan, epaileek salatari frankisten hitzak hobetsi zituzten eta matxinada militarraren egile izatea egotzi zioten, eta ondorioz heriotza zigorrera kondenatu zuten. Sententzia jaso bezain pronto Burgoseko espetxera lekualdatu zuten, non preso izan zuten auditoreak sententzia berretsi egin zuen arte. Orduan, 1940ko abenduaren 20an Juan berriro Jaenera eraman zuten eta bertako hilerrian fusilatu zuten abenduaren 30ean[989]. Manuel Reyes Sanchez semea, Lasartera bizitzera etorri zen 1968 urtean, Bedmarretik zuzenean eta 1981 urtean anaiak jarraitu zion[990].

Nació en Bedmar (Jaén) y vivía allí. Tenía 44 años (en 1939), estaba casado y tenían hijos. Esa provincia estuvo en manos de la República hasta el último momento, por lo tanto, la represión contra sus habitantes fue muy dura a partir del abril de 1939.

Juan estaba afiliado al sindicato UGT y al partido PSOE desde 1931; en 1934 llegó a ser tesorero del PSOE y de su sede, y durante la guerra mantuvo ese cargo. De ese modo, llegó a ser un miembro destacado del movimiento izquierdista local y fue uno de los que promovió la Revolución de 1934 (tras lo cual fue encarcelado). Así, cuando se dio la sublevación militar, desde el inicio se unió al Comité de Defensa, trabajando en la dirección del comité local; al principio, como tesorero durante un tiempo, pero luego, como responsable de abastecimiento y de armas. Fue presidente de ese comité hasta que en 1939 los golpistas ganaron la guerra.

En los primeros días de abril, fue denunciado en la Comandancia Militar por los vecinos Antonio Peña Fernández y Juan Medina Ruiz, diciendo que era radical y que participó en la confiscación y posterior quema de la iglesia local. El médico, el farmacéutico y las nuevas autoridades franquistas también denunciaron que participó en varias confiscaciones. Juan aceptó que realizó confiscaciones obedeciendo las órdenes del Comité de Defensa, pero declaró que los incendios no estaban bajo su responsabilidad.

De todos modos, los tribunales franquistas, tomando como base las denuncias, llevaron a cabo un consejo de guerra en su contra en Jaén, el 25 de octubre de 1939. En él, los jueces dieron por válidas las palabras de los denunciantes franquistas y le imputaron ser autor de rebelión militar, condenándole a pena de muerte. En cuanto recibieron la sentencia fue trasladado a la prisión de Burgos, donde estuvo encarcelado hasta que la sentencia fue ratificada por el auditor. Entonces, el 20 de diciembre de 1940, Juan fue devuelto a Jaén y el 30 de diciembre fue fusilado en el cementerio[989]. En 1968, su hijo Manuel Reyes Sánchez vino a vivir a Lasarte, directamente desde Bedmar, y su hermano le siguió en 1981[990].

[988] Islada Ezkutatuak (2020) / Islada Ezkutatuak (2020).
[989] AHTMT Nº2, 15272 urgentziazko prozedura sumarisimoa / AHTMT Nº2, procedimiento sumarísimo de urgencia 15272.
[990] Lasarteko erregistro zibila / Registro civil de Lasarte.



12

GUARDIA CIVIL
Puesto de Jaen
Bedmar

Tengo el honor de participar a
la superior autoridad de V. que
de los informes adquiridos del
vecino de esta, encartado en pro
cedimiento nº 1627. Juan Reyes-
Gonzalez, (a) Justica, resulta
que este fuè dirigente de la U.
G.T. desde el año 1931, y propag-
gandista furibundo de la revolu
ción, por cuyo motivo estubo en-
carcelado cuando la huelga de -
campesinos del 1934. Como direc-
tivo de la U.G.T. al estallar el
Movimiento acaudilló a la banda
de malhechores de Bedmar, siendo
"efe de "ilicias encargado del -
armamento y miembro del "rente -
Popular, Era de los que formaban
parte de la Camarilla que orde-
naba los asesinatos, personalmen
te cometio numerosos robos; uno
robó y saqueó el cabellón del -
Comandante de puesto Guardia Civ
y el del guardia Juan Gamez ha-
biendole encontrado muchas cosas
de lo saqueado en el Cuartel,--
otro en la casas de Doña Dolores
y D:Carmen, aconsejómuchas deten
ciones de personas de derechas -
de muchos crimenes, intervino en
la destrucion de la Iglesia è -
imagenes de la Porroquial, y ro-
bo y saqueo todo lo que pudo, lu
ego marchó a la Ermita de Cuadros
è hizo lo propio intrvino en la
destrución, robo, saqueo, hizo -
unos alardes criminales de la re
ligion, como mal cristiano, y por
ultimo este fuè en union de otro
llamado Juan Cañones, los que co-
jieron a la Patrona d su camarin
y la tiraron a tierra, d strozan
dola, y tiraron la Cabeza al fue
go, despues de sacarsela a un ta
Bartolomè (Castaño)que la tenia
escondida, en una palabra malo
Dios
mando de un mal sugeto.

Guarde a V. muchos años
Bedmar 3 de Agosto de 1939.
Año de la Victoria
El Cabo

Señor Juez Militar del Juzgado nº5 Prision Provincial
Jaen



Saludo a Franco

Arriba España!

17

AYUNTAMIENTO
DE
Bedmar (Jaén)

Numero 1796

Como interesa en el suyo de fe-
cha 2 del actual ,adjunto tengo el
honor de emitir informes sobre el
vecino de esta Juan Reyes Gonzalez
apodado el de Justica,este antes de
la Guerra era el Tesorero de la Ca-
sa del Pueblo,y estuvo encarcelado
durante la huelga de campesinos de
1.934,
En la guerra era de la camarilla
que ordenaba los asesinatos.
Organizó la destruccion de la Er
mita de Cuadros y de la Iglesia y
el saqueo de la Casa Cuartel de la
Guardia Civil y de la mayoría de -
los domicilios del personal de dere
chas.
Se supone intervino tambien en
el asesinato de Don . Miguel Vilche
Bedmar 7 de Agosto de 1.939.
Año de la Victoria.
El Alcalde

Juez Militar Instructor del Juzgado num.5.-

J A E N

Juan Reyes Gonzalezen aurka Bedmar-eko Guardia Zibilak eta Udalak eginiko salaketak. (AHTMT). / **Denuncias de la Guardia Civil y el Ayuntamiento de Bedmar contra Juan Reyes González.** (AHTMT).

5.

Lekukotzak
Testimonios

Bardaji Olloquiegui, JOSÉ MARÍA (1937)

1937ko apirilaren 4an jaio nintzen. Nire gurasoak Oriakoak ziren, eta artxiboetan begiratuta dakit nire birraitona guztiak ere Oriakoak zirela. Non bizi ginen izendatzerakoan desberdina zen norekin ari zinen. Lagunekin ari zinenean Oria esaten zenuen. Bestalde, zerbait ofiziala baldin bazen, Oria-Urnieta esaten zenuen. Ni adibidez, beti sentitu izan naiz lehenbizi Oriakoa eta jarraian Urnietakoa. Posta Lasarte Oria helbidearekin iristen bazitzaigun ere.

Hori komentatzen dizut, Oria auzoak ezaugarri oso bereziak zituelako, ez da? Urnietarekin alderatuta esan nahi dut.

Bai, bai, bai… Urnieta gehiago zen nekazaritzakoa, baserri mundukoa. Baina Orian Brunet-tarrak 1848an iritsi zirenean, erosi zituzten bi etxe besterik ez zeuden Orian. Haiek izan ziren pixkanaka auzune bat eraiki zutenak. Orduan, auzoaren nukleoa zena, hura guztia Brunet familiaren jabetza zen. Haiek berak izan ziren fabrika sortu zutenak.

Zertarako eraiki zituzten hainbeste etxe?

Etxe horiek guztiak langileentzako egin ziren, eta etxe bakoitzean egoiliarren batek gutxienez lana izan behar zuen Bruneten fabrikan. 1950ean 350 langile inguru zituzten. Gehienak ehungintzan jarduten zuten emakumeak; gehienbat izarak, baina gerra garaian mantak egiten jardun zuten. Izaren logotipoa orein bat zen.

Nolakoa zen Oria auzoa Errepublika garaian?

Langile-auzoa izanik, beti antzematen zen mugimendua. Gerra aurretik elkarte klandestino bat omen zegoen, non talde bat UGTren inguruan biltzen zen. Baina esan dizut, nik ezagutu ez dudan garai bat zen eta nire gurasoek ez zidaten Bigarren Errepublikako garaiari buruz hitz egiten… Nire gurasoak beldur ziren, taberna eta estankoa genituelako auzoan.

Beraz, Guardia Zibilak askotan ibiltzen ziren han. Erronda egiteko, eta tabernan edo estankoan zeuden nire gurasoek sinatu egin behar zieten. Hori izan zen gure gurasoek guri euskara ez erakusteko arrazoietako bat, nahiz eta jakin.

Nolakoa izan zen Gerra Zibila Orian?

“Ezin dizut askorik kontatu. Nire gurasoek alde egin behar izan zutela, besterik ez. Nire aitak kamioi bat zuen garai hartan eta joan egin behar izan zuten; kamioia hartu eta ez dakit zenbat eraman zituzten. Bilbora eta inguruetara joan ziren… beraz Bilbon errefuxiatu ziren. Ni ordurako jaioa nintzen eta Arroako etxe batera joan ginen. Denbora dezente egon ginen, gure etxera bidali gintuzten arte. Itzuli ginenean, gurasoek taberna eta estankoa mantendu zituzten. Estankoa, berez, Urnietako estankoaren sukurtsal bat zen. Orian ezin zen estanko partikular bat eduki, eta beraz, irabazien zati bat Urnietako estankoari eman behar genizkion. Hori 1950 arte, orduan independizatu eta geure kasa hasi ginen lanean.

Nolakoa izan zen gerraostea Orian?

Arazoa izan zen gerra amaitzean jendea beraien etxeetara itzultzen saiatu zenean. Orduan ikusi zen batzuek etxeak okupatu zituztela; 1942 urte inguruan konpondu zen gauza.

Nolakoa izan zen gerraosteko gosea?

Guk geuk ez genuen inolako gabeziarik izan. Baina baziren familiak, batez ere hiruzpalau seme-alabadun alargunak. Lagunen batek esan izan dit noizbait: "hi bizi haiz ondo, hi. Guk zuek botatako azalak jan behar izaten dizkiagu! Guk, azken finean, denda geneukan auzoan eta erdian bizi ginen. Orian lau etxe zeuden; aberats okituak fabrikan bizi zirenak, horiek ziren agintzen zutenak. Langileburuak ziren, azken finean, fabrikan agintzen zutenak. Langileburu horiek erregimen berriak jarritakoak ziren, eta horiek ziren herrian ere agintzen zutenak. Horietako bat, Juan Eguizabal, Urnietako auzo-alkate izan zen ez dakit zenbat urtez… paperak egiteaz arduratzen zen. Orian beti izan da auzo-alkatea, Oriako jendearen ordezkari gisa, administratiboki Urnietako alkatearekin harremana izateko. Guztiok Urnietara joan beharrean, hura arduratzen zen paperez. Urte batzuk geroago (1980ko hamarkada inguruan) gestora sortu zen, eta ondoren, behin-behineko Udala deitzen zena.

Ezagutzen al duzu lanpostua gerraren ondorioz galdutako pertsonen kasurik?

Nire amak 10 urte zituenean, 1910 inguruan, Brunet-tarrak herrian galdezka ibiltzen ziren lanerako adinean zegoen emakumerik ezagutzen al genuen, zein familietakoak ziren, gurasoen baimena izateko, eta fabrikarako kontratatzeko. Horren adibide bat da nire ama, 9 urterekin fabrikan lanean hasi zena. Horrekin esan nahi dut, beti behar izan zutela eskulana eta, batez ere, emakumeena. Gizonek ere egiten zuten lan, baina batik bat mantentze-lanetan eta antzekoetan.

Nolakoak ziren fabrikako langileei kobratzen zitzaizkien errentak?

Nire gurasoek, adibidez, 1940an, pezeta bateko errenta ordaintzen zuten taberna-estankoagatik eta bizi ziren etxebizitzagatik. Berritzen joan ez ziren errenta zaharrak ziren, orduan oso gutxi ordaintzen zen. Une batean errenta kobratzeari utzi zitzaion, jasotzen pasatzen zen denboragatik. Etxe horiek Brunetenak izan ziren 1970eko hamarkadan fabrika itxi zen arte.

Gerran hildako jendeari buruz ezer badakizu?

Ez, entzundako zerbait; baina kalean ikus genitzakeen alargunak eta haien seme-alabak, eta nolako larritasunarekin bizirauten zuten. Gerragatik joaten hasi zirenean, ez ziren gizonak bakarrik joaten, gerraostean gosea besterik ez zegoen eta horiek familia osoa joaten ziren, aukera berri baten bila. Gainera, haietako asko Frantziara joan ziren eta gero asko kosta zitzaien itzultzea. Lehen esan dizudan bezala, nire aitak jendea Bilbora kamioiez eramaten jardun zuen, gerratik ihes egiteko. Iritsi zenean ikusi zuen seme zaharrena ezkutatu egin zela, berarekin joateko. Nire aitak ez zekien ezer. Gerraosteak lortu zuen bakarra auzokoak elkartzea izan zen; desadostasun txikietatik, batzera.

Nací en 1937 el 4 de abril. Mis padres eran de Oria y tengo mirado en los archivos que hasta mis bisabuelos todos eran de Oria. A la hora de denominar donde vivíamos era diferente si hablabas con los amigos te referías a Oria. En cambio si tenias alguna cosa oficial te referías como Oria-Urnieta. Yo por ejemplo siempre me he sentido de Oria primero y seguido de Urnieta. Que aunque el correo, nos llegaba como Lasarte Oria.

¿Te comento esto, porque el barrio de Oria tenía unas cualidades muy especiales verdad?. Me refiero en comparación con Urnieta?

Si, si, si..., Urnieta era más tipo agricultura, más tipo caserío. Sin embargo Oria a partir de llegar los Brunet, en 1848, en Oria no había más de dos casa que compraron. Fueron los Brunet los que poco a poco fueron haciendo una barriada de casas. Entonces lo que era el núcleo del barrio, todo ello era propiedad de los Brunet. Estos mismos fueron los que habían fundado la fabrica.

¿Para que crean entonces tantas casas?

Todas esas casas serán creadas para los obreros, y como mínimo tenía que tener cada casa uno de los residentes trabajo en la fabrica de los Brunet. En el año 50 tenían unos 350 trabajadores. Mayoría de mujeres quienes se dedicaban a la fabricación textil; Normalmente sábanas, aunque en la guerra se dedicaron a hacer mantas. El logotipo de las sábanas era un ciervo.

¿Como era el Barrio de Oria en la época de la República?

Al ser un barrio obrero siempre se podía percibir movimiento. De hecho antes de la guerra debía de haber una asociación clandestina; en la que un grupo se juntaba alrededor de la UGT en la que se juntaban. Pero ya te digo era una época que yo no he conocido y mis padres no me hablaban de la época de la II República... Mis padres eran temerosos, porque teníamos un bar y un estanco en el barrio.

Entonces, por allá pasaban mucho los Guardia Civiles. Para hacer la ronda y mis padres que estaban en el bar o el estanco tenía que firmarles. Esa fue una de las razones por la que nuestros padres, aún sabiendo euskera, no nos lo transmitieran.

¿Como fue la Guerra civil en Oria?

Poca cosa te puedo contar. Lo único que mis padres se tuvieron que marchar. Mi padre por aquel entonces tenían un camión y tuvieron que marcharse, tomo el camión y se llevaron a no se cuantos. Trasladándose a Bilbao y por allí... por lo que se exiliaron en Bilbao. Yo para entonces ya había nacido y marchamos a una casa de Arrona. Estuvimos bastante tiempo hasta que nos enviaron a nuestra casa. Cuando volvimos los padres conservaron el estanco y el bar. El estanco en si era una sucursal del estanco de Urnieta. En Oria no se podía tener un estanco particular, por lo que una parte de las ganancias teníamos que transferirlas al estanco de Urnieta. Hasta el año 50 que nos independizamos y empezamos funcionar solos.

orr.

¿Como fue la Posguerra en Oria?

El problema fue, con la finalización de la guerra cuando la gente intentó volver a sus casas. En ese momento se vio como algunos, habían ocupado casas, cosa que se solucionó por el año 1942.

¿Como fue el hambre de la Posguerra?

Nosotros concretamente no pasamos ninguna escasez. Pero había familias, sobre todo viudas con 3 o 4 hijos. Algún amigo alguna vez me comentó ¡tu si que vives bien, nosotros en cambio comemos las cáscaras de lo que echáis. Nosotros al final en el barrio teníamos comercio y vivíamos en el medio. En Oria había cuatro casas; Los ricachones eran los que vivían en la fábrica, estos eran los que mandaban. Eran los capataces, que al fin y a la postre eran los que mandaban en la fábrica. Estos capataces fueron puestos por el nuevo régimen, y eran estos los que en el pueblo también mandaban. Entre ellos, uno fue alcalde pedáneo de Urnieta, Juan Eguizabal, no se cuantos años… este se dedicaba a hacer papeles. En Oria siempre ha existido la figura del alcalde pedáneo como una representación de la gente de Oria, para administrativamente tener relación con el alcalde de Urnieta. En lugar de tener que ir todos a Urnieta aquel era el encargado de los papeles. Años más tarde se creó la gestora primero y luego lo que llamaban el Ayuntamiento provisional (en la década de los 80).

¿Conoces casos de gente que perdiese su puesto de trabajo como consecuencia de la Guerra?

Cuando mi madre tenia 10 años sobre 1910, los Brunet solían andar por el pueblo preguntando si sabían de mujeres que pudieran estar en edad de trabajo, a que familia pertenecían para tener el permiso de sus padres y contratarla para la fábrica. Ejemplo de ello es mi madre que empezó con 9 años a trabajar en la fábrica. Con esto quiero decir que siempre necesitaron de mano de obra y sobre todo mujeres. Hombres también trabajaban pero más en mantenimiento y cosas por el estilo.

En el caso de las rentas que se cobraba a los empleados de la fábrica

Mis padres por ejemplo por el bar estanco y luego por la casa particular donde vivían pagaban una renta de una peseta en el año cuarenta. Eran rentan antiguas que no las habían ido renovando, entonces se pagaban muy poquito. Llegando a tal punto que se dejó de cobrar la renta por el tiempo que tenía que pasar recaudándola. Estas casas fueron de Brunet hasta que cerro la fábrica en la década de los 70.

¿Sabes de gente que murió en la Guerra?

No, algo de oídas, pero si que podíamos ver por la calle las viudas con sus hijos y el desasosiego con el que sobrevivían. Cuando empezaron a irse, por la guerra, no se marchaban solo los hombres, en la Posguerra solo había hambre y estos se marchaban con toda la familia entera, en busca de una nueva oportunidad. Incluso muchos de ellos se marcharon a Francia y luego les costó mucho volver. Como te he contado antes mi padre se dedicó a llevar a gente con el camión a Bilbao para huir de la guerra y cuando llegó se encontró que su hijo mayor se había escondido para acompañarle. Mi padre no sabia nada. Lo único que consiguió la Posguerra fue que el barrio se uniese entre ellos, dejando de lado pequeñas fricciones y se juntasen.

Iguaran Elustondo, ISIDRO (1934)

Urnietan jaio eta bizitako familia da Isidrorena. Eula sagardotegiko senidea da, eta gerra hasi zenean 2 urte zituen. Aitaren aldeko bi osaba gerrara joan ziren eta amaren aldeko anaia bat ere bai. Osabek kontatu zizkioten gerra garaiko gertaera gehienak azaltzen ditu. Isidrok herrian gertatutako egoerak kontatu ditu, esate baterako, fusilatzeak, desjabetzeak eta herrian izandako salaketak. Urnietako baserri inguruetan izandako gertaerak ere azaldu ditu.

FAMILIAREN DESKRIBAPENA

Izen-abizenak?
Isidro Iguaran Elustondo.

Non jaio zinen?
Hemen Eulan (Urnieta).

Jaiotze-data?
1934ko otsailaren 6an.

Zure amaren izena?
Antoni Elustondo Odriozola.

Nongoa zen?
Hemengoa, Albisturretik etorri ziren aitona-amonak, hemen jaioa.

Zure aitaren izen-abizenak?
Santiago Iguaran Leobide.

Non jaioa?
Alkizan jaioa.

Zure gurasoak baserritarrak ala kalekoak izan dira?
Baserritarrak biak.

Zenbat anai-arreba zineten?
Zazpi izan du eta sei bizi. Bat txikitan urte beterekin hil egin zen.

Zenbatgarrena zara?
Zaharrena.

Zure aitaren lanbidea?
Gauza askotan, baserrian. Fabrikara ere joan zen. Pentsua ere egiten zuen. Anai gazteenak hark bezala jarraitzen du. Etxe zaharrak konpontzen ere ibili zen, franko lan egin zuen horretan. Portun (Hernani) badago taberna bat buelta hartzen zuena, hura hark egina zuen. Baserri zahar bat zen, hiru solairu eta behean taberna.

Zure amak lan egiten zuen?

Bai, baserrian beti. Bere garaian Donostiara joaten ziren, baratzea egin eta Donostiara saltzera.

GERRAKO URTEAK

Gerra hasi zenean bi urte zenituen, zer gogoratzen duzu edo zer kontatu izan dizute gerrako lehen momentuez?

Gerra 1936 hasi zen?.

Bai. Zer kontatu izan dizute?

Ah, makina bat gauza. Nik osabak banituen amaren anaiak. Gero mutilzahar geratu ziren eta gerrako gauzak kontatzen zituzten.

Kontatu pixka bat, zure aitaren aldetik norbait gerrara joan zen?

Nire aitak Frantzian zerbitzatu zuen, aita frantsesa omen zuen. Eta hara deitu zioten. Han zerbitzatu zuen, Bigarren gerra Mundiala hasi zenean, amerikanoak Frantzian sartu zirenean, hara joateko deitu zioten, eta gure aita ez zen joan beldurragatik. Ni mutil koxkorra gogoratzen naiz, bonbardaketatan desertore egon zela. 30 urtean ez zen ausartu Frantziara joaten. Anaia frantziskanoa zuen eta Lourdesera joateko hark eraman zuen.

Haren anaiaren bat gerran egona da?

Ez dakit. Ez, bi frantziskano bazituen eta ez dut uste. Amaren aldetik bai.

Amaren aldetik zenbat anai-arreba ziren?

Bost izango ziren. Ez, sei ziren. Osaba horietako bat, amaren anaia bat soldadu zegoen gerra denboran.

Nola zuen izena?

Juan Jose; hemen zegoen, Loiolan. Nazionalistek uste dut bat egin zutela hemen, eta hark esaten zuen konfesatu gabe hiltzen zituztela gorriak, frontera eramandakoak. Beste aldera pasa behar zuela, karlistetara pasa nahi zuen. Egun batean alde egin zuen eta arrebarengana joan zen Altzueta baserrira. Nire amaren ahizpa zegoen han, hara joan zen: "Igaro naiz beste aldera". Gero harrapatu egin zuten, Andoinera eraman eta fusilatu egin zuten, elizaren ondoan. Hilerria elizaren atzean zen Andoainen, hormaren ondotik hasita, han fusilatua izango zen seguru asko. Han, kasualitatea, apaiz batek: "Nongoa zara?" "Ni Urnietakoa" "Urnietakoa? Zein baserritakoa?" "Eulakoa" "Eulakoa? Zure osaba nik konfesatu nuen" esan zidan. Gero konturatu ziren falta zela, eta aita joan zen herrira eta esan zioten fusilatu egin zutela. Negarrez etorri zen etxera.

Beste anaiaren bat egon zen gerran?

Kontatu izan didate hemen mutilzahar bizi zena; 91 urterekin hil zen duela gutxi, 4 edo 5 urte badira.

Nola zuen izena?

Asensio. 18 urterekin gerrara joan zen Francoren bandokoekin, behartuta. Amurrion zauritu egin zen. Nahiko ongi geratu zen gero. Kontatzen zuen frontean bere ondoan erdaldun bat, kanpoko bat: "Ay mi madre" esan omen zuen eta balak hartu eta hortxe gertatu zen. Bera zauritu zen eta kamian jaitsi zuten. Amak ere jakin zuen nonbait eta bisita egitera joan zen Amurriora, bakar-bakarrik hemendik. Han, ospitalean zegoela esan zioten eta han zebilen bilaka, osabak egin zion kasu.

Han elkartu ziren, beraz?

Bai, osabak egin zion kasu.

Amak zer kontatu izan dizu bizi izandakoaz? Etxean geratu zen?

Ama eta ahizpa Altzuetara jaitsi eta ia ganadu osoa eraman zieten. Gero beste baserri bat zegoen babesean, ezkutuan zegoen, eta beldurrez hara joan ziren.

Zurekin eta zure anaiekin joan zen?

Ez, ni Iparragirrera eraman ninduten. Karlistak hemen sartzekotan zeuden eta aitak esaten zuen Nafarroatik zetozela. Han Iruñeko plaza famatu horretan, Gaztelu enparantzan, sekulako pila elkartu ziren eta honantz etorri ziren. Abertzaleen frontea hemen zegoen, Ibarbururenean. Goizean jaiki eta bidean, hanka arrastoak begira ibili zen aita, ea pasa ziren jakiteko. Horrelako batean: "Paisano vete a casa". Eta atzetik konturatu zen soldadu pila bat zeudela denak lo. Etxera etorri zen. Oso azkarra zen negozioetan, esan dizut lehen etxeak ere egin zituela, 10 pisukoak ere bai. Gerra garaian Zumarragatik ere bazatozten. Hor ere bagenuen ur depositua, eta meta bat egin zuen ura estaltzeko. Koltxoiarekin jarri ziren. Aitona, nire amaren aita, segari grasa ematen ari zitzaion, eta zakuak eta lur azpian sartzen ari zela soldadu batek harrapatu eta egoera txarra izan zuen. Horrelako txorakeriengatik fusilatu egiten zuten.

LAPURRETAK eta BONBARDAKETAK SANTA BARBARATIK

Lapurretarik izan duzue?

Abertzaleek ez, besteek bai. Ikusten zutena hartzen zuten. Hor sagardotegi bat dago, Peñagarikano baserria, hemendik hurrengoa. Horrela hartzen dute Santa Barbaratik. Han bi behi, ardiak eta neska bat hil zen, eta beste ahizpak begia galdu zuen granada batengatik.

Zu nola eraman zintuzten Iparragirrera?

Iparragirre baserrira eraman ninduten, baino nire anaia txikia zela ama gurekin egon zen. Hegazkinak etortzen ziren bonbak botatzera. Gure aita nire izebarekin sagasti batean zegoen lurra mugitzen idiekin eta hegazkinak etortzen ari ziren, badakizu,

sekulako hotsa. Erreka zegoen behean eta idiak utzi goian eta hara joan ziren. Aurrena, arto artean ezkutatu ziren. Arto artean zeudela, hegazkinak buelta eman zuen eta toki txarrean zeudela konturatu ziren. Salbatze aldera, errekara joan ziren. Gero konturatu ziren, egon ziren arto arte hartan bota zutela bonba. Sekulako zuloak egiten zituen, nik ezagutu nituen. Idiak bonbak ateratako hotsekin erreka-zulora sartu ziren.

Familian norbait kartzelan egon da?

Ez.

MULTA ETA ESTRAPERLOA

Etxean multarik egon da?

Aita zenari bai multa jarri zioten. Patata haziak ekartzen hasi zen Nafarroatik estraperloan eta multa jarri zioten: 4000 pezeta, lehengo pezetetan.

Nola egiten zuen estraperloa zure aitak?

Nafarroatik kamioian ekartzen zuen patata eta hemen saldu. Sekulako gosea izan zen hemen.

Zuek, baserrian bizita, goserik pasa zenuten?

Gosea, gosea badakizu, hemen bazegoen eta aita ere kanpoan ibiltzen zen. Irina 10 zaku ekarri izan zituen. Kamioizalea zen, estraperloan ibiltzen zen eta bota zakuak 10 zaku ziren ganbaran. Horman sartzen zuten, dena itxita jarri eta horman tarte bat utzi, eta goitik sartzen zituzten zakuak.

GERRAKO HERRIKO GERTAERAK

Nola zuen izena?

Manuel agian. Bartolo kontratista ere bazen. Kontratista indartsua zen, hor dago baserria. Matxone tabernaren kontra, Andoain aldera, orain ez da inor bizi, kontratista horrena zen. Nik ezagutu nuen, Bartolo. Sekulako tresna pila zituen etxearen azpian sartuta, garabiak eta txirrikak, gauza asko; urrezko mahaia ere esaten dute. Gerra bukatu zenean karlista ziren baserritarrek dena hartu zuten. Gure aita, Alkizan, 19 urterekin eskopeta enkargatzera joan zen Eibarrera oinez, Alkizatik. Victor Sarasketa, eskopeta egilea zen, eta ikaragarri eskopeta polita erosi zion. Eskopeta hori itzularazi egin zioten. Gureak dena jasota zeukan nonbait lur azpian, ez konturatzeko kaxa batean sartuta. Gerra eta gero ezin izan genuen berreskuratu, badakigu non dagoen ezkutatua. Oianume aldean egongo dira gordeak, hori da susmoa. Beste gauza bat, beste baserri bat erre zen hemen inguruan. Badakizu baserritarrak segituan joaten ziren laguntzera, eta gauza guztiak gela txiki batean zituzten, inork ez ikusteko. Gero beste gauza bat, Don Juan Maria gerra denborako alkatea, Batzokiaren ondoan bizi zen etxe bakarrean. Oso elegantea zen. Bi arreba zituen, bat ezkongabea, eta besteak Zabala medikua izan zuen semea. Hark alde egin behar izan zuen Frantziara, abertzalea zelako. Hemen gero misioak egon ziren, Agirretxetarrak, Lasatarrak eta frantziskanoak etortzen ziren herrira. Aste osoa etortzen ziren bozgorailuekin. Hor hasten ziren bekatua eta bekatua. Misioak etorri, eta egun batean etxetik atea ireki eta altzari denak eman behar izan zituen jendeak.

La familia de Isidro nació y vive en Urnieta. Es familiar de la sidrería Eula y cuando empezó la guerra tenía 2 años. Dos tíos paternos y un hermano de la madre estuvieron en la guerra. Cuenta la mayoría de los sucesos de la guerra que le contaban sus tíos. Isidro ha contado muchos sucesos ocurridos en el pueblo: fusilamientos, expropiaciones, denuncias… También ha contado sucesos acaecidos en la zona de los caseríos de Urnieta.

DESCRIPCIÓN DE LA FAMILIA

Nombre y apellidos

Isidro Iguaran Elustondo.

¿Dónde naciste?

Aquí en Eula (Urnieta).

¿Fecha de nacimiento?

6 de febrero de 1934.

¿El nombre de tu madre?

Antoni Elustondo Odriozola.

¿De dónde era?

De aquí, los abuelos vinieron de Albiztur, nacida aquí.

¿El nombre de tu padre?

Santiago Iguaran Leobide.

¿Dónde nació?

En Alkiza.

orr.

¿Tus padres eran de caserío o de calle?

Los dos de caserío.

¿Cuántos hermanos erais?

Éramos siete y vivimos seis. Uno murió de pequeño, con un año.

¿En qué lugar naciste?

Soy el mayor.

¿La profesión de tu padre?

En muchas cosas, en el caserío. También estuvo en una fábrica. También hacía pienso. El hermano pequeño sigue como él. También anduvo arreglando casas viejas, trabajó mucho en eso. En Portu (Hernani) hay un bar que daba la vuelta, la hizo él. Era un caserío viejo, tres pisos y debajo un bar.

¿Tú madre trabajaba?

Sí, siempre en el caserío. Entonces solían ir a Donostia, trabajaban en la huerta e iban a Donostia a vender.

LOS AÑOS DE LA GUERRA

Cuando empezó la guerra tenías dos años, ¿qué recuerdas o que te han contado sobre los primeros momentos de la guerra?

¿La guerra empezó en 1936?.

Sí. ¿Qué te han solido contar?

Ah, muchas cosas. Yo tenía tíos, hermanos de la madre. Luego se quedaron solteros y contaban cosas de la guerra.

Cuéntanos un poco, ¿De parte de tu padre fue alguien a la guerra?

Mi padre sirvió en Francia, su padre debía ser francés. Y le llamaron allí. Hizo el servicio allí, cuando empezó la segunda guerra mundial cuando los americanos entraron en Francia, le llamaron para que fuera allí, y nuestro padre no fue por miedo. Yo era un crío pero recuerdo que en los bombardeos desertó. Durante 30 años no se atrevió a ir a Francia. Tenía un hermano franciscano y lo llevó el a Lourdes.

¿Algún hermano suyo estuvo en la guerra?

No lo sé. No, tenía dos hermanos franciscanos y no lo creo. De parte de la madre sí.

¿Cuantos hermanos eran de parte de la madre?

Serían cinco. No, eran seis. Un tío de esos, un hermano de la madre estuvo como soldado en la guerra.

¿Cómo se llamaba?

Juan José, estaba aquí en Loiola. Creo que aquí los nacionalistas se unieron y él decía que mataban sin confesarse a los rojos llevados al frente. Que tenía que pasar al otro bando, quería pasar donde los carlistas. Un día se escapó y fue dónde la hermana, al caserío Altzueta. Allí estaba la hermana de mi madre, allí se fue: "He pasado al otro bando" Luego lo atraparon, lo llevaron a Andoain y lo fusilaron al lado de la iglesia. En Andoain el cementerio estaba detrás de la iglesia, empezando al lado de la pared, seguramente lo fusilaron allí. Allí por casualidad, un cura: "¿De dónde eres?" "Yo de Urnieta" "¿De Urnieta?" "¿De qué caserío?" "De Eula" "¿De Eula?" "Yo confesé a tu tío" me dijo él. Luego se dieron cuenta de que faltaba y el padre fue al pueblo y le dijeron que lo habían fusilado. Vino llorando a casa.

¿Algún otro hermano estuvo en la guerra?

Solían contar que el que vivió aquí soltero; murió hace 4 o 5 años con 91 años.

¿Cómo se llamaba?

Asensio. Con 18 años fue a la guerra obligado, con los del bando de Franco. Lo hirieron en Amurrio. Luego quedó bastante bien. Contaba que en el frente a su lado había un castellano, uno de fuera: "Ay mi madre" debió decir y recibió las balas y ahí mismo se quedó. Él se hirió y lo bajaron en camilla. La madre se debió de enterar y fue a visitarlo a Amurrio, ella sola desde aquí. Le dijeron que estaba allí en el hospital y lo andaba buscando; la vio él.

¿Entonces, se juntaron allí?

Sí, la vio el tío.

¿Qué te contaba la madre sobre lo que pasó ella? ¿Ella se quedó en casa?

La madre y su hermana bajaron a Altzueta y casi les quitaron todo el ganado. Luego había otro caserío al resguardo, estaba escondido, y por miedo se fueron allí.

¿Se fue contigo y con tus hermanos?

No, a mí me llevaron a Iparragirre. Los carlistas estaban a punto de entrar aquí y el padre decía que venían de Navarra. Allí, en aquella famosa plaza de Iruña, la Plaza del Castillo, se juntaron muchos y vinieron hacia aquí. El frente de los nacionalistas estaba aquí, donde Ibarburu. El padre se levantó a la mañana y en el camino estuvo mirando rastros, para saber si habían pasado. De pronto: "Paisano vete a casa". Y se dio cuenta que detrás había muchos soldados durmiendo. Vino a casa. Él era muy hábil para los negocios, ya te he dicho antes que también anduvo haciendo casas, incluso de 10 pisos. Durante la guerra también venían de Zumarraga. Ahí teníamos un depósito de agua e hizo un almiar para taparlo. Se pusieron con el colchón. El

abuelo, el padre de mi madre, estaba dando grasa a la guadaña y cuando estaba metiendo los sacos y demás bajo tierra lo pilló un soldado y tuvo una mala situación. Por tonterías como esa solían fusilar.

ROBOS Y BOMBARDEOS DESDE SANTA BÁRBARA

¿Tuvisteis robos?

De los nacionalistas no, de los demás sí. Cogían lo que veían. Ahí hay una sidrería, el caserío Peñagarikano, el siguiente. Así lo cogen desde Santa Bárbara. Allí dos vacas, ovejas y murió una chica y su hermana perdió un ojo por una granada.

¿A tí cómo te llevaron a Iparragirre?

Me llevaron al caserío Iparragirre, pero como mi hermano era pequeño la madre estuvo con nosotros. Venían los aviones a lanzar bombas. Nuestro padre y mi tía estaban en un manzanal moviendo tierra con los bueyes y venían los aviones, ya sabes un ruido espantoso. Había un río abajo y dejaron los bueyes arriba y se fueron allá. Primero fueron al maizal, a esconderse entre los maíces. Mientras estaban en el maizal el avión dio la vuelta y se dieron cuenta de que estaban en mal sitio. Se fueron al río para salvarse. Luego se dieron cuenta de que la bomba había caído en el maizal donde estuvieron ellos. Hacían unos agujeros enormes, yo ya los conocí. Con el ruido de las bombas los bueyes se fueron al barranco.

¿Algún familiar estuvo en la cárcel?

No.

MULTA Y ESTRAPERLO

¿Hubo alguna multa en casa?

Sí, a nuestro difunto padre le pusieron una multa. Empezó a traer semillas de patata desde Navarra de estraperlo y le pusieron una multa de 4 000 pts, en pesetas de las de entonces.

¿Cómo hacía el estraperlo tu padre?

Traía la patata en camión desde Navarra y la vendía aquí. Aquí hubo un hambre terrible.

¿Vosotros viviendo en el caserío, pasasteis hambre?

Hambre, hambre… ya sabes aquí había hambre y el padre solía andar fuera. Alguna vez trajo 10 sacos de harina. Era camionero y andaba de estraperlo y había 10 sacos en el desván. Lo metían en la pared, lo ponían todo cerrado y dejaban un hueco en la pared y metían los sacos por encima.

SUCESOS DE LA GUERRA EN EL PUEBLO

¿Cómo se llamaba?

Tal vez Manuel. Bartolo también era contratista. Era un contratista fuerte, ahí está el caserío. Hacia Andoain, contra el bar Matxon ahora no vive nadie, era de ese contratista. Yo conocí a Bartolo. Tenía muchos trastos metidos bajo casa, grúas y poleas, muchas cosas, incluso se dice que una mesa de oro. Cuando terminó la guerra los baserritarras carlistas lo cogieron todo. Nuestro padre con 19 años fue a Eibar desde Alkiza a encargar una escopeta. Victor Sarasketa, era un escopetero, y le compró una escopeta muy bonita. Esa escopeta se la hicieron entregar. Nuestro padre la tenía escondida bajo tierra en algún sitio, metido en una caja para que no se enteraran. Después de la guerra no la pudimos recuperar, sabemos dónde está escondida. Estarán escondidas por Oianume, esa es la sospecha. Otra cosa, por aquí se quemó otro caserío. Ya sabes, los baserritarras iban en seguida a ayudar, y tenían todas las cosas en un pequeño cuarto para que no las viera nadie. Luego otra cosa, Don Juan María, alcalde durante la guerra, vivía al lado del Batzoki en un edificio. Era muy elegante. Tenía dos hermanas, una soltera y la otra tuvo un hijo "el médico Zabala". Aquel tuvo que escaparse a Francia porque era nacionalista. Luego aquí hubo misiones: solían venir al pueblo los Agirretxe, los Lasa y los franciscanos. Solían venir toda la semana con altavoces. Ahí empezaban: "el pecado, y el pecado…". Vinieron las misiones y un día abrieron las puertas de casa y la gente tuvo que entregar todos los muebles.

Izagirre Rekondo, MIKEL (1949)

Mikel Izagirre Urnietan jaio eta bizi izan den herritarra da. Bere amaren aldeko familia karlista izan zen eta gertatu ziren gertaera ezberdinak kontatzen ditu. Bestalde, bere aitaren aldetik lau osaba gerran izan zituen. Francoren aldeko bandoan izan ziren behartuta. Herrira gerra etorri zenean lau anaiak erreklutatu zituzten. Mikelek hausnarketa handia egiten du bere gurasoen familiako ideologia politikoa eta fedearen inguruan. Herriko beste ideologiakoekin oso erlazio onak zituzten eta lagundu egiten zuten, nahiz eta beste bandokoa izan. Egoera horren inguruan hausnartzen du gaur egungo ikuspuntu politikotik.

FAMILIAREN DESKRIBAPENA

Izen-abizenak?

Mikel Izagirre Rekondo.

Non jaioa?

Urnietan jaioa.

Jaiotze-data?

1949ko abuztuaren 11an.

Amaren izen-abizenak?

Maria Rekondo Iribar.

Non jaioa?

Aian jaioa eta 6-7 urterekin Urnietara etorria.

Bere jaiotze-data?

1927an irailaren 14an. Aita berriz, Urnietako Urkain baserrian jaioa 1920ko urtarrilaren 16an. Aita izan zen Antonio Izagirre Igerategi eta betidanik Urnietako familia bateko semea.

Nola gogoratzen dituzu zure gurasoak? Ama nolakoa zen?

Ni gerra ondorengoa naiz. Ez naiz ondorengo zuzena, baizik, 10 urte beranduago jaiotakoa. Nik gogoratzen dutena da nire haurtzaroko garaia, izan zen lana, lana eta lana. Ez zegoen besterik. Urtean behin Arantzazura ibilaldiren bat eta ez zegoen besterik. Nire aitak fabrika batean lan egiten zuen eta gero 2-3 behiko baserri txiki bat zuen. Hor behar ziren aita eta amaren lanak. Oporrak iristen zirenean, koskortu ginenean gu ere eskua botatzera joaten ginen. Ez ziren beraiek bakarrak horrela bizi zirenak, Urnietan gertatzen zen egoera zen. Haiek politikarako ezer ez zuten. Hori da nik gogoratzen dudana. Gogoratzen dut nire amaren baserria. Nire amaren familia paperez karlistak ziren. Baserri hartako komedorean argazki batzuk zeuden, Carlos V, Alfonso XIII, Franco eta Mola. Eta ondoan, Zumalakarregi ere bai. Imajinatu zein nahasketa. Hori zen baserri-etxe bateko komendorean zegoena. Imajinatu zein nahasketa. Nola ezkontzen dira Mola eta Zumalakarregi?.

GURASOEN EGOERA GERRA GARAIAN

Esan duzu aitak fabrika batean egiten zuela lan.

Bai, etxe ondoan. Nire aitak zeuzkan lau anai gerran. Bera zen bosgarrena. Bosgarrena zelarik ez zuten eraman. Nire aita zen Quinta del biberón-ekoa. Horiek ziren gero Ebroko frentean egon zirenak. Bera bosgarrena zelako ez zuten eraman. Gerra bukatu eta gero 7 urte egin zituen soldaduskan. Gainera, Afrikara joan zen. Miseria eta gorriak ikusi zituen. Esaten den bezala, hilabeteko permisuarekin etorri eta bueltan 10 kilo gehiagorekin bueltatu zen. Pentsatu nola bizi izan zen. Hauek oso interes gutxi zuten politikarekin. Bat ere ez. Beraientzat ondorenak izan ziren garatu zituztenak. Aitak soldaduska egin zuen eta ama, irabazi zuten bandokoa zen, baina ez pentsatu horregatik libratu zirenik miseriatik. Azkenean, baserrian lana egiten zuten. Amak kontatzen zuen, gabean ezkutuan astoaren gainean jarri ama eta Trantaxko errotara joaten ziren artoa ehotzera. Gabez ibiltzen ziren hara eta hona. Seguru aski, hauek besteak baino erraztasun gehiago izango zituzten. Baina hala ere, ez naiz atrebitzen hori esatera. Nik imajinatu egiten dut galtzaile baten familiak zer bizitu izan zuen hauena ezagututa. Hauena horrelakoa bazen, galtzaileena horrelakoa izango zen.

ESTRAPERLOA

Estraperloa egiten zuen zure familiak?

Ez. Etxerako behar zutena egiten zuten. Mundu guztiak egiten zuen, ez zen dirua egiteko baizik eta jateko egiten zen estraperloa. Azken finean hura egin edo bertan gosez hil. Horrelako baserri inguruetako herrietan hori egiten zen. Txerri hilketak ere egiten ziren, adibidez, gaueko 22:00etan. Baserrietan nik uste dut, beharrak bazirela baina goserik ez. Nire inpresioa da. Nire aitak esaten zuen: "Hemen gosea zegoela? Gosea guk pasatzen genuen Afrikan. Hona etorri Malagan pisatu, etxea etorri, hilabete pasa eta bueltan joan eta 10 kilo gehiago". Hemen gutxienez patata bazegoen eta artoa ere bai, ez akaso nahi zen guztia.

Zure gurasoek orduan aurrera egin zuten baserria zutelako?

Ni ari naiz ezkondu baino lehenago esaten. Kontuak dira ezkondu baino lehenagokoak. Beraiek ezkondu ziren 1947an. Ni 49koa, anai bat 48koa. Nik uste dut 1947ko urtarrilean ezkondu zirela. Soldaduskatik 7 urte pasa, etorri eta handik denbora gutxira ezkondu ziren.

Zenbat anai-arreba zarete?

Nik ditut bi arreba gazteagoak eta anai zaharragoa, 22 urtetik hila. Beste gaixotasun batekin hil zen. Ziren familia bat helburu bakarrarekin, familia aurrera ateratzea, lana eta politika bat ere ez. Hauek zuten definizio nolabaitekoa; oso gutxi politizatutako jendea ziren eta ezjakintasun handia zuten.

AITONAK; Bata KARLISTA eta Bestea ABERTZALEA

Zure aitonaren inguruan zer kontatu ahal diguzu?

Familian gehien destakatu zena izan zen bera, nire aitona. Gerran jende askok kontsideratzen du txapelgorrien buru. Bere buruzagitza azpimarratzen dut ezagututa nola zen. Ikaragarrizko kontraesanak zituen. Ez dakit kontraesana zen edo mundu guztiarena zen. Nik ikusi dut nire aitona-amonak beste bandoko jendearekin kristoren erlazio pertsonala zutela. Maria Arizmendi eta gainontzekoekin erlazio oso onak zituzten. Nik orduan galdetzen dut: Hauek ibili ziren gerran bata bestearen kontra eta orain horrelako erlazioa daukate? Esan behar da Arzimenditarrak beti izan direla jende berezia herri honetan. Arizmenditarrek herri honetan egin dute denetik, baita hilak jantzi ere. Horrek ematen du pertsonaren kalitatearen seinale. Inoiz ezberdintasun politiko eta pertsonalik gabe tratatu dute jendea. Beste alde batetik beste aitona abertzalea izan zen. Ahaztu gabe nere aita gerra ondoren Tercioen ondorioz zinegotzi izatera bihurtu zutela. Andoainen lan egiten zuen eta enlaze sindikal zan "Porque lo decidieron así", a dedo behartu zioten zinegotzi izatera Franco garaian 5 edo 6 bat urte pasa zituen kontzejal moduan. Aitzolaren garaitik Jose Querejeta arte baina ez nago zihur. Gure aitona ordea aukeratua izan zen zinegotzi izan zen 1916-1930 arte, bera Euzkoa Alderdi Jeltzaleko lehenengoetariko bat izan zen.

HERRIKOEN ARTEKO HARREMANAK

Arizmenditarrak zein ideologiakoak ziren?

Arizmenditarrak izan ziren herrian abertzaleak. Maria Arizmendi Urnietan pertsonaia da. Nik amari entzun diot, Barkaiztegitarrak nire aitonaren etxera joan eta esaten alde egiteko errepublikarrak zetoztelako. Gero alderantziz gertatu zenean ere gertatu zen berdina. Barkaiztegikoekin erlazio handia zuten. Barkaiztegitarrak Urnietan fusilatuak izan ziren. Hala ere, beraiekin erlazio ona izan zuten eta kolaboratzen zuten ere bai. Nire aitonak horrelako jendeari laguntza emateko ez zuen arazorik. Berak zituen influentziak erabiltzen zituen jendearen alderako. Ikuspuntu politiko batetik ikusten duzu, horiek lerratu dira erregimenarekin, karlista difuso ideia horrekin, baino gero hau egiteko gai dira. Hauentzat zer izan da gerra? Hori alde batekoak eta bestekoak. Nik herri honetan ikusi dut Barkaiztegitarrak nire izeba-osaba eta aitona-amonekin erlazio ona izaten. Batzuk fusilatuak zituzten, baina horrela izan zen. Arizmenditarrekin, berdin. Nire amak horrela esaten zuen: "Horiek pertsonak dira, gerra beste batzuk egiten dute".

ERLIJIOA

Zure etxean fededunak izan zarete?

Arront erlijiosoa. Katoliko, apostoliko, erromanikoak. Nire etxean horrela izan da. Aitaren aldetik, eliza eta elizkoiak. Errosarioa egunero errezatzen zen etxean. Nik hori egin dut 18 urte arte. Askotan, klandestinitatean lanean eskua bota izan didate bere

sinesmenarengatik. Ni ziur nago horretan. Beraiek ikusten zuten on egin behar ziela jendeari, gizartean aldaketak egoteko. Ez da hori izan beraiek pentsatzen zutenarengatik, fededunak izateagatik. Aitona-amonak ere bai. Esate baterako, nire aitaren aldeko amonari inoiz politikaz ez diot sumatu izan eta 94 urte bizi izan zen. Bere senarra 14 urtetan zinegotzi izan zen udaletxe honetan. Nik uste dut, garai hartako politika zantzuak gaur egungo ikuspuntutik begiratuta, askotan sinesgaitza da. Nik nire denbora ikasi dut, estudiatu eta irakurri dut. Gerra zibilaren aurrekariak eta atzekariak ikusi nola gertatu diren, konflikto politiko eta gainontzeko gauzak, eta gero familian gertatu zenarekin edo niri transmititu zidatenarekin, ez ikustekorik ez duen sentsazioa dut.

LAU OSABA GERRAN

Komentatu duzu aitaren aldetik lau anai joan zirela gerrara.

Bai, lau anai.

Zure osabak bueltan etorri ziren?

Bai. Batzuk soldaduskan harrapatu zituzten.

Zein bandotan egon ziren?

Hauek izan ziren arrastraus. Gerra hemendik pasa zenean hartu eta denak martxa.

Amak izan du anaiaren bat?

Bai. Anaia bera baino zaharragoa zen eta gero 4 ahizpa bera baino gazteagoak zirenak.

ERREPRESIOAK

Norbait familian fusilatua izan da?

Ez, ez eta kartzela ere. Horregatik esaten dut egoera berezia zela. Zaila egiten zait ulertzea. Imajinatu egiten dut errepresaliatutako eta fusilatutako familia horien bizimodua. Latza izan zen. Nire ondorio bat da.

Zer dakizu herritik joan behar izan zuten familiez?

Ez, inguruan ez zen izan. Urnietan baserri desjabeturik uste dut ez zela egon.

ESTRAPERLOA

Komentatu duzu estraperloa egitea normala zela, ezta?

Bai. Txerri hilketak gabez egiten ziren eta izaten ziren matarife bat. Nibel handikoak. Miguel handiak urtean 300-400 hiltzen zituen. Gerra ondoren ere txerriak hiltzen jarraitzen zuen. Udarako bero handienean ere bai. Berak kontatzen zuen, Miguel Fernandez zen hori, Arantzuri baserrikoa. Nik berari entzun izan diot Oianumeko sukaldean esaten nola udaran kristoren beroarekin txamarra panazko batekin azpian labana eta gantxoa zintzilikaturik zuela txerria hiltzeko. Hura isilpekoa zen? Nik uste dut, konbentzituta nago, han zegoela horrelako: “Badakigu zer egiten duzuen, baino lasai utziko zaituztegu”. Horrelako zerbait zegoen. Nik uste dut fronteran askotan estraperlistak bazekitela zer gertatzen zen Guardia Zibilekin. Nik ezagutu ditut Oianumen Guardia Zibilak lotan karean, besteei beraien bidaiaren bueltan fitxajeak egiteko. Gaueko 22:00etan atea jotzen zuten Guardia Zibilak, ukuiluko orbelen tartean lo egin eta fitxaketak egiten zituzten. Hori legala zen? Ez, baino egiten zen. Garai haietan horrelako gauza asko zeuden. Baserrietan gosea ez dut uste, baina kalean bai. Baserriarekin loturarik ez zuen jendeak gorriak ikusi zituen. Baserrian jana edukita ere beharra baldin bazuten. Imajinatu besteak.

EMAKUMEEN ERREPRESIOA

Hori Urnietan ezaguna da. Arizmenditarrak eta Alkaindarrak Andoaingo koartelera eramaten zituzten. Oinez eramaten zituzten, errezino-olioa eman eta ilea moztuta. Ridikulazitu egiten zituzten. Hori Urnietan ez zen legenda bat, hori horrela zen, denek zekiten. Maria Arizmendik berak kontatzen zuen nola egiten zien hori. Niri bezala beste jende askori kontatuko zion.

Eta berak nola kontatu izan dizu hori? Amorruarekin edo jada pasa da sentimenduarekin?

Ez. Maria, nire aldetik, kultura munduan herri honetan miresmen handia izan duen pertsona izan da. Ideologikamente ez zegoen nirekin, baina berdin zaio. Kuraia zuen emakume horrek. Burgoseko epaiketan, mutil gazte koadrila bat ginen. Batzuk gazteak, 20-21 urte. Bera eta Sabina Narbarte aurrean jarri eta Guardia Zibilei aurre egin zieten. Hori 70. hamarkadan eta izango zituzten urteak beraiek. Gerra aurretik oso aktibo eta militanteak izan ziren kulturgintzan, antzerkigintzan, hizkuntzan lan asko egindako emakumeak ziren. Haiek beraien ideologia oso garbi zuten, gero erlazio pertsonalak eta onak zituzten. Oso elizkoiak ziren. 70. hamarkadarako antzerki talde bat sortu zuen eta ikastolaren sorreran ere hor ibili zen. Emakume horiek ziren niretzako “admirables”, gerra garaian pasa zituztenak pasa eta hala ere , segi. Nire ustez, hori izan da guretzat zubia. Nik ez dut etxean izan zubi hori, nik izan dut kalean. Maria Arizmendiri ez diot entzun izan gerrako historia kontatzen, seguru aski beste eremu batzuetan kontatuko zuen. Beraiek aurrera begirako perspektiba zuten; orain antzerkian orain ikastola, orain ez dakit zer eta horretan segi. 90 urterekin hil zuten kotxeko istripu batean. Hil zen egun arte ideiak argi zeuzkan bere ideiak. Aurreneko hauteskundeak hasi zirenean bera joaten zen baserriz baserri botoak banatzera, Eusko Alderdi Jeltzaleko botoak. Emakume honi nik ez nion inoiz reprotxerik egin. Nahiago nuke horrelako kuraiako emakume gehiago egon balira.

Uste duzu gaur egun eskubide gehiago edo garatuago dagoela berdintasunaren gaian?

Bai noski. Emakumeen mugimendua Euskal Herrian ez zen izan bereziki aurrerakoia. Estatuan beste leku batzuetan emakumeak askoz ere aurreratuagoak zeuden. Euskal Herrian elizak izan zuen pisua eta horregatik, ez du ezer ikusteko gaur egungo egoerarekin. Elizak hemen gizartea zikiratu egin zuen erabat. Hortik aurrera jarri ezazu nahi duzun epitetoa. Ez du ezer ikustekorik. Emakumeen gaia nire gazte denboran nola ikusten zen eta zein ikuspuntu dagoen eta oraingoarekin ez du ezer ikustekorik.

Erregimenak emakumeekin bereziki gorra izan ziren. Gizonekin gorra izan bazen emakumeekin gehiago. Nire inpresioa da. Lotu ziren ideologia, eliza eta gizartea dena bloke batean. Herri honetan gainera tokatu zen parroko bat hala modukoa. 57an hil zen baina historikoa da bera. Pentsatu horrelako pertsonai integrista bat, erregimenaren taliban bat. Hori kontuan edukita imajinatu herri honetako emakume eta gizon guztiak beldurtuak egoten zirela elizan. Hori hausten hasi zen nik 16-17 urte nituen garaian, Orbegozoko grebak eta denak, apaiz berriak etorri ziren, ikastolaren sorrera…. Mugimendu hori hasi zen, baina bitartean oscurentismo hutsa zegoen Urnietan.

Mikel Izagirre nació en Urnieta y vive allí. Su familia materna fue carlista, y cuenta muchos sucesos. Por otro lado, cuatro tíos suyos de la familia paterna estuvieron en la guerra en el bando de Franco. Cuando llegó la guerra al pueblo reclutaron a los cuatro hermanos. Mikel hace una gran reflexión sobre la ideología política y la fe de la familia de sus padres. Tenían muy buenas relaciones con los de otras ideologías del pueblo y se ayudaban, aunque fueran del bando contrario. Reflexiona sobre esa situación desde el punto de vista político actual.

DESCRIPCIÓN DE LA FAMILIA

Nombre y apellidos

Mikel Izagirre Rekondo.

¿Dónde naciste?

En Urnieta.

¿Fecha de nacimiento?

11 de agosto de 1949.

¿Nombre y apellidos de tu madre?

Maria Rekondo Iribar.

¿Dónde nació?

En Aia y con 6-7 años vino a Urnieta.

Su fecha de nacimiento?

14 de septiembre de 1927. El padre, en cambio, nació en el caserío Urkain de Urnieta, el 16 de enero de 1920. Se llamaba Antonio Izagirre Igerategi y era hijo de una familia de toda la vida de Urnieta.

¿Cómo recuerdas a tus padres? ¿Cómo era la madre?

Yo soy de la posguerra. No soy justo posterior, nací 10 años más tarde. Lo que yo recuerdo es mi infancia, que fue trabajo, trabajo y trabajo. No había más. Una vez al año una excursión a Arantzazu y no había más. Mi padre trabajaba en una fábrica y luego tenía un pequeño caserío con 2-3 vacas. Ahí se necesitaban los trabajos del padre y la madre. Cuando llegaban las vacaciones, ya crecidos, nosotros también solíamos ir a echar una mano. No eran los únicos que vivían así, era lo habitual en Urnieta. Ellos no tenían nada para la política. Eso es lo que yo recuerdo. Recuerdo el caserío de mi madre. La familia de mi madre eran carlistas en el papel. En el comedor de aquel caserío había unas fotografías: Carlos V, Alfonso XIII, Franco y Mola. Y al lado, también Zumalakarregi. Imagínate que mezcla. Eso es lo que había en el comedor de un caserío. Imagínate que mezcla. ¿Cómo casas Mola y Zumalakarregi?

LA SITUACIÓN DE LOS PADRES DURANTE LA GUERRA

Has dicho que tu padre trabajaba en una fábrica.

Sí, al lado de casa. Mi padre tenía cuatro hermanos en la guerra. Él era el quinto. Como era el quinto no se lo llevaron. Mi padre era de la "Quinta del biberón". Esos eran los que luego estuvieron en el frente del Ebro. Como él era el quinto no se lo llevaron. Terminada la guerra, pasó 7 años en la mili. Además fue a África. Vio mucha miseria. Como se suele decir, vino con un permiso para un mes y volvió con 10 kilos más. Piensa como vivió. Estos tenían muy poco interés en la política. Nada. Ellos tuvieron que sufrir las consecuencias. El padre hizo la mili y la madre, aunque era del bando de los ganadores, no te creas que se libró de la miseria. Al final trabajaban en el caserío. La madre contaba que por las noches montaba sobre el burro e iba a escondidas al molino de Trankatx a moler el maíz. Andaban por la noche de aquí para allá. Seguramente estos tendrían más facilidades que los otros. Pero, aun así, no me atrevo a decirlo. Yo me imagino qué tuvo que pasar una familia de los perdedores conociendo la de estos. Si la de estos era así, la de los perdedores así sería.

EL ESTRAPERLO

¿Tu familia solía hacer estraperlo?

No. Hacían lo que necesitaban para casa. Lo hacía todo el mundo, no era para hacer dinero sino para comer. Al fin y al cabo, era hacerlo o morir de hambre. En los pueblos de la zona rural se hacía eso. Las matanzas de cerdo, por ejemplo, se hacían a las 22:00 de la noche. Yo creo que en los caseríos había necesidades, pero no hambre. Es mi impresión. Mi padre solía decir: "¿Qué aquí había hambre? Hambre era lo que pasábamos nosotros en África. Venir aquí y pesarnos en Málaga, venir a casa, pasar un mes, ir de vuelta y pesar 10 kilos más". Aquí por lo menos había patata y maíz, tal vez no todo lo que quisieran, pero sí.

orr.

¿Entonces, tus padres salieron adelante porque tenían un caserío?

Yo hablo de la época de antes de casarse. Es la vida que tenían mis padres antes de que se casaran. Ellos se casaron en 1947. Yo del 49, un hermano del 48. Creo que se casaron en enero de 1947. Pasó 7 años en la mili, vino y al de poco tiempo se casaron.

¿Cuantos hermanos sois?

Yo tengo dos hermanas menores y un hermano mayor, que murió a los 22 años. Murió por una enfermedad. Eran una familia con un único objetivo: sacar adelante la familia, el trabajo, y nada de política. Estos tenían una definición sesgada; era gente muy poco politizada y tenían una gran ignorancia.

LOS ABUELOS: UNO CARLISTA Y EL OTRO ABERTZALE

¿Qué nos puedes contar sobre tu abuelo?

El que más destacó en la familia fue él, mi abuelo. En la guerra mucha gente lo consideraba jefe de los carlistas. Recalco su liderazgo conociéndole como era. Tenía muchas contradicciones. No sé si eran contradicciones o era lo de todo el mundo. Yo he visto que mis abuelos tenían una gran relación personal con gente del bando contrario. Tenían muy buena relación con María Arizmendi y con los demás. Con lo cual, yo me pregunto: ¿Estos anduvieron en la guerra unos contra otros y ahora tienen una relación así? Hay que decir que los Arizmendi siempre han sido gente especial en este pueblo. Los Arizmendi han hecho de todo en este pueblo, incluso vestir muertos. Eso da testimonio de la calidad personal. Han tratado a la gente sin diferencias políticas ni personales.

Por otro lado, el otro abuelo era abertzale. Sin olvidar que mi padre después de la guerra fue obligado a ser concejal por los Tercios. Trabajaba en Andoian y era enlace sindical porque lo decidieron así, a dedo lo obligaron a ser concejal durante el franquismo. Estuvo 5 o 6 años como tal. Empezó en la época de Aitzol y hasta la de José Querejeta, pero no estoy seguro. Pero nuestro abuelo fue un concejal electo entre 1916-1930, fue uno de los primeros del Partido Nacionalista Vasco.

LAS RELACIONES ENTRE LA GENTE DEL PUEBLO

¿De qué ideología eran los Arizmendi?

Los Arizmendi fueron abertzales en el pueblo. María Arizmendi es un personaje en Urnieta. Yo he escuchado a la madre que los Barkaiztegi fueron a casa de mi abuelo y que les dijeron que huyeran por que venían los republicanos. Luego cuando sucedió lo contrario ocurrió lo mismo. Tenían una gran relación con los Barkaiztegi. En Urnieta fusilaron a los Barkaiztegi. Aun así, tuvieran buena relación con ellos y seguían colaborando. Mi abuelo no tenía ningún problema para ayudar a gente así. Aprovechaba las influencias que tenía para ayudar a la gente. Desde un punto de vista lo ves, esos se han alineado con el régimen, con esa idea de carlista difuso, pero luego son capaces de hacer eso. ¿Para estos qué ha sido la guerra? Eso los de un lado y los del otro. Yo he visto en este pueblo a los Barkaiztegi teniendo buena relación con mis tíos y mis abuelos. Unos tenían fusilados, pero así fue. Lo mismo con los Arizmendi. Mi madre solía decir así: “Esos son personas, la guerra la hacen otros”.

LA RELIGIÓN

¿En tu casa habéis sido creyentes?

Muy religiosos. Católicos, apostólicos y románicos. En mi casa ha sido así. De parte del padre, la Iglesia y devotos. En casa se rezaba el rosario todos los días. Yo lo he hecho hasta los 18 años. Muchas veces, en la clandestinidad, me han echado una mano por mis creencias. Estoy seguro de eso. Ellos veían que tenían que hacer el bien a la gente, para que hubiera cambios en la sociedad. Eso no era por lo que pensaban, sino porque eran creyentes. Los abuelos también. Por ejemplo, a mi abuela paterna nunca le he sentido sobre política y vivió hasta los 94 años. Su marido fue concejal durante 14 años en este ayuntamiento. Yo creo, mirando la política de entonces desde la perspectiva actual, muchas veces es increíble. Yo he aprendido, estudiado y leído mi tiempo. He visto como fueron los antecedentes y las consecuencias de la Guerra Civil, el conflicto político y demás cosas, y luego con lo que sucedió en la familia y con lo que me transmitieron, tengo la sensación de que no tienen nada que ver.

CUATRO TÍOS EN LA GUERRA

Has comentado que de parte de tu padre fueron cuatro hermanos a la guerra.

Sí, cuatro hermanos.

¿Volvieron tus tíos?

Sí. A unos los cogieron en la mili.

¿En qué bando estuvieron?

Estos fueron llevados a rastras. Cuando pasó la guerra por aquí, los cogieron a todos y en marcha.

¿La madre ha tenido algún hermano?

Sí. El hermano era mayor que ella, también cuatro hermanas más jóvenes que ella.

LAS REPRESIONES

¿Ha sido fusilado alguien en tu familia?

No, y tampoco ha estado nadie en la cárcel. Por eso digo que era una situación especial. Me cuesta entenderlo. Me imagino el modo de vida de esas familias represaliadas y con fusilados. Fue muy duro. Es una conclusión mía.

¿Qué sabes sobre las familias que tuvieron que huir del pueblo?

No, alrededor no hubo. En Urnieta creo que no hubo ningún caserío expropiado.

EL ESTRAPERLO

Has comentado que hacer estraperlo era normal, ¿verdad?

Sí. Las matanzas de cerdo se hacían a la noche y se hacían con un matarife. De gran nivel. Miguel Handia solía matar 300-400 al año. Después de la guerra seguía matando cerdos. Incluso en los días más calurosos de verano. Miguel Fernández del caserío Arantzubi lo contaba. Yo le he escuchado a él decir en la cocina de Oianume, como en verano con un calor insoportable iba con una zamarra de pana y debajo llevaba un cuchillo y un gancho colgados para matar un cerdo. ¿Aquello era secreto? Creo yo, estoy convencido, que allí había algo parecido a: "Sabemos lo que hacéis, pero os dejaremos tranquilos". Había algo parecido. Yo creo que en la frontera muchas veces los estraperlistas sabían lo que ocurría con los Guardias Civiles. Yo he conocido en Oianume Guardias Civiles durmiendo en el portal, para fichar a los que venían en el viaje de vuelta. A las 22:00 de la noche la Guardia Civil tocaba la puerta, dormían entre la hojarasca de la cuadra y fichaban. ¿Eso era legal? No, pero se hacía. En aquella época había muchas cosas de esas. En los caseríos creo que no hubo hambre, pero en la calle sí. La gente que no tenía relación con los caseríos las pasó canutas. Si teniendo comida en el caserío aun así tuvieron necesidades, imagínate los otros.

LA REPRESIÓN CONTRA LAS MUJERES

Eso es muy conocido en Urnieta. Los Arizmendi y los Alkain los llevaban al cuartel de Andoain. Los llevaban andando, les daban aceite de ricino y les cortaban el pelo. Los ridiculizaban. Eso en Urnieta no fue una leyenda, eso fue así, lo sabían todos. La misma María Arizmendi contaba como sucedía. Como a mí, se lo contó a mucha otra gente.

¿Y ella cómo te lo solía contar? ¿Con rabia o con el sentimiento de "eso ya pasó"?

No. María, por mi parte, ha sido una persona que ha tenido una gran admiración en el mundo cultural de este pueblo. Ideológicamente no estaba conmigo, pero da igual. Era una mujer con coraje. En el proceso de Burgos éramos una cuadrilla de chicos jóvenes. Unos jóvenes, de 20-21 años. Ella y Sabina Narbarte se pusieron delante e hicieron frente a los Guardias Civiles. Eso en los 70, y ellas ya tendrían sus años. Antes de la guerra, fueron mujeres muy activas y militantes que trabajaron mucho en cuanto a la cultura, el teatro y la lengua. Ellas tenían muy clara su ideología, además tenían buenas relaciones personales. Eran muy religiosas. Para la década de los 70 ya había creado un grupo de teatro y también anduvo en la creación de la ikastola. Para mí esas mujeres eran admirables, pasando todo lo que pasaron en la guerra y, aun así, siguieron. Creo que para nosotros eso ha sido un puente. Yo no he tenido en casa ese puente, yo lo he tenido en la calle. A María Arizmendi no la he escuchado contar historias de la guerra, seguramente lo haría en otros ámbitos. Ellas tenían perspectiva de futuro; ahora el teatro, ahora la ikastola, ahora no sé qué y seguían en ello. La mataron con 90 años en un accidente de coche. Hasta el día que murió tuvo las ideas claras. Cuando empezaron las primeras elecciones, ella iba de caserío en caserío repartiendo los votos, votos del Partido Nacionalista Vasco. Yo nunca hice ningún reproche a esta mujer. Ya me gustaría que hubiera más mujeres con el coraje que tenía ella.

¿Piensas que hoy en día hay más derechos o está más desarrollado el tema de la igualdad?

Sí, claro. El movimiento de las mujeres en Euskal Herria no fue especialmente progresista. En otros lugares del Estado las mujeres estaban más avanzadas. En Euskal Herria la Iglesia tuvo un gran peso y, por eso, no tiene nada que ver con la situación actual. Aquí la Iglesia castró totalmente a la sociedad. De ahí en adelante pon el epíteto que quieras. No tiene nada que ver. Como se veía el tema de las mujeres en mi juventud y que punto de vista hay ahora, no tiene nada que ver. El régimen fue especialmente duro con las mujeres. Si fue duro con los hombres, con las mujeres más. Es mi impresión. Unieron la ideología, la Iglesia y la sociedad todo en un bloque. Además en este pueblo tocó un párroco así así. Murió en el 57 pero él es un histórico. Piensa un personaje integrista, un talibán del régimen. Teniendo en cuenta eso imagínate que todas las mujeres y hombres de este pueblo estarían asustados en la iglesia. Eso empezó a romperse cuando yo tenía 16-17 años, las huelgas de Orbegozo y todos, vinieron nuevos curas, la creación de la ikastola… Empezó ese movimiento, pero hasta entonces en Urnieta hubo un oscurantismo total.

Lasa Bergara, XABIER (1966)

Xabier Lasa Bergara Andoaingo herritarra dugu, 1966ean jaioa. Bera ez da historialaria baina bere herriko memoriaren inguruko proiektuetan murgilduta dago. Horren ildotik, Andoain herrian burutu dituzten ekimenen inguruan dihardu elkarrizketa honetan. Oria auzoko errealitatea zein izan zen azaltzen du.

"OROITUZ, ANDOAINEN" TALDEA

Andoaingoa zara, eta nire galdera hau da: Nondik nora jo duzu memoriako lanetan?

1966ean jaioa naiz. Ni ez naiz historialaria. Lanbide heziketan elektronika ikasi nuen La Salle eskolan, historiarekin zer ikusirik ez duena. Orduan poliki-poliki hasi nintzen hemengo kontu eta historiak ikertzen. Eta hortik, labur esanda, 90eko hamarkadaren hasieran, Larramendi Bazkuna elkarteak Andoainen 36ko gerraren inguruan zenbait elkarrizketa egiteko proposatu zidan, eta 1994an *Gerra zibila andoaindarren begietatik* liburua argitaratu genuen.

2000. urtearen inguruan hasi ziren lehenbiziko fosak lur azpitik azaleratzen, eta Aranzadik 2002an Zaldibian bi gorpu aurkitu zituen, besteak beste.

Testuinguru horretan, Andoainen, frankismoko biktimekiko sentsibillizatuta geunden laupabost lagun bildu eta "Oroituz, Andoainen" elkartea sortu genuen; taldean, pertsona bakarra zen biktimen familiarra zena. Gu ere kezkatuta geunden ikus genuelako herri honetan sufrimendu mota asko egon zela, eta segitzen zuela egoten. Biktima batzuen sufrimendua azpimarratzen zen eta besteena ez, eta injustizia horri ere erantzun egokia eman behar zitzaiola iruditzen zitzaigun.

Andoainen bertan, bertako jendearekin makina bat elkarrizketa egin genituen. 2000. urtean sentsazio argia geneukan beranduegi genbiltzala lanketa horretan. Adibidez, 90 urteko pertsona batengana jo, eta lehenago azaldu izan bagina informazio gehiago edukiko genuela esaten zigun. Zinta kaseteekin grabatzen genituen solasaldiak. Gaur egungo ikuspegitik, konturatzen zara orduan agian ez geniela eman merezi zuten garrantzia, etorkizunera begira dokumentu aberatsak ziren heinean. Eta horrela, kasete horietako batzuk hondatu egin zaizkigu, denboraren poderioz.

Ekimen batzuk ere egin genituen, liburu bat atera genuen (Ahozko historia: oroimenean lokartutako ahotsa), non errepresioaren eta sufrimenduaren mapa zehazten genuen, testigantza pertsonalekin, argazkiekin eta agiriekin erakutsiz. Andoaingo Udalean ere mozio bat aurkeztu genuen 2006ean, biktimen aldeko adierazpen instituzional baten moduan. Astegun batean antolatu zen udalbatza, eta Andoainen ez zen inoiz pleno batera hainbeste jende joan. Ordurako kontaktuak egin genituen eta batez ere errepresioaren atalik bortitzenak jasa zituztenekin, adibidez, fusilatu eta desagertuetakoekin egon ginen. Familiarrak azaldu ziren eta oso hunkigarria izan zen.

Aldi berean, intziditzen jarraitu genuen (eta jarraitzen dugu) erakunde politikoek gauzak ez zituztelako behar bezala egin. Izan ere, trantsizioa azkenean iruzurra izan zen. Eta oraindik Amnistiaren Legearen aitzakiapean. iruzurrarekin jarraitzen dugu.

Zuen taldea, *Oroituz, Andoainen* da?

Oroituz, bai. Egia da oso diziplinatuak ez garela, beste gauzetan ere gabiltzalako. Agian ez gaude modu oso profesional batean baina gure gauzatxoak egin ditugu. Azkenean lortu genuen udalarekin akordatzea eta herriko eskultore batek egitea eskultura, "Goiztirian". Bi sekuentzia irudikatzen dituen harrizko eskultura bat da. 2006 - 2007tik aurrera, egun bat izendatu genuen,

beti larunbata dena, omenaldi ekitaldia egiteko, eta biktimak gogoratuz. Lore-eskaintza egiten da, batez ere izendatzen ditugu desagerrarazi zituzten 25 herri-kide; beraien aurpegi eta biografiak biltzen dituen pankarta handia jartzen dugu. Gero hemen dauzkat hiru urteetan zehar egin ditugun zenbait aldizkari.

Islada Ezkutatuak taldea noiz sortu zen?

Orain zortzi bat urte, gutxi gora behera. Lasarte-Oriako jendeak osatzen du gehienbat. Halako batean, kide batek komentatu zidan ea taldean sartu eta kolaboratu nahi nuen. Eta azkenean, bertan nago, bai.

Taldea Lasarte-Oriako jendea elkarrizketatzen aritu da azken urte hauetan, 1936ko kolpe militarraren ostean errepresio frankista jasan zuena. Aldi berean, testigantza eman dutenei esker ona adierazteko ekitaldi omenaldia antolatzen du, hitzaldiak antolatzen ditu eta Zubieta aldeko Txaldatxur parajean lubakiak errekuperatzen ari da.

ORIA AUZOA

Oriako auzoa, lehen Urnietako auzoa zenez, zer jaso zuten edo zer jakin zuten gutxi gora behera?

Ilkerketa berezi bat eskatzen duen auzoa dela iruditzen zait. 600 bat biztanle izango zituen orduan. Lasarte-Oria herria, udalerri bezala, historia laburra dauka, laurogeiko hamarkadan sortu zen. Baina 1936an, Lasarte-Oriako biztanleak Urnieta eta Hernanikoak ziren. Oria, hain zuzen, Urnietako auzoa zen. Andoainek lur zatiren bat hartzen zuen, baina biztanlerik ez zegoen empadronatuta; ezta ere Usurbilen.

Txikitatik, etxean aitari beti entzun izan nion Oria auzoa "Rusia pequeña" zela. Hernaniko "La cuesta de la muerte"k. bezala, Oriakoak ere 1936an zeukan zergatiaren jatorria. Izan ere, Errepublika garaian auzoko jende asko ezkertiar borrokalari gisa nabarmendu zen. "Brunet" zegoen bertan, lantegi famatua, oihalgintzakoa eta bertan egiten zuen lan auzoko jende gehienak; garai hartan langileak esplotatzen zituen, beste hainbat tokietan bezala. Ezkerrak indar handia hartu zuen han, UGT sindikatua langileen eskubideen alde hasi zen borrokan, eta oihartzun handia eduki zuten mobilizazioak burutu ziren 1931tik 1936ra. 1934ko Urriko Iraultzan, adibidez, gogor mugitu zen hango jendea, eta ugariak izan ziren atxilotuak.

Zuk uste duzu jendea, "Brunet" eta horrelako fabriketara joaten zirenak, egiatan baserritarrak zirela eta gero bertara joaten zirela lanera, edo kanpotik etorritako jendea zela?

Bruneteko plantilla gehienbat Oriako jendeaz osatzen zen, inmigranteak edo kanpotarrak zirenak. Hala ere, baziren Lasarteko herritarrak edo inguruetako baserritar euskaldunak bertan lan egiten zutenak, proportzio txikiagoan hori bai.

Immigrante Nazionala?

Bai, estatuko hainbat lurraldeetatik etorritakoak. Nahiz eta bertan bizitzearen poderioz, hurrengo belaunaldiek, umeek-eta, euskaraz ikasi. Oraingo adineko pertsona ugarik batez ere, Lasarte eta Oria ondo bereizten dituzte oraindik. Esaten dutenez, Lasarte zen nazionalistagoa eta euskaldunagoa eta Oria errepublikano eta sozialistagoa; Orian erdaldun gehiago zegoen. "Pikeak" egoten ziren beraien artean. Errepublika garaian, esan nahi dut.

Nolako errebueltak izan ziren?

Errebueltak ez, beraien arteko borrokak izaten ziren. Ondo bereizten ziren oriatarrak eta lasartearrak. Adibidez, maiatzaren 1ean eta horrelako egun seinalatuetan, Orian bildu, eta Lasartera joaten ziren. Hemen, Batzokiaren inguruan ere oso mugimendu indartsu zegoen, eta horrela, liskarrak sortzen ziren ezkertiarren eta abertzaleen artean. Gero ere, Orian hileta zibilaren bat edo beste gertatu zen… Azken batean, hainbat istorio topa daitezke Orian, garairako auzo borrokalaria eta hauslea izan zela erakusten digutenak.

Xabier Lasa Bergara es vecino de Andoain, nacido en 1966. Él no es historiador pero está involucrado en proyectos sobre memoria. Es por ello que en esta entrevista nos habla sobre iniciativas que han desarrollado en Andoain. Describe cual era la realidad del barrio Oria.

"OROITUZ, ANDOAINEN" TALDEA

Eres de Andoain, y mi pregunta es esta: ¿Cuál ha sido tu recorrido en los trabajos sobre memoria?

Nací en 1966. Yo no soy historiador. En Formación Profesional aprendí electrónica en la escuela La Salle, que no tiene nada que ver con la historia. Entonces, poco a poco, empecé a indagar sobre temas e historias de aquí. Y de ahí, contándolo brevemente, a comienzos de la década de los 90, la asociación Larramendi Bazkuna me propuso hacer ciertas entrevistas sobre la guerra civil del 36 en Andoain, y en 1994 publicamos el libro *Gerra zibila andoaindarren begietatik*.

Hacia el año 2000 empezaron a exhumar las primeras fosas, y, por ejemplo, en el año 2002 Aranzadi encontró dos cuerpos en Zaldibia.

En ese contexto, en Andoain nos juntamos cuatro o cinco amigos sensibilizados por las víctimas del franquismo y creamos la asociación "Oroituz, Andoainen"; en el grupo solamente una persona era familiar de alguna víctima. Nosotros también estábamos preocupados por que en este pueblo hubo muchos tipos de sufrimiento, y todavía seguía habiendo. Se subrayaba el sufrimiento de algunas víctimas y el de las otras no, y nos parecía que también había que dar una respuesta adecuada a esa injusticia.

En Andoain realizamos muchas entrevistas a la gente del pueblo. En el año 2.000 teníamos la sensación de que ya andábamos tarde en ese trabajo. Por ejemplo, fuimos donde uno de 90 años y nos decía que si hubiéramos venido antes habríamos

conseguido más información. Grabábamos las entrevistas en cintas de casete. Desde la perspectiva actual, te das cuenta de que tal vez entonces no les dimos la importancia que merecían como documentos importantes de cara al futuro. Y así, con el paso del tiempo, algunos de esos casetes se nos han estropeado.

También llevamos a cabo algunas iniciativas: publicamos un libro (*Ahozko historia: oroimenean lokartutako ahotsa*), donde detallábamos el mapa de la represión y el sufrimiento con testimonios personales, fotografías y documentos. También presentamos, en el 2006, una moción como una declaración institucional a favor de las víctimas, en el Ayuntamiento de Andoain. Se organizó el pleno en un día laboral, y en Andoain nunca había ido tanta gente a un pleno. Para entonces teníamos contactos echos, sobre todo con los que sufrieron lo más duro de la represión; por ejemplo, estuvimos con los fusilados y los desaparecidos. Vinieron los familiares y fue muy emotivo.

Al mismo tiempo, seguimos incidiendo (y todavía seguimos) porque las organizaciones políticas no hicieron las cosas como era debido. Ya que al fin y al cabo la transición fue un fraude. Y todavía con la Ley de Amnistía seguimos con el fraude.

Vuestro grupo se llama *"Oroituz, Andoainen"*?

Sí. La verdad es que no somos muy disciplinados, porque estamos en más cosas. Tal vez no estemos de un modo muy profesional pero hemos hecho nuestras cositas. Al final llegamos a un acuerdo con el Ayuntamiento y que un escultor del pueblo hiciera una escultura: "Goiztirian". Es una escultura de piedra que refleja dos secuencias. De 2006-2007 en adelante, pusimos un día, que siempre tocara en sábado, para hacer el acto de homenaje y recordar a las víctimas. Se hace una ofrenda de flores, sobre todo nombramos a las 25 personas del pueblo que hicieron desaparecer, y ponemos una gran pancarta que recopila sus fotografías y biografías. Además, tengo aquí varias revistas que hemos hecho durante tres años.

¿Cuándo surgió el grupo *"Islada Ezkutatuak"*?

Hace unos ocho años, más o menos. Sobre todo está formada por gente de Lasarte-Oria. Uno me comentó a ver si quería entrar en el grupo y colaborar. Y al final entré, sí.

Durante estos últimos años, el grupo ha estado entrevistando a gente de Lasarte-Oria que sufrió la represión franquista tras el golpe militar de 1936. Al mismo tiempo, organiza un acto de homenaje para expresar su agradecimiento a los que dieron su testimonio, organiza charlas y está recuperando trincheras en la zona de Txaldatxur en Zubieta.

EL BARRIO ORIA

El barrio Oria, como antes era de Urnieta, ¿más o menos que recuperasteis o que supisteis?

Creo que es un barrio que necesita una investigación específica. Entonces tendría unos 600 habitantes. Lasarte-Oria, como municipio, tiene una historia muy corta, pues se creó en la década de 1980. Pero en 1936, los habitantes de Lasarte-Oria eran de Urnieta o Lasarte. Oria, precisamente, era barrio de Urnieta. Tenía una parte en Andoain pero sin habitantes empadronados, y en Usurbil tampoco.

De pequeño, siempre oía a mi padre decir que el barrio Oria era la "Rusia pequeña". Como "La cuesta de la muerte" de Hernani, el sobrenombre de Oria también tenía su origen en 1936. Porque durante la República mucha gente del barrio destacó como combatiente republicano. Allí estaba la famosa fábrica textil "Brunet" donde trabajaba la mayoría de la gente del barrio; en aquel entonces explotaban a los trabajadores, como en otros muchos sitio. La izquierda cogió mucha fuerza, el sindicato UGT empezó a luchar por los derechos de los trabajadores, y realizó movilizaciones que tuvieron gran repercusión entre 1931 y 1936. Por ejemplo, en la Revolución de Octubre de 1934, la gente de allí se movilizó con dureza, y fueron muchos los detenidos.

¿Tú piensas que la gente que iba a "Brunet" y a fábricas similares, en verdad eran baserritarras y luego iban a trabajar allí, o que era gente venida de fuera?

La plantilla de Brunet estaba formada sobre todo por gente de Oria, que eran inmigrantes o extranjeros. De todos modos, también había vecinos de Lasarte o campesinos euskaldunes de los alrededores que trabajaban allí, aunque en menor proporción.

¿Inmigrantes estatales?

Sí, que venían de diferentes regiones del Estado. Aunque al estar viviendo allí, las siguientes generaciones, los niños sobre todo, aprendían hablar en euskara. Mucha gente mayor de Oria de hoy en día todavía diferencian muy bien Lasarte y Oria. Según dicen, Lasarte era más nacionalista y más euskaldun, y Oria más republicano y más socialista; en Oria había más castellanoparlantes. Solía haber piques entre ellos. Durante la República, quiero decir.

¿Cómo eran las revueltas?

Revueltas no, eran peleas entre ellos. Se diferenciaban muy bien los oriatarras y los lasartearras. Por ejemplo, el 1 de mayo y en otros días señalados parecidos, se juntaban en Oria e iban a Lasarte. Aquí, en torno al Batzoki también había un movimiento fuerte, y así, surgían conflictos entre izquierdistas y abertzales. Luego, en Oria también hubo algún que otro funeral civil… Al fin y al cabo, en Oria se pueden encontrar varias historias que nos muestran que para la época era un barrio combativo y transgresor.

Lizeaga Azpiolea, JOXEBA (1959)

Joxeba Lizeaga Azpiolea ez zen gerra garaian jaio, 20 urte geroago baizik. Bere familia guztia Urnietan bizi zen. Bere amak 10 urte zituen gerra hasi zenean, aitak, 11 urte. Bere aitona zinegotzi abertzalea izan zen Urnietan, errepublika garaian, gerra hasi bitartean. Behin gerran, soldadu frankistek preso eraman zuten bera eta bere anai bat, biak fusilatzeko asmoarekin. Paulino Uzkudun boxealariak, frankisten bandoan egon arren, lagundu zien bizirik irteten. Bere amonak ere soldadu frankistei aurre egin zien bere senarra preso eraman zutenean. Baserria galdu zuten obus baten bidez eta aitonaren anai batek exiliora, Donibanera Loitzunera joan beharra izan zuen. Bere amaren hiru anaia ere, gerrara joan behar izan ziren eta bat zazpi urte eta gero bueltatu zen etxera, ordurako desagertutzat ematen zutenean.

FAMILIAREN DESKRIBAPENA

Izen-abizenak?

Ni naiz Joxeba Lizeaga Azpiolea.

Jaiotze data?

Jaiotze data, 1959ko apirilaren 15a.

Non jaio zinen?

Jaio nintzen Urnietan, Oztaran auzoko Bidegurutzeta baserrian.

Aitaren izena?

Aitaren izena zen Antonio Lizeaga Iñurrieta eta jaiotze data 1925 abuztuak 23a. Bera ere Bidegurutzeta baserrian jaio zen.

Amaren izena?

Bai, ama da Maite Azpiolea Olarra, eta jaio zen Hernanin, Jauregi auzoko Pitikar baserrian, 1926ko apirilaren 26an.

Badakizu gutxi gorabehera noiz ezkondu ziren?

Bai, ezkondu ziren amaren urtebetetze egunarekin, 1955ko apirilaren 26an.

Non ezkondu ziren?

Ezkondu ziren Hernaniko Juan Bataiatzailearen parrokian, eta ondoren bazkaria Martuteneko Trinkete jatetxean egin zuten.

Zenbat anai-arreba zineten?

Gu gara hiru anai-arreba. Ni naiz erdikoa.

Erdikoa zara?

Bai. Gu, anai-arrebontzako baserriko lana ez da izan gure ofizioa, edo esan genezake ez diogula jarraipenik eman gure arbasoen lanbideari. Gurekin bukatu da baserria. Aita, bere bizitzaren zati handi batean baserriko ohiko lanera dedikatu zen. Etxean zegoen ganadua. Etxeko konsumorako sagardoa egiten zen, eta baratza ere bai.

Nola gogoratzen dituzu zure gurasoak?

Gurasoak? Kontuan izan behar dugu beraiek gerrak arrapatu zituela umetan, eta iruditzen zait horrek bizitza osorako markatu zituela, beraien belaunaldi osoa bezala. Ama oraindik bizi da, 94 urterekin. Aita, nahiko isila zen, esan genezake nahiko introbertitua zela, eta ez genuen bere hitzetik haurtzaro eta gerra garaiko pasadizo askorik jaso. Pentsatzen dut gerra bat oso experientzia gogorra izango dela ume batentzako eta oso gaizki pasako zuela, eta beldur hori ez zuela erabat gainetik kendu bizitza osoan. Ama azkoz hiztunago eta izaera alaiekoa da, baina baita ere esango nuke asko markatu zutela bere bizitza guztian umetan bizitutako kalamidadeak. Guri, modu batera edo bestera transmititu digutena, beraiei gertatutakoa eta beraiei gurasoek transmititu ziena da. Ez digute inoiz gorrotorik transmititu. Beraiek, naiz eta barruan zauri handiak eduki, saiatu dira, gertatutakoa transmititzen. Batez ere ama eta aitona.

Aitaren lanbidea?

Aita baserriko lanean aritu zen eta gero beste enpresa batean ere bai . Baina esan genezake baserrian aritu zela bere bizitzaren zatirik handienean.

Eta ama?

Bai, ama baserrian aritu zen baita ere. Bera zen komertziala, berdurak, frutak eta esnea salduz. Eta gero, baserriko lanbidea alboratu zutenean etxeko lanak egiten jarraitu zuen osasunak lagundu zion bitartean.

GERRAREN URTEAK

Etxeko familia gerrak harrapatu zuen?

Bai, bai. Amak, gerra hasi zenean, anaia zaharragoak zituen eta topatu ziren hiru anai gerrara deituak izan zirela. Familia geratu zen etxean urteetan hiru anai horien informaziorik eduki gabe, ez zekiten bizi ziren edo ez. Ez zekiten ezer. Bat zazpi urteetara bueltatu zen etxera eta ez zuten ezagutu ere egin. Beraien aita hila zuten ordurako. Oso gazki pasa zuten, baina orduan baserriko produktuen bidez eta ingurukoen laguntzarekin nolabait konpondu ziren. Familia handia zen eta etxeko gizonak gerran zirenez, lanik gogorrenak aurrera ateratzen zituztenak falta ziren. Amak gogoan du nola soldaduen kamioiak etxeko atarian egoten ziren. Errepublikarren kamioiak egoten ziren. Oso gogoan izan du bizitza osoan eta hainbatetan aipatu izan digu berak 11 urte bete zituen egunean nola bonbardeatu zuten Gernika.

Hiru anaien izenak?

Hilda daude denak, Jose Ramón, Joaquin eta Inaxio ziren.

Zein bandoetan egon ziren borrokan?

Bando nazionalean. Joaquin izan zen zazpi urtetara etxera itzuli zena, lehenik gerra eta jarraian soldadutza eginda.

Anai horietako bat preso egon zen?

Ez, nik behintzat ez dut horren berririk izan.

Arazorik gabe etorri ziren gerratik etxera?

Arazorik gabe etorri zirela esatea, gehiegi esatea ere bada, baina gerora bizitza arrunta egiteko moduan izan ziren. Joaquin izan ezik, denbora asko behar izan zuen fisikoki errekuperatzeko naiz eta ondo jarri zen. Eta geroztik baserriko lanak eginez etxean gelditu zen, betirako landatuta etxean. Ez zen ezkondu, eta etxetik ia-ia atera ere ez zen egiten. Nik uste dut, joaten zela mezetara, ileapaindegira, eta askoz gehiagorik ez. Lau gauza beharrezkoak zirenak egiten zituen eta ez zen etxetikan mugitzen. Iruditzen zait bere bizia salbu ikusi zuela eta esan zuen: “Hau da nire txokoa” eta ez zela bertatik mugitu.

AITONA PRESO

Bai, aitaren familia Bidegurutzeta baserrian zegoen 1936ean. Bi arreba zituen aitak, bera erdikoa zelarik. Aitona Guillermorekin (48 urte), amona Engraxirekin eta aitonaren anaia gazteena, ezkongabea, Prudentzio (36 urte) izena zuenarekin bizi ziren bertan. Aitona, gerra aurretik, errepublika garaian, Urnietako Udaleko zinegotzi abertzalea izana zen. 1931tik 1936ra bitartean hain zuzen ere. Gerra hasi zenean, Jose Maria Belauntzaran zen Urnietako alkatea eta Guillermo zen lehen alkateordea. Baita ere, Euzko Nekazarien Bazkuna sindikatuko Urnietako delegatua zen garai hortan. Horrez gain, badirudi gerra hasiera hartan, soldadu milizianoak baserrian aterpea hartua zutela. Beraz, esan genezake boletu guztiak zituela beregana etortzeko. Eta horrela izan zen, soldadu nazionalak Urnietan sartu eta berehala, 1936eko irailaren 12ko goizean, salaketa bat zela bitarteko, aitona Guillermo eta bere anaia Prontxio, atxilotu eta Zaldundegira jaitsi zituzten, jakinaraziz, biharamonean fusilatuko zituztela. Baina han zirela, sekulako ezustekoa gertatu zitzaien. Gerra hasi orduko, Nazionalekin lerrokatu zen Paulino Uzkudun boxeolari errezildarra agertu zen hantxe, zaku bat bizkarrean zeramala, soldadu nazionalei hamabosteroko diru-saria edo “kintzena” ordaintzera. Prontxiok berehala deitu zion Paulinori; honek, ikusi zuenean, “zer egiten duk hemen Lizeaga?” galdetu zion. Paulino eta Prontxio elkarrekin soldadutza egindakoan ziren, eta dirudienez bertan oso lagun minak eginak. Egoeraren berri eman ordurako lasaitzeko eskatu zien bi anaiei, berak egingo zituela egin beharrekoak onik etxera itzuli zintezen. Eguna luze joan zen Lizeagatarrentzako, baina, ilunabarra iristearekin batera jaso zuten libre geratzen zirela zioen abisua. Hori bai, baserria erabat kiskalia izango zutela beraiek iristerako, eta handik aurrera baserriko esnea soldadu nazionalentzako eraman beharko zutela, esan ondoren. Eta horrela izan zen, iritsi zirenerako erreta zegoen baserria, Oriamenditik jaurtitako obus bat bertan lehertutakoan sortu zuen suteagatik. Bertan zeuden milizianoek, alde egin aurretik askatu zituzten behiak soilik salbatu zirelarik.

Badakizu zer kargu zuen Uzkudunek?

Entzun izan dut falangista sutsua izan zela, eta gerra garaian izugarrikeri handiak egindakoa, baina ez dakit konkretuki zein kargu izan zuen momentu hartan, baina kurguren bat bazuela bistakoa da, soldaduak ordaintzera etorri baitzen Urnietara. Argi

dagoena da egoera hartan behintzat adiskidetasuna lehenetsi zuela, kontrako bandoko bi pertsonen bizia salbatzeko izugarrizko ahalegina eginez. Gerora jakin izan zuten Guillermo eta Prontxiok zer nolako iskanbila sortu zuen egun hartan Uzkudunek Andoaingo komandantzian, beldurgarria izan omen zen, Paulino Uzkudun, buruan zeraman txapel gorria erantzi, eta indarrez lurrera boteaz "bi errugabe hiltzera zoazte" ohiukatzen entzutea. Bizia salbatu zien, baina ez zuten inoiz gehiago elkar ikusi, Paulino Madrilera joan baitzen bizitzera. Eta bertan hil zen 1985 urtean. Aitonak kontatzen zuen pena ematen ziola sekula santan inori errealitate hori kontatu ezin izana. Nik uste dut joan zela etxetik kanpora inori kontatu gabe. Ez dakit nola eraman zuen bizitzan zehar, baina pentsatzen dut gogorra izango zela.

BASERRI GABE GERATU

Gure aitonak kontatzen zuen, bera euskaldun ikuspegikoa zen: "Euskaldun bati beste edonori bezala, egin diezaioketen kalteren handiena bizia kentzea da, noski, baina horren ondoren, etxea suntsitzea". Etxea ez baita bakarrik bizilekua edo babeslekua, familiako historia guztia jasotzen duen lekua ere bada. Askotan abizena ere ematen dioena. Eta horrela geratu ziren beraiek, aterberik gabe. Orduan, etxetik alde egin behar izan zuten, eta joan ziren Idiazabal kalean kokatutako Posta baserrira. Bertan bizitu zen familia osoa 3 urte luzez, Bidegurutzeta baserriaren jabeak etxe berria egin zuen arte. Beraz, gaur ezagutzen dugun etxea 1940koa da.

ANAIA JOXE IPARRALDERA

Gerra iritsi aurretik gure aitona eta, bi anai eta koinatu bat zinegotzi ziren Urnietan. Guillermo eta Joxe anaiak eta Bittor Almortza koinatua. Joxe exiliora joan zen Donibane Loitzunera hain zuzen ere. Gerra ondoren gaixotu egin zen eta ikusten zuen eriotza gerturatzen ari zitzaiola, eta bere desioa zen Urnietara bueltatzea bertan azken arnasa emateko. eta Donobanetik gutun bat idatzi zion Guillermori bere asmoen berri emanez. Berak bazekien mugara etorriz gero bi tiro eman eta bertan bukatuko zutela berarekin. Aitonari idatzitako gutun horretan eskatzen zion muga pasatzeko laguntza. Orduan, aitona joan zen Urnietako udaletxera eta alkateak prestatu zuen gutun bat anaiak arazorik gabe muga pasa ahal izateko. Alkatetzatik pasa ondoren idazkariarena joan zen (Juan Bautista Aierbe) gutuna erakustera. Gutuna gazteleraz zegoen eta aitonak ulertzen ez zuenez eskatu zion idazkariari itzultzeko. Dirudienez gutunean jarria zeukan mugara iristean zuzenean fusilatzeko esanez. Ba gutun hura apurtu eta Juan Bautistak beste bat egin zion Udalaren izenean. Gutun horrekin joan zen anaiaren bila eta lortu zuten Urnietara onik etortzea. Handik gutxira hil zen Joxe Lizeaga, 43 urterekin.

RAZIONAMENTUA

Raizonamentua izan zuten?

Bai. Sarritan entzuten genien oso gaizki pasa zutela razionamentuarekin. Baratzako produktuak errekisatuta zituzten. Baratza zegoen bigilatuta. Baita ere aipatzen zuten momentuko egoeraren arabera behartzen zituztela gauza konkretu bat landatzera. Adibidez, entzun izan diet, garia edo tabakoa ere egin zutela..

EMAKUMEI ERREPRESIOA

Zure kasuan entzun izan duzu emakumeen kontrako errepresio motaren bat?

Bai, aitona eta bere anaia atxilotzera joan zirenean, gure amona Engraxi Iñurrietak aurre egin zien soldaduei, eta hauek matraileko bat emanda lurrera bota zuten. Gero, Urnietan, eta etxean bertan ere entzun izan ditugu Arizmendi eta Alkain familietako emakumeek errepresio frankista nola jasan beharra izan zuten. Idiazabal kalean kokaturik zegoen Kaxeta etxekoak ziren Arizmenditarrak, eta Berrasoeta baserrikoak Alkain ahizpak. Familia abertzaleetakoak izateaz gain, euskalgintzan buru-belarri lanean ari zirenak baitziren. Andoaingo komandantziak aurkeztu behar izaten zuten egunero, Margarita, Maria eta Gloria Arizmendi ahizpek eta beraiekin batera, Miren eta Soledad Alkainek. Eta haietako "bixita" batean zigor erantsi gisa, hilea "zerora" moztu zieten, baita ere rizino olioa irentsarazi eta Andoaingo plazan eduki zituzten botaka egin zuten arte, jendaurrean lotsagarri uzteko asmoarekin. Oso ezagunak egin zirela uste dut Urnietatik Andoainera ibilbide osoan.

ERLIJIOA

Lehen galdetu didazu erlijioaren kontua eta kontu kurioso bat dago. Gure aitona eta beste zinegotziak erabat elizkoiak izanik Urnietako Udaletxeko Batzar aretoan zegoen Jesusen Bihotzaren irudi bat San Migel elizara eramatea erabiki zuten, Udaletxea leku erliojioso bat ez zeleko. Gerra herrira iritsitakoan, eta ondorioz, udalbatza frankista izendatu zutenean, Bartolome Ugalde alkate zela, hartu zuten aurrenetako erabakia izan zen Jesusen Bihotzaren irudi hori berriro elizatik udaletxera itzultzea. Elizkoiak ziren batzuk zein besteak, aldatzen dena da, errepublika garaikoek erlijioa eta politika banantzearen aldekoak zirela, eta faxixtak ez. Berezia egiten da, frankismoa amaitu zela horrenbeste igaro ondoren, oraindik irudi horrek Udaletxean jarraitzen duela ikustea.

Joxeba Lizeaga Azpiolea no nació durante la guerra, sino 20 años más tarde. Toda su familia vivía en Urnieta. Su madre tenía 10 años cuando empezó la guerra, y su padre 11. Su abuelo fue concejal abertzale en Urnieta, durante la República, hasta que empezó la guerra. Una vez en la guerra, los soldados franquistas se lo llevaron preso junto con un hermano suyo, con la intención de fusilarlos. El boxeador Paulino Uzkudun, aunque estaba en el bando de los franquistas, les ayudo a salir con vida. Su abuela hizo frente a los soldados franquistas cuando se llevaron preso a su marido. Perdieron el caserío por culpa de un obús y un hermano del abuelo tuvo que ir al exilio, a Donibane Lohitzune. Tres hermanos de la madre también tuvieron que ir a la guerra y uno volvió siete años más tarde a Urnieta, cuando ya lo daban por desaparecido.

orr.

DESCRIPCIÓN DE LA FAMILIA

Nombre y apellidos

Yo soy Joseba Lizeaga Azpiolea.

¿Fecha de nacimiento?

Fecha de nacimiento: 15 de abril de 1959.

¿Dónde naciste?

Nací en Urnieta, en el caserío Gurutzeta del barrio Oztaran.

¿Nombre del padre?

El padre se llamaba Antonio Lizeaga y nació el 23 de agosto de 1925. El también nació en el caserío Bidegurutzeta.

¿Nombre de la madre?

Sí, la madre es Maite Azpiolea Olarra y nació en Hernani, en el caserío Pitikar del barrio Jauregi.

¿Sabes cuándo se casaron, mas o menos?

Se casaron el día de cumpleaños de la madre, el 26 de abril de 1955.

¿Dónde se casaron?

Se casaron en la parroquia San Juan Bautista de Hernani, y después, la comida fue en el restaurante Trinkete de Martutene.

¿Cuántos hermanos erais?

Nosotros somos tres hermanos. Yo soy el mediano.

¿Eres el mediano?

Sí. Para nosotros el trabajo de caserío no ha sido nuestro oficio, o podríamos decir que no le hemos dado continuidad al oficio de nuestros antecesores. El caserío se ha terminado con nosotros. El padre dedicó una gran parte de su vida al trabajo típico de caserío. El ganado estaba en casa. Se producía sidra para consumo en casa, y también la huerta.

¿Cómo recuerdas a tus padres?

¿A los padres? Hay que tener en cuenta que a ellos les pilló la guerra de niños, y me parece que aquello los marcó para toda la vida, como a toda su generación. La madre vive todavía, con 94 años. El padre era bastante callado, podríamos decir que era bastante introvertido, y de su boca no escuchamos muchos sucesos de su infancia ni de la época de la guerra. Pienso que la guerra será una experiencia muy dura para un niño y que lo pasaría muy mal, y que ese miedo no pudo quitárselo del todo de encima durante toda la vida. La madre es más habladora y de carácter alegre, pero diría que las calamidades que vivieron durante la niñez los marcaron mucho durante toda la vida. Lo que nos han transmitido a nosotros, de un modo u otro, ha sido lo que les ocurrió a ellos y lo que sus padres les transmitieron. Nunca nos han transmitido odio alguno. Ellos se han esforzado, aunque ellos tuvieran grandes heridas dentro, en transmitirnos lo ocurrido. Sobre todo la madre y el abuelo.

¿La profesión de tu padre?

El padre trabajaba en el caserío y luego también anduvo en otra empresa. Pero la mayor parte de la vida trabajó en el caserío.

¿Y la madre?

Sí, la madre también trabajó en el caserío. Ella era comercial, vendía las verduras, las frutas y la leche. Y después, una vez que dejaron a un lado el trabajo de caserío, siguió haciendo las labores de casa hasta que la salud se lo permitió.

LOS AÑOS DE LA GUERRA

¿A la familia de casa lo pilló la guerra?

Sí, si. La madre, cuando empezó la guerra, tenía hermanos mayores y se encontraron con que tres hermanos tenían que ir a la guerra. La familia se quedó en casa durante años sin tener ninguna información sobre esos tres hermanos, no sabían si vivían o no. No sabían nada. Uno volvió a los siete años a casa, y ni lo reconocieron. Para entonces ya se les había muerto el padre. Lo pasaron muy mal, pero entonces con los productos del caserío y con la ayuda de la gente de alrededor, se las apañaron. Era una familia grande y como los hombres de casa estaban en la guerra, faltaban los que realizaban los trabajos más duros. La madre recuerda como solía haber camiones de soldados delante de casa. Camiones de los republicanos. Durante toda la vida ha tenido en la memoria, y nos lo ha mencionado muchas veces, que el día que ella cumplió 11 años bombardearon Gernika.

¿Los nombres de los tres hermanos?

Están todos muertos, José Ramón, Joaquín e Inaxio.

¿En que bando lucharon?

En el bando nacional. Fue Joaquín el que volvió a casa a los siete años, tras estar primero en la guerra y después haciendo el servicio militar.

¿Alguno de esos hermanos estuvo preso?

No, yo por lo menos no he sabido nada sobre eso.

¿Vinieron sin problemas de la guerra a casa?

Aunque decir que vinieron sin problemas sea decir demasiado, luego pudieron llevar a cabo una vida normal. Excepto Joaquín, que necesitó mucho tiempo para recuperarse físicamente, aunque finalmente se puso bien. Y desde entonces se quedó en casa realizando las labores del caserío, plantado en casa para siempre. No se casó, y prácticamente ni salía de casa. Yo creo que solo iba a misa, a la peluquería, y poco más. Hacía las cuatro cosas necesarias y ni salía de casa. Creo que vió su vida a salvo y se dijo: "Este es mi txoko" y no se movió.

EL ABUELO PRESO

Sí, la familia del padre estaba en Bidegurutzeta en 1936. El padre tenía dos hermanas, y él era el del medio. Vivía allí con el abuelo Guillermo (48 años), la abuela Engraxi y con el hermano menor soltero del abuelo, Prudencio (36 años). El abuelo, antes de la guerra, durante la República, fue concejal abertzale del Ayuntamiento de Urnieta. Es decir, entre 1931 y 1936. Cuando empezó la guerra, el alcalde Urnieta era José María Belauntzaran y Guillermo era el primer teniente alcalde. En aquella época también era delegado del sindicato Euzko Nekazarien Bazkuna. Además, parece que al comienzo de la guerra que algunos soldados milicianos se refugiaron en el caserío. Por lo tanto, podríamos decir que tenía todos los boletos para que vinieran donde él. Y así fue. Al poco de que los soldados nacionales entraran en Urnieta, en la mañana del 12 de septiembre de 1936, el abuelo Guillermo y su hermano Prontxio fueron detenidos y bajados a Zaldundegi, debido a una denuncia, y les notificaron que serían fusilados al día siguiente. Pero estando allí les ocurrió algo increíble. Apareció allí mismo el boxeador errezildarra Paulino Uzkudun, que desde el comienzo de la guerra se alineó con los nacionales, con un saco al hombro, a pagar a los soldados nacionales el sueldo, la "quincena". Prontxio en seguida le llamo a Paulino, y este, al verlo, le preguntó: "Qué haces tú aquí, Lizeaga?" Paulino y Prontxio hicieron juntos la mili, y al parecer se hicieron íntimos amigos allí. En cuanto le contaron la situación pidió a los dos hermanos que se tranquilizaran, que él haría lo que hubiera que hacer para que volvieran sanos y salvos a casa. El día fue largo para los Lizeaga, pero al anochecer recibieron el aviso que decía que quedaban en libertad. Eso sí, tras decirles que para cuando llegaran verían el caserío calcinado, y que a partir de entonces tendrían que dar la leche del caserío a los soldados nacionales. Y así fue, para cuando llegaron el caserío estaba quemado, por un incendio producido por la explosión de un obús lanzado desde Oriamendi. Solo se salvaron las vacas que soltaron los milicianos que estaban allí.

¿Sabes que cargo tenía Uzkudun?

He oído que era un ferviente falangista, y que durante la guerra hizo grandes barbaridades, pero no se que cargo concreto tuvo en aquel momento, pero está claro que tuvo alguno pues vino a pagar a los soldados a Urnieta. Está claro que por lo menos en aquella situación priorizó la amistad, realizando un enorme esfuerzo para salvar la vida de dos personas del bando contrario. Guillermo y Prontxio supieron más tarde, que aquel día Uzkudun debió montar un jaleo tremendo en la comandancia de Andoain; Paulino Uzkudun se quitó la boina roja que llevaba puesta y la tiró con fuerza al suelo gritando "vais a matar a dos inocentes". Les salvó la vida, pero nunca más le vieron, porque Paulino se fue a vivir a Madrid. Y allí murió en el año 1985. Y luego nuestro abuelo solía contar que le daba muchísima pena que nunca hubiera podido contar a nadie esa realidad. Yo creo que se fue de casa sin contárselo a nadie. No sé cómo lo llevo durante la vida, pero pienso que sería duro.

QUEDARSE SIN CASERÍO

Nuestro abuelo siempre contaba, él era de enfoque vasco: "A un vasco, como a otro cualquiera, el mayor daño que le pueden hacer es quitarle la vida, claro, pero después de eso, destruirle la casa". Porque la casa no es solo la vivienda o el refugio, también es el sitio donde se recoge toda la historia de la familia. Muchas veces también les da el apellido. Y así se quedaron ellos, sin refugio. Entonces, tuvieron que irse de casa al caserío Posta que estaba en la calle Idiazabal. Allí estuvo viviendo toda la familia durante 3 años, hasta que el dueño del caserío Bidegurutzeta hizo el caserío nuevo. Por lo tanto, la casa que conocemos hoy en día es de 1940.

EL HERMANO JOXE A IPARRALDE

Antes de que llegara la guerra, nuestro abuelo, dos hermanos y un cuñado eran concejales en Urnieta. Los hermanos Guillermo y Joxe y el cuñado Bittor Almortza. Joxe se exilió en Donibane Lohitzune. Tras la guerra enfermó, y veía que la muerte se le estaba acercando y su deseo era volver a Urnieta a morir. Escribió una carta a Guillermo desde Donibane dándole a conocer sus intenciones. Él ya sabía que si venía a la frontera acabarían con él dándole dos tiros. En la carta escrita al abuelo le pedía que le ayudara a cruzar la frontera. Entonces, el abuelo fue al ayuntamiento de Urnieta y el alcalde preparó una carta para que el hermano pudiera cruzar la frontera sin problemas. Tras pasar por alcaldía, fue donde el secretario (Juan Bautista Aierbe) a enseñarle la cartea. La carta estaba en castellano y como el abuelo no entendía, le pidió al secretario que se lo tradujera. Al parecer, en la carta había puesto que lo fusilaran directamente nada más llegar a la frontera. Pues rompió esa carta y Juan Bautista le hizo otra en nombre del Ayuntamiento. Con ella fue en busca de su hermano y lograron que volviera a Urnieta sano y salvo. Joxe Lizeaga murió al de poco, con 43 años.

EL RACIONAMIENTO

¿Tuvieron racionamiento?

Sí. Muchas veces les oíamos que lo pasaron muy mal con el racionamiento. Los productos de la huerta los tenían requisados. La huerta estaba vigilada. También decían que según la situación del momento les obligaban a plantar una cosa u otra. Por ejemplo, les he solido escuchar, que incluso sembraron trigo y tabaco.

orr.

LA REPRESIÓN CONTRA LAS MUJERES

En tu caso, ¿Has oído hablar de algún tipo de represión contra las mujeres?

Sí, cuando fueron a detener al abuelo y su hermano, nuestra abuela Engraxi Iñurrieta plantó cara a los soldados, y estos la tiraron al suelo dándole una bofetada. Luego, en Urnieta, y en casa también, hemos solido oír como tuvieron que sufrir la represión franquista las mujeres de las familias Arizmendi y Alkain. Los Arizmendi eran los de la casa Kaxeta que estaba en la calle Idiazabal, y las hermanas Alkain del caserío Berrasoeta. Además de ser de familias abertzales, estaban trabajando con empeño por la actividad cultural vasca. Las hermanas Margarita, María y Gloria Arizmendi tuvieron que presentarse todos los días en la comandancia de Andoain, y junto con ellas, las hermanas Miren y Soledad Alkain. Y en una de aquellas "visitas", como castigo añadido, les cortaron el pelo "al cero", les hicieron tragar aceite de ricino y los tuvieron en la plaza de Andoain hasta que vomitaran, con la intención de avergonzarlas ante la gente. Creo que se hicieron muy conocidas en todo el trayecto de Urnieta a Andoain.

LA RELIGIÓN

Antes me has preguntado la cuestión de la religión, y hay un caso curioso. Siendo nuestro abuelo y los demás concejales totalmente religiosos, decidieron llevar una imagen del Sagrado Corazón que había en el salón de plenos del ayuntamiento de Urnieta a la iglesia de San Miguel, porque el ayuntamiento no era un lugar religioso. Cuando la guerra llegó al pueblo y nombraron la corporación municipal franquista, siendo alcalde Bartolome Ugalde, una de las primeras decisiones que tomaron fue devolver esa imagen del Sagrado Corazón de la iglesia al ayuntamiento. Unos y otros eran religiosos, lo que cambia es que los de la época de la República estaban a favor de separar la religión y la política, y los fascistas no. Es curioso que tras tanto tiempo después de que terminara el franquismo, ver que esa imagen sigue todavía en el ayuntamiento.

Guillermo eta Prontxio Lizeaga. Argazkia 1950koa da. / Guillermo y Prontxio Lizeaga. La fotografía es de 1950.

Miner Irastorza, IZASKUN (1935) eta MARITXU (1947)

Izaskun eta Maritxu baserri munduan bizi eta jaioak izan diren Urnietako baserri bateko alabak dira. Baserriaz gain taberna zuten eta denda txiki bat auzokoentzako oinarrizko elikagai eta produktuekin. Ideologia nazionalista zuen etxekoak ziren eta gerra hasi orduko Maritxu bere amarekin Adarra baserri batera egin zuten ihes. Bere senideak etxean geratu ziren eta gerra garaian aitaren aldeko aitona-amonak kartzelaratuak izan ziren. Ez dakite zerengatik izan ziren salatuak, baino bai zein izan ziren salatariak. Herrikideen arteko salaketen inguruan eta estraperloaren inguruan hitz egiten dute eta orokorrean Urnietan gertatu ziren errepresio moten inguruan.

FAMILIAREN DESKRIBAPENA

Izen-abizenak?
M - Maritxu Miner Irastorza.

Non jaio zinen?
M - Urnietan.

Jaiotze-data?
M - 1935eko maiatzaren 23a.

Zure izen-abizenak?
I - Izaskun Miner Irastorza.

Jaiotze-data?
I - 1947ko azaroaren 4a.

Non jaio zinen?
I - Urnietan.

Zure amaren izena?
M - Juanita Irastorza Imaz.

Non jaio zen?
M - Ibarran.

Bere jaiotze-data?
M - 1911ko azaroaren 4koa zen.

Aitaren izen-abizenak?
M - Jose Miner Urretabizkaia.

Non jaio zen?
M - Urnietan.

orr.

Jaiotze-data badakizue?

M - 1908ko ekainaren 5a.

Zenbat anai-arreba zineten?

M - Zortzi.

Zu zer zara anaietatik?

M - Ni zaharrena.

Eta zu?

I - Ni seigarrena.

Amaren lanbidea zein zen?

M - Ama etxean egoten zen.

Eta aita?

I - Baita ere baserrian.

Baserriko alabak izan zarete orduan?

I - Eta taberna. Taberna txiki bat genuen eta denda ere bai, auzokoentzako denetik zegoen.

Abereak ere bazenituzten?

I - Bai, asko.

GERRAKO URTEAK

Gerra hasi zenean zer kontatu izan dizue?

M - Nik urte eta erdi nituela amarekin joan nintzen Adarra mendiko azpian dagoen baserri batera ihesi. Hor egon ginen. Bi bizitza zituen baserri horrek eta beste bizitzan ere beste familia bat zegoen. Han ibili ginen.

Zu eta ama bakarrik?

M - Bai, aita etxean geratu zen eta ez dakit orduan zen edo geroxeago, trenbidean lanean jartzera behartu zuten bere burua aseguratzeagatik. Nik hori uste dut. Gu han mendian. Nik txupetea galdu omen nuen, hori esaten zidaten, negar asko egiten bainuen txupetea galtzeagatik. Ama hor egongo zen bila.

Etxean zein ideologi politiko zegoen?

M - Nazionalista aldera. Ez zen politikaz hitz egiten, baino horregatik egin zizkiguten egindakoak.

Zuek baserri horretan zeundeten eta zer gertatu zen herrian?

M - Aita, aitona eta amona geratu ziren beste etxean eta aitaren senideak. Ama nirekin hara.

AITONA-AMONA KARTXELERATUAK

Bueltatu zineten etxera?

M - Bai, goiz. Beldurra kendu zenean jaitsi ginen. Gure etxean ez zen ezertaz hitz egiten, horregatik, ez dakit. Aitona eta amona ondoren kartzelan sartu zituzten.

Zergatik?

M - Hori ez da jakin. Txarrena zen jakin egin zela zenek salatu zuen. Herriko jendea izan zen.

Amona eta aitona amaren edo aitaren aldetik?

M - Aitaren aldetik.

Nola zuten izena?

M - Juan Bautista Miner eta Mari Cruz Urretabizkaia.

Zenbat denbora egon ziren?

M - Hiru hilabete.

Zein kondena zeukaten?

M - Hori ez dakit.

Zein kartzelan egon ziren?

M - Ondarretan. Amonak horrekin osasuna galdu zuen eta gazterik hil zen.

Kartzelako zerbait kontatzen zuen?

M - Ez. Gu umeak ginen eta beldurra zen gure etxean. Oso bigilatuak geunden. Etxeko sukaldeko leihoan kanpotik bigilatzen ibiltzen ziren ingurukoak ea harrapatzen zuten norbait. Kontuak entzuten aritzen ziren. Taberna nola genuen ea batenbat ibiltzen zen egoten ziren begira. Oso bigilatuak geunden.

Mehatxuren bat edo salaketarik jaso zenuten?

M - Bai, aitona-amonek, horregatik sartu zituzten.

Haiez gain beste norbait atxilotu edo denuntziarik?

M - Ez guk dakigula.

OSABAREN HERIOTZA

Baserrian fusilaketarik egon zen?

M - Ez, baino osaba bat hil zen. Soldadu joan zen eta Llanesen (Asturias) hil zen.

Nola zuen izena?

M - Martin.

I - Asturiasen hil zen.

M - Hor inguruan.

Zer zen aitaren edo amaren anaia?

M - Aitaren anaia. Beste anaia ere Bilbon egon zen.

Nola zuen izena?

M - Ramon.

I - Hil zena Martin.

Ramon beraz, gerra eta gero bueltatu zen etxera edo espetxeratua egon zen?

I - Ez, baino asko sufritu zuen. Hauek sufrituak izan ziren.

ERBESTEA

Familian erbesteraturik egon zen?

I - Bai, izeba bai, Argentinara joan ziren.

Nola zuten izena?

I - Vicenta, Concepcion eta Mikela.

Hauek zein ziren?

M - Aitaren arrebak, hemen denak aitaren familiakoak dira.

Argentinara joan ziren hiru ahizpak?

M - Bai.

I - Baina ez ziren batera joan.

M - Nire izeba eta haren izeba eta gero bi izebak.

I - Han zeuden beste osaba batzuk eta etorri ziren hona birritan. Beraz, eraman egin zituen bi iloba, gure aitaren arrebak. Eta gero urte batzuetara joan zen bestea, Mikela.

Noizbait bueltatu dira Euskal Herrira?

I - Bai, baino bat ez. Seme alabak etorri dira denak.

GERRAOSTEA

Nola geratu zen herria gerra ondoren?

M - Gaizki. Tartean batzuk ondo, baina gehienak gaizki.

Herrian fusilaketak egon ziren?

M - Bai.

I - Xoxokako eskolan egon zen marmolezko oroitarri bat kanpoko paretan denen izenekin.

RAZIONAMENTUA

Jateko, razionamentuaz gogoratzen zarete?

M - Bai. Ogia nik ekartzen nuen Andoaindik. Astoarekin joaten nintzen eta opiltxo batzuk izaten ziren, primera, segunda y tercera izaten zen. Primera ez zen izaten inorentzako. Segunda edo tercera ginen gehienak. Eta gainera gutxi.

Zuek goserik pasa zenuten baserrian bizituta?

M - Guk ez. Guk ez genuen goserik pasa, nolabait etxean izaten zen.

I - Gainera taberna genuen. Beti egoten zen zerbait.

M - Txerria hiltzen zen, goserik ez genuen izan. Artoarekin joaten ziren Alegiraino, beste batzuetan Aranora astoarekin zehetzeko. Baino gosea ez.

ESTRAPERLOA

Zer dakizue hemen egiten zen estraperloaz?

M - Pixkat bat bai. Bertan kontrabandoa ez zen, baino kontrabandista etortzen zen, oiartzuarra. Haiek ganadua pasatzen zuten Frantziatik, pasatzen zuten gure baserri inguruetatik. Oiartzundik etortzen zen.

orr.

Izena badakizu?

M - Ez zait inporta izena esatea, Jaxinto zen etortzen zena. Hor entregatzen zuen eta gure etxera etortzen zen busti-busti eginda edo lo faltarekin.

I - Benta zenez etortzen zen hara.

M - Bentak horretarako ziren, pentsatzen dut. Gure amak lehortu eta loarazi egiten zuen. Oso gizon zintzoa zen. Gu ez ginen sartzen beraien gauzetan. Berari zerbait emango zien seguru aski.

REKISAMENTUAK

Lapurretik edo rekisamenturik izan duzue etxean?

M - Bai. Orduan ez zen nahi zenuena.

Uztaren zenbateko bat eman behar zenioten udalari?

M - Dirurik ez dut uste, baina medikuari, apaizari eta horrelakoei bai.

I - Betenarioa eta sekretarioa...

M - Txerriak zituen parterik hoberenak izaten zituzten.

EMAKUMEAK

Gerraostean emakumeenganako errepresio edo umilaziorik egon zen Urnietan?

M - Gure izebek uste dut pasa zutela. Bost ahizpa ziren eta uste dut pasa zutela, baina ez zuten ezer esaten. Gure etxean beldur handia zegoen. Sufriarazi bai baina beste ezer ez da izan.

RAZIONAMENTUA

Nora joaten zinen razionamentuaren bila?

M - Udaletxe azpian zegoen alondegia, aguazilak egoten ziren eta han ematen zuten. Ematen zuten baino soberarik gabe.

Justua ezta?

M - Bai. Gure etxean banatzeko gero komeriak egoten ziren. Gu ere nahiko sufritzen geunden, baina baserritar asko ez ziren iristen. Behar zutena eta herritatik eskatzen zutena, ba batzuetan larri. Baldin bazen ematen zitzaien eskatzen zutenei. “Babarruna dagoenean ekarriko dizut” eta horrela asko egoten ziren.

Zuek “auxilio sozialera” joaten zineten?

M - Bai, ni bai. Calle Prim, gogoratzen naiz.

Zein oroitzapen dituzu?

M - Ez asko. Lan batzuk egin behar ziren. Nik ez nuen ezer askorik egin. Nik uste dut ez nituela egin. Uste dut zaharrena nintzelako.

I - Eta segun zein familiakoa zinen.

M - Hori ere gaizki ikusia zen gure aldetik. Asko enfrentatu egiten ziren. Gogoratzen naiz joan nintzela bidali egin nindutelako, baina ez dut oroitzapen txarrik.

Izaskun y Maritxu son dos hermanas nacidas en un caserío de Urnieta y han vivido allí. Además del caserío tenían un bar y una pequeña tienda con alimentos y productos básicos para los del barrio. Son de una casa de ideología nacionalista, y en cuanto empezó la guerra Maritxu escapó con su madre a un caserío de Adarra. Sus familiares se quedaron en casa, y durante la guerra los abuelos paternos fueron encarcelados. No saben de qué les acusaron, pero sí quienes fueron los acusadores. Hablan sobre las denuncias entre la gente del pueblo y sobre el estraperlo, y en general sobre los tipos de represión que hubo en Urnieta.

DESCRIPCIÓN DE LA FAMILIA

Nombre y apellidos

M - Maritxu Miner Irastorza.

¿Dónde naciste?

M - En Urnieta.

¿Fecha de nacimiento?

M - 23 de mayo de 1935.

Nombre y apellidos

I - Izaskun Miner Irastorza.

¿Fecha de nacimiento?

I - 4 de noviembre de 1947.

¿Dónde naciste?
I - En Urnieta.

¿El nombre de tu madre?
M - Juanita Irastorza Imaz.

¿Dónde nació?
M - En Ibarra.

¿Su fecha de nacimiento?
M - 4 de noviembre de 1911.

¿Nombre y apellidos del padre?
M - José Miner Urretabizkaia.

¿Dónde nació?
M - En Urnieta.

¿Sabes su fecha de nacimiento?
M - 1908.

¿Cuántos hermanos erais?
M - Ocho.

¿En qué lugar naciste entre los hermanos?
M - Soy la mayor.

¿Y tú?
I - La sexta.

¿Qué profesión tenía la madre?
M - La madre solía estar en casa.

¿Y el padre?
I - También, en el caserío.

¿Entonces sois hijas de caserío?
I - Y bar. Teníamos un pequeño bar y una tienda, había de todo para los del barrio.

¿Teníais ganado?
I - Sí, mucho.

LOS AÑOS DE LA GUERRA

¿Qué os han contado sobre el inicio de la guerra?
M - Teniendo yo año y medio, mi madre huyó conmigo a un caserío que está bajo el monte Adarra. Allí estuvimos. Ese caserío tenía dos viviendas y en la otra también vivían unas chicas. Allí anduvimos.

¿Solas tú y tu madre?
M - Sí, el padre se quedó en casa y no sé si fue entonces o un poco más tarde, le obligaron a trabajar en las vías del tren para asegurarse a sí mismo. Eso creo yo. Nosotras allá en el monte. Yo debí perder el chupete, eso me decían, lloraba mucho por haber perdido el chupete. La madre andaría buscándolo.

¿Qué ideología política teníais en casa?
M - Tirando a nacionalista. No se hablaba de política, pero por eso nos hicieron lo que nos hicieron.

Vosotras estabais en ese caserío, ¿y qué ocurrió en el pueblo?
M - Padre, el abuelo y la abuela se quedaron en casa y los familiares del padre. Mi madre conmigo allá.

LOS ABUELOS ENCARCELADOS

¿Volvisteis a casa?
M - Sí, pronto. Bajamos cuando pasó el miedo. En nuestra casa no se hablaba de nada, por eso, no lo sé. Después encarcelaron a los abuelos.

¿Por qué?
M - No lo hemos sabido. Lo peor era que se supo quién los delató. Fue gente del pueblo.

¿Los abuelos maternos o paternos?
M - Los paternos.

¿Cómo se llamaban?
M - Juan Bautista Miner y Mari Cruz Urretabizkaia.

orr.

¿Cuánto tiempo estuvieron?

M - Tres meses.

¿Qué condena tenían?

M - No lo sé.

¿En qué cárcel estuvieron?

M - En Ondarreta. La abuela perdió la salud a raíz de eso y murió joven.

¿Contaba algo de la cárcel?

M - No. Nosotras éramos niñas y en nuestra casa había miedo. Estábamos muy vigilados. Por fuera de la ventana de la cocina solían andar vigilándonos los de alrededor a ver si pillaban a alguien. Solían estar escuchando nuestras cosas. Como teníamos un bar siempre estaban mirando a ver quién andaba por allí. Estábamos muy vigilados.

¿Recibisteis alguna amenaza o denuncia?

M - Sí, los abuelos, por eso los encarcelaron.

Aparte de ellos, ¿alguien más detenido o alguna denuncia?

M - No, que sepamos.

LA MUERTE DEL TÍO

¿Hubo algún fusilamiento en el caserío?

M - No, pero se murió un tío. Se fue como soldado y murió en Llanes (Asturias).

¿Cómo se llamaba?

M - Martín.

I - Murió en Asturias.

M - Por ahí.

¿Qué era hermano del padre o de la madre?

M - Hermano del padre. El otro hermano estuvo en Bilbao.

¿Cómo se llamaba?

M - Ramón.

I - El que murió Martín.

Por lo tanto, ¿Ramón volvió tras la guerra o estuvo encarcelado?

I - No, pero sufrió mucho. Estos fueron sufridores.

EL EXILIO

¿Hubo algún exiliado en la familia?

I - Sí, la tía sí; se fueron a Argentina.

¿Cómo se llamaba?

I - Vicenta, Concepción y Mikela.

¿Éstas quiénes eran?

M - Hermanas del padre, aquí todos son de la familia del padre.

¿Las tres hermanas se fueron a Argentina?

M - Sí.

I - Sí, pero no se fueron juntas.

M - Mi tía y una tía suya, y luego las dos tías.

I - Allí estaban ya otros tíos y vinieron aquí dos veces. Por lo tanto, se llevaron a dos sobrinas, hermanas de nuestro padre. Y luego, unos años más tarde, se fue la otra, Mikela.

¿Han vuelto alguna vez a Euskal Herria?

I - Sí, pero una no. Los hijos han venido todos.

LA POSGUERRA

¿Cómo quedó el pueblo tras la guerra?

M - Mal. Algunos pocos bien, pero la mayoría mal.

¿Hubo fusilamientos en el pueblo?

M - Sí.

I - En la escuela de Xoxoka estuvo colocado por fuera, en el mármol de la pared, una lápida con los nombres de todos.

EL RACIONAMIENTO

¿Recordáis el racionamiento para comer?

M - Sí. Yo traía el pan desde Andoain. Iba con el burro y solía haber unos panecillos y solía ser de primera, de segunda y de tercera. Primera no solía ser para nadie. La mayoría éramos de segunda o de tercera. Y además poco.

¿Vosotros viviendo en el caserío, pasasteis hambre?

M - Nosotros no. Nosotros no pasamos hambre, en casa ya solía haber algo.

I - Además teníamos el bar. Siempre había algo.

M - Se mataba un cerdo, no pasamos hambre. Iban con el maíz hasta Alegi, otras veces con el burro hasta Arano a molerlo. Pero hambre no.

EL ESTRAPERLO

¿Qué sabéis del estraperlo que se hacía aquí?

M - Algo sí. Aquí no había contrabando, pero venía un contrabandista de Oiartzun. Aquellos pasaban ganado desde Francia, pasaban por los alrededores de nuestro caserío. Venía de Oiartzun.

¿Sabes el nombre?

M - No me importa decir el nombre, el que venía era Jaxinto. Lo entregaba ahí y venía a nuestra casa totalmente mojado y con falta de sueño.

I - Venía porque era una venta.

M - Las ventas eran para eso, pienso. Nuestra madre lo secaba y lo acostaba. Era un hombre muy bueno. Nosotros no nos metíamos en sus cosas. A él le darían algo seguramente.

REQUISAMIENTOS

¿Habéis sufrido algún robo o expropiación en casa?

M - Sí. Entonces no era lo que querías.

¿Qué tanto por ciento de la cosecha teníais que dar al ayuntamiento?

M - Creo que no era dinero, pero al médico, al cura y a gente así, sí.

I - Al veterinario, al secretario...

M - Se les daba lo mejor del cerdo.

LAS MUJERES

¿En la posguerra hubo represión o humillaciones contra las mujeres?

M - Creo que nuestras tías sí lo sufrieron. Eran cinco hermanas y creo que sí lo sufrieron, pero no decían nada. En nuestra casa había mucho miedo. Hacerles sufrir sí, pero no ha sido nada más.

EL RACIONAMIENTO

¿Ha dónde ibas a por el racionamiento?

M - Bajo el ayuntamiento estaba la alhóndiga, estaban los alguaciles y allí nos daban. Daban, pero sin sobras.

Justo, ¿no?

M - Sí. Luego en casa había que hacer peripecias a la hora de repartir. Nosotros sufríamos bastante, pero muchos baserritarras no llegaban. Lo que necesitaban y lo que pedían por los pueblos, pues a veces a duras penas. Si teníamos, les dábamos a los que pedían. “Te traeré las alubias cuando haya” y eso pasaba muchas veces.

¿Solíais ir a auxilio social?

M - Sí, yo sí. Calle Prim, lo recuerdo.

¿Qué recuerdos tienes?

M - No muchos. Había que hacer algunos trabajos. Yo no hice gran cosa. Yo creo que no hice ninguno. Creo que porque era la mayor.

I - Y según de que familia eras.

M - Eso también estaba mal visto de nuestra parte. Muchos se enfrentaban. Recuerdo que me fui porque me mandaron, pero no tengo malos recuerdos.

Unanue López, JON (1964)

Jon Unanuek Urnietan Gerra zibilak ekarritako gertakariak kontatu ditu. Bere aitarengandik eta beste iturri batzuetatik lortutako informazioa da. Batez ere lehenengo hilketen eta fusilatuen istorioak dira, bai eta herriko etxeetan bizitako heriotzak ere. Espetxetik pasa ziren jendeei buruz ere azalpen bat ematen du, eta emakumeak bizi izan zuten errepresioari buruz ere hitz egiten du, azalduz nola bizi zuten Urnietako emakumeek gerra zibilaren eragina. Jon Unanuek bere aitonak nola Iparraldera ihes egin behar izan zuen ere azaltzen du. Erlijioak oso pisu handia izan zuen gerra zibilean, Urnietan, Euskal Herri ia osoan bezala. Erlijioak eta apaizek batez ere eragin handia izan zuten. Gutxi batzuk kenduta, beste guztiek erlijioari errespetu handia zioten. Urnietako apaizek bi joera politikotakoak ziren: abertzaleak edo integristak.

FAMILIAREN DESKRIBAPENA

Izen-abizenak?

Jon Unanue Lopez.

Non Jaioa?

Donostian.

Zure jaiotza data?

1964 martxoaren 18an.

Esan bezala herriko gertaerak jaso eta idatzi dituen pertsona izan zara. Kontatu iezaiguzu Urnietan gerra garaian gertatutakoa

Nik herriko hainbaten testigantzak jaso ditut eta, bereziki, gure aita zenak eta baita osaba Danielek kontaturikoak. Gure aitak inoiz ez zigun gerrari buruz hitz egin. Gerrako kontuak esango zituen, baina oso azalekoak, kontu sakonagoetan sartu gabe. Gogoan dut behin aitari egindako bisita batean hasi zitzaidala hitz egiten berari haurra zela gertatutako kontu batez. 10 bat urte izango zituen eta beste hiru lagunekin batera, hoietako bat Florentzio Zaldua eta, beste biak, Juan Bautista eta Bartolome Urretabizkaia, Hernanira joan ziren igeri egitera, putzu txiki batera. Bueltan milizianoek Langardako kontrol batean altoa eman eta milizianoen Hernaniko koartelera eraman zituzten. Ha ze ikara pasa zuten eta horri buruzko istorio osoa kontatu zidan, eta nik gero horri buruz idatzi nuen. Hori guztia kontatu ahala esan zidan une hartantxe konturatzen ari zela ez zuela inoiz pasadizo hura kontatu. Ohartu zen lehen aldia zela. Haurren abentura bat izan zen, baina beldurra pasa zuten zeren milizianoek fusilekin eraman baitzituzten koartelera. Koartelean egon ziren arratsalde osoa eta azkenerako askatu egin zituzten. Etxera bueltatu eta hor bukatu zen kontua.

*Hari hortatik tiraka, lehenengo artikulua idatzi nuen. Eta hari hortatik tiraka, aita hasi zitzaidan kontatzen ordurarte inoiz kontatu ez zituen gauzak. Aita izan zen nire lehenengo informatzailea, nire lehenengo lekukoa gerra garaian gertatu zena argitzeko eta jakiteko gerra piztu zenean, 1936ko uztailean, nortzuk izan ziren lehenengo hildakoak. Gure aitaren familia Urnietako Plazan bizi zen, *Kontzejuzar* etxean –orain, gaizki, *Eguzkialde* deitzen dena, besteak beste Udalaren utzikeriaz–, hain zuzen ere herriko etxearen aurrez aurre dagoen etxean. Gure aitaren familia osoa lehehengo bizitzan bizi zen, orduan gure aitak 10 urte zituen. Egun haietan gerra piztutzearekin batera gure aitonak Iparraldera alde egin zuen. Gure amona seme-alaba gehienekin etxean

gelditu zen. Seme bat kanpoan zebilen, osaba Antselmo, Durango inguruan, Jesuitekin ikasten. Gerra hastearekin batera giroa dexente nahastu zen eta haurrak, ahal zen moduan, etxe-inguruan zaintzen zituzten.

*Horrela, aitak kontatu zidan nola kalera atera ezinik etxeko leihoan zegoen, Udaletxeko arkupetetan pilotan jolasean ari ziren lau gazteri begira. Haien izenak eman zizkidan ere, jende ezaguna zirelako. Ez ziren urnietarrak baina uda Urnietan igarotzen zuen jendea, udatiarrak: Garate Itxaso-Asu, Araluze bi anaiak eta Felipe Aranjuelo. Pilotan ari zirela, halako batean haietako batek hanka egin zuen, Felipe Aranjuelok, eta beste hirurak pilotan jarraitu zuten. Bat-batean, milizianoen kotxe bat azaldu zen plazan. Pilotan ari zirenak harrapatu, Udaletxera sarrarazi eta, ondoren, kotxean igota eraman egin zituzten. Biharamunean, horietako bat azaldu zen hilik, Lasarteko bidean, beste batek ihes egin zuen eta bere burua hizkutatu zuen herriko etxe batean, Garratza baserrian, uste dut. Hori izan zen Urnietan gerraren ondorioz egon zen lehenengo hildakoa; Araluze anaiek zorte handia izan zuten: batek milizianoek kotxea gelditu zutenean salto egin eta ihes egin zuen eta, bigarrenak, Garate Itxaso-Asurekin batera hiltzat utzi zuten milizianoek baina zauritu besterik ez zuten egin. Hori guztia izan zen 1936ko uztailaren 30ean, San Inazio bezperan. Urnietan egon zen lehenengo hildakoa, beraz, milizianoek hil zuten. Aranjuelok inor gerturatu baino lehen zerbait susmatu zuen eta zimitoriora joan zen, elizara. Bertako leiho handitik errepidea ondo ikusten zen eta hortik ikusi zuen milizianoen kotxea. Besteei hitz erdirik esan gabe, bere burua ezkutatu egin zuen. Milizianoak iritsi zirenean beste hirurak harrapatu eta eraman egin zituzten. Horrenbesez, hortik tiraka hasi nintzen, aitak bere gauza hauek kontatu ahala nik nire artikuluak idazten. Lehenengo artikulua gazte horren inguruan izan zen. Hurrengoa Urmeneta baserrikoa izan zen; ganadu tratante euskaldun batena.

*Aitak kontu horiek guztiak kontatu zizkidan iturria agortu zitzaion arte. Seguru nago gauza asko ez zizkidala kontatu, zeren aita horretarako oso zuhurra zen eta kontu handia ibiltzen zuen herriko jendeari buruz hitz egiten zuenean. Neurri handi batean normala da, baina gauza asko kontatu zizkidan, eta aitarekin bukatu zitzaidanean hasi nintzen adin beretsuko edo zaharragoekin hizketan. Nahi izan zutenekin hitz egiten jardun nuen eta, horrela, artikulu sorta osatzen joan nintzen. Urnietan bai milizianoek bai Francoren aldeko nazionalek hildako eta fusilatutakoen berri jaso nuen.

Zure aitaren izena?

Justo Unanue San Sebastián.

Zenbat anai-arreba ziren?

Zortzi anai-arreba ziren.

FUSILATUAK

Zenbat fusilatu izan ziren Urnietan?

Datuak nire artikuluetan daude, baina beti ere urnietarren ikuspegitik emandakoak, alegia, hor ez dira azaltzen nazionalek aurrera egin ahala fronteko borroketan hil zirenak. Beraz, Garate Itxaso-Asu bat. Paulino Mediaville bigarrena... Ondoren Migel Urmenetakoa; hiru hauek milizianoek hilak. Gero nazionalak iritsi ziren eta Juanjoxe Elustondo, (Egurrolakoa), Trino eta Niko Olaizola eta Julian Olasagirre, *Txuri*. Gero, bi familia hondatu zituzten Rafael Barkaiztegi aita-semeak eta Manuel Lasarte fusilatuz. Azkonobietako Joan Bautista Garmendiari etorri zitzaion ere txanda, eta udalkide izandako Mozotegiko Juan Joxe Izetari. Frontean, berriz, Roke Lasarte harrapatu eta fusilatu egin zuten... Beraz, denetara, hamahiru dituzu fusilatuak, baina kontu egin hor ez direla sartzen –Rokerena izan ezik– frontean, alde batean zein bestean, hildakoak, gehiago izan baitziren... Bakar bat aipatzeagatik, Martin Miner, Llanesen hil zena. Fusilatuez gain, gerra ekintza eta istripuek eragindako hildako zibilak daude: hor behintzat bi aipatu behar dira: Lartzabaletan morroi zihardu en Xanti Urdanpilleta eta Sabordegiko Anttoni Peñagarikano, hamabosna urtekoak biak.

ESPETXERATUAK

Espetxeratu asko egon ziren Urnietan?

Ez dut ezagutzen kopurua, baina herritarren artean espetxeratuetako asko, agian denak edo gehienak, herrikideen salaketek eramandakoak izan ziren, horietako batzuk guztiz faltsuak, mota bateko edo besteko irabazi baten itxaropenean egindakoak, maiz auzokoek egindakoak gainera. Nik kasu bakan batzuk baino ez ditut ezagutu, franskistek atxilo hartutakoen artean, adibidez, Miner Urretabizkaia senar-emazteak, hilabete batzuk preso izan zirenak Donostian, Ondarretako espetxean Juan Bautista Miner eta Mari Kruz Urretabizkaia, berriz, hasieran Ondarretan eta azkenerako San Martin kaleko San Jose komentuan, gaixorik zegoenez. Auzokoen salaketa faltsuek eraman zituzten kartzelara. Errepublikaren aldekoek preso harturikoa, lehen aipatu dudan Juan Bautista Ayerbe Irastorza udal idazkaria.

Espetxeratuak baino gehiago, nire iritziz, “aurrera” egindakoak izan ziren, herritik alde egin zutenak Errepublikaren lurraldera nazionalak Urnietara iritsi ahala, eta baita milizianoen beldurrez alde egin zutenak gerraren lehenengo egunetan. Bada ere Errepublikako tropekin eta milizianoekin oso aurrean ibili eta gerra ostean zigor-bataloiren batean pasa ondoren soldaduskatik sarjento galoiekin itzuli zenik; baita galoi horiek baliatu ere guardia zibilen aurrean... Istorio bitxi ugari dago.

EMAKUMEEN ERREPRESIOA

Zer esango zenuke emakumeen errepresioaren inguruan Urnietan?

Hori ere ez da nik ondo ikertu dudan gaia, zeharka, baina, bizipen latz batzuk ezagutu ditut; horri buruz Xabier Lasak, esate baterako, nik esan dezakedana baino askoz gehiago daki. Dena den, hor dauzkazu Kaxetako alabak, arizmenditarrak. Horiek behartuta zeuden Andoainera joatera; ez ziren bakarrak. Gauza jakina da batzuek errezino olioa edatearen eta ile-adatsa moztu eta burua soiltzearen trauma pasa behar izan zutena Andoaingo edo Lasarteko komandantziara joanda. Baina gai horri buruz orduan eta baita geroko urte guztietan auto-zentsura handia izan da, aipatu ezin zitekeen gaia batzuetan. Rafael Barkaiztegiren emazteari

gorriak pasarazi zizkioten. Senarra eta semea hiltzeaz gain, horren kontura iseka egitera joaten zitzaizkion etxera eta ahalegindu egin ziren ere dirurik ateratzen. Nik hori gogoan daukat. Arizmenditarrak aipatu ditut, alkaindarrak (Fernando bertsolariaren alabak), Alarikuko Petra Mari, Brigida Eizmendi, Arruarteren emaztea. Azken bi hauei, Petra Mari eta Brigida Eizmendiri burua erabat zuritu zieten eta gorriak pasa zituzten errezino olioa edanaraziz tripetatik behera egin zuten guztiagatik. Batzuek, bere burua galtzaile ikusi behar izan zutenek, erbesterako bidea hartzea nahiago izan zuten, hemengo panorama ikusita; Mikela Miner izan zen horietako bat, Argentinara ospa egin zuena hemengo mixeriak ikusita. Autoerrepresiorik ere izan zen, mixeria eta ondorio lazgarri gehiago ez jasateagatik bere burua guztiz makurtzen zutenena: Azkonobietako Dolores Ikutza izan zen horietakoa.

ERREKISAK

Errekisetaz zer esango zenuke?

Batetik, zuzeneko lapurretak izan ziren, "aurrera" alde egindako herritarren etxeetan beste herritar batzuek egin zituztenak. Hori oso ohikoa zen; mutikoek gehienbat uste zuten hori egitea libre zela, alde egin baldin bazuten ja-jai... Horietako asko mutilkoak ziren, nerabeak, neskarik ere izan zen tartean, alde egindakoen etxeetara sartu eta eskura zuten guztia harrapatzen zutenak. Guraso askok ezikusiarena egin zuten, beste batzuek ez. Denetarik egon zen. Asmo gaiztoko lapurreta edo errekisak ere izan ziren, noski, eta hor bai, gaztetxoek eta ez hain gaztetxoek, nazionalen mugimenduaren aldeko zenbaitek, eskua luzatu zuten... Oso ezaguna da Bartolome Lasarteren etxeari eman zioten "garbitua", herriko asko pasa zen handik eta, esan dudan bezala, ez hain gazteak. Eramandako alfonbra batzuk gero bueltatu zituenik izan zen, damututa edo, batek daki, etxerakoan belarrondoko bat jasota.

Errekisa deitu behar diogu, bakar-bakarrik, ofizialki egin zenari, ez aurreko lapurreta horiei. Burgosko Junta de *Defensa Nacional* berriak 1936ko irailaren 13an dekretua atera zuen Franco eta Molaren aldeko errebeldeen aurka egiteagatik ihes egin behar izan zuten guztien ondasunak bahitu edo errekisatzeko agindua emanez, horiek guztiak gerrak eta errepresioak sortu zituzten hondamendi eta galeren erantzule zirelakoan. Horren kontura, udaletako alkateei agindua eman zitzaien errekisa edo bahiketa horiek martxan jar zitzaten. Nik, gure aitonari zegokionagatik izan nuen errekisa horien berri, gaztetxoa nintzela gainera...

AITONA ERBESTEAN ETA MEHATXATUA

Gure aitona Jose Luis hil ondorenean, haren paperak txukundu ziren garaian kaja batean Urnietako Udalaren ofizio bat azaldu zen paper batzuen artean, sutara joan aurretik nire eskuetara erori zena. Mugimendu Nazional katolikoak izendatu zuen lehenengo alkatearena zen, Bartolome Ugalderena. Ofizio labur bat, non, gutxi gora behera gure aitona Jose Luis Unanueri zera esaten zioten: *"Habiéndose ausentado usted de su domicilio familiar, le requiero para que en el plazo de 15 días se persone usted en las oficinas de este Ayuntamiento con objeto de dar cuenta de su situación, porque, de lo contrario, con arreglo a lo establecido en el decreto tal y cual, le serán requisados todos sus bienes"*. Gure aitona Iparraldean zen, ihes eginda zebilen, ez zuen filiazio politiko jakinik, baina abertzalea zela ezaguna zen eta, bada ezpada ere, "aurrera" atera zen bera ere. Beraz, esan bezala, Iparraldean zen familiaren plazako etxean gure amonak ofizioa jaso zuenean: ha ze estuasunak pasako zituen gure amona zenak, halako mehatxuarekin, zortzi seme-alaba bere kargu zituela eta senarrik gabe etxean! Nola edo hala helarazi zioten ofizioa gure aitonari eta txistua baino arinago hasi zen modua bilatzen berriz ere Iparraldetik Urnietara etortzeko. Azkenean egin zuen eta ondo atera zitzaion. Gisa horretan gure aitonarena da Urnietan, agiri ofizialetan aurkitu dudan kasu bakarra. Kontua da, nik horrela jakin nuela errekisaren kontu horren berri, 14 bat urte nituenean, baina orduan ez nion garrantzirik eman, ezer gutxi nekien nik oraindik 1936ko gerraren gorabeheretaz, eta ofizioa –pena galanta!– sutara joan zen beste paper batzuekin batera...

ERREKISA

Nolanahi ere, Urnietan egin zen errekisa ofiziala, Udalaren bidez egindakoa, neurri handi batean esango nuke ongi jasota dagoela agirietan, udal agiritegira jo besterik ez horretarako, hantxe dago dena, edo bai behintzat gaiak zein ezaugarri zituen ulertzeko adina. Eta errekisa ofizial hori egin aurretik izan ziren lapurretak dira lehenago aipatu ditudanak: "lapurreta ofiziala" gero etorri zen. Alde egin zuten herritarren artean –lehenago ere esan dut zeozer–, hiru mota bereizi behar dira: Errebeldeen altxamendua uztailaren 18an gertatu eta berehala bi herritar mota izan ziren alde egin zutenak: abertzale eta errepublikar giroko batzuk eta eskuin aldeko tradizionalista, karlista eta gainerakoak. Ez ziren asko izan, ez batekoak ez bestekoak, baina izan ziren zetorrenaren beldur tartea zabaldu nahi izan zutenak: apaizak, esate baterako, ihes eginda edo ezkutuan ibili ziren. Hasierako egunetako giroa ez zen garbi ikusten eta jendea ez zen fio. Gerra piztu, frontea sortu eta horrek honuntz egin ahala, errepublikaren aldeko herritar nabarmenak desagertu egin ziren, borrokan ari ez zirenak bai behinik behin. Beraz, hor bi motatako iheslariak ditugu: batzuak ezkerreko edo abertzale girokoak eta, besteak, eskuin girokoak. Herritik mugitu behar izan zuen hirugarren taldea orokorra izan zen, alegia, kalean bizi zirenei tropa nazionalen buruzagitza militarrak ohar bidez eskatu zien ospa egiteko herritik beraiek inguratu ahala. Abisu hori Andoainen zirela eman zuten, bazatoztela eta bidea libre uzteko... Herritar askok alde egin zuen orduan: batzuek "aurrera", oraindik Errepublikaren esku zegoen lurraldera eta, besteak "atzera", dagoeneko nazionalen esku zegoen alderdira. Beraz, alde bateko eta besteko pertsonak eta familiak ihes egin zuten. Ez dakit kopurutan neurtzen, baina badakit asko izan zirela. Ezta ere denak batera, uholderik handiena izan zen Andoaindik tropa nazionalek hala egitea agindu zutenean. Lehen esan dudan bezala, alde egiten zutenen etxeak miatzen ibiltzen ziren herriko mutikoak, lagunartean: halakoren etxera sartu eta bizikleta lapurtu..., gisa horretara. Gure osaba bat ere halatsu ibili zela kontatzen zidan aitak, bere lagunarte osoarekin; behin, alde egin eta gero etxera itzuli zen familia bateko ama gure amonarengana joan zen arte kontuak eskatzera: gure osabak eraman zuela bizikleta euren etxetik: hura lotsa eta amorrazioa gure amonarena: txirrinda bueltan joan zen haien etxera baina gure amonak ez zion semeari berehala barkatu!

Udalaren errekisa hasi zenean ere gauza zelebreak gertatu ziren: etxeetan bahitutako material guzti-gutzia zerrenda batean idazten zen, bere jabeari zegozkion ondasun gisa eta, beraz, erraza zen jakitea zein etxetatik zer eraman zuten, oso xehe

apuntatzen baitzen dena. Ondasun horiek guztiak udal alondegian gordetzen ziren gero enkante bidez-edo saltzeko jabeak ordainduz berreskuratzen ez bazituen. Baina udal alondegitik gauzak nahi baino gehiago desagertzen ziren, gero halako edo harako besteren baten etxean azaltzeko...

Jakina "aurrera" egindako herritar askok "atzera" itzuli zenean ezusteko galanta hartu zuen: "Begira nire gabardina orain horrek darama". Baina berriro diot errekisa kontu horretan bi eratakoak bereizi behar direla: herritarrek egindakoak etxeetan sartuz eta ebatsiz; eta ofiziala, irailaren 13ko Dekretuari, *Decreto de incautaciones* deitzen zitzaionari jarraiki egindakoa. Ezagunena, ziurrenik, lehen aipatu dudan Bartolome Lasarte konstruktore ezagunari egindakoa izan zen: Alderdi jeltzalearen babesle izan zen, Renferen kontrata oso garrantzitsuak irabazitakoa, eta berehala desagertu zen herritik. Horri dena kendu zioten. Herritar ugari ibili zen haren etxean... altxamenduaren aldeko familiak, esate baterako. Lehen ere esan dut gero gauza batzuk itzuli egin zituztela, baina galera erabatekoa izan zen. Gainera, Mugimendu Nazional berriaren egoitza Urnietan bertan ipini zuten, eta karlisten errepideko kontrol militarra –aurretik jeltzaleena egon zen bezalaxe– etxe aurrean zegoen. Azkenean etxeak su hartu zuen egun batean –inoiz ez da argitu zergatik edo nola, denetarik entzun dut nik–, eta horri esker, aurrerago, Bartolome Lasartek orain urte gutxi arte ezagutu dugun Mikaelaenea etxe dotorea eraiki zuen, Urnietako Udalak alferrik galtzen utzi duena.

ORIAKO AUZOA eta FUSILAKETA

Zer esango zenuke Oriako auzoaren inguruan eta Urnietako errealitatearen inguruan?

Gauza handirik ez, Oria orduan Urnietakoa auzoa zen. Baina bereizi behar da baserri giroko Oria eta Brunet oihal eta ehun lantegiaren inguruan sorturiko langile auzoa. Urnietako kaleak Oriako baserri giroarekin erabateko lotura zuen, Oriako baserriak bete-betean ziren Urnieta. Baina Bruneteko auzunea beste mundua zen, erabat ezberdina, Urnietako soziologiarekin zerikusirik ez zuena. Eta Udalean ere horrela bizi zuten, zinegotzi eta alkatearentzat Oriako langile auzoa "beste" herri bat zen. Oria aldetik bueltan zetorren Urnietan izan zen lehenengo fusilatuetakoa; milizianoek fusilatua hau. Urmeneta baserrikoa, ganadu saltzailea, Oriatik zetorren milizianoek Buruntzan altoa eman ziotenean. Gizonak ez zekien gazteleraz, eta milizianoen artean euskaldunik bazegoen arren –lekukoek diotenez Eibar aldeko euskalkia hitz egiten zuenik–, ez zuen elkar ulertu ofizialarekin eta espiatzat hartuta dirua zeramakilako, Erratzura jaitsi zuten berehala artasoro batean fusilatzera. Bi tiro eman, zeukan dirua kendu eta bertan utzi zuten. Orian izandako beste zoritxarra, gerra eskualdean amaituta zegoenean, Lartzabaleta baserrian gertatutakoa izan zen, 15-16 bat urteko mutiko batek obus bat aurkitu, etxera eraman eta mekanismoa zabaltzerakoan lehertu egin zitzaion. Txiki-txiki eginda utzi zuen obusak Xanti Urdanpilleta.

URNIETA eta ORIA AUZOA

Beraz, Oria auzunea, Bruneteko langileena beste mundu bat zen. Urnieta herri kontserbadore eta atzerakoia zen. Urnietan, alderdi politiko mailan, erregezaleak eta karlistak nagusi ziren, tradizionalista kontserbadoreak, eta, ondoren, Eusko Alderdi Jeltzalea. Gero herrian bazegoen dozena erdi bat, ale solte batzuk, ezkerrekoak edo errepublikarrak. Hauteskundeetako emaitzei begiratua eman besterik ez, Jose Antonio Rodríguez Ranzek ikerketa bikaina argitaratu zuen Errepublika garaiko hauteskundeei buruz Gipuzkoan; hor xehe-xehe aurkituko duzu dena. Beraz, Udala eskuineko alderdi tradizionalisten eta EAJren artean banatzen zuten; hori bai Errepublika garaian azkenik EAJ nagusi.

Oriako Bruneten auzunea beste mundu bat, langileen mundua, ezkerrekoan eta errepublikazalea gehienbat. Urte asko zeramatzan bertan eskualdera industria handia aurrenekoz ekarri zuen Brunet lantegia. Horrek bazuen eraginik udaletxean; hango eskakizunak eta arazoak hemen aztertu behar zirenean maiz talka modukoa zegoen, baina, gainerakoan, eguneroko bizitza oso normala zen, harreman onekoa. Urnieta herri txikia zen, guztiz nekazari girokoa. Lau artisau kalean, bi señorito eta kanpoko udatiar batzuk; hemen ez zegoen besterik. Oblatoen komentuaren istorioa ere hor zegoen, oso bitxia.

Langile mugimendu horrek eta horren inguruan egon zitekeenak Urnietan bertan oso eragin txikia zuen egunoroko bizitzan. Udalarekiko harremanetan akta liburuetan ikus liteke. Oria behin baino gehiagotan azaltzen da, konponketak direla edo kexak direla, han beste txinparta bat zegoen, kalegiro biziagoa.

ERLIJIOA

Zer esango zenuke, Urnietan apaizen eta elizaren eraginaz?

Urnietan elizaren eragina ikaragarria izan zen, Euskal Herriko herri gehienetan bezala. Urnietan Errepublika garaian bost bat apaiz izango ziren –buruz ari naiz–, eta guztien buru Juan Ayerbe erretorea, goierritarra jatorriz, eta anaia udal idazkari zuena (Juan Bautista). Don Juani buruz asko entzun behar izan dut, eta denetarikoa. Beste apaizei buruz gutxiago. Don Juan pentsamendu oso atzerakoiko apaiza zen, eskuinekoa: Beste apaizak –ez dakit denak baina lautik hiru esango nuke– joera abertzalekoak ziren, EAJren ingurukoak. Franco berehala egin zen botere osoarekin -1936ko San Miguel egunean–, baina oraindik goiz zen matxinatuei frankista deitzeko. Hala ere, izan zuten eragile nagusienetakoa erretorea izan zen, Don Juan Ayerbe. Berak eta herriko eskuineko beste jauntxoek uste baino gauza gehiago erabaki zuten herrian. Erabaki ez zutena seinalatuta utzi zuten, hori horrela da.

Don Juan zen gizon bat, maitatua ere bazena herrian, baina erreakzionario ikaragarria. Gure aita beti oso ondo konpondu omen zen berarekin, baina aitak berak zioen gizon atzerakoi eta zorrotza zela. Oso sinismen itxiko gizona zen. Bere anaia udaleko idazkaria zen eta bi anaien artean herria mugitzen zuten. Anaia, udal idazkaria, preso egon zen Bilbon, gerra hasita preso hartu zuten eta Bilboko barku-presondegi famatu hartan egon zen preso. Eusko Alderdi Jeltzaileak laguntza emanda, Roke Lasartek zehazki, atera zuten handik Donostiako San Bartolomeko presondegira ekarri eta libre uzteko. Berak, aldiz, gero ez zuen inongo laguntzarik eman, hatzik mugitu ere ez zuen egin lagundu ziotenak laguntzeko.

Beraz, esandakoa. Elizaren eragina handia zela herrian. Ale bakan batzuk zeudela ezkerrekoak, Trino eta Niko Olaizola, adibidez, edo Azkonobietako anaia-arrebak, hauek ere bere burua ezkerrekotzat baitzeukaten. Olaizolatarrei aitarengandik zetorkien:

Renfeko langilea, errepublikarra zen eta Aiurrin kontatuta daukat haren eta Urnietako apaizaren arteko ateraldi polita Donostian. Baina gutxi horiek kenduta, eta Oriako auzotarrak, gainontzeko guztiak elizari amen-amen. Alde horretatik, apaizek eragin ikaragarria izan zuten. Apaizak, bi joera politikotakoak zeuden: abertzaleak behintzat hiru (Eusko Alderdi Jeltzalekoak edo), eta Integristak (don Juan gehienbat, bestea orainxe ez daukat garbi). Hain zuzen ere, don Juanen salaketa batek Ondarretako espetxean jarri zituen hiru apaiz abertzaleak hilabete gutxi batzuetan, eta onik atera ziren Vaticanoak presio handia egin omen ziolako Francori fusilatzen ari ziren apaiz euskaldunen kopurua ikusita. Halaxe itzuli ziren; baina herri osoak zekien don Eustakiok, esate baterako, eta don Juanek, elkarri aurpegira begiratu ere ez ziotela egiten... Horixe zen giroa. Herritarrek ere horren arabera jokatzen zuten; aitortzeko, adibidez, edo honekin edo harekin. Don Juanek zerikusi handia izan zuen frankisten eskutik egin ziren fusilamenduekin. Baita udal agintariek ere.

EULAKO FUSILATUA

Salaketen ondoriozko zoritxarreko beste fusilamendu bat Eulako mutilarena izan zen, familiarentzat tragedia. Bereziki zoritxarrekoa diot ezen mutil hark ez baitzuen ezertan parte hartu gerran, ez zuen ideologia jakinik, inozokeria baten biktima izan zen. Zu izan zaitezke pertsona oso konbentzituta doana borroka egitera edo gerrara, baina ez, mutil hau tartean harrapatu zuten. Soldaduska egiten ari zela, Loiolako koartela errenditu zenean, baimenarekin bidali zuen etxera komandanteak. Egurrola edo Eula baserrira azaldu baina etxean inor ez, familia alde eginda, eta zer bururatuko? Oblatoen komentuan milizianoek ardo edo sagardo kupel txikia izaten zuten eta hura zaintzen miliziano bat. Miliziano hura Eulakoan ezaguna edo adiskidea izan eta egun batzuetan haren ondoan ibili zen kupeltxoa zaintzen. Horren kontura fusilatu zuten. Berak ezin zuen ulertu; arrastaka eraman zuten hormaraino oihu eta negar artean. Juan Joxe Elustondo zuen izena.

Dena den, hau eta fusilatuei buruzko gainerako tragedia guztiak Aiurri astekarian azaldu nituen zehatz; hoberena bertara jotzea. Geroztik gauza berririk jakin dut eta etorriko da guztiarekin kontakizun osoagoa egiteko garaia.

PISTOLAN XINGOLA BEREIZGARRIAK

Elkarrizketa amaitzen joateko, bada ezer bitxirik azpimarratu nahi zenukeenik?

Esan dizudan bezala, nekien gehiena Aiurrin esanda daukak eta lan piska bat hartzen baduzue gertakarien kronologia osoa antolatu ahal izango duzue. Gauza bitxirik? Asko. Bi azalduko dizkizut. Lehena huskeria: Gerra hasi zen eta aitona oraindik hemen zegoen, lehenengo egunak nahasiak izan ziren eta haurra zen gure aitarentzat –10 urte zituen– hura guztia berria zen. Gure aita behin zeharo harrituta gelditu zen, eta zirraratuta, bere aita ikusi zuelako etxeko leihoan nola Trino Olaizolari pistola bat, errebolber bat zehazki, ematen zion. Trino ezkerrekoa zen eta aitona, berriz, abertzalea. Baina gure aitak hori ez zekien orduan. Harrituta utzi zuena izan zen ikusteak aitona errebolberra zuela eta errebolberraren ipurditik zintzilik xingola edo zinta bat txuri-gorri-berdea, eta bere aitari galdetu ziola zergatik. Azalpena izan zen arma motzei xingola jarri behar zitzaiela jabea zein aldetakoa zen jakiteko. Abertzaleek edo PNVkoek, edo gudariek, txuri-gorri-berdea eramango zuten, eta Trinok edo ezkerrekoak, milizianoek zinta gorri bat edo gorri eta beltza. Eta gure aitak hori zeukan gogoan. Bide batez balio du azaltzeko zein nahasiak izan ziren egun haiek, gure aitonak zuen errebolberra Trinori eman zion eta Iparraldera alde egin zuen.

AITA ERBESTETIK ETXERA

Bigarren bitxikeria da gure aitonaren ibileren berri nola jakin nuen. Lehenago kontatu dut nola Iparraldera alde egin ondoren jaso zuen Bartolome Ugalde alkate frankistaren jakinarazpena esanez etortzeko etxera bere ondasun guztiak galdu nahi ez bazituen. Horren berri izan zuenean, eta gure aitonak ordurako zer galdua bazuenez, Urnietara itzultzea erabaki zuen. Baina nola, salaketen beldurrik izan gabe? Erabaki zuen bere Azkoitiko izeba moja batzuk baliatzea horretarako. Azkoitiko bi lekaime horiek Ulazia ziren, bere amaren ahizpak eta Iruñan zeuden, horietako bat erruki-etxe edo umezurztegi militar bateko arduradun gisa. Pentsatzekoa zen, beraz, agintari berriekin harreman ona izango zutela. Gure aitonak bazuen norengana jo bestela ere, baina izeba horiek aukeratu zituen eta haiengana jo zuen. Eta kontua da, haien bitartez- edo etxera itzuli zela inolako arazorik gabe. Nik, horraino, kontua nekien gure aitak esana, baina ez gehiago.

Kontua da, Urnietako Udalbatzaren bilera agiriak, aktak, aztertzen hasi nintzenean, Osoko Udalbatzaren aktetan hara non aurkitzen dudan gure aitonari buruzko Udalaren erabakia, hitzez hitz hauxe ziona:

INFORMES

Por comunicación del Excmo. Sr. Gobernador Militar nº 10.424 de 9 de los corrientes se interesan informes de la ideología política y actuación del vecino de esta localidad Jose Luis Unanue, actualmente refugiado en Francia, si esta sujeto a alguna responsabilidad y si hay algún inconveniente para poder regresar a su domicilio se conteste es persona calificada por todos de nacionalista; no de ideas separatista-marxistas que coadyuvaron e hicieron causa común con los rojos sino que se limitó a votar aquella candidatura y en cuanto a su presencia en esta por tal circunstancia será desagradable.

Plenoko aktetan aitonari buruzko erabakia ikustean, bi soka-muturrak lotu nituen. Banekien gure aitonak izebengana jo zuela eta haiek, ziurrenik, Iruñako gobernadore militarrearengana, eta Iruñako gobernadore militarrak Gipuzkoakoari idatzi bide zion galdetuz "¿Qué informes hacen ustedes sobre Jose Luis Unanue Ulacia?". Eta hemengo gobernadore militarrak Udalari galdetu. Eta pentsatzekoa da Udalaren erantzuna ikusita gobernadore militarrak esango zuela: *"¡Venga, venga, que vuelva!"*

Aktetan aurkitu dudan informe bakarra da. Ez zen, beraz, ohikoa izan, Urnietan behintzat, baina horri buruz ikertzen jarraitu beharra daukat. Eta, jakina, gure aitona itzuli egin zen, nik dakidanez arazorik batere gabe.

Jon Unanue nos ha traído los sucesos acaecidos durante la Guerra Civil en Urnieta. Es información recopilada de su padre y de otras fuentes. Sobre todo son historias de los primeros asesinatos y fusilamientos, y de las muertes que se vivieron en las casas del pueblo. También da alguna explicación sobre la gente que pasó por la cárcel, y también habla sobre la represión que sufrieron las mujeres, explicando como vivieron las mujeres de Urnieta las consecuencias de la Guerra Civil. Jon Unanue también nos explica como su abuelo tuvo que escapar a Iparralde. La religión tuvo una gran importancia durante la Guerra Civil en Urnieta, como casi en toda Euskal Herria. La religión, y sobre todo los curas, tuvieron mucha influencia. Excepto unos pocos, todos los demás tenían un gran respeto a la religión. Los curas de Urnieta eran de dos tendencias políticas: abertzales o integristas.

DESCRIPCIÓN DE LA FAMILIA

Nombre y apellidos

Jon Unanue López.

¿Dónde naciste?

En Donostia.

¿Tu fecha de nacimiento?

18 de marzo de 1964.

Como hemos dicho, has sido una persona que ha recogido y escrito los sucesos del pueblo. Cuentanos lo sucedido en Urnieta durante la guerra.

Yo he recopilado los testimonios de varias personas del pueblo y, sobre todo, lo contado por nuestro difunto padre y por el tío Daniel. Nuestro padre nunca nos habló de la guerra. Contaría cosas de la guerra, pero muy superficialmente, sin entrar en asuntos más serios. Recuerdo que en una visita que le hice al padre me empezó a hablar sobre una cosa que le sucedió a él de cuando era niño. Tendría unos 10 años, y junto con otros tres amigos (uno de ellos Florencio Zaldua y, los otros dos, Juan Bautista y Bartolome Urretabizkaia), fueron a nadar a un pozo pequeño de Hernani. A la vuelta los pararon los milicianos y los llevaron al cuartel de los milicianos de Hernani. ¿Vay Según me lo contaba me dijo que se estaba dando cuenta de que nunca había contado ese suceso. Se dio cuenta de que era la primera vez. Fue una aventura de niños, pero pasaron miedo por que los milicianos los llevaron al cuartel con armas. Estuvieron toda la tarde en el cuartel y al final los liberaron. Volvieron a casa y ahí se terminó el asunto.

*Tirando de ese hilo, escribí el primer artículo. Y tirando de ese hilo, el padre me empezó a contar cosas que hasta entonces nunca había contado. Mi padre fue mi primer informador, mi primer testigo para esclarecer lo que ocurrió durante la guerra, y para saber quienes fueron los primeros muertos cuando estalló la guerra en julio de 1936. La familia de nuestro padre vivía en la plaza de Urnieta, en la casa *Kontzejuzar* –ahora, se le llama, mal, *Eguzkialde*, entre otras cosas por dejadez del Ayuntamiento–, esto es, en la casa que está en frente de la casa del pueblo. La familia entera de nuestro padre, que entonces tenía 10 años, vivía en el primer piso. En aquellos días en los que estalló la guerra, nuestro abuelo escapó a Iparralde. Nuestra abuela se quedó con la mayoría de los hijos en casa. Un hijo estaba fuera, el tío Antselmo, estudiando con los jesuitas, por Durango. Cuando comenzó la guerra el ambiente se enrareció bastante y los hijos se cuidaban cerca de casa, como se podía.

*Así, el padre me contó como estaba en la ventana de casa sin poder salir a la calle, mirando a cuatro jóvenes que estaban jugando a pelota en los soportales del ayuntamiento. También me dio sus nombres, porqué era gente conocida. No eran urnietarras pero eran veraneantes que pasaban el verano en Urnieta: Garate Itxaso-Asu, los dos hermanos Araluze y Felipe Aranjuelo. Estando jugando a pelota, de pronto uno de ellos, Felipe Aranjuelo, escapó y los demás siguieron jugando a pelota. De repente, apareció un coche de los milicianos en la plaza. Apresaron a los que jugaban a pelota, les hicieron entrar al ayuntamiento, y después, les hicieron subir al coche y se los llevaron. Al día siguiente, uno de ellos apareció muerto, de camino a Lasarte, otro consiguió huir y se escondió en una casa del pueblo, en el caserío Garratza, creo. Ese fue el primer muerto que hubo en Urnieta por consecuencia de la guerra; los hermanos Araluze tuvieron mucha suerte: cuando los milicianos pararon el coche, uno de ellos saltó y logró huir, y el segundo, lo dieron por muerto junto con Garate Itxaso-Asu, pero en realidad solo estaba herido. Eso fue el 30 de julio de 1936, víspera de San Ignacio. Por lo tanto, el primer muerto que hubo en Urnieta lo mataron los milicianos. Aranjuelo, antes de que se acercara nadie, sospechó algo y se fue al cementerio, a la iglesia. De la ventana grande de allí se veía bien la carretera y pudo ver el coche de los milicianos. Se escondió, sin decir nada a los demás. Cuando llegaron los milicianos cogieron a los otros tres y se los llevaron. Por lo tanto, empecé tirando de ahí, y así escribí artículos con lo que me contaba mi padre. El primer artículo fue sobre ese joven. El siguiente fue del caserío Urmeneta; la de un tratante de ganado euskaldun.

*El padre me contó todos esos sucesos hasta que se le agotó la fuente. Estoy seguro de que no me contó muchas cosas , porque para eso nuestro padre era muy prudente y cuando hablaba sobre la gente del pueblo lo hacía con mucho cuidado. Por un lado es normal, pero me contó muchas cosas, y cuando se me terminó con el padre, empecé a hablar con gente de edad parecida o con mayores. Estuve hablando con los que quisieron, y así, fui completando un conjunto de artículos. Recogí información sobre los muertos y fusilados tanto por los milicianos como por los nacionales partidarios de Franco en Urnieta.

¿El nombre de tu padre?

Justo Unanue San Sebastián.

¿Cuantos hermanos eran?

Eran ocho hermanos.

orr.

FUSILADOS

¿Cuantos fusilados hubo en Urnieta?

Los datos están en mis artículos, pero siempre dados desde la perspectiva de los urnietarras, esto es, ahí no aparecen los que murieron en el frente de guerra debido al avance de los nacionales. Por lo tanto, uno Garate Itxaso-Asu. El segundo Paulino Mediaville… Después, Miguel el de Urmeneta; esos tres muertos por los milicianos. Luego llegaron los nacionales y Juanjoxe Elustondo (de Egurrola), Trino y Niko Olaizola y Julián Olasagirre, *Txuri*. Después, destrozaron a dos familias fusilando a Rafael Barkaiztegi, padre e hijo, y a Manuel Lasarte. Luego les tocó el turno a Joan Bautista Garmendia (de Azkonobieta) y al que fuera corporativo municipal Juan Joxe Izeta (de Mozotegi). Mientras, en el frente, Roke Lasarte fue apresado y fusilado… Por lo tanto, en total, tienes a trece fusilados, pero ten en cuenta que ahí no entran –excepto el de Roke– los muertos en el frente, en un bando y en el otro, por que fueron más… Por mencionar a uno, Martín Miner, que murió en Llanes. Además de los fusilados, están los muertos civiles en actos de guerra o en accidentes: ahí por lo menos hay que mencionar a dos: Xanti Urdanpilleta, que trabajaba como criado en Lartzabaleta y Anttoni Peñagarikano de Sabordegi, ambos con quince años.

ENCARCELADOS

¿Hubo muchos detenidos en Urnieta?

No conozco la cifra, pero muchos de los detenidos del pueblo, tal vez todos o la mayoría, fueron llevados por denuncias de gente del pueblo, algunas de ellas totalmente falsas, realizadas con la esperanza de algún beneficio de algún tipo u otro, además muchos realizados por vecinos suyos. Yo solo he conocido unos casos; por ejemplo, entre los detenidos por los franquistas, el matrimonio Miner Urretabizkaia, que estuvo preso durante varios meses en Donostia; Juan Bautista Miner en la cárcel de Ondarreta y Mari Kruz Urretabizkaia en el convento San José de la calle San Martín, porque hacia el final estuvo enferma. Fueron encarcelados por falsas denuncias de sus vecinos. Entre los apresados por los partidarios de la República, el anteriormente mencionado Juan Bautista Ayerbe Irastorza, secretario municipal.

En mi opinión, más que detenidos fueron los que fueron “adelante”, los que escaparon a territorio republicano cuando los nacionales llegaron a Urnieta, y también los que en los primeros días de la guerra, escaparon por miedo a los milicianos. También hubo quien tras andar muy adelante con las tropas republicanas y los milicianos, después de la guerra, tras pasar por un batallón disciplinario, volvieron de la mili con galones de sargento; y luego quien se aprovechó de esos galones ante los guardiaciviles... Hay muchas historias curiosas.

LA REPRESIÓN CONTRA LAS MUJERES

¿Qué dirías sobre la represión contra las mujeres en Urnieta?

Ese tampoco es un tema que lo haya investigado bien, pero indirectamente, he conocido algunas duras vivencias; sobre eso, por ejemplo Xabier Lasa sabe más de lo que pueda decir yo. De todos modos, ahí tenéis a las hijas de Kaxeta, las Arizmendi. Estaban obligadas a ir a Andoain; no eran las únicas. Es conocido que algunas tuvieron que sufrir el trauma de beber aceite de ricino y les cortaran la melena y les raparan la cabeza, en las comandancias de Andoain o Lasarte. Pero sobre ese tema ha habido una gran autocensura durante muchos años, un tema que no se podía tocar algunas veces. A la esposa de Rafael Barkaiztegi le hicieron pasar moradas. Además de que le mataran a marido e hijo, iban a su casa a burlarse a cuenta de eso, y además de eso, intentaron sacarle dinero. Yo eso lo recuerdo. He mencionado a los Arizmendi, los Alkain (hijas del bertsolari Fernando), Petra Mari de Alariku, Brigida Eizmendi esposa de Arruarte. A estas dos últimas, a Petra Mari y a Brigida Eizmendi, les raparon totalmente la cabeza y las pasaron canutas por todo lo que hicieron de vientre al hacerles beber aceite de ricino. Algunas, las que se tuvieron que ver perdedoras, prefirieron ir al exilio, viendo el panorama que había aquí; una de ellas fue Mikela Miner, que huyó a América viendo las miserias de aquí. También hubo autorrepresión, la de las que agacharon totalmente la cabeza por no sufrir más miserias ni consecuencias terribles: una de ellas fue Dolores Ikutza de Azkonobieta.

EXPROPIACIONES

¿Qué dirías sobre las expropiaciones?

